

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Zumaia



Aurkibidea

Udalerria: Zumaia

Sarrera



Urola Kosta eskualdeko herria da. Hedaduraz txikia izan arren, herrigunetik kanpo ere baditu zenbait auzo: Artadi, Narrondo eta Oikia. Azken horrek, herritik urrunago izanagatik eta handiena izanagatik, badu nortasun berezia, neurri batean herri izaera ere hartu baitu.

Hizkerari dagokionez, Zumaiako hizkerak oso gertuko du Itziarko hizkera eta, neurri handi batean baita Getariakoa ere. Hala ere, herrian bertan ere bi hizkera bereizten dira: kaletar-arrantzaleena eta baserritarrena. Azken horiek gertuago dituzte Aizarnazabal eta Zestoako hizkerak.

Argazkia: [Wikipedia](#).

- **Biztanleak:** 9.463
- **Euskaldunak:** %71,1

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **93**
- Zintak: **119**
- Pasarteak: **1.390**
- Transkribatutakoak: **128**
- Audioak: **8**
- Bideoak: **1.370**

Proiektuak

- 101L - Zumaia eleaniztuna
- Dialektologia-EHU
- Eibarko ermitak
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskalkiak.eus
- San Ignacio ikastetxea. Ahozko ondarea jasotzen
- Zumaiako ahotsak
- Zumaiako hitanoa
- Zumaiako hizkera
- Zumaiako toponimia

Hizlariak

Joxe Manuel Agirre Eizagirre *Endañeta* (1943)



Itziarko Endañeta baserrian jaio zen, eta bertan bizi izan zen ezkondu zen arte. 12 senideen artean erdikoa zen bera, baserriko lanak egiteaz gain, igeltsero lanetan aritu zen urte luzez. Harriarekiko zuen afizioari heldu eta Gipuzkoako harri-jasotzailerik onenetarikoa izan zen, harri errektangular eta kubiko handiekin ez zuen parekorik, askotan aurkariei abantaila ematen zielarik. Apustuak eta erakustaldiak nonahi egiten zituen, baita Iparraldean ere. Apustularitzan jardun zuen harik eta ezkondu zen arte, eta ondoren erakustaldiak soilik egiten zituen, 40 urterekin utzi zion afizio eta erdi ofizioari.

Joxe Mari Agirrezabalaga Aizpurua (1935)

Zumaiako Gurmendi baserrian jaio zen 1935. urtean. Baserrian bizi izan da beti, eta baserritarra izan da lanbidez. 2005ean elkarrizketa egin zitzaion Zumaiako toponimia jasotzeko.

Eustakio Alberdi Lizaso (1922-2006)

Oikia auzoan jaio zen (Zumaia) 1922. urtean, Konde etxean. Baserritarra izan da lanbidez. 2005. urtean elkarrizketa egin zitzaion Zumaiako toponimia biltzeko.

Joxe Mari Alkorta Alkorta (1934)

Otzango baserrian jaio zen 1934. urtean Oikia auzoan. 2005ean elkarrizketa egin zitzaion Zumaiako toponimia jasotzeko.



Josu Iñaki Alvarez Yeregi (1949)

Jon Alzibar (1921)

Zumaiako hitanoa jasotzeko proiektuan parte hartu zuen.

Miren Amilibia Alkiza (1933)

Miren Aperribai

Zumaiako hitanoa jasotzeko egindako ikerketan parte hartu zuen.

Karlos Aperribai Esteibar (1920-2003)

Joxe Mari Aramendi (1956)

Zumaiako Karakaszar baserrian jaio zen 1956. urtean. 2005an elkarrizketa egin zitzaion Zumaiako toponimia jasotzeko.

Ana Aristondo Aizpurua (1928)



Itziarko Elorriaga auzoan jaio zen. Udaletxez Deba izan arren, baserria hurbilago zegoen Arroa (Zestoa) eta Zumaiatik, eta txiki-txikitatik izan du lotura zuzena Narrondo auzoarekin. Umetan, bertako errotara joaten zen garia eta artoa ehotzera, eta, gaztetan, Arroako erromerietara jaisten zen. Ezkondu ere Narrondo auzoko Bitarte baserriko [Joxe Etxaberekin](#) (1926) ezkondu zen. Elkarrizketan, bere senarra eta koinata ([Miren Azpeitia](#), 1930) ere azaltzen dira.

Angeles Arozena Larrañaga Aldaba (1928-2015)



Tolosako Aldaba auzoko Lasarte baserrian jaioa; sei senidetan zaharrena. Aldaban bizi zela, Ikaztegieta joaten zen eskolara. 11 urterekin, Zumaiako "kolegiora" bidali zuten gurasoek. Zumaiako hainbat etxetan neskame ibili zen, harik eta 21 urte zituela Joxe Ramon Aizpurua harakinarekin ezkondu zen arte. 47 urte egin zituen lanean Harategi kalean zuten dendan.

Pako Arrizabalaga Solozabal (1931)

Beduatxikia baserrian jaio zen Bedua auzoan, eta baserritarra izan da lanbidez. 2005. urtean elkarrizketa egin zitzaion Zumaiako toponimia biltzeko.

Irene Azkue Egaña Patxi Barranderonekua
(1911-2002)

Zumaiako hitanoa jasotzeko proiektuan parte hartu zuen.

Estanis Azkue Elorriaga (1928-2023)

Zumaiako kalean jaio zen 1928. urtean. Igeltseroa izan da lanbidez. 2005. urtean elkarrizketa egin zitzaion Zumaiako toponimia biltzeko.

Manolo Azkue Elorriaga (1929)

Zumaian jaio zen 1929. urtean eta administraria izan da udaletxean. 2005. urtean elkarrizketa egin zitzaion Zumaiako toponimia biltzeko.

Miren Azpeitia Egaña (1930)



Narrondo auzoan jaio zen, "Azkueneko" etxeetan (Bombas Azkue lantegiaren parean). Lurrez Arroa da (Zestoa), baina Zumaiarako joera handia izan dute beti, hurbilago dagoelako. Arroara joan zen eskolara eta bere bizi guztia Narrondo auzoan egin izan du. Narrondoko kontuak biltzeko elkarrizketa egin zitzaion Mireni eta bere koinatuei, [Joxe Etxabe "Bitarte"](#) (1926) eta [Ana Aristondo](#) (1928).

Baserritarrak

2001. urtean, Zumaiako hitanoa proiekturako parte hartu zuen taldea da. Honako lagun hauek osatu zuten, hain zuzen ere: Eustakio Alberdi Lizaso (1922-2006), Jose Luis Urtubia Mesa (1926), Mariana Lopetegi Oliden (1915-2005), Ramon Peñagarikano Esnal (1937-2003), Emili Ibarbia Aldasoro (1914), Joxe Mari Aizpurua Azpeitia (1940), Ana Goenaga Alzibar (1927), Mertxe Garate Ugarte (1953).



Margarite Beobide Agirrezabalaga (1929)

Joseba Beobide Arburua (1937-2023)



Gerra garaian jaio zen San Pedro kalean. Julio Beobide eskultore ezagunaren 4 seme-alabetatik hirugarrena. Zuloaga, Uranga eta Txomin Agirrerren hurbilekoa izan zen bere aita; gaur egun bere izena daraman pasealekuan dagoen Kresala etxean zuen teilerra. Josebak Lekarozko (Nafarroa) kolegioan batxilerra ikasi eta Donostiako seminariora joan zen; 8 urteren ostean, 1962. urtean, apaiztu eta Pasaí Donibaneko elizaren ardura hartu zuen. 1966. urtean, Ternuara joateko eskaintza egin zioten bertako euskal arrantzaleen interprete lanak egiteko, Pasaia zen bakailaotako portu garrantzisuenetakoa eta. Guztira 22 urtez egon zen arrantzaleen zerbitzura Saint Pierre et Miquelon-en eta Saint John`s-en. Bertako bizipenetan oinarrituta, "*Hombres de Terranova. La pesca del bacalao. 1926-2004*" liburua argitaratu zuen Rosa García Orellánekina batera. Handik bueltatu eta Pasaia San Pedron eta Donibanen egon zen Santurtziko Stella Mariseko ardura hartu aurretik.

Trini Bidasoro Blasco (1920-2008)



Zumaiako San Telmo kalean jaio zen eta bertan bizi izan zen bizi guztian. Aita zumaiarra zuen, ama donostiarra. Bere aitona, Trino Bidasorok, itsasoko ura erabiliz bainuetxea jarri zuen Zumaiako hondartzan. Hiru belaunaldiz izan zuen Bidasoro familiak ("Triñotarrak") bainuetxea Itzurungo hondartzan. Itsasoko ura hartu, berotu eta erreuma sendatzeko bainuak ematen zituzten.

Joanito Dorronsoro Goikoetxea (1936)



Ataungo San Gregorio auzoan jaio zen, eta bertan bizi izan zen 11 urte bete zituen arte. Saturrarango seminarioan lehenengo, eta Donostiakoan gero, burutu zituen apaiz ikasketak. Apaiz izendatu zutelarik, bost urtez aritu zen Gaintzan apaiz lanetan, eta Itziarren urtebete igaro ondoren, Zumaiarako bidea hartu behar izan zuen. Apaizgintza eta fundizioko lanak uztartuaz jardun zuen denbora batez, harik eta apaiz izateari utzi zion arte. Herri mugimenduaren sortzaile eta bultzatzailea izan zen, ikastolen mugimenduak ere bete-betean harrapatu zuen, eta bera izan zen lehenengoetarikoa hezkuntzan bertsolaritza txertatzen. Bertsolaritza munduan Joanitok eginiko ekarpenak asko dira: 'Bertsolaritzaren Historia' sailkatua osatu eta 'Bertso doinutegia' egitasmo ikaragarria zedarritu zituen, besteak beste.

Magdalena Egaña Elorriaga (1931)



Zumaian jaio zen 1931. urtean, eta gurasoak ere zumaiaarrak zituen (amaren aita Itziarkoa bazen ere). 1950. urtean (19 urte zituela) hasi zen 'Ortiz' arrain-fabrikan lanean, eta bertan jarraitu zuen 25 urtez (1975. urtera arte). Antxoa eta atun kontserbak nola egiten ziren azaldu du, baita beste hamaika kontu ere antzinako Zumaiaz eta bizimoduaz.

Manuel Egaña Elorza (1926)

Azkoainzar baserrian jaio zen 1926. urtean. Txoferra izan da lanbidez. 2005. urtean elkarrizketa egin zitzaion Zumaiaiko toponimia biltzeko.

Juan Egaña Etxabe *Jontxu* (1932-2026)



San Telmo kalean jaio zen eta hantxe bizi izan da beti. Gazterik hasi zen zurgintzan aitarekin ontziolan. Ontziak egiten zituzten oso-osorik: egitura orokorra eta barruko guztia (egurrezko guztia: gelak, armairuak eta abar); motorra eta burdinazko gauzak ez zituzten egiten. Musikarako ere zaletasun handia izan du eta koruan abestu izan du gazte-gaztetatik.

Jexux Eizagirre Portillo (1948)



San Telmo kaleko "Romanenekoa" etxean jaioa. Umetan txoritara eta olagarrotara joaten zen lagunekin. Ubillos jauregian kokatutako mesedetako eskolara joan zen 10 urtera arte. Ondoren, guraso elkarteak sortutako akademian ibili zen; herritarrak ziren irakasleak. 15 urterekin Zestoako 'Guztiok Bat' tailerrean sartu zen. 16 urterekin luistarren zuzendaritzako kide izan zen eta ondo gogoan ditu orduko 3 gertakizun: Julio Beobideri omenaldia, 'Alkar Izketa' boletina sortu zutenekoa eta Zumarragako Orbegozo enpresak Zumaian fabrika ipini nahi izan zueneko istiluak. Zumaian indar handia izan zuen 'Herri Gaztedi' gazte mugimenduan parte hartu zuen. Legazpiko Patricio Echeverria enpresan ibili zen lanean eta grebarako dei eginez panfleto bat idazteagatik 2 hilabete pasa zituen espetxean. Hernanira ezkondua, AEK-ko irakasle ibili zen, baita Dobera Euskara Elkarteko zuzendaritzan ere, 'Kronika' egunkaria sortuz. Literaturazalea, hainbat ipuin argitaratu ditu. Langile mugimenduekin konprometitu eta politikan ere ibilia, gaur egun Zumaiaiko pentsiodunekin batera dihardu borrokan.

Mari Jose Elizalde Azkue (1958)



Mari Jose Elizalde Zumaian jaio zen 1958an. Zumaian pasa zituen bere haurtzaroa eta gaztaroa. Txitxarro dantzalekuan ezagutu zuen bere gizona izango zena. Ezkondu eta Eibarrera joan zen bizitzera, Mandiola bailarako San Pedro Akondia baserrira. Bi seme ditu. Baserriari eta hari lotuta dagoen San Pedro Akondia ermitari buruz dakien guztia, senarrarengandik eta haren familiarengandik ikasitakoa da. Ermitaren inguruko kontuak jasotzeko egin zitzaion, hain zuzen ere, elkarrizketa, *Eibarko ermitak* proiektuaren barruan.

Akelino Elosua Zubimendi (1913-2012)



Zumaian jaio zen, San Jose kalean, "Porteneko" etxean. Gaztea zela, etxean ganadua eta txerriak hazten zituzten; baratze txiki bat ere bazuten. Mekanikoa izan da lanbidez hainbat lantegitan. Gaztea zela, Errepublika garaian, UGT sindikatuan sartu zen eta herriko errepublikazaleen artean karguak izan zituen. Gerra zela eta, 11 urte igaro zituen herritik kanpo, lehenbizi Santanderren eta Asturiasen ihesi, geroago beste bi urte Katalunian, eta beste 9 urte Frantzian. Elkarrizketa egiteko unean 95 urte zituen; hala ere, bizi eta zehatz kontatu zituen bere bizitzaren inguruko gorabeherak.

Ximon Elosua Zubimendi *Porte* (1921-1998)

Zumaiako hitanoa jasotzeko proiektuan parte hartu zuen.

Maria Esnal Agote *Pakanekua* (1905-1994)

Getarian jaio zen, baina oso gazterik joan zen Zumaiara bizitzera, 15 urterekin. Ezaguna da Zumaian denda izan zuelako bertan urte askoan. Bere bilobak egin zion elkarrizketa Unibertsitateko ikasgai baterako.

Bixente Esteibar Azkue *Ixkiña* (1933)



Zumaiarra, "Kale berrixan" jaioa (gaur Mari kalea). Emaztea eta gurasoak ere zumaiarrak zituen: aita "Ixkiñatarra" eta ama "Patxi Barranderonekua". 12 urte besterik ez zituela hasi zen arotz lanetan aitarekin. 1958tik aurrera, aita hiltzean, Bixentek eta anaiek hartu zuten 'Esteibar' aroztegiaren ardura. Denetik egiten zuten, baina batez ere itsasontzien barruko lanak. Bere zaletasun handienak traineruak eta harraldeko arrantza izan dira: olagarroak, magurioak, andarikak, ixkirak...

Ana Mari Etxabe Egaña (1944)



"Intxaurrondonekua". Mari kalean bizi izan da. Azken urteotan, San Telmo ermita zaintzen laguntzen du. Berekin batera, [Ramon Zubia](#) ere agertzen da elkarriketa berean.

Benito Etxabe Etxabe (1928-2023)



Artadi auzoko Gorostiagaundi baserrian jaio zen, eta bertan bizi izan da beti. Emaztea ere auzune berekoa du. Baserriko lanetan aritu izan da. Umea zela, Artadi auzoan organo-jotzailea behar zenez, auzoko baserritar guztien artean musika-eskolak ordaindu zizkioten. Artadi auzoko elizan ikasi zuen musika eta organoa jotzen Zumaiako irakasle batekin. Lehenengo irakaslea Nemesio Etxaniz izan zuen. Benito izan da Artadi auzoko organo-jotzailea 60 urtez. Oikian eta Urdanetan ere jo izan du. Angulak harrapatzen ere nabarmendu da.

Pello Etxabe Etxabe (1946)



1946an Patxita Etxezarreta kalean jaioa, guraso biak oikiarrak zituen Pellok. Umetan Ubillos jauregian zegoen mesedetako fraideen eskolara joan zen eta 13 urterekin Alondegian kokatzen zen Lanbide Eskolan hasi zituen ikasketak. Ondoren ikasketekin jarraitzeko aukera sortu zitzaion Arrasaten eta han lortu zituen industria-maisu eta peritutzatza industrialeko tituluak. Zumaian lehenengo eta Arrasaten ondoren ibili zen lanean erretiratu arte. Orduan, hain zuzen, piztu zitzaion Zumaiako industrializazioaren inguruan ikertzeko grina eta baita horretarako lan-taldea osatu ere, *Zumaiako Industria-ondarearen Informazio Zentroa (ZIIZ)* proiektua sortuz. Ikerketa-lan horietan Oikiako historiari buruzko jakinmina ere sortu zitzaion, eta bertako hainbat kontu interesgarri ere aipatu zizkigun elkarriketan.

Joxe Mari Etxabe Goikoetxea *Mendaro* (1930-2009)



Zumaiako Mendaro baserrian jaio eta hazi zen; ama bertakoa zuen eta aita Askizuko Agoteaundikoa. Lau urterekin, Zumaiako San Pedrora joan zen eskolara, eta, geroago, Mutrikuko maisu partikular batekin eta mesedetakoekin ere ibili zen. 'Ortiz' kontserba-lantegia eta 'Pesa' garraioak izan zituen lantoki. 10 urtez aritu zen lanean 'Airadurex' transmisio-lantegian.

Bartolo Etxabe Oliden (1928-2008)



Oikiako (Zumaia) Lore baserrian jaioa. Ondoren, baserriaren gainean etxe berria eraiki zuten, eta hantxe bizi izan zen beti. Aitaren familia bertakoa zuen, eta amarena, berriz, Oikiako Jesuskoa baserrikoa. Gazte-gaztea zela izan zuen lehenengo autoa (Oikiako lehenbizikoa), eta harrezkero gidari lanetan aritu izan zen. Furgonetak eta autobusak izan zituen. Hasieran, batez ere, baserritarrak eta esnea Zumaiaara eramaten zituen; ondoren, Oikiako lantegietako jendea ekarri eta eramaten zuen.

Joxe Etxabe Udabe *Bitarte* (1926-2009)



Zumaiako Bitarte baserrian jaio zen 1926. urtean, Narrondo auzoan. Baserriko lanez gain, arotza izan zen Zumaian hainbat urtez. Gaztetan Zumaiako traineruan ere ibili zen. Bi elkarrizketa egin zitzaizkion: bata 2005ean Zumaiako toponimia jasotzeko; eta bestea 2008an herriko hizkera biltzeko. Azken horretan, bere emaztea ([Ana Aristondo](#), 1928) eta koinata ([Miren Azpeitia](#), 1930) ere azaltzen dira.

Klaudio Etxabe Udabe *Pikote* (1926-2011)



Pikote baserrian jaioa, Elorriagako (Itziar) mugan. Bertan bizi izan da beti. Baserria itsas ertzean bertan dagoenez, harraldeko arrantza ondo ezagutu du: gau-arrantza, olagarro arrantza eta abar.

Inaxio Galarraga Ibarbia (1943)

Artadi auzoko (Zumaia) Artadi baserrian jaio zen 1943. urtean, eta baserritarra izan da lanbidez. 2005an elkarrizketa egin zitzaion Zumaiako toponimia aztertzeko.

Manu Garate Aizpuru (1937-2013)



Zumaiako Goikotorreko etxean jaio bazen ere, gurasoak azpeitiarrak zituen Manuk: aita Urrestillako Koxo baserriakoa eta ama Nuarbeko Mendibilgoa. Maristetan ikasketak egin eta 14 urte bete berritan 'Otto Holke' lantegian hasi zen lanean. Beste lantegi batzutan ibili ondoren, familiako enpresa txikia, 'Xumai', jarri zuten martxan eta 1969an, herriko beste lantegi batekin elkartuta, 40 urtez martxan egon den 'Egurko' kooperatiba sortu zuten. Kanta eta bertso zalea, Zumaiako bertso-eskolaren sortzaileetako bat izan zen [Joanito Dorronsoro](#)rekin batera (lehenetakoa izan zen Euskal Herrian), eta Santa Ageda bezperan baserriz baserri koplak abestuz joateko ohiturari ez zion hutsik egiten.

Joseba Garate Elosua (1936)



Zumaiako Kale Nagusian jaio zen gerra irten baino egun batzuk lehenago. Eskola nazionaletan ikasi zuen. Ama arrain-saltzailea zuen, Joakina Elosua. Umetan amari lagundu zion arraina saltzen; gerora, arrantza asko egindakoa da, kainaberaz, harraldean, gabarrantza, motor txikian... Itsasoko kontuez gain, umetako joku eta jolasen gainean ere azalpen ugari eman ditu. Elkarrizketako zenbait pasartetan bere anaia Bixente Garate (1948) ere azaltzen da.



Jokin Gijarro Iruretagoiena (1987)

Jokin Gijarro Iruretagoiena, Oikia-ko (Zumaia) arraunlaria da. Zumaiako arraun-taldeko patroia da eta arraunaren inguruko kontuez aritu da: txapelketak, ontzi-motak, entrenamenduak, elikadura, osasuna...

Maria Antonia Goikoetxea Elustondo (1946)



Zumaiako Erribera kalean jaioa (garai hartan Portu Kalea), 5 senideko familian. Aita zumaiarra zuen eta ama Beduakoa (Zestoa). Aitaren partetik familia musikazalea izan zuen; aitak berak solfeoa irakatsi eta saxofoia jotzen zuen, eta bandako zuzendari ere izan zen urte askoan. Maria Antoniak kanturako zaletasuna izan zuen txikitatik eta parroikiko koruko partaide izan zen. 12 urtera arte mojekin ikasi zuen eta 41 urte zituela eskola-graduatu atera zuen. 'Goiko' taberna ezaguna eduki zuen familiak, 1958an zabaldua. Erribera kalea eta inguruak izan dituen aldaketak, taberna giroko ohiturak edo txikitako jolasak, besteak beste, izan zituen hizketagai elkarrizketan.

Luis Mari Goikoetxea Mujika *Goiko* (1949)



San Telmo kalean hazi zen "Goiko" eta Arrangoletako eskolara joan zen umetan. Lanbidez arotza, Ostolaza aroztegian egin zituen lehen urteak eta ondoren Xey altzari enpresan ibili zen erretiratu arte. Musikari familiakoa, 9 urterekin dagoeneko bandan parte hartzen zuen. Tronboia izan da bere instrumentua eta hainbat txarangatan ere parte hartu izan du. Arrauna izan da bere beste pasioa; izan ere, 30 urte baino gehiago eman ditu Aita Mari Arraun Elkarteko zuzendaritzan. Eskertza gisa, 2016an egin zioten omenaldia Zumaian.

Bakarne Gorostola Iribar (1933-2022)

Zumaiako hitanoa jasotzeko proiektuan parte hartu zuen.

Bitoren Gorostola Iribar (1936)

Zumaiako hitanoa jasotzeko proiektuan parte hartu zuen.

Jesus Gorostola Iribar (1929-2020)



San Telmo kalean jaio zen. Ama getariarra zuen; aitaren familia zumaiarra zen, eta aitona Zumaiako portuko praktikoa izan zen. Hamalau urterekin hasi zen lanean Balenciaga ontziolan eta hantxe jubilatzen. Bizi guztia itsasoan egin du, batez ere txibitan, baina baita kabratan eta abar ere. Elkarriketan [Akelino Osa](#) laguna ere azaltzen da.

Luixita Gorostola Iribar (1925-2020)



San Telmo kalean jaioa. Ama getariarra eta aita zumaiarra zituen. Gaztetan, Getariara oinez joan ohi zen despeskara eta antxoei burua kentze lanetara, baita Aizarnazabaleraino ere malutetara. Geroago, 'Amaia' hotelean ere ibili zen zerbitzari. Hoteleko bezero batzuek eskainita, Parisera joan zen neskame, eta han ezagutu zuen senarra. 18 urte egin zituen bertan. Bere lagun [Sabina Romatet](#)-ekin batera egin zitzaion elkarriketa.

Brigida Ibarbia Ugarte (1935)



Oikiako Pikaondo baserrian jaio zen Oikiako plazan bertan. Gurasoak ere bertakoak zituen (aita Pikaondokoa, ama Epeolabehekoa). Hamalau urtera arte Oikiako eskolan ikasi zuen, eta geroago, beste urtebetez, Zumaian. Josten ere ikasi zuen. Bere zaletasunik handienak jostea eta baratzean aritzea izan dira. Baratzeko kontuak oso ondo ezagutzen ditu, baita Oikiako gainontzeko kontuak ere: jaiak, ibaiari lotutako kontuak, arropa-garbiketak eta abar. Bera eta bere familia (ahizpak eta gurasoak) Oikiako elizako zaindari izan dira hainbat urtez. Hogeita sei urterekin ezkondu zen Zumaiaira, eta hantxe bizi da harrezkero.

Jose Migel Irigoien Etxabe (1952)



Arotz izandakoa, beste hainbat lanbidetan ere aritu izan da. Azken urteotan Zumaiaiko San Telmo ermitako zaindaria izan da: ermita garbitu izan du, txukundu, ezkontza eta elizkizunetarako prestatu... Horri buruzko elkarrizketa egin zitzaion "Zumaiaiko hizkera" bekarako. Elkarrizketan beste bi lagun ere azaltzen dira, Ana Mari Etxabe eta Ramon Zubia.

Mertxe Irureta Mujika (1947)



Guraso zumaiaarren alaba, Erribera kale ezagunean bizi izan ziren (orduan Portu kalea deitzen zen). Ama Juanita ileapaintzailea eta aita Angel 'barberua', kale berean zeukan bakoitzak bere lantokia, elkarren ondoan, eta ezinbestean maitemindu, ezkondu eta negozioak bateratu zituzten. Bi alaba eta semea izan zituzten. Mojen eskolara joan zen Mertxe 14 urtera arte, ondoren jostintzan ibili zen lanean. [Mari Pilar Manterola](#)rekin batera, 'Beti Gazte' dantza taldearen sortzaileetako bat izan zen. Beste zaletasun bat ere bazuen: mendia. Ahizparekin eta lagunekin mendira joaten hasi eta horrela ezagutu zuen senarra bihurtuko zen [Joxeba Zubiaurre](#) zarauztarra. Elkarrekin Indamendi mendizale elkartearen sortzaileak izan ziren, 1973an. Joxebaren argazkilaritzarako zaletasunak bultzatuta, urte askoan herrian ezaguna izan zen 'Foto Mertxe' argazki denda ireki zuten.

Xabier Irureta Sasiain (1936)



Zumaian jaio zen 1936an, bi anaietan gazteena bera. Eskolan mesedetakoetan ibili zen lehenbizi eta Zarauzko Antonianoetan ondoren. 13 urte zituela hasi zen lanean Zumaiaiko Beal lantegian, motorrak egiten. 19 urterekin soldadutza egitera joan zen, baina handik itzultitakoan lantegi berean jarraitu zuen. 28 urterekin anaiarengana joan zen Alemaniara eta bertan aritu zen lanean eta alemana ikasten. Alemaniatik bueltatu zenean, beste hainbat lantegitan aritu zen lanean, Mendaroko Azpiazun, esaterako. Zumaiaiko futbol-taldeko lehendakari izana da eta ikastolako sortzaileetako bat. EAJko kide, elkarrizketa egin zitzaionean ere alderdi barruan Erkiben aholku batzordean lanean ari da.



Joxefran Izpizua

Euskal Filologoa eta irakaslea Zumaian. Aita zumaiarra eta ama getariarra ditu.

Kuadrillak

Hamabost eta hogeita hamar urte inguruko gazteek tratamenduei dagokienez zer-nolako ohiturak dituzten jaso ahal izateko, Zumaian egindako proiektuan parte hartu zuten gazteak dira.

Abelin Linazisoro Azkue (1942-2022)



Zumaian jaioa. Gazterik hasi zen antzerkigintzan eta ondo ezagutu zuen Zumaiaiko kultur mugimendua. 1990eko hamarkadan oso ezaguna egin zen Euskal Herri osoan, *Goenkale* telesailean parte hartu zuelako. 1995etik 2005era bitartean, hiru nobela idatzi zituen. 2004tik 2009ra bitartean hainbat elkarrizketa egin zizkien Zumaiaiko adinduei Baleike aldizkariko *Gure Zumai Zarra* atalerako eta haiek kontatutakoak xehetasun handiz eraman zituen paperera.

Maria Jesus Manterola Amas *Bixi* (1927-2012)



Zumaiako Harategi kalean jaio zen Maria Jesus "*Bixi*", gurasoak zumaiarrak zituen biak. Lau anai-arrebatan zaharrena izan zen bera. Txiki-txikitatik lan asko egindakoa. Amonarekin hasi zen arraina saltzen; 10 urterekin Zestoara oinez joaten zen otarra buru gainean hartuta. Gogoan du albergara nola joaten zen etxeko arropa guztia garbitzera eta baita Zestoako Arozena hotelean lanean aritutako urteak ere. Kontserba fabrikan arraina garbitzen ibilia da eta arrandegia ere izan zuen.



Erramun Manterola Galdona *Porrajanekua* (1915-2009)

Zumaiako hizkera jasotzeko proiektuan parte hartu zuen.

Arritokieta Manterola Gomez (1924-2021)



Zumaiako Mari kalean jaio zen 1924. urtean. Ama "*Silvestranekua*" zuen eta aita "*Porrajanekua*", biak ere zumaiarrak. Hamar anai-arrebaren artean neska bakarra izan zen eta etxean lan asko egitea egokitu zitzaion, are gehiago aita gazterik hil ondoren. Bera izan zen Arritokieta izeneko lehenbiziko emakumea. Familian arrantzaleak eta arrain-saltzaileak izan zituen. Berak ere lan asko egin izan du, bai despeskan, bai arrain-fabriketan.

Ismael Manterola Gomez (1929-2013)

Zumaian jaio zen 1929. urtean. 2005ean elkarrietzeta egin zitzaion Zumaiako toponimia jasotzeko.

Ismael Manterola Ispizua (1966)

Zumaian jaio zen 1966. urtean eta irakaslea da lanbidez. 2005ean elkarrietzeta egin zitzaion Zumaiako toponimia jasotzeko.

Mari Pilar Manterola Salegi (1949)



Ama Lasturkoa (Deba) zuen, aita berriz zumaiarra. Portu kalean bizi ziren (gaur egun Erribera kalea). Ama jostuna zen eta Mari Pilarrek etxean ikasi zuen lanbidea. Horrela, mojetan ikasketak amaituta, gizonaekoan arropak egiten zituzten jostundegi batean hasi zen lanean. 'Beti gazte' dantza taldearen sortzaileetako bat izan zen 1966an, Inaxio Alberdi senarrarekin batera. Korrika egiten asko ibilia, emakume gutxi ikusten zen garaian, hainbat lasterketatan parte hartu izan zuen. Bere kontura euskaraz alfabetatu zen, Zarautzera gau-eskoletara joanez. Oikiako eskola txikian andereño ere egon zen urte batzutan.

Migel Angel Manzidor Aizpurua (1954)

Rafael Manzidor Alkorta (1950)

Artadi auzoko Dornutegi baserrian jaio zen 1950. urtean.

Joxe Olaskoaga (1940)

Joxe Ramon Oliden Lopetegi (1945)

Oikia auzoko Jesuskoa baserrian jaio zen 1945. urtean. 2005ean grabazioa egin zioten Zumaiaiko toponimia biltzeko proiektuaren barruan.

Adora Osa Arrizabalaga (1928-2026)



Arritokietara bidean dagoen Añezkoa kale baserrian jaio zen. Txikitatik jardun zuen han eta hemen lantxo txikiak egiten, enkarguak batez ere. Josten ere ikasi zuen, eta galtzerdiak josten aritu zen denbora batez. Itsasontziak kaian sartzen zirenean, Zumaian edota Getarian, herriko emakumeak bertara gerturatzen ziren despeskarako. Santos Irigoienekin ezkondu zen, eta Añezkoan bizi izan ziren. Adorak elkarrizketa garaian ere bertan bizitzen jarraitzen zuen.

Angel Osa Arrizabalaga (1922-2013)



Zumaian jaioa, Arritokieta ermitara bidean dagoen Añezkoa kale baserrian. Txikitatik baserriko lanetan eta bestelakoetan aritua izanagatik ere, itsasoko ibilerak ederki ezagutzen ditu, olagarrotan ere ibiltzen zen. Maristetan ikasi zuen lehenengo eta mertzedarioetan gero, eta Zumaian eta Zarautzen lanean aritu ostean, 'Egurko' kooperatibaren sortzaileetariko bat izan zen anaia eta beste zumaia batzuekin batera. Angel eskuinekoa da argazkian.

Xanti Osa Arrizabalaga (1926-2018)



Zumaian jaioa, Arritokieta ermitara bidean dagoen Añezkoa kale baserrian. Txikitatik baserriko lanetan aritua izateaz gain, mertzedarioetan ikasi zuen eta gerora, han eta hemen lan egin ondoren, 'Egurko' kooperatibaren sortzaileetariko bat izan zen anaia eta beste zumaia batzuekin batera. Xanti ezkerrekoa da argazkian.

Akelino Osa Elosua (1930-2015)



San Jose kalean jaio zen. Aita arrantzalea zuen eta gazte-gazterik hasi zen Akelino hari laguntzen. Igeltseroa izan da lanbidez, baina bizi guztia itsasoan eta arrantzan ibili izan da motor txikiaz. Elkarriketan [Jesus Gorostola](#) laguna ere azaltzen da.

Manuela Osa Etxeberria (1918-2016)

Zumaiako Basusta baserrian jaio zen 1918an. Baserritarra eta etxeakoandrea izan da lanbidez. 2005. urtean elkarriketa egin zitzaion Zumaiako toponimia biltzeko.

Begoña Ostolaza Linazasoro (1935)



Askuntze (edo Ondargain) etxean jaioa, paol bidean. Aita Aizarnazabalgoa eta ama Beduakoa, 8 anai-arreba izan ziren. 11 urte inguru zituela, Beheko plazako Erkibe etxera joan ziren bizitzera. Dantzarako zaletasun handia izan zuen gaztetan. "Amona Paka" ezaguna amaginarreba izan zuen. Senarra, Joakin, arrantzalea izan zen, Terranovan 22 urtez ibilia. Begoñaren zeregina etxea eraman eta seme-alabak haztea izan zen orduan. Geroago denda bat ere eduki zuten. Ikastolaren sorreran parte hartu zuen. Bertsolaritza, zinea eta bidaiatzea ditu afizio Begoñak.



Sabina Romatet Burrinea (1927-2020)

Arritokieta kalean jaioa. Gaztetan neskame eta umeak zaintzen ibilitakoa. Bere lagun [Luisita Gorostola](#)rekin egin zitzaion elkarriketa.



Eguzkiñe Senosiain Eizagirre (1939)

Itziar Treku Errettolanekua (1911-2002)

Zumaiako hizkera jasotzeko proiektuan parte hartu zuen.

Manuel Ugarte Lopetegi (1945)



Oikiako Epeolagoikoa baserrian jaio zen, eta bertan bizi da. Aita gazterik hil zen, eta Manuelek ere gazterik hartu zuen baserriko lanen ardura. Hainbat urtez 'Xey' lantegian lan egin zuen, jubilatu arte. Oikiako elizako sakristau izandakoa. Ehiztaria da.

Migel Urbietta (1954)

Zumaiako Arteaga baserrian jaio zen, Artadi auzoan, eta baserritarra izan da lanbidez. 2005. urtean elkarriketa egin zitzaion Zumaiako toponimia biltzeko.

Klara Urbietta Albizu (1924-2017)



Zumaian jaio zen 1924an, bost anai-arrebatan gazteena da. Eskolan, mojetan ibili zen. 12 urte zituela gerra hasi zen, eta herritik bidali zituzten anaia bat ihesi joan zelako. Zumaia utzi eta Bilbon egon behar izan zuten lagun batzuen etxean. 14 urte zituela, Zumaiako 'Probost' arrain-lantegian hasi zen lanean. Lantegiko lanaz gain, geroagoko urteetan jostun lanetan aritu zen Alberdi eta Etxaberentzako.

Gillermo Urbietta Etxabe (1958)



Zumaian jaio zen, eta bertan bizi izan da beti. Gurasoak ere zumaiaarrak zituen. Mesedetako fraideetan ibili zen eskolan lehenbizi, eta, horren ondoren, batxilergoa egitera Zarauzko Antonianoetara joan zen. 18 urterekin, Oikian hasi zen lanean 'Muebles el Modelo' altzari-lantegian.

Faustino Urbietta Zinkunegi (1924-2013)



1924an jaio zen Zumaian. Aita bertakoa zuen eta ama zarauztarra. Eskolan maristetan eta Arrangoletan ibili zen. 13 urterekin hasi zen lanean: Otto Holke lantegian peoi, leregi lantegian eta Getariako Orlando lantegian despeskan aritu zen, besteak beste.

Irene Yeregi Salegi (1924-2016)



San Pedro kalean jaio zen; geroago, Goiko Plazan eman zituen hainbat urte; azken urteotan, Yeregitarrek Julio Beobide ibilbidean egin zuten etxean bizi da (1957 inguruan eraiki zuen etxea bere familiak). Aita Usurbilgoa zuen, Jesus Yeregi, eta ama Oikiakoa. Hizkeran nabaritu egiten zaio pixka bat. Aita oso ezaguna izan zen, abertzalea eta gerra aurrean Zumaiaiko Batzokian lan asko egindakoa. "Yeregi Hermanos" motor-fabrika ere sortu zuen 1920 inguruan. Irenek ere bertan egin zuen lan gazte zela. Gai horietaz eta Zumaiaiko historiaz oro har hainbat kontu aipatu zituen elkarrizketan.

Maria Karmen Zendoia

Zumaiaiko hitanoa jasotzeko proiektuan parte hartu zuen.



Marian Zendoia (1949)

Mertxe Zendoia

Zumaiaiko hitanoa jasotzeko proiektuan parte hartu zuen.

Anton Zendoia Irigoien (1943)

Zumaiako Ardantza Txiki baserrian jaio zen 1943. urtean. Zumaiako toponimia jasotzeko elkarrizketa egin zitzaion.

Maria Zendoia Iriondo (1918-2008)

Zumaiako hitanoa jasotzeko proiektuan parte hartu zuen.

Ramon Zubia Azkue (1943)

Zumaian jaio eta bertan bizi izan da beti. Gaztetan mekaniko lanetan hasi arren, Zarautz eta Donostiara joan zen pastelgile izateko ikasketak egitera, eta hainbat urtetan gozo-denda izan du Zumaian. Horrez gain, beste hainbat kontu ere aipatu ditu elkarrizketan: ohitura zaharrak, elizari buruzko kontuak, arrantza eta itsasoa... Grabazioan, [Ana Mari Etxabe](#) ere azaltzen da.

Arritxu Zubia Gomez (1944)

Zumaian bertan jaio zen, Harategi kalean. Arrainduna izan da lanbidez eta Zumaiako toponimia jasotzeko elkarrizketa egin zitzaion.

Juan Ramon Zubia Gomez Oeste (1941)

Zumaian jaio zen 1941. urtean Harategi kalean. Hainbat urtez arrantzale izandakoa, 2005ean elkarrizketa egin zitzaion Zumaiako toponimia jasotzeko. Bere arrebari ere egin zitzaion elkarrizketa (Arritxu Zubia, 1944).

Joxeba Zubiaurre Gurrutxaga (1943-2023)

Guraso azpeitiarren semea: aita Urrestillakoa eta ama Matxinbentakoa zituen Joxebak. Lanagatik Zarautzera joan zen familia eta hantxe pasa zuen Joxebak bere haurtzaroa. 12 urterako hoteleko mandatu-mutil gisa lanean hasi behar izan zuen. Geroago 'Plásticos Zarauz' enpresako mantenimenduan aritu zen. Pagoeta mendizale elkarteko zuzendaritzan urte askoan ibili zen eta hain zuzen mendizaletasunak elkartu zuen [Mertxe Irureta](#) zumaiarrarekin. Elkarrekin Zumaiako Indamendi mendizale elkartearen sortzaileak izan ziren, 1973an. Joxebaren argazkilaritzarako zaletasunak bultzatuta, urte askoan herrian ezaguna izan zen 'Foto Mertxe' argazki denda ireki zuten.

Agustin Zubimendi Lopetegi (1944)



Oikia auzoko Lizarraga baserrian jaioa ('Txomiñene' izenez ezagunagoa). 4 anaietan zaharrena zen Agustin. Guraso biak oikiarrak zituen: aita Lizarraga bertakoa eta ama Iparragirre baserrikoa. Txikitan Oikiako eskolan ibili bazen ere, laster joan zen familia Zumaiaiko Kale Nagusira bizitzera (orduan Ignacio Zuloaga kalea) eta Ubillos jauregian kokatua zegoen mesedetako fraideen eskolan jarraitu zituen ikasketak. Umetan San Pedro parrokian akolito gisa ere ibili zen eta 12 urterekin seminariora joan zen. Bankuko langile eta baita zuzendari ere izan zen jubilatuta arte. Zumaiaiko hainbat abesbatzatan parte hartu izanagatik ezaguna da Agustin, bai kantari baita zuzendari gisa ere: 'San Pedro' abesbatzan eta jubilatuen 'Beheko Plaza' abesbatzan, esaterako, edo hain kuttuna duen Gabon Koruan. Zumaiaiko pilotaren giroa ere gertutik bizi izan zuen gaztetan.

Javier Zulaika

Jose Mari Zulaika Etxabe (-2018)

Joxepa Zumeta

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Euskara

1.1. Fonetika/fonologia kontuak Zumaiaiko euskarari

- **Hizlaria(k):** Izpizua, Joxefran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-004/003
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:04:55. **Bukatu:** 00:08:40
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Fonetika/fonologia kontuak Zumaiaiko euskarari: -dxa bukaerak, u-z bukatzen diren hitzak, gaztelaniazko -ión amaierak... Zumaiaiko euskararen eta Getariakoaren arteko konparaketa.

Transkripzioa

- Filologian batez ere fonetika ta fonologian espezializatu nitzanez, ba, iruitzen zait, gauza batzuk badiala pixkat erne ibiltzekuak, ez? Erne, edo...

edo harrapatzekuak, ez? Nahiko Zumaiko bereizgarria iruitzen zait galtzen ai dan -i -a elkarketak. Hau da, epentesi hori, -dxa edo hori. Eta gaiña, bueno, esaerak oan ere badaude, ba, nola aldatzen juten dan, ba, Zarautzen -ya, eta ya Getaitik Zumai aldea ya -dxa, Itziarren -xa. Eta ya hemendik ya Mutrikura -xa ta horrela, ez? Zumaiko da hori, ba, -xa hori, baina ahostuna, -dxa, ez?

- Bai. Tarteko zeoze.

- Getariakoaren berdin-berdina da zuentzat? Neretzat bai, baiña zuentzat?

- Neretzat 'e bai, baiña zailla da esatia, ze guk ama Getaikua deu, baiña nik hala bizi izan det, neretzat berdiña da hori, Getaikua ta Zumaikua. Getaia ta Zumaian arteko beste diferentziak izango dia igual ba, t-ren palatalizazioa... Bai, ba txikitan neri beti adarra jotzen ziaten Getaiako lehengusuak esaten ba guk "aitta" esaten genulako, ez? "Aitta" ta haiek "aita". Baiña hori ez da -ia, hori beste kontu bat da, ez?

- Eta hemen normalian bustidura haundiagoa izango da?

- Bai, bai. Zenbat eta mende balderago, gehidxo eiten da, ez? Eta geo beste bat, uste det analogiaz eiten dan kontu bat, eta dexente galdu dana, eta da -u-z bukatutako hitzak -kin ez doazenian, Zumaian beti -o esan ditugula, ez? Ordun, "negua", baiña "nego hartan", ez? "Dirua", baina "diro asko", edo, ez dakit, ez? Edo, "katua", baina "kato", ez? "Kato bat" edo "hiru kato", ez? Eta holakuak. Batuaz edo gipuzkeraz edo -u-z bukatuak direnak, baina guretzat ez dira -u-z bukatuak. Guretzat jokarazten ditugu -o-z bukatuak balira bezela. Eta gero, -u-rekin -a-ren kontaktuan gero ixten ditugu eta egiten dugu -u, ez? Baina -a-ren kontaktoan ez badago, -a, bueno, mugatzailearen ondoan, ba, ordun, -o hori ageri da.

- Eta esango zenuke hamen Getarian baino nabarmenagoa dela? Zumaiko kontua dala? Edo...

- Ez dakit. Hoixe bai ez dakitela. Ez dakit Getaidxan ere eiten dan hori edo ez. Litekena, e!, baita. Geo, nei iruitzen zait Getaitik Zumaira, adibidez, berriz ere Getaitik Zumaira, alde bat izan daitekela gaztelaniazko -ón bukatutakoak, ba, "kamiona", "kamioia", holakoak, ba, diferente egiten dila. Eta hau uaintxe ez naiz akordatzten. A ver... e... Nola zan? Zumaian "kamioia" eta haidxek "kamiona".

- "Kamiona" ta "frontona".

- Bai. Eta, eta gero ez dakit zenbateaiño, horren, pues, klaro, hola, ai naiz pixkat enteratu gabe ezer, baiña beti're bukaeretan erreparatuta, baita ere -ón bukaera gaztelaniaz dutenak, -oi egiten ditugunak, adibidez, "balkoia" -a-rekin kontaktuan, baiña bestela, ta uste det hori're oso galdua dala, bestela uste det "balkoe" modukoak esaten ziala Zumaian.

- Hori Getarian iruitzen zait oso, oso...

- Nabarmena, ez?

- Nabarmena dala eta Zarautzen ez dana gertatzen. Zarautzen sekula ez dana gertatzen eta Getarian "morroe" eta "zimarroe" eta...

- Hori da. "Zimarroia" baiña "zimarroe".

1.2. Fonetika/fonologia kontuak Zumaiko euskaran

- **Hizlaria(k):** Izpizua, Joxefran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-004/004
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:08:40. **Bukatu:** 00:10:30
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

- **Laburpena:** Fonetika/fonologia kontuak Zumaiaiko euskaran: a/e alternantzia (basarri/baserri). Bere iritziz Zumaiaiko euskara gipuzkera da, baina mendebaldeko gipuzkera, mendebaldeko eragina Zumaiairaino eta, aldi berean, Getariaraino iristen delako. Zumaiaiko euskaratik hurbilenekoa Getariakoa; Itziar/Debako euskararekin eta Zestoakoarekin aldea handiagoa da.

Transkripzioa

- Eta geo beste batzuk, pues, -a / -e alternantziak: "basarridxa" eta ez "baserria", holakoak, ba, mordoxka bat badia, baiña oaintxe ez datozkit burura, baiña... "Berridxa" esan deu beti, "berri", o sea, badira kontu batzuk mendebaleruntz, baiña ziharo mendebalekoa izan gabe. Nei iruitzen zait Zumaiko hizkera gipuzkera izan dala, baiña oso mendebaleko gipuzkera. Hola, mendebaleko isoglosa pillo bat sartzen dala, ez, hor. Ta nik uste det Zumaira sartzen dian asko, Getairaiño sartzen dala. Gero igual Getaitik Zarautza igual alde bat dao ta nahiko aldaketa nabarmena iruitzen zat ya dala Zarautzikan Oriora, hola, kostaldea beituta. Eta beste aldea, ba, Zumaitik Itziarra ere alde haundi xamarra dao, bai. Bueno, edo zeon. Ze orain dana hola zeatzen ai da, ez? Berdintzen, edo, bueno, holako zeoze. Ez dakit...

- Esango zenuke berdintsuena hau dala, Getarikua?

- Nik uste baetz, baiña...

- Zestua?

- Zestuakua´re ya pixkat lerratzen da baita´re, ze, adibidez, -dxa bukaera hori beaiek -ya due, zarautzarrak bezela. Honbre, gero hizketan, ez dakit. Hitz batzutan eta horrela, ba, antzekuak izango dia Zestuakua ta [...]. Zestuakua ez det horrenbeste kontrolatzen hola esateko, ez dakit horren ondo, hola, esaten. Hola, ez zat tokatu, ez, baiña... Baiña bai, honbre, zestuarrai igartzen zakoe, ez? Hola... bai, bai.

1.3. Morfologia kontuak Zumaiaiko euskaran

- **Hizlaria(k):** Izpizua, Joxefran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-004/005
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:13:20
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Zumaiaiko morfologiaren inguruko kontuak. Zumaiaiko nor-nori adizki jatorrak: zat, zako, zakoe... Pluralgileak. Lehen mendebaldeko pluralgileak erabiltzeko joera handiagoa zegoela uste du; lehen "diaz" bezalako formak erabiltzen zituzten. Zumaiaiko adizkiek gipuzkerako oinarria dute baina baita bizkaieraren eragina ere.

Transkripzioa

- Geo, bueno, morfologian, oaintxe bota det eta, ba, NOR-NORI aditza, pues, izugarri aldatzen ai da. Zumaian zan, ba, "zat" eta ez "zait", "zako" eta ez "zaio", "zakoe" eta ez "zaie". Hor ere -oe azaltzen da, lehengo "balkoe" esan deun hori. Beste kontu bat da, baiña bueno... Eta gero, aditzaren morfologian ere pluralgileak asko aldatzen ai dia. "Ai dia" oker ez banao lehen "ai diraz" esaten gendun, beraz, -r eta -z, hau da, gipuzkeraren pluralgilea eta bizkaierarenak, bidxak esaten giñuzen.

"Giñuzen" ere, ba, mendebalekoa da eta ez gipuzkera betikoa, -it pluralgilearen orde. Hau da, pluralgilea askotan ere mendebaleko joera genun, ez? Edo "giñun". Eta zer esanik ez, lotura bokaletan, pues, baita ere -a, ez? "Nitxan" eta ez "nintzen", ez? Eta gaiñea hori...

- Bustidurarekin.

- Bustidurarekin, bai, dudarik gabe, bai.

- Eta hori gaiñera da hemengo bereizgarria da, ez? Getaria ta Zumaia...

- Bai, dexente, bai. Adibidez, Zarautzekin ta konparatuta, bai. Eta esaten dizut, justo txikidxa nitzala, Getaria juten nitxanean, ni behintzat nitzan "aitxa" esaten zuna eta haiek "aita" esaten zuten, ez? Ya Zumaitik Getarira ya bazun ya aldaketa txiki hori bustiduraren inguruan baita, ez?

- Adizkietan nahiko, Getarian ere nahiko, ez dakit zein adizkitan dan, baiña "ikus (di)txut" eta holakoak...

- Bai, bai, bai, bai. Pluralgille hori "txut", "txat", erabat, bai, bai, bai, erabat. Oaindak ere egiten diala iruitzen zat hori, ez?, dexente. Ba, ez dakit. Aditzak, eske, paradigma osua dia uste det, nere ustez galdu dianak, ez? Baiña ez dakit. Adibidez, IZAN aditza, ba, oker ez banago, zan "etorri nax", "nax" edo holako zerbait, diptongoa behintzat ez eta -z bustia, bai, oso nabarmen, batez ere hikaz, "hax", oso nabarmen. Ta geo, "geaz", hau da, gipuzkera eta bizkaiera arteko forma bitxi hori, gipuzkeraren g- horrekin eta bizkaieraren -z horrekin: "geaz", "zeaz", "zeazte" eta "diaz". Eta horrela, aditz paradigma osoak hartu daitezke eta guztietan ikusten ba, badala pixkat, hola, ba, gipuzkera eta bizkaieraren arteko, hola, ezaugarriak, ez? Oñarria nere ustez gipuzkera, izanik, baiña ez da Deba Bailaran aiña sartzen Bizkaia.

1.4. "Zikak" adizkia

- **Hizlaria(k):** Izpizua, Joxefran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-004/007
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:14:55. **Bukatu:** 00:15:25
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Zumaia euskararen berezitasun bat: "zidak" esan beharrean "zikak" bezalakoak esatea.

Transkripzioa

- Eta hori, geo... a! Badao igual berezitasun bat "zait" hitanoz edo alokutiboan esaterakoan, ba, "zidak" edo holakoak esan beharrean Zumaian beti "zikak" esan degula, eta nahiko forma bitxia da! Ez dakit nundikan datorren hori, batez ere -k- hori. Baiña bueno, izan daiteke analogiaren bat edo holako zerbait. Hiperzuzenketa ez det uste danik.

1.5. Auzoen arteko aldea hizkeran

- **Hizlaria(k):** Izpizua, Joxefran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-004/008
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:15:25. **Bukatu:** 00:18:00

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Zumaia lexikoa. Zumaia kale eta auzoen artean ere ba omen zegoen aldea lehenago hizkeran eta lexikoan. Oikiako euskara Zumaia kotik desberdina da. Auzoen arteko aldea hizkeran.

Transkripzioa

- Geo, puf!, hiztegi, eske lexikoa izugarri aldatu da, ez? Eta hor ya galdu egiten naiz. Ez dakit. Ez det horrenbeste... holako... Sarasolanakin... Esaten dizuet, ni batez ere, neretzat soinu mundua izan da interesantea eta hortxe ibili naiz, ez? Baiña, bai. Hitz bereziak mordua dia itsaso inguruan. Geo badakit Zumaian bereizten dila, bereizi izan dila, bereiztu izan dila baita ´re, bai San Telmo kaleko hixkerak eta bai Arritokietako kalekuak. Eta, eta geo, ba Arrukalekuak eta abar, ez? San Telmo kalekuak, ba, ya itsasoko zea gehio ta hola, eta ya Arritokietakuak, ba, ya baserritarraguak eta...

- Eta benetako bereizketa bat zan?

- Hala esaten due, bai. Nik osaba-izekoi ta aitu izan diyet, ez?, hola, ba, "bai, San Telmo kalekoen hitza zan" ta ez dakit zer ta holakuak aitu izan ditut. Oain, ez dakit esateko hola adibiderik, burura ez datorkit, baiña... Baiña bai, aitu izan det holako...

- Eta auzuetan bai izango da... desberdiñak dira? Oikian...

- Bai, bai. Oikian dudikan gabe, bai, bai. Hori ya, bueno, Zumaidxa da administratriboki, baiña hizkeraz beste kontu bat da, ez?

- Eta hizkeraz gehiago Aizarna inguru... Zestua, Aizarna, Aizarnazabal...

- Bai, bai. Iruitzen zait alde horta bai lerratuko da, ya barrualdeko zea, ez?

- Eta bestela, beste auzuetan edo? Elorrixan ta?

- Elorrixa ez da Zumaia.

- Basarri batzuk ere ez?

- Ez.

- San Migel auzua?

- San Migelen ez dakit oso ondo.

- Hura aparte xamar bezela gelditzen da, ez?

- Bai, bai. Hor, karo, Artadiko baserri batzuk Zumai aldea dia ta beste batzuk Oiki aldea. Ordun ez dakit hor ere aurkituko dezuen diferentziarik edo, ikusi beharko litzateke. Pentsatzekoa da hor nunbaitetik isoglosa batzuk pasatzia, ez? Eta hor alde batzuk, aldaketa batzuk gertatzia. Baiña ez dakit, egidxa esanda ez nax gehidxege zeatu hortan. Ez dakit. Bai, baiña bueno, nabarmenena behintzat auzo aldetik Oikikua da desberdiñena. Eta gero Zumai barruan, ba, hori, ba, nik aitu izan detenez behintzat, ba, San Telmo kalekua nahiko, nahiko bitxia zan, nahiko beria, ez? Bizimodua ´re, pues, arrantzaleen kalia zan eta nahiko desberdiña zuten. Orduan, pues, normala da hor pentsatzekua, bai. Hartu-emanak ere beste batzuk izango zituzten itsasoko jendiakin eta bueno, bizibidea desberdiña izanik, normala, ez?

1.6. Fonetika/fonologia kontuak Zumaia euskarari

- **Hizlaria(k):** Izpizua, Joxefran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-004/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:22:35

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Fonetika/fonologia kontuak Zumaiaiko euskaran: a-z bukatzen diren zenbait hitzetan bokalen luzapena: "neskaa", "saldaa"; z/s eta tz/ts neutralizazioak.

Transkripzioa

- Fonetikan, Zarautzen aztarnaren bat jaso degu, baiña hemen arruntagua izango da -a mugatzaillia, -a-z bukatzen dian hitzetan, -a mugatzaillia eranstea: askaa, gaztaa, pasaa...
- Bai, hamen dezente. Hori entzungo dezue. Zaharrei aituko diezue hori: neskaa... Gaztaa-rekin kontuz ibili behar da, kasua berezia da.
- Hemen gaztaia da?
- Ez, gaztaa da baita, baiña gaztaa beti hitz berezia da. Gazta ta ardua. Gazta ta ardua bereziak dia ze jatorriz beste hitz batzutatik datoz, ez? -n-ren erorketa: gaztana edo ardanoa omen zian hitz zaharrak. Baiña bai, neskaa eta azaa eta holakoak oaindikan...
- Eta saldaa...
- Bai, saldaa...
- Zarautzen lau edo bost hitz dia: neskaa, azaa, saldaa...
- Bai. Hoidxek aitzuko dituzue. Eta Itziarren ya, ya aldatzen da.
- Askia, saldia...
- Bai, bai...
- Neskia.
- Bai. Ya, disimilatu egiten da. Hor, ba, hori, hoiek ere... Bueno, ahaztu egin zait hori esatia, baiña hoidxek ere aitzen badituzue, ba, hoiei, hoiek entrebistatu. Hoiei atera, ahal dana, ez? Bai.
- Eta zeta? Jende zaharren artian -z-...
- Ez da bereizten, ez. Bueno, mendebalean bezela. Eta gaiña nik uste hori ya Donostiraño aillegatzen dala. Baiña Normalean -s- ta -z-, -s- antzeko batean asimilatzen dia bidxak. Eta -ts- ta -tz, -tz. Osea, -ts-´re ez da... Osea, pertzona, eta abar. Osea, -ts- iñondik ere iñoa ez da aitzen.
- Nik zalantza daukat, Zarautzen, baserritar batzuen artian eta, ño!, beti ez da -s- ta -z- arteko zeoze. Batzuetan...
- Zeoze bereizten da?
- Bai. "Gazte" ta hitz batzuetan nik uste det hor daola, jende nagusia eta baserritarra.
- Ya.
- Kaletarren artian esango nuke galdu dala. Baiña Urdanetan eta Urtetan eta Aian eta...
- Barrualdea, ezta?
- Esango neuke, hor...
- Bai.
- Hor dagola, e!
- Bai. Ba nik uste det ya z-ak aitzeko barrualdea jo behar dala.
- Horreatik. Igual hemen Oikiñan nagusi-nagusi batzuk...
- Ez dakit. Oikiyan ez dakit...

1.7. Zumaiairrek eta oikiarrek doinu desberdina hizkeran

- **Hizlaria(k):** Ibarbia Ugarte, Brigida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref:** ZUM-006/001
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:00:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Zumaiarrek eta oikiarrek doinu desberdina dute hitz egitean. Aizarnazabalera ere hizkera aldatu egiten da.

Transkripzioa

- Ni zumaiarra-zumaiarra ez naix, e! Zumaia "Zumaixa" ta zea horretakua ez naix ni. Ni naix neure... Guk ikasi genduna, beste doiñu batekin.

- Oikiyakua?

- Oikiyakuena, bai. Oikiya.

- Diferentia da orduan?

- Bai, bai, bai, bai, bai. Bai, Getaira eta danea, baita... Oikiya behian dao, eta gora iyo, Miako Gaiña, Alto de Meagas... Senarra, bai. Alto de Meagasa iyo ta ziharo ezberdiña da. Aizarnazabal ere bai.

2. Herria, azpiegitura

2.1. Zumaiko auzoak eta mugak

- **Hizlaria(k):** Izpizua, Joxefran
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-004/009
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:20:20
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala
- **Laburpena:** Zumaia, Deba eta Zestoako mugako baserriak; mugak ze ingurutan dauden. Zumaiaren lurak. Zumaia eta Getariaren arteko muga. Zumaiko auzoak.

Transkripzioa

- Auzo bakarrak hoiek dia, ez? San Migel... Hor Elorrixa ez da, baiña Elorrixatik Zumairako tarte horretako baserritarrak eta, hori...

- Hor baserri gutxi dia Zumaikuak, e! Bai.

- Gehienak Itziar dia?

- Ya. Gehienak Itziar dia. Ya... Bueno Pikotea izango da Zumaiko azkena oker ez banao... ez dakit oso ondo, e!, hor mugan. Badakit hor'e Zestua sartzen dala.

- Eske, Arrua ya Zestua da.

- Bai, eta oker ez banao, aber, nola zan? Iparre Zumaia da, hor Jadarre gaiñean daon baserriya, karreteran bertan jarraituta, oker ez banao, hurrengo basarridxa Xarrondo Behekua Zestua da eta Xarrondo goikua ez dakit, baiña ondorengua, Endañeta, behintzat ya Deba da. Asike... eta elkarren onduan daude danak! Hoidxe danak bide batian, baiña hor Zestuak egiten du holako zea bat, gauza arraro bat Zumaia ta Deban arteko mugetan. Eta gero ya itsasoan Zumaia ta Deba, beno, ya Deba, Itziar, oso, oso urrutira dijua. Zumaiak ez det uste, hola, kosta haundia dunik. Ze, Santidxoko plaian ere, Santidxoko plaiaño da Getaia, garai

batean erridxoaiño. Eta hor izan zian historian hainbeste borroka eta eztabaida batzarretan eta hori Getaia ta Zuamaia artian, erribera hori zeinena zan ta hori. Eta, eta gero hori, ba, Urolaren alde hontatik hasita ta Pikoteaño, ba, ez da pusketa haundidxa. Zumaia gehio barrualdea sartzen da, hori Indamendiraiño, eta garai batean Aizarnazabal´e bazan Zumaia, baiño bueno, hizkeraz beste kontu bat da. Hori diferentia da, bai. Bai, baiña auzuak hoiek. Bueno, geo Txikierdi daukazue, Txikierdi, Narrondo... Narrondo, Larrondo, aber jendiak nola esaten dun. Ze, ofizialki badirudi n-kin dala, baiña l-kin askotan aitzen da. Erridxuai´re Larrondo entzun izan det deitzen. Bai, eta gero, ba, hori, Gautxori edo Jadarre hori eta beste auzuak, bueno, estazioko auzua ta hola, baiña ya, ya Zumaian geatzen dian auzuak dia, ez?

2.2. Jadarre eta Estazio ingurukoek euskara desberdina

- **Hizlaria(k):** Linazisoro Azkue, Abelin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-005/002
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:05:15. **Bukatu:** 00:06:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- **Laburpena:** Arrantzale kultura eta baserritar kultura desberdinak dira Zumaian. Jadarre auzo inguruan lehen bi baserri eta etxe bat besterik ez zeuden. Hangoek hizkera desberdina zuten eta baita estazio ingurukoek ere. Beraiek "dxa" bukaerak egiten dituzte eta hangoek "ya".

Transkripzioa

- Nahi det esan, baserritar kulturak... Arrantzale kulturak eta baserritar kulturak diferentzi haundia die hemen Zumaian. Eta adibidez, ba, estazio aldekuak edo Jadarre edo Gau Txori aldekuak... Jadarre barriyua ezautzen dezue?

- Bai.

- Ba, alde hortan, ba, zeuden lehen bi baserri eta etxe bat, gehio ezer ez. Ba, hanguak ya hizketan diferente hitz eiten zien, ez gu bezela. Eta baita estaziyoak ere bai. Guk "estadixua" esaten giñun, "estadixokuak", ezta? Haiek ya, guk "gorrixa", "haundixa", "eurixa", eta haiek "euriya", "haundiya", "gorriya", Zauztarrak bezela. O Arruakuak bezela, ezta?

- Bai. Eta Oikiyan ta holan esaten da, ezta?

- Oikiyan´e baserritarren... "Oikiya", "Oikiya", "Oikiya". Ta guk "Oikixa".

2.3. Zumaiko ospitalera esnea eramaten zuten

- **Hizlaria(k):** Etxabe Oliden, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-010/011
- **Iraupena:** 0:04:20. **Hasi:** 00:29:00. **Bukatu:** 00:33:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- **Laburpena:** Inguruko baserritarrak normalean Zumaiara joaten ziren saltzera; gerora baita Zarautzera ere. Oikiako geltokian egunean lau tren gelditzen ziren. Baserritarren jeneroak kargatzeko bagoi berezia etortzen zen batzuetan eta han sartzen zituzten esne-marmitak eta bestelakoak. Bera umetatik Zumaiara joan izan da esne-partitzera. Beraiek zuten Zumaiako ospitalera esnea eramateko obligazioa. 8-10 behi izaten zituzten eta ordurako asko zen hori. Esne asko eramaten zuen kalera berak eta gerora jendea eramaten ere hasi zen autoarekin edo autobusean.

Transkripzioa

- Eta bestela, e, gerratik aparte, e, baiña... lehen, zure gazte denporan eta, hamengo baserritarrak nola juten ziran azokara? Azokara o saltzera...
- Zumaira, zumaira.
- Zumaira beti?
- Beti Zumaira.
- Zarautza, o...
- Zarautza ta juten ta, klaro, nik autobusa hartu nunian ta, autobusakin hasi niñun ni azoka Zarautza juten-ta ta. Ta hamen, estaziyuan, Oikiyan estaziyua bazeon. Ta Oikiyako estaziyuan goizeko... egunian lau tren geatzen hittun. Ta goizian lanea zijuan jendia ta, hor zeozer eaman bihar baldin bazun, esnia ta o zeozer, marmittakan bat esne o hor, bagoi espeziala ekartzen zin trenak. Ta zea, andenian toki bat eoten huan, zea, inguruan zea, ta haien parian gelditzen huan bagoi hori...
- [Esnia...]?
 - ...han kargatzen...
 - Esnia kargatzeko.
 - Marmittak eta kar...
 - Marmitak...
 - Marmittak eta kargatzeko ta beste, tomatia ta iten huan orduan asko... asko eo... Oaingo ez dek asko baiño ordun eskutan astuakin ta eaman bihar huan estaziyoa ta, karo. Ta uain kajetan ta ibiltzen dek, baiño ordun astaotarretan, bere, astuan bere otarretan ta ibiltzen huan ta. Karo, gauzak diferente, askosez zaillo huan zea, lan hori itten, baiña... horrea, estaziyoa eamaten zin.
 - Eta zuek, esne-partitzen eta, esan diazu, zuk beti Zumaian.
 - Zumaira.
 - Esne-partitzen...
 - Bai.
 - Txiki-txikitatik?
 - Bai, txikittatik eo... Bai. Zumaiako ospittala ein zanetik, obligaziyua geneukan guk ospittalea eamateko esnia. Ospittala guk sostenitzen giñun, zeak, Lorek. Basarriyak zakan zea, obligaziyuai eutsi. Hamen zan basarri fuertentxona huan hau garai hartan, ta, klaro, obligaziyua...
 - Ganau asko?
 - Askok, asko...
 - Beste batzuk baiño gehio.
 - Oaiñ ez dituk asko, baiña garai hartan bai. Garai hartan igual eongo hittun zortzi-hamar bat behi, ta garai hartan asko huan. Oain berrogei eozein lekutan zabek!
 - Eta esnia ospittalea orduan?

- Bai, eunian, eunian eaman behar izaten gendun zortzi litro esne ospittalea, urtetan, e! Kao, ospittala fundatu zanetik hasi, ta ni esnetai laga niyon arte, esnia ematen segi. Nik ez dakit ba zenbat urtian... berrogei urtetan baiño gehio huan...

- Eta bestela, ospittalea...

- Ospittalea... beste gaiñuntzekua saldu itten nin nik! Baiño nik eamaten nixkin ordun, pues, ehun ta berrogeita hamar litro esne, o gehio igual eamango nixkin, hamen, basarritar batena ta bestiena. Ta, tarte hartan, zerbiziyua iten nin, bertan Zumaira zijuazten, azoka zijuazten jendia eamaten nin, ta kao, lehenotik astuakin juten hittun.

- Autobusian o kamioyan?

- Autobusa o... kotxe zahar batekin! Atzian remolkia ipini ta han, [...].

- Esnia eamaten zendun, eta... eta jentia.

- Jendia ta haien trastiak, been otarrak eta... Hori asteburutan ta jende gehio juten huan konprak ittea ta. Karo! Garbantzua o zeozer ekarri in behar huan. Itxian baba ta eoten huan, baiña beti ezin dek jan baba eo eozet. Aillatzen zanak bestiak baba jan behar. Ordun diru gutxi zeon ordun.

- Bai.

2.4. Zumaia erdian txerria ukuiluan

- **Hizlaria(k):** Etxabe Egaña, Ana Mari; Zubia Azkue, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-017/001
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena:** Zumaia erdian, bere etxe ondoan zegoen etxe baten deskribapena. Bi pisuko etxe arrunt bat zen, baina ukuilua zuen. Txerri bat hazten zuten bertan. Goitik terriari belarra botatzeko zulo bat zegoen. Txerria egunero ateratzen zuten pasiatzera eta jendeak janari soberakinak ematen zizkion. Gauza arrunta zen hori lehenago. Ukuilua garbi-garbi edukitzen zuten.

Transkripzioa

- Esplikatuko diazu hori, kale-baserriyak eta...

- (Ana Mari) E?

- Kale-basarrixak zian?

- (Ana Mari);Qué va! Kale-basarriak? Politta, politta, gure kalia. Número, ze numero da hura? Bai, Maria Luisa Urbietta, ze numero entrada? Uan dao Valentin Manterola hau, ezautzen al dezu? Pintoria. Daka uan esposizidua jarrita han. Hori zan itxe bat, itxe normal bat, normal bat, bi pixokua. Ta geo zakan okoillua, behian, okoillua. Atiak zeatzen zian, ba, baserrikuak, honela, ta geo bi pusketakua. Eta han zakan, behe-behian, okoillua, txerri bat. Ta geo, nola da, erderaz, entresuelua? Euskeraz ez dakit nola dan. Entrada sartu ta segituan, han, belarra, belarra eukitzen zun txerri horrentzako. Han, ez dakit, ate bat o ez dakit. Hamen, belarra, belarra, belarra. Ta bakizu lurrian nola eoten dan irikitzeke? Eske, izena daka...

Belarra botatzeko txerridxi, goitikan?

- Aska.

- (Ana Mari) Bai, goitikan.

- Bai, goiko pisuan eo, ranpa...

- (Ana Mari) Bai. Eta txerridxen gaiñea eroitzen zan belarra, jana, ez? Ez zan, okoillua zan. Kale-baserridxa ez, okoillo bat, politta. Eta han txerri bat hasitzen zan.

- Kale... Zumaidxa erdi-erdixan?

- (Ana Mari) Bai, bai, bai, bai. Nere etxian onduan. Nere etxian onduan, Calle Marin.

- Eta gaiñera nahiko normala izango zan hori Zumaixan?

- (Ana Mari) ¡Por supuesto! Egunero pasiatzen zun!

- (Ramon) Bazeuden, gehio´re bazeuden, Calle San Telmon´e bai. Ta geo pasiaara ateatzen zuen.

- (Ana Mari) Pasiara. Calle San Telmon´e bazan, [...].

- (Ramon) [...].

- (Ana Mari) Eta [...]. Baiño hori zan, guria da número once, horrek ez dakit ze numero dakan, Valentiñek. Impares, impares dia.

- (Ramon) Nueve, o...

- (Ana Mari) Seis o... Seis o usten det dala. Eta beaidxek bakarrikan bizi zian. Oseake, gizona zan arrantzalia, eta andria, ba, txerri hori ta baratza ta souak eta. Eta txerri hori ekartzen zun txiki-txikidxa, oso politta. Ta klaro, hasitzen zijuan bezela, baiño egunero-egunero-egunero ateatzen zun. "Krun, krun, krun!" "Kurrin, kurrin, kurrin, kurrin, kurrin!", zimitadxoaiño. Zimitadxon buelta ematen zun...

- (Ramon) Geo jendiak itxeko sobrak ematen zidxoan.

- (Ana Mari) Ibiltzen zan... Ogidxa!

- (Ramon) Bazeon andre bat Erramona Txarri esaten genduna, ta itxetatikan ta jasotzen zun sobrak: ogi-koskorak eta patata-azalak eta naranja... Eta Erramona Txarri esaten giñon.

- (Ana Mari) Bai, baiño harek zakan okuilluan. Baiño honek, uan uan esposizidxua daka han!

- Itxeko sobrak eta.

- (Ana Mari) Bai, egunero etortzen zan gurea´re. "Ba al dezue zeoze?" O patata-azalak eo igual ez, beste zeoze, ogi gogorak eo...

- (Ramon) Eta geo zeoze ekartzen al zizuen? Urdaidxa eo?

- (Ana Mari) Ez. Beti zorretan gelditzen zan, porke paatu dunakin, berridxa ekartzen zun. Oseake, bat kendu ta bestia jarri. Haundidxa iten zanian, ya, saldu iten zun. Baiño haren ordaiñez ekartzen zun bestia. Eta harekin, harek balidxo zunakin ta ez dakit ze, beti zorretan. Sekula ez zan aillatzen ezer´e. Baiña beno, ohitura oso politta. Geo San Fermiñen egunian korrida bezela iten zan zezenakin.

- (Ramon) Ohitura politta, baiño uan, usai hura, orduan´e ez giñan akostunbratzen.

- (Ana Mari) Ez zeon hanbesteikan!

- (Ramon) Garbitu ingo zun.

- (Ana Mari) Bai, por supuesto. Beti garbi-garbidxa zeon. Bai, eske txokagarridxa hori da, oseake, gaiñea okoillo ederra, harritzua. Eta behian, pisua zeon. Amaiako plazatikan pisua zan.

- (Ramon) Bai, baiño sarri-sarri garbitu beharko zun.

- (Ana Mari) Por supuesto, beti garbi-garbi eoten zan. Beti-beti. Haitza, dana haitza zan.

3. Ohiturak eta bizimodua

3.1. Kultur mugimendua; 'Centro parroquial de San Luis Gonzaga'

- **Hizlaria(k):** Linazisoro Azkue, Abelin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-005/006
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:14:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
 - Politika » Jarrera politikoak » Alderdien egoitzak
 - Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- **Laburpena:** Zumaiaiko batzokia errexisatu egin zuten frankismo garaian, baina elizak berarentzat hartzea lortu zuen, eta Centro parroquial de San Luis Gonzaga jarri zuten bertan. Mutil guztiak "luistarrak" izaten ziren. Billarra, futbolina eta ping-pong-a jarri zituzten eta gazteek karta-jokoan ere egiten zuten bertan. Beste sekzio bat ere bazen: OARGI eta honek txango kulturalak antolatzen zituen. Antzerkiak ere egiten ziren. Hau mutilentzako zentroa zen eta neskak, Hijas de María, beren ekitaldiak aparte egiten zituzten.

Transkripzioa

- Nik, hori, arrantza pixkat zeatuta, zuk, umiak ziñatela, kultur mugimendua herriyan ba al zeon? Ba, antzerkiya zala, musika zala, ze mugimendu zeon?

- Gu umiak giñala hemen zeonan, Batzokia zeonan lehen, eta Batzokiak zeatu in zian, Frankistak zeatu in zian, rekisatu o, beayentzat hartu ziñan. Baiña lortu ziñan eliza katolikuak, lortu ziñan hura beretzat hartzia. Ta han ein ziñan "Centro Parroquial de San Luis Gonzaga". Orduan danok giñun, nola danok Católicos Apostólicos Romanos nola giñan danok, ba, orduan danok giñun luistarrak, ezta? Ta luistarrentzako zeonan, Batzoki hura moldatu ziñenan, ba, billarra, futboliña eta pin-ponakin, eta geo mahaiakin. Ta mahaietan hamalau, hamabost, hamasei, hamazazpi urtekuak, o hemezortzi o zaharragok, ba, mahaietan iten ziñenan porroiakin, ardo porroiakin eta jokuan iten ziñenan. Gu gazteagok billarrian edo futbolian ibiltzen gittunan, eta moimentu hori zionan. Horrek ziñenan beste sekzio bat OARGUI izena zuna, Organización Atlético Recreativa de Guipúzcoa, eta OARGUI barruan eiten hittunan eskursio kulturalak. Ta eskursio bat noanoa, baiña zerbait helburu kulturalakin, ezta? Ba, zea ikustea, lehengo errota... este... uretako errotak o ikustea, edo... Ta holako zeak. Caballeritos de Azcoitia, Azkoitiko Kaballerituak nun eon zian, haien jauregia ikustea, haiek jakitea, haiek zer egin zuten bere garaian ta holako gauzak, ezta? Eta geo antzerkia ere bai. Eoten hunan bakarrikan... Francon garaian, antzerkiak izan behar ziñan erderaz, eta euskeraz iten ziñenan, ba, noixian behin, ba, ez dakit, lau erderaz ta bat euskeraz, o, zeoze horrela.

- Eta emakumezkuak ere eoten zian hor?

- Ez. Luistarrak hituan gizonezkuanak.

- Gizonezkuanak bakarrik.

- Gizonezkuanak, gizonezkuanak.

- Eta antzerkiya?

- Eta, antzerkia're gizonezkuana, bai. Eta emakumiak, zean, haiek, Hijas de María hittunan kolejiyuan estudiantzen zutenak eta haiek beren antzerkiak

eta beren kontuak iten zizkiñenan, baiña emakumiak bakarrikan. Osea, gizona ta emakumia elkartu ezta... bueno, bueno!

3.2. Dantza lotua aspalditik onartuta Zumaian

- **Hizlaria(k):** Linazisoro Azkue, Abelin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-005/021
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:39:20. **Bukatu:** 00:40:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- **Laburpena:** Bere amak 14 urte zituenerako mutilekin lotuan dantza egiten omen zuen. Hijas de María kongregaziotik botako zituzten mehatxuak-eta izaten zituzten, baina kontu horiek laster galdu ziren.

Transkripzioa

- Adibidez, hemen gure amak eta beti dantzan ein zien mutillakin. Gure amak kontatzen zin hamalau urtekin hasi zala hura mutillakin dantzan iten.

- Agarrauak.
- E?
- Agarrauak.
- Agarraua, bai, bai. Mutillak bai, bai, helduta, helduta dantza egiten, hamalau urtekin. Eta geo, harrezkeo'e, gu mutil koskorak giñala, ba, mundu guztiak dantza iten zian. Hijas de Mariatikan bialdu ingo zituela ta esaten zien, ta batzui inportik ez, eta. Bueno, batzuek zaintzen zien, nola bialdu iten zituzten kongregaziotikan neskai ta mutillakin dantza egin ezkeo, ezta? Baiña laster jun hunan hori pikuta, ta dantza normal iten hunan. Bai, bai. Dantza askotan, eta zinia eta playa, playa're bai.

3.3. Hondartza batzuetan "txaperoa" nesken bainujantzien luzera zaintzen

- **Hizlaria(k):** Linazisoro Azkue, Abelin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-005/023
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:41:55. **Bukatu:** 00:44:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- **Laburpena:** Zumaian nahiko aurreratuak ziren bikinia onartze kontuan. Berak 13 urte inguru zituela Bilbora joaten zen osaba-izebengana. Behin lehengusuekin inguruko hondartza batera joan ziren. Hondartzan

zaintzailea (aguazila, "txaperua") zebilen neskek ia belauneraino dena tapatuta izan zezaten. Lehengusuek ez zieten sinesten Zumaian turistak bikinian egoten zirenik. Itzurungo hondartzan ez zen egoten "txapero"rik, baina Santiagokoan bai.

Transkripzioa

- Eta debekurik eta ez zeon?
- Hemen ez, hemen ez. Pentsa zak, guk hamabi urtekin jun gaitxuk lehengusua eta biyok Bilbora, ba, bi aste pasatzea, hango izeko ta osaba batzuen etxea. Guk giñazkan, ba, zazpi o zortzi etxe, lehengusuak, osaba, izeko, eta bueno. Horrela iten giñian egun bakoitzian paga kobratu, bixita in, paga kobratu ta barraketan ta ibiltzeko, ta zinia ikusteko ta horrela. Ta egun batian, Deustuko lehengusu batek esan ziuk: “Hi, guazen plaira!”. Erderaz, ez zekiñan euskeraz. Geo haren, haien, osea, gure osaban ta izekon umiak… Nik zeuzkanat bat, bi, hiru, lau etxe, lau etxe, bi azkuetar ta bi linazisorotarren aldetikan. Ta haien ume danak, ia gehienak, ez zekien euskeraz. Ta beaiek beren umiai danak euskaldundu in dixkie, beaiek euskeraz ikasi ez baiña beaiek umia euskalduna in. Bueno, ba, lehengusu honek, “Hi! Guazen zea, ikustea plaira!” […], nungua zan, o Getxokua zan o nungua zan, ez nauk gogoratzen. Kontua da, trena hartu giñula ta jun giñala. Eta gu plaira, jode!, egunero plaian ibiltzen giñun, egunero-egunero-egunero. Eta bueno, guazen ba, ilusiyua iten baio beonei… Eta hamahiru urtekuak gu biyok. Eta jun gaitxun, ta. Taka! Ipini gaitxun petrillian plaia ikusten, eta txapero bat ibiltzen hunan zaitzen emakumiak zeakin izterrak ondo tapauta eukitzeko. Ta kulero estiloko trajebañua baldin bazuten, euki behar izaten ziñenan toaja bat lotuta gerriyan, iya belauneaiño tapauta eoteko. Eta bestiak ziñenan trajebañua gonakin, gona, iztar erdiraiño gonakin trajebañua. Orduan txaperua ibiltzen huan goitikan behera plaian pasiatzen. Ta txaperua urrutira jutun zanian, toaja zeukatenak ze iten zienan? Kendu, kendu toaja ta etzan eguzkia hartzeko. Ta gure lehengusu honek “!Mira, mira, mira qué buena estáesa!”, “Mira, mira, mira qué buena estáesa!”. Ta gu, “jode! ?Esa tía? !Si en Zumaia hay bikinis!” Eta ez zian sinisten! Nola sinistuko ziyen, ba! Han horrela ta Zumaian bikiniyakin! Eta gu, jode!, gu sendauta ya, ikusten, bueno!, ohituta.
- Horretan turismuak eta, frantsesak eta izatiak, ez?
- Bai, bai, bai.
- Eragiña hori izango zan.
- Frantses asko ta orduan, ba, eragin haundiya. Gu ohitu, ya ohitu iten haiz.
- Itzurungo hondartza ixkutu xamarrian dao baita’re, ta…
- Bai.
- Igual’e errexo pasa!
- Hara ez hittunan ez txaperuak ta jutun, ta ez ezer ez. Ta hemen uste diat ibiltzen ziala txaperuak, Santixon.
- Zarautzen bai behintzat!
- Santixon uste diat ibiltzen ziala. Baiña han! Ta ondo. Hor konpon!

3.4. Serora/sakristau lanak egiten zituzten

- **Hizlaria(k)**: Ibarbia Ugarte, Brigida
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-006/003
- **Iraupena**: 0:03:55. **Hasi**: 00:01:55. **Bukatu**: 00:05:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Hiru ahizpa ziren. Aitona Pikaondo bertako semea zen, baina ez zuen ezagutu; amona errezildarra zen, Ipiola baserrikoa. Gurasoak serora-sakristau lanak egiten zituzten eta beraiek zuten elizaren ardura. Beraiek ere ibiltzen ziren gurasoei laguntzen. Seroraren lanak: eliza garbitu, kanpaiak jo... Sakristauaren lanak. Lan hauen inguruko azalpenak. Lan lotua zen; goizeko seietarako kanpaia jotzera joan behar izaten zuten. Kanpaiak nola jotzen ziren. Kanpai-klaseak.

Transkripzioa

- Eta ordun, esan diazu hiru alaba ziñatela.
- Hiru alaba.
- Hiru aizta.
- Hiru ahizpa, hiru ahizpa. Gurasuak... Aittitta nik hiru urte nittunian hilla, baiña geure amama ezautu nuan, errezildarra gendun amama, aitten ama. Aitten ama Errezilkua. Aittitta bertoko semia.
- Bertan, Pikaondokua.
- Bai, bai. Pikaondokua aittitta. Aitta're bertokua ta ama Oikiyan Ipiolakua. Ama Ipiolakua. Ipiola behekoa, e! Bai.
- Eta ordun...
- Eta nere gurasuak zian serore-sankristauak, eleizan ardurakiñ.
- A, bai?
- Bai. Eleizan ardura izan zuen beti, bizi zian bitartian. Ta geo, haiek hill ezkeo're ahizpak ahal dun arte segi zun, baiña geo utzi in zuen. Baiña hirurogei ta gehiouan eleizan ardura...
- Zuen familiyan.
- Gure familiyan, bai. Eta guk eleiza garbitzia amakin ta ikasi gendun, ta geo gazteik giñanian'e, larunbatetan eliza. Ta [...] giñuzen orduan, geure lagunak ere etortzen zitzaixkiunak bazkalonduetan larunbatetan ta laguntzea're bai, denboa pasa o, axkarro itteatikan lanak eo... Zea hoiek izandakuak gea, bai.
- Eta zeintzuk izaten zian lanak, serora lanak?
- Ba, seroran lanak, eliza garbittu, kanpaia jo. Sankristauena o zea zan, goizian sei t'erditan albakua, hamabitakua, ta geo illuntzian angelusa, illunakin batea jotzen zan. Ta geo eleiza garbitzien lanak, o entierroik baldin bazan o, bataioik o baldin bazan o, beti ontziyak o zeak preparatu ta gauzak iteko, aldareko zapiyak. Ta sankristauak ere izaten zun bere lana kandelak eta altariak, o apaizentzako erropak o...
- Eta...
- Hori bai, bai, lana zan, e! Sujeziyua zan! Igual egunak ezer ez, baiño goizian sei t'erditako kanpaia jotzea jun behar izaten gendun. Kanpaia, albakua. [Matutiya] ere esaten zitzaion, eta albakua. Ta sei t'erdiyan jaiki ta lehenengo lana, ez dakit, urtietan ta urtietan zenbat aldiz ingo nuan? Goizian ez det behiñ'e izan despertadore beharrik, behiñ'e ez. Beti egunsentian o zean, goizian, lixto. Illuntzian nekatuta ohera, e!, hori bai. Oaiñ ere ni, nei hamarrak ez dixkie telebisian joko. Noixonox joko dixkie, baiña... Goizian...
- Egunsentian.
- Bai. Beti-beti izan det goizian jaikitzeke bat'e perezikan ez. Oaiñ, ondoezikan ta ibillita, ordun tira!, baiño...
- Eta jaiki ta seituan kanpaia jotzea.

- Kanpaia jotzea, albakua. Sei t'erdittan. Jaia bazan, [...]. Geo beatzi hurrenak eta, badakizu garai hartan zer zian: orduan kanpantorrea iyo ta txin-txiña, kanpai txikiya! Txikiya da, txin-txiña esaten giñun. Bueltaka. Ta bestela, jai haundiyak baldin bazian, hiru kanpai eoten zian, eo bi, ze jai zan, kanpaiak, haundiyak, eskuakiñ sakata. Justo-justo allatzen giñan, baiña!

- Baiña sokakin, eo?

- Ez, ez, ez, ez! Eskun!

- Bultzaka?

- Eskuakiñ!

- Eskuakin, e?

- Hau horrela zan burua, eta buruan buelta emateakuan saka itten zitzaion. Bai, bai, bai, bai! Ondo, gaiñea! Ondo gaiñea! Hala zian [...]. Geo hamabitakua zaintzen gendun, hamabittako kanpaiak. Ta geo illuntzian angelusa izaten giñuan.

- Ave Marietako ta...

- Bai, eguardiko hamabi... Angelusa, eguardiko hamabittakua. Hamabiyetan izaten zan hua. Eta geo illuntzian angelusa. Illunakin batea, han nunbaitt ibiliko giñan, udara bazan, negua bazan.

- Ave Mariakua, e...

- Ave Mariako hori da eguardikua.

- Eguardikua.

- Eguardikua, bai, hala esaten... Toki batzutan Ave Maria, guk hamabitakua esaten giñun.

- Bai.

- Hamabitakua. Zean ere, frontoitian ta're lehenon hamabiyak zianian, hala zian.

- Geatu iten zan. Partidua geatu ta...

- Bai, bai, bai, hala zian. Hoiek danak ezauttu dittugu guk, danak.

3.5. Ekaitzetik babesteko lore-sortak nola egiten ziren

- **Hizlaria(k):** Ibarbia Ugarte, Brigida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-006/011
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:17:40. **Bukatu:** 00:19:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Ekaitzik ez izateko teila ateratzen zen etxe kantoira eta lore iharrak bertan jarrita su ematen zitzaion ekaitza uxatzeko. San Juanetan lore-sorta egin eta elizara eramaten zuten bedeinkatzera. Lore-sorta nola egiten zuten; lore sorta zutik jartzeko ("hankak" egiteko) ezpata-lorea erabiltzen zen. Lore-sorta hura ganbarara jaso eta ekaitza zenean hura etara, teila baten gainean jarri kanpoan eta su ematen zioten ekaitzetik babesteko.

Transkripzioa

- Itxe-kantoira're, baserriko itxe-kantoira ateatzen zan zea, teilla. Teilla bat o beti eoten zan, ta San Juanetan zeatutako, lore ihartutakua're bai. Su eman ta kia... ekaitzak ez hondamendiak itteko, ez zeatzeko, e!

- Kontau hori, mesedez...
- Bai. San Juanetan, izaten gendun guk, lore-sorta eramaten zan eleiza, meza nausira.
- Beti lora klase bat? O... edozein lora?
- Edozein lora. Basarriyan beti izaten zian loriak, beti. Artua landare bat, gariya pare bat buru o horrela, eta keixak o baldin bazian, haren adar bat'e bai. Keixakin, ta geo inguru dana loriakin, sorta. Eta hari itten giñuzen, ezpata-loria esaten giñunakin, lau hanka, tente eoteko. Orduan, hamen ere badazkau guk baratzan lore klase hori, ordun, ta ezpata bezalakotxe lore bat, baiño da, zapata bezela du sustarriya. Ebakitzen giñuzen lau, azpiya berdindu, lore-sorta iñ, lore-sorta iñ, ta lau hanka hoiekin jartzen gendun, ta tak!, tente eoten zan, ez zan erori're itten! Lore-sorta hua bedeinkau ta jaso itten giñun hurrengo urteko San Juana arte, ganbaran, zea, azpira, teillatu...
- Sakapian, o?
- Bai. Azpiko zean, hantxen, ihartu ta hantxen eoten zan. Eta geo ekaitza zanian, ekaitza zanian, ba, teilla baten gaiñian o itxe-kantoiria o balde zahar batian, besteik ez bazan, lore-sortari su eman ta ekaitzakin babestutzeko, defentsa bezela.
- Su emanda.
- Su emanda, bai. Kia daiola hantxe eoten zan, zimel-zimela baiño, hoixe.

3.6. Ekaitzetik babesteko lore-sortak erre egiten zituzten

- **Hizlaria(k):** Ibarbia Ugarte, Brigida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-006/013
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:19:45. **Bukatu:** 00:22:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Asentzioetatik San Juanak ingurura arte izaten ziren ekaitzik handienak lehen. Ekaitz gogorrak izaten ziren. Euri asko egiten zuenean uholdeak izaten ziren Oikian, itsasoa igotzen zenean. San Juanetan bedeinkatutako lore-sorta ekaitzetatik babesteko erretzen zen. Urtero lore-sorta berria egiten zen. Lore-sorta zutik jartzeko ("hankak" egiteko) ezpata-lorea erabiltzen zen. Nolakoa den ezpata-lorea.

Transkripzioa

- Harriya ta zetorrenian, ez?
- Bai, harriya ta... Baiña ba al dakizu? Oaiñ ere ekartzen dittu, noixonoi.
- Baiño orduan ere ekaitzak etortzen zian, e! Ta gaiñea gehienbat izaten zan oaiñ, Asentziyoko gorputz buelta hau, gorputz hau, San Pedro, San Juanak bitartian izaten zian ekaitzik haundiyenak, e!
- Gaiñea gariya orduan...
- Bai. Gariya ebaki ta metak in. Ta bezebillen ekaitza jata botatzen. Ta geo Oikiyan itten zian ujalak. Itsasua haundiya baldin bazeon, maria iyotzen du Oikira.
- Bai, e?
- Bai, bai, bai, bai.
- Bertaiño, e?

- Bai, bai, bai. Berta ta [...] pasa, gaiñea. Lehenon presa zan estaziyeuen parian, ur-presa. Eta harañoxe iyotzen zun lehenon. Baiño hua bota zuenetikan, oain goruo´re bai. Eta behetikan itsasua baldin bazan ta goiko ur kargakin, ujalak ertetzen zittun. Ta baita gari-metak bota´re, e! Urak. Oain kanpu hoitan izan diela? Bai, bertakuak ere ikusitakuak bagea. Esan nahi nuke, gari metak bota itten zittun. Baiño ekaitz haundiak izaten zian lehenon´re, e!

- Eta ordun, San Juanetako lore-sorta horrekin...

- San Juanetako lore-sorta horrekin, ba, ekaitzan defentsako bezela, o laguntza eskatzen zan, o zeatuta, bai.

- Eta urtero, ordun, lore-sorta berriya [...] eta...

- Bai, bai, bai. Urtero sorta. Eta da...

- Eta, zaharrakin ze iten zan?

- E? Haiek, emandako haiek, itxian banatu o zeatu. Esan nahi det, bai... Ta [...] apaingarri o zean ematen zian. Larrosa kapullo batzuk, o beste zintal hori [izaten] giñun, eta... bai! Baserri ingurun beti da loria, gutxi-asko, osatzen gendun sorta. Baiño lau hanka hoiek, ezpata-lore hoiek. Hori da martxuan hola loratzen dan zea bat da, baiño du oiñarriya zapata du lore horrek, ezpata-loria.

- Lore zurixka hori, hori-zuri bezalako bat?

- Batzuk zuriya badue ta beste batzuk horiya´re bai. Ta beste batzuk moria dia, e!

- Bai.

- Liriyuak bezela.

- Bai, horrelako batzuk, ezta?

- Bai. Udaberriyan hola jazintuak eta zeatzen dia tankera horretakuak. Baiño oiña du. Loria beak du zapata. Kutxilluakin berdin-berdin iñ ta lauekin lotzen zan lore-sorta. Tak! Bai. Zea, kalartxo txuriyekin, zinta zuriya o lotu, zeñek baiño zeñek sorta earraua!

- Korapillua in... Hau korapillo hau nola esaten dezue zuek?

- Korapillua. Ez, ez, ez, ez! Korapillua zan. Ta geo, korapilluakin ta, baiña geo laxo txiki batekin lotzen zan txuriya. Baiño besuan sorta haundiya eramaten zan, e! Bai! Hantxen eukitzen zan, bakoitzak bere zean, eleizako zean, hantxen.

- Eta hori etxia ta zaitzeko zan, ez?

- E? Etxiak zaitzeko, bai. Ekaitza zaitzeko. Ekaitzan, itxian defentsa bezela zeatzeko.

3.7. Soroak zaintzeko bedeinkazioak

- **Hizlaria(k):** Ibarbia Ugarte, Brigida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-006/014
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:22:25. **Bukatu:** 00:24:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
- **Laburpena:** Erramu egunean erramu adarra bedeinkatzen zen eta gero harekin gurutzea egiten zen. Gurutze hura soroan sartzen zen gaixotasunetatik babesteko. Santa Kurutz hurrengo astelehenean Ibinarrietara joaten ziren gorniaaren kontrako mezara. Handik apaizarekin eta akolitoarekin etxez etxe etortzen ziren soroak

bedeinkatzen. Haren ordainetan oilaskoa edo beste zerbaite ematen zitzaion apaizari. Ibinarrieta berez Zestoa izan arren, Oikiako apaizak ematen zuen bertan meza eta gero Azkarate baserritik hasita etxez etxe soroak bedeinkatzen joaten zen.

Transkripzioa

- Eta bestela, soruak eta [...] zaitzeko...
- Bedeinkaziyua?
- Bedeinkaziyua ta... kurutze batzuk eta ez zian sartzen? Nola izaten zan hori?
- Ez. Hori... kurutziak... erramua... Erramu-egunian bedeinkatzen zan erramua, ear haundiya. Eta geo hari sartzen zitzaion bere txotxakin kurutzia iten zitzaion. Ta bedeinkautako erramu hua geo baatzan o souan sartzen zan, gaixotasunak o zeatzeko. Ta geo beste bat zan Santa Krutzetako, hurrungo astelehenian, oikiyatikan juden giñan Ibiñarrieta.
- Maiatzian.
- Maiatzian. Meza izaten zan, Santa Krutzetatik, jenealian, lehenengo astelehena izaten zan. Gorniyen kontrako meza izaten zan. Eta etxe danetatikan, bakoitzetik lagun bana, errez juden zan Ibiñarrieta. Ta geo han izaten zan meza hori. Ta mezan ondoren, baserri baserriz etortzen zan apaiza akolituakin bedeinkatzen, basarriyako souak. Gariyai ta gorniya ez izateko, ta igualtsu etortzen zan, baiño. Ta geo haren aldeako, oillaskua o ollua ematen zitzaion apaiz-itxea. Pentsau zenbat gauza ezautu dittugun! Haiek danak ahittu zian!
- Eta funtzionatzen zun?
- Funtzionatu ez dakit, baiña bedeinkatzen zala, ta bedeinkaziyua eman ezkeo, hobia izango zala, ta! Oain ikusten dittugu parezidos o antzekos esaten da gaur dan egunian, ba. Baiño fedia bazan, fedia bazan. Lelen mezeta jun etxe bakoitzetik bana, eta geo handikan bueltan, ba...
- Baiña Zestua da hori, ez?
- Zestuana da, baiño Oikiyatikan meza hara eskeintzen zan, mezaikin juden giñan...
- Inguruko, hango, hango apaiza juden zan?
- Oikiyakua juden zan. Eta geo handikan dao Zumaian eo da, Azkarate basarriya. Ibiñarrietatik seittun dao, bestia Miravalles esaten zaiona, haiek dia Zumaianak, ta Oikiyako elizanak. Baiña Zumaia nola dan, Oikiya... Ta geo handikan hasten zan bedeinkatzen, goittik behera, goittik behera. Ta gaur goizin batzuk ingo zittun ta hurrungun beste aldekoa, ta...
- Makiñatxo bat izango zian, ez?
- Oillasko earrakin juden zian, bai, apaiz-itxea. Dirua, dirua.

3.8. San Juanetako ohiturak: sua eta ate gainetako lizar-hostoak

- **Hizlaria(k):** Ibarbia Ugarte, Brigida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-006/015
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:26:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Ohiturak eta sinesmenak
Aisia » Jai-giroa » San Juan

- **Laburpena:** San Juan bezperako sua San Juan egunean egiten zuten beti. Etxeko traste zaharrak atera, plazara eramane eta erre egiten zituzten. San Juan eguna jai izaten zen eta jai-giroa izaten zuten. San Juan egunean lizar-ostroak jartzen ziren gurutzeak eginda ate gainetan.

Transkripzioa

- Eta beste... holan... ohiturarik eta bazan? Ba, ez dakit... San Juanetan, edo? Beste holako siniskerarik eta?
- Ez. Arbola jarriko zan, baiña ez zan urtero itten. Eta San Juan bezperako sua're, han beti San Juan egunian itten zan, gure gazte-denpoan. Zianak eta ez zian traste zahar danak inguratzen giñun. San Juan eguna jai itten gendun, jai, eleizak jai itten zuan ta! Ta guk ere jai. Ta bazkalondotik hasten giñan, ta aurreko egunetatik inguratzen traste zaharrak. Ta dana plaza eaman ta geo han sua in, ta bueno, pesta hori itten gendun ta...
- Herri guztiya bertan elkartuta?
- Bai. Gazte-jendia, pesta usaia, bai. Hala izaten zan. Baiña bestela ez, San Juanak ez du holako zeaikan.
- Eta entzun degu beste herri batzuetan behintzat, San Juan goizian, lelengo...
- Lizarra. Lizar-ostuak jartzen zin ate-gaiñetan, kurutzia jarrita, bi ixkiñetan. Gizonak'e harrek bazekiyan jarri! Ni ezaututa nao beau're jartzen hemen bertan ere.
- Eta hori San Juan egunian izaten zan?
- San Juan eguna, lizarraikin. Badakiye automobillak ere ibiltzen, e, lizar-ostro hoiek, e? Badakiye. Ta geo lehen esan dizuten erramua, lore-sorta hori, ta geo San Juan eguneko lizar hori ez zan elizan ta hola zeatzen. Baiño bestela, itxietan jendiak jarri bai, bere gurutziakin ta, bazekiyan. Hoiek ezautu giñuzen danak.

3.9. "Serore-artua" eta "serore-garia" serora lanak kobratzeko

- **Hizlaria(k):** Ibarbia Ugarte, Brigida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-006/018
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:30:15. **Bukatu:** 00:32:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- **Laburpena:** Ama serora izan arren, ez zuen soldatarik izaten eta etxerik etxe ibiltzen ziren "serore-artua" eta "serore-garia" jasotzen. Abenduan egiten zen "serore-artua jasotzea"; urrutienekoek beraiek ekartzen zuten "urteko pagamentua" etxera eta hurbilenekoetara eskean joaten ziren beraiek. Garia ere jasotzen zuten abuztuan. Seroraren jorjala ordaintzeko egiten zen eskea. Aitari sakristau lanak egitearren terreno pusketa bat ematen zioten lantzeko.

Transkripzioa

- Ta geo guk jorjala, gure ama zanak ez zekan hillian azkenian jorjalik, eta serore-tratuik eta, ez zuan izaten. Eta basarriyan ibiltzen giñan serore-gariya ta serore-artua izaten giñun. Orduan, artua jasotako... Gabon-aurreko bueltan iten giñun abenduan, serore-artua jasotzia. Itxez itxe, e! Urrutiyenekuak taka!, ekarriko zizuen itxea, zuzen, e!, paamentuak urteko

zean. Eta inguruan zeudenak, ba, serore-eskian, esaten giñun, serore-jornala. Eta lakaia. Badakizu, kuadratu, nola... ez dakit ezautzen dezun, kuadrak. Hua artua, alia, aletutako... ra!, berdintzen zuen, ta zakura. Zenbat, ba? Hamar, dozena bat kilo itten giñunian, itxea jun ta hurrunguan beste [...] ta hurrunguan beste bat. Ta gariya jasotzen zanian ere, abuztuan izaten giñan, abuztuan aurrenien o hola, gariya're jasotzen gendun han. Serore-artua ta serore-gariya, jornalak. Eta gariyak eta ahittu zianian, kitto! Kitto! Ta geroa, oaiñ azkenengo urtetan zeoze euki behar zun, serore-jornala o. Beste iñundikan nola ez zakan elizan arduradun o zeatzeatikan, baiño, ez deu besteikan. Guk ez gendun diruikan ezautu gure amakin eleiza aldetik. Ta aittak, berriz, terreno pusketa bat eleizana ematen ziyen, baatza o artua o zeoze nahi baldin bazun, sankristau-soua o esaten ziyena, baiña ez zuan, ez zuan bestelako holako aparteko gauzikan ez gendun izaten.

- Eta orduan hori zan, serore lanaren jornala hori izaten zan?

- Bai. Ta aste erdiyan o zean bat baldin bazuen, bataion bat igual aste bukaeran o serore-sankristauak eta batzuk gonbiratu're bai, ta beste batzuk, ba, gonbiratuen partez, patrikako're ematen ziyen zeoze, ta bueno. Baiño, dana utzita, beayek zeatzea.

3.10. Harri koskorrekin ezik beste edozerekin pilotan

- **Hizlaria(k):** Ugarte Lopetegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-009/012
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:28:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
Aisia » Kirola » Pilota
- **Laburpena:** Frontoi ederra zuen lehen Oikiak, baina bota egin zuten estalitako frontoi berria egiteko. Mutikotan pilotan asko jokatzeko zuten. Goizean goiz izaten zen meza, tabernan txakolin batzuk edan eta pilotan aritzen ziren. Harria bezalako pilotarekin aritzen ziren eta ez zuten gaur egunean bezalako babesik erabiltzen. Dirurik ez zegoen baloirik erosteko eta norbaitek pilota berri samarren bat izanez gero, pozez zoratzen egoten ziren. Nagusiagoek frontoia okupatu eta beraiek "zimitayoan" (elizpean) jokatu behar izaten zuten.

Transkripzioa

- Eta bestela, plaza ta, Oikiyako, Oikiko plaza ta... asko aldatu da?
- Oikiko plaza, frontoia, frontoia politta huan Oikiyan. Uain botata zio. Uain geo berriya in ziyen tapautakua.
- Eta nun zeon lehen?
- Lehen Oikiyan... Oikiya zan hi...
- [...] .
- Oikiya zan plaza, plaza bea, taberna, Txortena taberna horren aurrekaldian huan zea, frontoia, frontoia irekiya huan. Ta hua itxitzeko ta, ta zean ta zitxion, baiña ez zitxion, gaiña, itsusi geldittu [...] zean, Txortena daon zea hori, itxia, bista dana kentzen zitxion. Ta ez zekit uain

dala zenbat urte iña izango zan berriya. Ta ordun in ziyen zaharra bota. Hamaika pelota iña giñun! Goizian mezeta ta jun, ta jata geo pelotan.

- Eun guztin.

- Eun guztiyan ez. Goizian erten ta geo mezetatik erten ta... Txortena, zea... Behin pixkat heldu giñanian, ta han txakoliñ pixkat ta ean ta zeara geo, pelota. Beatzi t'erdihak o goizian, goizo izaten huan meza. Neguan zortzietan ta udaan zazpi t'erdittan o ez dakit ze izaten zan, zazpiretan o, zazpi t'erditan o. Ta orduan jaiero jun behar izaten huan mezeta. Ta aurrena zea jun, e, geo handik ertendakuan pelotan. Ta geo izaten huan earra! Eskuak eta dana zea zitxian, tontotzen zitxian, ta geo jun hai zea, belarrak atea zeara, han, e, behiai belarra ekartzeko zeara...

- Eskuak haundi-haundi inda.

- Eskuak haundi-haundi inda. Hortxe ibiltzen giñan. Baiña...

- Orduan takuak eta oain bezalakoik ez zan.

- Takuak? Takuak? Nik ez... Lehenguan batek esaten zian Getaian, han nitxion beira, ta gaztiak ai hittun, kadetiak o, zean-ta ta. Zeak esaten zitxian, batek, "A! Oaingo gazte habek zeak eskuan, takuak eta jarrita ta, gu ibiltzen giñun bate gabe! Majiña bat aldiz bate gabe ibiltzen giñuan ba gu!".

- Bate gabe. Eta pelotak eta [...] eta...

- Takuak eta pelotak eta... Harriyak bezelakuak igual!

- Halamouzkuak.

- Halamouzkuak! [...] ordun. Zeoze bazan borobilla, harriya ez ezikan, zeatzeko moukua.

- Bote txiki bat egiten bazun...

- Bai, bai, bai, bai. Zeoze itten bazuan han onduan, ertentzen bazun, han ibiltzen giñan. Ta bai, bai, han zebillen harrek esaten... Oaingo zea habek, berriz, takuakin ta gaztetatikan prepaaute zatoztik zearako, hortako, ohittuta, ohittu're in beharko [...]. Gu jokutzen gendun zea jarri, ene!, esparatrapu zahar bat. Ta zea, harrek zea ingo zun, esparatrapu zea bat jarrita! Beste haiek, bestia azpiko zea haiek! Ez...

- [...] zan hamen, e, zuen gazte denboran, gaztetan eo?

- Pelota, pelota. [...] fubolian, baloirik eta're ez huan hamen. Baloia? Zeiñek zun baloia? Diruak behar zian! Ta pelotak nunonundik juntatzen bazan, pelota zekan batek juntatzen bazan, baten batek ekarritakua o baldin bazun baten batek, mekaue la letxe! Hua izaten huan zebua, harrekin pelotan.

- [...].

- Geo, gu baiño haundixiauak, urte bete ta gehiokuak ta pelotan haiek bastante ondo ibiltzen zianak hittun. Ta haiek, frontoia haiek okupatzen ziyen. Ta gu, zimitayoa. Eliza azpira.

- Eliz-atarira.

- Eliz-ataira gu. Han, eliz-ataian in behar izaten giñun zean, pelotan. Bestiak okupatzen ziyen ta haiek, hi, haiek haundiyaguak ziala ta, [...], ordun'e izaten huan ba, bat baiño bestia zeauagua ta. Gu zeara, hemen, zimitayoa.

3.11. San Migelgo eskola

- **Hizlaria(k):** Etxabe Etxabe, Benito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-012/005
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:05:50. **Bukatu:** 00:08:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolara San Migelera joaten ziren. Bere alabak ere hor ibili ziren. Eskola izandako eraikina zein zen. Inguruko ume guztiak bertan biltzen ziren eta hogeitik gora izaten ziren guztira. Lehenbizi apaiza izan zuen irakasle eta komunio txikia ere harekin egin zuen. Gero don Joakin etorri zen. Gerra baino lehentxeago diputazioak eskola jarri zuen eta bertara joaten ziren inguruko ume guztiak. Oinarrizko kontuak ikasten zituzten 14 urtera bitartean.

Transkripzioa

- Eta... eta zu orduan txikitatik Gorostiagan beti bizi...
- Bai, bai.
- Eta eskolara ta nora juten ziñaten?
- San Migela.
- Bertan zan, eskola bertan zan.
- Hoixe. Oain dao, hantxe dao, oaindio hor ziok.
- Taberna-ta ta...
- Ez, ez, ez. Sarreran exkerreta nola dao zea [...], hua eskola dek, bere eskuduakin ta zeakin ta dana. Hor, hor daon, hogeitaka... hori in zanian, hogeitaka lagun [eukitzen] zituen eskolan.
- Bai, e?
- Hamasei baserri ta dana, jende guztiya danak horrea etortzen hittuan ordun.
- Ume asko!
- Bai ba, danak. Ta gurian´e, guk´e, gurek baitta, gure alabak´e hor ibili dittun zean. Nik´e bost, ta gehienak hor ibili hittuan. Ta geo hor zeatu zanian, saldu zanian eo, batzuk alde in ziyen [...] ta karo, hor ziok geldiota...
- Eta...
- ...oain bota in behar duela ta.
- ...noiz ein zian eskolak? Zuen denporan?
- Bai!
- Errepublikan, o?
- Bai. Ni lehenengo, apaiza huan zea, [...], nola zan zea? Famatu hua... Akordatu [...] batian!
- Ba, bardin da.
- Ta haekin hasi nun eskolan ta komuniyo txikiya´re bai, haekin. Ta geo, etorri huan Don Joakin, ta hua han ai giñala ein ziyen zea, eskola hori, Diputaziyuak in zin.
- Justo gerra baiño lehentxuo, ez?
- Bai, bai... Ez! Bai, gerra baiño lehen, bai, izango zan, bai.
- Treinta y cinco, o...
- Bai, gerra baiño lehen, gerra baiño lehen, bai.
- Eta ordun, bertako ume guztiyak eta bertara.
- Danak, hoixe, hogeita gehio. Zea danetan zan bost-sei seme-alaba, baserri danetan.
- Baserri bakoitzian. Eta ze ikasten zan? Ordun, e, ze ikasten zan?
- Ze ikasi huan hamalau urte arte? Hamalau urtekin, fuera!
- Sumar ta...
- Sumar ta restar ta multiplicar ta dividir ta...
- Lau operaziyuak eta...
- Geo hortik gorakoik...

- Irakurtzen ta...
- Bai. Raiz cuadrada ta zea ta hoiek´e jardutzen giñun ikasten, baiña...
- Eta idazten, eskribitzen?
- E?
- Eskribitzen ta?
- Hortxe eskribitzen, esan dizut, bai.
- Eta, gustora juten ziñan eskolara?
- Danak! Ze erremeio!
- Edo nahio baserriyan egotia?

3.12. Zumaiaiko elizara organoarekin ensaiatzera

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Etxabe, Benito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-012/007
- **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:11:35. **Bukatu**: 00:13:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena**: Gerora bera ibili zen ingurukoak zuzentzen denen artean abesti bat abesteko. Gabon gauean abestu zuten San Migelen gaueko hamabietan. Zumaiaiko elizara joan behar izaten zen ensaiatzera, baita eguraldi txarra zenean ere. Eugenio izeneko batek (tenorra) abesten zituen abesti nagusiak elizan.

Transkripzioa

<p>- Geo "Te Deum Laudamus" ta hori zeatu giñun. Ta kuadrilla zeakua, hamenguak eta auzokuk eta danan artian "Te Deum Laudamus" zeatzen giñun, zeatu giñun. Ta neuk, iñorrek ez zian […], ta neuk dirigittu noiz sartu behar zuen batek eta bestiak eta zea ta. </p>

<p>- Eta kantau. </p>

<p>- Bai. Ta kantau giñun gabon egun batian gaueko hamabittan. Ta jendia… </p>

<p>- Askot? </p>

<p>- Orduan ez zan [kamiyoik] eta zeaik ezer´e, baiña jende asko. </p>

<p>- Baiña hemen, San Migelen? </p>

<p>- San Migelen, Don Nemesio zeola. </p>

<p>- Eta organua noiz jotzen zan? Noiz jotzen zenun organua, jaietan, jai-egunetan, o? </p>

<p>- Jaietan. Ta geo gu hemendik zea ikastea, elurretan igual zean, neguan, eta eliza jun ta zea, ensaiatzea, "Te Deum Laudamus" ta zea, […]. Ta […] anaia bakarrik segitzen dik hor zean, [oain laga zio], Eugenio. Badakik zein dan? </p>

<p>- Ez. </p>

<p>- Eugenio, hua tenorra o, ona huan. Ta majiña bat urtian, oain erretirau dek, baiño ya zean, kantatzen zin zeako, parroko, meza zea haunditan, zeatan, solua askotan kantatzen zin. Baiña oain laga zitzion.</p>

3.13. Oikiara eta Urdanetara organoa jotzera

- **Hizlaria(k):** Etxabe Etxabe, Benito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-012/008
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Gaur egun San Migelen bakarrik jotzen du organoa, baina sasoi batean inguru guztian ibiltzen zen, batez ere, Oikian eta Urdanetan. Oinez joaten zen auzo hauetara. Hogeiauro ematen zizkioten eguneko.

Transkripzioa

<p>- Eta oaindik´e jotzen dezu?</p>
<p>- Ze erremeio! Ze ingo diou ba! Ahal dan moun. Oain zea, diferente jo! Oain bakarrik koruan!</p>
<p>- Baiña nun jotzen dezu oin? San Migelen.</p>
<p>- Bai. Oain bakar-bakarrik. Nik lehen, hemezortzi urte nittunian Oikira, Urdaneta. Oikiyan, Don Nemesio zeonian, jai haunditan ta hara "Te Deum Laudamus" [… hoi] kantatzea ta Oikira askotan. Ta entierrotan, berriz, urte pilluan. Ta Urdaneta´re bai. Hara oiñez, e!, hemendikan, e!</p>
<p>- Oiñez, e? Aiara.</p>
<p>- Egualdi ona bazan… E?</p>
<p>- Aiara.</p>
<p>- Aia? Urdaneta lehenuo zio!</p>
<p>- Bai, baiña Aiako partia.</p>
<p>- Aiako partia, bai.</p>
<p>- Aiako partia.</p>
<p>- Ta neu batzutan hemendikan ta ze egualdi zan, trenea, estaziyoa jun, trena, Zarautza jun ta handikan, zeatik barrena, bire hobia handikan. Ta eguna hogeiauro ematen zien ta…</p>
<p>- A, bai? Pagatu iten zan.</p>
<p>- Hoixe! Bai, bai. Ta hara juten nitxanian, ba, zea, apaizak beak ematen zian bazkaia’re, ta…</p>
<p>- Eta…</p>
<p>- Oikiyan […]. Oikiyan´e urte pilluan, jai haundittan´e bai ta entierrotan, ni. Geo beste hau hasi zan arte, urte mordoxkan seittu nun bakarrikan.</p>

3.14. Eskolatik irten eta organoa ikastera

- **Hizlaria(k):** Etxabe Etxabe, Benito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-012/010
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:15:10. **Bukatu:** 00:16:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** 12-14 urterekin hasi zen musika ikasten. Eskolatik irten eta irakaslearen etxera joaten zen. Sarritan gogo gutxi izan arren, ikasi egin zuen. Umeen artean bera aukeratu zuten organoa jotzeko, norbait behar zela eta.

Transkripzioa

- Eta horrela, hutsetik, hain... hamabi hamalau urtekin hasiko ziñan ikasten, ez?
- Bai, hamabi, hamar. Eskolan nabillen arte hasi giñun musika zeatzten ta eskolatik ertendakuan hara, zea [...], Pagola aldea. Han bizi huan zea, organista, eta hara. Ondo zio.
- Eta erreza al zan?
- E?
- Erreza? Edo asko kostata, edo?
- Askotan gogo haundiik´pe bai majiña bat aldiz!
- Eta etxian, aittak eta amak eta, ze esaten zuen?
- Ze esango [...], ezer ez aitte!
- Baiña nahi zuen?
- Hoixe!
- Nahi zuen zuk...
- Hoixen, hoixen nahi zuela! Baten bat behar zala ta ordun jende asko zitxion ta mezan kantatzeko ta zeatzeko ta.
- Ba, ume guztien artian zu hartu izan...
- Bai, ba! Ordun zeatzeko basarritarra o zeatzeko ta, ni nitxion zeatzeko moun, zea, maiorazgo bezela bertan segitzeko...
- Karo.
- ... noronor, ta ni zeatu behar. Beste batzuk...
- Zu aukeratu.
- ... kanpoa jun behar zianak haiek [...] zean? Ez, haiek ezin sartu.
- Eta horreatik sartu ziñan zu, orduan, maiorazgua ziñala.
- Bai. Hoixen, maiorazgua nitxalako.

3.15. Franco hil zen gauean 20 kilotik gora angula

- **Hizlaria(k):** Etxabe Etxabe, Benito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-012/015
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:23:15. **Bukatu:** 00:26:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- **Laburpena:** Angulatarako garaia; berak San Migeletan ere harrapatu izan ditu. Gaur egun asko galdu da angula. Berak gau batean (justu Franco hil zen gauean) 20 kilotik gora angula harrapatu zituen, ufalak

egin ostean urak dena beherantza arrastatu zuenean. Angula gehiena Eibarko Txaltxa jatetxera saltzen zuten. Biberiak.

Transkripzioa

- Eta noiz da garai ona? Ointxe izaten da, ez?
- Ba, San Migeletan ta, urte batzutan harrapatzen zan hor.
- Bai, e? Setienbrian?
- Bai, bai. San Migeletan harrapauta nitxiok egun batian presa ondoa jun ta bi kilo angula.
- Joño!
- Oain, oain gutxi dek.
- Galdu in da, ez?
- Beno, igual etorriko dek berriz´e, zeatu aldiya.
- Bai, laga ezkerok, ez?
- Nik gau batian hogeita gehio kilo angula harrapau nixkin.
- Bai?
- Bai. Baiña orduan banitxan angula zeona ta juten niñun presa ondoaiño ta eunero bi o hiru kilo angula harrapau. Ta geo etorri hittuan ujal haundiyak ta jota erriyuan zea guztiyak dana behera arrastau ziyen, zea alde ta, Bedua aldetikan beherako zea hortan, hor ura zeatzen danian han, nunbaitt han gelditu ta, geo zean, hor uren argitzea [...], jata bazterrian [...] alde batea ta nahiz bestetikan [...]. Bai. Hartu ta ra! bat, ra-ra! bat, ...
- Harrituta, ez?
- Berrogeita hamar bat o ziento bat igual kalada batzutan!
- Bai, e?
- Bai. Baiña halakuak gutxi.
- Normalian pare bat kilo, eo...
- Bai.
- Eta angulekin gero saldu iten zian?
- Hoixe!
- Nora, ba?
- Guk Eibarrea saltzen giñun gehiena.
- Eibarrea?
- Txaltxa, Saltxa o...
- Bai.
- Zea horrena.
- Restaurana.
- Bai. Restauran horta.
- Eta zuek eramanda, eo? Zuek hara jun ta han salduta?
- Ez! Beak eskatzen ziyen. Ta guk biberuan euki zea, angulak, ta beak eskatzen ziyen eamateko honenbeste kilo ta, bezperatikan, ta hartu, trenian jun ta eman ta.
- Bizirik gorde egun batzutan, ta...
- Bai, ba. Biberuan zeatzen.
- Ta biberua nun zenuten?
- Bat han behien, geo autopista... hauek puskatu zien ta. Hemen [...] beste bat, eta. Ura zeon tokiyan.
- Eta Xabierrek esan zian, Franco hil zan gabian [...]?
- Ordun, ordun nun, ba, manifestaziyuan erten ziala, lanak!
- Ordun izan zan?
- Bai. Ta aurreko bi egunetan ujal haundiya. Ta jun ta batez. Ta manifestaziyua erten Franco hil zan gauian danak.
- Orduan izan zan hogeita kilo harrapatu zenduna?
- Hogeita gehio kilo.

3.16. San Telmo, San Pankrazio eta Santa Rita, jaiak eta mezak

- **Hizlaria(k):** Irigoien Etxabe, Jose Migel; Zubia Azkue, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-015/004
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:03:45. **Bukatu:** 00:05:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** San Telmoko zaintzailearen lanak zerrendatzen ditu: garbitu, txukundu, apaizari lagundu, arropak garbitu... Lanik gehiena San Telmo egunean izaten da eta hurrengo igandean, San Telmo bigarrenegun. San Pankrazio egunean ere meza izaten zen (maiatzaren 12), eta Santa Rita egunean ere bai. Azken urteotan ez da egiten. Santu horien irudiak ere ermitan daude.

Transkripzioa

- Eta zaintzaillian, San Telmoko zaintzaillian lana zein izaten da? Zuen lana San Telmon eta...
- (Joxe Migel) Han ze lana izaten dan? Pues, aldaria garbitzia ta txukun eukitzia. Han iten deu urtian behin linpieza jenerala: eliza garbitu, fregatu, [...] dana garbitu, pixkat argizaidxa eman eta mantelak plantxatu. Ta gero bere egunian, pues, jantzi eleiza, jantzi eleiza. Eta, pues, geo, pues, apaizak jun... hamabi o hamahiru o hamabost apaiz juten dian, eta meza nausidxa iten due, ur bedeinkatu geo kanpuan ta geo ondoren berriz´e parrokira.
- Parrokira behera.
- (Joxe Migel) Behera. Bai, prosezidxoko parrokira juten dia.
- A!
- (Joxe Migel) Bai. Eta geo izaten da, San Telmo bigarrenegun izaten da meza berriz´e. Hau izaten da, nola esaten da, "animien meza" esaten da. Arrantzialientzako meza izaten da.
- Hildako arrantzalian...
- (Joxe Migel) Bai. Eta geo ya [itxita] eoten da, ba.
- (Ana Mari) Lehenoz izaten zan...
- (Joxe Migel) Egun hortan bakarrik eoten da irikita, San Telmo egunian.
- San Telmo egunian eta [...]?
- (Ana Mari) Lehenoz Santa Rita...
- (Joxe Migel) A! Geo izaten zan San Pankrazio meza.
- Hori noiz da?
- (Joxe Migel) Doce de Mayo izaten da, ba. Eta jende asko juten zan, asko, jende asko.
- (Ana Mari) Eta Santa Rita.
- (Joxe Migel) Eta geo handikan aste betea izaten da Santa Rita eguna, veintitrés de Mayon hori´re. Han gutxidxo juten zian, baiño jende asko juten zan bestela´re. Eta geo sartu zian hemen parrokiko jende hoidxek eta... [habei] in behar zan meza berriz urtero, ta, ya ez, laga in behar zala ta [ez dakit ze ta badakit ze la cosa] ya oain mezik ez dala iten, ez San Pankrazio egunian ez Santa Rita egunian.
- Eta zergatik ospatzen zian Zumaiko San Pankrazio ta Santa Rita ta...
- (Ana Mari) Santuak dauelako bertan!

- (Joxe Migel) Fede asko asko zaken jendiak. Jendiak fede asko.
- (Ana Mari) Fedia jendiak! Aintziñatikan dator hori!
- (Joxe Migel) Fede asko.
- (Ana Mari) Santuak daude eleizan...
- (Joxe Migel) Han zaben. Bi dabe.
- (Ana Mari) ... Santa Rita ta zea hoidxek eta orduan nola santuak han dabezen...
- (Joxe Migel) Karo!
- (Ramon) Salbadorak ekarri zitun.
- (Joxe Migel) Bai.
- (Ana Mari) Bai eta ba, meza ateatzen zan. Baiña geo badakizu.
- (Joxe Migel) Urtero ta geo hola in zuen parrokidxak eta...
- (Ana Mari) Geo galaazi hasi in zan beste gauza asko bezela...
- (Joxe Migel) Karo.
- (Ana Mari) ...ta meza hoidxek kendu in dia. Kendu in dia meza hoidxek. Eta uan, ba, bodak eta...
- (Joxe Migel) Uain bodak bakarrik.
- (Ana Mari) ... bodak bakarrikan.

3.17. 1950 inguruan ekarri ziren Santa Rita eta San Pankrazioen irudiak Zumaiara

- **Hizlaria(k):** Irigoien Etxabe, Jose Migel; Zubia Azkue, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-015/008
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:12:40. **Bukatu:** 00:14:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
- **Laburpena:** Santa Rita eta San Pankrazio egunetan ere meza izaten zen San Telmo egunean. Parrokiko meza kendu eta arratsaldeko meza (zazpietakoa) San Telmoko ermitan egiten zen. Ez da ohitura zaharra. XX. mende erdi aldean ekarri zituzten irudiak Madrildik eta orduan hasi ziren mezak.

Transkripzioa

- Zuek, orduan, ezautu dezuena da Santa Rita, San Pankrazio ta San Telmo
- (Joxe Migel) San Telmo, hiru hoidxek.
- Hiru hoiek. Eta nolakuak izaten zian mezak lehenok?
- (Joxe Migel) Meza normala. San Pankrazio egunian tokatzen zan, klaro, nola izaten zan maiatza, ordun iten zan Parrokiko meza hara pasa, ta iten zan errosaidxua ta geo ondoren meza.
- Eta esan dezu jende asko izaten zala?
- (Joxe Migel) San Pankrazio egunian bai, asko. Dana bete-bete-betia. En cambio, Santa Ritako egunian ya gutxidxo, baiño, halare, jendia juten zan.
- (Ana Mari) Bai, jende politta.
- (Joxe Migel) Jende politta juten zan.
- (Ana Mari) Uain dala denboa gitxi kendu due, e!
- (Joxe Migel) Pare bat urte o igual. Pare bat... o gehidxo?
- (Ana Mari) Gehidxo! Txomiñek kendu zian ta!

- (Joxe Migel) A!
 - (Ana Mari) Txomiñek.
 - Ta jai izaten zan San Pankrazio?
 - (Joxe Migel) Ez, ez, ez, ez. Asteguna. Asteguna.
 - Eta meza goizian?
 - (Joxe Migel) Arrantsaldian zazpiretan. Zazpiretan izaten zan meza. Parrokikua kendu ta hara pasa zuen meza. Beste ezer ez.
 - Eta hori lehenore bai, zuen gurasuen sasoian eta...
 - (Ana Mari) Nik ez nun ezautu.
 - (Joxe Migel) Nik'e ez.
 - (Ana Mari) Antziña-antziña igual...
 - (Ramon) Hor zeon lehenore honek esan duna Ixiar Goimendin ama...
 - (Ana Mari) Ama!
 - (Joxe Migel) Salbadora.
 - (Ana Mari) Salbadora.
 - (Ramon) Salbadora ibiltzen zan. Ta hark tratuak bazezkan prailliakin ta...
 - (Joxe Migel) Karo!
 - (Ramon) ... Madridea're juten zan ta handikan dirua ekarri ta obrak iten zituen. Eta hark ekarri zitun berrogeta hamar buelta hortan ekarri zitun bi figura Madritikan, Santa Rita ta San Pancraccio. "San Pancraccio, salud y trabajo", ta horreatikan, horreatikan daka, zakan indarra.
 - (Joxe Migel) Bai.
 - (Ramon) Ta hori el año en el año cincuenta... ez dakit ze izango zan, tximistak jo zidxon ermitai. Ta gazta balitz [...], erdi-erditik ebaki zun ermita tximistak. Jende dana jun giñan ikustea, ebaki-ebakita. Ta orduan Eduardo Zubia ta juntatu zian, Valentin Manterola ta, in zuen proiektua. Hortxe Xixkolonian eon zan planua ta ez dakit nundik, aiuntamientuak lagunduta eo, in zuen obra haundixa.

3.18. San Telmoren inguruko tradizioa

- **Hizlaria(k):** Irigoien Etxabe, Jose Migel; Zubia Azkue, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-015/011
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:18:20. **Bukatu:** 00:20:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
 Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Badirudi San Telmoren ohitura Galizia ingurutik ekarri zela XVII. mende inguruan. Gipuzkoan ez da beste inon San Telmorik. San Telmo kalean ere bada, ustez San Telmorena den irudi bat, baina ez da San Telmo, San Isidro baizik. Zumaian oso sartuta dago: itsasontzien izenak, trainerua, umeen izenak, eta abar.

Transkripzioa

- Eta historiya ta badakizue? Noiz sortu zan, ta... ez?
 - (Joxe Migel) Nik ez... Nik ez dakit.
 - Beti kofradiyakin ta...
 - (Ana Mari eta Ramon) Bai!
 - (Ana Mari) Guk hala ezautu gendun.
 - (Ramon) Bai. Hori badazkidxe. Libruan [...] aitatzen dittu, bai, hamazazpi,

hamazazpigarren gizaldiran eo in zala eo. Berez esaten due, ez da hemen San Telmo... maiñelak ekarri zuen Galizitikan San Telmuen...

- (Ana Mari) San Telmua, bai, bai.

- (Ramon) ... San Telmuen asuntua, han zan, zea...

- Tradizidua.

- (Ramon) Ta Donostiduan daon San Telmo Dominikua zalako ta prailiak jarri zuelako Museo San Telmo, Dominikuak jarri duelako. Bestela hemen Gipuzkuan iñun ez dao San Telmoikan. Eta hori berez maiñelak Galiziduan ibillita, handik ekarri omen zuan zea hori, Santo horren kontua. Bestela Euskal Herriduan ez dao San Telmoikan.

- Baiña, baiña Zumaiduan bai, ez? Beti izan du...

- (Ramon) Zumaiduan, beti, buelta hortan.

- (Ana Mari) Bai.

- (Ramon) Hara hasi zianian juten, Galizira juten zianian. Ta geo Calle San Telmon dao paetian bere imajen txiki bat, "Glorioso San Telmo". Baiño etorri dia teknikuak eta jendiak ibiltzen dia, eta...

- (Ana Mari) Ke ba! Ez da.

- (Ramon) Ez da San Telmo bizarra kenduta. San Telmok ez zakan bizarrikan.

- (Ana Mari) Ez.

- (Ramon) Ta kalia daona bizarrakin dao, baiño...

- (Ana Mari) Bizarrakin. Askok... Berez gazte-gaztia da. [...] horrela borobil-borobilla...

- (Ramon) Bai.

- (Ana Mari) Hola, zuk dakazun bezela.

- (Ramon) Santuak bai.

- (Ana Mari) Gazte-gaztia. Ta kalia daona zea baiño zaharro, nere aittaita baiño zaharro! San Isidro.

- (Ramon) San Isidro dala ematen du, bai.

- (Ana Mari) Barkun batek ekarri omen zun. Han jarri omen zuen, ta...

- (Ramon) Jarri ta han dao, kalia.

- (Ana Mari) San Telmon bezela. Ta nik esaten [zion] amai gaztio nitxala: "Nik ez det entenditzen hau nola dan! Eliza juten zea ta han Santua gazte-gaztia dao. Eta kalia zahar-zaharra. Zein da? Bere aitta al da, ba?", ta "Ez! Ekarri in ziñenan barko batian". Ekarri in ziyen ta hor jarri ta... San Telmo! Antziñako kontuak!

- Eta San Telmon inguruan bada tradiziorik? Hala ba, San Blas gaixotasunak eta sendatzeko ta...

- (Denek) Ez!

- (Joxe Migel) Hori komentuan!

- (Ana Mari) Ez, ez, ez, ez! Baiño San Telmon ez.

- (Joxe Migel) San Telmon ez.

- (Ramon) Itsasoko barko batek "Glorioso San Telmo" izena zun...

- (Ana Mari) "Glorioso San Telmo" izena jarri zidxo.

- (Ramon) Geo San Telmo itsasoko, itsasoko protektoria bezela. Oridxon San Nikolas dan bezela.

- (Ana Mari) Bai. Bai.

- (Ramon) Eta geo trainerak ere San Telmo [...].

- (Ana Mari) San Telmo. Oseake, San Telmo dao Zumaiduan oso Zumaikua...

- Oso sartuta, ezta?

- (Ana Mari) Oso sartuta dao.

- (Ramon) Bai. Umiak ere badabe izenakin, Telmo, badabe.

- (Ana Mari) Bai, Telmo eta izena? Bai.

- (Joxe Migel) Bai.

- (Ana Mari) Ta inkluso kanpua ere bai. Kanpua' e bai, kanpua' e bai.

Hemen ingurukuak o gurasuak hemenguak. Telmo jarrita, Telmo jarrita.
 - (Ramon) Badabe, bai. Hoixen. Bestela...
 - (Ana Mari) Ta bestela, berez, histori txikidxa, guk dakiuna, e!
 - (Ramon) Ez. San Blasena bezela, bedeinkazidxua eta iten zianak...
 - (Ana Mari) Bea sartu omen zuen uretan, urte batian, San Telmo, prozesidxuan!

3.19. Hildakoen inguruko ohiturak; errespontsuak; lutoa

- **Hizlaria(k):** Etxabe Egaña, Ana Mari; Zubia Azkue, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-017/007
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:09:50. **Bukatu:** 00:11:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Norbait hiltzean dirua ematen zitzaion familiari laguntza gisa. Diru hura elizako sepultura gainean jartzen zen trapu beltz baten gainean eta handik apaizari errespontsuak ematen zitzaizkion (3 txakur txiki bakoitzean). Peldumena eta kandelabroa jartzen ziren sepultura gainean. Emakumeak mantila beltzarekin joaten ziren. Lutoa sakratua zen eta 2-3 urte irauten zituen.

Transkripzioa

- (Ana Mari) Eta orduan han jartzen zan trapu hura ta han dirua botatzen, dirua zer zakazun, diru hura han jartzen da, trapu hartan. Eta apaizak hasitzen zan hiru perro txiki, errespontsua. Hiru perro txiki ta taka!, hiru perro txiki, ta peldumena, hura. Eta geo meza nausita ta juten ziñanian, zeure sepulturan, peldumena hura jartzen zan.

- Eta piztu?

- (Ana Mari) Ta piztu. Trapo beltz batian.

- Eta zuen sepul... Zuek jarri ere, sepultura inguruan edo exeritzen zan?

- (Ramon) Bai. Bazekidxen nun zian, ze lekuak zian.

- (Ana Mari) Bai, bai, bai, bai. Nik badakit guria nun zan uaindikan ere.

- (Ramon) Eske, erditikan aurea bankuak zian, banko luziak, gizonetzkuenak. Baiño erditik atzea zian sillak.

- (Ana Mari) Sillak, emakumientzako sillak, sueltuak. Oain ere izango dia dendan batzuetan. O dendan ni berriz, elizan.

- (Ramon) Eta silla hoidxek moitu iten zian, ta gaiñea kobratu zeoze [...] ibiltzen zian.

- (Ana Mari) Bai, hiru perro txiki sermoitan paatzen zian.

- (Ramon) Orduan, silla ta silla tartian lekua bazeon jartzeko horrek esan duna, zapi, trapo beltz bat, bere pildumenakin.

- (Ana Mari) Bere pildumenakin.

- (Ramon) Bestiak, kandelak ere [...].

- (Ana Mari) Kandelak ere bai izaten zian. Bi kandela, kandelabruak, eta erdidxan peldumena hori izaten zan.

- (Ramon) Difuntua ta juten zian familikuak, alabak eo alarguna, alarguna ez, baiña familikuak, manteliñakin, danak beltz-beltz-beltz jantzita. Zuk ezautu dezu hori?

- (Ana Mari) Bai, bai, bai. Nere ama, bere, bere...

- (Ramon) [...] lotzen zian...

- (Ana Mari) Bai.

- (Ramon) ... manteliñak zian puskak, ta iten zuen tunika bat bezela, beltz-beltz-beltz jantzitzen zian. Ta hantxen eoten zian eleizan zeakin, ez dakit zenbat denpoan...

- (Ana Mari) Bai, ez dakit, urte betian o izaten zan...

- (Ramon) Lutuan´e hiru urte o ze izaten zan?

- (Ana Mari) Bai, lutuan´e denboa asko. Bi urte behintzat beltzez.

- (Ramon) Bi urte, urte bete [...], alibidxua.

- (Ana Mari) Bai.

- (Ramon) Blusa zuri bat eo lazo bat eo...

- (Ana Mari) Bai, baiña bi urte pasata, e!

- (Ramon) Ta baten batek puskatzen bazun, alargun batek pixkat o, o dantzan ikusi zuela, eo, ez dakit ze in zuela, adios! Marmarrak eta... Lutua izaten zan fuertia.

- (Ana Mari) Muy sagrau, muy sagrau.

3.20. Hildakoen inguruko ohiturak; errespontsuak; sepulturak

- **Hizlaria(k):** Etxabe Egaña, Ana Mari; Zubia Azkue, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-017/009
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:14:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** Elizaren aldaketarekin batera galdu ziren hildakoen inguruko ohitura zaharrak. Arimen Egunean, eliza kandelaz beterik egoten zen eta belztuta irteten ziren elizatik. Apaiza sepulturaz sepultura joaten zen eta norberarenera iritsi artean itxaron behar. Norberarengana iritsitakoan, diruak gastatu arte hantxe egon behar izaten ziren.

Transkripzioa

- Eta gutxi gorabehera noiz galdu zan tradiziyo hori, ba, zapi beltza ta pildumena...

- (Ana Mari) A! Karo! Eleizan aldaketak etorri zianian.

- (Ramon) Sesenta y dos...

- Sesenta y...

- (Ana Mari) Bai, porke ni nere amonakin eon nitzan katxarro horrekin. Bai, eleizako aldaketa in zuenian.

- (Ramon) Baiño eleizatik ertentzen gendun, hainbeste peldumen ta hainbeste kandela Anima Egunian, beltz.

- (Ana Mari) Beltz-beltza.

- (Ramon) Ordu betian eoten giñan, e!

- (Ana Mari) Dana beltz-beltz.

- (Ramon) Dana [...] buruko min [...]. Honela in sudur-zuluan ta dana beltz.

- (Ana Mari) Dana beltz.

- (Ramon) Zeon zientoka kandela.

- Animen Egunian.

- (Ramon) Anima Eguna.

- (Ana Mari) Bai. Geo egunetan, egunetan eoten zan zapi horrekin, dirua bukatu arte. Oseake zuk sepultura bat baldin bazakazun aurrian, zeoze, porke hasitzen zan apaizan aurretikan, respontsua ta hiru perro txiki o lo que sea, pezeta. Beste respontsua? Ta berriz'e, bukatu arten. Geo aldamenekuai. Ta guk gendukan atze-atzian, atien onduan sepultura. Baiño hantxen eon bihar, zuria tokatu arten. Eta zuria bukatu arten... Nik behintzat lo hartu nun, ta manteliñak'e sua hartu zian. Eta hantxen... Karo, gure amak eta egun guztidixan han. Eta jun zea, ba, uan zu guk jatordua o zeoze iteko, ta hantxen. Zure txanda tokatu arten. Eta [...], punba!, hiru perro txiki. [...], punba! Ta asko baldin bazakazun... Gutxi baldin bazan ez, baiño, han eon behar. Eta geo, peldumena hori eramaten zan meza nausira eo urte betian, eo ez dakit noiz arten izaten zan hori.

- (Ramon) Bai, izaten zan anibersaidxua ta pasatzian. Meza, meza, nola izaten zan?

- (Ana Mari) Baiña diruen kontu hori egun guztidixan eleizan.

- (Ramon) Gregorianak eta hogeta hamar meza, goizian goizo igual jartzen zuen, goizeko sei t'erditan, ta hara juten zian. Ta azkeneako jendia nekatu iten zan. Fedia baiño're, debozidxua baiño gehidxo, aspertu. Horrek esan duna, dirua're, amorratzen diru hura...

- (Ana Mari) Bukatzeko geo amorratzen!

- (Ramon) Bi orduan nola eongo ziñan [...]!

- (Ana Mari) Ez! Egun guztidixan ere bai! Eta egun batian bukatu ez ta beste egunian ta. Bukatu arten danak! Eta guk azken-azkena gendukan ta a!, bueno, guk pasatu gendun han! Bueno, bueno, bueno! Bukatu arten!

3.21. Zazpi aldaretan mezak

- **Hizlaria(k):** Etxabe Egaña, Ana Mari; Zubia Azkue, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-017/010
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:14:50. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena:** Zazpi aldare zeuden lehenago eta egun batzuetan aldare guztietan egoten ziren apaizak meza ematen. Estipendioa. Norbait hildakoan hildakoari "meza ateratzeko" ohitura.

Transkripzioa

- (Ramon) Geo zauden altare asko, ta apaizak mezak ematen zituen altare danetan. Uain bat daon bezela, kapillan bi, San Josena, lau, bost altare... ez gehidxo! O bai, sei. Sei altare zauden. Ta erdikua zazpi.

- (Ana Mari) Non zian ba, bestiak? Erdikua, bi kapilla...

- (Ramon) Geo zauden aurrian, zean, San Telmo [...] beste bi altare.

- (Ana Mari) Bai, bai, bai. Uan ixeritzeko dabezen banko hoidxetan, ez?

- (Ramon) San Jose, eta animen purgatoixotakuan, sei, zazpi. Ta bazian egunak danetan apaizak meza eman ta meza eman, danak difuntuaneko. Ta meza bakoitzak zakan estipendio esaten zidxoan zea, dirua zakan. Ta honek esan duna, familiya hola zeoze zana, diru asko jasotzen zuen ta dana hua gastatu arte, mezak, gregorianak, eta.

- (Ana Mari) Egunak eta...

- (Ramon) Egunak eta segi! Uaiñ ere, uaiñ ere hori ´re badake ohitura, hori nei ez zait behiñ ´e gustatu baiño, meza ateatzen didxoe igual bere amen eguna da... ateatzen al dezue meza?

- (Ana Mari) Ez, laga in nun.

- (Ramon) Zuek?

- (Ana Mari) Nik laga in nun, laga in nun...

- (Ramon) Badia uaindik jendia jun ta apaizai...

- (Ana Mari) Eta hemen ere bai...

- (Joxe Migel) Hamabi duro.

- (Ana Mari) Oan hamabi euro, ta laga in nun.

- (Ramon) Mezetan izena esaten ditu.

- (Ana Mari) Bai.

- (Ramon) Honen amena, honen aittena, taka-taka. Askotan Maria esaten du, ta Mariak berrogei dabez Zumaidxan.

- (Ana Mari) Bai.

- (Ramon) Baiña geo hori esaten du, Concilidxuak ekarri zun difuntu guztidxenak, danenak esateko mezetan esaten du. Ta difunto danak sartzen diala orazidxuan. Orduan ez dakazu ze aitatuikan [...] izena.

- (Ana Mari) Bai, oaindikan, uan dala denboa gitxi...

- (Ramon) Andre Maiko egunian mezeta jun ta igual esan zituen hogeita hamar!

3.22. Aste Santuan erretaulako irudi guztiak estalita

- **Hizlaria(k):** Etxabe Egaña, Ana Mari; Zubia Azkue, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-017/012
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:18:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
 Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena:** San Lazaroren inguruko azalpenak. San Lazaro egunean elizako erretaulako irudi guztiak estali egiten ziren. Aste Santuan tela morez estaltzen ziren elizako irudiak. Berpizte egunean berriz estalki guztiak kentzen ziren.

Transkripzioa

- (Ramon) Erramua baiño lehenagoko jaidxa zan Lazaro, esaten zidxuen. Lazaro da, Lazaron milagrua badakizu, Marta ta Marian anaidxa zala ta, hil in zala ta Jesusei deitu zidxoan ta "berandu zatoz, hiru egun da hilda daola". Ta Jesusek zeatu in zun, resuzitatu in zun Lazaro. Eta Lazaro esaten da. Lazaro egunian iten zuen Zumaiko erretaula goitikan behera, ez dakit ze polea eta zer ibiltzen zian...

- (Ana Mari) Baiño danak, ez Zumaidxan bakarrik.

- (Ramon) Bai, eliz danak. Baiño Zumaiko retablua, e!

- (Ana Mari) Tela.

- (Ramon) Tela more, more-more dana.

- (Ana Mari) Baiño tela...

- (Ramon) Santo danak, dana tapatzen zan.

- (Ana Mari) Dana, dana, ta ez da ezer ikusten.

- (Ramon) Orduan lan haundidxa eoten zan porke hasten zan zeakua´re, ostial santuko monumentua´re eskaletakin´e, jesukristoko tinglaur. Ta zebeñ Xakunekuak eta uribetarrak eta Ostolaza, jende asko ibiltzen zan parrokidxan lanian.

- (Ana Mari) Bai, jende asko zeon hor.

- (Ramon) Gasto haundidxa, gastua. Uaiñ ez da ezer´e iten.

- (Ana Mari) [...] Gabian prepaatzen zan Andre Maikua, gabian.

- (Ramon) Ta han polea batzuk eta bazaben retabluan, ta dan-dan-dana more-more-more, dana. Aste Santuetako elizkizun dan-dan-danak, danak more-more-more. Ta errezurrezi goizian prozesidxuak juten zianeako ya dana kenduta eoten zan.

- (Ana Mari) Oseake, gabian iten zuen lana.

- (Ramon) Kentzen zuen momentutikan hautsak´e garbitzen zituen ta behiñ´e baiño ederro azaltzen zan eleiza. Hori´re zan Aste Santutako, oso politta. Bai.

- (Ana Mari) Politta zan.

- (Ramon) Ta santua, zapidxa moria, tela...

- (Ana Mari) Errespetua ematen zun.

- (Ramon) Izugarridxa, izugarridxa.

- (Ana Mari) Errespetua ematen zun harek.

3.23. Zumaiaiko eliza eta ermitak

- **Hizlaria(k):** Etxabe Egaña, Ana Mari; Zubia Azkue, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-017/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:18:30. **Bukatu:** 00:20:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- **Laburpena:** Zumaiaiko elizak: San Telmo, "Andremaixa" (Arritokieta), Zuloaganeko finkako kapera, San Migel (Artadikoa) eta Oikiako San Bartolome. Komentua; zenbait ikastetxetan ere kaperak zeuden lehenago. Komunio, hileta eta ezkontza gehienak parrokian izaten ziren. Bederatizurrenak eta bestelakoak ere parrokian egin izan dira. Andra Mariko elizan noiz egoten diren meza eta bederatziurrenak. Gaur egun jendea Arritokietan edo San Telmon ezkontzen da, leku politak direlako.

Transkripzioa

- Beste galderatxo bat. Zumaixan zenbat eliza, eo zeintzuk dia eliza ta ermita ta...

- (Ramon) Ermita honek esan duna, San Telmo ta Andre Maidxa Arri... Guk Andre Maidxa esaten deu, Arritokietai esaten diou Andre Maidxa, Axkoitidxan´re bai, Andre Maixa. Geo dao, Zuloaganeko finkan dao kapilla.

- (Ana Mari) Kapilla polita da, oso politta.

- (Ramon) Partikularra da, oso politta, Beobiden gurutziaquin ta oso politta da. Ta geo dao San Miguel de Artadi. Ta geo dao Oikidxan San Bartolome. Hoidxek Zumaiko...

- (Ana Mari) Hoidxe Zumaikuak.

- (Ramon) Zumaiko terrenuan dao San Miguel, San Bartolome, Zuloaganekua...

- (Ana Mari) Zuloaga...

- (Ramon) San Telmo...

- (Ana Mari) San Telmo ta Andre Maidxa.

- (Ramon) Ta geo dao konbentua.

- (Ana Mari) Geo konbentua. Oan beste bat itxi in da, monjetakua, Maria Jose.

- (Ramon) Bai, hor ere kapilla zan lehenore bai.

- (Ana Mari) Kapilla zan ta aurtan, setienbrian, setienbrian itxi zan.

- (Ramon) Kolijidxuan kapilla txiki bat zaken.

- Eta geo parroquia.

- (Ana Mari) Parrokia.

- (Ramon) A! Geo Mercedaidxuan kolejidxuan ta're kapilla txiki bat gendukan, ta geo parrokia.

- Eta holan, tradizio gehien edo nun izaten zan? Herriko jentia eta gehien...

- (Ramon) Parrokia. Danak parrokia. Ta kumunido txikiak eta enterruak eta ezkontzak gehitzenak eta zeak, pesta dana, urteko zea dana, parrokia iten da. Nobenak...

- (Ana Mari) Andre Maidxan nobena.

- (Ramon) Nobena Andre Maidxan, baiña nobenak iten zian Inmaculadenak eta iten zian gauzak, parrokia ze iten zian, beste ze nobena iten zan? Parrokia Inmaculadana ta besteik?

- (Ana Mari) La Inmaculada. San Josea're bai.

- (Ramon) Geo... San Josea. Eske, arratsaldeko mezetan, goizeko mezetan, iten zian nobenak, danak parrokia. Setienbrian Ama Birjin eguna izaten da Andre Maikua ta iten da nobena. Uaindikan hori, ohitura hori dao. Jendia juten da.

- Ta bestela ez da izaten, mezarik eta ez da izaten...

- (Ramon) Bai. Mezik... a! Bueno!

- (Ana Mari) Mezik ez. Mezak Maiatzan sapatuan.

- (Ramon) Hori. Maiatzian ama birjinen hilla dalako, sapatuetan...

- (Ana Mari) Sapatero-sapatero, meza.

- (Ramon) Meza.

- (Ana Mari) Ta geo nobena setienbrian.

- (Ramon) Ta geo bodak.

- (Ana Mari) Bodak.

- (Ramon) Bodak. Leku politak dia, leku politak dia bai San Telmo ta bai hau, frente-frente ikusten dia. Ta hoidxe oso estimatuak dia. Kanpotikane etorri iten dia, batez ere San Telmoa, paraje polita dalako, e!

3.24. Gabon egunean hiru gabon-eske mota

- **Hizlaria(k):** Garate Elosua, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-019/006
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Ohiturak eta sinesmenak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
 - Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak
 - Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

- **Laburpena:** Gabon egunean hiru eske klase egiten ziren: goizean zakuak hartu eta eskean joaten ziren. Gosea ere izan zen gerra ondorenean eta jendeak jatekoa ematen zuen: mandarinak, pikuak, intxaurrak... Bazkalostean "Gomexago" abesten zuten eta janaria biltzen zuten. Zumaian ohikoa zen kanta hori. "Gomexa" arrain-mota bati deitzen diote. Beste talde batzuk jaiotza hartuta gauean irteten ziren eskean, eta haiek abesti gehiago kantatzen zituzten. Haiei dirua ematen zitzaien. Bataioetan ere abestu eta dirua eskatzen zen.

Transkripzioa

- Erregaluak izaten zian erregetan.
- Erregetan.
- Eta gabon egunian eta…
- Gabon egunian?
- Ze izaten zan?
- Ya. Hori’re ba […]… Gu gabon-eguna hasten gitxuan, Zumaian uandikan ibiltzen dia, Niño Jexuxen eskia esaten gitxuan, Jexuxen eskia.
- Hori hogeta lauan?
- E?
- Hogeita lauan.
- Hogeita lau goizian zako zuri bat hartzen dek, lehenen en jeneal zea izaten huan, almuhada burukuen zea, buelta eman ta, korapillua in ta hura hartu ta itxez-itxez eskian, Niño Jexuxen eskian. Ta, ba, garaian hartan, ba, badakik, gaiñea gosia’re asko [zuan], ta… Ta naranjak eta intxaurrak, pikuak, hurrak, mandarinak. Dirua’re bai, baiña dirua en jeneal gitxio izaten huan dirua ematen… Uan izaten dek dirua asko! Eta holakuak bildu ta…
- Eta kantuan inda o…?
- Ez, hori gero. Goizian Niño Jexuxen eske.
- Eskian.
- Geo iten huan eguardixan, bazkaldu ta geo, hamen esaten dana "gomezago". "Gomezago" esaten gitxuan.
- (Lagunak) […].
- [Esan izena horrekin], bai. Hori ba… Beste batzutan beste izen bat zikak…
- "Gomezago"?
- Bai, Zumaian "gomezago" esaten dek. Uandikan´e kantatzen dittuk taberna batzutan, ta [...], baiña. Itxez-itxez, [gaiñea] taldian neska ta mutil juntatzen gitxuan ordu bitan jenealian, ordu bitan kanpaiak jotakuan, ordu bitan, eta aurrian jarri ta "Gomezago / noiz harrapatuko / arrai hori? –hori’re toki askotan ibiltzen dek– Bart arratseko / ordu bietan / itsasuaren erdian!". Ta geo goitikan, ba, hori’re, naranjak eta urrak, intxaurrak, kakauexak, holako zeak botatzen zitien, ta hik hartu.
- Eta beti kantu hori?
- Bai, beti kantu bea. "Gomezago" beti. "Gomezago, buruhandi / noiz harrapatuko / arrai hori?".
- "Gomexa" arrai bat?
- Guk "gomexa", Zumaian "gomexa" esaten ziou beti, entenditzen? Bestetan itsas kabra esaten [dezue]. Guk "gomexa" horrei esaten ziu, beti "gomexa" ibili izan diu. Ta gabarrantzan’e beti…
- Ta hori izaten zan bazkalostian.
- Bazkalostian. Eta geo izaten huan jaiotzakin, jaiotza txiki batekin, lau lagun gitxixenez, en jeneal, lau o bost o sei o zazpi izan leike!, ya kantuan, etxetan ta tabernetan ta herriko kalia ta…
- Ta hor’e eskian?
- Hor’e eskian. Hor ya, hori ya en jeneal dirua. Hori ya dirua en jeneal. Bueno, dirua’re, "gomezago"´e, parrokuak botatzen […], neska ta mutil bat aparte jarri, mutillai en jeneal diru xeheaua ta neskai o erriala o geo pezetak, ta guri… Tartian neskena jun ta… Bai.
- Ta gero guzti honekin, bai janariyak in ta bai diruakin, ze iten zan, banatu o afarin bat o…?
- Ez, ez, ez, ez, ez! Ezer ez! Norbeak nor beretzat. Bakoitzak beretzat. Ta bestia zea’re, dirua zeian’e bai, bataixua. Bataixuetan…
- (Laguna) Bataixutan oain’e bai.
- … han dirua beti ezautu diyat nik. Geo hasi hitxuan batzuek karameluak botatzen o…
- Bataio ostian umiei

ta…
- Bai, ta kantua’re badao. Zea, nola da? "Umia xaguak jango du". "Umia xaguak jango! Umia xaguak jango!", ta braaaa!, orduan, ba…
- Dirua.
- Dirua botatzen [zan] ta dirua hartu. Bai.
- Eta hori izaten zan gabon-egunian, hogeita lauan.
- "Umia xaguak jango du" bataixuetan.
- Baiña beste…
- Bai, bestia, beste hiru hoidxek gabon-egunian.
- Eta…
- Goizeko eskia, eguadiako "gomezago", eta gabeko kantua, Niño Jexuxekin. Zautza’re jun izan ditzuk, ta nere anaia ta gero’re bai. Ta zea zeola, Mateo Mujika zeola, hari asko gustatzen zizkuan. Hara jun ta han kantau ta pezeta-o ematen zien ta… gustoa!

3.25. Sagardotegira norberak eramaten zuen jatekoa

- **Hizlaria(k)**: Garate Elosua, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-019/011
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:24:10. **Bukatu**: 00:26:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- **Laburpena**: Gerra aurretik sagardotegi eta txakolindegia gehiago zeuden Zumaian. Berak bi sagardotegi ezagutu ditu. Lehen sagardotegian edateko bakarrik ematen zuten eta jatekoa norberak eramane behar izaten zuen. Parrila egoten zen bertan eta sardina zaharrak, txitxarroak edo beste zerbait eramaten zuten. Sagardoa kanpotik ekarriko zutela uste du. Upela sagardotegia nolakoa zen.

Transkripzioa

- Eta sagardotegia…
- Sagardotegia…
- Bakarra zan Zumaian?
- Nik hala ezautua. Gerra baiño lehenuo asko eon bihar zien. Ta geo’re esaten zien: hau, hori, Goikoenekua, goruo, txakolindeixa’re bai. Txakolindeixak’e hiru o lau eon bihar zien. Entenditzen al dek? Txakoliña saltzen zien; sagardoteixak’e bai. Eske arduana gitxi zuan.
- Baiña hori gerra aurrian?
- Gerra aurrian, bai.
- Zuek ya sagardotegixa bakarria ezautu dezue?
- Guk sagardotegixa hori ta hau. Hau bai. Hau ezautu diyat. Hau, sagardotegi hau.
- Izena nola zaukan honek?
- Hau Upela.
- Upela sagardotegiya.
- Upela, Upela. Horreatik geo izena plazoletai’re Upela eman ziu, Upela sagardotegixa plazoleta horrei. Hamen bai, hau sagardotegixa huan.
- Eta zein izaten zan sagardotegiko plana? Uaingo bardiña, edo?
- Ez, ez! Orduan sagardua bakarrik ematen zien, zea!
- Jaten eta ez?
- Heuk ekarri bihar! O sardin-zaharrak, baakik, neguan gaiñea izaten huan, ta sardin-zaharrak o ze ekartzen huan. Parrilla bat hor eoten huan kanpuan, o txitxarrua o, sardiña erria…
- Norberak ekarritakua.
- En jeneal, norbeak ekarrita. Beaiiek zeoze jarri leiken, baiña gitxi. En jeneal beaiiek sagardua.
- Basua eman ta…
- Bai, basua eman ta basuak horrenbeste, o lo que sea, entenditzen al dek?
- Eta jendiak zer zun, gehio sagardotegiko plana o txakolindegikua o?
- Igualtsu izango huan hemen iruitzen... Hau nik sagardotegi bezela ezautu diat. Txakolingeziyak

esaten diyat, hiru o lau [•] han ta hemen baziala, bai•a•; Nik ez ditxiat ezautu txakolindegixa bezela, ez, ya taberna bezela, tabernak bai. Lehen txakoli•a iten zian ta geo [•] txakolindegixa zala ta geo taberna bezela.
- Eta sagardua bertan indakua zan?
- Ekarri ingo zien. Neretzat hamen ekarri. Ta hamengo barriketa•re nola betetzen zuen ez zekit, ez nauk gogoratzen. Bai•a ekarri, ekarri ingo zien, ekarri. Baserritatik neretzat ekartzen zien. Gurdidxan gai•ian ekartzen zien, gurdietan ekartzen zien sagardua.
- Bai?
- Bai, bai.
- [•]•?
- E?
- Barrika haundietan?
- Bai, barrika haunditan. Geo baldiakin o nola betetzen zuen ez zekiat, bai•a! Hemen kupelak fijo eoten hitxuan ta, baldiakin o.
- Eta sarrera-ta nundik zun? Oaingo bardi•a?
- Bai, bai, bai. Illuna zala, hauxe, illuna. Bestela egurra ta dana bea. Oan pixkat altxatua zioke hau. Barrikak hor eoten hitxuan ta mahai zea batzuk, zahar batzuk eta. Bai.
- Eta noiz aldatu zan, soziedadia iteko?
- Bai. Bueno, lehen pixkat itxita eon huan, ta geo, soziedadia iteko, ba, ez zekiat, berrogeita hamabidxa o izango huan, ez? Holakon bat, ez zekiat, bai. Berrogeita hamar urte in hitxuan, behintzat!

3.26. "Triñoneko" bainu beroak itsasoko ur beroarekin (I)

- **Hizlaria(k)**: Bidasoro Blasco, Trini
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-021/006
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:09:15. **Bukatu**: 00:11:50
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: Triniren familiak bainu beroak jarri zituen Itzurungo hondartzan ("Triñonekuak"). Itsasoko ura berotu eta 6 kabina zituzten bainuak emateko. Bonbarekin jasotzen zuten ura itsasotik euren etxetxora. "Ooldidxa" (algak) ere gehitzen zen, nahi bazen. "Ooldixa" eurek jasotzen zuten harraldean.

Transkripzioa

- Eta zuek izan zenduen, hor, playan, Itzurunen...
- Nere gurasuen zaharrak. Nere guraso zaharrak zeken baiño beruak, itsasoko urekin, berotuta, reumentzako.
- Eta nola zan hori? Oaingo talasoterapia itxurakuak?
- Hori, hori, hori, hor ez dakit zer daon! Ez det ezagutzen, ta!
- Baiña zuena horrelakua, ez?
- Neria, guria zan, geo nerena etorri zan, nere zeara etorri zan... Guria zan, ba, itxe bat. Genduzkan sei, sei zea, sei gela baiñera haundidxakin. Eta kaldera haundi bat zekan gure aitta difuntuak, linternerua zan ta. Eta han berotzen zan ura ta geo graduatu, eta ematen zian baiñuak. Ta etortzen zian, baita, baita, Madritikan'e etortzen zian...
- Bai, e?
- ... baiñu beruak hartzea, Zestuara.
- Karo!
- Zestuako urak hartu, ta hemengo baiñuak hartu, eta aprobetxatuaz.

- Eta itsasoko ura...
- Itsasoko ura, itsasoko ura! Ta itsasoko ura biltzen zun gure aittak, hondarrian zekan deposito bat einda. Ta hara, deposito hara etortzen zan ura. Eta geo gendukan bonba bat, honela. Hari eragin behar izaten giñon asko eskukakin!
- Eskuzkua zan?
- Eskuzkua. Ta harekin barruko zeara, depositoeta.
- Berotu...
- Berotu, graduatu baiñeretan, eta baiño eder bat. Ta nahi zituenak ooldidxakin, algak erderaz.
- Ooldixak, bai, e? Ooldixakin, e
- Egosi ooldidxa, haren ur beltzakin bota zeai, baiñerai, eta ona zan.
- Eta hori reumantzako, eta?
- Reumentzako.
- Eta ooldixa ta, nundik? Zuek jasotakua?
- Haitzetik.
- Haitzeik jasota?
- Haitzetik geuk jasota. Geuk jasotzen gendun, egosi ta botelletan sarzen giñuzen ur haidxek, eta baiñu berua eman behar zanian o eskatzen zuenian, hura botatzen gendun ta gehidxo kobratzen gendun.
- Eta hori nun zeon?
- Hor, itsasuan!
- Itsasuan bertan? Oaiñ komunak eta daben tokian, kantina onduan?
- Ba, hortxe, hortxe. Ezautzen dezu...?

3.27. "Triñoneko" bainu beroak itsasoko ur beroarekin (II)

- **Hizlaria(k)**: Bidasoro Blasco, Trini
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-021/008
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:12:30. **Bukatu**: 00:14:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: Bere aittaittak jarri zuen negozioa, Trino Bidasorok, eta ondoren aittak jarraitu zuen, Joakin Bidasorok. Garai batean ospe handia izan zuen; jende asko etortzen zen. Azpeitia inguruko jendea eta baita kanpotarrak ere, Zestoako balneariora etortzen zirenak. Udan bakarrik izaten zen.

Transkripzioa

- Noiz jarri zuen zure gurasuak?
- Hura?
- Bai.
- Jaungoikuak daki! Nik ezautu nun...
- Zuk txikitatik? Ume-umetatik?
- Nik, nik, han ezautu nun, han, nere aitta. Ta aittaitta're bai.
- Aittaitta're bai?
- Aittaitta're.
- Orduan, ez da, aittak jarritakua ez da?
- Ez. Aittaittak, aittaittak.

- Aittaittak jarritakua. Nola zun izena aittaittak?
 - Aittaittak? Nola zun izena? Nere aittak Joakin Bidasoro. Trino Bidasoro.
 - Trino Bidasoro. Eta berak jarritakua zan, orduan, baiñuak?
 - Bai. Bai.
 - Eta nolatan jarri zun hori? Nola okurritu zitzaion?
 - Honbre! Hori nola okurritu, nik nola jakingo det, ba, hori, ba, hark buruan hori jartzia?
 - Baiña esan dezu jende asko etortzen zala?
 - Asko. Guk baiña asko ematen gendun.
 - Eta gehixenbat zer zan, kanpoko jendia? Turistak? O, bertako jendia're bai?
 - Azkoitikuak ta Azpeitikuak ta Zestuakuak eta hemen eon hituan... Honea jende asko etortzen zan! Oiñ ez dakit nola daon...
 - Oain'e bai, baiña...
 - Gehidxo ez det nahi sartu hondartzan ta...
 - Eta kanpotik'e bai? Madrid...
 - Baita, bai, bai, bai, bai. Madriderako jendia etortzen zan, ba, jeneralian, ba, itxiak hartuta edo, pisuak hartuta edo. Ta geo, bitartez, aprobetxatu iten zuen.
 - Eta baiñuen hau zer zan, tenporadako, udarako...?
 - Udako bakarrik.
 - Udakua. Bai.
 - Noiz hasten zuen?
 - Hiru hillabete.
 - Hiru hillabete.
 - Hiru hillabete.
 - San Pedro...
 - Bai. Udaan hasitzen giñan, ta geo, ba ya, udazkeneako kito. Setienbrian hasierako, kito.
 - Eta esan dezu, sei gela ta sei bañera?
 - Sei bañera, bai. Baiñera haundidxak, e! Ta haidxek garbitu in behar zian!
 - Bai.

3.28. Bainu beroen negozioa eta lanak

- **Hizlaria(k)**: Bidasoro Blasco, Trini
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-021/009
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:14:20. **Bukatu**: 00:16:25
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
 Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: Negozioaren lana izaten zen: urez bete, ondoren graduatu, eta bainua eman. Bainatu ondoren izerdi patsetan egoten ziren bertan bezeroak. Ondoren, bainera hustu eta garbitu. Umetan hasi zen gurasoei laguntzen. Trinik itsasoan ibili nahi izaten zuen, lagunekin hondartzan, baina lan egitea egokitzen zitzaion.

Transkripzioa

- Eta esan dezu, sei gela ta sei bañera?
 - Sei bañera, bai. Baiñera haundidxak, e! Ta haidxek garbitu in behar zian!

- Bai. Ze iten zan, bete, baiñatu ta geori hustu? O nola iten zan?

- Lelengo bete iten nuan, e, bete. Graduatu, ta graduatzen zanian, zenbat zeetan? Batzuek treinta y seis, treinta y siete, ocho o nueve, hortikan aurea, ez gendun gehidxo ematen. Eta geo, baiñatzen zianian, jantzi ta izerdi patsian, han [...] ibili zian. Geo hustu, garbitu ta listo beste batentzako. Sei baiñera zian.

- Eta jendia nola baiñatzen zan? Trajebaiñuakin, o?

- Bate gabe.

- Bate gabe.

- Bate gabe. Han sikatu ederki iten zian, ta geo, jantzitzen zianian, ba, kalea. Pagatu... Batzuek pagatzen zuen ta beste batzuk ez zuen pagatzen.

- Ez, e? Eta zenbat pagatzen zan? Gogoratzen dezu?

- Hutsa, hutsa. Zenbat pagatzen gitun? Duro bat? Duro bat orduan [zillarrezkoik] bazan.

- Bai. Duro bat izango zan ya bukaeran, ez?

- Bukaeran. Zillarrezkua.

- Bai, bai. Eta umetan'e aita ta amari ta laguntzen ibiliko ziñan?

- A ber! Ibilli beharko! Ene! Igesika beti! Beti igesika! Beti igesika, baiño... Nik ere lagunakin nahi izaten nuan ibilli itsasuan...

- Bai, ba!

- ... ta ba al dakizu? Lana in behar zan han!

- Udaran gaiñea! Lagunak hondartzan ta zu lanian!

- Ni lanian. Ez dao.

- Eta ze lan eiten zendun umetan eta? Txikitan?

- Txikitan, txikitan igesi. Garbitu hura, garbitasuna.

- Garbitzia.

- Garbitasuna. Bai, garbitasuna. Ikusten zuen jendia zeola, ta garbitasuna.

3.29. Itsasoko urari algen ura gehitzen zioten

- **Hizlaria(k)**: Bidasoro Blasco, Trini
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-021/010
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:16:25. **Bukatu**: 00:18:20
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: Bainuetan ooldidxa ere botatzen zuten, harraldean hartutako algak. Medikuek batek esan zion algak ere onuragarriak zirela osasunerako. Itsasoak ekartzen zituen harraldera eta eskuz biltzen zituzten. Ondoren, egosi, eta algen ura botatzen zen bainuetan. Ur beltz-beltza izaten zen, oso osasungarria.

Transkripzioa

- Eta ooldiya o esan dezuna...

- Ooldidxa.

- ...nundik ateatzen zan?

- Haitzetik.

- Baiña nola, nola jasotzen zan? Sariekin o?

- Ez, ez, ez, ez!

- Eskuz, o?

- Ez, ez, ez! Hara, gure aittak hori zea bat hartzen zuen, bere... ohitura zuna! Mediko batek esan zion urtiakin, "Joakin, está usted trabajando al revés". "¿Por qué?" gure aittak, eta "Porque en la peña he visto yo unas algas que son maravillosas". Ekarri giñuzen, ta hala da, hala zan. Eta, esaten dizut ba, hemen Hotel Amaia zan, Hotel Amaia beteta eoten zan. Ta jende asko juten zan. Hala hasi giña ooldi haidxekin, eta primeran. Gaur'e billatuko nuzke nik haura asko!

- Eta nola hartzen zun, ooldiya ta, nola ta noiz hartzen zun?

- Itsasuan haitzak ekartzen zun. Iten zitzakon, belarra iten zakon bezela, eta orduan, ra! ebaki eta otarrea, ra! ebaki eta otarrea. Ta geo, itxea etorri o gora jun, egosi eta haren hura beltzakin zeai, zeai eman, baiñu beruai eman.

- Bel-beltza ura?

- Bel-beltza. Hura gorputzai ematen zitzakon.

- Eta ooldiya zer zan, beti klase bakarra, o? Edozeiñek balio du, o?

- Ez, ez, ez! Danak ez due balidxo! Espresamente ooldidxa, gaur'e billatuko nuzke nik! Baiña nik, "nanai de la China"!

3.30. "Triñoneko" bainu beroak itsasoko ur beroarekin III

- **Hizlaria(k)**: Bidasoro Blasco, Trini
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-021/011
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:18:20. **Bukatu**: 00:20:30
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: Triniren aittittak (Trino Bidasorok) hasi zuen negozioa, gero bere gurasoak eta ondoren Trinik eta bere senarrak. Hondartza ingurua ez da asko aldatu. Kantina oraingo tokian zegoen, Triniren familiaren bainuak ezkerretara eta baineruak beste aldean (toldoak jartzen zituztenak). Triniren familiari "Triñonekuak" esaten zitzairen. Erreumantzako onak ziren bainuak.

Transkripzioa

- Eta esan dezu hasi zala orduan, e, zuen aittitta, Trino.

- Bai.

- Eta gero zuen gurasuak.

- Bai. Gero nere aitta. Eta geo, nere gurasuak jun zianian, ni gelditu nitzan.

- Eta noiz hori, gutxi gorabehera? Noiz hasi ziñan zu ya...

- ¿Cuántos años hace que dejamos la playa?

- (Gizona) Ya no me acuerdo, muchos. Yo no me acuerdo, muchos.

- Veinte sí. Veinte años.

- (Gizona) Hace muchos. Ya ni me acuerdo.

- Hori utzi? Laga ya?

- Laga.

- Eta hartu? Zure gurasuak utzi ta zuk hartu?

- Auskalo! Ez naiz akordatzen!

- Gaztetan?

- Gaztia nitzan orduan ta!

- Eta beste, familiako beste batzuk, izeba, osaba...

- Ez, ez, ez, ez, ez! Geu bakarrik giñan, bai. Zan, hondartza zan... Zekan, udaletxiak zekan kantina. Ta uandikan kantina haura hor dao. Hor daola pentsatzen det, e?

- Bai, bai, bai.

- Eta giñan, beste baiñero bat, tolduak eta zeak jartzen zituna, este, bankuak eta jartzen zituna behian, hondartzan. Eta guk'e jartzen giñuzen. Eta geo gu, hiru, hiru, hiru familia[laxe] giñan, hor lana iten genduan.

- Zeintzuk ziran? Tolduak eta, zeintzuk? Ze familia zan tolduakin zebillena?

- Hara, [izen ez dakit. Esango dizut] ezizena. Xakolekuak.

- [...].

- Xaku, Xaku. Asike, gu, Triñonekuak eta bestiak, ez dakit, ez naiz akordatzen.

- Zuek, Triñonekuak.

- Gu, Triñonekuak.

- Zuen baiñuen horrek izenik bazun?

- Ez. Baiño beruak.

- Baiño beruak. Triñoneko baiño beruak.

- Bai.

- Eta zertarako zan ona? Baiñu beruak eta zertarako zian onak?

- Reumentzako.

- Reumantzako.

3.31. Antzinako bainujantziak

- **Hizlaria(k)**: Bidasoro Blasco, Trini
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-021/015
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:24:30. **Bukatu**: 00:26:00
- **Multimedia**: audioa online entzungai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena**: Triniren gazte denboran herritar gehienak jantzita ibiltzen ziren hondartzan, galtzak eta soinekoekin, edo bestela bainujantzi luze-luzeekin. Zumaiaiko "txaperoak" (aguazilak) zaintzen zuen hondartza.

Transkripzioa

- Hondartzan eta, gaztia ziñanian, e, gerra aurretik eta, trajebaiñuak eta nolakuak zian?

- Nolakuak zian? Soiñekuak!

- Soiñekuak?

- Orduan ez zan oain bezelako tiritak hoidxek eta, zea hoidxek eta ez zian orduan! Ordun al zan mouan!

- Baiña zer zian, trajabaiñuak zian? O bestela, etxeko soiñeko batekin eta...

- Baita. Ez zekanak etxeko soiñekuakin. Eta zekanak, trajebaiñuakin. Ahal zan mouan.

- Herriko jentziak eta normalian...

- Bai, [...].

- Herriko gaztiak eta, mutillak eta?

- Mutillak galtzakin.

- Galtza-motzak?

- Galtza-motzakin.

- Eta noiz azaldu zian bikinixak eta?
- Hoidxek? Hoidxek noiz azaldu zian? Urte asko!
- Hori azaldu zanian eta, ez? Eskandalua izango zan.
- Eskandalua izango ez zan, ba! "Hori al da [paraderua]!", "Hori, hori, hori, [...] in didxoe hori [habek]?" eta. Jendia berriketan. Baiño segi, segi jendiak.
- Eta izaten zan bijilatzen, txaperua ta bijilatzen eta ibiltzen zan, edo?
- Bai. Jartzen zuen, baiña ez zuen ezer iten.
- Ez, e?
- Haidxek ez zuen ezer iten. Jartzen zuen txaperua, baiño, konparazidxo batea, ba, ba, zikiña baldin bazeon o bronka bat baldin bazeon, eo, holakotxe, holakotxe zeitan. Bestela ez, bestela...

3.32. Prozesioetarako botatako ihiekin jolasean

- **Hizlaria(k):** Manterola Gomez, Arritokieta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-057/002
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:01:10. **Bukatu:** 00:05:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- **Laburpena:** Corpus Christi Egunean ihiak botatzen ziren kaleetan. Mari kalekoek San Telmo kalekoekin borroka egin behar izaten zuten prozesioa pasatakoan zeinek lehenago ihiak bereganatu. Ihiekin pilak egin eta ezkutaketan edo saltoka jolasten ziren. Ihiak Beduako islatik ekartzen ziren gabarran eta kale bakoitzean banatu.

Transkripzioa

- Calle San Telmokuakin borrokan.
- Bai, zeba?
- Ihidxak-eta harrapatzen giñuzen ta. Corpus Christi Egunian ihidxak botatzen zian ta prozesidxua pasatzen zanian, danok ihidxak geo saltoka ibiltzeko ihidxen gaiñian. Ta geo Calle San Telmokuak mutill asko ta, haidxek guri harrapatu in nahi, baiña gu´re eskobakin ta zai danok burrukan iteko.
- Ihixak harrapatzeko?
- Ihidxak harrapatzeko.
- Ta non biltzen ziñuen? Nun izaten ziñaten biltzen?
- Dana. Eleizatikan erten ta calle danak botatzen zian zeak, ihidxak. Eta uaintxe prozesidxua pasatzen zan, danok jasotzea eskobakin-ta ta, geo saltoka ibiltzeko, ta duendeka barruan. Ta geo, hurrengo egunian eskolan "castigada" han ibili giñalako bueltaka.
- Eta zer iten zian, pillak?
- Pillak, pillak. Eta geo exkutatu danok pillen barruan, fantasmaka eo zeatzen giñan, ta saltoka´re bai. Eta Calle San Telmokuak gutxidxo harrapatzen baldin bazuen, guri harrapatzen zezkuen, ta danok borrokan.
- Eta hori izaten zan Corpus Christin esan dezu?

- Corpus Christi Egunian izaten zan, bai.

- Ta ze izaten zan, prosezidua?

- Prosezidua jaunakin. Eta kale danak zea, berdia. Ta zeak ekarzen zituen, [Paxanonekuak] ez, Xantinekuak gabarra zeken ta isla juten zian, Beduko isla. Handikan ekartzen zigen.

- Hori esan behar nizun. Handikan ekartzen al zuen?

- Handikan ekarri ta geo partitu ta paatu iten zien gaiñea. Kale bakoitzak botatzen zuen.

- Isla beti izenen bat, o Beduako isla o beste izenen bat...

- Beduko isla.

- Bai.

- Hara juten zian gabarrakin. Ihidxak. Eta handikan ekartzen zituen.

- Esan dezu pertsona bat izaten zala, Xantineko hori.

- Xantinekoa, bai. Ez dakit... nola izena zun? Pilar, ama Pilar, baiña aitta? Ez dakit. Ez naiz akordatzeko aittak nola izena zun.

- Eta gero repartidu?

- Geo, saldu. Bai, zea, konparazidua batea, aurreneko kalekuak... Zuen izeko-ta ez al zian bizi hor? Bai. Nik usten det zuen izeko ta ziala. Eta geo Txortenenekuak'e bai aurrian. Ta geo Calle Marin gora, Calle Nagusikuak ere bai, plazan. Calle Erriberan... danak! Guk ez. Calle Marinekuak eta San Telmokuak harrapatu. Guk ez gendun parteikan. Ez zan juten hara prosezidua ta.

- Eta ze iten zan? Prosezidua pasa aurretikan bota?

- Bai, bai.

- Lurrea bota.

- Bai. Lurra dana estalita prosezidua pasatzeko. Ta geo danok jaso eta lixto, geo hurrengo egunian earra lana izaten zuen basureruak haidxek danak jasotzen!

- Eta prozesidua ze izaten zan, goizian o...?

- Goizian, meza nausitik ondoren altaria jartzen zan, oain'e bai, Txortengo zea horretan bat. Orduan aurrenengua [...] Zaharreneko atian. Ta hua gure izeko ta, haidxek Hijas de María zian ta haidxek adornatzen zuen. Ta bestia goiko plazan, ba, monjetatikan-ta ateata, Erramun-ta nola ibiltzen dia? Ba, han. Ta geo, behian, beheko... Ez! Goidxan ez zan plazan jartzen orduan, orduan [...] Zaharreneko atian ta bestia zean, beheko Hotel Zumaiako aurrian. Ta geo bestia Txortenenekuan, zea horretan. Hiru altare jartzen zian. Ta jauna han zeatzen zuen.

- Ta hori zer zan, gerra baiño lehenuo?

- Ta geo. Gerra... Oaiñ arten.

- Baiño lehenore bai.

- Bai. Bai. Beno, ni jaidxo naixenetikan beti, bai. Prozesidua jun, erantzi, eta salteka danok ihidxak harrapatzea. Orduan ez zeon honelako jokuikan ta, haidxetxek jolasteko.

3.33. Ama Birjinaren koroazioa eta zilarrezko ezteiak

- **Hizlaria(k):** Manterola Gomez, Arritokieta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-057/015
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:31:50. **Bukatu:** 00:35:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eliza giroko ospakizunak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

- **Laburpena:** Lehenago Andra Marietan gaur egun baino ospakizun handiagoak izaten ziren. Ama Birjinaren koroazioa ospatu zenean 1930ean kale guztiak lorez josi zituzten eta baita zilarrezko ezteiak egin zituenean ere. Arrantzaleen soka lodiekin girnaldak egin zituzten. Jai handia izan zen. Koroazio egunean bi obispo (don Mateo Mujika eta Pildain) eta apaiz ugari etorri ziren. Maiatzaren 23an ere beste festa erlijioso bat egin zen.

Transkripzioa

- Oain ez da hainbesteko zea izaten. Andre Mariko eguna ta iraillan zortziyan izaten da, ezta?
- Bai.
- Baiña lehen festa gehio izaten zan.
- Askoz ere, bai.
- Nola izaten zan lehen? Ze ospakizun edo? Egun horretan ze izaten zan?
- Bueno, egun horretan hobena Andre Maidxan ta geo meza. Oain bezela meza-ta bai. Baiña bere zeak eta izatia... Konparazidxo batea, ze esango dizut, ba, bodas de oro, bodas de plata in giñuzenian lelengo hamaika... Karriatu gendun Foronda, zea, batzuek, mutillak Forondan ebakitzen arbustua ta gu karruakin karriatzen, ta geo girnaldakin-ta kale danak zeatu giñuzen. Osea ke, zubi txikiko obispua zetorrela, ta obispotikan dan-dan-danak segi, girnaldak iten. Ez dakit zeñek ematen zigun dirua soka erosteko! Sokak ta itxe danetan mariñelen... loridxa. Baiña geo zea, bitzeko, ez dakit nundikan inguratzen gendun. Inguratzen gendun behiñik behin eta...
- Eta hori noiz izango da?
- Bodas de plata ama birjiña bajatu ta orduan [...] iten zan, Parrokira ekartzen zan Ama Birjiñ. Ta Parrokidxan iten zian pestak.
- Ta zerren bodas de plata zan, ordia?
- De la coronación.
- Koronaziyua?
- Bai.
- Ta hori noiz, noiz izan zan?
- Koronazidxua el año treinta izan zan, hamentxen, plazan.
- Zu ez zea gogoratuko?
- A! Nolako soiñekua nekan´e bai! Rosa, estreñatu nun soiñekua ederra in zien nei.
- Bost-sei urte izango zenitun...
- Bai, baiña...
- Akordatzen zea!
- Bai, akordatzen naiz, ba, nolako soiñekua... Más... Ni baiño´re aberatso ez zeon iñorre orduan!
- Pozik.
- Pozikan. Ta geo hamen jarri zuen, tribuna jarri zuen gaiñea, hamen, lehengo plaza hartan.
- Bai.
- Ta jendia komentuko horretatik eskaillera ta dan-dan-dana... Orduan festa haundidxa zan, ta! Koronazidxua. Ta geo berriz´e atzea repetitu zan zean, bodas de plata. Ta geo orokoa´re tokatu... Nei danak tokatu zazkit! Koronazidxua. Koronazidxuan lanik ez nun in, umia nitxan ta. Baiña bodas de plata, de oro... Eta geo diamanten ezer ez, meza bat bakarria bakarrik in zuen. Hau den pena! Halako, hainbeste lan in giñenan bodas de oroako

ta...

- Eta, koronaziyuan eguna gogoratzen dezu?

- Ederra! Bai, ya lo creo!

- Obispua o etorriko zan, o...

- Bi' re!

- Bi, e?

- Bai. Don Mateo Mujika ta Pildain. Eta geo, zenbat apaiza etorri zian!

Jesus! Asko! Erretratuak badazkat gordeta.

- Eta zer in zan? Ama Birjiña jeitsi?

- Ama Birjiña jatsi. Ta geo beste bat, beste festa bat ere izan zan, maiatzan hogeita hiruan izan zan, de zea, Gipuzkoa guztiko, Ascensión de... Hijas de Marían o, ez dakit zer zan. Hotela Amaia? Hotel Amaian orduan banderan danak... Hotel Amaia zea haundidxa zan ta han jarri zituen. Ta Ama Birjiña eon zan behian. Hara ekarri zan berriz.

- Hori gero?

- Hori gero, gero, bai.

- Eta bodas de plata hori?

- O! Bodas de plata...

- Hor kaliak eta apaindu zian?

- Danak! Danak apaindu giñuzen, berriz ere segi girnaldak iten!

- Eta jeitsi in zan?

- Jetsi, jetsi.

- Prozesiyuan, o?

- Prozesidxuan. Ta bajatu behar izaten zuen aiuntamentoko...

aiuntamentua zeatzen zuenak: Natalio ta Remigio ta... orduan zein zian?

Bueno, aiuntamientua, korporazidxua zeatzen zuna, haidxek bajatu behar zuen Ama Birjiña. Haidxek zian zeak, obligazidxua zekenak.

3.34. Ama Birjinaren koroazioaren inguruko kontuak

- **Hizlaria(k)**: Manterola Gomez, Arritokieta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-057/016
- **Iraupena**: 0:01:50. **Hasi**: 00:35:50. **Bukatu**: 00:37:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: Marqués de Forondak Ama Birjinarentzat soinekoa, kapa eta mantelina oparitu zituen eta Conde de Placenciak koroiak.
Koroazioaren inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Eta bera, koronaziyua, zer da, o?

- Ze esango dizut, ba? Orduan erregalatu zitun Marqués de Forondak soiñekua, kapa ta bere manteliña, ta Conde de Placenciak koroiak, ederrak, urrezkuak, uaindikan ere hor daude. Ta ha koronatu zuen Ama Birjiña, koronatu zala, bai, hamen, hamentxe aurrian koronatu zuen, tribuna haundidxa jarrita.

- Eta ordura arte Ama Birjiña diferentia zan?

- Ez.

- Baiña...

- Erropakin, bai, bai. Baiña hori erropa ederra, ordia.

- Zeiñek erabakitzen du, ordia, koronaziyua itia? Edo ze aldaketa...

- Parrokuak.

- Parrokuak.

- Don Wenceslao. Orduan Don Manuel-ta zian, baiña Don Wenceslao etorri zanian, Don Wenceslao zan koronatu zuna. Ta geo hamendikan jun zanian Durangoa, Durangon in zun bestia. Ta geo Durangotikan Tolosa jun zanian, Izaskungua koronatu zun. Hiru in zitun.

- Baiño obligaziyua ete dan holako Ama Birjiñak koronatzia? Edo ze aldaketa ekartzen dittun? Batetik era batekua zan ta geo bestekua, edo?

- Ez, ez, ez, ez. Aldaketaik ez. Hoidxe, lehen koronatu gabe zeola ta geo koronatuta.

- Pixkanaka danak nahi zittuen koronatu, edo beak behintzat...

- Beak hiru in zitun, hiru in zitun Don [Wenceslaok]. Gustatu iten nunbait. Bai.

- Arratekua're orduan...

- Orduan koronatu zuen hura're. Eta baita Azkoitikua're, Urrategikua're bai. Orduan izango zan, moda eo izango zan, ez dakit ze zeatuko zun...

3.35. "Arritokieta" eta "Telmo" izenen jabe lehenbizikoz bera eta anaia

- **Hizlaria(k):** Manterola Gomez, Arritokieta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-057/017
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:37:40. **Bukatu:** 00:40:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Andra Mari eliza garrantzitsua da herritarrentzat txikia izan arren. Bera Ama Birjinaren izena (Arritokieta) daraman lehenbizikoa omen da, orduan ez zuelako uzten don Manuel apaizak. Honen inguruko azalpenak. 9 anaia zituen, eta bera bakarrik neska haien artean. Anaietako batek Telmo zuen izena, eta hura ere Telmo izeneko lehenbizikoa izan zen.

Transkripzioa

- Eta Andra Mari gaiñea, Zumaixan-eta, nahiz eta ermita txikiya-ta izan, herriko jendiantzako-ta inportantia da, ezta?

- Bai, ya lo creo.

- Zuretzat gehio! Izena're bai!

- Bai. Ta aurrenengo Arritokieta, gaiñea.

- A, bai?

- Bai. Don Manuelek ez zun utzitzen.

- Ez, e?

- Ez! Danak Mari Nati o Nati o danak... Lehen Calle Arritokietako hoidxek danak dia Nati. Eta ni naiz bosgarrena: lau mutil aurretikan ta neskaa bosgarrena. Ta gure izeko bat gendukan soltera, izeko Xilbi eta jun omen zan Don Wenceslaona Don Wenceslao etorri zanian, ta esan omen zidxon:

"Gauza batekin nator". Ta, "ze esaten dezu, ba?" Ta, "ahizpak haurra izateko dao eta neska baldin bada, Arritokieta izango da". "Ta zeatikan ez da izango, ba?" "Don Manuelek ez zulako utzitzen!" esan omen zidxon. Ta, ba, neska etorri ta Arritokieta, baiña lelengua! Geo uain asko, asko dabe, baiña Arritokieta ni naiz lelengua.

- Eta horrela zea, Arritokieta? Ala María...

- María Arritokieta, bai.

- Nik uste nun lehenokua izango... Lehenbizikua ziñan?

- Lehenbizikua, lehenbizikua.

- Ta etxian Arritokieta o Arritxu?

- Ez. Arritokieta. Eta kalien'e bai. Ta geo nere illobak ere badaka Arritokieta neskaa. Eta esan nidxon: "Arritxu zea?" Ta "Ez! Zuri bezela deitzeko". Ta Arritokieta da Rafaelena, hura're Arritokieta da.

- Ta esan dezu lehenokua lau mutil?

- Nik lau mutil aurretikan.

- Baiña ez Arritokieta izenekuak!

- Ez.

- A!

- Telmo. Ha nere, lelengo Telmo.

- A, bai, e?

- Bai. Valentin, Telmo, Joakin, Mariano, Arritokieta, Miguel, ta geo bizkidxak zian haidxek eta hil zan txikidxa. Eta geo Ismael, Jacob eta Benjamin. Danak mutillak, ni bakarrik neskaa.

- Ta ze mouz moldatzen ziñan hainbeste mutillen artian?

- Gaixki! Lan asko in behar!

- Zu zai eongo ziñan ia beste neskan bat jaiotzen zan, baiña...

- Baiña ez! Danak mutillak etorri zian!

- Zenbat zian? Zenbat mutil?

- Beatzi mutil ta ni bat.

- Ta Telmo're lehenbizikua esan dezu?

- Lehenbizikua Telmo.

- Joño! Ta lehenokua ez al zan izenikan Telmo? Ez al zun, ba, Don Manuelek...

- Ez dakit ez zuen lagatzen, baiña, Telmo're lelengua. Valentin, aittak Valentin izena zun ta Valentin. Telmo bigarrena. Ta uain badake Telmo... Andres Marik daka Telmo, badake beadxek ere. Bai. Uain Telmo asko, kanpuan ere aitzen da. Baiña lelengo-lelengo Telmo guria zan.

4. Aisia

4.1. Iñaki Beobide eta 'Jarrai' antzerki-taldea

- **Hizlaria(k):** Linazisoro Azkue, Abelin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-005/009
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:18:00. **Bukatu:** 00:21:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kultura » Zinema
- **Laburpena:** Batzokian hilero antzerki obra bat egiten zen. Gerraostean ere antzoki parrokiarekin jarraitu zuten antzerkiarekin, Zumaian beti egon izan da antzerkirako zaletasuna eta. Iñaki Beobide zumaiarra Donostiara joan zen bizitzera, eta Jarrai antzerki taldea sortu

zuen bertan. Euskal gaiekin lotutako antzezlanak euskaratu egiten zituen eta arrakasta handia izaten zuten. Talde honek mugimendu handia sortu zuen, batez ere Gipuzkoan. Antzezlanak egiteko alkatearen baimena behar izaten zen, eta Zumaian antzeztu gabe geratu ziren. Bera soldadutzan zegoen garaian Laratzean sua antzezlana antzeztu zen Zumaian. 25 eguneko permisoa zuenez, bera ere zuzendariari lanetan laguntzen ibili zen.

Transkripzioa

- Eta esan ziguten antzerkixa ta hamen Zumaian aspaldiko kontua dala, ez?
- Bai, zean...
- Zaletasun haundiya...
- Bai, eske batzokixan, batzokixan eiten huan ostialetan hillian behin antzerki obra bat, hillero, hillero, hillero, hillero. Baita're kantuakin'e bai, ta Jesusen Jaiotza izena zun antzerki bat huan kantatzen zana. Uste det kanta hori Zumaian bakarrik kantatzen dala, porke beste iñun ez diñat aitu. Eta geo, gerra ta geo, gerra bukau ta geo ta beste zea honekin, luistarretan, Zentro Parrokiala o hau jarri zutenian, ba, antzerkixakin segi huan. Baiña klaro, nola ezin zan euskeraz, ba, ba erderaz, ezta? Baiña beti, Zumaixak beti euki dik antzerkirako afiziyo hori ta hori. Geo martxan, Julio, zea, Iñaki Beobide hori zumaiarra den. Iñaki Beobide Donostira jun hunan bizitzea porke hark antzerkixa hemen iten ziñan, Zumaian. Eta hura hara jun zanian, hark Jarrai antzerki taldea martxan jarri zian hark. Eta Jarrai antzerki talde hark ze iten zun? Hartu obrak Euskal Herriko arazuakin zerikusia zeukaten obrak o alemanak eo inglesak eo, ezta? Ta euskeratu eta hura eman. Eta orduan jendeak hartzen ziñan, ba, hemengo kontua bezela. Ta arrakasta, baiña, honela. Eta horren, haren, Jarraien inguruan, hemen antzerkixan moimentu haundiya sortu huan, batez ere Gipuzkuan. Bizkaian ere bai, baiña Gipuzkoan gehiago. Eta neu nola ibilita nitzan antzerkixan bai luistarretan ta geo Padres Mercedarios alu haiekin'e bai, eta orduan, ba, sartu niñun ni rollo hortan. Eta dirijitzen hasi niñun obra bat, eta ba, zeatu behar giñunian, eman behar giñunian, alkatian baimena behar izaten huan. Zeatikan orduan, ez esateatikan frankistak, ez esateatikan antzerkian kontra zeudela, euskal, euskerazko antzerkian kontra, ba, eiten ziñenan zeatu, behartu "telón de acero" bat eotia, altzairuzko teloi bat antzokia ta jendian tartian sua eon ezkeo, ba, jeisten dana, ezta? Ta hori zeinek eukiko zin? Iñork ez. Eta lege hori esaten ziyen: "beno, telón de acero hori ba al dao?" "¿Tenéis telón de acero?" Ta, "no". Ta ez baldin badao, "no hay autorización". Orduan ze iten zuen alkatiak? Alkatiak iten zien beaiek beren kontura zea hartu, eantzunkizuna beaiek hartu, eta eiten ziñenan, ba, zeatu. Bueno, "nere kontura, zeuk ein antzerkia eta ni eiten naiz erantzule". Eta Zumaiko alkatiak ez zian nahi hori in, erantzunkizun hori hartu nahi, eta izorrai, antzerkia in gabe geatu giñan. Bai, bai. Beste antzerki bat montatu hunan hemen, Zumaiko Parrokiak, guk zimitaxua deitzen diou, zuek nola deitzen diozue, zimitaxua dan zea hau?
- Bai, eliza atariyai, ez?
- Bai. Bai.
- Zimitayua.
- Zimitaxuen goian zeon lokal haundi bat. Eta han lagun kuadrilla batek montatu ziyean zea bat, antzoki bat eta han antzerki obra bat ein huan, Larratzean Sua, ta hain xuxen ni soldautzan naola. Soldautzatikan permisua euki nian hogeta bost egunekua eta nola zuzendaria laguna nun, ein niñan harei lagundu zuzentzen. Eta arrakasta haundia euki zian, bai. Bestela, beste zeikan...kultur maillan...

4.2. Antzerkiaren bilakaera herrian; antzerkiarekin lotutako herritarrak

- **Hizlaria(k):** Linazisoro Azkue, Abelin

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-005/010
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:21:30. **Bukatu**: 00:23:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kultura » Zinema
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena**: 40ko hamarkadan hasi ziren erdarazko antzezlanak eta 60ko hamarkadan Jarrai taldearen sorrerarekin antzerkiaren inguruko mugimendua indartu zen. Hala ere, beraiek ez zuten aurrerabiderik izan Zumaian. Gerra aurretik ere antzezlanak egiten ziren Zumaian eta, gainera, antzezele onak omen zeuden. Antzerkiarekin lotutako herritarrek: Iñaki Beobide Jarrai antzerki taldearen sortzailea; Irene Iregi, gerra aurretik antzezten ibiltzen zen.

Transkripzioa

- Mugimendu guzti hau gutxi gorabehera hirurogei, hirurogeita hamar... hirurogeian.
- Bai, hirurogei baiño lehen, antzerkixak hirurogei baiño lehenago. Oseake, gerra ondorenen, berrogeigarren hamarkadan erderazko antzerkixak, berrogeita hamargarren hamarkadak euskeraz, guk noixian behin euskeraz batzuek. Ta hirurogei hamarkadan, ba, ya, antzerkien moimeto hau in nahi izan giñin...
- Jarrai eta...
- ...guk, Jarrai eta hauek, hau dana. Eta orduan nahi izan giñin guk hor barruan sartu, baiña... Zumaixan ezin giñin, ta... "a tomar por culo".
- Baiña lehenaotik be, gerra aurretik eta, orduan be bai Zumaixan eta bazeon holako...
- Bai, bai, bai. Bai, bai.
- Eta...
- Antzerkizaletasuna bai.
- Antzerkizaletasuna eta aktore eta aktriz, eta bertako...
- Bai, bai, bai, bai. Bertakuak eta gaiñea're batzuek esaten zien, nei esan dienez, izugarri onak ziala. Near in behar bada, near ein, ta... Ez itxurak eta kristuak! Porke, aktore txarrak gaur egunian ba al dakik ze iten duen? Zinekuak eta? Tanta bota, ezta? Tanta bota malkua zeatzeko. Baiña aktore onak near in behar bada, near in behar din. Hoi da bizitzia papela, ezta? Ba hemen materiala bada, baziok, bai.
- Ta holan, aktore ezaunik edo? Zumaiairrak eta?
- Ez, ez, ez.
- Izenik edo?
- Ez. Horrela ezaguna, ba, Jarraiko zuzendari edo Jarraiko buru izan zana, Zumaiairra, Iñaki Beobide.
- Iñaki Beobide.
- Geo martxan jarri zuena, ETB martxan jarri zanen eo, hor sartu zana produktore bezela ta. Hoixen.
- Bestela ez dezu ezautzen hirurogeita hamar larogei urteko jenderik eta ibili zana Batzokixan eta...
- Batzokixan ibili zana, e, Irene Iregi, neska koskorretan. Hark parte hartu zian, Batzokian zeatu, entsaixatu eta Zine Amaian, Zine Amaian bota zien zean, antzerki zea, obra bat, baiña bueno, zean estilua, musikal estilua, kantuakin ta horrela, ezta? Baiña geo nola gerra etorri zan, ba dana izorratu in huan.

4.3. Txakolinak edanez txikiteoa egin eta abestu

- **Hizlaria(k):** Linazisoro Azkue, Abelin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-005/017
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:33:00. **Bukatu:** 00:35:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Taberna giroa
 - Aisia » Kultura » Musika
- **Laburpena:** Negu aldean 09:30eko mezara joan, 10:00etan elkartu, mokadua egin, txakolina edaten hasi eta 14:00ak ingurura arte txakolina edaten egoten ziren; handik 15:00ak aldera arte bermutarekin. Taberna bakoitzean pare bat abesti kantatzen zituzten eta, beraz, txikiteoa astiro egiten zuten. Beraien kuadrilla baritonoena zen eta bazegoen beste kuadrilla bat tenorrek osatzen zutena; batzuetan elkartu ere egiten ziren. Eskolan ikasi zuten kantatzen. Abesteko zaletasun handia zegoen.

Transkripzioa

- Txikiteuan gu hasten giñanian, nola danak lehen katolikuak giñan, luistarrak, ezta? Ta luistarreko komunixua hartzia, jaun hartzia, izaten huan astian behin, eo hillian behin. Hillabetian zenbagarren... aurrenengo igandea o ze izaten zan? Orduan, komunixo hartzea jun eta beatzi t'erditan, hamarretan bukatu ta etxian pastela jatea jun. Pastela jan ta geo [Etxabe Kuartonea] txakoliña eatea. Hasi, bueno, hori komunixua zanian, eta ez zanian ere, ba!, han nunbait, normalian, juten, ez bagiñan juten mendira, mendira're ibiltzen gitxuan, gitxunan. Mendira behin hamasei hamazazpi urtekin bastante. Baiña bestela hemen, negu aldian, beatzi t'erditako mezeta jun, hamarretan juntatu, mokao txiki bat in o zeoze in, zeoze pikatu, txakoliña eaten hasi, ta hirurak laurden gutxi erten. Ordu bi t'erdiak arten txakoliñakin. Eta ordu bi t'erditatikan... ez! Ordu biak arten! Ordu biak arten txakoliñakin. Ta ordu bitatik hirurak arten, bermutakin. Baiña kantatu asko eiten giñin. Eta orduan, taberna bakoitzian kantu bat o bi. Eta orduan ean'e, hainbeste ez. Hainbeste're... Jope! Bestela... Eta guk adibidez, gure kuadrilla zea hunan, baritonuak o... Boza tenorra ez, baritonuak. Eta beste kuadrilla bat zionan gu baiño zaharro zianak, gu baiño lau urte zaharro eo horrela. Haiek zian gehienak tenorrek. Eta orduan ze iten giñun? Igual bi kuadrillak juntatu ta ba!, kriston orfeoia. Eta ondo, e! Ez desafinatuz [...], eta bi bozetan eta... Bai, bai, bai! Guk ikasi giñenan kantatzen eskolan. Ez Padre Mercedaio hoiek, hoiek hitxunan ezer ez. Baiña gizon bat ekartzen ziñenan guri erakusteko kantatzen. Eta harek guri erakutsi zigun kantatzen. Geo desafinatzen eta, boza eusten, boza eusten beti. In gabe "aaaaaaaaaaaa" ein gabe, beti eusten, eusten boza ta. Harkin ikasi geniyan kantatzen, bai. Ta geo tabernako kantariak Zumaixan, o!, oso onak.

- Bestela etxian ta lagun artian ta kantuak izango zian, danian, ez?
- Bai, bai, danian, danian. Itxian'e bai, itxian'e kantatzen giñan. Ba, zeozarren festa baldin bazan, kopatxua hartu ta kantari.

4.4. Arrauna kirol garrantzitsuena Zumaian

- **Hizlaria(k):** Linazisoro Azkue, Abelin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-005/025
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:45:30. **Bukatu:** 00:47:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Uretako kirolak
Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
- **Laburpena:** Zumaian egiten ziren kirolak. Arraunean pikea egoten zen zumaiar eta zarauztarren artean. Futbolean plaieroak jokatzen ziren. Garai batean atletismo inguruko talde bat sortu zen eta haiek lehiaketak antolatzen zituzten. Arraunak izan du indar gehien Zumaian. Arraunlariek lan egin ostean entrenamendua egin eta gero txuleta jaten zuten. Traineruarekin ("triñauakin") Kontxarako bakarrik prestatzen ziren.

Transkripzioa

- Zumaian kiroleako zaletasunik izan al da? O ze kirol horrela…
Arrauna edo?
- Zumaian arrauna. Arrauna ume-umetatikan nik ezautu diñat. Bai. Orduan, garai hartan, zarauztarrai irabazi ezkeo, gustoa. Bai!
- Hor eoten zan pikia, ezta?
- Bai, pikia, pikia eoten hunan zarauztarran ta zumaiarran artian. Bai. Arrauna, futbola plaieruak.
- Baita’re?
- Bai, futbola plaieruak. Eta geo, garai bat izan hunan hemen, talde bat ein ziñan zean aldekua, atletismuan aldeko talde bat sortu hunan. Bar Cantábrico izena zun taberna batian iten ziñen billera. Ta tarteko bat nere anai bat hunan, anai zaharra. Eta haiek antolatzen zixkiñen ya zeak, salto de altura, salto de longitud, zea, jaurtiketa, pisuen, bolen jaurtiketak eta beno, atletismoko zeak. Eta ba, politta izaten hunan.
- Baiña arraunak euki du hemen indar haundiya, ez, herriyan?
- Arraunak, arraunak, bai, bai. Bai, bai. Gu umetan juten gitxunan ikustea arraunlaiak nola ertetzen zuen barratikan aurea, ezta? Ta geo, bueltakuan, iten giñenan, saltaka, zeatikan, iya-iya barratikan, arranplaiño zeakin, triñauakin batea, tiki-taka, tiki-taka, tiki-taka. Bai, beaiekin batea. Hori zortzi o beatzi urtekin, bai. Ta geo ikusi ze gimnasi klase iten zun […]. Ez hitxunan entrenatzen! Allatzen zanian agostuan, arraunian egunero erten, taillarrian lana in ta geo. Arraunea egunero erten, gimnasia egin, ta txuleta jan eta punto! Ta gehio ezer ez!
- Ta geo, sapatuan o domekan, jaian, izango zan holako karreraren bat, eo, ez? Estroparen bat, eo?
- Ez. Beti preparauta Kontxako!
- Bakarrik Kontxan?
- Kontxan. Bai, bai, Kontxan.
- Bakar-bakar-bakarrik?
- Hemen bai. Hori triñauakin, e! “Trainerua”, zea, zuek “trainerua” esaten dezue? Guk “triña” esaten diñau. Triñauakin, zea, iten huan Kontxako.

4.5. Bestelako regatak: batelak, txanelak, tiñak, trainerillak

- **Hizlaria(k):** Linazisoro Azkue, Abelin
- **Elkarrizketatzailea(k):** Maiz, Belen - Sarasua Aranberri, Asier

- **Erref:** ZUM-005/026
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:47:35. **Bukatu:** 00:50:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- **Laburpena:** Traineruarekin ("triñauekin") Kontxarako bakarrik prestatzen ziren. Beste ontzi mota batzuekin ere egiten ziren regatak: batelak, txanelak, tiñak... "Tiñaren inguruko azalpenak; lagun bakarrenekin egiten zen. Txanelean binaka egiten zen. Trainerillak ere izaten ziren. Honen inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Zea, ite huan Kontxarako, baina bestela, hemen, hemen bertan izate hituan zeak... arraunian, batelenak.
- Batelak.
- Bai, lau lagun eta... lau lagun eta zea, patroia. Eta tiñena´re bai. Tiña ta txanela´re bai. Txanelak dituk e... txalupak hemen, erditikan zea... bukaera zeuta daukenak, ebakita daukatenak. Hoiiek dittuk txanelak. Txanelen regatak. Tiñen´re bai... Tiña, tiña den... barrikak... e... zertako erabiltzen zian? Barrika haundiyak, fabriketan ibiltzen zianak e... eozertako o sardin zaharrentzako, ez naun akordutzen! O tintatzeko gauzak o... Tiña zeatik deitze zan ba... Hoitan sartu, arrauna bakarakin, ta, klaro, arrauna bakarakin oso zaila dek eamania kupel borobil bat aurreaka. Eta batzuek bahituan juaten zianak taka-taka taka-taka aurreaka. Eta beste batzuk, ba, buelta, izin eraman aurreaka.
- Eta bakarra. Lagun bakarra.
- Lagun bakarra. Tiñan, lagun bakarra.
- Baiña hori ze izaten zan, zuen arteko...
- Ba, herri arteko...
- Gaztien...
- Gu baiño zaharro, gu baino zaharro. Gu ez. Guk ez giñian ikasi hori.
- Eta txaneletan? E...
- Igual-igual. Zean bezela, arraunian...
- Eta hori ere bakarrik edo biñaka edo...?
- Biñaka, uste diat, bai. Eta bestela, lau, lau arraunlai eta patroia.
- Bateletan?
- Bateletan. Eta hor egoten hituan... Eta gero baita´re... onea trainerillak´e bai izate hitunan hemen zeak, estropak, Zumaian. Eta ite ziñenan moillatik erten zubi haundiyan buelta in, eta eztatik bi buelta o zenbat izate zian. Lehen, moilla honeauntzo zionan. Oin moilla harauntzo eamanda zion, baina honantz. Eta zubi haundiyan, oin nola dao zuba paseoako pintaute gorriz? Ez, ez karretera dana baizik honeauntzo daon zubiya? Donostia ertentzeko bidian... Hor zeok zubi bat karretara dana, eta honeauntzo pixkat zeok zubi bat gorriz pintaute. Karretara hori huan lehen. Orduan, hor ziaboga hor ite huan, eta, gero, moilla alde hontan beste bat. Bi buelta uste det /ustet/ izaten ziala. Hiru ziaboga edo. Eta orduan, orixotarrak, zarauztarrak, hondarrabitarrak, sanjuandarrak... Danetikan etortzen hituan, bai.
- Batzuetan hona, eta, gero, hamenguak beste batzuetan...
- Gero hamenguak hara, bai. Hoiiek trainerillak e, trainerillak hori.
- Eta traineretan ez, orduan? Ez zan izaten...
- Ez, triñauetan Kontxa bakarrik.
- Kontxa bakarrik.
- Bai, bai. Orduan, ez zeon /etzeon/ besteikan.

4.6. Korrika-apustuak eta ahari jokoak

- **Hizlaria(k):** Ugarte Lopetegi, Manuel

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-009/014
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:32:35. **Bukatu**: 00:35:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- **Laburpena**: Apusturako zaletasuna izan da Oikian. Korrika-apustuak ere izaten ziren. Bere lehengusuak bat jokatu zuen eta galdu. Harri-jasotzailerik ez da izan herrian. Ahari-jokoak, orde, bai. Bere lehengusu batek badauzka oraindik jokorako ahariak eta garai batean oso ahari ona izan zuen. Aizarnazabaldik etorri zen ahari-jokoen zaletasuna.

Transkripzioa

- Eta bestela holan, e, apostu kontuak eta...
- Probak.
- Harri-jasotzen ta...
- Proban hamen.
- Aizkoran eta proban, ta?
- Proban zeakin, e, hamen iriyakin-ta ta, Goiburu ta...
- Afiziyua?
- Apiziyua zeana, iriyakin-ta ta. Bai, jokuak eta lehen... Saltaka apustua ´re akordatzen nauk! Bat jokau zian nere lehengusu batek. Oaiñ praille o dek, hor kanpuan dek. Ta zean, e, hor Otso Gaiñetikan Zuhaitzene, kruzea. Ta bentaja eman zitxion bestiak, bestia zarra huan, morroi o hemen zeona, Aizarnazabalkua o izatez, o. Ta, bentaja haundiya eman zitxion. Ta zaharrak irabazi zian, azkenian. Juxtun, e! , baiñan zaharrak irabazi zian. Ta beste hola, zahar batzuk o, zeozer akordatzen nauk ni, hemen, hor, pixkat aurretikan, han, kruzea o, larehun bat metruan, o, jokau zuela, o. Zeozer bai. Baiño bestela...
- [...].
- Bestela, zeaik ez. Harri-jasotzen-ta ta´re hemen ez dek izan...
- Ez da izan...
- Ez nauk akordatzen ni... Harri-jasotzailleik ez dakit Oikiyan izan...
- Ta ahari-jokuak eta?
- Ahari-jokuak bai.
- Ahari-jokuak bai.
- Ahari-jokua... Jesuskua ziok hor. Neure lehengusua, Jesuskua. Oaiñ ´e bazeuzkak ahariyak.
- Bai, e?
- Ahari-jokua ´re... Horrek euki zian ahari bat munduan baldin bazan!
- Haxe!
- Mundun baldin bazan! Kontraiyoikan gabe eon huan hua, ahari hua! Euki zian ahariya, ahari beltz bat... mekauen la letxe!
- Beltza?
- Bai, mutur beltzakin.
- Mutur beltza.
- Mutur beltza, mutur beltzakiñ huan. Berez zuriya zin hillia ta bai. [...] euki zian harrek ahariya ona. Ta uaiñ ´e bazeuzkak ahariyak, jokurako ahariyak bazezkak uaiñ ´e.
- Eta hemen inguruan, e...
- [...].
- [...] ta asko izaten zan?
- E?
- Afiziyua ta zeon?

- Ahari-jokua, bai, hor nere lagunak hittun. Lehen-lehenok re ba omen hittun ahariyak eta hola, zeozer zeatzen zittuenak, ibiltzen zittuenak. Baiño haek geo hor Aizarnazabal alde hortan-ta ta, hor gehio izan huan zea, ahari-apustu, apustu, zea gehio izan huan hor.

- Zaletasun gehio?

- Bai! Ta handikan etorritako zeak hittun ahariya, ahari-jokuak eta... Handikan hasitakuak, zea, lagun hoiek... Nere lagun hoiek e zeautakuak.

4.7. Aizarnazabalgoen kontrako pilota-partiduak

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Lopetegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-009/015
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:35:10. **Bukatu**: 00:37:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Kirola » Pilota
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena**: Pilota partiduak jokatzen zituzten Aizarnazabalgoen kontra. Behin Aizarnazabalgo batek bi oikiarren kontra jokatu zuen. Hango frontoia luzeagoa zen eta pilota bizien laguntzez erraz irabazi zuen betakoak. Hurrengo urteko jaietan berriz itzuli ziren eta berriz jokatu zuten elkarren kontra, baina erreglamentuzko pilotekin eta bi partidu jokatuz: bata Aizarnazabalen eta bestea Zumaian. Eta orduan oikiarrek irabazi zuten. Beti egon izan da pikea oikiarren eta Aizarnazabalgoen artean.

Transkripzioa

- Ta geo bestia, zea, aizarnazabaldarrakin-ta ta izaten giñun zea... kaguen la letxe!... Pelota partidua! Akordatzen nauk, San Migeletan, [...] batian, jo giñun Aizarnazabala ta hangiak erronka jotzen: batek biei joko ziyela, Aizarnazabalko batek bi oikiarri. Ta neure edadekuak hittun zeak, oikiarrak. Jokatutzen dik, ta hoeitabitik irabazi. Pelotan, bai, ba. Aizarnazabalen [...], Aizarnazabalen frontoia luzia dek, oaiñ e hala zioik frontoi zaharra. Berriya re bai, [...] izan zan lehen ta. Ta [aide] irabazi zitxion zeak, Aizarnazabalko horrek. Bai, ba. Pelotak ekarri bizi-biziya ta, sakia atea, jata... Haundiya, bestiak txikiguak hittuan mutillak e. Ta jota saretikan atzeaka ezin zeau. Ta, handikan hurrengo urtian jun dittuk berriz e, [...] ta...

- Jaietan, o?

- Bai, ba. Pestetan, San Migeletan. Ein diu berriz apustua, haiekin jokatzeke, beai jokatzeke. Baiño pelota aukera guk, pelota reglamentokua izatekotan. Ta, bat Zumaiko frontoian ta bestia Aizarnazabalko frontoian jokatzekeotan. Ta biyak irabazi, guk, oikiarrak.

- Oikiarrak.

- Oikiarrak biyak irabazi. Zumaian... Zumaian ez zekit zenbat in ziun, dozena bat tanto. Ta geo, Aizarnazabala jun, ta Aizarnazabalen bertan errexo irabazi zitxiun, bai, irabazi giñuan ordun. Ta geo, akabo. Geo ya... Geo, uaingo gazte habek, hamen eon dan nere illoba ta, habek eta, hobeto konpondu izan dittuk, aizarnazabaldarrakin beti gaixki konpontzen giñun gu.

- Zuek bai? Pikia zeon?
- Bai, beti pikia huan.
- Bai, e?
- Ta lehengo zaharrak'e hala [eman] ziyen, e!
- Lehenogehio!
- Lehenogehio uaindikan! Lehenguak gehio uaindikan-ta ta. Ta han, zeak, e, habek, zea, kultura gehio guk baiño o, gehixio ikasitakuak o, izango hittuk.
- Oainguak.
- Oainguak itxuraz, itxuraz...
- Gehio ibilitakuak, ez?
- Gehio ibilitakuak eta eskolan-ta ta, baiña gu...

4.8. Oikiako eta inguruetako erromeriak

- **Hizlaria(k):** Etxabe Oliden, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-010/020
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:51:00. **Bukatu:** 00:54:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** Oikia herri txiki baten antzekoa zen. San Bartolome da herriko patroia eta jaiak izaten ziren San Bartolomeetatik San Migelak arte. Oikiako erromeriak ezagunak ziren eta inguruetako jende asko etortzen zen. Gaztetako denbora-pasa inguruko erromerietara joatea izaten zen. Festaleku berezia zen Aizarnazabalgo "Txigua" (Txiriboga); bide erdian egiten zen erromeria. Meagako erromeria ere inportantea zen, baina beranduago hasitakoa. Barrentzo soinu-jolea.

Transkripzioa

- Eta zuen gazte denboran eta, Oikiya gaiñera nahiko... Zumaia da, baiña herri txiki bat bezalakua da, ez?
- Bai, bai, bai.
- Oikiya beti, zuentzako oikiarrak...
- Oikiya beti, Oikiya hola barriyo popular xamarra izan dek beti, zea, bere... bastante... Beste eozein barriyok baiño zea gehio zakan.
- Bai, ez?
- Bai.
- Iya-ia, herri... herri-koxkor bat, ez?
- Herri-koxkor bat, bai. Kao, aiuntamientoik ta hoiek, gauza hoiek ez zazkan, baiña festetan-ta ta... diferentia. Hamen Oikiyan San Bartolometan itten dittuk festak, bertoko patroia San Bartolome dek. Ta San Migel arte itten dittuk hor jaiero erromeia.
- San Migel?
- Oikiyan.
- Oikiyan?
- Bai. San Migeletan. Geo San Migelak ta ya ordun bukatzen huan Oikiyako festak. Bestela, jaiero-jaiero ta.
- San Bartolometatik...
- San Migelak arte.

- San Migelak arte. Ta jendia, erromei popularra huan. Honea jendia etortzen huan pues alde guztittatikan, ingurutako baserri danetatik.

- Aizarnazabal ta...

- Bai, bai, bai.

- Elkano ta Mia ta...

- Bai, bai, bai. Danetatik.

-Ta ze izaten zan erromeia? Dantzaz?

- Soñujotzaille bat ta zea, azkenaldea [jazz banda] o esaten zakon hoi, hiru-lau platillo ta ti-ta-ta-ta-ta, zeoze kanbiyatzan ziyeñ soñua ta, [...]. Baiña jendia etortzen huan barra-barra.

- Eta bestela, gaztetan, zuen denpora pasatzeko modua zeñ izaten zan jaiegunetan eta?

- Hoixe! Erromeia zeon lekura jun in behar! Bertan ez bazeon, pues, beste, beste leku batea. Ordun, festak zian lekun itten hittuan. [...] herrittan zanian, [...] herrittan festa espeziala huan, jendia juten huan...

- Bai, e?

- Lepo juten huan. Ta en kanbio, San Migeletan zanian, Aizarnazabalen eo, San Migelen eo... Hau ta hor... Geo, festa-leku espezialak ta zeak zaben ordun, zean, Aizarbazabalen. Txiriboga o Txia, Txia esaten zakon... Han'e igual ingo huan dozena erdi bat jaittan zea, erromeia.

- Erromeia? Han, kamiyan.

- Kamiyan bertan.

- Bai, bai, karreteran.

- [...] bidegurutzian.

- Mian'e karreteran itten huan erromeia lehen.

- Bai?

- Bai, bai, bai.

- Miakua gaiña inportantia izaten zan, ez?

- Bai, bai, bai. Mian San Isidruak hittun, baiña hori gero hasitakua huan, pixkat gu koskortu ezkeo. Baiña erromeia, gu txikiyak giñan arte, barruan iten huan. Barrentzo soñujotzailliak jotzen zin soñua, soñu zahar batekin, pon-pon-pon-pon, [...] dantzaz ta.

4.9. Baserri bakoitzak angulatarako txalupa eta txalupa uzteko tokia zuen

- **Hizlaria(k):** Etxabe Etxabe, Benito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-012/014
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:22:15. **Bukatu:** 00:23:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
 - Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
 - Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- **Laburpena:** Baserri bakoitzak bere txalupa izaten zuen eta baita txalupa uzteko tokia ere. Oikian Ipiolakoek eta Souzkoek bakarrik zuten txanala, besteak bazterretik ibiltzen ziren arrantzan. Bedua eta San Migelekoak txaluparekin ibiltzen ziren eta bakoitzak bere tokia izaten zuen txalupa uzteko.

Transkripzioa

- Eta txalupa ta, baserri bakoitzak bere txalupa izaten zun? Eta txalupa uzteko toki bat ere bai.
- Bai. Zeure txalupa, zeure... danak beren zea.
- Oikiyan ta hemen San Migelen ta gehienak...
- Oikiyan gutxik eukitzen [...] Oikiyan. Ipiolakua ta [...]tar] hoiek eta besteikan ez huan ibiltzen txanelakin.
- A ez? Bazterretik.
- Bazterretikan.
- Eta txanelakin hamen partekuak, San Migelekuak.
- Bedukuak eta San Migel ta, hemenguak danak. Hemengo sei basarritarrak danak beren txalupak.
- Eta nun lagatzen zian txalupak?
- Erriyo baztarrian, enbarauta.
- Danak batera?
- Zea, bakoitzak bere terreno parian edo Bedua alde hortan hor askotan guk hemen goraguan ta, segun hurrena nola huan. Bi estaka sartu ta lixto!, harekin enbarauta.
- Bi estaka sartu terrenuan ta...

4.10. San Telmo Egunean kaleak edertuta eta arrantzaleek jai

- **Hizlaria(k):** Irigoien Etxabe, Jose Migel; Zubia Azkue, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-015/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:21:00. **Bukatu:** 00:23:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** San Telmo Egunean kalea apaintzen zen, lorez, girnaldaz... San Telmo Eguna laneguna izaten zen. Egun horretan ez zen jairik. Arrantzaleek bakarrik ospatzen zuten, kofradia parean. San Telmo Egunean kanpoko fraide bat etortzen zen, eta arrantzaleak berekin konfesatzen ziren. Gutxienez urtean behin konfesatu behar izaten zen, eta Jauna hartu, eta batzuek egun hori aprobetxatzen zuten.

Transkripzioa

- (Ana Mari) Belarrak ekartzen zian [...]...
- (Ramon) Arbustuakin.
- (Ana Mari) ... arbustuak hangiak eta lokarri batekin.
- (Joxe Migel) A, bai, e?
- (Ana Mari) Eta banderituak eta ´re in ere bai.
- (Ramon) [...] moitzen hituan [...].
- (Ana Mari) Bai, bai, moitu ta. Musika ´re jarri ´re bai. Ta San Telmo San Isidro omen o San Telmo zein dan santu hori, hari nolako alfonbrak in ta.
- (Joxe Migel) A, bai, e?
- (Ana Mari) Oso! Dana lorez beteta, ta. Festa haundidxa zan.
- (Ramon) Baiño asteguna izaten da, astelehena, ta ez zan jai iten, e!
- (Ana Mari) Lana eukitzen zan.
- (Ramon) Lana iten zan!
- (Ana Mari) Maiñelak bakarrikan iten zun, maiñelak bakarrikan.
- (Ramon) Maiñelak bakarrik iten zuen jai.

- Mariñelak bai?

- (Ana Mari) Zahagidxa jartzen zuen kofraidxan azpidxan, zahagi bat, arduakin.

- (Ramon) Prozesidxua ta [...] lanian.

- (Ana Mari) Lanian. Ta gure aittak eta lanea juten zian.

- (Ramon) Geo arratsaldian iten zuen jai.

- (Ana Mari) Bai, baiño maiñelak bakarrikan iten zun. Eta kofraidxak ematen zun hamaiketakua, ematen zun, geo're eman zuen, ematen zuen. Eta kofrai azpidxan zahagi bat arduakin.

- Ardua?

- (Ana Mari) Ya kendu in zuen. Porke maiñelak danak uzten det zahagidxa...

- (Ramon) Mozkor-mozkor.

- (Ana Mari) Mozkor-mozkor inda. Baiña urte pillan eoten zan, hor zan zahagi hura.

- (Ramon) Iten zuen, ekartzen zuen, gaiñea, prozesidxuan juten beti praille bat. Ekartzen zuen parrokidxan kanpotikan praille bat. Eta konfeso ez, konfesionaidxuan eoten zan. Ta nola zeon jendia ez zuna nahi konfesatu herriko apaizakin, konfesatzen zian prailiakin. Pazkokua, Pascua Florida, Pazkokua esaten zikon, Pazkuetan jaunartu. Gutxidxenez urtien behin.

- (Ana Mari) Urtian behin. Lo que pasa que gaztia da horretako...

- (Ramon) Elizak obligatzen du urtian behin gutxidxenez komulgatu in behar zala. Ta bazan, pertsonak bazian, urtian behin konfesatu ta jaunartzen zuenak. Ta orduantxe iten zuen. Halakotxe deskantsua hartzen omen zun jendiak, arratsian danak mozkortu!

- (Ana Mari) Mozkortuta!

- (Ramon) Ta praille hura prozesidxuan juten huan!

- (Joxe Migel) A, bai?

- (Ana Mari) Lo que pasa que uan zaharrik ez dao, baiño, gure, Juanito nere lehengusuen ta, Luis [Peraso] ... Jexus... ez! Inaxio [Peraso] aintziñakuak arrantzaliak...

- (Ramon) A. Bai, bai...

- (Ana Mari) Eta San Telmo biarrenian nola izaten dan meza, orduan iten due askoek oan.

- (Joxe Migel) Pazkoko?

- (Ana Mari) Pazkokua.

- (Joxe Migel) A!

- (Ana Mari) Lo que pasa que ya edade hortakuak ez daude.

4.11. San Telmoetan, 4 egunez musika

- **Hizlaria(k):** Irigoien Etxabe, Jose Migel; Zubia Azkue, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-015/021
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:37:30. **Bukatu:** 00:39:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena:** Lehengo San Telmoetako egitaraua: bezperan (igandea) musika, San Telmo egunean (astelehena) jaia moilan, eta San Telmo bigarrenian (asteartea) eta hirugarrenean (asteazkena), arratsaldez musika. Gaur egun Zumaian ez da itsasontzirik geratzen, baina inguruko herrietan badira arrantzale batzuk.

Transkripzioa

- (Ramon) Ta hiru egunian eoten zian [...].
- (Ana Mari) Hiru gaba iten zian.
- (Ramon) Itxafero batzuk bota...
- (Ana Mari) Itxaferuak bota ta kofraiko aurrian iten zan dantza hiru gaba.
- (Ramon) Han ibiltzen zian hiru gaba.
- (Ana Mari) Oseake, San Telmo bezpean arratsaldian izaten zan dantza.
- Bezperan.
- (Ana Mari) Bai, bezpean. Gabian ez. Geo, San Telmo egunian egun guztidzan festa, itxaferuak behintzat bai, eta zahagi eguna ´re bai, han arduakin ta...
- (Ramon) Bai.
- (Ana Mari) Hamaiketakua ´re bai, kofraidzan pikuak eta gauzak.
- (Ramon) Han kabitu eziñik dantzan jendia.
- (Ana Mari) Ez [...] kabitzen!
- (Ramon) Mollaiño.
- (Ana Mari) Oseake, kofraiko plazuletan ta mollar iten zan, ta mollar.
- (Ramon) Kuadro txiki hura, mollar ´e jendia.
- (Ana Mari) Eta geo, San Telmo bigarrenian eta hirugarrenian gabian.
- (Ramon) Gabian, lanetik erten...
- (Ana Mari) Lanetikan erten ta orkesta jartzen zan.
- (Ramon) Jende gaztia dantza iten.
- (Ana Mari) Bai, orduan han iten zan.
- Astelehenetan.
- (Ramon) Astiartia, asteazkena.
- (Ana Mari) Asteartia ta asteazkena. Oseake, San Telmo egunian, egun guztidzan...
- (Ramon) Ta geo, repetizidxuak.
- (Ana Mari) Eta geo, San Telmo bigarrena ta San Telmo hirugarrena iten zan.
- (Ramon) Hirugarrena.
- (Ana Mari) Eta geo repetizidxuak.
- (Ramon) Repetizidxuak.
- Aste batea.
- (Ana Mari) Bai, San Telmo... Baiño oaingua da...
- Eta gehixenbat, orduan, mariñelena eta...
- (Ana Mari) Mariñelena.
- (Joxe Migel) Bai.
- (Ramon) Bai, bai, bai. Maiñelak zien, barko hoidxek. Eta geo zeon, uaindik ´e badabe jendia itsasuan lan iten duna Oridxon ta zea... maiñelak mutillak...
- Getaixan ta...
- (Ana Mari) Getaidzan ta bai...
- (Ramon) Getaidzan... Badabe, badabe uandikan ere, baiña Zumaidzan barkuik ez da bat bea ´re geatu. Baiña maiñelak itsasuan asko. Ta geo marina merkanten ta kanpuan eongo dia, e? Ez dakit zein dauden... batzuk...
- (Ana Mari) Ez dakit! Ez dakit!
- (Ramon) Batzuk eongo dia...
- (Joxe Migel) Nik ez dakit.
- (Ana Mari) Bueno, hemendikan maiñelak bai, kanpoa juten dianak. Baiño bertan...

4.12. Traineriletan kopa irabazi eta herriaren harrera

- **Hizlaria(k):** Etxabe Egaña, Ana Mari; Zubia Azkue, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-017/003
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:06:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Aisia » Kirola » Uretako kirolak
- **Laburpena:** Zumaiak estropadetan bandera irabazi izan duenetan, San Telmora joaten ziren denak prozesioan bandera bedeinkatzera. Ohitura hori nahiko berria da, lehenago ez zuten banderarik irabazten eta. Zumaiar batzuk Madrilen traineriletako kopa irabazita etorri zirenean herrian egin zitzaien harrera. Bestelako harreraren bat zegoenean ere beti Zubi-txikira joaten ziren zumaiarrak.

Transkripzioa

- Beste gauzatxo bat, lehen San Telmo ta aitatu deu, ta zuk jakingo dezu, hor, banderak eta irabazten zianian, ta irabazten dianian, San Telmora ta eramaten zian? Traiñerutan eta...
- (Ramon) Bai, Don Josek bedeinkatu iten zitun...
- (Ana Mari) Bai, baiña hori uan dala denboa gitxi, porke eske klaro, lehen ez zun irabazten.
- (Joxe Miguel) Lehen-lehen ez.
- (Ana Mari) Ez. San Telmoa bai, prozesidxuan bezela, bedeinkatzea. Bedeinkatu, bedeinkatu ta meza.
- Baiña hori ez da lehen-lehengo kontua?
- (Ana Mari) Ez, ez, ez, ez.
- (Ramon) Ez. Lehen irabazi zun behin eo bitan eo, baiño...
- (Ana Mari) Bai, baiño irabazi... ez!
- (Ramon) Banderak [...] aiuntamentuan, baiño hola, bedeinkatu're...
- (Ana Mari) Ez, ez. Geo hasi zianian ya bastante ta zea, ba, in behar zala, bedeinkatu in behar zala, ta prosezidxuan bezela, meza.
- (Joxe Miguel) Meza, meza...
- (Ramon) Trainerillen kanpeonatua Espaiñikua Yeregineko bi eo hiru anaiek Madrillen irabazi zuen. Casa Campoko laguan in zuen regata, trainerilla, ta irabazi in zuen, Yeregi, Iñaki Yeregi ta...
- (Ana Mari) Bai.
- (Ramon) Ta Madriden irabazi zuen, eta izugarritzko rezibimentua, gorridxa zan orduan ere...
- (Ana Mari) Bai, beti gorrixa Zumaidxa.
- (Ramon) "¡Viva los rojos!" han jende dana, zeoze aprobetxatu behar zun ta. TA bandera gorridxakin erten gendun, zeoze, jendiak zeozarren manifestazidxua nahi gendun, ta Madritik ekarri zuen, kopa o ekarriko zuen, bandera ez...
- (Ana Mari) Kopa usten det.
- (Ramon) Kopa usten det ekarriko zuela.
- (Ana Mari) Kopa usten det.
- (Ramon) Izan zan rezibimiento bat, bueno. Jende dana, obispua etortzen zanian ta danak zubi txikira juten giñan.
- (Ana Mari) Bai.
- (Ramon) Eta dana girmaldaz betia.
- (Ana Mari) Las reliquias de Santa Teresa, ta danak zubi txikira.
- (Ramon) Zenbat gauza pasatzen zian ordun Zumaidxan. Beti zeoze

bazan, zentenaixon bat o eskapulaixua o zeoze bazan, danak juten giñan zubi txikira, ta etortzen zian, eta han iten zian rezibimientuak eta.

4.13. Festetako entretenimenduak; "tiñetan"; "zirgan" egitea

- **Hizlaria(k)**: Garate Elosua, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-019/003
- **Iraupena**: 0:04:55. **Hasi**: 00:04:05. **Bukatu**: 00:09:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Festetan egiten zituzten joko edo jolasak: zaku-karrerak, lapiko apurtzeak, lokotz biltzeak, kukaña, batelen lasterketa, tiñetan. Azken hau azaltzen du: antxoak gordetzeko tinetan "zirgan" egin behar izaten zen. "Zirgan" zeri deitzen zioten. San Pedro hirugarrenean egiten ziren uretako jolas asko.

Transkripzioa

- Ordun izaten huan zaku-karrera, izaten [...] bizikleten zintak, hori ya bizikleta zakenak. Zintak, baakik, e… zea, bizikleta zakenak hori! Amaiako hortan-ta jartzen ziyen ta…
- (Laguna) […] hamen bakarrik ingo huan "tiñetan"…
- Bai! Hamen zikat!
- (Laguna) Hori Zumaian bakarrik ingo huan!
- Zintak…
- (Laguna) Tiñetan.
- Zer da "tiñetan"?
- Oan esango diyat. Zintak… Lapikuak hausten. Baakik, lapikua, itsu-itsuan, zea tapatzen diye ta bi o hiru buelta eman ta… hori Mejikon-eta’re zeatzen diye! Gero zer daon, ba, karamelo batzuk o barruan. O dirua tokatzen bada ona, ta…
- Hori jaixetan-eta jartzen zuen?
- Bai, hola, festak, festak, en jeneal, festak zianian. Lokotsa biltzia ta hori huan biltzia, lokotsa biltzen, zenek azkarro bitu. Kukaña. Guk kukañak esaten gitxuan. Masta bat jartzen dek hor, hori’re arranplan, uretan, masta bat pixkat gora, jaboia-o ematen dek. Aurrian zeatxo bat, banderito bat o, ta hura harrapatzea, ba, dirua o durua o bost duro o zer zan, ba… Jaboiz zeauta. Eta geo bateletan’e bai, arrantzako batelak, hiru laun ta patroiakin. Zean buelta, zubi haundiko buelta ematen huan.
- Zein izaten zan buelta normala?
- Hamen, hamen, moillatik erten ta zubi haundira jun. Ta pixkat luzio baldin bazan, zeara, tren-zubira. Trena pasatzen dek, ba? Ba, handik, handikan. Baiña bai, hori. Eta geo tiñetan. Tiñak hitxuan antxoen zeak, antxoa ta salazoa ta zeatzen dek…
- Gordetzeko?
- Bai, gordetzeko, gatzakin-ta gordetzen dek, baiña tiña, bai, bastante zea. Ez zekit zenbat gordetzen zuan, [dana plastikua, beitzen] dek eta. Holako tiña, egurrezkua, borobilla, barrika balitz, baiña erdidxa. Barrika erdidxa. In zak kontu barrikan erdidxa dala. Eta hor arraun batekin xirgan ein bihar. Xirga, xirga… Xirga bi gauzai esaten gitxuan. Bat hor, horrei. Ez zeai bakarrik, tiñetan, baita Zumaian batelian’e xirgan asko ibiltzen hitxuan, arrantzan´e.
- Eta zer da "xirgan"?
- Xirgan, ba, zea bat in, arrauna… aurrana badakik zer dan, ezta? Atzian jarri ta horrela in bihar dek. Oso abilidade,

abilidadia euki bihar dek hor’e, xirgako’re. Entenditzen al dek? Arraunakin zeatzeko, tik-tik-tik. Ta borobilla dek eta erraz zeatzen duna, zuzen eamaten zailla, oso zailla dana, oso zailla, tiñak buelta ematen dik eta!
- Eta karrerak iten zian?
- Karrerak, bai. Zein azkarro etorri. […] Kojuak en jeneal, kukañetan ta tiñetan artistak!
- Bai, e?
- Kojuak artistak! Kukañetan’e bai. Hanka beti en jeneral, zea eukitzen dik, gure lehengusu batek eta, pixkat hola, zea, ta, ro, ro, ro! Bai, tiñetan. Ta…
- Eta tiñetan…
- Eske, Zumaian, xirgan… hik’e ezautu huan! Lupitan-ta’re en jeneral batelakin xirgan ibiltzen zuan beti, ta txanelakin-ta’re bai. Txanelakin’e…
- Eta hori zegaitik zan? Komoduaua da, o?
- (Laguna) Bai, bakarrik nola zaon…
- Bakarrik nola daon…
- (Laguna) Esku batekin xirgan ta bestiak kazian.
- Ehizian lupitan, arrantzan ibiltzen dek. Eta batekin eramaten […] eta hori lagatzen dik geo…
- Eta bestiakin…
- Bestiakin…
- Esku batekin [mobidu] ta bestiakin arrantza.
- Bai, bai, bai.
- Eta tiña hoiek ze izaten zian arranpla parian’e bai, o?
- Bai, bai, bai, bai, bai. Arranpla, hor izaten hitxuan. Eske, hor, uretako zeak hor izaten hitxuan, arranplan, zerian, mollar, mollar o… mollarrik arranpla, hor izaten hitxuan.
- Eta zuen adiñeko mutil guztiak-eta bertan…
- Bai!
- ... tiñetan ta…?
- Bai.
- Eta hori noiz iten zan? Zuek beti ezautu dezue?
- (Laguna) Bai, festetan […].
- En jeneal…
- (Laguna) Semana Granden ere bai […].
- Baita. Geo, hori’re bahuan, udan’e geo jartzen ziyen beste festa batzuk, semana grande o esaten zixuena ta geo, bestela, ba, zerian, San Pedro hirugarrenian uretako festa asko iten zian. Hirugarrenian. San Pedro hirugarrenian en jeneal batelak eta tiñak eta ahatiak harrapatzen. Ahatiak, baakik, ahatiak bota ta igeriyan. Oango aldian, oanguak ez ditxuk bela harrapauko hor dabilzan anade zea hauek, [honen izenekuak]. Anadiak eta makalo-ta etortzen hitxuan, tonto xamarrek hitxuan.
- A, bai, e?
- Bai.
- Pixkat tontotuta?
- Errazo harrapatzen hitxuan. Ahatiak eta antzarrak.
- Eta zer izaten zan, bertatik mollarrik bota ta…
- Bai, bai, bai.
- Ta salto itia?
- Bai, harrapatu. Geo igeriyan jun ta harrapatu. [Igeriyan], atzetikan, ta dana bu-bu-bu. Bai.
- Lehen esan diazu "xirgan" bi gauza diala, "xirgan".
- A! Bueno, bestia xirgan, bestiai esaten gitxuan, korriente haundidxa zeonian… Paol birian, muturrian…
- Sartzen.
- Sartzen. Xirga lehorrea botatzen huan eta lehorretikan "xirga" deitzen gitxuan horrei’re. Entenditzen al dek?
- Soka, soka…
- Soka ekarritzeko, soka ekarri, batelak, e…
- Txikotia?
- Txikotia o nahi dekena zeatu, ta hura’re arrastaka "xirgan" esaten gitxuan, "xirgan ekarri". Entenditzen al dek?

4.14. 1946 ingurutik aurrera koroak dirua batzen zuen ospitalerako

- **Hizlaria(k):** Garate Elosua, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-019/008
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:21:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Aisia » Taberna giroa

Aisia » Kultura » Musika

- **Laburpena:** Kanturako ohitura handia zegoen Zumaian eta tabernetan asko kantatzen zen. 1946-47 inguruan koro handi bat bildu eta kantuan ateratzen ziren ospitalerako (zahar-etxerako) dirua batzeko. Hasierako urteetan Andazarrateko tuberkulosen egoitzarako bildu zuten dirua.

Transkripzioa

- Kantuak tabernetan. Ohitura ona zeon hemen Zumaian. Danak geo, bueno, gu baiño zaharrauak’e bai, gu txikiteuan hasi giñanian lehen danak txakoliña eaten zien hamen. Geo hasi huan hamen txakoliñak –nik ez zekiat ze mierda– bihotzerria ematen zula, hau ematen zula, loguria ematen zula, ta dana galdu ta geo atzea berriz danak txakoliña. Orduan taberna danetan kantatzen huan. Bai, hori bai. Taberna danetan, ba, kantuan gabon zeak… Eta geo bestia, hori ahaztu in zikak gaiñea, tabernetan’e kantau iten huan. Geo koruak ertetzen zian, hori’re bai. Gabon egunian koruak ertetzen zian. Geo hori ya berrogeita… bastante urte, berrogeita seian o ez zekiyat, zazpiyan, zea hasi zan, diru-batzen. Kantuan in, koro handi bat zeatu, eta geo itxietan dirua batzen, guk ospitala esaten ziu, zea, zahar-etxia. Zuluaga lehen esan deu, Zuluagak-eta zeatu zien zea hori, zahar-etxien hori. Ta harako, ba, laguntza bat, dirua batzen. Eta tabernetan’e kantatu iten huan. Kuadrilletan, txikitua edanez, ardua pixkat beti’re hobia, badakik, txapel-gorriya-o, kantuan ta…
- Eta koruak zian ya, elizako korua o bestela, kuadrillak eta zian?
- En jeneal... bai, eliza inguruan juntautakua, txistulaiakin ta zea, baiña bai, bai. A! Ta hasi, gaiñea, hor ez huan in. Gaixki esan diat nik! Ospitala, ez! Lehenbizi hasi huan Andezarretan lau o bost tuber… Andezarreta, Aiatik badakik…
- Bai.
- Iturrioz biria huan.
- Bai.
- Ta hor zuan zea, tuberkulosuen zea bat…
- Ospitala.
- Ospitala, bai. Geroa’re hor eon hitxuan pabelloiak. Diputazidxuak-o jarrita zeola ta zea zeola ta garai bateko... badakik. Ta han zibitian lau o bost bat igual eongo hitxuan. Eta harako laguntza ematen. Ta geo ya zeatu zanian, ya gero hasi hitxuan ospitalea eramaten. Bildutako dirua haiei laguntza o, baakik. Eta behar zunai’re bai, entenditzen? Behartsuak zianai o olidxua o azukria o hau… Caritasek hartu zian hori dana geo, Caritasek hartu zian, entenditzen? Bai. Ta kantuan’e geo, baita…

4.15. Gazte bi salbatu zituen itsasoan

- **Hizlaria(k):** Bidasoro Blasco, Trini
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-021/012
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:20:30. **Bukatu:** 00:23:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**

Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- **Laburpena:** Triniren aitak sokak jartzen zituen hondartzan, itsaso bazterrean, igerian ez zekitenak itsasoan sartu ahal izateko, sokari

helduta. Hala ere, batzuetan jendea larri ibiltzen zen itsasoan. Trinik bi gazte atera zituen itsasotik: Oliteko reketek bat (gerran), eta Zumaiaiko gazte bat.

Transkripzioa

- Baiño hor... Hor nik... Bi mutil ateata nao, geo, itsasotik, e!
- Bai? Itotzen?
- Igeridxan ondo nakin nik! Ondo! Geo, nere aittak jartzen zuan batetik bestea bi ez daka zeakin, este, nola da...
- Soka batekin, o?
- Sokakin! Igeridxan ez zekidxenai heldu eta baiñua hartzeko.
- A! Baiña estaka bat lehorrian eta beste estaka bat itsasuan.
- Bai, itsasuan. Beste bi itsasuan. Beno, ba, egun batian, holaxen, itsasertzian neon ta gizaseme bat apuruan, apuruan. Ta ikusi nunian, laga danak, patrikan nezkan txanpon danak galdu nitun, eta atea nun. Ba al dakizu zer zian?
- Zer?
- Reketiak Zumaidxan sartu zianeko eguna! E! Reketiak o...
- Bai.
- ...sartu zian eguna. Bat oso gaztia. Ta ikusi nunian jun nitzan saltaka ta atea nun. Orduan sasoia nekan nik! Atea nun ta kitto. Hura Olitekua zan. Eta gehidxo ez det ezer´e jakin. Behin jun giñan, zea, saldatzea, ta ez zion inportantzik bate eman ta kitto, ez dakit gehidxo. Baiño beste bat zumaiarra. Jose Uribe, ez dakit aituko zendun behin ere?
- Ez.
- Hemen bertako semia. Jun bai ederki, itsasuan, ura behera dijuala, ederki igeridxan. Baiño geo etortzeakuan zailla. Ikusi nun ta jun nitzan saltaka, jun nitzan presaka. Itsasua, lehen esan deten bezela, sokai heldua ta. Atea nun uretatikan. Gaur oaindikan ikusten naun bakoitzian besarkada bat eman gabe ez da geatzen!
- Zuk salbatu zendulako.
- Bai. Bestela ittoko zan.
- Jende asko itto al da hor, o?
- Itto, itto, ba, ba...
- Sustua bai, ez?
- Sustuak eman, haundixak. Itto´re, itto´re bai.
- Ze da, hondartza, itsasua txarra?
- Itsasuak jan ta segituan junda edo, ez dakit nola! Ez dakit, baiño...

4.16. Antzerkiak batzokian gerra aurretik eta luistarrek gerraostean

- **Hizlaria(k)**: Yeregi Salegi, Irene
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-022/025
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:48:05. **Bukatu**: 00:50:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 - Aisia » Kultura » Zinema
 - Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena**: Batzokian antzerkiak ere egiten ziren. Berak zarzuela tipoko antzerki batean parte hartu zuen, baina ez zuen paper berezirik. Jende askok hartzen zuen parte eta harrera oso ona izan zuen. Euskaraz

zen antzerkia. Antzerki honen inguruko azalpenak. Antzerkia gerora egin izan du zaharren etxean. Gerra ondorenean luistarrek ere egiten zituzten antzerkiak, baina gaztelaniaz.

Transkripzioa

- Eta dantzekin eta batera, antzerkiya, ez?
- Ta geo antzerkidxak iten zituen, bai. Antzerkidxak, bai.
- Eta hor'e ibili ziñan zu, ez?
- Antzerkidxan ez, han ez. Ni ibili nitzan antzerkidxan, oain zea, oaintxe hamar-hamabi urte.
- A, geo?
- Geo antzerkidxan, zean, [...].
- Baiña lehenoz ez.
- Lehenoz ez, ez nitzan behiñ'e zeatu. Bai, bat in nun zean, baiño montoikua nitzan. Porke zan zarzuela bezela, o. Ez, "Soy la [...]" izena zun. Hura in zan... Jende asko dao, kanpotik etorri zan gaiñea, e! Oso hotel ederra zan! Amaia, nola hor, Amaia, lehenoko Amaia plazan? Hotel Amaia nola zan? Hor teatrua zeon, zinia zeon hor. Ba, horko teatruan, horko nausidxa, donostiar bat zan, nazionalista zan. Harei're rekisatu in zidxoan. Habek tranpa inda, ezin zien jarri habek itxia horrena, e!, hotelena, e! Eta hortxe in zan zea bat, teatro bat, "Soy la [...]". Oso, ni ez naiz asko akordatzen, baiño sorgin bat'e bazan lehidxuan ertetzen zuna eta geo arkumia're bazan. Eta gu behian geunden, egun batian behintzat behian gabela, arkumia urtan, uretan sartu zan, arkume txiki bat zan, klaro, arkume txiki batek erten zun. Baiño oso, izugarrizko exitua euki zun, ta behalaxen gerra etorri zan ta kito! Ya kito!
- Eta antzerki hori euskeraz zan?
- Bai! Euskeraz! Bai!
- Orduan bazeon afiziyua antzerki...
- Bai, bai, bai, bai. Antzerkidxa bai, asko. Ta geo, geo, oseake gerrako, bueno, zean, geo, zean, zentro, zea, Luisetakuak iten zituen zeak, antzerkidxak. Baiño haidxek ya izaten zian gizasemienak. Hura, hura zeatu zan, han iten zuen hoidxek, bueno, ya, nik'e orduan ya eukiko nitun ya hamazazpi urte o, hemezortzi igual. Zea, nola dao, nola jartzen ditue pinturak eta hor behian? [Alondeidxa] esaten giñoun. Hor, hor goiko pixuan zeon teatro bat eta han iten zian Luisetakuak.
- Baiña ya hori gizasemiena.
- Ta hori ya gizasemiak iten zuen.
- Erderaz.
- E?
- Erderaz.
- Bai, erderaz.
- Gerra, gerra ondoren.
- Gerra ondoren, bai. Orduan ez zuen lagatzen euskeraz. Ez zuen lagatzen euskeraz hixketan.

5. Baserria

5.1. Tabakoa ereiten zuten; prozesua urratsez urrats

- **Hizlaria(k)**: Ibarbia Ugarte, Brigida
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-006/020
- **Iraupena**: 0:04:30. **Hasi**: 00:33:10. **Bukatu**: 00:37:40

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- **Laburpena:** Konde baserrikoek landare ugari ereiten zituzten. Beraiei tabako-hazia ematen zieten eta erein egiten zuten. Lau-bost hosto zituenean aldatu eta abuztu amaieran jasotzen zuten. Kerten gogorra izaten du tabakoak eta aizkorarekin edo igitaiarekin ebakitzen zuten. Nola lehortzen zuten. Lehortutakoan hostoak sustraitik banatu eta sortak egiten zituzten. Zumaiaira eraman eta handik lruñera bidaltzen ziren trenez. Konde baserrikoak ziren prozesuaren arduradunak, tabakoa beste baserrietan ere erein arren. Baserrian negu partean ez zen irabazpiderik izaten eta tabakoaren dirua ondo etortzen zitzaien. Otsail inguruan kobratzen zuten.

Transkripzioa

- Konde basarriya, ta harrek itten zun landare asko. Hua zan herriko danen buru, o... Hark zeatzen zuan. Baiño, gure denpoan itxia... haziya ematen zigun guri!
- Tabako haziya.
- Tabako haziya itxian zeatu, ta geo ernetzen hasten zanian, [...]. Hazi-toki zea batian jun ta, ta!, bihatzakin dana txut. Lau ostro o sei ostro zanian aldatzen gendun. Abuztuan azkena, iraillian aurrenien jasotzen gendun.
- Gariya...
- Bai, gariya kendu ta ipintzen gendun, bai. Eta geo, lehortzea, ba, hiru hillabete o izaten zan. Ta itten gendun aixkoakin o itaiakin ebakitzen gendun, tentian.
- Aixkoakin?
- Bai, bai, bai. Kerten gogorra du. Horrela kertena, eta trak! ebakitzen zan, punta zorrotzakiñ. Eta geo, bestela itten gendun, zea, iltzia. Bakoitzai zea sartu, alanbria ganbaran dana, alanbria in, ta alanbrien taka-taka-taka-taka, dana exekitzen gendun. Eta lehortutzen zanian, mendebala behar zun izan ostrua ez puskatzeko. Orduan lika-liko-liko-liko [...] danak, [...], e!, peatzen zan dana, e!. Eta... lika-liko. Ta ordun taka-taka, sustraittikan dana kendu ostrua eta geo dozena bat o eskuan bittu txuzen ta beste batekin buruba itten giñun, sorta, sorta. Ipurdiyak eta muturrak alde batea, kertenetik. On-ona erdikua-ta beste aldea. Hua ya doblaia pagatzen zeen. Erdikua puroako, puruantzako, bai.
- Ona puruantzako eta...
- Bai. Beaiiek klasifikatzen zeen. Guk muturrak ta ipurdiyak garbi-garbiya, orri haundiya ona zeona, aparte juten zan beti. Ta muturrekuak eta ipurdikuak xixtriñauak o erdi-zeatu, zulatuta igual, hua beste aldiian, farduak. Kaja haundi bat, zakuakiñ zeatu, lotu, josi...
- Ta Panplona.
- Bai, bai, bai. Egunak izaten zian, eamaten zian egunak. Ya merkantzia o, Zumaira ekartzen zian...
- Ta trenian edo?
- Trenian o... nik ez dakit nola juten zian! Nola zeatzen zian behiñik behin, horrenbeste kilo...
- Baiña zuek ez ziñaten juten...
- Ez, ez, ez, ez! Konde o dalako horko... Oaintxen dala urtebete o hola hil zan gizon hori, zaharra. Eta ya haiek arduratzen zian. Gero hasi zian kamioi...
- Zuek hasi baiña...
- Guk pixatu ta guk jartzen gendun eta harei zean, horrenbeste kilo

horrenbeste zeakiñ etortzen zan. Nota hartzen zizuen, geo´re hari buruz etortzen zan. Hango klasifikaziyuen buruz etortzen zan, bai. Ta hortxen, Kandelaiotako buelta horretan etorrigo zan pixua ta diruen fakturaziyo, esan nahi nuke, bere zea ta... Otsaillen azkeneako kobrauta.

- Eta...

- Bai, bai. Ordurako diru ederra zan, e! Iñ in behar, lan asko in behar, baiña dirua zan. Ta garai hartan, ba, in zazu kontu. Gabonetatik udaberrira arte, baserriyan ez dao ganauakin ta zean. Lehengo patata o... Ez da, ez da.

Oain bezela ez zan, ta!

- Gero bai, ez? Ya martxutik aurrera...

- Bai, martxutik aurrea udaberriko gauza hasten zan.

- Bai.

- Landaria ta...

- Baatza ta.

- Bai, baatza ta dana. Handikan santu guztiyen aldea arte, ba, segi-segi-segi-segi danakin. Berdura, illarrak, baina, porrua, udarako berdura, Zarautza o Donostira.

- Ta orduan, neguko diru hori ondo etortzen zan, ezta?

- Hoixen etortzen zala!

- Tabakuan diru hori...

- Bai, bai, bai.

- Eta, e...

- Asko itten zan Oikiyan! Iya baserri danetan, e!

- Bai, e?

- Bai, bai, bai, bai. Libre izango zan! Itten gendun behiñik behin, ta!

- Ta zuen aurretik´e bai? Gurasuak eta... gogoratzen dezu? O, aittittak eta amamak eta?

- Ez, ez, ez, ez, ez. Aittak eta amak denpoan hasitakuak. Gu txikiyak giñan denpoan hasiko zian beharbada. Bai.

- Eta geo´re, jarraitutakuak?

- Jarraitu zuan gero arte, baiño ez dakitt, uain dala berrogei bat urte lagako zuen, e! Lehen esan dixutena, gaixotasuna o lizundu itten zan. Ezin zan. Lurra gaixotu o izaten da, ba? Ezin zan tabakoik iñ, atmosferagatikan o... ez zan, ezin zan iñ. Souan bertan hasten zitzaion lizuna. Ta orduan ez du bate baliyo. Galdu itten du ta! Bai. Ta geo, bertan behera galdu zan hori dana. Oain irauten duan Panplonako fabrika harek, ez dakitt hortikan aurrea ezer´e.

5.2. Lehen inguruak gari-soroz beteta

- **Hizlaria(k):** Etxabe Udabe, Klaudio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-008/007
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:14:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
 - Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
 - Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** Inguruko baserrien izenak. Gaur egun dena zelai dago, baina lehen garia zegoen denean. Auzolanean lan egiten zen sarri. Artoa eta babarruna ere asko egiten ziren. Lehengo aldean ganadu asko dago inguruko baserrietan orain. Baserrian lan ugari egoten da;

baserriko bizimodu gogorra. Gaur egun aurrerapen gehiago, baina lanera jenderik ez.

Transkripzioa

- Eta bestela zuek, auzo honek nola daka izena?
- E?
- Izena, auzo honen izena zein da?
- Horrena?
- Auzua, bai. Zuen inguru guzti hau.
- Baserri hoidxek ditxuk [Andika] izena didxe bidxak. Goiko hura Santa Klara. Bai. Ta beste hura Saskarate.
- Saskarate.
- Hor beste... hamendik ez dezu /etzu/ ikusten, beste bi alkar onduan zabek. Agerre hoidxek.
- Agerre?
- Bai.
- Eta inguru guzti honetan beti horrela zelaia eta belarra izan da edo lehen gariya ta...
- Garidxa ta lehen asko!
- Lehen dana garixa?
- Bai. Oain dana... dana zelaidxa oain!
- Eta noiz aldatu zan?
- Ba urte batzuk bai aldau zala.
- Eta lehen garixa.
- Garidxa, bai.
- Eta hamen garixa ondo hasten da, hamen itsasonduan?
- Bai.
- Bai, e?
- Guk'e gari pillua iten giñin urtian urtian. Gurian ta danian! Hamen itxe danetan, auzo danetan.
- Dana garixa.
- Garidxa bai.
- Eta gero, garidxa ta ebagi eta, ebakitzeko ta, jasotzeko ta, auzolanian.
- Bai. Auzotan. Auzuak elkarri lagunduta. Hik gaur han ta, gu bidxar honea ta horrea ta, bai. Ta artua ta're bai.
- Artua're bai?
- Artua ta, baba, babarruna o, asko iten [huan] hemen lehen. Bai.
- Uda partian garixa eta...
- Bai.
- ...ta gero artua.
- Artua.
- Eta ardixak eta ganaua ta, hori ere izaten zan?
- Bai. Oain lehengo aldian ganau asko zioke hamen.
- Oain gehio.
- Asko, asko, gehio, asko galdu dek. Zelaidxak horreatik zebek uain, souak zelai inda. Jatekua asko behar, ta...
- Eta lehen, hamengo zelai guztixak eta, dana soluak.
- Danak ez, baiña asko bai.
- Garixa, ta...
- Bai.
- Garixak lan asko izango du, ez?
- Bai. Baserriko lan danak asko.
- Bai. Oain lehen baiño erredxo iten dek makinakin ta adelantua. Baiña lehengo aldian jende gutxi uain baserridxetan'e lanian.
- Bai. Hori aldatuko zan, ez?

- Bai. Baserrin gutxi pagatzen die ta!
- Bai.
- Oain, oain urte baiño merkio zioke haragidxa're, guri paatzen [ziuk], baserritarrai. Tablan atea zake kontua zenbat, zenbat garestidxo [eongo dan]? Pentsua ta dana.

5.3. Eskolara eta jeneroa saltzera Zumaiara

- **Hizlaria(k):** Etxabe Udabe, Klaudio
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-008/008
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:14:35. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- **Laburpena:** Eskolara Zumaiara joaten ziren inguruetakoko umeak eta baita "Elorrixa" (Elorriaga) auzokoak ere. Baserriko jeneroak saltzera ere Zumaiara jaisten ziren. Zer saltzen zuten kalean.

Transkripzioa

- Eta hamen zuek gaztiak, umiak ziñatenian eta, eskola nun zeon?
- Eskola Zumaira jun bihar!
- Zumaira jun behar?
- Zumaira oiñez. Oiñez jun ta oiñez etorri in bihar...
- Hamendikan, e?
- Bireik ez zeon ta, oiñez!
- Biderik ez?
- Ez. Holako zea, justu-justu laguna pasatzeko.
- Eta bertakuk, Saskarate ta hamen, Agerre, ta...
- Hoidxek, hoidxek'e danak.
- Danak alkarrekin.
- Bai.
- Ume asko izango zan orduan?
- Bai, zeatik Elorridxatikan'e eskola ta Zumaira umiak.
- Elorrixatik, e?
- Bai. Bestela Itziarrea o jun behar. Ta badakik, bat urruti, bestia urruti... danak urruti!
- Bai.
- Ordun, [...], bireikan ez ta kotxeikan ta're ez.
- Bai, bai, bai.
- Oain dana kanbidxauta zioke. Oain danak kotxia behar!
- Eta hemen auzoko guztiak, orduan, Zumaira.
- Bai.
- Bai. Eta jenerua ta saltzea, azokara ta? Zumaira're bai.
- Zumaira. Astuakiñ eaman behar! Patata ta... zer zian!
- Eta zer ziran? Ze izaten zan, patata ta...? Baratzekuk eta izaten zian, tomatia ta?
- Bai, bai, baratzekuk. Bai. Tomate ta, tipula ta, porro ta... dana holakua!
- Bai.

5.4. Fabrikako lana eta baserrikoa batera

- **Hizlaria(k):** Ugarte Lopetegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-009/005
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:11:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Lantegian egunean 10-12 ordu lan egiten zuten eta etxera etorrita han ere lanak egin behar. Larunbat goizetan ere lan egiten zuten hasieran eta hori kendu zenean lasaitua hartu zuten.

Transkripzioa

- Ta geo bakik, esan detena. Lehen, hi, tallarrian [...] hitun ta, gu udaan ta ordu asko in behar izaten giñun ordun, tallarrian orduan. Hamar ordu t'erdí itten [genittun] [laneko], hamar ordu, hamar ordu t'erdí, hamabi're makiña bat aldiz iñak gaittuk!

- Bai, ez?

- Bai. Eta berriz itxea etorri ta berriz itxian'e jardun in behar! Hua izaten huan!

- Klaro!

- Han zuluán pasatzen huan euna ta berriz'e hamen etorri ta...

- Ganaua ta...

- Ganaua berriz ta, zeatzeko astiik ez, bizitzeko're astiik ez! Sapatuan'e lana izaten huan hasieran, hasi giñanen. Geo ya kendu huan. Sapatuan jai itten hasi huan geo.

- Sapatu goizian baiña, ez?

- Bai.

- O goiz ta arratsalde?

- Ez, goizian, goizian. Ta geo ya sapatua zea in huan, kendu huan ta. Geo pixkat lasaixio, hi, asteburua pixkat trankillaua, hi. Basarriyan'e beti izaten huan [lana], han ez huan jairik izaten.

- Ez!

- Ez. Lana izaten huan, han ez bazan, hamen.

- Fabrikan lana iten duna ta gero kalia, ba, ondo, baiña...

- Bai, bai. Bai, kalia [...] ondo, bai, bai, baiña...

5.5. Baratzea bizibide; autopistak lurak jan zizkien

- **Hizlaria(k):** Ugarte Lopetegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-009/007
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:12:45. **Bukatu:** 00:15:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- **Laburpena:** Kotxerik ez zegoen eta astoarekin joaten ziren estaziora gauzak eramatera. Baserrian ganadua baino gehiago baratzea izaten

zuten, gehienbat tomatea eta lekak. Ama Donostiara joaten zen saltzera. Autopistak sailik onenak hondatu zizkien. Terrenoak gutxitzean hasi zen fabrika lanean.

Transkripzioa

- Baiña hoiek hittun zeak, gure bizimouko zeak. Ta ordun hik […] automobilik-eta’re ez huan, ta basarriyan eoten giñanian-ta ta, astuakin estaziyoa jun behar izaten huan trenea, zea eamatea, jenerua eamatea.
- Bertako, Oikiyako…
- Bai. Oikiyan bahuan hor estaziyua, hor huan apeaderua. Harrea jun behar izaten giñun astuakiñ. Ama zana, ama zana Donostira juten huan.
- Donostira, e?
- Bai, gu mutil-koskorak giñanian ta, udaan tomatia asko iten giñian, tomatia ta baina. Berdura. Gehio ganaua baiño, berdura gehio itten giñian.
- Bai, ez? Oikiyan…
- Hemen batzuk ganaua askoekin eoten hittun. Baiño hamen, gure itxian-ta ta, hamen zea gehio. Hemen…
- Baratz.
- …baratzako gauza gehio itten giñian.
- Tomatia, piperra ta…
- Bai.
- Baina.
- Baina, ta illarra ta. Hoiek danak. Geo autopistak hau… terrenuak puskau zixkiñ danak. Gui’re […] haundiya harrapau [zitxiun]. Han soro txiki bat osua. Bestiai’re pusketa haundiya ta… Haben bi dabezenak habek’e, habek’e beheko barrenak lurrian gozuenak eta onenak…
- Eta ze zian, danak baratzak? Dana oaiñe’ autopista pasatzen da, ta baratz.
- Oain autopistako hoiek baratzak […] hoiek. Ta baratz, ta lehen-lehen gariya ta’re bai.
- Gariya bai.
- Gariya ta artua ta, hoiek, babarrunak ta [in behar izaten hittun ta]. Lurrikan earrenak gure etxiak zittunak zeak jan zixkin, autopistak.
- Autopistak asko aldatu zun Oikiya?
- Bai. [Ointxe] jata ebakita geldittu huan ordun.
- Bitan.
- Ya ordun, orduan ya, hoi pasa zanian hasi niñun ni’re zeara…
- Tallarrian.
- …tallarrea lanea. Eske terrenuak zeatu hittun… Lehenotiyo ideakin gatxaben, baiño jutea, zea, tallarrea hasteko ideakin natxion. Bagitxikiun gaiñea nola zatorren, autopista nola zatorren…
- Jakinda…
- …jakinda gatxaben ordurako zea behar zala, terrenuak izorrauko zittula. Ta ya ordun zea in giñun, bukau giñun ta. Uaiñ hamentxe, uain jubilauta. Gure bizimoua pasata.

5.6. Administratzailea etxera etortzen zen errenta kobratzera

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Oliden, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-010/002
- **Iraupena**: 0:04:00. **Hasi**: 00:03:32. **Bukatu**: 00:07:32
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- **Laburpena**: Urtero errenta pagatu behar izaten zuten. Azkenaldera administratzailea etxera etortzen zitzaien errenta kobratzera. Zumaiaiko beste baserri batzuetan ere maizterrak ziren eta denak euren etxean elkartzen ziren errenta pagatzeko. Errenta gariarekin eta kapoiekin

ordaintzen zen. Baserriaren tamainaren arabera kapoi pare bat edo bi entregatzen zen. Kapoiekin ordaindutako errenta bai, baina gariarekin ordaindutakoa berak ez du ezagutu. Gerora garia norberarentzat izaten zen, baina dirutan ordaindu behar.

Transkripzioa

- Eta esan dezu, urtero-urtero, errenta pagatu behar, ez, gariakin?
- Bai, bai. Errenta paatzea. Ta azkenaldea, azkenaldea... Karo, hamen [...] bazauzkan zeak, basarriyak harek. Ta azkenaldea bere zea, bere nausiya o, beak zakan, ipiñita zakan gizona gure etxea etortzen huan kobratzea, errenta kobratzea. Ta hamen eoten hittun hori... Zumaiako [Probes] basarriya badakik nun daon? Hoiek danak gurekin batea maixterrak hittun. Hoiek gure... honea etortzen hitun errenta paatzea.
- Paatzea.
- Bai.
- Lorera.
- Lorea. Loren itten ziyen zea, reuniyua. Maiordomua horrea etortzen huan kobratzea...
- Administradoria.
- Eo administradoria o...
- Bai, bai.
- Guk maiordomua esaten deu.
- Maiordomua esaten dezue.
- Ta horrea beren kapoiakin, ordun kapoiak entregau behar izaten hittun.
- A bai, e? Garia eta...
- Gariya ta kapoiak. Ta kapoiak eukitzen zixkin, ba, karo... Basarriyak, segun ze kategorittako baserriyak zian, eukitzen zuen batzuk bi, bestiak bi pare kapoe, hola. Baserri haundiyenak hola, bi pare kapoi o hola eukitzen zixkiñ.
- Bai, e?
- Ta txikiyenak eo hola, basarri narras xamarrek zienak, eo karo, langilleik ez zianak, o... Leku batzutan ez huan [hamengo baserritan], ze esango det, gu, Zelaieta hor goittik behera daon [...] barreneko basarriya're harena huan. Ta hori, ba, ez huan lantzen.
- Karo, terreno gutxi ta...
- Terrenua asko zakan, baiña langilliak ez! Ta geo, handik pixkat behero, hamen ordeka-ordeka hittun ta han aldapak! Ta karo, harriya're urria zeon han, goldian ta itteko ta... Oseake, diferentiak hittun zeak, nota diferentiak zazkan. Hola bizitzen hitun. Baiña hua're, hark kapoi pare bakarra hasi.
- Zuek bi.
- Guk bi, bi.
- Bi pare.
- Bi pare eukitzen giñun guk. Karo, hamen itten huan zea... Gure etxian, azkenengo igual hamar o, hamar baiño urte gehio huan, ingo huan gure etxian, zea, entrega. Ta klaro, ordun'e lehenotik Zestuan entrega itten ziyen gariya. Baiña geo ya hori haundiya zala, ta zea, estadua eo administraziya Madriden presiyuak iten hasi huan, ta handik aurea ez huan gariya entregatzen. Gariya hiretzako, baiña, zea, honenbeste diru, honenbeste pezeta urtian pagatu behar hittun.
- Errialak o...
- O errialak, o...
- Eta hori noiz aldatu zan gutxi gorabehera? Ze urtetan?
- Esaten dit, ba, ni... Ni mutil koskorra nitzan. Nere denpoan behintzat. Ni mutil koskorra... karo! Nik ezautu nixkin, ta, hoiek, kapoiak entreatzen ta... Gariya entreatzen ez niñ ezautu.

- Ez.
- Gariya entregatzen... Baiña hamengo gerra ta baiño lehenotik...
- Lehenotik.
- Lehenotik, aurretik. Hori baiño lehenotik.

5.7. Inguruetan arta-soroak nagusi

- **Hizlaria(k):** Etxabe Oliden, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-010/004
- **Iraupena:** 0:00:57. **Hasi:** 00:10:15. **Bukatu:** 00:11:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Garia
 Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
 Baserría » Baserriko lanak » Artoa
- **Laburpena:** Lehen inguruetan dena soroak ziren. Hiru sailetatik bat garia ereiten zen eta beste dena artoa. San Pedroetatik atzera ebakitzen zen garia.

Transkripzioa

- Eta hau, bai Xey zala ta, autopista dala ta, hau inguru guzti hau asko aldatuko zan, ez, azkenengo [...] urtietan?
- Klaro, dana! Hamen teillatuik eta ezer ez huan ikusten lehenotik. Karo, uain arbolak eta ikusten dittuk, baiña lehenotik dana hau artua ikusten huan dana ...
- Artua?
- Dana artua ta gariya, gariya. Karo, hirutik bat iten huan gariya. Ta ebaki iten huan San Pedro, San... hemendik atzea! Uain ya...
- Hortxe, ez?
- Bai, bai. Uain hori-hori-hori-hori-hori eoten huan dana, zea, souak, partzelak. Ta beste dana, beste dana artua.
- Erribera guztiya.
- Bai, bai. Erribera guztiya, dana. Hamen ez huan koskik ezer'e ikusteko.

5.8. Pildumenen inguruko azalpenak

- **Hizlaria(k):** Etxabe Egaña, Ana Mari; Zubia Azkue, Ramon
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-017/008
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:11:30. **Bukatu:** 00:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Baserría » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- **Laburpena:** Pildumenak gaur egun ere artisauei ikusten zaizkiela komentatzen dute. Pildumenaren inguruko azalpenak. Alberdineko pastelerian egiten zituzten pildumenak.

Transkripzioa

- Ba, pildumen hori uan ikusten da ta igual ikusita eukiko dezu zuk, eskual lanak, hemengo kutxak eta, kutxak eta iten dia, ba? Eta bestiak, eske, nik izena...
- (Ramon) Argizaiola.
- (Ana Mari) Argizaiola.
- Argizaiolak eta inguruan...
- (Ana Mari) Huri da! Bueltaka hori da peldumena.
- Baiña zuek ez dezue ezautu hori?
- (Ana Mari) Ez, guk lurrian.
- Lurrian. Zuzenian pildumena.
- (Ana Mari) Bai, bai, bai, bai. Honela iten zan, oan´e igual salduko due, ez dakit, e! Honela ta tak!, ta geo tak, punta. Ta hura segun gastatzen zijuan bezela, juten zan eskatzen, dana bukatu arte.
- Eta erosi?
- (Ana Mari) Erosi dendetan. Gu [...] Sorazunian, baiño Alberdinekuakin ta. Pasteleidxan.
- (Ramon) Bai. Lehenon konfiteidxan, ez zan izaten pasteleidxan, [...] konfiteidxan [...], ta iten zituen kandelak eta pildumenak.
- (Ana Mari) Bai.
- (Ramon) Nik Panplonan ikusi det denda bat oaindikan pildumenak saltzen dituenak.
- (Ana Mari) Bai, uain huri tipikua bezela dao, e. Tipikua bezela dao. Nik hamen ez det ikusi aspaldidxan. Igual eon laike.
- (Ramon) Nik hamen´e ez. Donostidxan ez det ikusten hori.
- (Ana Mari) Ez dakit. Nik ez det ikusi hemen.
- (Ramon) Geo, argizaiolak ere modernuak saltzen dittue denda horrela pixkat tipikuak. Ta han eoten da lotuta pildumena.
- (Ana Mari) Bai.
- (Ramon) Baiño nun o nun iten dian.

6. Natura

6.1. Menda-erratza eta asun-erratza etxeak garbitzeko

- **Hizlaria(k):** Ibarbia Ugarte, Brigida
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-006/032
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:56:15. **Bukatu:** 00:57:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Natura » Meteorologia
- **Laburpena:** Menda klase asko daude; nolakoak diren. Asko saltzen zen orduan menda-erratza, etxeak garbitzeko eta usaina emateko erabiltzen zen eta. Ohe azpiak garbitzeko erabiltzen zen batez ere. Asunarekin ere erratza egiten zen hautsa biltzeko.

Transkripzioa

- Bai.
- Eta zer dia, menda...?
- Beti... Menda, bai. Menta da hori... menta hainbeste klase dia!
- Hierbabuena ta [zea ta`re] bai, baiño menda beltza eta beste menda... terziozpeloizko bezelakotxe ostro leun-leuna dun bat, lore more luze bat du

hark ere, baiña. Hemen San Miel bidian-ta`re asko dao horrelakua. Baiña menta hori, bueno, ordun garai hartan pff! baita hamen Zumaiaiko plazan ´e ezaututa nao ni menda-erratza saltzen, e! Bittu ta moztu`re... txukun-txukun ekarri ta batek baiño gehiok gustora erosten zittuenak, e! Etxiei hautsak garbitzeko ta.

- Ta usai ona emateko.

- Ta usai ona! Oain goizetik [...] batez, batez. Garbi usai earra hua pasatakuan, e!

- Armairuak-eta garbitzeko ta...

- Armaiyaak baiño gehio izaten zan ohe azpiyak eta armaiyo atzetan-ta itten zan hauts hori. Pipittan-ta kontrako`re ona zala esaten zuen ta. Bai. Holaxen.

- Pixkat desinfekatzeko, ez?

- Bai, bai, hala zan ordun, hala zan. Asuna`re bai erratzan.

- A bai?

- Asunakin ere erratza itten gendun. Itten gendun sorta. Ta hautsa biltzeko ona da asuna`re, ganbarak-eta garbittu bihar zianian ta. Asuna`re ona da, ba,i bai. Holaxen ba.

7. Itsasoa

7.1. Itsasoa baseritik bertan

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Udabe, Klaudio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-008/001
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:00:00. **Bukatu**: 00:01:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
- **Laburpena**: Itsasoa baseritik bertan dute eta harraldera jaisten ziren arrantzara. Asko izaten zen lehen, baina galdu egin da. Olagarrotan egiten zuten gehien. Karburoa erabiltzen zuten argi egiteko.

Transkripzioa

- Zuek basarritarrak zeate, baiña...

- Bai.

- ...itsasua bertan.

- Berta. Hamentxe, berton-berton. Geo ikusiko dek!

- Bai. Bertatik, arraldea ta jeisteko, bertatik jaisten zeate?

- Bai, bertatikan. Bertatikan. Bai.

- Eta arrantza askoko tokiya zan?

- E?

- Arrantza asko bertan?

- Bai, bai. Nekora ta, zenbat huan lehen! Nekora bat jakingo dek zer dan? Zea, hamar, zea...

- Bai, hamar haundiya.

- Hoidxek, bai. Asko. Bai, galdu in degu ya asko. Kendu iten! Lehen zan otarra, hanbeste otar [...] haidxek, barkuak botatzen dixkiye, ba? Hor bazter-bazterrea etorri ta otarra hemen, hor, danian. Ta galdu du!

- Galdu.

- Eta zuek gehien nekoratan edo olaarrotan, eo zertan?

- Olaarrotan. Olaarrotan ta gabian.
- Hamen Zumaian gaiñea bereziya zan, ez, olaarrotan eta?
- Olaarro-festa [oain].
- Jende guztiya ibiltzen zan, ez, olaarrotan?
- Bai. Oan'e asko. Oan galaazi nahidxen eo zeoze bazabiltzak.
- Bai?
- Bai. Zeoze bazabiltzak.
- Eta lehen ordun, hamen Zumaian eta, danak olaarrotan?
- Bai, asko, asko, kantidadian jendia.
- Txikitatik?
- E?
- Txikitatik?
- Txiki-txikitatik, umetatik hasita ni.
- Umetatik.
- Bai.

7.2. Olagarrotan gauez egiten zen

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Udabe, Klaudio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-008/002
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:01:15. **Bukatu**: 00:04:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
- **Laburpena**: Olagarrotan egiten zuten gehien. Gauez ibiltzen ziren. Barila luze bati trapu zuri bat puntan jarrita egiten zen olagarrotan. Karburoa erabiltzen zuten gauean argi egiteko. Olagarroek arrastoa uzten dute (amarren oskolak) eta haren arabera jakiten da non dagoen olagarroa eta non ez.

Transkripzioa

- Eta nola iten zan, edo, olaarrotan? Nola iten zenuten?
- Joxe! Joxe! Karmen!
- (Karmen) Zer?
- Olaarro[-kakua] ekartzeko hortikan!
- (Joxe) E?
- Kaku ekartzeko olaarro harrapatzeko... Erakutsiko [...]. Holako zea, barilla batekin.
- Gabian?
- Gabian argidxakin. Gabian kanpoa irergira ertetzen zian, gabian. Danak ez baiña askoek. Egunez ez, egunez barruan, harripian.
- Eta orduan, gabian, behin illunduta, hamendik harraldea jeitsi...
- Bai.
- ...kakuakin eta... Hauxe!
- Habekin. Hola, haitzarteko zulun sartu, ta hauekin atea. Hamen'e, hamen'e, uain leku askotan zeakin in behar izaten die, kaiñabera luze bat, eo. Jana jarri o trapu zuridxa aurrian jarri. Harri haundidxak nola dia? Harri haun [...] ta, hola jartzen dek eta, zuridxa ikusten eta jana dalakuan, engaiñatu iten diyek, kanpoa atea. Eta ordun, honekin zast! [...] atea.
- Orduan trapuakin harrapatzen da?
- Bai. Hamen, zea, hamen, hamen danak gantxuakin. Nola haitza txikidxa

dek, harri txikidxa, leuna...

- Bai, bai, bai. Eta orduan zein da olaarrotan ta iteko, jeitsi [parolakin] edo... Lehen nola iten zan?

- Gabian.

- Gabian jetsi...

- Kandillakin. Karburo-harridxa, harridxakin.

- Bai. A! Karburuakin!

- Bai. Karburu-potua, holakua.

- Hura bota.

- Hura gaiñian bota, ta behian harridxa. Ta harekin. Argi earra iten dik karburuak.

- Eta horrekin argitu...

- Bai. Oan, berriz, danak butanuakin ibiltzen dittuk!

- Bai.

- Karburua glditzen huan astuna.

- Karo!

- Harri pillua nik ibiltzen, holako pote haundidxa ibiltzen nin! Pote haundidxa! Pua! Ta ur pillua ta harri pillua're bai barruan! Ta besua hil [...]! Oaiñ'e butanokin, illoba guria hor ibiltzen dek eta hark butanokin, hola, ezer ez!

- Eta erreza al da?

- E?

- Olarruak eta harrapatzia erreza al da?

- Dakidxenak bai, ez dakidxenak zailla!

- Zuretzat erreza orduan?

- Neetzako bai! Majiña [...] hemen utzi nik olagarrrua holaxen. "Ta non?" "Ta hamen." "Seguru?" "Ta seguru, bai." Ta, da!, kanpoa.

- Eta nola dakizu nun daon ta nun ez daon?

- Antzematen, seiñalia. Askoek seiñalia lagatzen die!

- Haretan edo harritan, eo?

- Batzuek hondarra, beste batzuek harridxa igual, beste batzuek hamarran azala, ta. Hanbeste klase, ta! Ta hi jun, ta bate ez didxok antzik emango!

- Ez!

- Beste milla junda're, igual-igual.

- Baiña, dakixanak...

- Bai, dakidxanak eakutsi in behar, ta! "Hamen ziok!" "[...]" ta, "Seiñalia" ta,, "Hori ez dezu /etzu/, ez ziok seiñalia", ta handik ikasi geo!

- Eta orduan, hamarren azala eta oskolak eta lagatzen ditue?

- Bai! Danak ez baiña askoek.

- Eta orduan zulora jun...

- Ta ixkutatu zuluan. [...] harridxan zuloa sartu.

- Eta kakuakin eta...

- Kaku... honekin atea. Bai.

7.3. Olagarroa nola lehortzen zen

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Udabe, Klaudio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-008/003
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:04:25. **Bukatu**: 00:07:00
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa

- **Laburpena:** Olagarroa fresko edo lehortuta jan zitekeen, baina asko harrapatzen zutenez lehortu ere egiten zuten. Nola lehortzen zen olagarroa. Normalean olagarroarekin zopa egiten zuten, baina patatarekin ere jaten zen gisatuaren antzera. Zumaian joera handia egon da olagarroak jateko eta baita Zarautzen ere.

Transkripzioa

- Eta gero, olarrua ta jateko ta, harrapatu ta sikatu iten zan, edo, edo freskotan jan, edo ze iten zan?
- [...] guk freskotan ta sekatu're bai, nola asko harrapatzen gendun...
- Karo.
- ...sekatu asko.
- Sikatu asko.
- Bai.
- Ta sikatzeko zelan?
- E?
- Nola sekatzeko da?
- Lehenbizi in behar dek usteltzen laga. Balde baten o jarri ta [...]. Ta egualdi berua baldin bada, egun pare bat eo hola usteltzen behar izaten, eon behar izaten dik. Ta egualdi pixkat hotzo o hola baldin bada, igual lau bost egunian. Ta neguan berriz, hamabost egunian-ta ta. Negua bai dek hotza.
- Balde batian laga?
- Balde batian laga ta, usteldu arte laga in behar. Bestela gelditzen dek gogor oso. Bai.
- Eta gero sutondoan jarri?
- Geo, kañabera baten eo kaña baten, kañabera o burni tubo baten eo, txintxilik. Hor jartzen nin, ta han'e bai, hor gaiñian'e bai, han, soka jarrita. Barilla bat jarri ta han txintxilik burutik.
- Bai, bai, bai.
- Gero egun batzuetan bertan euki sikatzeko.
- Nik beti jaso iten dit.
- Bai?
- Bai, illuntzian beti erretiratu. Bestela umerariakin tejo [botatzen] ziok. Ihintzakin ta, euridxa ta txarra izaten dek. Geo sekatu samar [zinian], hor jarri ta hor zaitu sekatzeko.
- Sukaldian.
- Sukalde epelakin. Epela nahi izaten dik horrek sekatzeko.
- A bai, e? Ondo sekatzeko.
- Baakik [...] epela.
- Bai.
- Sekatzeko.
- Bai, ba! Eta gero, sikatu ta gero, jateko ta sopan edo? Nola jaten zan gehien?
- Guk gehidxena olaarru zopa!
- Zopa.
- Bai, askoek patatakiñ'e bai. Gixaua bezela, igual-igual.
- Gixaua.
- Bai. Holako pusketak.
- Txiki-txiki.
- [Bai, guaizakin] moztu ta jarri, ta.
- Eta egosi, patatekin egosi.
- Patatakiñ egosi, ta...
- Gozua izango da.
- Bai! Hamen kostan afan haundidxa dao olaarro zeakuak.

- Bai, ezta?

- Bai, ta horrea, Eibar aldea ta horrea, horrea geo, barroa, berriz, horrea ez.

- Ez!

- Hor ez [...].

- Baiña esango nuke Zumaian inguruko herriyetan baiño gehio, ez? Getaixan-ta baiño gehio.

- Bai. Jaten Zaautza're bai. Beno, baakik, Zaautzan jende, jendia asko zio.

- Karo.

- Zenbat etortzen dek honea olaarro billa? "Olaarrua" ta, "Ez zakau" ta, "Jo, nola Pikoten ez dao olaarroik?", ta. Bai. Zaautzan'e afan haundidxa die! Jateko, e!, harrapatzeko ez baiña... Bai.

7.4. Arrain txikiak ere harrapatzen ziren harraldean

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Udabe, Klaudio
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-008/004
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:07:00. **Bukatu**: 00:09:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Olagarroa
 Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
- **Laburpena**: Trapu zuria jartzen zen barilaren puntan olagarroa harrapatzeko. Inguruetan olagarro klase bakarra dago. Inguruetan itsas-kabrak ere harrapatzen ziren. Gozoa izaten da, baina hezur askokoa. Gauez arrantzatzen zen hau ere. Arrain txikiak ere harrapatu izan ditu: lupiak, aingirak...

Transkripzioa

- Eta esan dezu batzuetan trapu zurixakin harrapatzen diala?

- Bai.

- Bertan, puntan, kakuan jarri ta...

- Bai, zea in, egur bat eo kaiñabera bat eo jarri haen muturrian, lotu-lotu fuerte-fuerte in, trapu zuridxa, janik ez dakana. Ona izaten dek olaarruan bere buruko gantza, tripan ateatzen dana, bea amarratu ondo, ondo amarratu in behar! Ta hura izaten dek ona.

- A, bai?

- Ertetzeko.

- Ertetzeko.

- Bai, baiña trapuakiñ'e bai [ibiltzen ditzuk]. Trapukiñ asko. Janik ez dakanak ipintzeko, trapua. Eta hamen olaarruak danak berdiñak dia, edo?

- Ez.

- Klase diferentia dia?

- Klasia bai, danak klase bat. Oain, esan nahi nizun, batzuk txikidxak bestiak haundidxak.

- Baiña danak bat.

- Bai. Dana olaarro klase bat.

- Eta olaarruetaz aparte beste ze harrapatzen zan?

- Hamen...

- Nekorak edo, hamarrak o?

- Bai, itsas kabra o esaten dana.

- Itsas kabra're bai?

- Bai, asko. Hamen askoek lehen. [...]’re hezurra asko!
 - Hezur asko, bai?
 - Bai, hezur asko.
 - Baiña gozua.
 - Ona, bai. Gogorra ta.
 - Eta horrek harrapatzeko gabian, horrek’e bai, gau-arrantza?
 - Bai. [Haidxek ...] harrapatzen zuan. Ez zekit non zun illobak! Honelako zea bat, holako, hau baiño... honeaiño luzerako holako... palo bat, ta hamen behian holako zea bat, barilla haundi bat. Hamengo soldiatu honela zeak, hanka batzuk, burni batzuek. Ta goitik behera, ta!, sartzeko.
 - Ta!
 - Bai.
 - Eta gau-arrantza asko in dezu?
 - Nik asko.
 - Kabrak eta...
 - Bai. Ta arrai txikidxak’e bai. Lupidxa ta, durdua ta, klase asko! Angirak eta...
 - Eta bertan, arraldian?
 - Arraldian, bai.
 - A bai, e? Potzuetan eta geratzen zian?
 - Bai.
 - Eta nola harrapatzen zian hoiek?
 - Zea horrekin, lehen esan deten holako, goitik behera sakauta.
 - Baiña bertara jeitsi, arraldea jeitsi...
 - Bai. Uretan ibilli, uretan...
 - Ibilli eta...
 - Bai.
 - Hori’re parolakin.
 - Bai.
 - Karburuakin?
 - Karburuakin.
 - [...]. Zenbat biaje!
 - Bai?
 - Bai.

7.5. Marea biziak eta ilargiaren gorabeherak arrantzarako

- **Hizlaria(k):** Esteibar Azkue, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-011/009
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:19:35. **Bukatu:** 00:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Itsasoa » Arrantza motak » Gabarrantza
 Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak
- **Laburpena:** Marea behean zegoenean arrantza egin behar izaten zen. Ilargiaren gorabeherak. Iraileko marea biziei "San Migel urak deitzen zitzaien".

Transkripzioa

- Eta bestela, hauek guztiok harrapatzeko, marea behian...
 - Bai, hauek danak dia maria behekuak.

- Eta igual illargiyak, e...

- Illargidxa bakik nola izaten dan. Oseake, hamabostian behin izaten ditzuk illargidxak, ta jenealian, jenealian ez, beti, arrantzako asuntuan eguadiko izaten dek. O eguadidxan o gabeko hamabitan, "maria punta" esaten zakona. [...] gaur eguadidxan, gaur, hamabitan dek plemaa, oseake, seiñale illargidxa, ba, hemendik sei egunea izango dala.

- Eta orduan horrek, setienbreko mariak [...] ...

- Ba, setienbrekok izaten ditzuk, ba, karo, setienbreko mariak izaten ditzuk, maria haundidxak izaten ditzuk batzuek. San Mielgo urak izaten ditzuk, San Migelko urak. Ta hura, zearako, [agorreirako] ta oso ona dek. En kanbio, haitz haundirako ta txarra dek. Iten dek, dana goortu iten dek.

- A! Karo! [...]

- Ta, dana gogortzen dek eta orduan, galduta ibiltzen haiz. Ez zekit... Oseake, hasieran oso ondo... [...] ixkireta juten haiz, ta ura [...] datorren bezela, ixkira're goitik behera etortzen dek. Ta ordu betian earki ingo dek. Geo handikan ze? Handikan hamar metroa jun ta, "¡Ay va dios! Nere salabarduak eta nun daude?", danak lurrian. Bai.

- Eta martxuan bardiña pasatuko zan, ez?

- Martxun?

- Martxuan.

- Hori beti gertatzen dek, baiño maria haundinak hoidxek izaten ditzuk.

- Setienbrian [...] ...

- Setienbrekuak, bai. Bai, bai.

7.6. Ostegun eta Ostiral Santu Egunetan familia osoak lapatan

- **Hizlaria(k)**: Esteibar Azkue, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-011/010
- **Iraupena**: 0:01:55. **Hasi**: 00:21:15. **Bukatu**: 00:23:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza motak » Harraldeko arrantza
Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Aste Santua
- **Laburpena**: Urte guztian egiten zen lapatan, baina Ostegun eta Ostiral Santu Egunetan familia osoak joaten ziren lapatara. Era askotara jan daitezke lapak: gordinik, limoiarekin, labean eginda Aldea egoten da goian jasotako lapatik behean jasotakora.

Transkripzioa

- Eta martxukua aprobetxatzen zan, ez dakit ba, lapatako…
- Bai, hemen lapetako urte guztidxa, lapetako urte guztidxa. Oain, geo izaten hitxuan, bai, lapetako horrela egunik zeanak bi izaten hitxuan: Ostegun Santu Eguna ta Ostiral Santu Eguna. Hoidxek izaten hitxuan ya kuadrillak eta familidxak eta…
- Lapa-jana.
- Lapa-batzea’re bai, e! Lapa-janak eta lapa-batzia’re bai.
- Eta hori da illargixa behe-behian dagolako?
- Ez, ez. Lapeta nahi dekenian. Lapeta nahi dekenian. Lapeta... lapa eoten dek goidxan eoten dek. Ta hara jun leike eozain, eozain egunetan. Nahi badek goizian o nahi badek arratsaldian. Eozain egunetan lapeta.
- Garizuma ta […] …
- Garizumetan ta hor izaten dek ohitura bat, ohitura bat,

ba…
- Ostiral Santuan ezin, e…
- Ohitura bat izaten dek hori Zumaidxan, e!, lapa batzia ta lapa jatia.
- Eta nola jaten dia lapak? Nola jaten zian?
- Lapak postura askotan. Gordiñik’e bai! Beste batzuek limoia botata’re bai. Beste batzuek labian’e bai. Beste batzuek ogi-errallauta botata’re bai. Perejil pixkatekin’e bai. Postura askotan lapa. Ta lapak munduan danik gauzaik goxuenak, bai! Zumaidxan makiña batek paatuko likik ointxen’e. Oseake, hik lapa kilo bat ekarri, ta harek kilo bat txuleta paauko likik. Bai! Oaintxen’e bai hori. Ta lapa han ziok, jun ta batzia. Baiño... Han gerridxa ibili in bihar dik. Ta geo lapetik lapea alderdi haundidxa eoten dek. Goiko lapak, gaiñekuak jaso o behekuak jaso.
- Behekuak […]?
- Gauza danak bezela. Gauza zailla beti…

7.7. Orain ez dago ontzirik, baina lehen bai

- **Hizlaria(k)**: Esteibar Azkue, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-011/016
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:30:20. **Bukatu**: 00:31:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza
- **Laburpena**: Lehen antxoa kostaraino etortzen zen eta motor txikiekin bertan kostan arrantza egiten zen. "Malla" deitzen zitzaion. Horretaz aparte Zumaian arrantzarako ontzirik ez zegoen lehenago.

Transkripzioa

- Eta orduan hamen Zumaixan gehienbat harraldekua izango zan, ez? Ya itsasuan-eta gutxio, ez?
- Itsasuan oain asko!
- Lehen, lehen. Lehen itsasontzietan ta, ba, antxua ta, Getaixan dan bezain…
- Bai, bai, bai, bai. Hori bai. Nik antxuatan hemen… baiño urte asko ditzuk. Motor txikiyak. Lehen antxua etortzen huan kostaiño etortzen huan lehen, garai batian. Ta hori huan "malla", deitzen zikuan horri, "malla". [Ta hor...] oaingo... Jesus! Oaingo motorrak harrapatuko balittuzke, haidxek bakaillaota jungo hitxuan. Antxoata ez, bakaillaota jungo hitxuan. Antxua etortzen huan, ba, motor txikidxak bere sariakin. Ta ekarriko ziztien, ba, ze esango diat ba? berrogei arrua-ta esaten zitien ta. Ta berrogei arrua izango ditzuk, ba... arrua zenbat da? Hamabi kilo o zenbat zan arrua? Bai, bai. Ta berrogei arrua ta, berrogeita hamar arrua ta. Gutxi, baiño... bertan.
- Bertan kostan?
- Bertan, bertan, bai. Bertan izaten huan. Ta geo, oain dala, ze esango diat, zortzi urte arten-edo, barku bakarra eon dek hemen, zea, San Telmo, Glorioso San Telmo. Ta geo, hortikan aparte, ba oain, txibitako bai, txibitako-ta kantidadia ziok. Ta zeatako´re bai, atunetako´re bai, baiña "de recreo" esaten dan bezela.
- Bai. Baiña arrantza holan, e…
- Arrantzako iñor ez.
- Baporiak eta?
- Ez, ez. Ez.

7.8. Aitarekin hasi zen arotz-lanetan

- **Hizlaria(k):** Esteibar Azkue, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-011/017
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:31:40. **Bukatu:** 00:35:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
Lanbideak » Arotzak
- **Laburpena:** Bera arotza da eta barku handietako arotz-lanak egin izan ditu: zubiak, kamaroteak. Aita ere arotza zen eta beste lan batzuk egin ostean sozio batekin hasi zen arotz-lanetan. Ze baldintzatan lan egiten zuten. Sozioarekin banatu eta Bizente eta anaia aitarekin hasi ziren lanean. Hasieran denetariko lanak egiten zituzten, bai lehorrean eta bai barkuetan. Aitari ez zitzaizkion asko gustatzen barkuetako lana dirurik ez eta nekez ordaintzen zutelako, baina berari hori gustatzen zitzaion eta aitak uztean hortara bideratu zen.

Transkripzioa

- Nere ofizidua, ni arotza izan nauk. Ta nere ofizidua beti izan dek arrantzako ontzidax barruko lanak iten. Bai arrantzakuak, ta kargeruak; e bai, barku haundidax. Ehun metro. Hamen Zumaian [in gitian] barku batzuek, ez zekit, zortzi o beatzi, beatzi, larogeita hamasei metrokuak. Bai; a hoidxek ditzuk kargeruak. Ta gure ofizidua horixe izan dek beti. Zea, barkuko barruko lanak: kamarotiak eta puentiak eta zubiak eta zea danak, [et] eta.
- Hori; re pixkat kontatu [bihar diazu], arotz-kontuak eta; Hasteko, nola, nola hasi zi; an, familiako kontua zan? Edo, nola hasi zi; an arotz;
- Bai. Bai, bai, bai. Oseake, nere aitten bittartez. Nere aitta huan sozidxo beste batekin. Ta, esaten diat ba, oseake gure aitta etorri huan, Madriden-ta ibili huan, txatarrero-ta ibili huan. Berez arotza huan. Madridetik etorri huan ta sozidxo jarri huan beste batekin. Ta orduan itxeko indarra bihar izaten huan eozar gauzatako. Zea; e ez ziu, argiik; e ez ziu. Gabeko hamabitan ta hasten hitxuan lanian indarra aprobetxatzeko. Ta... eske ditzuk ixtori batzuek... ezin leike esplikatu! Postura hartan lan itia, nola in zeikien lan hoidxek!
- Gaur egungo jentia ezin sinistu.
- Ez zioz sinisteikan. Oseake, [gabeko] gauzak. Orduan, gai; ea, hitxuan indarrak hemenguak! Zufiria ta; bertakuak. Orduan ez [huan] Iberduero ta, bertako indar txikidax hitxuan. Ta [pentsa] zak, kristalak zeakin peatu, papelakin o, ez argiik pasatzeko ta gabian lana iteko. Ta makina bat soi; u ateako zien, ba, nik ez zekit ze mentalidade zan orduan! Ta gabian indar pixkat bazeola ta, gabeko hamabitatik eta ordu bidax arte, ta hantxe, makinetan, [aprobetxa;]
- Lanian.
- Lanian. Bai; a hori aittak eta?
- Hori aittakin. Aitta gazteik hil huan. Aitta hil huan cincuenta y ocho. Geo hil huan; Bueno, orduako, cincuenta y cincon, sozidxuakin apartau in huan. Ni Zarautza jun nitxuan cincuenta y tresian. Cincuenta y cincon etorri nitxuan marinatik Ferroldikan, eta aittakin, normala. Aurreko beste anai gaztia Xebaxtian; e hasi huan. Hura; re, ez zekit, hamabi urtekin o noix hasi zan lanian, ni Zarautzen neon bitartian. Ta itxeko indarrakin hasi gitxuan. Ta, ba, danetikan. Arotza, orduan, arotza arotza-arotza gitxuan. Oaintxe teillatura jungo gitxuan, barruko lanak ingo [gitian], o soto

hondoko lanak [ingo gitian]. Eozein lan!
- Lurrekua, itsasokua…

- Lurrekua, itsasua… Dana! Aplikatzen zana! Ez huan, uain
 bezelako zeaik ez huan, ziri-miriik ez huan laneako’re. Orduan
 neguan-ta askotan, ba, lanik gabe ta. Orduan […]
 konserbako’re lan asko iten giñian, konserbako…
 Orduan, ba, salazoiko tapak eta holako lan asko iten giñian. Ta geo,
 ba, gure aitta ez huan zea, barkuan asuntuan-ta lana iteko zea ez huan.
 Hortxe hasi hitxuan, oain biberua deitzen zakoen, atunetako biberuak eta,
 hasi hitxuan barrikak, barrikak izaten hitxuan [bukoiakin] ta. Biberuak
 bukoia-kin-ta iten hitxuan. Ta gure aitta ez huan bat´e… Han
 sartu zan zea, paatzen txarrak hitxuan ba!
- Bai?
- Karo!
 Ordun makinak eta, armadoriak oso-oso zea…
- Diruik ez?
- Diruik ez ta gaizki ibiltzen hitxuan. En kanbio, nei beti gustatu izan
 [zaiak], itsasoko asunto hori.
- Itsasokua.
- Bai. Ta aitta, ya
 geure kasa hasi giñanian, ba, ni poliki-poliki hor sartu nitxuan.

7.9. Angulatan txaluparekin eta bahearekin

- **Hizlaria(k):** Etxabe Etxabe, Benito
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-012/013
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:19:55. **Bukatu:** 00:22:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Beste batzuk
 Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Angulak
- **Laburpena:** Mutikotatik ibili izan da angulatan. Boladak egoten omen dira, urte batzutan angula asko eta hurrengoan gutxi. Bera txaluparekin eta bahearekin ibiltzen zen angulatan. Angulatan nola egiten den.

Transkripzioa

- Beste kontutxo bat. Hamen, angulatan ta asko ingo zan, ez? Hamen inguruan.
- Bai, hoixen.
- Zu're ibili zea?
- Ibiliko ez niñun, ba!, angulatan, mutil koxkorretatik hasitta.
- A, bai, e?
- Ahal deun arte, ezin deun arte.
- Asko harrapatzen zan hemen?
- Bai, asko. Bolara, urte batzutan zeon... Bolara izaten huan, hiru-lau urtian behetik gora, ta geo berriz'e atzea goittik behera ta, berriz'e gora ta berriz'e behera ta... Zea, alderdi haundiya, beti igual ez. Ta oain, zeak, kriston... Jun dan urtian ta ziharo, tope beheraiño. Iya bate ez dala harrapatzen, esaten zuen. Ta aurreko zeatan, berriz, angula pillua.
- Eta zu nola, nola aritzen ziñan? Txalupakin eo bahiakin o?
- Txalupakin. Txalupakin ta baheakin. Bueno, eskuz. Motorrik gabe.
- Eta nola iten da?
- Sartu hola ta ra!, atea, ta blat!, hustu, ta ra! sartu ta atea ta hustu ta. Bat baldin badao're hustu in behar. Ta bate ez baldin bada, atzea.
- Atzeaka.
- Atzea in behar.

- Baiña sekreturen bat izango du, ez? Beti, edo...

- Ez!

- ... erreka bazterrian edo erdi partian, o...

- Segun nun aplikatzen dan. Batzutan aplikatzen da leku askotan erdittik baldin badator angula, igual baztertu itten dek zean, une batzutan pleimaa zeatzen danian. Ta igual [...] ta bestian, korrientia gora baldin badaka, bazterretik gutxi. Pleimaan eo zeatzen danian ordun, zabaltzen danen ordun bazterrea.

- Bazterrea.

- Uain berriz, uain dana motorrakin hasi behetikan ta jata dana eskutik kentzen die! Iya bueltaka motorrak [...] ta jata bau! Bazterren daonak... Lehen kriston bazter [...] zeatzen nun zean ta hoiek hasi zianian, akabo, dana exkutatu in huan. Alperrik huan ta jutia ta. Hoiek erdiya zijuan angula lehenengo gaiñetik zijuana ta geo berriya zatorrena hondotikan berriz, ta. Dana eskutik kentzen.

7.10. Ontziolako lana eta irabazia

- **Hizlaria(k):** Egaña Etxabe, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-013/003
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:01:55. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdota, kontakizunak
- **Laburpena:** Inguru guztietarako barkuak egiten zituzten ontzian eta baita arrasteko pareak ere. Bi txakur handiren truke egiten zuten lana. 1962an egin zuten azkenengo itsasontzitik aurrera, konponketekin hasi ziren. Orduan hasi ziren diru gehixeago irabazten. Barkuaren egur-lana osorik egiten zuten. Zumaian itsasontzi batzuk osorik egin eta bertan usteldu ziren, haiei sartzeko motorrik ez zelako iristen.

Transkripzioa

- Eta, ze iten zenduen?

- Barkuak. Hasi Galizitik... Galizidxa, Asturias, Santander, Bizkaia, Gipuzkoa ta Frantzidxa in [gitxiu] barkuak. Ta Ondarroako arrastero parejak ´e bai! Parejak izaten zian, ba, bi igualak, arrasteko parejak. Eta hori in deu, barkua, kantidaden in deu barkua.

- Parejak zian bakillautan ibiltzeko, edo?

- Ez, hamentxe, hamentxe. Bazter... Hemen bertako barku koxkorrak! Orduan zianik haundidxenak. Orduan ez zeon barku... Uain barkuak dia, bueno! Eta bi perra haundidxan iten zan lana. Iten gendun... Perraik ez zan ateatzen! Eozeiñen jornal koxkor bat eozein lekutan beitu ta haidxek baiño oindik, esate bateako, gitxidxo. Dirua irabazten hasi giñan ya reparazidxuan hasi giñanian, barkuak reparatzen. Ya laga gendun... Azkenengo barkua in gendun ni ezkondu sesenta y dosian ta sesenta y tresian in gendun azkenengo barkua. "Ana Tere Número Dos", Colindresako. Eta ya laga gendun ta bentaja earra. Geo hasi giñan reparazidxueta...

- Eta hobeto?

- Ta reparazidxotan orduko honenbeste ta... orduan, orduan meioratu! Bidxen bitartian ezer ez, gaixki, gaixki. Oso gaixki.

- Eta barkuak iten zian osorik, zuek, hasi ta bukatu o...

- Barkuak dana iten genduzen, zea, burni asuntoik ez, guk egur asuntuan. Baiña egur asuntuan, dana. Ta barkua bota ta askotan bi-hiru hillabetian eon behar izaten zan akabatzen barruko lana, kamarotiak eta in behar izaten zian, ba, lotako lekuak eta danak. Eta barkua, neberak eta. Barkua botatzen zan, ba, lehenbailehen bota. Geo bitartian, montatzen ai zian bitartian, burnikuak, motorrak eta motorreko kaldera makinak. Zeatik orduan, barkuak geatu zian montatu gabe, Getaidxan indakuak eta, motorrik etorri ez. Eta ganbidxatu ez, kaldera eo zeoze sartzea animatu ez, eta barkuak berri-berridax usteldu izan dia Zumaidxan.

- Bai, e?

- Bai.

- Motorran falta.

- Motorren faltan, ta geo, pauso hoi eman ez. Zeatik kaldera... zeak iten zian, kaldera-makinak hemen Balen ziagan iten zian, kaldera-makina deitzen zitzakon. Ziharo torpia zan konparatzeko motorrak, baiña... Barkuak usteldu bertan, bertan puskatu barku berridax, inda, Caxildontzat. Caxildo zan zea zekana fabrika konserba Getaidxan.

- Getaian.

- Eta barku berridax inda, ta bertan usteldu zian, bertan puskatu zian danak, usteldu danak.

7.11. Itsasontzia egiteko prozesua

- **Hizlaria(k)**: Egaña Etxabe, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-013/004
- **Iraupena**: 0:02:45. **Hasi**: 00:04:05. **Bukatu**: 00:06:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- **Laburpena**: Barkoa oso-osorik egiten zuten. Eskatera egiten zuenak zehazten zien zein neurritakoa nahi zuen eta planoa ere beraiek egiten zuten. Killa egiteko eukaliptoaren egurra erabiltzen zuten, baina beste zatietarako haritza. Barkoa egiteko prozesua; lehenbizi armazoiak ("costillas") egiten ziren. Lan handia zuen itsasontzia egiteak. Egurra inguruko herrietatik ekartzen zuten. Lasa zen ezaguna orduan eta harekin ibiltzen ziren. Egun kamioikadak behar izaten ziren.

Transkripzioa

- Eta zuek hasi ta estruktura guztia ta, zuek eiten zenduen?

- Guk barkua dana... Diferentziak izaten zian. Batzuek luzio, bestiak zabalo, bestiak ixtuo, bestiak... dana! Geuk iten genduzen zeak eta dana, planuak eta danak.

- Eta zuek neurrira, o beaiek esandako mouan?

- Beaiak esandakoa! Beaiak esandako neurrira!

- Hau luziaua ta...

- Luzia ta zabala, ta altura. Ta egurrak ekartzen genduzen, ba, killa izaten da luzia, behi-behian juten dana, kanpuan. Eta hori jeneralian eukaliptuak ibiltzen gendun asko. Ta geo, bizkarrezurra bezela beste bat eamaten du

barruan, armazoiak, eta geo barruan eamaten du beste bizkarrezurra bezela, egurrezko beste pieza, ta haidxek danak, metroko holako tornillo haundidxakin amarrauta, behetik gora sartuta. Arrastaka ibilli gea... bueno!

- Hasteko, hori zan lehenengo bizkarrezurra ta killa ta, edo?

- Bueno, aurrena iten zian armazoiak. Armazoiak dia, ba, erderaz, "costillas".

- "Costillas", bai.

- "Costillas". Ta armazoa deitzen zitzakon. Ta hoidxek iten zian bi pusketan, kurba, kurba izugarridxa, bakizu nolako kurba dakan zean, kostauan?

- Bai.

- Eta egurra ekarri behar izaten zan kamioitan. Kamioika egurrak bildurgarri menditikan. Ta okerrak, oker-okerrak e bai, asko. Ta geuk, geuk ebakitzen genduzen bertan serrakin. Serra're bertan gendukan karruakiñ, ta geuk ebakitzen gendun behar zan neurridxan, zabalian. Ta geo zepilladoran ta pasa, ta prepaatu, eta lana ematen zuen... beno! Ta ziento... ehun ta zenbat milla peztan? Gutxidxan iten zian barkuak eta zenbat ordu ta zenbat lan! Ta geo, barruko piezak eta zeatzeko, doblatzeko, zea bat zeon, kaldera bat urena. Han berotu iten zian...

- Egurra?

- Egurra. Eta batetik hamabost metroa igual luze. Pixua kristona! Ta gaiñetik berua! Inpernua bezela!

- Han muitzeko!

- Hura hartu bizkarrian: batetik pixua aguantatu ezin, ta gaiñetik berua! Irekiten eondako egurra, zeatio doblatu in behar zan barruan ta!, barkuan barruan. Oso lan gogorra astillerokua.

- Eta egurra zan, eukaliptua esan dezu?

- Eukaliptua luzia, luzietako. Baiña bestela jeneala ibiltzen genduna armazoitan dana haritza, "roble", haritza.

- Eta hemendik? Hemengo...

- Hamen inguruetatik. Hamen inguru danetatik. Bateko zea aldetik... Zean baiño gehidxo, Azpeiti aldeko mendidxetan ta... Lasa zan orduan famosua, Lasa. Lasa bat solterua Matxinbentan bizi zan ta bestia ezkondua hamen, Lasaon. Taberna're bazekaen, Lasa. Horko, horrekin ibiltzen giñan asko, Lasakin. Baiña kamioiak eta kamioiak, e! Ez bat eta bi, e! Barko bakoitzak... puf!

7.12. Itsasontzia egin aurreko prestaketak; lan-baldintzak

- **Hizlaria(k):** Egaña Etxabe, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-013/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
 - Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Itsasontzia egin aurretik eskatzen zituzten neurrien arabera planoak egin eta plantia markatu behar izaten zen lurreen. Lan handia zuen. Neurri desberdinetako ontziak izanez gero, plano guztiak hutsetik egin behar. Igandetan ere lan egiten zuten, baina aurrez bikarioari baimena eskatu behar. Oporrik ere ez zuten egiten.

Transkripzioa

- Eta ordun, lehenbizi bizkarrezurra ta...
- Aurrena, aurrena plantilla. Segun ze neurri zian, plantillak atea behar izaten zian ta lurrian trazatu, eta saletan markatu ta in behar izaten zian, izugarrizko lana du zeak, barkua iteko, barkua ateatzeko sistemak. Zeatik barkua izan laike pikiaua, izan laike planaua, izan laike ixtuaua ta in behar izaten zan barku baikoitza bere zeakin, bere neurridxan, zabaleruan. Bakoitzakin iñ behar izaten zan bere, bere planua atea, lurrian trazatu, ta bere luzeeruan... izugarrizko lana ematen zun zea, barkuan planuak ateatziak!
- Bai, ta dan-dana neurrira ta beti diferentia, ez?
- Batzuetan, batzuetan bi igualtsuak ´e bai! Entenditzen? Ta igualtsuak zianakin han nonbait, baiña hurrena ziharo diferentia baldin bazan, dana berridxa in behar... plano danak berridxak! Ta izugarrizko lan pilluak! Sapatuan ´e lana iten gendun, ta jaian ´e bai!
- Jaian ´e bai?
- Ta jaian lana iteko, bikaidxuai permisua eskau behar, bestela pekatu!
- Hori esan behar nizun!
- Pekatua bestela. Ta bikaidxuai permisua. Eta sapatuan zazpi, hamar ordu igual-igual, zazpi t´erdidxak arte. Ta bost t´erditan hasi giñanian, Jesus! Zer zan hura! Zoragarridxa! Bost t´erditan hasi giñanian erteten, sapatuan.
- Sapatuan. Hori ya bakaziyuak, ez?
- Bueno! Eta bakazidxuak izaten zian orduan zortzi-hamar egunekuak. Eta ez genduzen iten. Bi perro haundi eman ta fuera. Bertan lana ta lana, ta lana ta lana. Ta dirua nun zan berriik ez, lana bakarrik.

7.13. Itsasontzien konponketa; kalapeta

- **Hizlaria(k):** Egaña Etxabe, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-013/008
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- **Laburpena:** 1963an egin zuten azken itsasontzia eta ondoen konponketak egiten hasi ziren. Inguru guztietatik ekartzen zizkieten ontziak konpontzeko. Karro gaineen ateratzen zen itsasotik. "Kalapetako lana" egin dute asko. Honen inguruko azalpenak. Urtean behin ekartzen zizkieten itsasontziak, arrantzarako prest izan nahi zituztenean. Motorren bila ere Balenciaganera etorri eta konponketa guztiak eginda joaten ziren. Kargako barkoak ere etortzen zitzaizkien; hauek txapazkoak izan arren, horiei ere konpontzen zieten lurra.

Transkripzioa

- Ta sesenta y tresen in gendun azkenengo barkua. Dosen ezkondu. Aittak "etorri lehenbailehen, barkua in behar diu ta!". Ta udaberridxan in gendun barkua sesenta y tresian ta ya fuera. Ta orduantxe meyoratu hura, barkua itiai laga ta meyoratu. - Reparaziyeuekin, ta… - Reparazidxuakin. Orduko horrenbeste, ta… Beti juntatzen zan geo, karruak zebe, karruak, sei karro zebe Balenziagian. Barkuak karruak altzatzeko, barkuak altzatzeko, sei karro. Ta etortzen zian, ba, danetik, Gipuzkua

danetik, eta Bizkaitik´e bai, barkua zeoze zuenak reparatzea ta. - Karrua uretatik ateatzeko? - Karrua ateatzen zuen, karro gaiñian barkua lehorrea eta, kalapetatu in behar izaten zan asko. Kalapetako lana in deu asko. Kalapeta da topia […], topia gehidxena, egurrezko barkuak moitu iten dia. Barkuak moitu iten dia ta tope haidxek kalapetatu in behar izaten dia askotan, ura iten du bestela. - Ta urik ez sartzeko. - Urik ez sartzeko, kalapeta. - Eta kalapeta hori zer da? Kalapeta… - Ba, estopa. Estopa izaten da espeziala, hartakua. Ta burnidxak espezialak, batzuek fiñauak, bestiak loridxauak, errematatzeke. Eta geo, masilla o porlana ematen zitzakon kanal hartan. Berez hobia… Oaiñ; harrezkeo, erten zuen gauza hobiak, baiño orduan ez zeon ezer. Ta masilla, berriz, goortzen, goortzen laga ezkeo, bai, baiña barkua bota in behar izaten zan, ta biuna geatzen zan masilla. Ta pixkat porlanakin o in, ta, geo erten zuen produktu berridxaguak, plastikuak eta ya erten zuen azkenengo urtietan eta ya gehidxo, hobiak. - Baiña bestela, estopa ta masilla ta… - Estopa, estopa, jo ta… Baiña bota iten dula jarri behar zendun, goor-goor-goorra. Ta igual hasieran igual, ta!, ta burniya barruraiño. [Han ura iten zuna] kantidadia. Barkua, egurrezko barkua asko moitzen da. Asko-asko-asko moitzen da egurrezko barkua. - Eta normalian ze ekartzen zian urtian behiñ, o? - Hoidxek jenealian urtian behin. Zeako, antxoetako, o bestela atunetako. Primavera o San Pedroetako jenealian etortzen zian. Ta igual, barkuak, igual hiru-lau barku zean ta dana jo ta presaka ibilli behar! Baiña halare, barkuak, egurrezko barkuak iten aldian askoz hobeto. Zoze, dirua sartzen zan, bestela ezta diru-piurikan´e! Perraik ez zan iten! - Eta, reparaziyuak eta hamen inguruko herri guztietakuak? Getaria ta… - Herri danetakuak. Hondarrubitik hasi, ta geo Santandertik´e bai ta asturianuak´e bai, ta… Motorrak´e, geo hamen nola bertan zebe motorrak´e, jendia motorreta etortzen zana, ba, karrua´re sartzen zan, ta ya lan danak erten behar izaten zuen hemendikan ta, lana nahikua juntatzen zitzakun. Geo, kargako barkuak´e bai […] etortzen zian. Ta kargako barkuak jenealian txapezkuak izaten zian, egurrezkuak´e bai, baiño txapezkuak´e asko. Baiña eukitzen zuen bodega lurra egurrezkua, karga botatzekua, eta hura nola karga haundidxak ibiltzen zian, puskatu igual iten zan, ta hura´re arreglatu iten gendun lurra´re, txapezko barkuena, kosteruena. Lan asko, puf! Lana in deu!

7.14. Zumaia beti ontzigintzari lotuta

- **Hizlaria(k):** Egaña Etxabe, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-013/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:17:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- **Laburpena:** Zumaian egurreko 3 astilero eta txapako bat (Balenciaga) zeuden. Itsasontzi ugari egiten ziren Zumaian. Betidanik egon izan da Zumaian lan horrekin lotura, aurretik ere Beduan ba omen zen astileroa eta. Motorrak ere bertan egiten ziren (Unanue eta Yeregi). Garai batean motorren eskaera handia zegoen.

Transkripzioa

- Ba lana pranko in deu! Lana ta lana ta lana! Barku berridxak iten.
- Eta kuriosua da, gaiñea, beste herri guztietan, arrantzaliak izan, baiña Zumaian arrantza gutxio, baiña barkuak konpontzen ta astilleruak eta onenak Zumaian.
- Zumaidxan zebeñ Beduan astillerua, hamen Balentziagako onduan Zacarias deitzen zitzakona, bigarren astillerua ta gu, hiru astillero egurrezkuak. Eta txapezkuak Balentziagan lau astillero. Hiru egurrezkuak eta bat txapezkuak. Hamen barkua kantidadian iten zan. Baiño kantidadia. Beduan in dia barkuak! Jesus! Ta...
- Eta, zergaitik dauka istoriya hori Zumaia? Hau da, hainbeste astillero ta...
- Halakotxia zan Zumaia?
- Beti izan da?
- Zumaia beti izan da...
- Aitta ta aittitan partetikan, ta...
- Geo Beduan ta´re izan behar zuen astilleruak lehen. Gu baiño, gu jaidxo baiño askoz lehen. Zumaia beti izan da barko asuntuetakua, ta motorrak ´e iten zian, Unanue, Karmelo Unanue, hamen bertan, uaiñ ´e etxiak iten ai dia. Bestia Yeregi, famosua zan Yeregi´re. Ta motorrak famosuak zian Zumaiko... Cuarenta y nueve Euxebio Mundo zan buru iten zuna, Euxebio Mundo deitzen zitzakon. Euxebio Yeregi zan, baiño Mundo, Euxebio Mundo. Kañoia jarri beharko zala jendia bialtzeko, atea etortzen zan jendia, cuarenta y nueve. Jende... motorren atzetik, motorren... motorren billa ta... abasto eman eziñ! Kañoia jarri beharko zala atian jendia bialtzeko. Euxebio Mundok.
- Bai, bai.
- Bildurgarridxa, bildurgarridxa zan. Ta Zumaia izan da itsasokua, baiña haundixetakua, haunditakua. Jendia dedikatzen zan dana-dana motorra, dana barkua, dana barkua.
- Dana, ezta? Bai astillerua, motorra ta...
- Pentsa zazu, hiru astillero egurrezko ta txapezkuak lau, lau astillero. Ta motorrenak famosuak, Yeregi´re famosua ta Unanue´re bai, Karmelo Unanue. Bidxak zian motor famosuak.

7.15. Zumaia motor eta kaldera fabrikak

- **Hizlaria(k):** Yeregi Salegi, Irene
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-022/004
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:04:20. **Bukatu:** 00:05:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
 - Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- **Laburpena:** Aitaren tailerrean, Yeregi hermanosen, motorrak egiten zituzten. Motorrak egiten zituen beste tailer bat ere bazegoen, eta Carmelo Unanue lantegian motorrak eta kalderak egiten ziren. Balentziaganekoan ere kalderak egiten ziren, baina hura lantegi zaharragoa zen.

Transkripzioa

- Eta esan diazu orduan motorrak eta iten zituela Yeregi Hermanosen.
- Bai, "Yeregi Hermanos".
- Eta Zumaian, e, motorrak eta, tradiziya dago, ez? Motorrak eta...
- Bai, motorrak bai. Geo [Beale] bazan, geo [Bealek]'e iten zun beste, zea, bi, bi hoietzek zebe. Ta geo, Karmelo Unanue, hark iten zitun kalderak eta geo motorrak. Estreñeko kalderakin ta hasi zan, baiño geo motorrak. Eta Balentziagian kalderakin. Balentziaganekua aspaldikua da, hura lehenokua, porke han kalderak iten zitun.
- Yeregi baiño lehenokua.
- Yeregi baiño lehenokua. Ta geo, geo hasi zian hoiek, Balentziaganekua hasi zian zea iten, kaskuak iten. Ta uain hor segitzen due uaindikan hoidxek. Beste, Karmelo're zea, deseindu zan, ta guria're deseindu zan eta Beale deseindu zan.
- Eta...
- Baiño gurian Galizirako ta motor asko iten zian, e! Bueno!
- Eta beti motorrak?
- Bai, beti. Beti motorra, beti motorra.
- Motor txikiak eta gero...
- Eta haundiyak, baiño ya haundiyak, e! Ya haundiya. Ya ez dakit zenbat kabalokuak iten zian ya, haundiyak.
- Zuk ezautuko zendun txiki-txikitatik...
- Bai, txikitatikan, bai.
- ...motor txikiak, ez?
- Ta gaiña gu hantxe ibiltzen giñan. Ta ni lanian'e hamalau urtekin hasi nitzan, e!
- Bertan?
- Bertan.
- A, bai, e?
- Bai.

7.16. Motorrak egiten zituzten lantegian

- **Hizlaria(k):** Yeregi Salegi, Irene
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-022/007
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:11:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
- **Laburpena:** Motorrak osorik egiten zituzten lantegian eta fundizioko lanak ere bertan egiten ziren. Ziurrenik piezaren batzuk ekarriko zituzten kanpotik, baina gehiena bertan egiten zen. Lantegia Kantauri plazan zegoen. Bertan zeuden beste lantegi batzuen inguruko azalpenak.

Transkripzioa

- Eta motorrak? Oso osorik iten zian bertan?
- Bai, han osoikan. Montatu o piezak iñ'e bai?
- Eta fundiziyuan iten zian, baita. Baiño baten batzuk igual ekarri ingo

zituen. Bai, zeak ekarri ingo zituen, hor ez zian iten dan-danak. Zer dia hoidx ek? Zea batzuek badia, ba, hola, elektrikua o zea, bai, danak ez. Oseake, iten zan "lo más bulto".

- Bai.
- Balbulak eta, gauza hoiek danak iten zian.
- Bertan in ta han montatu.
- Bai, montatu, bai.
- Eta normalian...
- Baiño geo tokin batzuetan eukiko zituen noneonon iten zixkoenak gauza, pieza batzuek. Beaidxek, errazo da beti're etorri ta, baiño...
- Eta nun zeon?
- Hori?
- Yeregi Hermanos?
- Oain nola zea, Kantauri... ezautzen dezu Kantauri plaza? Ezautzen dezu? Ba, horixen.
- Hori zan, bertan?
- Hori zan, ba, ta barkuak hemen erridxuan eoten zian. Bueno, bakizu, hor aurrian, Kanta..., itxe hoiien aurrian!
- Eta...
- Ta geo bestia zan, beste fabrika aldamenian [...] zan. Hark zeak iten zitun, makinak. Hola, fresadorak eta tornuak eta makinak iten zitun hark.
- Bertan, plazan.
- Aldamen... Bai, bai, plaza horretan. Oseake, hoiek danak dia.

7.17. Aita "praktikoa" zen, itsaontziei sarrera ematen ziena

- **Hizlaria(k):** Gorostola Iribar, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-024/003
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:03:00. **Bukatu:** 00:05:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
 - Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- **Laburpena:** Jesusen aita "praktikoa" zen, itsasontziei sarrera ematen ziena: Carlos Gorostola Zubia. Itsasontzian Cadizeraino joaten ziren kargarekin; porlana eraman eta gatza ekartzen zuten. Zenbaitetan haize handia zegoenean itsasontziek sartzeko arazoak izaten zituzten. Orduan, bere aitona atoian (ontzi mota bat) barkuraino joan eta berak sartzen zuen itsasontzia portura.

Transkripzioa

- (Akelino) Honek aittaita hori zun, praktikua.
- (Jesus) Barkua sartu ta atea iten zuna, aittaita, ta osaba're bai.
- Eta nola zun izena aittak? Izena nola zun?
- (Jesus) Fortunato. Aitta ibiltzen zan, baiña aitta mekanikua zan, e! Aittaittak. Aitta zan Carlos. Carlos Gorostola Zubia.
- Eta praktikua zan.
- (Jesus) Praktikua zan.
- Eta hori zer zan, karreran bat-o ikasi behar zan praktikua izateko?
- (Akelino) Ez, hori izaten zan, [...] egun bat o, konparaziyo batea, ba, kargo hori hartzen zun, responsablia zalako barkuai sarrera emateko-ta.

- Baiña, jakin in beharko zan, ez?
- (Jesus) Bai! Gure aittaitta juten zan Cadizeaiño amakin, bere andriakin.
- Ikastea?
- (Jesus) Ez, ez, kargakin. Ta geo etorri. Ta geo zeatu zanian, praktiko in zun hamen, baiña lehenbizi Cadizeaiño. Hara jun, hamendikan porlana eraman ta handik gatza ekarri iten zuen. Ta igual, ba, esaten zun beak, igual etorri hamen Zumai gaiñeaiño, ta haize kontrakua, [erriko] haizia hartu, ta anda demontre atzea berriz, [erria] belak eta hala, trabes. Atzea berriz etortzen zanian, ba, [...] zuenian, barroa. Geo hamen hartu, hamengo atoa esaten zixoen, atoir. Zan, ba, triñeua bezelako bat, arraunian danak, "raka-raka, raka-raka". Amarrauta soka, ta hura ekartzen.
- (Akelino) Ta atoi, han juten zianai, pexta bat eo [errial ...] bat eo, ez dakit zenbat diru, asko ez huan izango, ematen zikuan.
- Atoa zan gabarra moduko bat, o?
- (Jesus) Arraunian iteko. Triñaua bezelako bat.
- (Akelino) Txalupa haundi bat, fuerte bat.
- Eta bere lana praktiko bezela ze izaten zan hamen?
- (Jesus) Ba, barkuak sartu barroa. Ertentzen zun zea batekin, batela zeken orduan, arraunian ertentzen zuen, ta barkoa sartu ta beak barroa ekarri hura.
- Bea batelian jun ta...
- (Akelino) Geo beak ekarri, hori beak ekartzen zun puertua txalupa.
- (Jesus) Tiraka-tiraka arraunian, tiraka-tiraka.
- Eta hau izango zan oain dala ya larogei-ehun o ehun urte?
- (Jesus) Ehun urte.

7.18. Lehengo itsasontziak

- **Hizlaria(k)**: Gorostola Iribar, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-024/004
- **Iraupena**: 0:00:50. **Hasi**: 00:05:20. **Bukatu**: 00:06:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Elortza, Kepa
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
- **Laburpena**: Lehenagoko itsasontziak nolakoak ziren. Ordua kalkulatzeko nola egiten zuten.

Transkripzioa

- Eta barkuak nolakuak zian orduan?
- (Akelino) Orduan hirurogei bat o hemen [...] fotografiyan ta azaltzen dia, ba, balandruak bi belakuak? Hirurogei bat o honela, o larogei bat o honelako barkuak.
- Eta hoiekin juten zan Cadiza-ta?
- (Jesus) Cadiza bai.
- Belako...
- (Jesus) Belako zean. Ta beak esaten zun ze ordutan ta, jarri eskuan [...], "ba! Seirak aldian ditzuk oain, seirak aldian", ta halaxen. Ez seirak eta hamar, ez seirak eta hoge, seirak aldia o, gutxi gorabehera.
- Bai, orduan dana izango zan gutxi gorabeherakua, ez?
- (Jesus) Geo, konpas txikixak eta hasi zinian-ta ta, jode! Konpasa, txiki-txikixakin.

7.19. Praktikoa eta talaieroa; faroaren funtzioa

- **Hizlaria(k):** Gorostola Iribar, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-024/006
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:09:30. **Bukatu:** 00:12:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Itsasoa » Lehorreko lanak » Faroa
 - Itsasoa » Lehorreko lanak » Kofradia
- **Laburpena:** Aitona urte askoan izan zen Zumaiako praktikoa. Portu guztietan egoten ziren praktikoa eta talaieroa. Talaieroaren lana itsasontziei abisua ematea izaten zen. Itsasontziarekin portura sartzerakoan hartuta zeukaten gutxi gorabehera noiz eta nola komeni zen sartzea. Faroaren funtzioa: argi seinalearen arabera zein herritan zauden jakin dezakezu gaez. Kosteroak kostarik kosta joaten ziren seinaleen arabera gidatuz.

Transkripzioa

- Eta aittaitta, orduan, praktikua zan.
- (Jesus) Bai.
- Eta urte askuan ibili zan hamen praktiko?
- (Jesus) Urte batzuk in zitun, bai.
- Eta hori, praktikua, ze izaten zan, portu guztitan izaten zan praktikua?
- (Jesus) Danetan.
- Getaixan ta...
- (Jesus) Danian, danian. Ta talaixero're bai.
- (Akelino) Talaierua izaten zan, itsaso txarra zeonian-ta, han puntan nola dao, Paolen badao han txabola txiki bat o, han eoten da talaierua bandera batekin. Ta honela hau, ta eoteko esaten ziyon barkuai.
- (Jesus) Seiñalia jarrita ta...
- (Akelino) Ikusten zunian bazatorrela, itsaso haundiya bazatorrela, honela. Ta ya hura lagatzen zunian, orduan ematen ziyon entrada.
- Hori, baiña, kargako-ta barkuentzat, ez?
- (Akelino) Baita guri're! Txalupa txikiyai're!
- (Jesus) Bai, bai!
- (Akelino) Guri're bai, txalupa txikiyai're. Han zai-zai eoten giñan, ta jenealian, zazpi olatu izaten dia txarra danian, zazpi etortzen dia. Zazpigarrenguan ya barroa. [...] beste tanda etorri baiño lehen, benga, jota...
- (Jesus) Geo, geu bakarrik bagiñan, [Isustar] esaten zixeun, saliente bat, han eoten giñan. Ta han ertentzen zunian, han ikusten zanian zea, barealdixa, abante, barroa. Osea, bazeben bere...
- Bai, ez? Ya hartuta.
- (Akelino) Bi zian: bestia Malparaje, hemen, Itzurungo saliente hortan, hor zan bestia. Bi hoietan [...] baldin bazan, aguanta.
- (Jesus) Aguanta, eon hantxen, hantxen eon.
- Eta nola zun izena honek, banderakin eta ibiltzen zana?
- (Jesus) Talaixerua.
- Eta farua ta?
- (Akelino) Farua aparte zan.
- Faruak laguntzen zun...?
- (Akelino) Ez, faruak ez du ezer'e laguntzen.

- (Jesus) Gabaz.
- (Akelino) Kontraseña bai hori bere argiyakin ta hori, baiña gu ez giñan ibiltzen.
- (Jesus) Zuk honea sartu nahi bazu... Zabez kanpua, ta hiru milleta ikusten dezu zea, farua. Ta zenbat botzan ditxun, bi motz ta luzia botatzen dunian, Zumaikua da.
- (Akelino) Zumaikua dan o Getaikua dan.
- (Jesus) Bi ta bat, hiru ta bat, ta...
- Eta nola da, Zumaikua nola da?
- (Jesus) Bi ta bat. Bi ta luze bat. Ta geo duda baldin badakazu, ba, tabla (balear): ikusi, ireki ta, "koño! Hemen, bi".
- Eta Getaikua nola da, badakizue?
- (Akelino) Bai, hark'e ez dakit, hiru o bi... Bi ta bi o... Uste det iguala zuela biyak.
- Eta hori beti horrela da?
- (Akelino) Bai, bai, bai. Hori, liburuetan, seiña hoiak, patroiak danak dazke.
- (Jesus) Kanpoa pixkat ertentzeko, kanpoa erten nahi baldin bazu, estranjeroa, Ingalaterra o horrea, beste runbo bat hartu bihar dezu. Baiña hamen, sasoi hortan juten ziñan Gijona, Musela, Galizin, kosta hori dana, kostero horreatik deitzen dixoe. Kostatik juten zian Paola, zenbat ematen xun jakiñez: "dan-dan-dan! Matxixakon gatzibez!" "Dan, dan, dan! Suances!". Kostero horreatik deitzen zixoen, "costeando" ibiltzen zialako.
- Beti kosta ikusten.
- (Jesus) Bai, ba.

7.20. 14 urterekin astilerora lanera

- **Hizlaria(k)**: Gorostola Iribar, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-024/007
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:12:50. **Bukatu**: 00:13:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- **Laburpena**: Jesus 14 urterekin Balenciaga astileroan lanean hasi eta bertan egin zuen bizi osoa. Orduan 14 urterekin hasten zen jendea lanean normalean, baina gazteago ere egiten zituzten lantxoak.

Transkripzioa

- Eta gero lan in zendun astilleruan?
- (Jesus) Bai.
- Urte asko?
- (Jesus) Bai. Hantxen hasi nitxan ta hantxen bukatu're.
- Zenbat urtekin hasiko ziñan? Gazte-gazte hasi ziñan? Hamalau urte?
- (Jesus) Bai.
- Zu're bai?
- (Akelino) Bai, nik'e hamalau urte.
- Bixok?
- (Akelino) Ni gutxi ibili nitzan. Geo ya igeltzeritzan hamabost urtekin o ez dakit ze hasi nitzan.
- Eta zu, oster, Astilleruan beti?
- (Jesus) Bai.

- Zenbat urtekin hasten zan lanian eta?
- (Jesus) Hamalau urtekin, baiña askotan "Hi, etorriko al haiz hau itea?", ta.
- Gaztio're bai batzuk, ez?
- (Akelino) Hamahiru ezkeo batzuek hasten zian, pintxe. Itxetikan, izaten da, ba, zeoze jateko baldin bada're.
- Eta ze astillerotan hasi ziñaten?
- (Jesus) Astilleros Balenciaga.
- (Akelino) Ta jubilat'u're bai!
- (Jesus) Hamen hasi nitxan, ta geo hara.

7.21. Balenciaga astileroa

- **Hizlaria(k)**: Gorostola Iribar, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-024/009
- **Iraupena**: 0:03:05. **Hasi**: 00:15:05. **Bukatu**: 00:18:10
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- **Laburpena**: Astileroan itsasontziak montatu eta konpontzen lan egiten zuen. Txapa hondatzen zenean, berria jartzen zion berak. Aurretik kalderak egiten ere lan egiten zuen. Balenciaga astileroa San Telmo kalean zegoen. Bertan prestatu eta gero moilara joaten ziren itsasontzia montatzera. Balenciaga astileroaren inguruko kontuak. Herrian non zeuden astilero gehiago.

Transkripzioa

- Zein zan zure lana astilleruan? Ze lan eiten zenun?
- Barkuak montatu're bai, ta... Barkuak iñ'e bai. Reparazixua gehiena. Bai. Barko zaharrai, ba, txapa kendu ta aldatu berriz'e.
- Txapazko barkuak?
- Hondatzen zanian txapa o bajatzen zakonian zea, loritasuna, hura kendu ta berrixa jarri.
- (Akelino) Baiña hori baiño lehenore kalderak. Kalderak iten, ta...
- A! Kalderak iten ta, bai!
- (Akelino) Hori ya beranduo [...], kalderak iten. Hi kalderak iten ta, guardabarro're nola da?, kabina hoiek iten, ta.
- Puentiak in ta...
- (X) San Telmo kalia hasi, hasi San Telmo kalia hasi...
- (Akelino) Oin itxiak in ditxuen hortan...
- Han zeon Balenciaga?
- (Jesus) Bai.
- San Telmo kale bertan.
- (Akelino) Oain etxiak nola in ditxue, etxe pillo hori?
- Bai.
- (Akelino) Hortxen.
- Ta handik barkuak bertaraiño sartzen zian?
- (Jesus) Ez, ez.
- Nola sartzen zian?
- (Jesus) Guk hamen prepaatu ta geo juten giñan astileroa montatzea, oain daon toki horreta, o moilla.
- San Telmo kalia iten zian kalderak-eta...

- (Jesus) Kalderak eta hori in ta...

- (Akelino) Taillarra.

- Eta gero moillan...

- (Jesus) Moillan montatu barkua.

- Eta abanzia nun zeon zu hasi ziñanian astilleruan?

- (Jesus) Hortxe, hortxen bertan. Hortxen bertan, ba, ehun ta... holakon bat urte ingo zitun.

- Ehun urte?

- (Jesus) Astilleruak han.

- (Akelino) Astillerua in zan...

- (Jesus) Gruakiñ, gruakiñ...

- (Akelino) El año cincuenta, buelta hortan [...] astilleruana.

- (Jesus) Ta lehenozan zuen ixeko, han astillerua lehenoz. Hor'e bahitxuan bat, bi, hiru astillero ezautu ixkiu hor bertan. Hamen Amaia horretan bat, bestia...

- (Akelino) Bestia [...] itxia daben pare hartan. Hori Segundona. Ta pixkat behero, Balenciagak euki zuna.

- (Jesus) Ta Egaña...

- Danak hori inguruan.

- (Jesus) Bai, hortxen. Geo, beheruan'e bai ta... Uain astillero alde horretan dao.

- (Akelino) Karmelo Unanuenian ta...

- (Jesus) Baita.

- (Akelino) Ta Castorrenian'e...

- (Jesus) Baita.

- (Akelino) ...barkuak iten. Han Castorrenian nola dao erreta... Pabelloi bat baziok, ba, erreta ta eroita? Han barkuak iten [...] gitxabek. [...] Arritxu o zein zan? Hori han [...] huan.

- Karmen.

- (Akelino) Karmen, [...]. Ta hura bezala beste bi o [...]. Orduan jendiak batei o bestia heldu iten zion.

7.22. Ortizenean kontserba-lanean

- **Hizlaria(k):** Egaña Elorriaga, Magdalena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-058/007
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:15:40. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena:** 19 urterekin kontserba lanean hasi zen Ortizenean. Getariara antxoa-lanera joan izan zenetan etxe azpiko sotoetan lan egin zuen. Lanerako jende bila etortzen ziren kaleetan diarka. Ama eta izebak despreskara joaten ziren Getariara. Berak salazoian eta atun-kontserban lan egin zuen Ortizenean. Inguruetako kontserba-fabrikak.

Transkripzioa

- Geo ez. Geo ya lanian hemeretzikin hasi nitxan. Ume zaitzen-ta ta're eon giñan, ta itxeko umiak-eta're bai, baiña bestela ya lanian hemeretzikin.

- Hemeretzikin. Ta orduan ere, ya konserba kontu hoietan, edo?

- Bai.

- Hortan ibili...

- Ortizenian.

- Ortizenian. Ta lehen Getaian ta Zumaian ez al ziñan ibiltzen? Zumaian ta 're bazian orduan fabrikak-eta

- Bai, bazan [...] fabrika, baiño ez, ez nitzan ni beste haidxetan ez nitzan behiñ'e jun, Ortizekin ya.

- Ortizekin. Ta Getaian lehen beste...

- Beste zea, soto txiki hoidxek, itxian azpidxan eoten zian. Oan nola dao eroski Getaidxan?

- Bai.

- Hantxen askotan. Hura 're zea bat zan.

- Ta ezaguna zalako hangua eo hangyak eskatuta edo?

- Ez. Etorri iten dia billa, diarra iten zuen.

- Bai, e?

- Bai, bai. Ta antxoba maillan harrapatzen zuenian, etortzen zan kamioi txiki batekin, Periko Gallegok saltzen zitxin, ez dakit apellidua nola zun. Gizon txiki bat ta bozina kanpuan hola, gomazko holakuak, "bo, bo, po, po!". Askotan, zinetik ertentzeako, gabeko zinetik ertentzeako, hura zai. Itxea jun, mantalak o hartu, oiñetakuak o, eta juten zian. Nik despeskan ez nun behiñ'e in. Nik ez. Baiño gure amak eta izekok eta asko!

- Despeska juten zian?

- Despeska juten zian orduan.

- Getaira?

- Getaira, bai. Ta geo hamen bertan 'e bai. Hamenguak baiño 're lehen hangyak sartzen bazian, ba, gizon hori etortzen zan billa ta eramaten zitun. Ta geo honea etortzen zianian, hemen bazeon, ba, geo hemen berriz.

- Hemen berriz.

- Bai. Ta zuk despeskan esan dezu... ibili zea konserban.

- Ez! Ni despeskan ez. Ni ya salazoian.

- Beti salazoian?

- Salazoian eta konserba, atuna.

- Ortizenian?

- Bai.

- Ba, hortiz izango zan hamen inguruan haundina, ez?

- Orduan bai. Orduan bai. Lehenotikan euki zun zeak, Getaidxak, nola da hori? Nardin-ta nundik etorri zian? Nola zan hura? Italianua da, ba, hura 're.

- Oliveri?

- Ez. Oliveri da hau, Nardin da bea. Baiña horren aitta zan enkargaua beste fabrika batekua. Orlando. Orlandok jo iten zun hamen antxoba, ez dakit atunik in zun. Ta Caxildonekua esaten zidxoena 're bai, harek ere bai. Harek atun pixkat ere in zun. Behin jardun giñun han-ta. Geo ya Ortiz etorri zan ta hura, harek.

- Noiz etorri zan Ortiz?

- En el año cincuenta.

- Ordura arte ez zeon horrelako haundi...

- Bea, lokal bea baiña, "Probote" o, ez dakit ze esaten...

- Proboste.

- Probostenekuk esaten zidxoena eta...

- Txikiyo?

- Ez. Lokala bea zan, baiño iten zun kantidade txikidxo. Harek ez zun fileteikan iten, ez det uste iten zunik fileteikan. Honek, Ortizek, iten zuan antxoba primaveran, geo udaan atuna ta geo neguan antxoba, zea, olidxotan filetiak.

- Filetiak.

- Bai. Idxa urte guztidxa eoten zan lana. Batzuetan faltatzen zan ahitu in zalako beste berridxa hasi bitartian edo horrela. Baiña bestela...
- Orduan, Ortiz etorri zanian, zu ya zuzenian bertan... orduan sartu ziñan?
- Sartu zan, hura etorri zan Julidxuan o, bai, San Fermiñetan o horrela. Ta ni hasi nitxan dizienbrian. Bai, urte bertan.
- Hasiera-hasieratik.
- Bai.

7.23. Antxoa prestatzeko prozesua: "salmueran" garbitu, burua kendu

- **Hizlaria(k):** Egaña Elorriaga, Magdalena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-058/010
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:24:35. **Bukatu:** 00:29:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak
 Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
 Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Antxoa
- **Laburpena:** Lehenago antxoa asko harrapatzen zen. Getarian antxoa asko hartzen zenean, han behar adina saldu ostean Zumaiara ekartzen zuten fabrikara barkuan edo kamioian. Antxoa jasotako egunean bertan preparatzen zen. Lehenbizi, tinetan jartzen zen gatzetan. Burua kendu eta tamainaren arabera sailkatzen ziren gero latetan sartzeko. Antxoa "salmueran" nola garbitzen zen.

Transkripzioa

- Arrantzan ta´re orduan moimentu pixkat´e izango zan. Eta barkuetan [...] o ta...
- Bai. Zeatikan horrela, urte haidxetan gaiñea´re antxoba asko harrapatzen zan. Eta iten zuen benta, getaiarrak eta bertan benta, Getaidxan. Eta transportia eta nola ez zeon hanbeste, ba, orduan zeak iten zuen, baforak, berta, [...] etortzen zian. Ta geo hamen hartu, hamengo zeak, kamionak, ta eramaten zuen fabrika.
- Hamen deskargatzen zan?
- Hamen, bai. Han Getaidxan zai eon beharrian. Beti ez! Hori nuixian behin, asko zanian eo, han konpradorak erosten zuan, eta marea ona ta itsasua ´re ona, ta orduan etortzen zan honea bat o bi barko eo, ta bestela kamionez ekartzen zuen.
- Eta zuen lana zein zan?
- Guria, ba, antxobetan burua kendu, estreñengua. Ta geo ya aprobatzen zanian, edatetuok o, gatziauak eta burua kendu, ta guk zean ipiñi, gatzetan, latan, salazoian, enpaketatu, banan-banan, dana.
- Baiña hori gero izango da, ez?
- Ez, ez, ez, ez, ez. Egunian bertan.
- Egunian bertan?
- Burua kendu ta segituan. Gozuo da gaiñea´re.
- A, bai?
- Bai.
- Orduan ekartzen zan, osorik etortzen zan...

- Bai, bai, bai... etortzen zan...

- Mahai gaiñea botata o kajetan?

- Ez, fiñak, fiñak zian. Etortzen zan kajetan, otarretan, eta tiñak. Tiña haundidxak, mahai hau baiño estuo, baiño horrela, haundidxak eta zean, gatza. Mahaian bota gatza dana, hustu kaja, berriz bota gatza, dana nahastu ondo gatzakin, beste kajaka bota berriz ere gatzakin dana ondo nahastu, bete arten tiña. Ta ya behalaxe nahasten zan. Askotan baita mahai gaiñea bota, gatza bota, ta seituan hasi buru kentzen´e bai. Segun jendia zai bazeon o horrela bai.

- Eta hasierako lana orduan zan?

- Burua kendu estreña.

- Burua kendu.

- Bai.

- Eta utzi, laga.

- Ez, ez, ez. Burua kendu.

- Burua kendu ta laga.

- Ta iten zan zeatu, apartatu. Hiru klase o: txikidxa, haundidxo ta haundidxauak. Tercera, segunda ta quinta. Cuarta´re bai. Quinta gitxidxena iten zana, txikidxena. Geo iten zian latak ere, ez zan dana igualakin betetzen. Haundidxak bere marka eramaten zuen gaiñian. Batzuek... Cuartak eramaten zitun hiru, hiru antxoba gaiñian. Eta zeak, tercerak eramaten zitun bi. Ta haundi-haundidxa zanak, batez. Ondo sartzen zan bea hura, ta ez zan ipintzen. Ta geo garbitzen zianian´e latak... beno, zearako´re ez, ya kontatzen zian, bagoiak iten zian, ta haidxek iteako´re kontatzen zian. Baiño antxoba iten zan segitu-segituan: etorri, garbitu ta segituan. Salmuran garbitu... Salmura iten zuen beain graduakin. Itxian iten zan patatakin o arrautzakin. Ura ta gatza jarri, ta patata bota, ta flotea ertetzen zunian, bale, ta arrautza´re bai, flotea ertetzen zunian, han garbitu antxobak eta klaro. Baiño itxian izaten zan, ba, gitxi, kilo batzuk, o despeskatik ekarritakua o horrela. Baiño fabrikan ya iten zan salmuera, bere neurridxan iten zan, bai, bai. Neurtu iten zan. Ta guk ikusten giñun nola ibiltzen zan. Zea bat, horrela, tubo bat eoten zan ta barruan termometro bat bezela eo.

- Bai.

- Ta han zeatzen zuen, eta "Eugenio, ¿A ver?", ta beitzen zidxoan ta... "Ondo! Iturridxa itxi uan.". Aska bat eoten zan ta han gatza botatzen zuen lori-loridxa, [...] eo deitzen zitzakon, lori-lori-loridxa izaten zan, koskorra holaxen, koskor haundidxa. Eta eukitzen zun iturridxa tubo luze batekin ta han dana zean botatzen zun, aska hartan bota gatza bete arten ta segi. Eta geo ya juten zan beste aska batea, salmuera. Han neurtzen zan, ya salmuera ondo zeonian, [...], berriz bete ta preparatu aska gatzakin ta ya ekarri baldietan o mangera, zean mangerakin, lehengo baldiakin.

- Salmuera eramaten zan?

- Salmuera eramaten zan tiñeta, beste tiña batzuetan, antxoba botatzen zan, ba, haundidxa batea, medianua bestea, txikidxa bestea. Ta geo eoten zan han andre bat o bi o, ateatzen genun askaa, ta beste kuadrilla mahaidxetan horrela, latien, banan-banan ipintzen zan. Sardin-zaharra nola etortzen dia kajan? Ba, horrela ez, zuzenian latetan. Horrela iten zan barrillak zienian, horrela danak koruan, batzuetan. Beste batzuetan hola rayan´e bai. Hola iten zan.

7.24. "Bagoiak" eta "korbatak" nola egiten zituzten

- **Hizlaria(k):** Egaña Elorriaga, Magdalena

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-058/011
- **Iraupena**: 0:02:10. **Hasi**: 00:29:20. **Bukatu**: 00:31:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena**: Antxoa latekin "bagoiak" nola egiten zituzten. Gerora "korbatak" egiten zituzten, plastikozko lata altuagoetan denak batean jarrita.

Transkripzioa

- Eta filetiak beste lan bat du, ordia, ezta?

- Bai. Ta geo hori iten da zeatu, bagoiak deitzen zitzakon. Ba, hamar, luzian hamar eo, ta hirukua, hiru, tartian sartuta iten zian. Danak honela zean ez, honela tartian sartzen zan. Eta hiru illarako, hiru hamarreko eo iten zianian, tabla jarri gaiñian ta latai egurrezko tapa. Eta zea batzuek zeatzen zian, tako batzuek, horrela, egurrezko tako batzuek ura gaiñian jarri ta geo bi tabla. Ta haren gaiñian berriz, lata. Berriz haura betetzen zanian, berriz´e igual, tablak eta, igual ipiñi ta ya altura, zeure zea hartzen zuenian, gaiñea latak haundidxak jeneralian izaten zian hamar kilokuak, ta lau bat o hola hartzen zitunian, beste bagoira iten zan.

- Bagoia deitzen zan?

- Bagoia deitzen zitzakon horrei, bai.

- Lata...

- Lata montoi... bai, pilla haundidxa iten zan. Eta geo iten zan, bajatu iten zan hura. Ta berriz bete. Ta geo ya azkenengo urtietako ikasi zuen zea batzuek, korbatak deitzen giñun guk. Geo hamen gaiñea plastikokuak hasi zian. Lehenotikan burnizkuak´e ibili zituen. Horrela alto batzuek, bitan rellenatu beharrian lata, ba, behin. Ya bukaera dotoria, tripik gabe, ta. Ondo, oso-oso-osuak, earki ipini ta ya zeatzen zan. Geo garbitzen-ta lan haundidxa eukitzen zuen.

- Ta korbata zerrei deitzen zitzakon?

- Zeeri, plastikozko latai ipintzen giñuzen hor zea bat. Bestela in behar izaten zan... Lata asko bajatzen zan, ta bete berriz. Ta geo berriz´e zeatu, bukatzeko berriz. Ta horrela batian iten zan jenealian.

- Betegarriya eo?

- Betegarri batian, rellenua, ta bete gabe batian iten zan dana. Ta ordun, "Ekarri korbatak!" neska-koskorrai o gu baiño gaztio zianai, ta ekartzen zezkun. Bestela toki asko hartzen zuen ta horrela mahai azpidxan jartzen zizkun zeak, bukatu arten handikan segi.

7.25. Antxoa "filetetan"

- **Hizlaria(k)**: Egaña Elorriaga, Magdalena
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-058/012
- **Iraupena**: 0:02:35. **Hasi**: 00:31:30. **Bukatu**: 00:34:05
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren

- **Gaia(k):**

Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

- **Laburpena:** "Filetetan" nola jartzen zuten arraina. Antxoak denbora asko behar du "kuratzen". Udaberrian egin eta udazken aldera hasten ziren filetetan jartzen. Emakume nagusienek trapuarekin arraina garbitu eta beraiek latetan jartzen zuten oliotan. Antxoak nola garbitzen ziren; burua bakarrik kentzen zitzaien ("zakatza" bertan utzita) eta gainontzekoak fileteak egiterakoan.

Transkripzioa

- Ta geo antxobak berriz iten da, bastante denboan eon behar du, hiru bat hillabete o bai [...] da. Bueno, segun lana´re nola daon, ta egualdixak ere zeatzen du. Ta geo berriz, ba, lelengo iten zan trapuan dana. Mahai batian, hamarreko, hamar lagun. Bi emakume hor [zaharrian] eoten zian, bi emakume edadetunak, eta haidxek trapuakin garbitu ahal zuen dana. Bai, egun guztidixan segi garbitzen trapuakin. Eta geo "bota arraidxa!" esaten giñun guk, eta tak!, txorta horrela. O bestela, bandejan bazakaen, beno, bandejan. Tapak izaten zian bandejan. Han luzatzen zigun eta guk berriz garbitu ondo, buztana ebaki, bizkarra iriki trapuakinñ, ya filetia atea eta kutxilluakin ebaki eta... Eukitzen giñun lehenengo honela, montoian, bandejan. Ta geo ya direkto, hasi giñan direkto ya latian sartzen.
- Ta horrek klase diferentia izango zian, ez?
- Latak. Txikidxo bazan arraidxa, ba, lata txikidxa. Eske, arraidxa haundidxo baldin bazan, lata haundidxa. Bai.
- Eta hor ya...
- Hor ya olidxuakin ipiñi, itxi, ta lixto! Ya... Baiño, antxobak denboa asko bihar du zeatzen, kuratzen.
- Ta udaberridixan eiñ...
- In ta, bai... Geo batzuetan Agostuen azkenian-ta ta´re, o atunak fallo eman zula ta bai, baiña gehidxenian udazkenian gauian hasten zan eiten hura. Orduan atuna.
- Eta tripa noiz kentzen da?
- Ez! Garbitzen da diferente. Itxian garbitzen dan bezela ez da garbitzen fabrikan. Iten zako buelta eman buruai ta zakatza... Zuk jakingo dezu, ba, zer dan zakatza? Zuen amak ere iten du ta hala ingo du. Hamen goiko hezur honi, ba, osoikan laga eta ertentzen dunak erten. Ta geo garbitzen danian, berta, [...] ta barruan eukitzen du, ez didxo kalteik iten.
- Hori gero.
- Hori gero. Filetia iteakuan kutxilluakin honela zeatu ta tarrata ebaki ta juten da.
- Buruakin bakarrikan. Burua...
- Burua, bai, burua! Heldu horrela goi aldetik eta burua kendu, hegats hura han gelditu didxela. Ta geo hegatsa onena dakaen hoidxek gaiñian, latian, azkenian haidxek ipini.
- A, bai? Politenak.
- Elegantiak. Elegante juteko, bai.

7.26. Atuna latetan jartzeko prozesua

- **Hizlaria(k):** Egaña Elorriaga, Magdalena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-058/013

- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:35:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena:** Atunaren prozesua askoz azkarragoa da, goizean prestatu eta gauerako jateko prest egoten baita. Atuna ekarri eta matxetearekin kentzen zioten burua eta tripak ere kendu egiten zitzaizkion. Gero, binagretan jarri beharrekoa makinarekin egiten zen. Bestela, lehenbizi egosi eta gero frijitu egiten zen ondoren latetan sartzeko. "Baño maria" eman eta jateko listo.

Transkripzioa

- Atunak beste lan bat du, ordia, ezta?
- Atunak, bai. Atunena azkarro iten da. Atuna goizian sartu ta gabian jateko lixto dao. Atuna bai.
- Zer da, egosi ta...?
- Bai, egosita o prijituta. Bueno, lehenengo hura ´re, uan beste mou batea, beste ontzi batzuk ta beste gauza batzuk dazke. Baiña guk iten giñun etorri ta harei ´re burua kendu. Matxetekin lurrian jotzen zuen emakumiak abilidadia zakenak, ta indarra. Bi zartada o eman ta mahai gaiñian burua kendu ta tripak ´e bai, tripak ertentzen didxoe, osoik ertentzen didxoe. Zeoze-zeoze gelditzen zako, baiña gitxi. Eta geo ya zearako, segun ze latetako, olidxotako dan o binagretako dan, binagretakua makina batian ebakitzen da. Egosi tajada osuak iten dia eta geo prejitu, segiduan prejitzen da. Ta geo sartu latan, "baño maria" eman ta hoztutzen danian, listo jateko. Antxoak lotan eon behar dun bezela, atuna goizian sartu ta illuntzian ya listo.
- Jateko.
- Jateko listo dao.
- Eta dana Ortizenian eiten zan? Egosi ta latan sartu ta dana.
- Bai, bai, bai, bai. Guk dana, osoik, bertan. Etortzen zan atuna osua ta ertentzen zun ya latian, kajan sartu ta kamioian.
- Kajan sartu ta enbalatu ta dana.
- Dana, dana, dana.

8. Ekonomia eta industria

8.1. 'Xey' lantegia; 70 urte inguruko hazkunde industrial

- **Hizlaria(k):** Ugarte Lopetegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-009/004
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:10:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Boom industrial
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Debabarreneko lantegiak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- **Laburpena:** 'Xey' lantegia 1970-72 inguruan etorri zen Oikiara. Lehenago Donostialdeko Ergobin zegoen. Oikiara etortzean jende asko hasi zen bertan lanean eta kanpotik ere etortzen zen jendea. 1975

inguruan hirurehun langiletik gora zituen. Aurretik, 'Pollos Oikina' etorria zen, eta Elgetatik 'Modelo' ere etorri zen gerora. 70 urte inguruko industriaren hazkundera. Inguruetara ere fabrika handiak etorri ziren (adibidez, papelera Aizarnara).

Transkripzioa

- Eta Xey noiz etorri zan hona, honea? Noiz jarri zuen?
- Oain dala hoeta hamabost urte, o. Urte hontan izango dittuk, hoeta hamabost urte izango dittuk.
- Año setenta edo... setenta y dos, edo?
- Bai, hortxe, hortxe. Bai hortxe, setenta, setenta y dosian o hola izango huan. Setenta y dos o hola izango huan. Bai, hoeta hemezortzi aurten dala uste diyat.
- Eta hemen inguruko jende asko ta [...] bertan, ez?
- Geo, geo Oikiyatikan-ta ta jende asko bertakua, zea horrea, berta, ta geo jendia kanpotikan'e etorri huan. Geo Zumaia ta, Oriyo ta, Zarautz ta. Geo bea lehen zean izandakua huan, Ergobiñ eondakua, Donostiko Ergobin. Ta geo hor Astigarraga alde horta ta, han'e zabillen jendia Hernanikua ta. Benoa, ba, buelta haundiko zea, jendia. Orduan asko, jende asko ibili giñan gu. Hua honea etorri ta... el año setenta y dosian etorri huan ta hamen setenta y cincuan hirurehun ta berrogei bat lagun o bagiñun guk hor, e!
- Bai, e?
- Asko jendia hor.
- Asko.
- Asko ibili huan jendia.
- Ta orduan, e, herriantzako e...
- Bai, bai, bai, bai.
- ...laguntza izango zan, ez?
- Bai, honbre, honbre! Bai, hemen bertako jende...
- Dirua're ekarriko zun.
- Basarri, basarritar jendia ta hemen bertakua ta.
- Ta ordurarte basarritan ta lanian [...] ibilitakuak [...].
- Bai, ba! Ni... nere edadekuak ya danok lanian zeautakuak gaittuk, e!
- Bai, ez?
- Danak kalea.
- Zuen edadekuak ez.
- Nere edade, gure edade ta aurea, hiruroeta bost bat urte o, hoiek hiruroeta bost urte [uain...dikan] gora duazenak, hoiek basarriyan zeautakuak. Baiño behin, ni... nere edadekuak ya danak zeara.
- Gerra, gerra ondoren jaiotakuak asko ta asko ya fabrikari lanian.
- Bai, bai, bai. Tallar, fabrika, fabrikari lan [indakuak gehio] Oikiyan. Banaka batzuk gaittuk hola zean, baiñan gehienak zeautakuak hemen, nere lanian ibilitakuak dittuk hemen.
- Eta Xey izan zan horrela fabrika lehenbizikua?
- Geo etorri huan hamen, beno, Pollos.
- Pollos Oiquina.
- Pollos lehenotiyo... Pollosen'e jende asko ibiltzen huan! Ta geo Xey etorri huan. Ta geo etorri huan Modelo, Elgetatikan etorri huan. [Getai arteko] zean, badakik.
- Bai.
- Ta handikan etorri huan. Ta hua itxi iñ huan. Ta geo Aizarnazabal hamen hurrian bestia.
- A, bai.
- Hor, hor'e papelera ta hasi hittuan, papelera haundiya ta hittuan hor eta.
- Ta hoiek'e gutxi gorabehera... garai hortan.

- Gutxi gorabehera... bai. Bai, lehentxio zeoze, urte paren bat o lehenotiyo o holaxe etorrita...

- Sesenta y...

- Bai. Setentan o hola esango nittun zea ta're. [...] dittuk hamengo...

- Ordun kanbiyua, orduan hasi zan, ez?

- Kanbiyua, ordun, ordun, ordun hasi...

- Hirurogeita hamarrian gutxi gorabehera.

- Bai. Hor, hor hasi huan zea o, nahiko kanbiyua o ta. Basarriyan-ta ta.

8.2. "Pollos Oikina" fabrikaren sorrera

- **Hizlaria(k)**: Ugarte Lopetegi, Manuel
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-009/006
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:11:15. **Bukatu**: 00:12:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak »
Debabarreneko lantegiak
- **Laburpena**: Inguruetan "Pollos Oikina" izan zen jarritako lehen enpresa nagusia. Hasieran fabrika txikia zen eta etengabe haziz joan zen. Sortzaileak oikiarrak ziren.

Transkripzioa

- Eta esan dezu orduan hamen, e, lehenbizikua orduan "Pollos Oikiña" izango zan?

- "Pollos Oiquina" hamen Oikiyan. Ta geo beste tallar txiki bat dao, baiña hor lau bost bat laun o ibiltzen [...]. Angel Arrona hor huan beste bat.

- Eta "Oikiña" hau aspaldikua da? Noiz jarri zuen?

- "Oiquina" hau? Hau... hasi zala urte mordua izango dek. Horrek... Hau hamen in zala ta Xey... Hau hogeta hamabost urte inda eongo dek, hemen. Ta lehengo, lehen txikiya [ziyan danak] han, bere, zea, "Errota" esaten ziyan... "Errota" huan lehen. Habek, "Pollos Oiquina"ko habek, fundadore habek zian lehen "Errota". Bai.

- Bertakuak dia?

- Bai, [Oikiya ...].

- [...].

- Bat hilda zio, fundadoria bat hilda zio eta beste anaia Zarautzan bizi dek. Ta geo hoiek hasi hittuan, ta ordun jendia, hamen bertako jendiak, e, zea, ordu batzuk eta zea, sartu ta. Ez huan... fijo-fijo ez huan izaten, baiño... Bai, ta oillaskua o ekartzen zuenian [...] pixkanaka hasi hittuan hoiek, eta pixkana-pixkana-pixkana geo ugaltzen, geo ugaltzen, ta... Puf! Geo jun huan baiña geo... suerte txarra izan huan. Ta oain beste zea batek zakak.

8.3. "Yeregi hermanos" motorrak egiteko fabrika

- **Hizlaria(k)**: Yeregi Salegi, Irene
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-022/002

- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:01:15. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Urola Kostako lantegiak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- **Laburpena:** Aita lehenbizi txofer lanetara etorri zen Zumaiara. Anaia zaharrenak motorrak egiteko fabrika zuen, eta hara etorri ziren lanera lehenbizi, baina anaia nagusiarengandik banandu eta "Yeregi hermanos" motorrak egiteko fabrika jarri zuten beste anaien artean. Bera jaiotzerako jarria zuten fabrika.

Transkripzioa

- Eta aita nola etorri zan honea, Zumaiara? - Ba, Zumaira etorri zan, este, Conde de Placencianian txoferra, txofer. Baiño geo jarri zuen taillerra. Geo etorri zian beste anaiak honea ta jarri zuen. Etorri zian lehenbizi lanea, zea, este, zea batek, anai zaharrenak zeukan hamen taillerra, gasolineruak. Gasolin-motorra, bai, motorra. - Gasolina… motorrak iten? - Bai. Eta horrea etorri zian lanea, Zumaira etorri zianian. Baiño agindutako zeak ez zixkoen zeatu, eman, anai horrek, eta in zuen beste danak apartatu in zian. Ba, zian bost anai izango zian. Apartatu zian ta gure aita zan tartian. - Eta orduan jarri zuen Yeregikua. - Jarri zuen "Yeregi Hermanos". - Eta ze iten zuen? - Motorrak. - Motorrak. - Bai. Bai, sí. - Eta ya gerra aurrian hasi zian motorrak iten? - Bai! Ba, hasi zian, ba, en el… Oseake, nere ahizpak zenbat eukiko zitun? Usten det jaioberridxa o urtebete. Oseake, ni jaidxotako ya jarrita zeon. - Jarrita zeon. - Bai. Ni hirugarrena naix. - Mil novecientos veinte inguruan… - Bai, bai, bai. Dieciseis o dieciocho eo. Bai. Ni jaio ta… Oseake, ni hirugarrena naiz. - Eta ordurako ya motorrak eta iten zian, e, Zumaiara? - Orduan gasolinakuak iten zituen. Geo hasi zian diesela beaiek. Baiño gure aita, esto, zeak, gasolinakuak iten zituenian, hil zan. Oseake, zeakin, berrogeita bi urtekin o hil zan. - Gazte. - Bai. Gaztia. Eta beatzi umekin geatu zan gure ama. Pentsa zazu nola geatu zan!

8.4. Kanporako motorrak egiten zituzten lantegian

- **Hizlaria(k):** Yeregi Salegi, Irene
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-022/006
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:06:45. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Lantegiak
Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Ontzi-motak
Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- **Laburpena:** Gerra garai inguruan gehienak batelak ziren, baina laster hasi ziren motordun ontziak ere. Kanporako egiten zituzten motorrak lantegian (Hondarribia, Lekeitio, Ondarroa). Gerra ondorengo urteetan ibili zen bera lantegian lanean eta garai hartan egon zen lan gehien. Makinan lan egiten zuen; osabari laguntzen zion fresadoran.

Transkripzioa

- Baiña orduan oraindik, gerra aurrian gehien bat, hamengo batelak eta gehienbat arraunian izango zian, ez? Edo...
- Bai. Bai. Ez, arraun... gehiena arraunian!
- Arraunian.
- Bai. Baiño geu motorrakin ya, e! Baiño hemen zea, ez zeon hola zeikan, motor txikidxak eta zebe. Hamen ze, bat o bi, ez zan holako zea hamengua. Getaidxan, Getaidxan, Getaidxan zian zea asko. Ta Oridxon'e bai. Eta geo zea're bai, ene!, zea, Galiziraiño.
- Orduan, gehienbat kanporako.
- Bai, kanporako: Bermeo, e, zea, esto, Mutriko, Ondarroa, Lekeitio. Danian. Bai, Pasaira, bai, Pasaian'e bazian, baiño gutxiyo. Ta Hondarrubidxan'e bai, bazian, bai, motor asko zian.
- Eta...
- Horren istoridxak ere badabe, zean, osea, nere anaiak eta badazke.
- Eta hor, e, sasoirik onena, garairik onena zein izan zan, holan, gehien, lan gehien izan zana?
- Ba, orduantxen, bai, ba, sasoi hori.
- "Cuarenta y pocos" edo "cuarenta y tantos"?
- Cincuenta... Bai, ni lanian ibili nitzanian ta lan asko zeon! Ta haren ondoren'e zean'e bai. Geo bajatu zan, geo berriro hasi zian zea're bai, motorrak iten ta. Gurian osaba're ez dakit ze zea zan, ez dakit. Ez zan bate aurea zeatzekua. Ta zeatu in zan, bajatu in zan. Geo illobak eta're danak erten in zuen, porke famili haundidxa giñan. Gu're bai, ta guriak'e Ondarrura jun zian lanea, porke ez zidxoan paatzen ondo taillerrian. Eta Ondarrura jun zian ta beaiek been kaxa jarri zuen. Eta beste lehengusu batzuek ere taillerra jarri zuen. Haidxek ere lo mismo pasa zitzadxoan eta... Ez zan bate, zea, osaba, ez zan bate enprendedoría. Bea bai, hola, bea, baiña ez zan...
- Eta noiz arte izan zan, noiz arte jardun zenuen lanian?
- Ni lanian, ba...
- [...] eta enpresa.
- Enpresak, izango dia, hogeita hamar urte izango dia itxi zala.
- Hirurogeta hamapikuan, edo...
- Bai. Itxi zala, bai, hiruro..., bai, hortxe, hortxe-hortxe ibiliko da, hogeita hamar urte, o, ibiliko da, bai. Ta ni ibili nitzan hemeretzi urte arten. Hemeretzi...
- Gerra ondorengo urtietan, orduan.
- Bai, gerra ondoreneko urtietan. Eske guri hamalau urtekin obligatu in zigun jutea, lanea. Oseake, sozidxo giñan nonbait ta ez dakit nik, bueno, hori beaien zea zan, nik ez dakit ze nola ze zea, baiño gure etxian danok jun behar izan giñun.
- Eta zu makiñara, orduan?
- Ni makinan. Ta gaiñea bi tokitan igual ibiltzen nitzan, zerran, oseake, zeoze haundi samarra bazan ebakitzeko, martxan laga eta fresadora aldamenian zeon, ta fresadoran. Bai.
- Eta ikasi, nola ikasi zenun?
- Ba, haraxe jun ta ikasi! Ibilidxan, ibilidxan. Ta geo osaba bat gendukan. Hark ere fresadora haundidxa zekan barrukuak itekua eta pistoiak eta edo zeak, esto, kulatak eta, ez, ez... Pistoiak nola sartzen dia? Ez dakit, beste zea hori zer dan!
- Zigueñala edo...
- Ez, zigueñala ez. Zigueñala da behekoa, ibiltzen dana. Oseake, zean ba, bielak ibiltzen ditzuna. Oseake han, fresadoran, ta harei laguntzen ibiltzen

nitxan, osabai, bai. Pixu haundiya zekaen piezak ibiltzen zitun osabak eta...
Bai, hantxen! Hemeretzi urte arten!

8.5. UGTren greban pikete gisa aritzearren lau hilabete atxilotua

- **Hizlaria(k):** Elosua Zubimendi, Akelino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-054/020
- **Iraupena:** 0:05:25. **Hasi:** 00:42:55. **Bukatu:** 00:48:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
 - Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Errepublika garaian UGT-en sartu zen. Beste inor ez zegoen eta berak egiten zituen sindikatuko lan asko. 1934an eskuinak irabazi zuen eta UGT-k greba orokorra deitu zuen. Pikete gisa lantegiz lantegi ibili ziren. Aste osoan egon ziren lantegiak itxita. Horren ostean, lanean hasi eta segituan "Goardia de asalto"-ak joan zitzaizkion lanera bila eta atxilotu egin zuten. Donostiako Gobernu zibileko sotoan eduki zituzten lehenbizi, gero Guadalupeko fuertean eta azkenik Azpetiako kartzelan. Lau hilabeteren ostean libre utzi zituzten. Herrian ondo hartu zuten bera itzuli zenean.

Transkripzioa

- Sindikatua ´re sortu gendun.
- Kontaidazu hori pixkat. Republikanua eta, nola sartu zitzaizun zuri republikan kontua ta?
- Republikan kontua, hemezortzi urte nezkan nik etorri zanian, treintaiunuan etorri zan, ta klaro, esan dizut ba, taillerreko zeak-eta, diruak-eta, ez dakit ba nik nondik noa kontajiatu in behintzat. Mitiñak eta hasi zian errepublika denpoan, ta Unión General de Trabajadores-en sartu nitxan. Klaro, sartu bakarrik ez, ez zeon iñor zero iten zekinikan, iñorrek, ta seituan zea, kontable, sekretaidxo, kargo danak!
- (Alabak) Danak.
- Danak seituan, bai. Klaro, hala, treintaicuatruan, treintaiunon zan hori ta treintaicuatruan eskubikuak irabazi zuen gaixki ibili giñalako gu, partituta jun giñan ezkerra ta eskubikuak irabazi zuen, ta orduan huelga jenerala deklaratu zan, deklaratu zun UGTk, Largo Caballerok. Ta guk Zumaian zortzi egun geatu genduzen, taillerrik tailler ibiltzen giñan piketiak. Oain lotsagabiak diala ta hau ta hura esaten ziou, ta geu ibiltzen giñan horrela! Ta kejatzen, piketiak...
- Eta pikete gogorrak?
- Aste guztidxan eon zian taillerrak geauta, geldiikan, errespeto gogorra ziun. Indarra ´re bagenduan orduan, gaztetan-ta haundidxak giñan. Larogei bat eo gehio bai sindikatuan ta, danak haundidxak gintuan. Astebate o ibili gaituk horrela, geldiikan herridxa, konsigna hori eman ziun: herridxan bertako indarrak geatzeko, iñoa ez juteko mouan, entretenitzeko ta kunplitu gendun guk hori ta. Ya Asturiasen-ta frakasatu zuenian, ba, atzea lanea. Ta lanian hasi ta egun gutxira, ba, guardia asaltuak billa lanea. Lanian Yereginian ai nitxan ni, esan dizuet lehen. Ta ofizina juteko. Ta jun naiz ofizina ta guardia asaltuak han. "Queda usted detenido. Venga usted

con nosotros al ayuntamiento", ta klaro, "Déjeme cambiar la ropa", ta ezta erropa [...]! Laneko erropakin hartu ta aiuntamientoa. Ta hemeatzi Zumaian juntatu giñan aiuntamientuan!

- Detenituta.

- Detenituta. Ta batzuek txaloka ta bestiak nearrez, ta ordun´e bakizu, bazeon ba, batzuek txaloka ikusten genduzen guk ta bestiak nearrez. Ta autobusa etorri zan ta hemeatzi hartu ta Donostira, zeara, Gobierno Civileko sotanoa eraman giñun. Bai, han bi egun eo [...] ez jan ta ez ean ta ez kabitu´re in eziñikan. Ta zea detenitu zuen, [...], Donostiko teniente alcalde o izan zan, sozialista. Ta hura´re detenitu hura´re, hura´re zeauta, kunplikauta gu´re beakin, ta. "¿Cómo estás aquí? Así no se puede estar". Kejatu zan hura gobernuai o zeai, gobernadoriai o polizidxai o kejatu zan, porke klaro, lotako´re tokiik gabe gintuan.

- Etzateko´re ez!

- Alkarren gaiñian! Ta kejatu zan hura, ta hartu ta Fuerte Guadalupea eaman giñun danok, Fuerte Guadalupen.

- Fuenterrabin.

- Hondarrabidxan. Ba al dakizu nolakua zan hura? Ez ziñaten behiñ´e izango barruan.

- Ez.

- Ba hura dao mendidxa zeauta...

- (Alaba) Janda.

- Hustu erditikan, baiña luzian. Bastante... Ez dakit zenbat zan, uan ahaztuta nao zenbat, baiña idxa ehun bat metro igual dao hura, zea haundidxa, avenida haundi bat bezela. Ta geo ixker-eskubi, beste hainbeste zea, beste hainbeste...

- (Alaba) Tunel, edo.

- Zea dabe, fuertia zan-ta. Hara eraman giñun. Ta han´e oso gaixki. Zikiña ta...

- Hotza ta.

- Bai, ba. Probintziko danak, danak hara, danak han. Oso gaixki eon giñan han´e. Karo, nahi zuen kastigu bat eman guri, baiña ez zuen billatzen zeikan. Nahi zuen, baiña ez zuen billatzen...

- (Alaba) Nola.

- Postiak bota genduzen, ba, zean, estazidxuan trena geatzeko? Ba, hori hartu zan testigu ta zeñek in zuan, ta iñorrek ez zula aittu, zeatu, ta. Han eon giñan pixkatian, hiru bat hillabete o, ta handikan Azpeitira, Azpeitiko kartzelea ekarri giñun, juizidxua iteko o prepaatzeko zeara. Orduan lehen esan deuna, oiñez han etortzen zan ama, Karlota...

- (Alaba) Andria.

- Artian ezkondu gabe giñan gu, nobidxuak, baiña han etortzen zan bixitan. Ta hara´re in gendun, ez dakit zenbat denpoa in gendun! Baiña kuestidxua ez zuela zeatu ta zeatu in zuen, "sobreseída la causa", kalian geldiu giñun. Lau hillabete ta zortzi egun in genduzen [...] zala ta ez zala!

- Kalera bai, baiña lau hillabete...

- Bai!

- (Alaba) Danok batea kalea?

- Bai, "sobreseída la causa". Ez ziun, ez ziun zeatu, ta. Bai, hori izan zan...

- Eta herrira bueltatzian, zer?

- Ez, ondo. Ni ondo hartu niñuen. Herrira bueltatzian gaiñea, gobiernuak orduan beste lege bat in zun, ya huelga in genduanak kalian lagatzeko libertadia eman zidxoen patronalak, baiña nerekin ez zian gaixki portatu Yereginekuak. Seituan esan zien ez kasuik iteko, [...] juteko lanea. Klaro, falta iten nun ta! Jungo ez nitxan, ba? Lanea! Baiña geatu zian batzuek.

8.6. Mitinak; errepublikak langileen inguruko legeak sortu zituen

- **Hizlaria(k):** Elosua Zubimendi, Akelino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-054/022
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:49:20. **Bukatu:** 00:52:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
 - Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- **Laburpena:** Errepublika garaian, mitinak ematen ziren eta bera ere hitz eginda dago udaletxeko balkoitik 18 urte zituela. Artean ez zegoen langileen legerik, eta errepublikarekin lege asko sortu ziren: zortzi orduko lan-jarduna, oporrak, "ley de términos municipales", "ley de accidentes de trabajo"... Metaleko hitzarmena egin zenean, bera ere ibili zen tarteko. Berak euskaraz ematen zituen mitinak. Noizbehinka ekartzen zuten kanpokoren bat mitina ematera. Herriko jende "ilustrea" (medikua, irakasleak...) ziklo batera gonbidatu zituzten, baina ez zuten denek onartu.

Transkripzioa

- Eta esan dezu hamen republikanetan mitiñak eta izanten ziala?
- Bai! Neuk´e euki nitun neuk´e neure mitiñak!
- Zeuk´e bai? Zeuk eman?
- Bai, primero mayon ta. [...], bai, bai, bai. Hamen, aiuntamientuko leihotikan hitz einda nao ni gaztetan.
- Eta, ze? Ze mitin klase izaten zian?
- (Alaba) Eta hori hemezortzi urtekin.
- Bai, ba. Hemezortzi urte orduan. Baiña hemezortzi, geo hogeita bat arte, zea, gerra etorri zan arten. Gerran hogeita hiru banezkan, baiña hogeita bat urtekin eon nitzan kartzelan, gaztiena ni nitxan, treintaicuatron. Kartzelan gaztiena ni nitxan.
- Eta mitiñak orduan inguruko herrixetan eta?
- Mitiñak ez zian horren sarri iten. Zeoze, zean bat zanian. Eske, orduan ez zeon legeikan bate. Esate bateako, ez zeon langille legeikan.
- Bai.
- Ta ein zian "[...] de Trabajo", zortzi orduko zea orduan jarri zan. Bakazidxuak orduan jarri zian. "Ley de Términos Municipales" horkua da. Lehenotikan nausidxak, hamen ez zan ohitura hori, baiña nausidxak herriz herri ibiltzen zian zeak, reboluzionaidxuak eo protestantienak laga, ta bestiak eamaten zituen lanea. Ta "Ley de Términos Municipales" ein zuen, ein zun errepublikak. Parua zeon bitartian herri batian, besteko langilleik etortzeik ez zeon. Bai. Ta "Ley de Accidentes de Trabajo" ez zeon. Zeona hil ta anai horrek ezer ez zun kobratzen. Orduan lege asko in zian!
- Republikan.
- (Alaba) Ta geo mantenitu in zituen, ez?
- Honbre, klaro. Baiña errepublikak lehenbiziko konbeniua sindikato metalurgikua in zanian, parte hartu nun nik, Donostira sarritan juten nitxan konbeniyua in zan arte. Egilaz ta bidxok. Herridxan ez zeon eskola zeukan mutillikan, ta nik batez, nik gutxi ta bestiak batez. [...] ezer ez, baiña... Ez zeon besteik eta!
- Eta mitiñak eta eukeraz, edo?
- Euskeraz. Nik euskeraz neuriak iten nitun ta Garcés-ek erderaz.

- Eta euskeraz eta hitz eiteko, lehen, huelga kontuak eta reboluziyua ta, holako kontuak eta euskeraz eta, nola [...]?

- Bazian, bazian, bai, orduan´e bagenduzen, bai, bagenduzen.

- Eta kanpoko jenderik eta etortzen zan mitiñak ematea?

- Ez.

- Eibarretik o...

- Aldidixan behin bai, aldidixan behin ekartzen gendun baten bat. Ta hori baiño gehidxo, hamen bertako zea gehidxo organizatu nahi izan gendun, ez gendun konsegitu, baiña. Bertako intelektualak eo zeak, meikua, maixua... danak inbitatu zituen ziklo bat eiteko konferentzidixanak eta. Ez zun danak ametitu. Diplomazi earrakin erantzunak eman zixkiun! Orduan eskolan, zea zeon eskolan maixu, bueno!

- [...]?

- Ez, lehenotikan, txiki bat. Erdaldun pillua ekarri zuan bat. Ahaztu zat. Seme-alabak´e bazezkan hamen bizi zianak. Gizon txiki bat zan. "Mientras haya dos banderas distintas en el dintel de un ayuntamiento, no puedo participar", ta, halako zeak.

- Orduan ya.

- Meikuak berriz, Ajuriak berriz, libro bat eo eskribituta emango zigula konferentzidixan, ta "[...] libruak leetuko dixkiu!" erantzun giñon, ta horretan, hola ibiltzen giñan. Bai, hola ibiltzen giñan.

8.7. Ortiz fabrikako lan-giroa

- **Hizlaria(k):** Egaña Elorriaga, Magdalena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-058/008
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:18:40. **Bukatu:** 00:21:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- **Laburpena:** Ortiz kontserba fabrikako lan-giroa. Kantuan egiten zuten lanean ari zirenean. Gaztelaniaz abesten zuten gehiena, baina euskaraz ere abesten zuten. Langile gehienak emakumezkoak izaten ziren eta inguruetatik etortzen ziren lanera. Gerora jende asko sartu zen kanpotik. Gizon batek esaten zien 100etik gora langile zeudela.

Transkripzioa

- Ta nolakua zan Ortizeko, Ortizeneko lana?

- Lana? Ba... broma earrakin ta, hurrengo erritan ta, kantua nahikua!

- Bai?

- Ene! Radidxo batek aiña o gehidxo. Gaiñea zaben emakumiak gu baiño... ba! Gu gaztiak giñan orduan ta, emakumiak earki kantatzen zuenak eta, lehengo kanta zahar danak kantatzen zian. Kantau asko!

- Bertsuak ere bai, edo...?

- Ez, ez. Bertsuak baiño gehidxo, kantatu.

- Ta euskeraz eo erderaz zian?

- Erderaz gehidxo, baiño euskerazkuak ere bai batzuek ibiltzen zian, baiño erderaz gehidxo, ordun dana erderaz.

- Eta, zu, gehidxenbat emakumiak izango zian?

- Bai, gehidxenak emakumiak lanian. Gizasemiak, mutil-koskor batzuk ibiltzen zian gatza karriatzen ta horrela. Ta geo kaldererua ta, latakit itxitzen zituna ta, lata montatzen zitunak eta horrela, gizon batzuek. Uan, uan, bueno, uan-uan ez dakit zenbat daben, baiña, geo ya gehidxo eoten zian. Baiño gehidxena beti emakumia.

- Emakumia, eskulana emakumia.

- Bai, emakumiak, bai.

- Eta hamen ingurukuak? Zumaidxa...

- Zumaidxa, Arrua, Zestuatik ere bai etortzen zian. Arruatikan etortzen zan bastante jente. Arrua Goitik´e bai, ta Arrua Errekatik etortzen zan kuadrilla haundidxa, etortzen zian, bai. Bestela... Ta bueno, geo gaiña Zumaidxan sartu zan jende asko ta orduan, ba, erdaldun asko. Geo in zuna hor, zeau, uan zutik daon hori in zun, ta hor ehunetik gora. Bueno, guk geuk ez giñun kontatzen. Han aittona bat eoten zan, beste zeriñik ez zun eukitzen ta, "Zenbat lagun bizitzen zeate?" o "...zaudete hor lanian?" esaten zigun. Ta "Ez deu kontatu". Ta "Nik bai. Ehunetik gora zeate!".

- Hori izan zan gehien...

- Bai, horrela, antxobetan-ta ta... Eske lehenoz ez zan oan bezela lana iten. Lehenoz emakumiak arratsaldian´e juten zian lanea. Geo ya seguruak eta hasi zianian, ba, ya diferente. Zortzi ordu behiñipein iñ in bihar seguruak paatu-ta iteko, baiño lehenoz emakumiak arratsaldian asko juten zian.

- Han hasieran goizian lan, o etxian...

- Itxian in ta geo ya umiak pixkat koskortuta zazkanak o batek bestiai o... Zure izekok´e hantxe juten zian.

- Ze izeko?

- Garbiñe, Manolita eta hamen, Matilde.

- Matilde, bai. Han ibilitakuak.

- Bai! Nahiko parre iten zuen haidxek, gaztien aldamenian jarri ta...

8.8. Ortiz kontserba-fabrikan 25 urte

- **Hizlaria(k):** Egaña Elorriaga, Magdalena
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-058/009
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:21:15. **Bukatu:** 00:24:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- **Laburpena:** Ortiz kontserba-fabrika non zegoen lehenago. 1954an lekuz aldatu zen. Hasiera batean ez zegoen kontraturik eta orduko ordaintzen zieten. Etxean ere egiten zituzten kontserba-lanak. Hasieran gabonetan bakarrik izaten zituzten oporrak, baina gerora lan-baldintzak hobetzen joan ziren. 25 urte egin zituen Ortiz fabrikari, 1950ean hasita. Ortiz fabrikaren jabeak Ondarroatik etorriak ziren.

Transkripzioa

- Ta fabrika nun zan lehen? Oain, geo, esan dezu...

- Mataidxa nola bota zuen ta in zuen itxia? Hiru teillatokuak? Zelaiena o zan. Oaindik ez da ba urte asko bota duela hura! Matai atzian.

- Matai atzian, bai, bai, bai, bai.

- Hiru teillatokin.

- Bai, bai.

- Hiru pabelloi. Goidxan. Hantxen. Goidxan kalderak-eta zaben...

- Talaimendi barreneko zean...

- Bai. Talaimendidxan barrenian, itxia in duen horretantxe. Itxia, hor azkena in zuen itxe hartan.

- Orduan hasi-hasi hantxe izan zan?

- Han in nitzan, hasi han in nitzan. Eta geo honea, cincuenta y cuatro usten det jun giñala. Cincuenta y cuatron hamen hasi giñan, ta uan arte. Urteak jungo dia, urteak jungo dia berridxan ai diala.

- Eta esan dezu, hasieran holan, kontratuak eta holako, ez zala... oain bezela ez zala.

- Ez! Ez zan orduan! "Lanik ba al dao?" Ta, "Bai". Ta jun ta... "Itxian ba al dakazue ahizpikan o horrela laneako moukua?", ta "Bai" o "Ez", ta.

- Eta kobratzen zan eguneko o?

- Orduko, orduko.

- Eta? Zenbat?

- Uno veinte, o ez dakit zer orduan. Ta geo antxobeta freskuan gehidxo! Hori filetian. Antxoa ta atuna gehidxo paatzen zuen, gehidxo paatzen zuen.

- Geo itxian ta iten al zenduen zuek´e konserba?

- Bai. Bai, bai. Atuna, atuna ez, baiña antxoba bai.

- Ez al ziñaten aspertu lanian ta...

- Ez, ez, behiñ´e, behiñ´e, behiñ´e. Behiñ´e aspertu ez atunakin eta ez antxubakin jaten-ta, behiñ ez, ez, ez. Antxobakin gaiñea, zailla da aspertzen!

- Jaten bai, baiña prepaatzen esaten det. Lanea bai, baiña etxeako...

- A! Bueno! Baiño itxian, bai, iten giñun. Noixian behiñ in ta bale. Hurrengo bakazidxuak genduzkanian o beste batzuek eta horrela. Baiño gu beti.

- Eta bakaziyuak eta izaten zian?

- Bai. Gabonetan iten giñun egun batzuek, aste bete eo horrela iten giñun. Ta geo ya, ya geo ya ez. Geo ya zeak eta hau ta jarri zian, seguruak eta...

- Seguridade Soziala ta.

- Bai, bai, bai, bai, bai.

- Zu beti hor ibili zea orduan...

- Ni bai, bai, beti.

- ...Ortizienian eta lanian eta urte asko, orduan?

- Bai. Dizenbrian cincuentatikan setenta y cinco arten, erdira arte.

- Hogeita bost urte.

- Bai. Ta geora´re ibili nitzan, geora, baiña hor ya fijo ez, atunetan ta hola. Beste hiru bat urte o in nitun.

- Eta Ortiz zer zan, kanpotik etorritako fabrika, edo?

- Zeakua! Ondarrutikan, honea Ondarrutik etorri zan. Ez dakit Ondarrutarrak dian o nola dian. Hori ez dakit nola...

- Eta erosi in zuen hemengo...

- Hura ez. Hura ez zan. Hura zean, alkilerrian. Zelaiena zan hura iñundikan´e. Hura salduko zan uan itxia iteakuan seguruna. Hori bai, hori beria.

- Hori beria, ya beaiek indakua.

- Bai, bai, bai, bai. Hori bai. Hori beria.

9. Politika

9.1. Erreketeek Oikiako apaiza eraman zuten; haren pistolaren anekdota

- **Hizlaria(k):** Etxabe Oliden, Bartolo
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-010/008
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:19:40. **Bukatu:** 00:24:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
 - Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- **Laburpena:** Gerra hasi zenean, bera mutikoa zen. Mendi gainetik erreketeak azaldu omen ziren lehenbizi. Beren martxan zetozen soldaduak eta pasaeran baserrietan jatekoa lapurtzen zuten. Gogoan du nola komandanteak pistolarekin mehatxatuta eduki zuen Oikiako apaiza, frontoi parean. Azkenean, eraman egin zuten. Apaizak pistola utzi omen zuen elizako aldarearen atzean eta sakristauak lurperatu egin zuen. Berak nolabait enteratu eta pistola lurpetik atera eta urteetan etxean eduki zuen gordeta.

Transkripzioa

- Hamengo gerran hasieran, gu mutil koskorak giñun. Kao, geo gerrak urtiak pasa zixkiñ...
- Bai.
- [...] gero. Baiña hasiera lehenotik eman ziñ.
- Bai, bai, bai.
- Hor, oan, goian, mendi horren gaiñian piñuak eta ikusten dittuk?
- Bai.
- Hor gaiñian naparrak azaldu hittun lehendabizi.
- Reketiak?
- Reketiak, lehendabizi, gu mutil koskorak giñun.
- Eta hortik, e...
- Eta hamengo...
- Hortik [...]?
- Hortikan geo Oikiya etorri hittun, hortikan, tropatan, ta. Gero hortik...
- Eta hamen, batallarik eta izan zan hamen Oikiyan? Ez.
- E?
- Hemen, reketiak eta sartu zianian?
- Ez, ez.
- Gerrarik ez, ez? [...].
- Ez, ez, ez. Ez, ez. Kao, soldauak zean bezela, zeaka, haiek martxan zatoztinak gosiak eta. Oillatokittan ta in ziyen zeoze, aberiya, oillo batzuk harrapauta ta. Nik goguan zakat Oikiyako frontoian ordun zeon apaiza komandantiak, numero tresen parian, jata tirillak eta danak kendu zixkon ta, pistolakiñ apuntatzen eon zala, bertan hil behar zula ta. Ta ez ziyen bertan hill. Zumaira eaman ziyen zeak, hiru soldauk, bi alde banatatik ta beste bat atzetik. Karo, hori... Oikiyan ordun zeon apaiza.
- Eta apaiza zeaitik eraman zuen?
- Apaiza oiñez eaman ziyen... Zeatik?
- Ez, ez, zeatik.
- Beste koloreko zalako.
- Gorriya ez zan izango baiña, ez?

- Gorriya o... Ordun bi kolore bakarrik hittun. Oaiñ milla kolore zabek, baiño ordun...

- Alde edo kontra.

- Ordun gorriyak eta karlistak [uste det] izaten zuan ordun. Ta hori nola eaman zan [...] nik. Ta harek, [...] ta!, harek laga zun pistola, pistola bat zakan apaizak, altarian atzeko zean laga ziñ. Ta sankristauak enterrau in ziñ. Ta nik in nin billau. Ta nik euki niñ igual pistola, pistola, holako pistola txiki bat, haren pistola, euki nin igual hogeita hamar urtian gordeta.

- Gordeta.

- Itxian ez dakiyela. Iñoi esan gabe, neu, neu bakarrik. Hori lehengo baserri zaharrian, ganbarako habe haundi batian. Ordun holako habe haundiyak hittun, biga haundiyak. Haietako baten gañian eukitzen niñ pistola hori, bere kargadoria kargauta, ta balak [...] euki nin, ta. Geo ez zekit nola dan... Etxia bota gendunian, han beheko basarri zaharra bota gendunian, nei akordau o. Kao, han eukitzen ninian ez nion kasoik in, ta. Ordun [...] seguru asko hor enterrau ingo huan hua, pistola hua, baiño. [...] gustatu iten zeai eukitzia [...] oaiñ.

- Eta Oikiyako apaizana zan hori.

- Ba, bai. Oikiyako apaizana.

- Ta nola enteratu ziñan zu bertan enterratuta zeola, edo sakristauak ezkutu in zula?

- Sankristaukiñ administradoria eo, sankristauakin... Kao, gu mutil koskorrak belarriyak zorrotzak genduzkan ordun, ta eozar gauza jaso iten giñun. Ta ni enterau eo. Ba, haiek konbersaziyua eukiko zuen baten batekiñ harek, ta...

9.2. Apaizen eraginez hasi zen musika kontuetan

- **Hizlaria(k)**: Etxabe Etxabe, Benito
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-012/006
- **Iraupena**: 0:03:10. **Hasi**: 00:08:25. **Bukatu**: 00:11:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
Aisia » Kultura » Musika
Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- **Laburpena**: Komunio handia don Joakin Dorronsoro apaizarekin egin zuten. Komunio handira don Nemesio Etxaniz etorri zen. Hark ume guztiak musika ikasten jarri zituen. Alkate karlista jari zenean, bota egin zuten don Nemesio, nazionalista zelako. Horren ostean don Inazio Goikoetxea etorri zen eta harekin hasi ziren musika kontuak lantzen. Don Angelengana joaten zen Zumaiara musika ikastera; baserritar guztien artean ordaintzen zituzten bere klaseak. Handik aurrerakoak bere kasa ikasi zituen.

Transkripzioa

<p>- Eta musika kontuak eta, organo kontuak, nola, nola hasi ziñan zu?
 - Ba hor, zean, etorri huan Don Joakin Dorronsoro, zea huan, aurreko apaiza zea, zaharra hil zanian, geo ordun etorri zuan hua. Ta geo hark´e urte batzutan kumuniyo haundiya harkin in giñun. Ta

geo ordun, komuniyo haundin zea hortan etorri huan Don Nemesio Etxaniz. Ta hark berriz jarri zixkin umientzako ziniak han zean, azpiyan. Ta musika ta hasi ta jende guztiya musika ikastea ta bea, zea, famatua [...], ba, kantua ta musika ta zea [amorratua] ta. Ta geo bota in ziyen. Orduan hemen [gure auzoko etxea etorri] karlistak eta, [aurretik] alkate zeona karlista, ta abade zea hau…
- Nazionalista.
- … hau nazionalista ta… Zeoze esan zula ta fuera bota zuen. Ta akordatzan nauk arratsalden, bezperata jun ta zenbat jende zan han, despedida eman zunian. Danak ondo hartu zuen hua, Don Nemesio, ta.
- Bai? Don Nemesio?
- Bai.
- Nungua zan bea?
- Debakua.
- Debakua.
- Debakua, bai.
- Ta hiru… Gaiñea itxia berritu in zin, zea, ta hiru anai-eo etortzen hitun horrea, ta bat Basakartekuakin ezkondata ta. Ez, bi anaie Basakartekuekin ezkondata zaben.
- Eta, orduan, Nemesio Etxaniz izan zan, Don Nemesio, hamen musika kontua ta berak jarri zun martxan?
- Bai, bai. Geo hua bialdu zien ta, ordun, hua zeatu zanian, Don Nemesio o zea sartu huan… Don Inazio zea… Dios, hau... buru hau! Goikoetxea!
- Goikoetxea.
- Mendaroneko zea hori. Ta horrek, ba, orduan […] ba, ikasi in behar zala o zeoze. Batenbat zea…
- Musika.
- Musika zea, ta. Haekin hasi giñun zeoze zeatzen ta, kantatzen ta, tonua eman ta, zean ta kantuan ta. Baiño hua zeatu zanian´e…
- Orduan zu zure…
- Geo…
- … horrela hasi ziñan?
- Bueno, seitu in behar zala ta, Don zea horrek, Don Iñaziok baserritar danakin o zeatu zian ta. Nei zeak, gastuak paatzeko hillian bost duro zer izaten zan zean. Ni Zumaira juten niñun, zea, Don Angelena, zea, musika zeatzea, ta. Handik aurreakuak, berriz, ba!, pixkat…
- Jardun ta…
- […] laga nitxion harei ta, geo neure kasa.
- Eta ordun klasiak, Zumaiko klasiak eta, baserritar guztien artian pagatzen zian?
- Bai.
- Zure klasiak.
- Bai.
- Ta holan ikasi zendun.
- Bai. Bai, solfeua zeatu bittartian. Ta geo, geo solfeua ikasi nunian, ba, neure kasa hasi ta…
- Eta oaiñ arte.</p>
</div>
<div data-bbox="289 644 886 675" data-label="Section-Header">
<h3>9.3. Sagarrak eta errazionamentuko boniatoak okindegira eramaten ziren erretzera</h3>
</div>
<div data-bbox="328 690 892 946" data-label="List-Group">

• **Hizlaria(k)**: Garate Elosua, Joseba
• **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
• **Erref**: ZUM-019/010
• **Iraupena**: 0:01:35. **Hasi**: 00:22:35. **Bukatu**: 00:24:10
• **Multimedia**: bideoa online ikusgai
• **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
• **Gaia(k)**:

Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

• **Laburpena**: Sagardoa ere edaten zen, baina gehienbat txotxeko sagardoa, sagardo gozoa, "muztioa" esaten zitzaiona. Parrokiatik behera egiten zen sagardoa. Udazken-negu aldean izaten zen hori eta garai horretan sagar-erreak jateko ohitura zegoen. Sagarrak okindegira eramaten ziren erretzeko. Errazionamenduan ematen ziren boniatoak ere halaxe erretzen zituzten. Errazionamendua 50era arte egon zen.

</div>

Transkripzioa

- Eta sagardua? Sagardua eaten zan?
- Bai, sagardua eaten huan, baiña zeian, txotxekua. Saardo gozua gehidxo. Hazi goxua, zea, mustidxua esaten dana. Hamen behian zuan. Parrokidxa... Hamen behintzat gure behian.
- Hamen bertan?
- Bai, parrokixan behera, parrokixan behera. Parrokixa hemen ziok, parrokidxan behera iten zien. Ta lehenbizi mustidxua, ta gozo-gozo hori, ta geo ya, barrikakin txotxetik. Botellakin, botella, gu botellakin juten gitxian.
- Negu partian eta izaten zan.
- Bai, bai. Bai, negu partian, udazkenetik zeara. Eta negu partian'e bestia izaten huan, ya que uan sagarduakin akordatzan naiznen, sagar-erriak. Bandejetan hartu eta panadeira eramaten huan. Gose-denboan'e bahuan pixkat. Sagarra zakanak, sagarra hartu bandejetan, panadeira eraman ta geo, hamabitan o jun, ta sagar-erriak hartu ta itxea.
- Panadeian erreta.
- Panadeian erreta, bai. Zea're bai. Boniatua're bai. Boniatua ematen zien, razionamientua zuan, gaiña. Boniatua're...
- Hamen ez zan ingo, ez, boniatua?
- Ez, ez. Eman iten zien! Ekarri iten zieneta razionamientuan ematen zien, razionamientuan garai batian. Razionamientua berrogeita hamarrera arte o eon huan, nik hamalau urte nazkala alde arte, e! Uaindik'e bazekat etxian razionamientoko kartilla.
- Kartilla?
- Bai.
- Eta boniatua orduan...
- Ta, boniatua, ba, patata bezela ematen zien ta erreta jan behar izaten huan, erreta, patata bezela erreta. Panadeian, bandejan eamaten gitxonaun, bandeja ezauna izaten zitxuan, ta geo billa jun ta etxea. Sagarrak bezela, sagar-erriak bezela.

9.4. 1936ko udal hauteskundeetan bost zinegotzi errepublikazale

- **Hizlaria(k)**: Elosua Zubimendi, Akelino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-054/021
- **Iraupena**: 0:01:00. **Hasi**: 00:48:20. **Bukatu**: 00:49:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Jarrera politikoak » Errepublikanoak
 - Politika » Jarrera politikoak » Abertzaleak
- **Laburpena**: Zumaian baziren errepublikazaleak. 1936ko hauteskundeetan, udalean bost zinegotzi atera zituzten. Hala ere, Zumaian gehienak abertzaleak ziren.

Transkripzioa

- Eta republikanuak eta Zumaian bazian orduan?
- Bai. Neu, republikano aktibua. Trentaiseisko aiuntamientuan bost konzejal atea genduzen!
- Zenbatetik?
- Orduan uste det hamaika izaten ziala... Oan hamahiru dabe, orduan hamaika igual... Bost genduzen. Bost. Bueno, republikanuan izena, o

liberalak eo orduan zea zian...

- Edo liberalak, edo, bai. Sozialista o...

- Bai.

- Ta gehiago republikanuak sozialistak baiño.

- Izena, republikanuan izenakin erten zian danak, edo erten giñun.

- Bestela Zumaian nagusi abertzaliak izango zian, ez?

- Bai, bai, beti. Nazionalistak beti, abertzaliak izan dia, bai. Bai, treintaicuatroko [...], treintaiseiseko aiuntamientuan, febrero treinta y seis, bost konzejal erten zuen.

- Republikanuak.

- Karo, kartzelan zeon jendia ta orduan atea zan zean. Orduan...

- Frente Popularra ta...

- Frente Popularra ta, orduan irabazi zan ta orduan, orduan libratu zian.

9.5. Gerra hasi zenean udaletxearen jabe egin ziren

- **Hizlaria(k)**: Elosua Zubimendi, Akelino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-054/023
- **Iraupena**: 0:02:00. **Hasi**: 00:52:55. **Bukatu**: 00:54:55
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
 - Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Borroka handia zegoen UGT, sozialista eta beste alderdien artean; ikusten zen gerra bazetorrela. Gerra hasi zela jakin zutenean, udaletxearen jabe egin ziren eta herriko karlista guztiak atxilotu zituzten, 31 guztira. Udaletxeko goiko saloian eduki zituzten preso. Anarkistak etortzen zitzaizkien bila eta beraiek gogor hartzen zituzten.

Transkripzioa

- Ta geo, bakizu, borroka ´re haundidxa zeon, [...] baiña hamen ´e bai.

UGTkuak eta, sozialistak eta, falangia ta, hasi zian Madrillen ta Barzelonan ta, herri hoietan, elkar hiltzen eta. Ya enbenenatu in zan anbientia. Ikusten zanian gerra ya...

- Ikusten zan?

- Bai, bai.

- Gerra bazetorrela?

- Bai, bai. Gerra bazetorren, ikusten zan, ikusten zan. Ezin zala bizi ya ikusten zan.

- Eta etorri zan.

- Bai, sartu zan, bai, Tito.

- Eta zelan enteratu ziñan gerra sartu zala?

- Ez naiz gogoratzen nola enteratu giñan, baiña enteratu bakarrik ez.

Behalaxe jun ta aiuntamientuan jabe in giñan. Aiuntamientuan jabe gu in giñan.

- Republikanuak?

- Bai, republikanuak. Bai, bai. Nazionalistak horrela zeuden ba, ze aldeta jokatu [...] eziñik...

- Bai, dudan.

- Ta gu jarri in giñan aiuntamientuan. Bai. Garcés ta ni ta beste bat. Garcés gendukan buru. Zea bat zan, aragones bat, estadidxuan enpleatzen zana,

Urolan, enpleatzen zan mutil bat, eskola dexentekin ta. Donostitikan boikota in zidxoan, ebanista zan, ta boikota in zidxoan [...] sindikatuak eta moitzen zitulako. Ta honea, [...] onduan, republikanuak [...], honea bialdu zun zeak, Urola enpleauta. Harek, haren bitartez ta harekin ondo konpontzen giñan, aiuntamientua manejatzen ta. Detenitu ´re in genduzen zea danak, karlista danak. Hamen, hamen, hamen nekan zeauta...

- (Alaba) Apuntauta.

- Bai. Ta herriko karlista danak detenitu [...] ta. Hogeita hamaika.

- Hogeita hamaika?

- Hogeita hamaika detenitu ginduzen. Ta aiuntamientoko goiko saloian eon zian preso ta zeak etortzen zian, anarkistak, billa, zeatu nahidxan. Ta haidxei frente eman ta. Gogor hartzen genduzen!

9.6. Herriko karlistak preso hartu zituzten udaletxean

- **Hizlaria(k)**: Elosua Zubimendi, Akelino
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-054/025
- **Iraupena**: 0:01:45. **Hasi**: 00:55:55. **Bukatu**: 00:57:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
 - Politika » Jarrera politikoak » Liskarrak politikan
- **Laburpena**: Udaletxea hartu zuten eta herriko karlista guztiak atxilotu zituzten. Dudakoak ziren "txaperoak" (udaltzainak) eta mikeleteak desarmatu egin zituzten. Frantziatik etorri zenean, atxilotuta egon zirenetako askok eskerrak eman zizkioten ondo portatu zirelako.

Transkripzioa

- Eta karlistak orduan salon de plenosen?

- Karlisten zea, hasi zian, ba, hoidxek ´e ibiltzen pistolakin ta entrenamentuan-ta ´re, ya jakiten gendun gu zein. [...] gendun, ta detenitu genduzen.

- Eta lista hori zeinnek in zun lista hori? Edo nundik atea zenuen?

- Geuk iten gendun. Guk eiten genduzen hauek danak.

- UGTn?

- UGTn ez, aiuntamientotikan.

- A, karo, republikanuak.

- Ta txaperuai, txapero faxistak ´e bazeben. Desarmatu in genduzen! Bai, bai. Ta mikeletiak ´e bai, bat baiño gehio. Ez zianak konfiantzakuak...

- Eta zenbat egunian izan ziñan...

- Hor? Ba, ez dakit, sartu zian arte. Nazionalak sartu zian arte eon zian hauek danak deteniuta hor goian. Ta Frantzitik etorri nitxanian, batek baiño gehio hauetakuak eskerrak eman zian nei ondo portatu giñalako. Bai, bai. Apeztegi ta [Pafus] ta. Hoidxek eskerrak eman zien nei, klaro, hoidxek defenditu eziñik ibili giñan, ta! Detenitu bai in genduzen, baiña gero hoidxek defenditu eziñikan, hoidxek gorde eziñikan anarkistetatik eta. Eskerrak ematen zizkien nei.

- Hildakorik eta izan zan?

- Ez!

- Zumaian?

- Ez, Zumaidxan ez. Bueno, hil zuen bat, baiña guk alde in ta gero-eo, ya

ebakuazidxua in da geo-o. Paolen billatu zuen baten bat hilda. Ez, guk ez gendun iñor zeatu, iñor gaixki hartu. Kate motxetik eamaten zidxoan, ta hantxe, danak hantxe euki bakarrikan, ta bijilatu ta. Nazionalistak etorri zian, eun batzuetan eo eon zian dudak, ta ya geo, laguntzakin, bi zeak eoten zian txandan: zentinelak o guardidxa, [...] zana.

9.7. Zumaiaiko familia asko Santoñara ihesi

- **Hizlaria(k):** Elosua Zubimendi, Akelino
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-054/026
- **Iraupena:** 0:04:50. **Hasi:** 00:57:40. **Bukatu:** 01:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
 - Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ihes egin beharra
- **Laburpena:** Zumaia asko joan zen boluntario batailloietara. Donostiara joaten ziren asko. Honen inguruko kontuak. Unerik gogorrena herria ebakatu behar izan zutenekoa izan omen zen berarentzat, gurasoak Zumaian geratu zirelako. Itsasontzia prestatu eta herriko jende askok alde egin zuen. Ontzigintzari esker, Santoñara erekin harremana zuten eta familia asko Santoñara joan ziren. Santoñara ihesi egindako aberats baten etxean egon ziren zumaiairrak.

Transkripzioa

- Eta Zumaia eta, jendia batailloietan eta organizatu zan edo?
- Mordua jun zan boluntadxo.
- Baiña Zumaia bertan bazeon batailloirik?
- Zumaia osaba bat hil zan, Fermin, hamen, zeon, frentian, Bizkargin. Ta anaidxa, [...], heritu in zuen. Boluntadxoak asko jun zian UGTtikan, gaztiak.
- Eibarrea?
- Eibarrea, Batallón UHP, Batallón... nola da? Hermanos Proletarios. Bai Eibar... Donostira gehidxenak. Donostitikan, bai. Donostiko zea, sublebazidxa izan zanian jende asko jun zan hamendikan han zeatzeko. Tartian osaba karabiñerua, Cabrera jun zan. Fusillikan manejatzen haretzek bakarrik jakingo zun, beste iñork ez zun jakingo!
- Eta herridxa eta, jenderik geratu zan hamen, herrixan bertan?
- Bai, bai.
- (Alaba) Andriak.
- Geo, hori geo ya, gerra sortu zanian, ba, hasi zian zeak etortzen, refujiauak, Irundikan eta Hondarrabitik eta. Horkuak lehenbizi hasi zian etortzen. Eta Amaian sartu genduzen, Hotel Amaian orduan. Garai hartan ez zeon zeikan, zeakin, gerrakin-ta. Hor sartzen genduzen. Ta geo Donostidxa're galdu zan, denpora gutxidxa sartu zian frentia puskatu zuenian.
- Noiz sartu zian gutxi gorabehera? Gogoratzen dezu? Setienbreako?
- Setienbreako? Lehenok?
- Lehenok?
- Bai. Setienbrian ya guk hamendik ebakatu in gendun setienbrian. Ta Donostira hoidxek sartu zian, bueno, bai, setienbrian aurrealdian izango zan sartu ziala. Ta Zumaitikan jendiak alde in zun. Ta guk barko bat preparatu gendun ta geure aldekuak barkuan bialdu genduzen, andria,

ama-ta, andrian ama-ta, kuadrilla bat...

- (Alaba) Arreba...

- Arreba? Arreba ez. Arreba geo...

- [...] ez zan jun?

- Geo bialdu zituen hoidxek, hoidxek hamen geatu zian, umiak txikidxak zezken, ta ez zian jun. Guk danok alde in gendun. Ta nik [...] txarrena esaten det, gerra [...] ta Frantzikua ta ikusi ditut, baiña [...] txarrena hura izan zan neretzat, hemen hau ebakuatu gendunian. Klaro, gurasuak hemen geatzen zian ta aittak hemen geatu nahi zun ta amak gurekin jun nahi zun. Ta aittak "Nola jungo gea dakaun edadiakin?" ta zea, ta "Antolauko dia umiak" eta. Haidxen zeakin alde iñ in behar izan nun nik etxetikan, despeditzeko astiik gabe. Klaro, nik zea nekan, barkuan bestiak bialdu genduzen, andria-ta, andrian ama-ta... En fin, danak, herriko asko. Ta nik zea txiki bat nekan, motor txiki bat, rekisauta, etxeberriatarrena. Zea zan, Hiberdrolako ingenierua [...] etxia zaken hor Paolen. Horrek motor txiki bat zekan orduan, motor rapido hoidxetako bat. Ta hura rekisauta nekan nik. Ta hamen azkeneko danak alde in zuenian, ni motor hartan jun nitxan. Launak, sindikatoko launak, itsasuan-ta ibiltzen zan bat, konpromisauta nekan, Erramun. Han jun nitxan ni, hauek danak bialduta, haidxen ondoren. Ta hoidxek Lekeition sartu zian lehenbizi, ta geo, tratu asko Santoñakin gendukan zumaiarrak. Hemen barkuak eta nola iten zian, ba, gehidxenbat kuñauak, Joxe Marik zekan tratoik gehidxena. Ta Santoña danak, famili asko Santoña jun giñan. Ni geatu nitxan hor Bilbon, baiña andria ta andrien amak-eta, famili asko, Manuela arreba´re hor zan, Joxe Marin andria, famili asko Santoñan geatu zian o sartu zian refujauta aberats baten itxian. Ihesi in zun ta itxe haundi bat zekan ta itxe hura dana okupatu zuen zumaiarrak. Agustin-ta, Akelin-ta hauek, orduan bialdu zituenian, txikidxak eta "¿No me das un poco?" esaten zuan, ezta? Amak esaten zuan, gosiak eta danai eskian Agustin. "Me das un poco" danai eskian, gosiak zan haura.

- (Alaba) Osaba Jose Luis han jaiotakua da, ez? Osaba Jose Luis ez zan Santoñan jaio?

- Santoñan jaidxo zan. Klaro, zazpi hillabete zeon Paulita, zea, ama, hamendik alde in gendunian.

- Eta orduan, Zumaiko andra ta ume guztiak eta...

- Askok alde in gendun ta beste batzuek hamen geatu zian, ta geo bialdu in zituen, beste hauek danak atzea bialdu in zituen.

10. Familia eta harremanak

10.1. Azkuetarrak 'Patxi barranderoanekoak'

- **Hizlaria(k):** Esteibar Azkue, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-011/001
- **Iraupena:** 0:03:20. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

- **Laburpena:** Bixente Esteibar Azkue, Ixkiña. Bere aurrekoengandik dator ezizena, baina ez daki nondik datorren. Zumaian ohitura dago familiei ezizenetik deitzeko. Amaren aldeko familia, Azkue abizena dutenak "Patxi barranderoanekoak" dira. Patxi barranderoa ezaguna zen herrian. Patxi barranderoaren inguruko anekdota.

Transkripzioa

- Ba, hoixe, gutxi gorabehera esan dizudana. Ba lehengo kontuak eta...
- Heuk galdetuko diak.
- Aspaldiko kontuak nahi ditugu jaso. Hasteko, nahi baldin badezu, arrantzako kontuekin eta hasiko gea? Zu, hasi arrantzan… Bueno, hasteko, izena ta apelliduak eta… esango dizkiazu?
- Izena Bixente…
- Bai. Esteibar…
- Esteibar Azkue.
- Azkue.
- Alias 'Ixkiña'.
- Hori da, ez? Zumaian, e…
- Zumaiko `Ixkiña´. <br />- Zumaian beti `Ixkiña´.
- Bai, bai.
- Eta, nundik dator, edo?
- Jo, nundik datorren hori? Nere aita huan 'Ixkiña', aitonaren 'Ixkiña' huan, ta… hortik aurrea, ba, ez jakin. Beti 'Ixkiña'.
- Eta nundik datorren?
- Ez! Ezta, ezta… ametsikan’e ez! Beti 'Ixkiña'.
- Eta hemen, ezizenak eta goitizenak eta…
- Askok! Askok zeon.
- Zumaian jende guztiyak, ez?
- Bai. Famili danetan zeok, huan bakoitzak bere zeakin, motia o bere zeakin, bai. Bai.
- Eta zuen etxian’e bai, danak 'Ixkiña'.
- Oseake, gu gaitxuk 'ixkiñatarrak'. Bai. Zea partetikan, aittan partetik 'Ixkiñatarrak'. Eta azkuetarrak gaitxuk, berriz, Zumaian oso famosuak, 'Patxi barrenderonekuak'. Bai, Xabier ta hauek danok, Abelintxo ta gu danok, haidxek ditxuk beatzi senide, ta haidxek ditxuk –o gaitxuk– 'Patxi barrenderonekuak' amen aldetikan. Oso…
- Aitona, o?
- Aitona huan barrenderua.
- Patxi.
- Patxi barrenderua, Azkue. Oso famosua.
- Saltserua-edo zalako, eo?
- Bai, oseake, zea hauetakua, oseake, kriston ixtoridxak zezkanak.
- Bai, ez?
- Bai, kriston ixtoridxak.
- Askok hitz ein, ta…
- Bai, bai, bai.
- Ipuiak kontau, ta…
- Ipuidxak eta egitekuak’e bai. Egitekuak’e haundiyak zizkan harek. Harek ixtori haundiyak zizkan, ta… Grabatzen ai al haiz? Ez…
- Bai.
- Bai, e?
- Bai!
- Istori bat esango diat. Oseake, zigarrua erretzia gustatzen zikuan. Ta seme bat zikan Deuston. Txoferra huan. Garai hartako, pentsa zak, txoferra huan. Eta beti bokilla eskatzen ziu, zigarrua erretzeko bokilla bat. Eta, “Bai, ekarriko dizut”, […], “Ekarriko dizut”. Ta halako batian aittak esan ziu: “Ez diat biharrik, e! Manolo [...]–osaba, gure osaba Manolo– Ez diat gehidxo zea. Bazikat bokilla, ear askua, gaiñea, pasuakin, gaiñea”. Ta hik ez zekiat akordauko haizen, lehen itxe danetan eoten hitxuan labatibak. Labatiba ba al dakik zer dan? Oseake, bere zea bat, puestua urena, ta geo llave de pasua bezela eukitzen zian ura regulatzeko. Ta harek in zian, harek muturra kendu eta ahuan sartu! Ta llave de pasuakin. “Ikusten al dek, gaiñea llave de pasua ta bazizkak!”
- […].
- Kriston istoridxak! Hura huan xelebria ziharo! En cambio, beste aittaita ez nian ezautu. Hura huan, zea, 'Ixkiña', hura ez nian ezautu.
- Zumaixarra?
- Bai, Zumaiaarra. Ta hori ez nian ezautu.

10.2. Zuloagari "tercera"ko hileta; hileta-klaseak

- **Hizlaria(k):** Egaña Etxabe, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-013/019
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:32:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak
- **Laburpena:** Tiplea zen koroan. Zumaiaiko ospitalea egiteko dirua jarri zuten Zuloagak eta torero ezagun batzuek. Hori dela eta, 1944an omenaldia egin zitzaion ospitalean bertan eta beraiek abestu egin zuten. Hurrengo urtean hil zen 75 urterekin. "Tercera"-ko entierroa egin omen zitzaion; Zumaian beste inori ez zitzaion halakorik egin eta berak testamentuan hala eskatuko zuela uste du. Entierro-klaseak: primerisima (oso aberatsena), primerakoa (aberratsena), segundakoa (arrunta) eta terzerakoa (pobreena). Jende asko etorri zen Zuloagaren hiletara.

Transkripzioa

- Zuloaga ta esan dezu, ezautzen dezula, ezautu zendula?
- Zuloaga asko ezautzen gendun guk. Eta ni tiplia nitxan.
- Koruan.
- Koruan tiplia. Tipliak batzuk izaten dia altuak eta bajuak, eta ni bajutik izan naiz ni, beti tiplia. Eta gertatu zan cuarenta y dosian, cuarenta y cuatruan, omenajia. Ospitala, zumaiko ospital haura ezautzen al dezu nun daon? Ba hura iten parte izan zun bai Zuloagak eta geo torero batzuek´e bai, torero famoso batzuek, oaiñ izena momentuan ez naiz akordutzen, baiña torero famosuakin in zuen hoidxek, dirua atea zuen hoidxek ospitala iteko.
- Korridan bat, o...
- Bai, bai, bai, tipo horretan. Ta Zuloagak´e parte izan zun. Eta geo orduan in zitzakon omenajia ospitalian bertan cuarenta y cuatruan omenajia in zitzakon. Ta han giñan gu kantuan. Oso omenaje haundiya in zitzakon. Eta halako batian cuarenta y cincon Madriden zeola, Madriden hil zan Zuloaga, jo ta blast!, egun batetik bestea hil zan. Ta gu, Zuloaga zan guretzako zahar-zahar-zahar-zaharra. Ta orain zer da ta, bere altura harrapatu! Bere urtiak uaiñ!
- Hirurogeita hamabost urtekin edo hil zan, ez?
- Hirurogeita hamabost, hirurogeita hamabostekiñ. Ochocientos setentan jaidxua zan eta novecientos cuarenta y cincon hil zan. Setenta y cinco añoekin hil zan de repente. Ta zan, bueno! Entierruan´e, hantxe giñan gu zeatik entierruak danak gu ibiltzen giñan orduan, tipliak nola giñan.
- Kantuan.
- Ta tertzerakua in zitzakon. Tertzerakua ez zitzakon iñori iten Zumaidxan! Iten zan "primera", "primerisima", "primerisima" izaten zan aberatsa tipo ya izugarridxa, hamaiketan izaten zan hura. Eta mezak eoten zian, altare danetan mezak. Ta akabatzen zuenian meza bat, beste meza... ya, dirua! Ta geo, prailiak eta etortzen zian, ta haidxei in behar izaten zitzakuen gosaia prepaatu. Ta gosaia Xaharreneko... ez zendun zuk ezautuko? Xaharreneko taberna bazan, han bertan, bertan elizan azpidxan, behian. Eta han iten zan hamaiketakua, gosaidxa behintzat han in behar izaten zuen, zea, apaiz hoidxek, etortzen zianak. Gero primerakua, ya jende,

jende aberatsa, primerakua, hura hamarretan. Ta han´e meza asko ematen zian. Ta geo normala, zumaiaarrak gehidxenak, gu danok geure guraso, familidxetan ta danetan segundako entierlua, betzitan.

- Goizeko bederatzitan.

- Goizeko beatzitan.

- Eta hori ya apaiza bakarra, edo?

- Bai, bai! Earra izaten zan hura´re! Nahikua! Primerak eta hoidxek zian, bueno! Izugarridxak! Ya, nola izaten da, aberatsak esateko mouan. Ta, guk, gure familia dana, danak segundako entierruakin jun dia danak haidxek´e. Jende normala ibiltzen zana dana segundakua. Normala, entierro normala. Ba, tertzerakua in zitzaion Zuloagai bakarrik, beste iñoi´re ez zako in.

- Eta?

- Nonbait beak eukiko zun testamentuan o nononon jarrita, bestela ezin leike! Tertzerakua in zitzakon. Hori...

- Hala nahi zula.

- Bai. Beak ez zun hori hiltzeko astiik izan, hori esateko. Baiña lehendik eskribituta o zeoze eukiko zun hor nononon. Testamentuan o eongo zan apuntauta tertzerakua behar zula entierlua. Ta hori zan bajuena, zanik bajuena. Ta Zuloagai ez zitzakon hori tokatzen. Zuloagai tokatzen zitzakon primera o primerisima. Primerisima tokatzen zitzakon. Baiña beak nahiko zun, ta!

- Eta nun izan zan? Hamen elizan, ta herriko jende guztiak´e parte hartu, ta... Nolakua izan zan?

- Bai, holantxe, herridxan. Orduan, ba al dakizu, jende gehidxegi juteko ´re... Lana in behar izaten zan, ta familiarra o zoze tartekua izan ezenian, baiña kanpotik´e jende asko, auskalo eibartikan ta zenbat etorri zan! Eibartarra zan, ta! Famosua zan Zuloaga.

10.3. Zuloagaren inguruko kontuak

- **Hizlaria(k):** Egaña Etxabe, Juan
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-013/020
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- **Laburpena:** Zuloaga ez zuten asko ikusten Zumaian kalean. 1944an Zuloagak dagoeneko 74 urte zituen eta beraiek artean gaztetxoak ziren. Ordurako Zuloaga Madrilan asko egoten zen eta udaran bakarrik egoten zen Zumaian. Zumaia kale batek Juan Belmonte toreroaren izena dauka. Belmonte Zuloagaren laguna izango zela komentatzen dute.

Transkripzioa

- Hemen, kalia eta, asko ibiltzen zan Zuloaga?

- Ez, ez, ez. Gure goguan, neretzako ya gizon, ya gu mutil koskorak giñala, pentsa zazu, cuarenta y cuatron nezkan nik hamabi urte, eta hark zezkan hirurogeita hamalau urte. Eta guk ya ez gendun hamen, hori ya kanpuan ta asko, Madriden ta hori ya jarrita zeon. Neretzako pintura ta dana ingo zun horrek Madriden!

- Hemen udaran ta izango zan.

- Udaan ta bere gauzak eta bere zeak ingo zitun, baiña ez horrela, kalia normal. Gu gehidxenok ezautu... gure gurasuak eta ezautuko zuen akaso, baiña guk ez.

- Baiña ez zan kalia eta txikiteuan eta ibiltzen?

- Ez! Ez zan holakua. Pentsatu're! Gizon formala, ziharo! Formala.

- Ta hor badira beste kale batzuk, holan, torero batzun kaliak eta, badira ez, Zumaidxan?

- Toreruenak.

- Belmonte...

- Juan Belmonte. Juan Belmonte kalia bado Zumaidxan, bai.

- Eta hori hamen ibiltzen zan?

- Juan Belmonte ta lagunak izango zitun zeak, Zuloagak. Oso lagun haundidxak, haundidxak. Hareatikan eongo dia hamen haekin rozatu duenak eongo zian hamen, Juan Belmonte ta habek danak, berekin rozatu zuen lagunak, beriak, bere lagunak.

10.4. Festetako entretenimenduak

- **Hizlaria(k)**: Garate Elosua, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-019/004
- **Iraupena**: 0:02:15. **Hasi**: 00:09:00. **Bukatu**: 00:11:15
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
 Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk
 Aisia » Jai-giroa » Herriko ospakizunak
- **Laburpena**: Asto-karrerak ere egiten ziren festetan, baina berak ez zuen asko parte hartu horretan. Festetan egiten ziren ekintza gehiago: sokatira, hankak lotuta lasterketak, "karretila" (batek besteari hanketatik helduta lasterketa) Bera mutikoa zela hasi ziren halako jolasak, baina gaur egun asko galdu dira.

Transkripzioa

- Bai… Batela, tiña. Hau gitxi, herritik... kanpotik etortzen hitxuan en jeneral. Kanpotik ez, basarritarrak, asto-karrerak iten hitxuan baiño noizik behin, gitxi. Garbi [esan] guk ez giñian parte hartzen. Asto karrerak-eta ditzuk oso… Oso gitxi. Jarri’re gitxi […], garbi esango diat. Ta geo, ba, ingurutako baserritako jaiak, jendiak asto-karrerak…
- Gehio izango zan…
- Bai. O herriko, herri-basarrikuak, hor, [Basureronekuak], hor, astua zakenak. Kale-baserrixetan´e bertan izaten hitxuan, zeak, souak eta… okoillua behian zakenak, eta… Bai, asto-karrerak, harrapaketa, sokatiran... hori danian ezautzen dek, soka-tira. Bi hankak lotuta saltoka. Bi hanka lotu ta saltoka. Bi hanka lotu ta saltoka. Bestia, berriz, bi launei, batei exkerra ta bestiai eskubixa lotu, ta zea. Bestia, karretilla esaten gitxuan. Batei hanketatik heldu ta bestia eskuakin lurrian. Entenditzen al dek?
- Karrera.
- Karreran. Zein allatu lehenuo. Karretilla esaten gitxuan. Bat aurrian jartzen huan eskuakin ta bestiak atzetik, hanketatik heldu ta horrela, bai.
- Hau guzti hau aiuntamientuak-eta organizatzen […]?
- En jeneal bai. Bai, bai.
- Eta guzti habek noiz hasi ziran, ya, zu txikitan, zu sei-zortzi-hamar urte…

holakuak ya organizatzen zian?
- Bai, bai.
- Año cuarenta y cinco, seis ya, hortik aurea bai?
- Bai, hortik aurea ingo hitxuan. Zinkuantan behintzat bai. Bai, bai.
- Eta noiz arte? Oaiñ arte?
- Geo oan batzuk galdu hitxuan! Asko galdu ditxuk, e!, jolas asko! Uan ez die nahi izaten gaztiak. Uan dana, baakik, ordenadoria ta […]…
- Internet…
- Guk ibiltzen [genun] jolasak eta egurrakin indako zeak, txintxilikako kamioi hoiek ya, ez ditxuk, ez ditxuk ya esistitzen ta, zea. Oan guri erregietan’e ze ekartzen ziuena, ba? "Kina" baakik oan loteidxa, o deitzen genuna, "kina" deitzen gitxuan, loteia huan zea…
- Bingon o…
- Bingon o jokatzeko holakuak, ta…

10.5. Errege egunean opariak

- **Hizlaria(k)**: Garate Elosua, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-019/005
- **Iraupena**: 0:01:15. **Hasi**: 00:11:15. **Bukatu**: 00:12:30
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak
- **Laburpena**: Olentzerorik ez zegoen euren garaian, baina erregetan opariren bat jasotzen zuten, arroparen bat edo jolasen bat. Orduko jolasak: puzzle antzekoak, kinak (bingo antzekoak)ᄇ.

Transkripzioa

- Lehen izante zian, erregaluk eta izaten zian erregetan?
 - Bai! Bai, en jeneal, bai. Nik ezautu diyat. Askotan arropa izaten zala, hori're egiya dek! Endenditzen dek? Askotan...
 - Abarketak, o...
 - Abarketak, o...
 - (Laguna) Zea baiño gehio bai, Olentzero baiño gehio. Nik behintzat ezautu detena, erregiak eta.
 - Eske Olentzero nik ez det ezautu! Olentzeroik eta ez det ezautu.
 - [...] olentzeroik eta, gabon egunian eta...
 - Bai.
 - (Laguna) Ez, ez, ez. Uain hasi gurian zea, hori lehenoz ez huan.
 - Ez. [...] hoixe da o erropa o zea baldin bazan, ba, horixe, kina o zea, beste kubo hoixek'e, nola dia? Ahaztu [...]... Lau o bost, hua're [...], ba!
 - (Laguna) "Juegos Reunidos" hituan lehenoz.
 - Bai.
 - Partxis estiloko...
 - Bai, partsixa're bai, baiña ez, beste zea kuadru batzuk eta haiek osatu behar. Lau aurpegi en jeneal eukitzen zien.
 - Puzzle...
 - Puzzle moukua, bai.
 - Puzzle moukua.
 - En jeneal lau aurpegi eukitzen zietan ta hura osatu.
 - Bai, bai.
 - Kuadro batzuk hitxuan, ta...
 - Bai, bai, bai. Puzzle aldea...

- Bai, lau alde diferente, ba, bai. En jeneal, erregietan ta holakuak jartzen [...]. Ta geo karamelon batzuk o...

10.6. Gabon gaua familian; afariko menua

- **Hizlaria(k):** Garate Elosua, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-019/007
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:16:30. **Bukatu:** 00:18:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Gabon gaua familian pasatzen zen. Beraiek amonaren etxera joaten ziren. Etxean afaldu eta afalostean likore, turroi eta abarrak izaten ziren. Zumaian Gabonetako menua normalean aza-olioa, karakolak eta bisigua. Aza-olioa deitzen zioten gainetik olio azeraman aza egosiari. Baserritarrek txitxarro beltza ere jaten zuten. Meza egoten zen gaueko 12etan, baina beraiek ez zuten joateko ohiturarik. Olentzero izena zer zen ere ez zekiten.

Transkripzioa

- Eta gero, gabon gabian eta...
- Geo, gabon-gabian en jeneal...
- Familiyan.
- Familian. Gu beti amonena, amona ta bizi hitxuan, amonanea juten gintxuan, ta hantxe, kartaka ta zea...
- Eta afaria ze izaten zan? Espeziala, o?
- En jeneal, orduan, afaldu ta geo, guk nork bere etxian afaldu, ta orduan bai, han kafiak eta o likoriak o bonboiak o turroiak o zeak. Kafia beti martxan, baiña jokuan in ta ordu bixak, hirurak aldian, gu etxea, bai.
- Eta afaltzeko espeziala izaten zan orduan, pixkat? Ez?
- Uaingo mouan! Geroa're hala zeatu gaitxuk, en jeneal, Zumaian, ba, aza-olixuak, karakolak izaten huan. Baiña aza-olixua en jeneal, ta karakolak eta bixigua, hori gehienian.
- Ta aza-olixua zan gabonetako...?
- Aza-olixua bai, en jeneal, Zumaian behintzat.
- Aza egosiya eta...
- Aza egosidxa ta geo [...] olixua baratxui batzukin, ba, aza-olixua deitzen gitxuan hori.
- Eta gero karakolak.
- Ta geo bixigua ta geo karakolak. Bixigua erria, badakik. Bixigua modu onian eoten huan, ez uan bezela. Ta geo, baserritarrek en jeneal, txitxarro beltz handi hori [...]. Txitxarro beltza're ona dek. Ta geo karakolak saltsan. Baiña gogorak eoten [...] karakolak.
- Eta erregalorik eta egun horretan? Gabon-egunian?
- Ni ez nauk gogoratzen ezer ez.
- Eta Olentzero? Olentzero izena ta ohitura...
- Izena're ez, ez, ez, ez, ez.
- Hori Zumaian?
- Ke ba! Ez, ez, ez. Ez, ez, ez, ez... aitu...

- (Lagunak) [...].

- Ez, ez, ez. Nik ez diat... Geroa zeatu huan.

- Eta mezarik eta izaten zan?

- Bai, izaten huan. Gu ez gitxuan juten o... oso zeak gitxuan. Pixkat aparte ibiltzen gintxuan. Baiña gaueko hamabitan, ollarran meza o "misa del gallo"...

- "Misa del gallo" izaten zan.

- Ez dakitena da monjetan iten zuen o hemen parrokixanian o behian [...]. Nola iten zuen, ba?

- Eta hurrengo egunian? Gabon... Nola esaten dezue? Hogeita bosta...

- Eguarri-eguna, hori bai, eguarri-eguna. Gabon-eguna ta eguarri-eguna guk beti.

- Eta eguarri-egunian?

- Normal. Ez huan ezer'e zeatzen... Jai bat. Bakoitzak bere tokixa bazkaltzeko, ta ez huan ezer...

- Baiña kanturik eta?

- Ez, ez, ez, ez, ez.

10.7. Aita tifusarekin gaixotuta

- **Hizlaria(k)**: Yeregi Salegi, Irene
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-022/003
- **Iraupena**: 0:01:20. **Hasi**: 00:03:00. **Bukatu**: 00:04:20
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- **Laburpena**: Aita tifusarekin hil zitzaion. Marinel batek bi ostra ekarri eta aita gordinik jan zituen. Itxuraz, txarrak zeuden eta tifusa harrapatu zuen. Orduko gaixotasunak.

Transkripzioa

- Eta hoxen, ba, gaitzan zea, esto, tifusekin hil zan.

- Bai, e?

- Bai! Ostra bat, maiñel batek ekarri zion etorri zanian. Bi ostra eman omen zixkon, gure amak kontatzen zun. Bi ostra eman eta bat beak gordinik jan, eta bestia, zeak, amak txapan erre eta seme zaharrenak, nere anaia zaharraua zan, ni hirugarrena, zaharrenak, harei eman jateko ta hark ezer ez. Ta aittak zea harrapatu.

- Tifusa harrapatu.

- Tifusa harrapatu. Nunbait txarra zeon, ta... tifusa harrapatu zun. Ta geo...

- Orduan tifusa ta holakuak asko izaten zian?

- Bai.

- Tuberkulosisa ta...

- Tuberkulosisa'e bai, bai.

- Ta gaiñea, orduan, uaiñ ez, baiña...

- Oaiñ ez, baiño orduan bai. Eta ze, ba, gure aita hil zan, oseake, San Pedro egunian o zan hori, ostrena. Eta este, agostuen hamabostian hil zan. Bai. Baiño ez zan hil zeatik horretik, e! Hil zan, bueno, ya hori bazekan, baiño, "con una congestión pulmonar" hil zan, kongestidxo batekin. Espezialistak eta ekarri giñuzen orduan, baiño alperrik zan, ya orduan ez zeolako... oaiñ

bai.
- [...] adelantoik eta.
- Bai.

10.8. 14 urterekin aitaren tailerrean lanean

- **Hizlaria(k):** Yeregi Salegi, Irene
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-022/005
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:05:35. **Bukatu:** 00:06:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- **Laburpena:** 14 urterekin bera ere aitaren lantegian hasi zen lanean, lehenbizi zerran eta gero fresadoran. Orduan emakume bakarra zegoen tailerrean lanean. Aita hil zenean ama ezer gabe geratu zen, orduan alarguntasunik ez zelako kobratzen eta tailerraren dibidendoetatik bizi zen. Seme-alaba guztiek lan egin behar izan zuten.

Transkripzioa

- Ta ni lanian'e hamalau urtekin hasi nitzan, e!
- Bertan?
- Bertan.
- A, bai, e?
- Bai.
- Eta makinan [...] o?
- Ez. Bai, famili... Zerran.
- Zerran?
- Ta geo zea, fresadoran, geo.
- A, bai, e?
- Bai. Hamalau urtekin.
- Eta orduan normala zan emakumiak eta...
- Ez. Bai! Emakume bat zeon. Gerra ondorena zan ta emakume bat zeon.
- Ta tokatuko zitzaizun zuri gerra...
- Gizona kartzelan o ez dakit nun zekan emakume hark eta hark zeakin, nerekin iten zun.
- Baiña bestela...
- Ni neska koskorra!
- Karo. Zuri gerra justo hamalau urtekin...
- Bai, bai. Bai, ba. Bai, ba. Gure ama geatu zan ezer'e gabe. Oseake, geatu giñan... Taillerra zeon, baiño ez zan orduan seguridade sozialik eta ezer'e, eta ez zuen, geo zeak ez zuen in. O hiltzen zanian o zea eman, o ez dakit ze, ez... Oseake, gure ama bizitzen zan "con los dividendos".
- Enpresana.
- Enpresana. Ta klaro, guk danok lanea jun giñan. Oseake, bai, nere ahizpak ere bai. Ta behekoa, behian dakat ahizpa bat, hura're pasa zan zeatik, eta bestia berriz, bestia're ofizinan eon zan, hirugarrena're.

10.9. San Telmo kalea; bizimodua ateratzeko denetarik egin behar

- **Hizlaria(k):** Gorostola Iribar, Jesus
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-024/002
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:01:20. **Bukatu:** 00:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):**
Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- **Laburpena:** Jesus Zumaian jaio zen San Telmo kalean. Aita zumaiarra zuen eta ama getariarra. San Telmo kalea nolakoa zen lehenago. Etxe azpitan abereak izaten ziren, txerriak, oiloak eta abar. Bizimodua ateratzeko lehen etxean baratzea izaten zuten eta gero itsasoan ere lan egin behar izaten zen eta baita lantegian ere. Handik eta hemendik ateratzen zen bizitzeko lain.

Transkripzioa

- Orduan, oin, Jesus, zu nun jaiotakua zea, ba?
- (Jesus) Ni Zumaian, calle San Telmon.
- San Telmo kalia?
- (Jesus) Bai.
- Eta familiya bertakua? Aita, o?
- (Jesus) Bai, aitta zumaiarra ta ama getaiarra.
- Eta aitta San Telmo kalekua're bai?
- (Jesus) Bai, bai.
- Eta nolakua zan San Telmo kalia? Nola gogoratzen dezu? Asko aldatu al da?
- (Jesus) San Telmo kalia, bai, asko aldau da, beno! Asko, asko. Lehenoa dana itxe... zeak, txarrixak eta hazten zianak, dana txarrixa-ta, itxietan oilluak eta dana. Gure itxian, aldamenian, ertz hartan oilluak-eta, txarrixak-eta...
- Bertan, etxian, ezkatzian?
- (Jesus) Behian, behian. Bai.
- Eta hori etxe guztietan?
- (Jesus) Danetan ez, baiña asko. Hamen, Calle Marin-ta askotan. Calle San Telmo're...Ixa arrantzale zeoze-zeoze zekela danak.
- (Akelino) Bizimoua orduan hala huan. Eiten zan itxeako konparaziyo batea patata, baba dala, ta dana iten zan. Taillarrian batzuek iten zuen lana ta beste batzuk, berriz, barkuak deskargatzen-ta igual. Ta negoako jartzen zan artua ta babaa ta patata ta hoiek izaten zian.
- Orduan danetik pixkat egiten zan, ez?
- (Jesus) Bai, danetik, bai, gehixena.
- Baratzeko kontua, itsasokua ta... Itsasua, baratza ta, taillarria ta...
- (Jesus) Gure itxian ez zan ezer... Amamenian iten zan, baiña geuk... Aitta zeatu zanian, ez zan ezer'e iten.

10.10. Umetako jolasak: diaboloa, yo-yoa...

- **Hizlaria(k):** Manterola Gomez, Arritokieta

- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-057/003
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:05:10. **Bukatu**: 00:06:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena**: Lehen kalean jolasten zuten beti. Diaboloarekin jolasten zuten; lehengoak gaur egunekoak baino txikiagoak eta gorriak izaten ziren. Diaboloak erosi egiten zituzten, baina yo-yoak beraiek egiten zituzten.

Transkripzioa

- Jokuak eta dana kalia izango zian?
- Bai, danak: soka-saltuan ta... Oain diabuluakin dabilta ta txikidxak, baiña bagiñuzen guk´e diabuluak. Badakit. Lehenguan esan nidxon: "Utzi nei diabulua aber badakiten ibiltzen", ta bai, ibiltzen det.
- A, bai, e?
- Bai, bai. Nahiz haundidxo izan ezkeo´re.
- Lehenguak txiki...
- Txikidxaguak. Oso txikidxaguak zian, gorri-gorridxak. Ta geo botatzen giñuzen gora ta. Aittek abilidadia zekan, han soka hartu atzea ta segi berriz ere.
- Eta hoiek in eiten zian eo erosi...?
- Ez, erosi, erosi. Ez zian iten. Yoyok bai, yoyo geuk iten genduzen. Botoi haundidxak izaten zian orduan [...]ta. Bi botoi juntatu, haridxa pasa, zeatu, josi ta geo jartzen gendun ta yoyo. Hura bai, ez gendukan diruik eta!
- Baiña diabolua bai.
- Diabolua bai.
- Hori erosi.
- Bai, erosi.
- Baiña hori esan behar nizun. Orduan, holako jugetiak-eta erosteko diruikan-ta...?
- Ez zan izaten, baiña nik banun behiñik-behiñ diabolua.
- Herentziyan o baten batek...
- Aillegatu zan itxea! Bai.
- Ta hori´re kalia.
- A, bai, kalia. Gure prazuela, uaindikan Calle Marin daon prazuela horretan... Jesus, zenbat [saltaka]...!

10.11. Umetako jolasak: erre-erreka, ezkutaketan...

- **Hizlaria(k)**: Manterola Gomez, Arritokieta
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-057/007
- **Iraupena**: 0:02:05. **Hasi**: 00:11:30. **Bukatu**: 00:13:35
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**: Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

- **Laburpena:** Umetako jolasak: sokasaltoan, kaniketan, erre-erreka. Erre-erreka jolasa nola zen. Ezkutaketan ere aritzen ziren eta etxeetan ezkutatzaren ziren. Tren geltokira joaten ziren jendeak botatako txartelen bila eta haiekin ere jolasten zuten.

Transkripzioa

- Eta jolasak eta zeintzuk izaten zian orduan? Soka-saltuan esan dezu...
- Soka-saltuan ta geo erre-erreka ´re bai.
- Zer zan?
- Ba, zean jarri, filan, eta batek ertentzen zun saltoka. Eta harrapatzen zuna, hala, eskuak luzatuta. Ta harrapatzen ez zun bitartian, bestiak zeatzen baldin bazun, "libre!", ta danok iges. Bai. Ta geo, "trenadioskak" ("Tres navíos"-ka), itxietan exkutatuta, e!
- Zer zan?
- "Trenadioskak". Bat zean jarri eta beste danok igesi ta itxietan sartzen giñan. Ta, "badator, badator!". Amak-eta ´re orduan asko laguntzen ziguen jolasian, bai, ezkutatzaren-ta. Itxe danak guriak zian!
- Eta harrapatzea.
- Harrapatzea. Eta ikusten baldin bagiñun, saltaka jun eta "bat, bi, hiru, lau!", izena esan eta lixto, danak inda. Haidxek zai bestiak harrapatu arte.
- Eta gero hurrenguan beste batek...
- Hurrenguan bestiak. Hala pasatzen gendun.
- Eta gero, ba, o kanikak o...
- Kanikak. Ta geo estazidxoak jun ta billeteiak eroritakun trenetikan hartu ta... Nola esaten zan kuadraturako burnizkua? Oba, oba. Harekin, montoia jarri ta "da!", botatzen baldin bazun zeatu ta danak zuretzako.
- Txartelak.
- Txartelak, treneko billeteiak. Estazidxoak juten giñan billeteien billa. Bota iten zuen jendiak billeteia, ta. Guk billatu eta geo danok billeteka. Ta kanikak ´re bai. Ta zeak ´re bai, trenadioskak-ta. Dana!

10.12. Asakaponetan nola jolasten zuten

- **Hizlaria(k):** Manterola Gomez, Arritokieta
- **Elkarrizketatzailea(k):** Azkue Ibarbia, Xabier - Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref:** ZUM-057/008
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:13:35. **Bukatu:** 00:16:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea:** Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k):** Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- **Laburpena:** Asakaponetan ere aritzen ziren. Ahuntzenak izaten ziren hezur onenak; pintatu ere egiten zituzten. Nola jolasten zuten; hezurrak alde desberdinak zituen eta alde bakoitzak izen desberdina zuen. Nesken jolasa izan ohi zen asakaponena, sokasaltoaren antzera.

Transkripzioa

- Ta bestia, gure amak esaten duna, hezurakiñ-eta, nola deitzen diyoze?
- Asakaponak!
- Asakaponak.
- Zeiñek baiño ederrauak, akerrekuak. Asakapona da arkumiena motela da, baiña ahuntzena ederra, pintatuta, gorri-gorri. Soñu bat, ba, in, "rrrrrrrra!"

botatzen-ta. Haidxek, haidxek ederrak.

- Akerrana hobia.

- Hobia. Haidxek... Ta geo pintatu iten giñuzen, gorri-gorri-gorri. Bakoitzak bere boltsa, e!

- Tesorua.

- Oo! Hura guria da.

- Eta hori nola lortzen ziñuen? Jan ahala o bestela, karnizeidan-ta eskatzen ziñuen o nola, hezur hoiek eta nola inguratzen ziñuen?

- Ez. Karnizeidan ez zuen ematen, karnizeidan... Orduan zea asko jaten zan, San Jose egunian-ta ta, arkumia zea huan... Ta inguratutzen giñuzen behiñik behin. Baiña ez galdu, e! Josi poltsa in geuk, ta boltsa hortan sartuta zeakin, [...] pelotakin.

- Pelotatxo bat botatzen zan...

- Bai, bota ta buelta.

- Nola zan? Gogoratzen zea?

- Bai. Lelengo zea, hunela jartzen giñuzen, eta bota ta buelta. Hartu, pelota hartu baiño lehen, hari buelta eman bihar. Bigarrego aldiz, zeatuta, irekita. Geo tente. Geo berriz tente. Eta geo ya hirugarrenian dana jaso.

- Hau da, bota, eta denak berdin jarri.

- Ez dakit... Ez naix hau ondo akordatzen nola jartzen giñuzen. Asakiak, sakiak honela zian. Geo bueltan: bat bota ta buelta, sei. Geo, akerkuak... baiña ahaztu're in zazkit!

- Izena zekaben?

- Bai, bai.

- Zati bakoitzak?

- Bai, bai, bere zea zekan. Zeatikan laurak, asakaponak laurak zea diferentia dake. Honela dakanak zulu daka, bestiak lisua, geo hamen ere zea bat eta bestiank'e bai. Bakoitzak beria in behar.

- Eta hori zer zan, nesken jokua? O neska ta mutill, o?

- Ez, ez. Neskak, neskaak. Mutillak ez zian ibiltzen, ez zian ibiltzen, neskak iten giñun.

- Mutillak...

- Mutillak mendidzan o auskalo nun ibiltzen zian! Ez naiz akordatzen!

- Soka-saltuan ta beti neskak ibiltzen al ziñaten?

- Beti neskak ibiltzen giñan, bai.

- Beti aparte mutil ta neska.

- Beti aparte, bai. Trenadioska-ta mutillak ere ibiltzen zian, e! Bai, baiña ez...

- Baiña ez zuekin batea...

- Bakoitza bere aldetikan. Bai.

11. Lanbideak

11.1. Zumaian egindako barkuetan lan egin izan du beti

- **Hizlaria(k)**: Esteibar Azkue, Bixente
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Sarasua Aranberri, Asier
- **Erref**: ZUM-011/020
- **Iraupena**: 0:03:00. **Hasi**: 00:39:25. **Bukatu**: 00:42:25
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Transkribatzailea**: Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Gaia(k)**:
 Lanbideak » Arotzak
 Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

- **Laburpena:** Barku handietan egiten ziren arotz-lanak. Egin izan ditu 96 metroko barkuak ere. Berak beti Zumaian lan egin izan du, bertan egindako barkuetan bakarrik lan egin izan du. Barku asko egiten zen Zumaian. Astillero inportanteenak: Galarraga eta "Santixo" sozioak, Zacariasenekoak... Horiek barkuak egiten zituzten eta beraiek barkuko lana.

Transkripzioa

- Eta barkuetan ze lan izaten zan? Barko haundietan eta?
- Barko haunditan? Ba, zenbat kamarote, zenbat... Bueno!
- Ohiak eta?
- Dana. […] forratzia. Forratzia lan haundidxa izaten huan. Hori dana orduan garai batian iten giñian dana zeakin, formikakin, dana, garai batian. Ta lana, baiña bildurgarri izaten huan, e!
- Bai. Esan dezu larogeita hamar bat metrotik gorako barkuak ziala, ez, batzuk?
- Larogeita ta hamasei. Sota ta zeakuak, Sota ta bestiak hitxuan, zea, Uralar.
- Bilboko…
- Bai, danak Bilbokuak hitxuan hoidxek. Ta geo azkenian [in gitxian] barkuak hitxuan, berriz, zearako, zea izaten dia ba, esto… petrolidxa ateatzten-ta ibiltzen hitxuan Mar del Norten ta… Ta haidxentzako konbustibliak eraman ta salbamentoako ta tipo hortako barkuak. Hoidxek ya barko zeak hitxuan ya, barku modernuak. Ya orduako ya dana aldautu zian.
- Eta zuen lana, behintzat hasieran, nun izaten zan? Zumaidxan bertan?
- Beti Zumaidxan.
- Beti.
- Askotan deitu zien, bat Oridxo o bestea o kristua, hara. Sekula ez gaitxuk moitu Zumaitikan.
- Eta larogeita hamar metroko barkuak bertara ekartzen zian?
- Ez, bertan iten... bertan iten hitxuan.
- A!
- Oseake Zumaian indako barkuak.
- Orduan ez zian Bilbon indakuak?
- Ez, ez, ez, Zumaian indakuak.
- Bilboko konpaiñia, baiña Zumaian indakuak.
- Nik Zumaian indako barkuak bakarrik in dixkiat. Baiña asko ordia! Igual Uralar beak’e, ze, hogeita gehidxo barko in zitian.
- Zeintzuk zian hemen astillero holan, e, inportantienak?
- Orduan hitxuan hemen, oseake astillero inportantienak hitxuan […], hoidxek hitxuan Galarraga ta.
- Izenak esango dizkiazu?
- Hitxuan Probes Galarraga, ta zea, Santidxo, hitxuan sozidxuak. Geo hitxuan bestiak Zacariasenekuak. Hoidxek hitxuan Arrizabalaga... Arrizabalaga... ta geo bestia, nola zuan sozidxua? Ta geo hitxuan bestiak Egaña… Egaña-Aperribai. Andrian... andrian aitta ta. Hoidxek. Andrian aitta ta zeak hitxuan, barkua itten zitien, egurrezko barkuak.
- Eta hauek zian inportantienak Zumaian?
- Bai. Hoidxek ya iten zien barkuak.
- Barkuak.
- Geo guk iten [genixkien] barkuak, barruko lanak.
- Eta…
- Ta geo Balenciaga, noski. Balenciaga izan dek beti. Ta lehen-lehendikan bahitxuan berriz, ba, hoidxek zea, barku txikidxa-ta iten hitxuan Unanuek eta […] askoek, askoek. […] eta, askoek.

12. Diaspora

12.1. Ternuan, arrantzaleen zerbitzura

- **Hizlaria(k):** Beobide Arburua, Joseba
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiola, Nerea - Gonzalez, Andere
- **Erref:** ZUM-099/029
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:22:00. **Bukatu:** 00:24:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

- **Gaia(k):**

Diaspora » Lana diasporan » Bestelako lanak diasporan
Itsasoa » Arrantza motak » Alturako arrantza

- **Laburpena:** Arrantzaleen zerbitzura egotea zen bere lana Ternua inguruan. 3000tik gora arrantzale zeuden, gehienak galiziarrek, baina euskaldunak ere asko. Euskaldunak ondo ikusita zeuden hasieran; gero hemengoek arrain larregi harrapatzen zutela-eta saltsa sortu omen zen. Mapan erakusten du irla bakoitza non zegoen.

Transkripzioa

<p>- Han zein zan zure zure lana edo eguneroko…?</p>

<p>- Bai, bueno, ba, bai, bai, ba arrantzalien zerbitzun egotia. Esaten dizut /esateizut/ 3500 zeuden galleguak eta euskaldunak, hartuta danak; gehien-gehlenak mariñelak galleguak zian, baiño gero euskaldunak´e bai. Euskaldunak gehio zian ofizialak, batez ere, Donostiko batzuk bazeuden, Ondarru eta Lekeitioko zeak, urte asko eraman dituztenak han, e. Eta ni egon nintzan, ba, haien zerbitzuan, lehorrian, fabore gehio egiten zalako, e? medikuangana juteko, e... uf... teknikoakin laguntzeko han zean reparazio gauzak zeudenian eta... bai. Baiño Saint Pierre izan da guretzako ba gure bigarren etxia bezela. Oso ondo hartuta zeuden. Gero gauza pixkat zea egin zan, nahastu egin zan, atera zianian, ba, zea, hemengo barkuak danak asko harrapatzen zutela, gehiegi, eta"esquilmal" ta gauza hoiek danak eta orduan, ba, zeak, ez giñan han ondo ikusiak izan, baiño hasieran bai. Baiño Saint Pierren bai, e. Saint John's-en pixkat diferencia izandu zan, baiño Saint Pierren bai. Eta hor da uharte hortan, Terranovako uhartian, Newfoundland, e? hemen daona, hoixe, Newfoundland. Beitu, esango dizut non daon. Aber, hemen ixkiña hontan Saint John´s dao, e? Saint John's. Eta hemen behian, honen, mutur honen bi zea txikiyago hoiek dia San Pierre et Miquelon. Eta hor izandu zian euskaldunak, bai. Hau ya Port au Port bat portua ta hau da [estuekin egin dioenak euskaldun arraza] baiño hau hamasei, hamasei-hamazazpigarren mendekuak dia hauek danak, e? Beaien... bai, ba, hauek danak, euskaldun izen kutsuko izenak port au choix portutxoa hemen da. Port au choix, beaiek ingelesak aldatu izena…</p>

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Dublindar bat Zumaian (101-145/002)

Lenek bere burua aurkezten du euskaraz eta ingelesez.

2. Ingelesari buruzko datuak (101-145/004)

Ingelesari buruzko datuak ematen ditu Lenek.

3. Urtebete pasatzeko asmoz etorri zen Euskal Herrira (101-145/005)

Urtebeteko denboraldi bat pasatzeko asmoz etorri zen Euskal Herrira, baina oso gustukoa zuenez eta maitemindu egin zenez bertan gelditzea erabaki zuen.

4. Lehenengo egunak Euskal Herrian (101-145/006)

Lehenengo egunetan nola sentitu zen kontatzen du Lenek.

5. Hasierako egunetako anekdota (101-145/007)

Kultur aniztasuna dela eta, hasierako egunetako anekdota bat kontatzen du Lenek.

6. Euskarazko koaderno bat poltsikoan (101-145/008)

Hitz solteak ikasten hasi zen, koaderno bat poltsikoan zuelarik. Ondoren AEK euskaltegia ibili zen euskara ikasten, eskola partikularrak ere jaso zituen, baina batez ere kalean ikasi du euskara.

7. Euskaldunekiko iritzia (101-145/009)

Euskaldunekiko zuen iritzia eta orain duena kontatzen du.

8. Herrialde askotako lagunak (101-145/010)

Zenbait herrialdetako lagunak ditu bertan: frantsesak, serbiarrak, holandarrak, amerikarrak...

9. Etxean ingelesa, euskara eta gaztelania (101-145/011)

Etxean ingelesez hitz egiten die alabei; emazteak, ordea, euskaraz. Emaztearekin, berriz, gaztelaniaz egiten du.

10. Gaelikoaren eta ingelesaren egoera (101-145/012)

Irlandako Gaelikoaren egoerari buruz eta ingelesari buruz hitz egiten du Lenek.

11. Irlandako musika, familia eta garagardoa faltan (101-145/013)

Irlandako musika, garagardo beltza, familia eta lagunak ditu faltan.

12. Hondartza, kokapena eta bizimodua gustukoan (101-145/014)

Zumaiatik gehien gustatzen zaizkion gauzak hondartza, kokapena, bertako jendea eta bizimodua dira. Gutxien, berriz, gatazka politikoak eta jendea itxia izatea.

13. Emazteak integrazioa erraztu zion (101-145/015)

Integrazioa errazagoa izan zen bere emaztea bertakoa izan zelako. Hasieran zaila izan daitekeela dio, jendea itxia delako.

14. Euskara integraziorako gakoa (101-145/016)

Euskara ikastea integraziorako gakoa dela dio, batez ere umeekin.

15. Hiztegia ingelesez eta hitz gogokoena (101-145/018)

Ingelesezko hiztegia eta hitz gogokoena.

16. "Ni zumaiarra naiz" (101-145/020)

Zumaiarra dela dio.

17. Abesti bat ingelesez (101-145/022)

Bere herriko abesti bat.

18. Dublinetik Zumaiarako aldaketa (101-145/023)

Dublinetik eta Zumaiarako aldaketaz dihardu.

19. Zenbat hizkuntza bizi dira Zumaian? (101-145/024)

Berrogehi hizkuntza hitz egiten direla dio Zumaian.

20. Marie Zumaian bizi da (101-146/002)

Zumaian bizi da Marie.

21. Gineako hizkuntzak (101-146/004)

Ginean hizkuntza asko hitz egiten dira, denak ofizialak. Orokorrean susueraz hitz egiten dute, baita frantsesez ere.

22. Bizi-baldintza txarrak zirela eta etorri zen Euskal Herrira (101-146/005)

Gineako bizi-baldintza txarreatatik etorri zen Euskal Herrira, musika talde bat eratzeke asmoz. Ondoren dantza afrikarren irakasle lanetan hasi zen.

23. Bizi-baldintza txarrak zirela eta etorri zen Euskal Herrira (susueraz) (101-146/007)

Gineako bizi-baldintza txarreatatik etorri zen Euskal Herrira, musika talde bat eratzeke asmoz. Ondoren dantza afrikarren irakasle lanetan hasi zen.

24. "Jendea euskaraz agurtzen dut" (101-146/009)

Hizkuntza ez bazekien ere oso jarrera irekia eduki zuen etorri zenean, eta, hortaz, bertakoak ere irekiak izan ziren. Hala ere, pixkanaka-pixkanaka ikasten eta integratzen hasi zen.

25. "Euskaldun beltzarana naiz" (101-146/010)

Hasieran asko begiratzen zuten baina bertako kulturen eta ohituretan parte hartu (joaldunekin, txalapartariekin...), eta segituan integraturik sentitu zen.

26. "Euskaldun beltzarana naiz" (susueraz) (101-146/011)

Hasieran asko begiratzen zuten, baina bertako kulturen eta ohituretan parte hartu eta segituan integraturik sentitu zen (susueraz).

27. "Bertako eguraldia ohitura kontua da" (101-146/013)

Euskal Herriko eguraldia ondo dagoela dio, dagoenarekin konformatu behar garela, ohitura besterik ez da.

28. "Bertako eguraldia ohitura kontua da" (susueraz) (101-146/014)

Euskal Herriko eguraldia ondo dagoela dio, dagoenarekin konformatu behar garela, ohitura besterik ez da (susueraz).

29. Sei hizkuntza dakizki Mariek (101-146/016)

Sei hizkuntza hitz egiten ditu Mariek.

30. Euskaldunen inguruan iritzi txarrik ez (101-146/017)

Ez du euskaldunekiko iritzi txarrik, baina egunero-egunero gauza asko ikasten ditu.

31. Integraziorako pazientzia (101-146/018)

Integrazioa ez da batere erraza Euskal Herrian. Apurka-apurka lortzen dira hemen gauzak, pazientziaz.

32. Harreman ona bertakoekin (101-146/019)

Oso harreman ona dauka bertako jendearekin.

33. "Jendearen erreakzioa da garrantzitsuena" (101-146/020)

Ez du arrazakeriarik ezagutu bertan. Beretzat garrantzitsuena pertsonak dira; erreakzioak ikusita ikus daiteke bakoitza nolakoa den.

34. Familia botatzen du faltan (101-146/023)

Familia asko botatzen du faltan, laguntza behar dutenean lagundu ahal izatea.

35. Gustukoena natura, itsasoa eta haizea (101-146/024)

Zumaiako lasaitasuna, natura, itsasoa eta haizea dira gehien gustatzen zaizkion gauzak.

36. Egonkortasun falta ez du gustuko (101-146/025)

Bertan pairatzen duen egoera da gustatzen ez zaiona: egonkortasun falta, biharko egunean zer gertatuko den ez jakitea.

37. Egonkortasun falta ez du gustuko (susueraz) (101-146/026)

Bertan pairatzen duen egoera da gustatzen ez zaiona: egonkortasun falta, biharko egunean zer gertatuko den ez jakitea (susueraz).

38. "Inguruan beti dabil euskara, horregatik ari naiz ikasten" (101-146/027)

Euskara kalean ikasi du, eguneroko bizitzako euskara. Gaztelania, berriz, eskola bidez.

39. Susueraz hitz batzuk (101-146/028)

Susueraz hitz batzuk eta susuerazko hitz gogokoena.

40. Euskaraz hitz batzuk (101-146/029)

Euskaraz hitz batzuk.

41. Abesti bat susueraz (101-146/030)

Susueraz abesti bat

42. Sehaska kanta susueraz (101-146/034)

Susueraz sehaska kanta.

43. "Ni Aleks naiz eta Serbiakoa naiz" (101-147/002)

Bere burua aurkezten du.

44. Bizitza kalitatea hobea delako etorri da (101-147/003)

Aurkezipena gaztelaniaz. Bizitza kalitatea hobetzeko etorri da AEBetatik bueltan Europara.

45. Bizitza kalitatea hobea delako etorri da (serbieraz) (101-147/004)

Aurkezipena gaztelaniaz. Bizitza kalitatea hobetzeko etorri da AEBetatik bueltan Europara (serbieraz).

46. "Serbiera oso hizkuntza zaila da" (101-147/006)

Serbieraren inguruko datuak.

47. Serbiaren egoera gaur egun (101-147/007)

Bere jatorriaren egoeraren berri ematen du Aleksek. AEBetako inperialismotik ihesi etorri zen Europara.

48. "Lehen orain baino askoz hobeto bizi ginen" (101-147/008)

Serbiarren eta serbieraren egoera gaur egun.

49. Bi alfabeto dituen hizkuntza da serbiera (serbieraz) (101-147/010)

Serbieraren inguruko datuak (serbieraz). Bi alfabeto dituen hizkuntza da serbiera.

50. Oñatin lana lortu zuelako etorri zen Zumaiara (101-147/012)

Zumaiara oporretara etorri zen kanpingera. Emaztearen gurasoak bertakoak dira, eta bertara bizitzera etortzea erabaki zuten Oñatin lana lortutakoan.

51. Oñatin lana lortu zuelako etorri zen Zumaiara (serbieraz) (101-147/013)

Zumaiara oporretara etorri zen kanpingera. Emaztearen gurasoak bertakoak dira, eta bertara bizitzera etortzea erabaki zuten Oñatin lana lortutakoan (serbieraz).

52. Emaztearen gurasoak Zumaian bizi dira (101-147/015)

Emaztearen gurasoak Zumaian bizi dira orain eta horregatik etorri ziren bertara bizitzera.

53. "Nire bizitzako aldaketarik onena izan da hona etortzea" (101-147/016)

Lehen hilabeteetan hoberako aldaketa bizi izan zuen. Oso lasaia da, polita, txikia, zerbitzu asko ditu...

54. "Nire bizitzako aldaketarik onena izan da hona etortzea" (serbieraz) (101-147/018)

Lehen hilabeteetan hoberako aldaketa bizi izan zuen. Oso lasaia da, polita, txikia, zerbitzu asko ditu... (serbieraz)

55. "Euskaldunen artean denetarik dago, toki guztietan bezala" (101-147/019)

Denetatik dago bertakoen artean. Hasiera batean bertakoak hotzak izan badaitezke ere, ondoren gertukoak direla dio, baina orokorrean hotzak ez direla dio.

56. "Bertako jendearekin harremantzea oso erraza izan da" (101-147/020)

Bertako jendearekin harremana izatea oso erraza izan da; komunikazioarekin ere ez du inongo arazorik.

57. Atzerritar zumaiarrekin ere harreman ona (101-147/021)

Zumaian bizi diren kanpotarrekin oso harreman ona du.

58. Lau hizkuntza hitz egiten ditu (101-147/022)

Serbiera, ingelesa, gaztelania eta alemana hitz egiten ditu Aleksek.

59. "Egunen batean euskara ikasiko dut!" (101-147/023)

Gaztelania lehenengo bere kabuz eta ondoren akademia batean ikasi zuen; egunero-egunero joaten zen. Liburutegian ere egunero bi ordu ematen zituen gaztelania ikasten. Egunen batean euskara ikasiko duela esaten du.

60. "Euskara hizkuntza zaila da" (101-147/024)

Euskaraz hitz zenbait dakizki. Ikasten zaila den hizkuntza bat dela dio.

61. Zer falta duzu Serbiatik? (101-147/025)

Serbian duen familia asko botatzen du faltan, baita lagunak ere, bere hiria eta bertako erreka, hondartza...

62. Zer gustatzen zaizu Zumaiaetik? (101-147/026)

Bertako lurra asko gustatzen zaio, itsaso eta mendiaren konbinazioa, tenperatura...

**63. Zer gustatzen zaizu Zumaiaetik? (serbieraz)
(101-147/027)**

Bertako lurra asko gustatzen zaio, itsaso eta mendiaren konbinazioa, temperatura...(serbieraz)

64. Bertako zer ez duzu gustuko? (101-147/029)

Politikoak eta lapurrak ez ditu gustuko.

65. Serbieraz hitz batzuk (101-147/031)

Serbieraz hitz batzuk eta hitz gogokoena.

66. Esaera bat serbieraz (101-147/033)

Esaera bat serbieraz.

67. "Sebastian naiz, Lyongoa" (101-148/002)

Sebastianek bere burua aurkezten du.

**68. Bartzelonatik Arrasatera, Arrasatetik Zumaia
(101-148/003)**

Bartzelonara etorri zen lehenengo lana zela eta. Bikotea arrasatekoa da eta ondoren kostara joan ziren bizitzera, Zumaia.

69. "Frantsesa oso hizkuntza potentia da" (101-148/005)

Frantsesari buruzko datuak.

**70. Lehen hilabeteak Bartzelonan eta Euskal Herrian
(101-148/007)**

Bartzelonan oso erraza izan zen, bikotearekin bizi zelako. Arrasaten integratzea izan zen zailena. Zumaian errazagoa izan zen, herri txikia delako.

71. Desberdintasun kulturalak (101-148/009)

Zumaian jendea kalean bizi da. Frantzian, berriz, ez. Jateko ohiturak, elikagaiak etab. ere ezberdinak dira.

**72. "Oso erraza da zumaiairekin konektatzea"
(101-148/010)**

Harreman ona dauka zumaiairekin. Oso erraza dela dio haiekin konektatzea, oso irekiak baitira.

73. Atzeritarrekin ere harremana du (101-148/011)

Arrasateko, Bilboko eta Elorrioko jendearekin harremana du. Zumaian bizi diren beste atzeritar batzuekin ere bai.

74. "Euskara kalean ikasi dut" (101-148/012)

Gaztelania eskolan ikasi zuen, eta oso gustuko zuen, horregatik joan zen lehenago Bartzelonara. Euskara, berriz, bikotearekin eta umeekin ikasi du, kalean.

**75. Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Zumaian?
(101-148/013)**

Zumaian hamar bat hizkuntza hitz egiten direla uste du.

**76. "Euskara garrantzitsua da Zumaian, atea zabaltzeko
behintzat" (101-148/014)**

Euskara Zumaian integratzeko garrantzitsua dela dio, ulermen mailan behintzat.

77. Zenbat hizkuntza hitz egiten dituzu? (101-148/015)

Frantsesa eta gaztelania menderatzen ditu, eta euskara, ingelesa eta katalana ulertu.

78. "Gazta da faltan dudana" (101-148/016)

Gazta da faltan gehien botatzen duena, Frantzia gertu baitago.

**79. "Zumaia eta zumaiaarak hain irekiak izatea gustoko
dut" (101-148/017)**

Zumaiaiko gauza gustukoena herri txikia izatea da, oso herri polit eta irekia izatea, jendea irekia izatea...

80. Zumaiaiko zer ez duzu gustuko? (101-148/019)

Ez dago ezer gustuko ez duena.

81. Nolakoak dira euskaldunak? (101-148/021)

Euskaldunen inguruan duen iritzia ematen du, batzuk hotzak direla dio, baina beste batzuk ez.

82. Zenbait hitz frantsesez (101-148/023)

Frantsesez zenbait hitz eta hitz gogokoena.

83. Hitz joko bat frantsesez (101-148/025)

Hitz joko bat frantsesez.

**84. Suedieraz, norvegieraz, ingelesez, euskaraz eta
gaztelaniaz hitz egiten daki (101-149/002)**

Bere burua aurkezten du. Suedieraz, norvegieraz, ingelesez, euskaraz eta gaztelaniaz hitz egiten du.

85. Suedierari buruzko datuak (suedieraz) (101-149/006)

Suedierari buruzko datuak (suedieraz).

86. Suedierari buruzko datuak (101-149/008)

Suedierari buruzko datuak.

87. Suediako hizkuntzak (101-149/009)

Suediako hizkuntzak.

88. Emaztea pasaitarra (101-149/010)

Zumaiara zergatik etorri zen azaltzen du.

89. Nolakoak izan ziren lehen hilabeteak bertan? (101-149/011)

Lehen hilabeteak onak izan ziren, lehenago ere egona baitzen bertan.

90. "Euskaraz hitz egiten saiatzen naiz" (101-149/012)

Gaztelania Norvegian hasi zen ikasten, eta Zumaian praktikara eraman zuen.

91. "Euskaraz hitz egitea oso garrantzitsua da niretzat" (101-149/014)

Euskara bere emaztearen eta bere familiaren hizkuntza da, Zumaiako hizkuntza nagusia.

92. Euskara euskaltegian ikasten du (101-149/015)

Euskara ikastera euskaltegira joaten da, astean lau aldiz. Lagunekin eta emaztearen familiarekin euskaraz hitz egiten du.

93. "Zumaiako jendea oso jatorra eta irekia da" (101-149/016)

Bertako jendea oso jatorra dela dio, oso alaiak eta irekiak. Euskaraz hitz egiten dute berekin.

94. Atzeritarrekin duen harremana (101-149/018)

Norvegiako lagun bat dauka Durangon. Euskaltegian ere neska ingeles bat dago.

95. Familia, lagunak eta hiria faltan (101-149/019)

Suedian duen familia eta lagunak botatzen ditu faltan, baita dena ulertzea ere. Stockholm hiriaren handitasuna ere faltan botatzen du.

96. Zer duzu gustukoen Euskal Herritik? (101-149/020)

Zumaiako natura, kosta, gustatzen zaio. Bizitza kalean egitea.

97. Zer ez duzu gustuko Euskal Herritik? (101-149/022)

Lan bizitza burokratikoa da gustatzen ez zaiona. Lan kultura kontrolatua.

98. "Hobea da bertako osasun sistema" (101-149/024)

Suediako osasun sistema bertakoa baino okerragoa da; demokrazia, aldiz, ez.

99. "Integrazioa erraza izan da, baina hizkuntza arazo bat da" (101-149/026)

Integrazioa erraza izan da, baina hizkuntza arazo bat da.

100. Suedieraz hitz batzuk (101-149/028)

Suedieraz hitz batzuk eta hitz gogokoena.

101. Sehaska kanta bat suedieraz (101-149/029)

Sehaska kanta bat suedieraz.

102. Norvegieraz hitz batzuk (101-149/030)

Norvegieraz hitz batzuk.

103. Norvegiaz zenbait datu (101-149/031)

Norvegiaz eta norvegieraz zenbait datu.

104. Norvegiaz zenbait datu (norvegieraz eta euskaraz) (101-149/033)

Norvegiaz eta norvegieraz zenbait datu (norvegieraz eta euskaraz).

105. "Nuria naiz, katalana naiz eta Zumaian bizi naiz" (101-150/001)

Nuriak bere burua aurkezten du.

106. Katalanari buruzko zenbait datu (101-150/002)

Katalanari buruzko zenbait datu.

107. Maitasunak ekarri zuen Euskal Herrira (101-150/003)

Maitasunagatik etorri zen Euskal Herrira.

108. Bost urtez Zumaian (101-150/005)

Bost urte daramatza Zumaian bizitzen. Lehen hilabeteak onak izan ziren; oso polita iruditzen zaio Euskal Herria.

109. Bost urtez Zumaian (katalanez) (101-150/007)

Bost urte daramatza Zumaian bizitzen. Lehen hilabeteak onak izan ziren; oso polita iruditzen zaio Euskal Herria (katalanez).

110. Harremana atzerritarrek (101-150/008)

Atzerritarrek duen harremana.

111. Zazpi hizkuntza dakizki Nuriak (101-150/009)

Katalana, gaztelania, ingelesa, frantsesa, alemana, txinera eta euskara (pixka bat) hitz egiten daki.

112. "Euskara oso hizkuntza polita da" (101-150/011)

Euskara oso hizkuntza polita dela uste du; hobeto jakin nahiko luke. Euskaltegian egon da euskara ikasten bi urtez.

113. Euskaltegian bi urtez (101-150/012)

Euskaltegian bi urtez egon da euskara ikasten; orain seme-alabekin ari da praktikara eramaten eta ikasten.

114. Eguraldi ona faltan (101-150/013)

Kataluniako eguraldia botatzen zuen faltan hasieran, eguzkia.

115. Zumaiako gertutasuna, natura, giroa... gustuko (101-150/015)

Zumaiako gauza asko gustatzen zaizkio: denek elkar ezagutzea, natura, giroa, bizitasuna... Hasieran eguraldia ez zuen gustuko, baina dagoeneko ohiturik dagoela dio.

116. "Oso parrandazaleak dira euskaldun batzuk" (101-150/016)

Ez du euskaldunen eta kataluniarren artean alde handirik ikusten. Oso kirolariak dira euskaldunak, parrandazaleak...

117. "Euskara hobeto jakiteak asko lagunduko luke integrazioa" (101-150/017)

Euskara hobeto jakiteak asko lagunduko lukeela dio integrazioan; oso garrantzitsua dela, Katalunian bezalaxe.

118. Hitz batzuk euskaraz eta katalanez (101-150/019)

Hitz batzuk euskaraz eta katalanez, eta katalaneko hitz gogokoena.

119. Abesti bat katalanez (101-150/023)

Abesti bat katalanez eta honen azalpena.

120. Aurkezpen pertsonala (101-151/002)

Bere burua aurkezten du Adinak.

121. Errumanierari buruzko datuak (101-151/003)

Errumanierari buruzko datuak.

122. Lan kontuek ekarri zuten Zumaiara (101-151/004)

Lan kontuengatik etorri ziren Zumaiara. Aurretik Madrilera, berriz, mundua ikusteko helburuz joan zen.

123. Lehen hilabeteak Errumaniatik kanpo (101-151/005)

Lehen hilabeteak ume txikiekin pasa zituen lanean, eta haiei esker gaztelania asko ikasi zuen.

124. "Euskara oso bortitza iruditu zitzaidan" (101-151/006)

Zumaia ikusgarria iruditu zitzaion hasieratik; hizkuntza berriz, oso bortitza egiten zitzaion akustikoki.

125. Harreman gutxi Zumaiako atzeritarrekin (101-151/007)

Zumaian bizi diren errumaniarrekin harreman gutxi dauka, baita gainontzeko atzeritarrekin ere.

126. "Oso integraturik sentitzen naiz" (101-151/008)

Bere iritziz euskaldunak hasiera batean itxiak izan daitezke, baina behin konfiantza hartzean guztiz kontrakoa. Hala ere, hasieran integratzea kostatu zitzaion.

127. Ia dena ulertzen du euskaraz (101-151/009)

Euskaraz hitz solteak dakizki baina ia dena ulertzen du. Hala ere, semeari eskolako lanekin laguntzeko arazoak dituela dio.

128. Errumaniera, gaztelania eta ingelesa hitz egiten daki (101-151/010)

Errumaniera, gaztelania eta ingelesa hitz egiten daki.

129. Umeei esker ikasi zuen gaztelania (101-151/011)

Gaztelania umeeekin lanean ikasi zuen, urteen poderioz hitz egiten hasi zen.

130. Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Zumaian? (101-151/012)

Zumaian bost edo sei hizkuntza hitz egiten direla uste du.

131. Zer duzu faltan Errumaniatik? (101-151/013)

Bere ahizpa eta bere haurtzaroa da gehien faltan botatzen duena, Errumaniako zenbait leku.

132. "Txikiteoak asko harritu ninduen" (101-151/014)

Zumaian kalean Errumanian baino ume gehiago daudela dio. Kaleko bizitzak eta txikiteoak harritu zuen gehienbat.

133. Zumaiaiko gertutasuna, natura, giroa... gustuko (101-151/015)

Zumaian gustuko du kokapena, dena gertu egotea, pintxo potea eta ohiturak. Euria, klima, berriz, ez zaio gehiegi gustatzen.

134. "Orain nire tokian nago" (101-151/016)

Integrazioa ez zen erraza izan hasieran, baina orain bere tokian dagoela dio.

135. Errumanieraz zenbait hitz (101-151/018)

Errumanieraz zenbait hitz.

136. Euskaraz hitz batzuk (101-151/019)

Euskaraz hitz batzuk.

137. Errumanieraz haur kanta bat (101-151/021)

Errumanieraz haur kanta bat.

138. Monserrat Mbasogo (101-152/002)

Bere buruaren aurkezpena egiten du.

139. Fangerari buruzko datuak (101-152/003)

Fangerari buruzko datuak.

**140. Familiarengana etorri zen Euskal Herrira
(101-152/004)**

Euskal Herrira familia bertan zegoelako eta arrazoi pertsonalengatik etorri zen.

141. "Ama etorri zen lehenago" (101-152/005)

Ama lan bila etorri zen Euskal Herrira, ondoren familia bertara ekartzeko askoz.

142. "Lehenengo hilabeteak oso ezberdinak" (101-152/006)

Lehenengo hilabeteak oso ezberdinak izan ziren; ez zen erraza ezta gogorregia izan, familia hemen edukitzeak lagundu zion.

143. Gaztelania eskolan (101-152/007)

Gaztelania eskolan ikasi zuen, txikitatik.

144. "Hemen dena kontrolaturik dago" (101-152/008)

Bertako ordenak, antolaketak, harritu zuen bereziki.

145. "Integratzea ez zen erraza izan" (101-152/009)

Zumaiara egokitzea oso zaila izan zen beretzat, bertako bizitza oso ezberdina delako.

**146. "Denak niri begira zeudela sentitzen nuen"
(101-152/010)**

Toki berri batera iristean denak zuri begira daudela sentitzen ohikoa da, baina ez da benetan gertatzen dena.

147. Lana lortzeko zailtasunak (101-152/011)

Lagunei esker lortzen du lana, baina ez da erraza.

**148. Zumaiaiko beste atzerritarrekin harreman ona
(101-152/012)**

Zumaian eta inguruan bizi den Ekuatore Gineako jendearekin harreman ona dauka, baita gainerako atzerritarrekin ere: senegaldarrak, kubatarra, kamerundarrak...

**149. "Denetariko jendea dago Zumaian, irekia eta itxia"
(101-152/013)**

Denetariko jendea dago Euskal Herrian: itxia eta irekia. Norberaren jarrera kontua da.

150. Lau hizkuntza hitz egiten ditu (101-152/014)

Gaztelania, ingelesa, frantsesa eta fangera hitz egiten daki.

151. Euskara kalean ikasiz (101-152/015)

Euskara kalean ikasten ari da: umeekin, hitz solteak ikasten... oinarrizkoa.

152. Zer duzu faltan? (101-152/016)

Ekuatore Gineako janaria, familia eta giroa botatzen ditu faltan.

153. "Zumaian seme-alabak salbu daudela sentitzen dut" (101-152/017)

Zumaiako lasaitasuna asko gustatzen zaio; seme-alabak salbu daudela sentitzen du.

154. Eguraldia ez da arazo (101-152/018)

Gusturago dago neguan udaran baino; eguraldia beretzat ez da arazoa.

155. "Hasieran integratzea ez zen erraza izan" (101-152/019)

Euskal Herrian integratzea bakoitzaren arabera dela dio. Hasieran ez zen erraza izan beretzat.

156. Fangeraz eta euskaraz hitz batzuk (101-152/021)

Fangeraz eta euskaraz hitz batzuk.

157. Fangeraz abesti bat (101-152/023)

Fangeraz abesti bat.

158. "Zumaiarra naiz" (101-152/025)

"Zumaiarra naiz"

159. Lucy brasildarra (101-153/002)

Brasildarra da, lan elkarrizketa bat egitera etorri zen urtebeteko lana egiteko. Bertako lasaitasuna oso gustuko du. Familia da gehien botatzen duena faltan.

160. Hemengo janariarekin eta eguraldiarekin sufritu zuen (101-153/004)

Lehenengo hilabeteetan oso gaizki pasa zuen, janariarekin batez ere. Hotza ere oso gogorra egin zitzaion.

161. Hemengo janariarekin eta eguraldiarekin sufritu zuen (portugesez) (101-153/005)

Lehenengo hilabeteetan oso gaizki pasa zuen, janariarekin batez ere. Hotza ere oso gogorra egin zitzaion (portugesez).

162. "Euskaldunek asko eskertzen dute euskara ikasteko gogoa" (101-153/007)

Jendea jatorra dela dio, eta ikasteko gogoz ikusten bazaituzte asko eskertzen dutela.

163. Atzeritarrekin harremana (101-153/008)

Zenbait atzeritarrekin harreman ona du, brasildar asko daude: Txile, Argentina, Nikaragua, Errumania...

164. Zumaiarrak hasieran itxiak (101-153/009)

Zumaiarrekin ere harreman ona du, baina hasiera batean oso itxiak direla dio.

165. Portugesa, gaztelania, italiera, ingelesa eta euskara ahoan (101-153/010)

Denetatik pixka bat dakiela esaten du, hitz solteak dakizki: portugesa, gaztelania, italiera, ingelesa eta euskara.

166. Entzunez ikasiz (101-153/011)

Hizkuntza guztiak entzunez ikasi ditu, inoiz ez da akademietara joan.

167. Semearekin ikasten du euskara (101-153/012)

Euskara bere semearekin ikasten du, musika entzunez...

168. "Zaila da euskara" (101-153/014)

Euskara hizkuntza ezberdina da beretzat, nahiko zaila iruditzen zaio.

169. Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Zumaian? (101-153/015)

Zumaian hizkuntza asko hitz egiten direla uste du, bost-zortzi hizkuntza.

170. Familia eta janaria faltan (101-153/016)

Familia da Brasildik faltan gehien ematen duena. Hango janaria ere faltan du.

171. "Elkartasuna falta da" (101-153/018)

Brasileko bizimodua oso ezberdina da. Han izugarrizko elkartasuna dagoela dio, hemen ez hainbeste. Han dena elkarbanatzen da.

172. "Elkartasuna falta da" (portugesez) (101-153/019)

Brasileko bizimodua oso ezberdina da. Han izugarrizko elkartasuna dagoela dio, hemen ez hainbeste. Han dena elkarbanatzen da (portugesez).

173. Elkartasunaz hitz batzuk (portugesez) (101-153/021)

Elkartasuna Brasilen (portugesez).

174. Paisaia, janaria, hondartza... gustuko (101-153/022)

Zumaiako paisaia, janaria, hondartza... gustatzen zaizkio.

175. "Hizkuntza muga izan da batzuetan" (101-153/023)

Batzuetan bazterturik sentitu da: hizkuntza muga izan da batzuetan, gainditu duen arte.

176. Hitz batzuk euskaraz eta portugesez (101-153/025)

Hitz batzuk euskaraz eta portugesez.

177. "Niretzat portugesa eta Brasileko portugesa bi hizkuntza dira" (101-153/029)

Brasilgo portugesari buruzko datuak.

178. Abesti bat portugesez (101-153/031)

Abesti bat portugesez.

179. Maimouma senegaldarra (101-154/002)

Aurkezpena

180. Zumaian ezkontzeko etorri zen (101-154/003)

Ezkontzeko etorri zen Zumaiaara.

181. Pulaarerari eta Senegali buruzko datu batzuk (101-154/005)

Pulaarera eta Senegali buruzko datu batzuk.

182. Segenaldik Zumaiaara (101-154/006)

Lehen hilabetetan aldaketa handia bizi izan zuen; hala ere, frantsesa oso presente egon da bere etxean txikitatik.

183. Gauza asko ikasi ditu Zumaian (101-154/007)

Gauza asko ikasi ditu hemen: irakurtzen, idazten...

184. Gaztelania nola ikasi zenuen? (101-154/008)

Gaztelania Senegalen ikasi zuen apur bat, eta ondoren Zumaian akademian.

185. Zumaiarren artean giro ona (101-154/009)

Euskara pixka bat ikasi du, hitz solteak. Zumaiaiko senegaldarrekin harreman ona dauka. Denek elkar agurtzen dute Zumaian, oso jende jatorra dago.

186. Seme-alabei esker jendea ezagutuz (101-154/011)

Senarra zumaiarra da. Senarraren familiaz gain, herritarrak ere agurtzen ditu. Bere seme-alabei esker jende asko ezagutu du.

187. Zumaiaiko lasaitasuna eta bizimodua gustuko (101-154/012)

Zumaiaiko lasaitasuna, bizimodua... gustatzen zaizkio.

188. "Ahal dudanetan Senegalera joaten naiz" (101-154/013)

Senegaleko familia faltan botatzen du, batez ere ahizpak.

189. Hitz batzuk pulaareraz (101-154/015)

Hitz batzuk pulaareraz eta hitz gogokoena.

190. Sehaska kanta bat pularaeraz (101-154/019)

Sehaska kanta bat pulaareraz.

191. Irina errusiarra (101-155/002)

Bere burua aurkezten du.

192. Hizkuntza asko hitz egiten dira Errusian (101-155/004)

Errusiari eta errusierari buruzko datuak.

193. Errusian ere eleaniztasuna (101-155/005)

Errusiako hizkuntzak: armeniera, poloniera...

194. Irina eleanitza da (101-155/006)

Errusiera, gaztelania, euskara eta ingelesa hitz egiten ditu, eta frantsesa eta alemana ikasten ari da.

195. Zergatik etorri zinen Zumaiaara? (101-155/007)

Senarra bertakoa zelako etorri zen Euskal Herrira, ikasketak amaitutakoan.

196. "Espainiako topikoak bakarrik ezagutzen nituen" (101-155/008)

Euskal Herria lehenago ez zuen ezagutzen, Espainiako topikoak bakarrik. Senarrak erakutsi zion.

197. "Hasieran ez zen ia atzerritarrik bertan" (101-155/009)

Lehenengo hilabeteetan ez zegoen ia kanpotarrik Zarautzen.

198. Lehenengo gaztelania eta ondoren euskara ikasi zituen (101-155/010)

Donostiako unibertsitatean gaztelania ikasi zuen. Ondoren, euskara ikasi zuen, alabei eskolan laguntzeko.

199. Zarautzeko euskaltegian euskaldundu zen (101-155/011)

Zarautzeko euskaltegian ikasi zuen euskara, eskola eta Internet bidez.

200. Euskara harreman sareak zabalduz (101-155/012)

Euskara ikasteak harreman sareak zabaltzen lagundu zion.

201. "Euskaldunak oso tradizionalak dira" (101-155/013)

Euskaldunak oso tradizionalak direla dio, tradizioa haien identitatearen parte dela. Zirkuluak nahiko itxiak dira.

202. "Euskaldunak oso tradizionalak dira" (errusieraz) (101-155/015)

Euskaldunak oso tradizionalak direla dio, tradizioa haien identitatearen parte dela. Zirkuluak nahiko itxiak dira (errusieraz).

203. Errusiako lagunak eta janaria botatzen ditu faltan (101-155/017)

Errusiako lagunak ditu faltan, baita janaria ere.

204. Zumaian bizi diren zenbait atzerritar ezagutzen ditu (101-155/018)

Zumaian bizi diren aljeriar, marokoar, ukrainiar, bulgariar eta italiar batzuk ezagutzen ditu.

205. Nolakoa iruditzen zaizu euskara? (101-155/020)

Euskara ikastearen zailena hitz egiten ausartzea da.

206. "Koadrila batean sartzea oso zaila da" (101-155/021)

Koadrila batean sartzea oso zaila da; kanpokoek haien taldean egotea nahiago dute.

207. Errusiar ohiturak gordez (101-155/022)

Errusiar ohitura batzuk gordetzen dituela uste du: ordutegia, janaria...

208. "Errusian asteburutan ere lan egiten da" (101-155/024)

Ordutegira ohitzea asko kostatu zitzaion, batez ere dendetakora.

209. Mendia eta itsasoa gustuko (101-155/025)

Zumaia oso polita da, itsasoa, paseoak, alde zaharra... gustatzen zaizkio, mendia eta itsasoa batera edukitzea.

210. Hitz batzuk errusieraz eta euskaraz (101-155/027)

Errusieraz eta euskaraz hitz batzuk, eta hitz gogokoena.

211. "Zumaiarra naiz" (101-155/029)

"Zumaiarra naiz"

212. Maitasunezako poema bat errusieraz (101-155/031)

Pushkinen poema bat.

213. Giovanni italiarra (101-156/002)

Giovannik bere burua aurkezten du.

214. Italierari buruzko datuak (101-156/004)

Italierari buruzko datuak.

215. Italierari buruzko datuak (italieraz) (101-156/006)

Italierari buruzko datuak (italieraz).

216. Zenbat hizkuntza dakizkizu? (101-156/008)

Italiera, alemana, ingelesa, eta gaztelania. Euskara ulertzen du.

217. "Sagarrak jasotzen ezagutu nuen nire emaztea" (101-156/009)

Euskaldun batez maitemindu zen, eta Italiatik Zumaiara etorri zen harekin.

218. "Beti sentitu naiz integraturik" (101-156/010)

Zailena Italiako azken hilabeteetako denboraldia izan zen. Zumaian integratzeko elkarte eta ekintza askotan hartu zuen parte, eta horri esker ez zuen zailtasunik izan. Beti sentitu da integraturik.

219. "Beti sentitu naiz integraturik" (italieraz) (101-156/011)

Zailena Italiako azken hilabeteetako denboraldia izan zen. Zumaian integratzeko elkarte eta ekintza askotan hartu zuen parte, eta horri esker ez zuen zailtasunik izan. Beti sentitu da integraturik (italieraz).

220. "Erabaki zaila baina azkarra izan zen Euskal Herrira etortzea" (101-156/012)

Hogeita bat edo bi urte daramatza hemen.

221. Euskal Herriko italiarrekin harremanik bai? (101-156/013)

Euskal Herrian bizi diren italiarrekin oso harreman ona dauka.

222. Etxean italieraz (101-156/014)

Etxean italieraz hitz egiten dute seme-alabek ikas zezaten.

223. Zumaiaiko atzerritarrekin harremana (101-156/015)

Atzerritar asko daude Zumaian: italiarrak, ingelesak, serbiarrak, irlandesak...

224. "Ez naiz inoiz zelatatua eta begiratua sentitu" (101-156/017)

Euskaldunak ireki daitezen zugar konfiantza izan behar dute, nobleak dira, zintzoak.

225. "Ez naiz inoiz zelatatua eta begiratua sentitu"(italieraz) (101-156/018)

Euskaldunak ireki daitezen zugar konfiantza izan behar dute, nobleak dira, zintzoak (italieraz).

226. "Gaztelania albistegiak ikusiz ikasi nuen" (101-156/019)

Gaztelania albistegiak ikusten ikasi zuen, bata bestearen atzetik ikusten zituen, baita hauek grabatu ere. Pelikulak ere erabili zituen horretarako. Gakoa hitz egiten ausartzea izan zela dio.

227. "Gaztelania albistegiak ikusiz ikasi nuen" (italieraz) (101-156/020)

Gaztelania albistegiak ikusten ikasi zuen, bata bestearen atzetik ikusten zituen, baita hauek grabatu ere. Pelikulak ere erabili zituen horretarako. Gakoa hitz egiten ausartzea izan zela dio (italieraz).

228. "Euskaraz inguraturik gaude Zumaian" (101-156/021)

Kalean euskara asko entzuten duenez, hitz asko ikasi ditu kalean. Jarrera kontua ere badela dio, euskaraz komunikatzen saiatzen da kalean.

229. "Euskaraz inguraturik gaude Zumaian" (italieraz) (101-156/022)

Kalean euskara asko entzuten duenez, hitz asko ikasi ditu kalean. Jarrera kontua ere badela dio, euskaraz komunikatzen saiatzen da kalean (italieraz).

230. Zumaiaiko zer duzu gustuko? (101-156/023)

Oso toki polita da Zumaia beretzat, atsegina, lasaia, irekia, gertukoa...

231. Italiako zer duzu faltan? (101-156/024)

Orokorrean familia da faltan gehien botatzen duena. baina Italiara itzultzen denean bere tokia daukala sentitzen du.

232. Italiako zer duzu faltan? (italieraz) (101-156/025)

Orokorrean familia da faltan gehien botatzen duena. baina Italiara itzultzen denean bere tokia daukala sentitzen du.

233. Zerk harritu zintuen gehien? (101-156/027)

Izateko eran nahiko antzekoak garela sentitu du, baina kalean egiten den bizitzak harritu zuen batez ere.

234. Zerk harritu zintuen gehien?(italieraz) (101-156/028)

Izateko eran nahiko antzekoak garela sentitu du, baina kalean egiten den bizitzak harritu zuen batez ere (italieraz).

235. Italieraz hitz batzuk (101-156/030)

Italieraz hitz batzuk eta bere hitz gogokoena.

236. Euskaraz gustukoen duen hitza (101-156/031)

Euskaraz gustukoen duen hitza.

237. Euskaraz hitz batzuk (101-156/032)

Hitz batzuk euskaraz.

238. "Zumaiarra naiz" (101-156/034)

"Zumaiarra naiz"

239. Anelia bulgariarra (101-157/001)

Aneliak bere burua aurkezten du.

240. Bulgaria eta bulgarierari buruzko datuak (101-157/003)

Bulgaria eta bulgarierari buruzko datuak.

241. Zenbat hizkuntza hitz egiten dituzu? (101-157/004)

Bulgariera eta gaztelania hitz egiten ditu. Zumaia lanera etorri zen.

242. Lehen hilabeteak Zumaian (101-157/005)

Lehen hilabeteak ez ziren onak izan, hizkuntza ere muga izan zen. Hala ere, koinatek asko lagundu zuten.

243. Gaztelania bere kabuz ikasi zuen (101-157/006)

Gaztelania bere kabuz eta lanean ikasi zuen, oso zaila izan zen.

244. Atzerritarrak Zumaian (101-157/007)

Oso jende bulgariar gutxi dago orain Zumaian. Beste herrialdeetako jendea ere ezagutzen du: marrokiarrak, errumaniarrak, kolonbiarrak...

245. Harreman ona zumaiaarrekin (101-157/008)

Bertako jendearekin oso harreman ona dauka.

246. Gaztelania euskara baino errazagoa (101-157/009)

Euskara oso zaila dela dio, gaztelania errazagoa egiten zaio.

247. Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Zumaian? (101-157/010)

Zumaian zazpi edo zortzi hizkuntza hitz egiten direla uste du.

248. Zer duzu faltan jatorritik? (101-157/011)

Familia eta bere etxea botatzen ditu batez ere faltan.

249. Zumaiaiko zer duzu gustuko? (101-157/012)

Zumaiaiko lasaitasuna gustuko du, jendeak bera ezagutzea.

250. Nolakoa izan da integrazioa? (101-157/013)

Integrazioa erraza izan da bere kasuan, baina bada zaila egin zaionik ere.

251. Bulgarietaz hitz batzuk (101-157/015)

Bulgarietaz hitz batzuk eta hitz gogokoena.

252. Euskaraz hitz batzuk (101-157/016)

Euskaraz hitz batzuk.

253. Tabernako bizitza (101-157/020)

Taberna edukitzean denek ezagutzen zaituztela dio.

254. Willem holandarra (101-158/002)

Willemek bere burua aurkezten du.

255. Nederlandarari buruzko datuak (101-158/004)

Nederlandarari buruzko datuak.

256. Holandako beste hizkuntzak (101-158/005)

Holandan nederlandera gain, frisia ere hitz egiten da. Arabiera ere hitz egiten da, immigrazioa dela eta.

257. Hiru hizkuntza dakizki (101-158/006)

Nederlandera, ingelesa eta gaztelania hitz egiten ditu.

258. Duela hogeit hamar urte etorri zen (101-158/007)

Duela hogeit hamar urte etorri zen bertara lan bila. Zarautzen lanean hasi zen eta Zumaia etorri zen bizitzera.

259. Komunikatzeko gaztelania ikasi zuen (101-158/009)

Espainiako zenbait tokitan egona zen, beraz, gaztelania ezagutzen zuen. Hasieran gaztelania arazo bat izan zen, eta komunikatu ahal izateko gaztelania ikasten hasi zen.

260. Nola ikasi zenuen gaztelania? (101-158/011)

Gaztelania bere kabuz ikasi zuen, komunikazio beharra zela eta.

261. Bi urtez euskaltegia (101-158/013)

Gaztelaniaz gain euskara hitz egiten zela konturatu zen eta hiru urteren buruan euskaltegia joaten hasi zen. Orain gauza batzuk ulertzen ditu euskaraz.

262. Alemana eta nederlandera (101-158/014)

Aleman apur bat ere badaki baina nederlandaren oso antzekoa da.

263. Seme-alabekin nederlandera (101-158/016)

Nederlandera hasieran ez zuen ia erabiltzen Zumaian. Orain, berriz, seme-alabekin nederlandera hitz egiten du, ingelesarekin batera.

264. Zumaiko atzerriarrak. Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Zumaian? (101-158/018)

Zumaian atzerriar asko ezagutzen ditu: irlandarrak, serbiarrak, marrokiarrak, afrikarrak... Guztira, hamabost edo hogeit hamar hizkuntza hitz egiten direla uste du Zumaian.

265. "Euskal Herriko sozializazioa desberdina da" (101-158/019)

Euskaldunak jatorrak direla dio, gustura dago haien artean. Kulturalki holandarrekin konparatuz, sozializazioa ezberdina da, Holandan ez baita koadrilan ibiltzen.

266. Zer duzu faltan Holandatik? (101-158/020)

Gehien faltan botatzen duena jendearen inguruko informazioa erraz jakitea da.

267. Zumaiako zer duzu gustuko? (101-158/021)

Zumaiaren edertasuna, natura eta giroa gustatzen zaizkio, baita txikia izateak dakartzan abantailak ere.

268. "Batzueta zumaiarra izan nahi dut, besterik gabe" (101-158/022)

Zumaian integratzea erraza eta zaila izan da aldi berean. Lagunak dituen arren, beti ezberdina izango dela dio.

269. Nederlanderaz hiztegia eta hitz gogokoena (101-158/024)

Nederlanderaz hiztegia eta hitz gogokoena.

270. Aho-korapilo bat nederlanderaz (101-158/028)

Aho-korapilo bat nederlanderaz.

271. Ridial senegaldarra (101-159/002)

Bere burua aurkezten du euskaraz eta serereraz.

272. Serereraz datu batzuk. (101-159/004)

Serererari eta Senegali buruzkodatu batzuk.

273. Hiru sererera Senegalen (101-159/005)

Hiru sererera daude Senegalen. Hauek oso ezberdinak dira.

274. Hitz antzekoak euskaraz eta serereraz (101-159/006)

Serereraz eta euskaraz antzekotasunak.

275. Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Senegalen? (101-159/007)

Hamar bat hizkuntza hitz egiten dira Senegalen.

276. Zazpi bat hizkuntza hitz egiten ditu (101-159/008)

Zazpi bat hizkuntza hitz egiten ditu.

277. Zergatik etorri zinen Zumaiara? (101-159/009)

Getarian bizi zen lehenago, eta hobeto komunikatua dagoelako eta politagoa delako etorri da. Oso harreman ona dauka bertakoekin orokorrean, jende irekia dela dio.

278. Zergatik etorri zinen Zumaiara? (serereraz) (101-159/011)

Getarian bizi zen lehenago, eta hobeto komunikatua dagoelako eta politagoa delako etorri da. Oso harreman ona dauka bertakoekin orokorrean, jende irekia dela dio (serereraz).

279. Senegaldik Zumaiarako aldaketa handia izan al da? (101-159/013)

Kultura batetik besterako saltoa handia da edonorentzat. Desberdintasun kulturalak ulertu ere errespetatu behar direla dio.

280. Senegaldik Zumaiarako aldaketa handia izan al da? (serereraz) (101-159/015)

Kultura batetik besterako saltoa handia da edonorentzat. Desberdintasun kulturalak ulertu ere errespetatu behar direla dio.

281. Zumaiako zer gustatzen zaizu? (101-159/016)

Zumaiako herria gustatzen zaio, baita jendea ere, oso irekia da jendea, udaletxetik hasita biztanleetaraino.

282. "Euskaraz hitz egiten badiezu, euskaldunak zoriontsu dira" (101-159/018)

Lanean ikasi du oraingoz dakiena, oinarrizkoa bakarrik.

283. Zer duzu faltan Senegaldik? (101-159/020)

Senegaleko giroa asko botatzen du faltan, mugimendua, familia, kaleko soinuak, ekitaldiak, hareazko lurra...

284. Serereraz hitz batzuk (101-159/022)

Hiztegia serereraz eta hitz gogokoena.

285. Euskaraz hitz batzuk (101-159/024)

Euskaraz hitz batzuk.

286. "Zumaiarra naiz" (101-159/026)

"Zumaiarra naiz"

287. Abesti bat serereraz (101-159/028)

Abesti bat serereraz.

288. Woloferari buruzko datuak (101-160/002)

Woloferari buruzko datuak.

289. Woloferaz gain hizkuntza ofizial gehiago al daude? (101-160/004)

Wolofera ere ofiziala izan arren, eskolan frantsesa ikasten dute.

290. Woloferaz hitz batzuk (101-160/006)

Hiztegia Woloferaz.

291. Sererera eta Wolofera ahotan (101-160/008)

Serereraren eta Woloferaren erabileraz dihardu.

**292. Sererera eta Wolofera ahotan (woloferaz)
(101-160/010)**

Serereraren eta Woloferaren erabileraz dihardu (woloferaz)

293. Mohamed marokoarra (101-161/002)

Aurkezpen pertsonala.

294. Tamazigtherari buruzko datuak (101-161/004)

Tamazigtherari buruzko datuak.

**295. Tamazightera eta arabiera antzekoak al dira?
(101-161/005)**

Tamazigtherako eta arabierako hitz asko antzekoak dira.

**296. Tamazigtherak eta euskarak antzekotasunik bai?
(101-161/007)**

Antzekotasunak daudela dio, hitz asko antzekoak baitira.

297. Zergatik etorri zara Euskal Herrira? (101-161/008)

Erreterian bizi zen Zumaian baino lehenago. Gusturago dago Zumaian, irekiak baitira.

298. Nolakoak izan ziren lehenengo hilabeteak Euskal Herrian? (101-161/010)

Hizkuntzaren aldetik zailtasunak zituen. Familia bertan edukitzeak asko lagundu zion, baina bere herria atzean uztea gogorra egin zitzaion.

299. Gaztelania kalean ikasi zuen (101-161/011)

Inoiz ez du akademikoki gaztelania ikasi, horregatik uste du oraindik ez duela guztiz ongi menderatzen.

**300. Nolako harremana duzu Zumaiaiko atzerriarrekina?
(101-161/013)**

Harreman ona dauka Zumaian bizi diren beste atzerriarrekina, asko daude: pakistandarrak, marokoarrak...

301. Zumaiarrekin harremanik bai? (101-161/014)

Zumaiarrekin oso ona dela dio, inoiz ez dago kexu zein gatazkarik. Denak berdinak dira Zumaian.

302. Beloarekin gatazkarik Zumaian? (101-161/015)

Beloarekin gatazkarik ez da izan Zumaian; bakoitzaren kultura errespetatu behar dela dio.

303. "Nire alabek asko maite dute euskara" (101-161/017)

Balore gehiago dauka euskarak bere alabentzat gaztelaniak baino.

304. "Euskara asko kostatzen zait" (101-161/018)

Euskaldun askorekin egin du lan, baina euskara asko kostatzen zaio eta gaztelaniaz hitz egiten du beraiekin.

305. Zenbat hizkuntza hitz egiten direla uste duzu Zumaian? (101-161/019)

Hamabost-hogei hizkuntza hitz egiten direla uste du Zumaian.

306. Zumaiaiko zer gustatzen zaizu? (101-161/020)

Zumaiaiko lasaitasuna eta jendearen izaera ditu gustuko. Oso toki polita dela uste du.

307. Zer duzu faltan Marokotik? (101-161/021)

Bere lurra da eta gauza asko botatzen ditu faltan Marokotik.

308. Tamazigtheraz hitz batzuk (101-161/023)

Tamazigtheraz hitz batzuk eta hitz gogokoena.

309. Euskaraz hitz batzuk (101-161/024)

Euskaraz hitz batzuk.

310. Attila hungariarra (101-162/001)

Bere burua aurkezten du.

311. "euskaltegira joatea gustatzen zait" (101-162/003)

Esperientzia polita da beretzat euskaltegira joatea baina euskara oso zaila dela uste du.

312. Hungarierari buruzko datuak (101-162/005)

Hungarierari buruzko datuak.

313. Zergatik etorri zinen Zumaia? (101-162/006)

Dublinen bizitzen egon zen lanean, eta bertan ezagutu zuen bere emaztea. Horrela, emazteak Euskal Herrira itzuli nahi zuen eta elkarrekin egin zuten.

314. Lehen hilabeteak Zumaian (101-162/008)

Zaila izan ziren lehen hilabeteak, batez ere hizkuntzaren, jendearen eta janariaren aldetik.

315. Atzeritarrekin eta zumaiarrekin harremana (101-162/010)

Hungariako emakume bat ezagutzen du Zarautzen bizi dena. Bestetik, Zumaian bizi diren beste atzeritarrekin harremana du: marokoarrekin, frantsesekin, errusiarrekin...

316. Harreman ona zumaiarrekin (101-162/012)

Harreman ona dauka zumaiarrekin.

317. "Zumaia txikia da baina oso polita" (101-162/013)

Zumaiaiko paisaia gustuko du, eta orokorrean, bertako arkitektura.

318. "Hungarieraz hitz egitea faltan botatzen dut" (101-162/014)

Hungariako familia eta janaria botatzen ditu faltan.

319. Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Zumaian? (101-162/015)

Zumaian zortzi-hamar hizkuntza hitz egiten direla uste du.

320. Zerk harritu zintuen gehien? (101-162/017)

Janaria oso ezberdina da, baita jendearen izaera ere. Euskara eta gaztelania (biak) hitz egiteak harritu zuen, Hungarian bakarra hitz egiten baita.

321. Nolakoak dira euskaldunak? (101-162/019)

Hasiera batean hotzak dirudite, baina behin ezagututa oso jende ona dela dio, asko laguntzen duen jendea dela.

322. Hungarieraz eta euskaraz hitz batzuk (101-162/021)

Hungarieraz eta euskaraz hitz batzuk.

323. Aljeriarra (101-163/002)

Aurkezpena.

324. Lehen hizkuntza: arabiera (101-163/003)

Arabierari buruzko datuak.

325. Arjeliako hizkuntzak (101-163/004)

Arabiera eta frantsesa hitz egiten dira Arjelian, baita berberera ere bai.

326. Non hitz egiten da arabiera? (101-163/005)

Arabiera eta berberera hitz egiten diren tokiak izendatzen ditu.

327. Zein hizkuntza hitz egiten dituzu? (101-163/006)

Arabiera, frantsesa, gaztelania, ingelesa eta italiara hitz egiten ditu. Euskaraz zenbait hitz dakizki.

328. Zergatik etorri zinen Zumaia? (101-163/007)

Balentzian bizi izan zen lehenengo, baina lan kontuengatik Zumaia mugitu ziren. Balentziara ere lanagatik joan zen.

329. Lehen hilabeteak Zumaian (101-163/008)

Lana zela eta ez zuten jende asko ezagutu hasieran.

330. Integrazioa erraza izan da? (101-163/010)

Integrazioa ez zen erraza izan, eta oraindik ere ez da. Hasieran beldurra zioten baina denborarekin lortu zuten.

331. Atzeritarrekin harremanik bai? (101-163/012)

Zumaiako mezkitan elkartzen dira.

332. Ramadana Zumaian (101-163/014)

Batzuk jatorrira itzultzen dira.

333. Musulmanekin tentsiorik bai herrian? (101-163/016)

Zumaian ez du horrelakorik nabaritu.

334. Zer duzu faltan? (101-163/017)

Familia, jendea eta festak dira faltan botatzen dituenak.

335. Zumaiako zerk harritu zintuen gehien? (101-163/019)

Ezberdintasun kulturala handia da, baina komunean duguna begiratu behar duela dio.

336. Zumaiako zer gustatzen zaizu? (101-163/020)

Zumaia eta bere jatorriko hiria antzekoak dira, horregatik gustatzen zaio.

337. Zumaiarrekin nolako harremana duzu? (101-163/021)

Orokorrean harreman ona dauka.

338. Gustuko ez duzun zerbait ba al dago? (101-163/023)

Momentuz oso gustura dagoela dio.

339. Arabieraz hitz batzuk (101-163/025)

Hiztegia arabieraz.

340. Euskaraz hitz batzuk (101-163/026)

Euskaraz hitz batzuk.

341. Arabieraz abesti bat (101-163/027)

Abesti bat arabieraz.

342. "Dagoeneko zumaiarra sentitzen naiz" (101-163/028)

Hamar urte daramatza Zumaian.

343. Hasmik armeniarra (101-164/002)

Aurkezpena.

344. Nola ikasi duzu armeniera? (101-164/004)

Bere gurasoengandik ikasi du.

345. Norekin hitz egiten duzu armeniera? (101-164/005)

Familiarekin egiten du hitz armenieraz.

346. Zumaian bizi den atzeritarrik ezagutzen duzu? (101-164/007)

Amerikarrak, txinatarrek eta errusiarrek ezagutzen ditu.

347. Armeniatik zer gustatzen zaizu? (101-164/008)

Dena gustatzen zaiola dio, supermerkatuak...

348. Zein hizkuntza hitz egiten dituzu? (101-164/009)

Armeniera, gaztelania, euskara eta ingelesa.

349. Zer gustatzen zaizu Zumaiaetik? (101-164/010)

Lagunak, familia eta ikastetxea gustatzen zaizkio gehien.

350. Armenieraz hitz batzuk (101-164/012)

Hiztegia armenieraz.

351. "zumaiarra naiz eta armeniarra naiz" (101-164/014)

"zumaiarra naiz eta armeniarra naiz"

352. "Zumaiarra naiz" (101-164/016)

"Zumaiarra naiz"

353. Zumaian bizi den getariarra (101-165/004)

Argizkaren aurkezpena.

354. Zergatik ikasi zeinu hizkuntza? (101-165/006)

Zergatik ikasi zuen zeinu hizkuntza. Irakaslea da, eta ume gorren bat izanez gero ikasleen artean, zuzenean komunikatzea nahiko luke.

355. Oinarrizko hitz batzuk zeinu hizkuntzan I (101-165/008)

Oinarrizko hitzak zeinu hizkuntzan.

356. Oinarrizko hitz batzuk zeinu hizkuntzan II (101-165/010)

Oinarrizko hitz batzuk zeinu hizkuntzan.

357. Sire senegaldarra (101-166/002)

Aurkezpena gaztelaniaz.

358. Sire senegaldarra (mandinkera) (101-166/004)

Aurkezpena mandinkera.

359. Senegalgo hizkuntzak (101-166/006)

Mandinkera Senegalgo hizkuntza bat da. Hizkuntza asko daude Senegalen.

360. Nolatan etorri zen Zumaiara (101-166/007)

Senarra Zumaiara etorri zen lanera, Iruñetik. Horregatik etorri zen bera ere.

361. Hasieran, ezin komunikatu (101-166/008)

Lehenengo hilabeteak zailak izan ziren, ezin baitzuen komunikatu.

362. Presaka bizitzea ez du atsegin (101-166/010)

Senegaldik faltan duena: askatasuna eta lasaitasuna. Presaka bizi da hemen, eta zaila egiten zaio.

363. Zumaiako senegaldarrak (101-166/012)

Hemengo senegaldarrekin duen harremana. Etorri zenean, senegaldar bakarra zen Zumaian. Afrikarren elkarte sortu dute.

364. Zumaiatik gustatzen zaiona (101-166/013)

Zumaiatik gustatzen zaiona: polita eta atsegina. Integrazioa ez da erraza, lotsatia izanda. Pixkanaka egin behar da.

365. Antzezlan mutilazioaren kontra (101-166/015)

Antzezlan bat egin dute Afrikako errealitatea erakusteko (mutilazio genitalaren kontra).

366. Dakizkien hizkuntzak (101-166/016)

Mandinkera, wolofera, farntsesa eta gaztelania hitz egiten ditu. Euskara pixka bat.

367. Integrazioa oso zaila (101-166/018)

Euskaldunak atseginak direla dio, baina integrazioa ez dela erraza hala ere; oso zaila dela. Senegalgo bizimodua eta hemengoa parekatzen ditu.

368. Oinarrizko hitzak mandinkera (101-166/021)

Oinarrizko hitz batzuk mandinkera.

369. Hitz batzuk euskaraz; nola ikasi dituen (101-166/022)

Hitz batzuk esaten ditu euskaraz. Oikinan denek hitz egiten dute euskaraz, eta hala ikasten du. Lanean ere bai.

370. Mandinkera norekin? (101-166/023)

Mandinkera etxean erabiltzen du.

371. Hizkuntzak jakin arren, lana lortzea zaila (101-166/025)

Zumaia herri polita da, eta gustura daude, baina lana lortzea zaila dela dio. Gaitasuna izatea eta hizkuntza asko jakitea ez da aski; titulua eskatzen diete. Senegalen errazagoa dela uste du.

372. Musulmanen otoitzak (101-166/029)

Gizonezkoak mezkitera joaten dira ostiralero. Emakumeak ez. Berak etxean egiten du otoitz. Lanean ibilita ez da erraza otoitz orduak betetzea.

373. Sukaldaritza ikastaroa egiten (101-166/030)

Sukaldaritza ikastaro bat egiten ari da. Badauka esperientzia sukaldean lanean, baina titulua lortu nahi du.

374. Txinatarra da (101-168/002)

Bere burua aurkezten du.

375. Txinerari buruz (101-168/004)

Txinera mandarinera hitz egiten dute denek Txinan, baina hizkuntza gehiago ere badira. Hiri eta herri bakoitzak berea dauka. Kantonera hitz egiten da bere hirian.

376. Txinako hizkuntzak (101-168/005)

Txinan hitz egiten diren hizkuntzei buruzko azalpena.

377. 17 urterekin etorri zen, lanera; ez zeukan ikasten jarraitzeko gogorik (101-168/007)

Ez zitzaion ikastea gustatzen, eta bidaiatzeko gogoia zeukan, mundua ezagutzekoa. Horregatik, 17 urterekin etorri zen, lanera. Aitaren lagun batek lan kontratua egin zion denda batean lan egiteko.

378. Hasierako hilabeteak gogorak (101-168/008)

Hasiera oso gogorra egin zitzaion, baina gogo itzela zeukan ikasteko. Familia asko ematen zuen faltan, bereziki gauetan.

379. Gaztelania ikasteko prozesua (101-168/009)

Gaztelania nola ikasi duen: urte erdiz ikasi zuen akademia batean, eta gero dendan.

380. Zumaiaiko txinatarrak (101-168/010)

Txinatar gehiago ere ezagutzen ditu Zumaian. Ez daude asko.

381. Hango eta hemengo ohiturak (101-168/012)

Txinako ospakizunak hona ekartzen saiatzen da. Eta hemengoak ere bere egiten ari da. Gabonetan Zumaiaiko familia batekin egoten da.

382. Zumaiarrekin duen harremana (101-168/014)

Zumaiarrekin harreman ona du. Bi lagun-min ditu.

383. Ordutegiak oso desberdinak Txinan (101-168/015)

Txina eta Euskal Herria alderatzen ditu. Ordutegiak oso desberdinak dira, baina ohitzen ari da.

384. Gurasoen falta igartzen du (101-168/016)

Alaba bakarra da eta gurasoak ematen ditu faltan.

385. Zumaiaetik itsasoa eta mendia ditu gustuko (101-168/017)

Zumaiaetik gustatzen zaiona: hondartza, mendia, lasaitasuna... eguzkia hartzea ez. Igero egiten ez daki.

386. Hizkuntza ikasita, integrazioa erraza (101-168/018)

Behin hizkuntza ikasita, errazagoa da integratzea. Jendea jatorra dela dio.

387. Dakizkien hizkuntzak (101-168/020)

Txinera mandarinera hitz egiten du eta gaztelania ere bai, baina oraindik ez oso ondo. Ingelesa ere ikasi zuen pixka bat baina erdi ahaztuta dauka.

388. Hitz batzuk euskaraz. (101-168/021)

Euskaraz zenbakiak dakizki. Hitz batzuk esaten ditu euskaraz.

389. Bederatzi urte Zumaian, gustura (101-168/023)

Zumaia asko gustatzen zaio. Polita da eta gero eta eguraldi hobea egiten du. Zestoan eta Deban ere egon da. Bederatzi urte daramatza Zumaian.

390. Urtean behin Txinara (101-168/025)

Hasieran urtean birritan joaten zen Txinara, izebarekin; azken hiru urteetan urtean behin, hilabeterako.

391. Euskara eta gaztelania ikasten, dendan (101-168/026)

Dendan ikasi du gaztelaniaz eta euskaraz dakiena, bezeroekin.

392. Oinarrizko hitzak mandarineraz (101-168/028)

Oinarrizko hitz batzuk mandarineraz.

393. Dendako lana; Zumaia zergatik gustatzen zaion (101-168/030)

Dendako lanari buruz hitz egiten du. Zer saltzen duten bertan. Zumaia zergatik gustatzen zaion ere azaltzen du.

394. "Zorionak zuri" mandarineraz (101-168/035)

"Zorionak zuri" abesten du mandarineraz.

395. Alemaniatik etorria (101-169/003)

Alemaniarra da, eta 13 urte daramatza Zumaian.

396. Alemanierari buruz (101-169/005)

Alemanierari buruzko datu batzuk.

397. Alemaniako hizkuntzak (101-169/006)

Alemanian alemaniera da hizkuntza ofiziala. Inmigrazioari esker, beste hainbat hizkuntza hitz egiten dira. Alemanierak aldaerak ere baditu.

398. Nolatan etorri zen Zumaia (101-169/007)

Alemanian ezagutu zuen orain bere emaztea dena, eta bizitzera Zumaia etortzea erabaki zuten.

399. Oroitzapen ona lehen hilabetez (101-169/009)

Lehen hilabeteen oroitzapen ona dauka. Elgoibarren topatu zuen lana. Asko lagundu zioten.

400. Gaztelania ikasteko modua (101-169/011)

Gaztelania nola ikasi zuen azaltzen du.

401. Euskara ulertu bai, baina hitz egin... (101-169/012)

Euskaraz ikasten ibili da, Zumaian eta Donostian. Ulertzen du, baina zaila gertatzen zaio hitz egitea. Semeak ederki daki euskaraz.

402. Alemanieraz lanean eta etxean (101-169/013)

Alemanieraz lanean hitz egiten du egunero. Emaztearekin eta semearekin ere alemanieraz egiten du. Eta gurasoekin, Skip bidez.

403. Harreman ona beste alemaniarrekin (101-169/014)

Alemaniar gehiago ere ezagutzen ditu Euskal Herrian, eta sarri elkartzen dira elkarte gastronomikoan.

404. Euskaldunak eta alemaniarrek antzekoak (101-169/015)

Euskaldunekin harreman ona dauka. Izaeraz alemaniarrekin antzekotasunak dituzte.

405. Dakizkien hizkuntzak (101-169/016)

Alemanieraz gainera, ingelesa eta gaztelania dakizki. Frantsesa eta euskara ere bai, baina ez hain ondo.

406. 25-30 hizkuntza Zumaian? (101-169/017)

Zumaian 25-30 hizkuntza hitz egingo direla uste du.

407. Gauza gutxi faltan Alemaniatik (101-169/018)

Alemaniatik familia ematen du faltan; batzuetan janaria ere bai... Gurasoenera doanean asko disfrutatzen du. Satellite bidezko telebistarekin eta Interneten bidez ere zuzeneko harremana dauka alemaniararekin.

408. Zumaiaetik gustatzen zaiona (101-169/019)

Zumaiaetik gustatzen zaiona: paisaia bera, uretako kirolak egiteko aukera, mendian korrika egitea... etxetik hurbil. Jendea ere gustatzen zaio, kalean zerbait hartzea...

409. Integrazioa erraza gertatu zaio (101-169/020)

Integrazioa erraza gertatu zaio, emaztearen familiari esker neurri handi batean. Ospakizunetan, kiroletan, elkarte gastronomikoan... gizarte arlo askotan parte hartzen du.

410. "Kaixo" (101-169/022)

"Kaixo" esaten du gaztelaniaz eta euskaraz.

411. Oinarrizko hitzak alemanez (101-169/024)

Oinarrizko hitz batzuk euskaraz eta alemanez.

412. Oinarrizko hitzak alemanez II (101-169/026)

Oinarrizko hitzak alemanez. Jarraipena.

413. Oinarrizko hitzak alemanez III (101-169/028)

Oinarrizko hitzak alemanez. Jarraipena.

414. Ezin hitz bakarra aukeratu alemanez (101-169/030)

Ez du aparteko gustuko hitzik aukeratu alemanez. Asko daudela dio.

415. Hitz batzuk euskaraz (101-169/032)

Hitz batzuk euskaraz

416. Fatou, Senegalgoa (101-171/002)

Aurkezpena. Zumaian bizi da, senarrarekin eta seme-alabekin duela 12 urtetik. Aurretik Getarian bizi izan zen.

417. Diolera hizkuntzari buruz (101-171/004)

Diolera hizkuntzari buruz. Hainbat aldaera ditu, eta beraiek zabalduena hitz egiten dute. Mandinkeraren antza dauka. Casamancen dauka jatorria diola etniak Senegalen.

418. Hasiera oso gogorra (101-171/006)

Lehen hilabeteak oso gogorrak egin zitzaizkion. Senarra itsasora joaten zen, eta alaba txikiarekin geratzen zen.

419. Senegalen gaztelania pixka bat ikasi zuen (101-171/007)

Eskolan gaztelania pixka bat ikasi zuen, Senegalen, baina ez asko.

420. Euskara ikasten hasi bai, baina jarraitu ez (101-171/008)

Gaztelania kalean ikasi du, jendearekin hizketan. Euskara ikasteko bai, joan zen toki batera (senarrarekin eta haren lagunekin), baina ez zuen jarraitu.

421. Senegalgo hizkuntzak (101-171/010)

Senegalgo hizkuntza batzuk aipatzen ditu.

422. Dakizkien hizkuntzak (101-171/011)

Fatouk dioleraz gainera wolofera, frantsesa eta gaztelania hitz egiten ditu, eta euskaraz hitz batzuk dakizki.

423. Afrikarren elkartea (101-171/012)

Afrikako toki askotako jendea bizi da Zumai inguruan, eta elkartea daukate. Oso ondo konpontzen dira.

424. Harreman ona euskaldunekin (101-171/013)

Zumaiako eta Getariako jendearekin harreman ona du. Askok lagundu diote. Sarea josten erakutsi zioten.

425. Zumaia gustuko du (101-171/015)

Zumaiatik dena gustatzen zaiola dio. Dendak, itsasoa, hondartza...

426. Senegalgo kaleko giroa faltan (101-171/016)

Senegaldik falta duena: kaleko giroa... lagunak, familia...

427. Gustatzen ez zaiona: presaka ibili beharra (101-171/017)

Hemendik gustatzen ez zaiona: ordutegiak, beti presaka ibili beharra. Berandu iristen da askotan.

428. Erraz integratu da (101-171/019)

Integratzea ez zaio asko kostatu. Hasiera gogorra egin zitzaion, baina asko lagundu zioten. Frantsesa-gaztelania hiztegia oparitu zioten, iritsi zenean.

429. Senegalgo ohiturak (101-171/021)

Senegalgo ohiturak mantentzen saiatzen da, adibidez arroza, baina seme-alabek ez dute hain gustuko.

430. Woloferaz seme-alabekin (101-171/022)

Ez du diolera erabiltzen seme-alabekin. Wolofera erabiltzen dute etxean, Senegalgo hizkuntza ofiziala.

431. Euskaraz badakite seme-alabek (101-171/023)

Euskaraz oso ondo dakite seme-alabek. Berak ulertzerik nahi ez dutenean erabiltzen dute. Zaindu dituen ume batzuei buruz hitz egiten du.

432. Hitz batzuk euskaraz (101-171/024)

Hitz batzuk esaten ditu euskaraz.

433. Oinarrizko hitz batzuk dioleraz (101-171/026)

Hiztegia dioleraz. Oinarrizko hogeit hamar hitz.

434. Maitasun abestia dioleraz (101-171/028)

Maitasun abesti bat dioleraz.

435. Boliviarra, zortzi urte daramatza Zumaian (101-172/004)

Aurkezpena, gaztelaniaz eta ketxueraz. Boliviakoa da, eta zortzi urte daramatza Zumaian bizitzen.

436. Gaztelaniaz eta ketxueraz daki (101-172/006)

Gaztelania eta ketxuera hitz egiten ditu.

437. Oinarrizko hitz batzuk ketxueraz I (101-172/008)

Oinarrizko hitz batzuk ketxueraz.

438. Oinarrizko hitz batzuk ketxueraz II (101-172/010)

Oinarrizko hitz batzuk ketxueraz.

439. "Asko maite zaitut" ketxueraz (101-172/012)

"Asko maite zaitut" da ketxueraz gustatzen zaion hitza.

440. Ketxuerari buruz (101-172/014)

Ketxuerari buruzko datuak. Herrialde batetik bestera dezente aldatzen da ketxuera. Bolivian, Ekuadorren eta Perun hitz egiten da.

441. Lanak ekarri zuen Zumaia (101-172/015)

Zumaia nolatan etorri ziren kontatzen du. Lana eskaini zioten Asturiasen. Han bi urte egin zituen, eta handik Zumaia bidali zuten lanera.

442. Zumaia (101-172/016)

Zumaia (101-172/016): gustatzen zaiona: hondartzak, janaria, herria bera... Harreman ona du herritarrekin, bai lanean eta baita lanetik kanpo ere.

443. Hitz batzuk euskaraz (101-172/017)

Euskaraz hitz batzuk esaten ditu. Alabak badaki euskaraz.

444. Norekin hitz egiten duen ketxueraz (101-172/019)

Boliviako hogeit hamar bat lagun daude Zumaian. Ketxueraz hitz egiten dute batzuetan baina ez asko: gehienetan gaztelaniaz. Gurasok hobeto egiten dute ketxueraz gaztelaniaz baino.

445. Ketxueraren egoera Bolivian (101-172/020)

Ketxueraren egoera hobeto egin da azken urteetan Bolivian. Eskoletan ikastea posible da orain.

446. Lanak ekarri zuen Zumaia (ketxueraz) (101-172/022)

Nolatan iritsi zen Zumaia (ketxueraz). Boliviatik Asturiasera joan zen, eta handik Zumaia, lanarengatik. Prozesua kontatzen du.

447. Zumaia (ketxueraz) (101-172/024)

Zumaia (ketxueraz): gustatzen zaiona esaten du (ketxueraz): hondartza, herria, jendea... Alabak euskaraz badaki, eskolan ikasi duelako.

448. Norvegieraz hitz batzuk (101-184/002)

Norvegieraz hitz batzuk.

449. Norvegiaz zenbait datu (101-184/003)

Norvegiaz eta norvegieraz zenbait datu.

450. Norvegiaz zenbait datu (norvegieraz eta euskaraz) (101-184/005)

Norvegiaz eta norvegieraz zenbait datu (norvegieraz eta euskaraz). Finlandiari eta finlandierari buruz ere hitz egiten du.

451. Kanpotarrak Zumaian; Zuloagaren etxean tertuliak (ZUM-004/012)

Lehenago Zumaian 4 zine inguru zeuden. Amaia hotela ezaguna zen herrian. Zumaia ere beraneanteak aspalditik etortzen ziren. Esaten da garai bateko Madrilgo tertuliek Zumaian izaten zutela jarraipena Zuloagaren etxean. Horregatik dute Zumaiaiko zenbait kalek jende ezagunaren izena. Zezenketak egiten ziren ospitalearen alde.

452. "Luakia" nola egiten ziren Zumaian (ZUM-004/016)

"Luakia" zeri deitzen zaion. Zumaiaiko "luakien" inguruko azalpenak; "luakia" nola egiten zituzten azaltzen du. Zumaian non dauden "luakia".

453. Zumaiaiko arrantza-motak: harraldekoa eta "gabarrantza" (ZUM-004/018)

Zumaian ze arrantza mota izan diren nagusi: harraldeko arrantza eta gau-arrantza. Olagarroak arrantzatzeko ohitura ere aspaldikoa da Zumaian. Harraldearen parte bakoitzak bere izen propioa du eta izen horiek jasotzea interesgarria litzatekeela dio. Esaterako, harraldeko guneko bati "Kato plaza" deitzen zitzaion.

454. Itzurungo hondartzak propietate sendagarriak (ZUM-004/023)

Beti esan izan da Itzurungo hondartzak badituela sendagarriak diren propietateak, iodo asko duelako, mendebaldera orientatuta dagoelako eta harea ere itsasoko harea delako. Honen inguruko azalpenak. Esaten zen kanpotarrak Zumaia okertuta etorri eta zuzen-zuzen (sendatuta) itzultzen zirela euren etxera.

455. Debako Mardari auzoa (ZUM-004/026)

Bera bizi den lekua Mardari auzoa da, auzo handia, baina elizarik, plazarik edo eskolarik gabea. Auzo horretakoek Elorriaga auzorako joera dute, eskolara edo elizara bertara joaten zirelako. Bi auzo desberdin izan arren, lotura handia dute. Gainera, Elorriagako San Sebastian santua Mardari auzotik eramandakoa dela esaten da.

456. Marinelak karga-deskargan; arrantzaleak batelean (ZUM-005/004)

Zumaian arrantzaleak baino marinelak zeuden gehiago, karga-deskargan aritzen zirenak. Hauek kanpora ere joaten ziren beladun ontzietan.

Arrantzaleak, aldiz, bakoitza bere batelarekin ibiltzen ziren. Bera mutikoa zela herrian 5-6 motor zeuden eta besteak batelak. Lehengo motorrak gaurkoak baino handiagoak ziren. Batelean txitxarroa, berdela, txibia... denetarik harrapatzen zen, bai amoarekin edo bai sarearekin. Lehen txibi fresko-freskoak jaten ziren etxeetan.

457. Emakumeek egiten zuten despeska (ZUM-005/005)

Batel asko zeuden Zumaian. Antxoatara 9-10 motor joaten ziren. Sarekadak bildu eta lehorreratzten zirenean, kanpaia jo abisu moduan eta emakumeak hurbiltzen ziren despeska egitera, hain zuzen ere, antxoak sareetatik askatzeko lana. Antxoatara gaueko 10ak aldera irteten ziren eta despeska goizeko ordu txikietan egin behar izaten zen gehienetan.

458. Neska eta mutilek egindako antzerkia (ZUM-005/007)

Normalean neskak eta mutilak banatuta egoten ziren, baina gogoan du nola euskarazko antzerki bat batera egin zuten. Honen inguruko kontuak.

459. 'Juventud Obrera Católica' (JOC); Urruñan egindako bilera (ZUM-005/008)

Kultur mugimenduak elizaren inguruko bilguneek mugitzen zituzten. JOC (Juventud Obrera Católica) gazteentzako eta OAC ezkonduentzakoak ziren nagusienak. Behin iparraldeko eta hegoaldekoek bilera bat egin zuten Urruñan inguruan. Orduko pasadizoak.

460. Zinerako dirua nola ateratzen zuten (ZUM-005/013)

Beti egon izan dira bi zine Zumaian. Berak 10 urte inguru zituela, itxi egin zuten zine bat; eta, 1958 inguruan, guraso elkarteak ireki zuen berriro. Abuztuan, egunero egoten zen zinea Amaia antzokian. Zinerako dirua nola ateratzen zuten: beraiek arranplan igerian ibiltzen ziren; eta, turista kanpotarrak etortzen zirenean, haiek dirua bota eta beraiek ur azpian txanponak bilatu behar izaten zituzten. Pezeta bat kostatzen zen zinea.

461. Tabernetako giroa; kantuzaletasuna (ZUM-005/016)

Txikiteoa egiten zen lehen. Goiko, Metro eta Justa ziren orduko tabernak. Nolakoak ziren eta nola aldatu diren. Gerra aurretik sagardotegiak ere baziren herrian. Kanturako ere zaletasun handia zegoen. Umea zela kantu asko ohetik entzunda ikasi omen zizkien parrandazaleei.

462. "Gau-txori" tabernara abestera (ZUM-005/018)

Herritar batzuk igandean bazkalostean Gau-txori tabernara joaten ziren abestera. Herritik aparte zegoenez, han lasai abesten zituzten euskarazko kantuak (bestela karlistek kontra egiten zieten) eta ordu askoan aritzen ziren kantuan. Bixente Iskitxe zen hara joaten zenetako bat; abesti ugari omen dakizki.

463. Jende guztia kalean; emakumeak txikiteoan (ZUM-005/019)

Aurreragokoek, txikiteoa egin beharrean, mahaian eseri porroiarekin eta orduak egiten zituzten taberna batean. Gerrarekin aldatu zen ohitura hori. Lehen jende guztia kalean egoten zen eta telefono mugikorrik ez zegoenez, norbait aurkitu nahi izanez gero, bila joan behar izaten zen. Emakumeak txikiteoan noiz hasi ziren. Honen inguruko anekdota.

464. Turistak Itzurungo hondartzan; bikinien hasiera (ZUM-005/022)

Santiagoko hondartzara azkoitiar eta azpeitiarrak joaten ziren eta Itzurungora hotel Amaiako turistak. Berak 6-7 urte zituela turista bat bikinian egoten omen zen hondartzan eta ume-koskorak haren inguruan trenarena egiten ibiltzen ziren hura ondo ikustearren. Berak 16-17 urte zituela hasi ziren bikini gehiago ikusten, kanpotarrentzat normalagoa izaten zen eta.

465. Zumaian gertatutako pasadizo tamalgarria (ZUM-005/028)

Zumaian gertatutako pasadizoa. Barku batek moilara sartu behar zuela eta, eskola profesionaleko mutiko batzuk barra muturrera joan ziren korrika. Olatu handi bat etorri eta 7-8 mutikoak itsasora bota zituen; denak ito ziren, bat izan ezik. Bizirik atera zen mutikoa nola salbatu zen; inguruko enpresa bateko semeak (alemaniarra bera) atera zuen uretatik, soka bat lotuta zuela, uretara salto egin ondoren. Zumaian itotakoak korronteak beti Getaria aldera eramaten omen ditu.

466. Moilan eta inguruetan izandako aldaketak (ZUM-005/030)

Moilan egin izan diren aldaketak. Orain Amaiako plaza dena lehen moila zen eta barkuak sartzen ziren bertaraino. Gero moila hori bete eta moila haruntzago jarri zuten. Honen inguruko azalpenak. "Eskoillera" (malekoi) ingurua ere desberdina zen, askoz irekiagoa. Moilan eta Narrondo ibaiaren inguruan hondoko basa kendu egiten zuten, ahalik eta sonda (sakonera) handiena izan zezaten. Kargako barkuak sartzen ziren haraino.

467. Herrian izandako aldaketak; lehenbiziko aldaketa inportantea Aitamari ingurukoa (ZUM-005/031)

Zumaia asko aldatu da; lehen kasko zaharra bakarrik zegoen: San Telmo kalea, goiko dorrea, kasko zaharra, Erribera kalea eta gero moila; besterik ez zegoen. Lehen inguru batzuetan ez zegoen etxerik, ezta baserririk ere. Baserriak geltoki aldera eta Jadarretik gora edo Arritokietatik gora zeuden. Aldaketa handiena Aitamari ingurua aldatzean hasi zen. Lehen Aitamari inguruan erribera zegoen, baratzeak, beraiek "luakixak" deitzen ziotena. Inguruan zeuden erakinak. Aitamari egin zutenean eta ingurua bete zutenean hasi zen aldaketa handia, baina horren ondoren denean hasi ziren etxeak egin eta egin.

468. Oikiako herri-eskola; Angelita Zinkunegi irakaslea (ZUM-006/004)

Oikian bertan zuten herri-eskola 4 urtetik hasi eta 12ra arte. Irakasle bakarra zuten adin guztietako haurrenzat. Nagusienek irakasten zieten txikiagoei. Irakaslea Angelita Zinkunegi zumaiaarra zen. Irakasle ona zen eta harreman handia izan dute berarekin gerora ere. Eskola barruan dena gaztelaniaz egiten zuten, baina atetik ateratakoan dena euskaraz. Herri-eskolakoa amaitu ostean Zumaia kolegioan egin zuten beste urtebete ahizpa guztiek. Aita ere Zumaia kolegioan ibilia zen eta alabek ere ikas zezaten nahi zuen. Gau-eskolak ere izaten ziren.

469. San Lorentzoko ermita eta bertako festa (ZUM-006/005)

Oikian eliza bakarra dago. San Lorentzoko ermitaren kargua Oikiak zuen, terrenoz Zestoakoa izan arren. Gaur egun urtean behin ematen da bertan meza. Egunez San Lorentzon erromeria egiten zen eta gauean Beduan jarraitzen zuen festak. Orduan garai desberdinak ziren eta bera gaueko festan ez zen inoiz gelditu.

470. Oilasko-biltzea eta gaueko festa San Agustin egunean (ZUM-006/006)

San Bartolome eguna ospatzen da Oikian. San Agustin eguna San Bartolome txiki balitz bezala ospatzen zen eta herriko gazteentzat egunik onena izaten zen. Goizean oilasko-biltzea egiten zen. Iluntzean erromeria egiten zen eta horrekin batera asto gainean begiak tapatuta jarri eta igitaiarekin zintzilik zegoen oilaskoari lepoa moztu behar izaten zitzaion. San Bartolome bigarrenegun ttunttuna eta dantzariak izaten ziren. Egunez egun batean jazbana eta beste bi egunetan soinu-jolea izaten ziren. Jaien ostean igandero erromeria egoten zen San Migelak arte.

471. Irail bukaeran "neska-festa"; dantza loturako debekua (ZUM-006/007)

Jaien ostean igandero erromeria egoten zen San Migelak arte eta erromeria ederrak egiten ziren. Iraileko azkenengo igandea "neska-festa" izaten zen, neskek ordaindutako jaia. Neskak Hijas de Mar*&* kongregaziokoak izaten ziren eta mutilekin dantza lotua egiteko debekua izaten zuten. Osaba batekin dantza egitearren apaiza etxera etorri zitzaion bronka botatzera.

472. Jaietan gonbidautza; paella eta entsalada bazkaltzeko (ZUM-006/008)

Jaietan gonbidautza egiten zen eta beste herri batzuetatik senideak etortzen ziren. Etxean hazitako oilaskoekin salda egiten zen. Paella eta ensalada jartzen zituzten bazkaltzeko. Tomate nahikoa izaten zuten entsaladarako eta paellari ere jenero ugari botatzen zioten.

473. San Markos eguneko errogatibak (ZUM-006/016)

San Markos egunean, apirilaren 25ean, errogatibak egiten ziren. Plazara irteten ziren errogatibetako letaniak kantatuz. Urte askoan eutsi zitzaion ohitura horri.

474. Pazkoetan ur-bedeinkatua eta su-berria (ZUM-006/017)

Pazkoetan ura bedeinkatzen zen eta su-berria ere egiten zen. Aita sakristaua zen eta "zimitayoan" (elizpean) su-berria pizten zuten ahal zen bezala (orduko harridun txiskeroekin). Hurrengo egunean akolitoak etxetik etxe su-berria banatzen ibiltzen ziren "ieskarekin" (zuhaitz ipurdietan egoten den perretxiko zabala). Su-berri hori beheko sutara edo ekonomikara botatzen zen etxean.

475. Tabako-orriak angulak akabatzeko (ZUM-006/021)

Tabakoa angulak akabatzeko erabiltzen zen. Angula garbitutakoan pare bat tabako-ostro bota eta berehala hiltzen zen angula. Azkenengo tabako-orriak San Migelgo Artia baserrian ikusi omen ditu. Baserri hortakoek ere anguletarako ereiten zuten tabakoa. Lehen angula asko hartzen zen Oikian.

476. Anguletarako baserri bakoitzak bere txanala (ZUM-006/022)

Marea estazio pareraino igotzen ze lehenago. Han inguruetako baserri guztietatik angulatar joaten ziren. Bakoitzak bere txanala izaten zuen arrantzarako. Itsasoko hondarra ere txanaletan eramaten zen Zumaiatik Oikiara soroetan botatzeko. Azarotik San Joseak arte harrapatzen ziren angulak. Angula asko harrapatzen zen orduan eta kanpoko tabernetara saltzen ziren (Donostia, Getaria, Eibar...). Etxean ere jaten zen angula, okasio berezietan.

477. Bahearekin angulatan (ZUM-006/024)

Lehen bahearekin (sare zabalarekin) egiten zuten angulatan. Bahia kertenetik hartu eta txanaletik egiten zuten angulatan. Gaur egun ere ikusten dira baheak, baina kerten motzagoarekin.

478. Ibai garbira lasunetara, bainatzera edo arropak garbitzera (ZUM-006/025)

Lasun asko egoten zen ibaian eta ura garbia egoten zenez, lasunak ere jaten zituzten. Kanpotarrak, turistak, ere etortzen ziren arrantzara ibaira, erraza izaten zen lasunak harrapatzea eta. Balduino erregea ere bertan ibiltzen zen arrantzan. Ura oso garbia egoten zen eta bainua hartzera ere sarritan joaten ziren ibaira. Dutzarik ez zegoen eta lanean aritu ostean ibaian bainatzen ziren. Etxeetara ez zen iristen urik askotan eta arropak garbitzera ere ibaira joaten ziren arropak astoan hartuta.

479. Gari-jotzea txanketean (ZUM-006/027)

Gari-jotzen ibilita hauts eta zikin ugari sortzen zen eta izarak erabiltzen zituzten aurpegia garbitzeko. Gari-jotzen motorrarekin hasi zirenean "matxaka" deitzen zioten, baina aurretik "txanketian" egiten zen gari-jotzea. Garia eguzkitan lehortzen jarri eta harri-losaren gainean "jaulki" egiten zen. Gari-jotze ostean garbitzeko aitzak dutxa antzeko bat jarri zuen etxe ondoan. Ordurako aurrerapen handia zen.

480. Bainua hartzera ibaira (ZUM-006/028)

Bainatzera ez ziren umeak bakarrik joaten; nagusiak ere arto artean aldatu eta freskatua hartzera joaten ziren. Erribera bakoitzak eskailera antzekoak izaten zituen ibaira jaisteko. Ur garbia zegoen ibaian orduan.

481. Arropak garbitzeko eta ganaduek ura edateko albergak (ZUM-006/029)

Arropak garbitzeko albergak izaten zituzten. Plazan bertan bazegoen alberga eta dozenerdi bat baserritatik joaten ziren bertara. Baserri gehienek izaten zuten beren alberga, arropa garbitzeko harri-losarekin eta ganaduek ura edateko askarekin. Plaza inguruko baserrietako ganaduak plazako iturriak zituen asketara eramaten ziren ura edatera.

482. Lixiba nola egiten zen sutako hautsarekin (ZUM-006/030)

Lixiba nola egiten zen. Egurrearekin sutako hautsa egiten zen eta hauts ura jaso egiten zuten. Arropa (lihozkoa asko) zinka baten jartzen zen ur epeletan eta pasadera batekin sutako hautsa botatzen zitzaion gainera. Beratzen uzten zen eta sutako hautsak zikina ateratzen zien arropari. Gerora, xaboi-pastilak erabiltzen ziren. "Koltxillak" nola garbitzen zituzten. Zuritzeko arropak eguzkitan jartzen ziren.

483. Lihozko izarak; artilea egiten zuen amamak (ZUM-006/031)

Izarak lihozkoak izaten ziren, batzuk finagoak eta besteak lodiak. Lihozko haririk ez du ezagutu, baina amamak galtzerdiak egiteko artilea egiten omen zuen. Artilea nola egiten zuen ardatzean bilduz. Amamaren baserrian Errezilen menda-erratzak bildu eta medikuari saltzen zizkieten. Diru harekin haria erosi eta beheko sutako argiarekin sobrekama zuriak egiten aritzen ziren. Menda-erratzak etxeak garbitzeko erabiltzen ziren.

484. Josteko zaletasuna; Singer eskuko josteko makina (ZUM-006/033)

Betidanik gustatu izan zaio jostea, amona ikusita. Eskuko josteko makina zuen amonak, Singer markakoa. 19 urtera arte ez zuen ezagutu hankarekin eragindako josteko makinarik. Amonak eta ahizpak Zarautzen erosi zuten eskuko josteko makina, eta txandaka eskuan eraman omen zuten Errezileraino. Amonaren eskuko makina gordeta omen du oraindik. Beste bi makina ere badauzka Alfa markakoak. Hiru urtez ibili zen josten ikasten: lehenbizi bordatzen, gero sastrearekin Zumaian, eta azkenik Donostian jantzigintzan. Gaur egun, oraindik berak egiten ditu bere arropa gehienak.

485. Monagilo eta sakristau lanak mutikotan (ZUM-009/002)

Oikian ibili zen eskolan, baina denbora gutxian. Monagilo eta sakristau lanak egiten zituen mutikotan. Sakristautzako lanak. Sakristaua eta serora egoten ziren. Apaiz edadetu bat Irundik etortzen zen maiatzean eta urrian. Hark ere ematen zituen mezak eta hari laguntzera ere joaten zen.

486. Donostiara jeneroa saltzera (ZUM-009/008)

Bera mutikoa zela ama Donostiara joaten zen trenez jeneroa saltzera. Gero furgoneta erosi zuen berak eta arreba ere joaten zen gerora amak utzi zuenean. Arreba Zumaia ere tarteka joaten zen eta Zarautzera sarriago. Postua ere izan zuen Zarautzen eta bezeroak egin zituen.

487. Ipiolagoikoa baserria; galdutako baserriak (ZUM-009/009)

Ipiolagoikoa baserrikoa da. Bi baserri daude izen horrekin: izan ere, garai batean, bi anaiak etxe berean bizi nahi eta zatitu egin zuten etxea bi bizitzakoa eginez. Ipiolaazpi baserria ere badago. Inguruetan ez da baserri asko galdu, baina Eskazabal baserria autopista egiteko bota zen. Honekin batera "Almazen zaharra" esaten zitzaiona ere bota zen. Eraikin hori garai batean fabrikako almazena omen zen, baina kanpotarrak etorri eta etxebizitza egin zuten bertan.

488. Pilotan aritzen zen, arreba zaindu bitartean (ZUM-009/010)

Oikia lasaia zen. Eskolan, herriko ume guztiak elkarrekin ibiltzen ziren. Eskolatik irtendakoan, euren zaletasuna pilota izaten zen. Arreba gazteagoa berak zaindu behar izaten zuen, eta hura petrilean utzita pilotan aritzen zen. Kotxerik ez zen ibiltzen eta umeak kalean lasai ibiltzen ziren.

489. Herrian ikusten ziren kotxe banakak (ZUM-009/011)

Kotxerik ez zen etortzen Oikiara, plazako "Txortena" tabernara limonadarekin etortzen zen kamioia, Aizarnara ikatz bila joaten zena eta "letxeroa" rena bakarrik. "Letxeroa" deitzen ziotena herriko garraioa izaten zen. Baserritarrek astoan esneekin plazara jaitsi eta harekin joaten ziren Zumaiara. Eskazabal baserrikoak era bazuen kotxea eta feriara harekin joaten zen jendea. Gero "Pollos Oikina" lantegikoek ere ekarri zuten kotxea. Industriaren hazkundearekin batera ugaltu ziren kolpetik kotxeak.

490. Zumaiara baino joera handiagoa Zarautzera; inguruko erromeriak (ZUM-009/016)

Oikiarrek eta Aizarnazabalgoek beti izan dute pikea. Zumaiarrekin harreman gutxi izaten zuten gutxi joaten ziren Zumaiara eta. Zarautzera beti joera gehiago izan dute. Irteten hasi zirenean ere Zarautzera joaten ziren. Inguruko erromerietara ere joaten ziren eta San Pedrotan Zumaiara gonbidatu. Meagara joaten ziren erromeriara eta hangoa bukatu zenean Urtiaberrira.

491. Garbitzera erreka joaten ziren (ZUM-009/018)

Gaztetan etxean dutxarik ez eta erreka joaten ziren bainatzera. Erreka garbi-garbia egoten zen lehen, Aizarnazabalen papelera jari artean. Hondartzara joaterik burutik pasa ere ez zitzaien egiten. Erreka nolakoa zen. Herriko guztiak joaten ziren bertara. Bainatzeko gune egokia ere bazegoen: "Juliñeneko erribera barrena". Igerian nola ikasten zuten.

492. Bahearekin anguletan errekan (ZUM-009/020)

Berak ez du izan angulatarako zaletasunik, baina Oikian jende asko ibiltzen zen. Garai batean gauez farolez beteta ikusten zen erreka. Ur-ertzetik harrapatzen ziren eta baita erditik ere, txanaletan, bahe handiekin. Azarotik martxo ingurura izaten da angula garaia. Gero belarriak ateratzen zaizkio eta angila egiten hasten da. Ilargi bete eta ilargi berria izaten dira egokiak eta marea goraka datorrela.

493. Lasunak ilaran errekan gora (ZUM-009/022)

Lasuna asko egoten zen eta gaur egun ere badago. Udazkenean ilaretan etortzen ziren asko errekan gora. Barboa ere asko zen lehen, baina papelera jarri zenetik galdu egin ziren. Amorra askorik ez da egon Oikiako errekan. Inguruko erreka txiki batean baziren amuarrainak, baina orain denak galduta daude.

494. Hegaztiak gutxitu dira inguruetan: istingorrak, hegaberak, kulixkak... (ZUM-009/023)

Euren ezagun batek ur-oiloak harrapatzen zituen. Txakur ona zuen, bera ere ona eta asko botatzen zituen. Ehiza asko zegoen lehen (zozoak, istingorrak...), baina asko galdu da. Ahate basatiak ere ugari izaten ziren. Neguan elurra eta

izotza egiten zuenean ehiza ugari izaten zen. Gari-ondoetan zizareak ibiltzen ziren eta hara hurbiltzen ziren hegaberak. Lehen ilunpetan hegazti ugari hurbiltzen ziren, baina gaur egun argiekin denak uxatu dira. Kulixkak ere izaten ziren.

495. Oikian "luaki" beharrik ez, kainaberek eusten zioten urari eta (ZUM-009/024)

Zumaian erriberako baratzei "luakiyak" deitzen zaie, baina Oikian "souak" esaten zieten, izan ere, Oikia inguruan ez daude halako "isla" edo "luakiak". "Luakiak" urari eusteko horma antzekoak izaten ziren eta Oikian kainaberek eusten zieten urari. Beraz, ez zegoen horren beharrik.

496. "Marqués de Balzola" baserriaren nagusia urtero etortzen zen (ZUM-010/001)

Baserriaren jabeak bi titulo zituela aipatzen du: "Conde del Valle" eta "Marqués de Balzola". Beretzako logela ere bazuen baserrian eta urtero etortzen omen zen bisitan. Markesaren logelak burnizko atea zuen. Bera ez zen bertan lotan geratzen, baina administratzailea sarritan etortzen zen hautsak kentzera. Etxeak armarria ere bazuen eta zutabeen gainean eraikia zegoen.

497. "Hiraulika" (kare hidraulikoa) fabrika berak inguruetan ezagututako zaharrena (ZUM-010/005)

Inguruetan fabrika bakarra ezagutu zuen umetan, "Hiraulika" (kare hidraulikoa) fabrika. Zementoaren antzeko materia egiten zen bertan. Militarizatuta ere egon zela fabrika kontatzen du. Meatzeetan ateratzen zen fabrikan materia egiteko behar zen harria. "Hiraulika" barkuetan kanpora exportatzen zen Zumaiaetik, moilak egiteko erabiltzen zen. Zumaian gaur egun fabrikak dauden lekuan ura ezagutu zuen berak.

498. "Txaperoak" etortzen ziren etxeak eta zaldi-karroak miaztera (ZUM-010/010)

Sobratzen zen babarruna ahal zen lekuan gorde behar izaten zen eta Zumaiaiko "txaperoak" (aguazilak) etxeak miaztera etortzen ziren. Baserritarrek jeneroa Zumaiaara zaldi-karroetan eramaten zuten eta haiek miaztera edo kentzera ere etortzen zen. Baserritarrek hauek engainatzeko tranpak ikasi zituzten; adibidez, esnearen azpian gordetzen zuten babarruna. Babarruna entregatu egin behar izaten zen estatuarentzat eta alkateak esaten zien bakoitzari zenbat tokatzen zitzaion.

499. Gidatzeko baimenik gabe mutikotan hasi zen "taxista" lanean (ZUM-010/012)

Aita ganadua ferietara eramaten ibiltzen zen kamioiarekin eta bera harekin batera hasi zen kotxe zahar bat hartuta jendea eramaten. Soldadu joan aurretik ere ibiltzen zen, nahiz eta gidatzeko baimenik ez izan. Lehenbiziko kotxea Donostiatik ekarritako Citroen zahar bat izan zen. Etxean karro antzeko bat egin eta hari eransten zioten erremolke gisara. Orduan errepedeak zaintzen zituztenak motoetan ibiltzen ziren. Haiei eskupekoa emanez gero, ez zuten isunik jartzen.

500. Lehenbiziko autobusak egurrezko karrozeria (ZUM-010/014)

Hasieran Citroen zahar batekin hasi zen lanean eta gerora beraiek etxean montatutako garraioak moldatzen zituzten. Lehenengo autobusa Eibarko La salle ikastetxetik erosi zuen. 18 plazakoa zen eta egurrezko karrozeria zuen. Geroago Pegaso autobus berria erosi zuen eta istripua izan zuen frenoek huts eginda. Egunero Zumaiaetik langileak ekartzen zituen inguruko lantokietara, batez ere "Pollos Oikina"-ra. Lehen bertan hil eta bertatik banatzen ziren oilaskoak.

501. Lore eta Basalde baserriak; inguruko baserriak (ZUM-010/017)

Lore baserria oraingo etxea dagoen lekuan zegoen. Lore eta Basalde baserriak ziren elkarren aldamenean eta Basalde oraindik lehengoa dago. Inguruetan zeuden baserrien izenak. Oikiako baserri-izenak.

502. "Atxula" inguruan oikiar gehienek lur-saila zuten (ZUM-010/018)

Lur-sail bakoitzak bere izena izaten zuen eta izenetatik identifikatzen zituzten sailak. Pareko mendiak "Atxula" zuen izena eta oikiar gehienek zuten lur-saila bertan. Ota ekartzen zen mendi hortatik eta gerra-ostean patata ereiten zen bertan.

503. Oikia eta San Migel errekaaren alde banatan (ZUM-010/019)

Errekaaren alde batekoa Oikia da eta beste aldekoa San Migel. Mugan dauden baserrien izenak. Ezkazabal baserria autopistaren eraginez galdu zen.

504. Oikiako eta inguruko herrietako euskararen arteko konparaketa (ZUM-010/021)

Oikiako euskara eta ingurukoen arteko konparaketa. Zumaian eta Itziar aldean "xa" bukaerak egiten omen dira, eta Oikian ez. Tonu desberdina omen dute Zumaiakoek. Aizarnazabalen, berriz, "Aizarnazabalkok" esaten omen dute.

505. Angula asko zen errekan; bahearekin harrapatzen ziren (ZUM-010/023)

Inguruetan anguletan egiten zen. Berak ere egin izan du, baina ez asko gauez edo goizaldera egin behar izaten zen eta. Erreka garbia zen eta angula ugari harrapatzen ziren. Bazterretik harrapatzen ziren gehienetan angulak bahearekin, baina zenbaitzuk txanaletan ere ibiltzen ziren. Gerora motordun ontzitzoak ere hasi ziren. Hasieretan norberarentzat izaten ziren harrapatutako angulak, baina gerora Aginagan "anguletxe" bat jarri zuten eta hara eramaten zituen jendeak diru-truke.

506. Angulen inguruko azalpenak (ZUM-010/024)

Angulen inguruko azalpenak. Angulak itsasoan bola handi bat eginda ibiltzen omen dira, eta ur geza somatzen dutenean desegiten omen da bola. Korrontearen kontrako norabidean joaten dira beti angulak elkarri lotuta sokak eginez. Euren etxe inguruko presan, esaterako, soka egin eta goraka joaten ziren eta gora iristean askatu. Gainera, atzeraka joaten omen dira.

507. Iraila ingurua harraldeko garai emankorrena (ZUM-011/003)

Mutikotan aitarekin hasi zen arrantzan harraldean, lehenbizi lapatan eta gero olagarrotan. Etxe guztietan egoten ziren olagarroak lehortzen, ohikoa zen eta. Irailetik atzera izaten zen olagarrotarako sasoia. Beste edozer harrapatzeko ere harraldeko garai emankorra hori izaten da. Igandetean joaten ziren harraldera, larunbatean lan egiten zuten eta. 12 urterekin hasi zen lanean.

508. "Maulixoen" eta "andariken" arrantzarako tresnak (ZUM-011/005)

Maulixotarako tresna eskua izaten da, baina gako txiki bat ere erabiltzen zuten. Honen inguruko azalpenak; lexikoa. "Txuaskilla" zuloetan egoten den amarra gogorrenetakoa omen da eta arrantzarako erabiltzen zen. Andarrikak harrapatzeko erabiltzen ziren tresnak. Andariken arrantza.

509. "Gabarrantza"ren inguruko azalpenak (ZUM-011/006)

Gabarrantzaren inguruko azalpenak. "Gobixak" eta olagarroak harrapatzeko egiten zen batez ere. Arriskutsua eta nekagarria zen. Olagarroak ez dira ezerekin beldurtzen eta norberegana ere etortzen dira.

510. Olagarroa "marketan" harrapatzen zen (ZUM-011/007)

Olagarroak "marketan" harrapatzen ziren. Zumaian beti harrapatu izan da olagarroa eta inguruko herrietan ez zegoenez ohitura hori barre egiten zieten. Lehen etxe guztietan egoten zen olagarroa lehortzen zopa egiteko edo patatekin jateko. Olagarroa nola harrapatzen zen. Trapu zuri bat eta amarra jartzen ziren eta berehala ateratzen zen. Gaur egun amarra galduta dago eta beste arrainen bat erabiltzen da horretarako.

511. "Ostarren"en inguruko azalpenak (ZUM-011/008)

"Ostarrena"ren (erizo) inguruko azalpenak. Zenbaitek jaten zuen arren inguruetan ez zegoen ohitura handirik. Gordinik jaten ziren.

512. "Maulixoen" inguruko azalpenak (ZUM-011/011)

"Maulixoen" arrantzaren inguruko azalpenak. "Maulixoak" egosita jaten ziren.

513. Arrantzarako leku onak (ZUM-011/012)

Harraldean denetarik harrapatzen zen, baita txibiak ere. Maiatza-ekaina aldean zentolloak harrapatzen ziren, baina gero guztiz galdu zen. Zentolloak eta ixkirak arrasteroak hasi zirenean galdu ziren. Balezulo inguruan egoten ziren ixkira ugari. Lanpernatarako paraje egokia "Malparaje" deiturikoa izaten zen. Hala ere, paraje arriskutsua zen.

514. 12 urterekin hasi zen arotz-lanetan aitarekin (ZUM-011/018)

12 urterekin hasi zen lanean aitari laguntzen. Dena eskuz egiten zen. Lehenbizi erremintak zorrozten ikasten zen eta gero edozertan laguntzen. Denetarik lanak egiten zituzten, bai barkuetan eta bai lehorrean. Altzariak ere egiten zituzten. Aita gazterik hil zen eta hiru anai ibili ziren gero arotzeria lanetan.

515. Barkuak Zumaian muntatu eta beste herri batzuetara (ZUM-011/021)

Zumaian beti egin izan dira arrantzarekin lotutako gaiak. Lehenago kalderak egiten ziren eta haien ostean baita barkuetarako motorrak ere (Yeregi, Unanue, Juaristi...). Aurrekoek egiten zituzten kupelak eta arrantzarako bestelako tresnak, baina berak ez du horrelakorik ezagutu. Barkuak ilaran egoten ziren Zumaian, muntatzeko zain, beste herri batzuetara eramateko (Getaria, Orio, Mutriku...). Itsasontzien kaskoak kanpotik ere ekartzen ziren muntatzeko.

516. Kalderaren inguruko lanak nola egiten ziren (ZUM-011/022)

Lanak asko aldatzen joan dira, erremintetatik hasita. Errematxe-lanak nola egiten ziren. Kalderen inguruko lanak nolakoak izaten ziren; zortzi lagun porrarekin kolpeka aritzen ziren forma ematen eta "Kapaia" deitzen zitzaion.

517. Arotzeriako erreminten izenak eta erabilera (ZUM-011/024)

Eskuko erremintak erabiltzen ziren lanerako arotzerian: garlopak, zerrotea, zepiloa... Erreminten izenak eta zertarako erabiltzen zen bakoitza.

518. Etxeak egitea langintza neketsu eta arriskutsua (ZUM-011/025)

Barkuetan lan egiten zuten, baina baita lehorrean ere. Etxeak ere egin izan ditu. Bera aitarekin lanean zebilenean egurrezko etxeak egiten ziren. Lan neketsu eta arriskutsua zen, dena eskuz egiten zuten eta.

519. Baserritarrek egiten zituzten baserriko tresnak (ZUM-011/027)

Baserriko tresnarik gutxitan egin izan du. Herrian bazen halako lanak egiten zituen baserrietako jendea. Baserritarrek beraiek botatako egurrekin lan egiten zuten eta egurra botatzeko garaia ere zaintzen zuten.

520. Lan bakoitzerako ze egur-mota erabiltzen zen (ZUM-011/028)

Behar zuten egurra almagazetatik ekartzen zuten Lasartetik. Bertako haritza oso ona zen, baina ez zen lehorra izaten eta lehorra behar izaten zuten lanerako. Pagoa eta makala (chopo) erabili izan zituzten asko kontserba-fabrikako kaxak egiteko, egur garbiak zirelako. Barkuetan "sapeli" (sapele, egur gorriska) erabiltzen zen, baina behin pagoa erabiltzen hasi ziren eta harrez gero beti pagoa (argiagoa). Etheen teilatueterako haritza erabiltzen zen, baina gaztaina zen onena. Egur-moten inguruko azalpenak.

521. Herrikoen artean erronkak arraunean (ZUM-011/029)

Arraunerako zaletasuna izan du eta herri-mailan aritzen zen, baina aitzak ez zion uzten. Euren garaian arrauna edo pilota, ez zegoen beste aukerarik, eta berari arrauna gustatzen zitzaion. Herrikoen artean erronkak izaten zituzten. Egun guztia lanean pasatzen zuten eta ez zuten entrenatzeko astirik izaten. Jaietan lehiaketa antolatzen zen. Bateletan aritzen ziren.

522. Zapata-kaxan bazkaria hartuta Donostiara estropadetara (ZUM-011/030)

Berak betidanik izan du arraunerako eta estropadetarako zaletasuna. 11 urtera artean aitarekin eta gero lagunekin joaten zen Donostiara, orduan han bakarrik izaten ziren estropadak eta. Zapata-kaxan bazkaria hartu eta trenez joaten ziren. Estropadaren ostean zirkora joaten ziren. Estropadetan onenak Pedreña, Orio, Hondarribia eta San Juan izaten ziren. Zumaia nahikoa lan izaten zuen Zarautzen aurretik geratzen.

523. 14 urtetik atzera traineruarekin laguntzen (ZUM-011/031)

14 urtetik aurrera "triñauarekin" (trainerarekin) laguntzera joaten zen bera. Beltzak izaten ziren ontziak eta hauts batez egindako masa bat ematen zitzaion ontziei briloa ateratzeko. Garai hartan trainera ez zen arranplatik irteten, hiru lagun artean eramaten zen itsasora, eta berdin estropada bukatzean.

524. Lehen, etxean jaiotzen ziren (ZUM-012/002)

Baserrian bertan (Gorostiagan) jaio zen, baita bere bost seme-alaba ere. Lehen ez zegoen aurrerapenik eta etxean jaiotzen ziren. Bere semeetako bat medikua etorri orduko jaio omen zen.

525. Gorostiaga baserriak (ZUM-012/003)

6 baserri omen daude Gorostiaga izenekoak. Bakoitzari nola deitzen dioten. Bere emaztea Juantoneneko da. Kaskante baserrikoak ere senideak dituzte. Gorostiaga baserri guztiak jabe bakarrarenak ziren. Kanpotarra zen jabe; haren inguruko azalpenak. Baserriaren errenta dirutan ordaintzen zuten nagusiarengana joanda.

526. San Migelgo parrokia; sepulturak baserri bakoitzarentzat (ZUM-012/011)

San Migelekoa parrokia da eta hiletak ere bertan egiten dira, auzoan kanposantua ere badute eta. Lehenago, aulkiak zeuden garaian, baserri bakoitzak bere zatia zuen elizan. Aulkien erabilera. Urte barruan hildakoren bat izanez gero familian sepultura gainean argizaiola eta trapua jartzen ziren. Sepulturen inguruko azalpenak.

527. Barazkiak Eibarrera saltzen zituzten (ZUM-012/017)

Baba, artoa, garia, tomatea... hartzen zituzten lehenago. Jeneroa Eibarrera saltzen zuten; lehenbizi astoarekin kalera eta gero trenez joaten ziren. Azpeitira ere joaten ziren saltzera.

528. Uda partean erromerietara eta neguan zinera (ZUM-012/018)

Inguruetako erromeriak: Meagan, Zumaian ♦ Arroa behean igandero egiten zen erromeria kantinan eta bazuten hara joateko joera. Neguan zinera joaten ziren. Amaia zinea zegoen Zumaian.

529. San Migelerako bidea Foru Aldundiak eta handik beherakoa baserritarrek egin (ZUM-012/019)

Gorostiaga baserri ingurutik Zumaiara joateko bidea. Behekaldeko baserrietakoak, marea behean zegoenean, harraldetik bueltan joaten ziren Zumaiara edo bestela Beduatik txanalean pasa behar. Beraiek San Migelera igo behar izaten zuten. San Migelera bidea nolakoa zen lehen. Garai hartan zegoen apaizak bultzatuta Foru Aldundiak egin zuen San Migeleraingo bidea eta beraiek, 6 baserritarren artean, handik beherakoa egin zuten. Nola egin zuten bidea. Mendi-bideak auzolanean konpontzen ziren lehenago eta udalak merienda ematen zien lanean aritu zirenei.

530. Ura eta argia etxean (ZUM-012/020)

Argia betidanik ezagutu izan du etxean. Ura lehenago depositutik hartzen zuten eta ganadua erriberara eraman behar izaten zuten egunero ura edatera. Gerora errekatik jasotzen dute ura motorrarekin, baina ez dago ur asko inguruan, udaran agortu egiten da. Urarekin izandako gorabeherak.

531. Lehenagoko paisaia: haritzak, pagoak eta arteak (ZUM-012/021)

Bera gaztea zenean inguruan pagoak eta haritzak ziren nagusi. Pagoei adarrak mozten zitzaizkien su-egurretarako eta pago motzak egoten ziren. Gerora pinua landatu zen. Artea ere beti egon da inguruetan, baina haren egurra ez zen asko erabiltzen.

532. Emakumeak esnea saltzera; astoaren garrantzia (ZUM-012/022)

Inguruetako baserrietan ganadua izaten zen, esne-behiak, normalean. Esnea astoan hartuta egunero eramaten zuten kalera saltzera. Zenbaitek etxez etxe saltzen zuten arren, normalean plazan saltzen zuten esnea. Astoak non lotzen ziren. Emakumeen lana izaten zen hori normalean. Astoak garrantzitsuak ziren baserrian; beraiek bi asto onak beti izaten zituzten. Eibarrera saltzera joateko lehenbizi Zumaiara jaisten ziren.

533. Urtean pare bat txerri hazten zituzten (ZUM-012/023)

Inguruko baserrietan ganadua izaten zuten, baina ardirik edo ahuntzik ez. Beraiek bazituzten ahuntzak, baina inguruetan bakarrak ziren. Txerria ere izaten zuten baserrian. Urtean pare bat txerri hiltzen zituzten eta gustura jaten zuten txerrikia.

534. Dolarea zuten etxean; txakolina egiteko prozesua (ZUM-012/024)

Betidanik egin izan dute txakolina etxean. Orain semeak saltzeko egiten du txakolina, baina lehen etxerako lain egiten zuten. Lehenago txakolina egiteko dolarean txikitzen zen. Dolare automatikoa jarri zuten etxean eta inguruetako baserrietakoek euren etxean egiten zuten sagardoa. Mahatsa Pilarika inguruan biltzen da. Txakolina egiteko prozesua. Barrikak. Txakolina sartutakoan irekita uzten ziren barrikak denbora batez.

535. Mahastien zainketa (ZUM-012/025)

Mahastien zainketa. Neguan zotza moztu eta "amarrau" egin behar izaten da; udaberrian adarra datorrenean hamabostean sulfatoa eman eta udazkenean bildu. Mahatsaren gaitzak eta hauen inguruko azalpenak.

536. Inguruetan etxerako lain egiten zen sagardoa eta txakolina (ZUM-012/026)

Inguruetan txakolina egiten zen, baina sagardoa gehiago. Hala ere, lehen etxerako lain egiten zuten denek. Dolarerik ez zutenak nola moldatzen ziren mahatsa txikitzeko.

537. Soldadutza ondoren astileroaren kargu egin zen (ZUM-013/007)

1952an joan zen soldadutzara Ferrolera, 19 urte zituela. Gero Pasaiara etorri ziren soldadutza egitera eta ondo egon ziren. 1953an bukatu zuen soldadutza eta ordutik aurrera berak hartu zuen astileroaren kargua. Aitak ere lanean jarraitu zuen geroagora arte. 1962an ezkondu eta 1963an egin zuten azken ontzia. Geroztik konponketak egin izan dituzte.

538. Arrantza garairik onenak (ZUM-013/009)

Bera soldadu egon zenekoa garai ona izan zen arrantzarako. Pasaiak, Bermeok edo Ondarroak indar handia zuten eta barku asko izaten zituzten, baina orain guztiz galdua dagoela arrantza dio. Gaur egun inork ez du nahi itsasoan lan egiterik. Garairik onena 1960 ingurukoa izan zen. Herri bakoitzean ze arrantza mota egiten zen eta nola aldatu den kontua.

539. Astileroan egiten zituzten lanak (ZUM-013/011)

Itsasontziaren barrukoak ere egiten zituzten, baina soilik egurra zena; txapa konturik ez zuten egiten.

540. Itsasontziak egin ostean nola itsasoratu (ZUM-013/012)

Aita 1941erako ontzigintzan lanean zebilen Carmelo Unanuerekin. Ontzi txikiak egiten zituzten. Ontziak egin ostean nola itsasoratzen zituzten azaltzen du. Erraila prest egoten zen itsasertzetik tailerrerraino. Beraiek nola egiten zuten; atzeraka bota izan dute beti ontzia. Gerora eskoilera egin zen eta horrek arrisku handia du; itsasoratzean egon daitezkeen bestelako arriskuak. Lan handia izaten zen barkua botatzea. "Pleman", ura geldirik dagoenean, eta ur-handian bota behar da ontzia uretara.

541. Ilargiaren eragina itsasgora eta itsasbeheretan (ZUM-013/013)

"Alde handia dago uretik urera". Ilargiaren eragina itsasgora eta itsasbeheretan.

542. Itsasontziak itsasoratu ostean montatzen ziren (ZUM-013/014)

Itsasontzia motorrik gabe botatzen zen uretara eta uretan egiten zitzaizkion lan horiek. Bota ondoren ere 3-4 hilabete egiten zituzten barkua montatzen. Astilerotik itsasora nola eramaten zen ontzia.

543. Beleroak Andaluziara gatzetara (ZUM-013/015)

Beleroak Andaluziara joaten ziren gatz bila. Handik etortzen zirenean, esaera: "Ura balego, ardoa edango; urik ez dagoelako ura edan behar". Horren inguruko azalpenak.

544. Lan-baldintzak: 10 ordu egunero astelehenetik larunbatera (ZUM-013/017)

14 urterekin lanean hasi zenean lana eta lana besterik ez zuten egiten. Egunean 10 ordu lan egiten zituzten astelehentik larunbatera eta igandetan ere sarri lan egiten zuten bikarioari baimena eskatuta (bekatua zen jai egunetan lan egitea). Larunbatetan lehenago irteten hasi zirenean alde handi nabaritu zuten eta jai egiten hasi zirenean izugarrizko aldea zen beraientzat. Gainera, egiten zuten lana astuna zen oso.

545. Koroan abesten nola hasi zen (ZUM-013/021)

Elizako organista Tolosa ingurukoa zen: Angel Araolaza. Bere arreba haren etxean zegoen lanean eta harreman handia zutelako eta zaletasuna zuelako hasi zen koroan. Elizatik aparte ere bazuten koroa eta Santa Ageda eskean ibiltzen ziren; inoiz Azpeitiraino ere joan izan ziren. Irailaren 7an Ama Birjinaren egunaren bezperan salbea kantatzen zuten; famosoak izaten zen. Bera ibili zenean gizonezkoek osatzen zuten koroa. Bera tiplea zen.

546. Santa Ageda eskean eta gabon eskean ibiltzen ziren mutil gazteak (ZUM-013/022)

Mutil gazteek bestelako koroa ere osatzen zuten elizako korotik aparte. Santa Ageda eskean ibiltzen ziren, bai herrian eta baita inguruko herrietan ere inoiz. Gabon egunean era jaiotzarekin irteten ziren kalera abestera eta poltsa pasatzen zuten dirua biltzeko. Zumaiako ohiturak ziren bi hauek. Euskaraz abesten zituzten kanta guztiak eta don Angel organistak prestatzen zizkien abestien letrak.

547. Herriko eskola, maristen eskola eta Joxe Ramon irakaslea (ZUM-013/024)

Herriko eskolan ("maisuetan") ibili zen eta gero baita maristetan ere. Maristak bidali egin zituzten eta gero mertzedarioak etorri ziren. Maristetakoa eskola ona zela komentatzen du. Maristak joan zirenean Joxe Ramon irakasle donostiarrarekin ibili zen. Irakasle ona zen. Maristen eskola non zegoen. Maristetan mutilak bakarrik egoten ziren eta neskak kolegioan, monjetan.

548. Gizartearen aldaketa; emakumeen aurrerakada (ZUM-013/025)

Gizartea izugarri aldatu da arlo guztietan. Lehen emakumezkoak zapalduta zeuden eta botorik ere ez zuten. Gaur egun alkate era badira emakumeak eta gero eta gorago doazela dio. Lehen ilundu orduko etxean egon behar izaten zuten emakumeek. 30 urte ezkerro moñoa eramaten zuten eta etxetik irten ere ez ziren egiten ia. Bere ama 87 urterekin hil zan eta sekula ez zuen kaferik hartu tabernan.

549. Gurasoak egunero belauniko errezatzen (ZUM-013/026)

Gurasoak fede handikoak ziren; belauniko egoten ziren misterioak errezatzen egunero. Lanean hasi ondoren ere bera mezara eta arratsaldeetako bezperetara joan behar izaten zen, amak esanda. Gero ze apaiz egon zen kontatu behar izaten zion amari, mezatan izan zela ziurtatzeko.

550. Gerraostean gose handia pasatakoa (ZUM-013/027)

Gerra hasi zenean lau urte zituen. Gose handia pasa zuten, soroak izan arren. "Muakillakin" (irina egosita) salbatu zirela dio, hark alimentu handia ematen ziela eta. Baserrietan jenero gehiago izaten zuten eta haien inbidiatan egoten ziren. 1952an joan zen soldadutzara eta artean errazionamendua zegoen. Soldadutza kritikatzan zuen jendeak, baina beraiek behintzat han janaria izaten zuten. Hemen gose handia pasatzen zuten eta, gainera, astileroa gogor lan egin behar. Narrondoko errota baino Txabola ingurukoan gehiago ematen zutela eta amak hara bidaltzen zuen artoarekin kargatuta, urrunago egon arren. Olio botilak 20 ogerleko balio zituen eta aste osoa lan egin beharra zegoen hori ordaintzeko. Razionamentuan klaseak egoten ziren eta beraiek bajuena zuten, terzerakoa.

551. Erdi-baserritarrak ziren, soroak bazituzten (ZUM-013/028)

Beraiek erdi-baserritarrak ziren. Euren etxe non zegoen. Eskolarakoan simaurra eramaten zuen sorora bizkarrean hartuta. San Telmo kale inguruan normala zen etxeek soroak izatea. Jabeak ez zirenek errentan izaten zituzten lur-sailak. Ganadurik ez zuten etxean, baina astoa bai.

552. Gurasoak zumaierrak; Zumaiako abizenak (ZUM-013/030)

Gurasoak biak zumaierrak ziren: aita Marino kalean jaioa eta ama zen San Telmoko etxekoa. Senide asko dituzte, batez ere, Etxabe, Epelde eta Zubia abizenetakoak.

553. Gaztetako jolasak: uztaiak eta "obakua" (ZUM-013/031)

Gaztetako joko inportanteena uztaiak izaten zen. Txapazko uztaiak eskuarekin bultzatzen eramaten zuten. Batzuetan Narrondoraino ere joaten ziren. Beste jolas bat "obakua" izaten zen. Koadratu baten barruan treneko bileteak jarri eta haiek kanpora atera behar ziren burnizko plaka batekin. Futboleak eta arraunean ere ibiltzen ziren.

554. San Telmoren relikia (ZUM-015/018)

Zumaiako parrokiaren San Telmoren "relikia" bat dago. Ustez, San Telmorena omen zen hezur zati bat. Zilar koloreko kutxatxo bat da eta barruan hezurra.

555. Hildakoen inguruko ohiturak; sepulturak; pildumena (ZUM-017/005)

"Pildumena" zer zen: espiralean doan kandela mehea. Elizan jartzen ziren halako kandelak arimen egunean. Familiakoren bat hildakoan, familia bakoitzak bere sepultura izaten zuen elizan urtebetez. Han ere jartzen ziren kandelak trapezuzko beltzaren gainean.

556. Zumaiako jaiak: San Pedroak eta San Telmoak (ZUM-019/001)

Zumaiako jaiak: San Pedroak eta San Telmoak. Gaur egun aldatu egin den arren, lehen San Pedroak jai inportanteagoak ziren. Ze egun egiten ziren jai. Musika, dantza, jolasak, lasterketak... izaten ziren. Jaietan lehen globoak izaten ziren. Paperezko globoak alkoholari su emanda puzten ziren eta aireratu ondoren.

557. Fruta-lapurreta; non eta zer lapurtzen zuten (ZUM-019/013)

Fruta-lapurreta asko egiten zen lehen. Zer fruta klase egoten zen. Limoi-arbolak ere baziren. Kosta guztian egoten zen limoia, arraina kanpora eramateko kontserbatzeko erabiltzen zen eta. Apaiz batek gatzeko tiroak botatzen zizkien lapurretara joaten zirenean. Herri inguruetan ibiltzen ziren. Udazken aldera gaztaina eta urrak harrapatzera Elorriaga aldera. Kale baserrietan ez zen fruta-arbola larregi izaten eta txaletetako udareak lapurtzen zituzten. Ingurua nolakoa zen lehen.

558. Mutikoak arranplan bainatzen ziren; orduko bainujantziak (ZUM-019/014)

Eurak ez ziren asko joaten hondartzara, arranplan bainatzen ziren. Nagusiagotan hasi ziren hondartzara joaten, "neska usainea", Azpeitia edo Azkoitia inguruko neskak etortzen ziren eta. Urolako trenean etorri eta Santiagoko hondartzara joaten ziren Azpeitia ingurukoak. Bainujantziak nolakoak ziren. Parrokoak bainujantziak zaintzen zituen; mutilek tirantedun bainujantzia izaten zuten eta eske soineko antzekoa.

559. Itzurungo hondartza; bainu beroak (ZUM-019/015)

Itzurun hondartza nolakoa zen lehenago. Bainuak zeuden hondartzan: motorrarekin itsasoko ura jasotzen zuten eta berotu eta gero algekin bainuak hartzen zituen jendeak udaran edo udazken aldera. Zarautzen ere bazeuden halako bainuak. Trini Bidasoro zen bainuetxearen arduradunetako bat.

560. Arropak aldatzeko egurrezko kasetak (ZUM-019/016)

Bainuen aldamenean kantina bat zegoen Itzurungo hondartzan. Gero egurrezko kasetak ere bazeuden, arropak aldatzeko. Gurpilak izaten zituzten kasetek eta aldatzeko momentuan hondartzara jaisten zituzten. Zinkunegitarak ziren hauen arduradunak. Baineruak ere egoten ziren; itsaso txarra zegoenean sokatik helduta sartzen zen jendea uretara.

561. Itzurun hondartza; korronteak (ZUM-019/017)

Itzurun hondartza txarra da korronteengatik eta itsasoak tira egiten duelako. Korronteak nondik nora doazen. Hondarra ere "faltsua" dela dio. Honen inguruko azalpenak. Hala ere, fama izan du Itzurunek. Amaia hotela ere bertan zegoen eta jende asko etortzen zen lesioak sendatzera.

562. Kanaberarekin harrapatzen zituzten arrain-klaseak (ZUM-019/019)

Kainaberekin hasi zen arrantzan. Artean karreterik ez zegoen eta besapean hartzen zuten karreteak eta eragin egin behar izaten zitzaion. Gerora beraiek hasi ziren brontzezko karreteak egiten. Ze ingurutan ibiltzen ziren arrantzan.

Lupia eta urraburua ziren gehien harrapatzen ziren arrainak. Itsasoan toila ere asko harrapatzen zen, baina hau sarearekin. Kanaberarekin harrapatzen ziren arrain-klase gehiago.

563. Ketxua (navaja) ugari zegoen inguruetan; lohiarrak (ZUM-019/020)

Ketxua (navaja) ugari zegoen inguruetan, baina lehenago ez zen jaten. Almejak ere asko hartzen ziren. Lohiarrak (klase asko zeuden) eta mamorruak, zigala antzeko txikiak, hartzen ziren gero arrantza egiteko.

564. Inguruko fabriketako esportazioa eta inportazioa (ZUM-019/021)

Asturias eta Galizia aldetik itsasontzi asko etortzen zen. "Hiraulika" (porlan) fabrika zegoen Zumaian eta harako materiala ekartzen zuten eta baita porlana eraman ere. Trenean ekartzen zen porlana geltokiraino eta handik itsasontzietara. Cadiztik gatza ere ekartzen zen noizbehinka kontserba fabriketarako.

565. Harraldeko arrantzan harrapatzen zirenak: ostarrenak, txuaskilak, olagarroa... (ZUM-019/022)

Ostarrena (erizo marino) ere gutxi jaten zen, nahiz eta asko harrapatu. Berak probatu izan du. Asturiar eta galiziarrek hartzen zuten asko ostarrena. Txuaskilaren inguruko azalpenak; hortzaka eginez gero, txarra da. Harraldeko arrantzan harrapatzen zirenak: olagarroa, aingira bustua... Euren gurasoen garaian aingira ere marketan harrapatzen zen harraldean... Harraldeko arrantza bai egunez eta bai gauez egiten zen. Egunez olagarrotan, txuaskilatan edo maulixotan egiten zen, adibidez. Lehen asko zegoen, baina gerora galdu egin ziren. Zenbaitek palankarekin amarren eta olagarroen ezkutalekua apurtu eta horregatik galdu direla uste du. Gabarrantzan itsas kabrak, olagarroren bat... harrapatzen ziren.

566. Gabarrantzaren inguruko azalpenak; olagarroaren arrantza (ZUM-019/023)

Gabarrantza karburoarekin, kandil batekin, egiten zen. Esku batean kandila eta bestean salabardoa erabili behar izaten zen. Gomexa harrapatzeko "arrankazixa" erabiltzen zen. Batzuk zalabardoarekin hartzea komeni da eta beste batzuei "arrankazixa" sartu behar zaie. Ur handia ez badago eskuarekin hartzen dira. Olagarrontxoarekin hartzen zen, baina gauez baita eskuarekin ere. Olagarroa nola harrapatzen zen. Olagarroen ezkutalekuak jakiteko markak erabiltzen ziren.

567. Txibi klaseak: begi handiak eta begi txikiak; sepia (ZUM-019/024)

Inguruetako olagarroak denak klase batekoak dira. Txibi klaseak: begi handia eta begi txikia. Bakoitzaren inguruko ezaugarriak eta noiz harrapatzen den. Begi txikia da bertako txibia. Txopua (sepia) ere harrapatu izan da, baina hori askoz makalagoa da. Honen inguruko azalpenak. Tinta asko omen du eta txibientzat edo saltzeko erabiltzen da honen tinta.

568. Motor txikiekin harrapatzen ziren arrain-klaseak: gailakak, txistuak, bolondinak... (ZUM-019/025)

Pota ere etortzen da noizbehinka, baina hori ere makal omen da. Kabrak, panekak, donzeilak, txistuak, gailakak, karraspioak... Gailaka arrain dotorea omen da. Honen inguruko azalpenak. Bolondina; deskribapena. Txistua donzeilaren tankerakoa da; deskribapena. Arrain-klase hauek motor txikiekin harrapatzen ziren.

569. Motor txiki eta bateletan harrapatzen ziren arrain-klaseak (ZUM-019/026)

Zumaian asko ibiltzen ziren motor txikiekin arrantzan. Lehenago motorrik ez zegoenean bateletan ibiltzen ziren. Bateletan ze arrain-klase harrapatzen ziren. Geldirik harrapatzen ziren arrainak eta "kazian" harrapatzen zirenak. Arrain-klaseak. "Salbera"k arantza izaten du eta pozoitsua izaten da. Beste arrain-klase batzuk.

570. Gaztetatik lan asko egin behar jan ahal izateko (ZUM-021/004)

17 urtera arte eskolan ibili zen. Orduan gerra etorri zen eta gosea pasa zuten. Baserrietara joaten ziren janari bila. Basusta inguruan terreno bat zuten eta bertatik ateratzen zuten janari pixka bat. Lanean ere hasi zen antxoa fabrika: antxoei buruak kendu eta kaxetan gatzetan jartzen zituzten. Ortizeneko fabrika jardun zuen lanean. Zarautzen ere jardun zuen lanean pertxak egiten. Oinez joaten zen Getariara eta oinez itzuli. Trena ordaintzeko ez zuten dirurik.

571. Zumaiko ontzigintza (ZUM-022/009)

Astilerok non zeuden Zumaian. Itsasontzien kaskoak hutsik ekartzen ziren eta gero montatu eta motorra jartzen zitzairen. Arotzak ere ibiltzen ziren euren lana egiten. Zumaian lehen itsasontzi ugari egiten ziren. Moila itsasontzi kaskoz beteta egoten zen. Ingurua nolakoa zen.

572. San Pedro kalean jaioa; Goiko plazako dendak (ZUM-022/010)

San Pedro kalean jaio zen bera; ze etxetan jaio zen azaltzen du. 5 anai-arreba jaio ziren bertan eta gero Goiko plazara joan ziren, udaletxe ondora. Orduan jendea alkilerrean bizi zen, etxeak ez ziren erosten. San Pedro kalea ez da asko aldatu. Beobide eskultorea ere San Pedro kalean bizi zen. Goiko plazako dendak.

573. Goiko plazako eskolak: pribatua eta publikoa (ZUM-022/011)

Goiko plazako "kolegioa" handia zen. Neska eta mutil ibiltzen ziren bertan. Internak ere egoten ziren eskolan; nolako uniformea erabiltzen zuten. Inguruan zegoen beste eskola baten solairu batean ordaindutakoak eta besteak dohainekoak ibiltzen ziren. Ze bereizgarri izaten zuten janzkeran. Pantxika Etxezarretak terrenoak utzi zizkien moiei, baldintza batzuk jarrita.

574. "Kintuxeneko" eskola (ZUM-022/012)

Goiko plazatik parrokia aldera etxe baten lehenengo solairuan ume txikien eskola zegoen; "Tintuxenekoa" esaten zioten. Senar-emazte batzuk behean janari-denda zuten eta goian emakumeak ume txikiak zaintzen zituen.

575. Goizean oinarrizko gauzak eta arratsaldean josten ikastera (ZUM-022/013)

Lehenbizi "Kintuxenean" eta gero mojetan ibili zen eskolan. Lau urterekin hasi zen eskolan, baina ez zitzaion gustatzen. Goizean oinarrizko gauzak eta arratsaldetan josten ikasten zuten. Gerra aurretik Gipuzkoa izeneko liburu bat erabiltzen zen; inguruko herri txikiak agertzen ziren bertan.

576. Irene izena nola jarri zioten (ZUM-022/014)

Irene izenaren inguruko gorabeherak. Aita oso nazionalista zen. Berari Edurne izena jarri nahi izan zion, baina galarazita zegoen eta Irene jarri behar izan zion. Gerora laugarren alabari Edurne jarri zion izena.

577. Errepublika garaiko bizipenak (ZUM-022/015)

Errepublika garaiko kontuak. Berak zazpi urte zituela amak nazionalisten lazoa (ikurrinaren kolorekoa) jartzen zien berari eta ahizpari. Errepublikazaleen egoitzaren parean neskak banderekin kalejiran nola ateratzen ziren begira egon ziren. Errepublikanoak eta karlistak ere bazeuden, baina gehienak nazionalistak ziren orduan Zumaian.

578. Batzokia, karlisten lokala eta errepublikazaleen lokala (ZUM-022/016)

Batzokia non zegoen. Lokal handia zen eta antzerkiak egiten ziren bertan. Batzokia itxi zenean parrokiako zentroa egon zen bertan. Errepublikazaleek ere bazuten euren lokala; non zegoen azaltzen du. Zumaian ez zegoen sozialistarik. Karlisten lokala non zegoen. Karlistekin egoten ziren liskar gehien.

579. Aita nazionalista porrokatua (ZUM-022/017)

Politika kontuetan tirabirak izaten ziren, batez ere karlistekin sortzen ziren liskarrak. Ahizpa eta biak karlisten lokalera antzerkia ikustera joan zireneko gertakizuna. Aita (Jesus Yeregi Manterola) batzokiaren sortzaileetako bat izan zen eta aurre-aurrean ibiltzen zen nazionalistekin.

580. Irratia errekisatu zieten (ZUM-022/018)

Karlistak sartu zirenean irratia kendu zieten euren eta baita euren gainean bizi zen osabari ere. Euren etxe inguruko eraikin bat errekisatu zuten frankistek eta hara eraman zuten euren irratia. Batzokia egondako eraikina karlistek errekisatu zuten eta hara eraman zuten goiko irratia. Orain talasoterapia dagoen eraikina goitik behera errekisatu omen zuten.

581. Tropak Goiko plazan; kapitaina izebaren etxean (ZUM-022/019)

Gerra garaiko bizipenak. Soldaduak Goiko plazan egon ziren. Euren osabak baserri batera ihes egin zuen badaezpada, eta izebak kapitain bat izan zuen etxean. Irene kapitainarekin joaten zen kuartelera olio bila; izan ere, kapitainari baratzuri-zopa asko gustatu zitzaion, eta hura jartzeagatik. Tropek

denbora gutxi egin zuten herrian, baina herriko karlistak eta falangista nafarrak geratu omen ziren herrian.

582. Bonbatatik babesteko Sesteroaneko sotora (ZUM-022/020)

Sesteroaneko dendaren azpian, soto bat zegoen; eta, sirena jotzen zutenean, denak hara joaten ziren, bonbatatik babesteko. Moilan bota zituzten bonba batzuk. Karabineroen etxola tiroz beteta egon zen. Hala ere, ez zen hainbesterako izan.

583. Ortizeneko fabrikako nagusiak ihesi eta jendea fabrika errekisatzen (ZUM-022/021)

Gerra denboran, Ortizeneko kontserba-fabrian bakailao asko omen zegoen lehortzen. Nagusiek aurrera joan behar izan zuten, nazionalistak ziren eta. Ateak irekita gelditzean, jendea bakailaoa hartzera joan zen. Bera ere bila joan zen; baina, bera joan orduko, errekisatu egin zuten, eta gabe geratu zen.

584. Nazionalisten buru ibiltzen ziren herritarrak (ZUM-022/022)

Nazionalistekin aurrean ibiltzen ziren herritarrak: Zumaiaiko alkatea (Arrate), Ajuria medikua, Zelaia... Horiek, gerra denboran, baserrietan ezkutatu zituzten, ez fusilatzeke. Zelaiaren etxea goitik behera errekisatu zuten. Errepublika garaian bere aita baserririk baserri ibiltzen zen kotxearekin boto bila. Herriko lehenengo kotxeak.

585. Batzokiko kultur-ekintzak (ZUM-022/023)

Batzokian euskaraz irakasten hasi ziren. Bere ahizpa euskaraz ibili zen eta bera ere hala hasi zen, baina gerra etortzean akabo. Euskal dantzak ere irakasten ziren batzokian eta bera ere ibili zen dantzan. Sagar-dantza egiten zuten, esaterako.

586. Gerraostean Espainiako bandera edo falangistena jarri behar arropan (ZUM-022/026)

Gerraosteko giroa Zumaian. Arropan Espainiako bandera edo falangistena jarri behar izaten zen. Goiko plazara Cara al Sol abesten ikastera joan behar izaten ziren.

587. Bereizketa ikasle arrunten eta internen artean (ZUM-022/027)

Eskolan moja nazionalista bat zuten eta hark gerrako berri jakin nahi izaten zuen. Hura jatorra zen, baina mojak gogorrak izaten ziren normalean. Bereizketa handia zegoen ikasle arrunten eta internen artean. Inguruko jendea egoten zen interna. Haiek gehiago ordaintzen zuten.

588. Bizikletak alkatatu egiten ziren (ZUM-022/028)

Bizikletan nola ikasi zuen. Oso jende gutxik izaten zuen bizikleta orduan. Bizikletak alokatu egiten ziren. Behin Ondarroaraino joan ziren bizikletan. Beraiek izan zuten lehenbiziko bizikletan Frantziatik ekarritakoa zen. Anai-arreba guztientzat bizikleta bakarra zuten. Bizikletak non alokatzen zituzten.

589. Umetako jolasak: "Tres navios"-ka, mando-mandoka, asakaponetan... (ZUM-022/029)

Gaztetako entretenimenduak bizikletaz ibiltzea edo geltokira trenak ikustera joatea izaten ziren. Geltokian egoten ziren alanbreekin euren izenak idatzi, eta trenbidean jartzen zituzten, trenak zapaldu zitzan. Jostailu txiki batzuk egoten ziren, baina edozeinek ez zituen halakoak izaten. Botoiekin, txapekin eta halakoekin jolasten ziren. "Tres navios"-ka ere jolasten zuren; jolasaren inguruko azalpenak. Sokasaltoan. Mando-mandoka. Asakaponetan.

590. Goiko plazan jolasten zuten inguruko umeek (ZUM-022/030)

Eskolako lagunak ibiltzen ziren elkarrekin normalean. Jolaserako, kaleko lagunak izaten ziren. Goiko plaza inguruko umeek (neska eta mutil) denek batera egiten zuten jolas normalean. Neskak gehiago ibiltzen ziren, mutilak tiragomarekin edo sagar-lapurretan ibiltzen ziren eta. Errekara bainatzera mutilak bakarrik joaten ziren. Karmengo Ama Birjinaren eguna pasa arte ez ziren hondartzara joaten, ordura arte ez zieten bainatzen uzten eta. Hondartzara beti Itzurunera joaten ziren.

591. Zumaiaetik Frantziara; egindako bidea (ZUM-025/003)

Gorriak zirelako, herritik kanporatu zituzten. Amak lau seme-alabarekin egin zuen alde. Frantziara iristeraino egindako ibilbideaz hitz egiten du (Lekeitio, Amorebieta, Getxo, Romo, Portugalete, Santander). Zumaiaiko familia ugari egin zuen alde. Ibilbide horretan bizitako kontuak aipatzen ditu.

592. Frantziara iristean, gosearen gosez, jan eta jan (ZUM-025/004)

Frantziara iritsi, eta jan eta jan hasi zen, pasatako gosea gogoan baitzuen. Betekadaren ondorioz, dena bota zuen.

593. Aita arrantzale; zamalanak (ZUM-025/007)

12 urterekin hasi zen arrantzan, aitari laguntzen. Aita zamalanetan aritzen zen, eta barkurik ez zegoenetan sorora edo itsasora joaten zen arrantzan.

594. Itsasotik lehorrera joan-etorri ugari (ZUM-025/008)

Arrantzan ibiltzen zireneko kontuak: hiru irteera egiten zituzten itsaso barea zegoenean. Lehorrera itzultzen ziren amari arraina emateko, ondoren sal zezan. Jatekoa hartu eta berriro itzultzen ziren itsasora.

595. Egunaren partiketa: arrain bakoitzak egunaren une jakin bat (ZUM-025/009)

Garaia bazen, goizez txipiroi edo txitxarrota joaten ziren. Ondoren, txitxarrota berriro ere, eta amaitzeko txibia handitara.

596. Umetako lanak: arrantzatu, soroa landu, oldixak batu (algak) (ZUM-025/010)

Umetan aitari laguntzen zioten, bai arrantzan, bai soroan... aita egiten zuena egiten zuten. Ooldixak (algak) ere batzen zituzten. Hauek lehortzen jarri eta ondoren, bizkarrean hartuta, etxera eramaten zituzten. Familia bakoitzak bere lursaila zeukan.

597. Urte sasoiaren arabera arrantza (txipiroiak, antxoak, txitxarroak) (ZUM-025/011)

Urte sasoiaren arabera arrantzatu beharrekoa aldatu egiten zen. Esaterako, txipiroiak San Jose garaian arrantzatzen ziren batez ere; martxoa eta gero, mailatan hasten zirenean, antxoak. Antxoak txikitu (apasta) eta txitxarrotara joaten ziren. Antxoak lehen mailatuta hartzen ziren, buruak harrapatuta geratzen ziren, eta puska horiek txikitu eta txitxarrotara joateko erabiltzen zituzten.

598. Estropadan lehena, saltzailerik onena (ZUM-025/012)

Maiatzean antxoa gutxitu eta kabratara joaten ziren. Goizez txibitan egoten ziren eta ondoren irteten ziren kabratara. Kabratara joandako txaluparen bat jasotzen ikusten bazuten, gainerakoek ere jaso, eta estropadan itzultzen ziren lehorrera, izan ere, lehenengo irteten zenak gehiago saltzen zuen.

599. Amak arrain-saltzaile (ZUM-025/013)

Saldu beti amek egiten zuten, kalean edo plazan.

600. Arrantza-tresnak: aparejoak (ZUM-025/015)

Aparejoak zurdaz egiten ziren, zaldiaren (arra behar zuen) buztan-ilez. Aparejoak puskatzen baziren, familiakoek gauez egiten zituzten hurrengo egunerako. Aitak pita txapelaren barrualdean izaten zuen. Herriko kontuen berri ematen zuen 'bertsolariak' saltzen zuen pita.

601. Hondoko arrantza edo orekako (ZUM-025/016)

Arrain batzuk hondoa hartzen ziren, beste batzuk orekan. Oreka zer den azaltzen du. Getaria aldera joaten ziren bela jarrita, terralarekin joan eta iparrarekin etorri. Saldu behar bazen, goizago joaten ziren.

602. Urte sasoiaren arabera arrantza (ZUM-025/017)

Kabrak urte guztian zehar zeuden, batik bat neguan. Baina txipiroiek diru gehiago balio zuten, txipiroiak (begi handiak) agertzean haiek harrapatzen joaten ziren, ekaina aldera batez ere.

603. Arrantzan egiteko beste teknika bat: bosa (ZUM-025/019)

Arrantza egiteko beste modu baten berri ematen du: bosa. Teknika honen nondik norakoak aipatzen ditu. Bosan izkirak botatzen ziren, haitza zegoen lekura. Bosan ibilita, txitxarroa eta buztanbeltza (antzarrixa ere deitua) harrapatzen ziren, eta tartean tartean lupia ere bai. Aparejo fina zenez, arrain handiak ezin ziren hartu, pita hautsi egiten zelako.

604. Erabilitako karnata; apasta, izkira (ZUM-025/020)

Garaia arabera karnata egiteko gauza bat ala bestea erabiltzen zuten. Antxoarekin apasta egiten zuten, txitxarroak hartzeko erabiltzen zena. Hondoan dagoen arraina ur gainera irteten da apastari esker. Antxoarik ez zegoenean izkira erabiltzen zen. Izkirak lortzeko baldarrasa erabiltzen zen. Baldarrasak bi makil zituen, eta haien erdian poltsa bat. Soroak ureztatzeko kanalak zeuden, eta bertan izkira piloa sortzen ziren. Bertara joan eta salabardoarekin hartzen zituzten. Alguazilekin arazoak izaten zituzten izkiretara joaten zirenean.

605. Arrantzarako tresnak: traimailua, sarea, eskuko aparejoa (ZUM-025/021)

Sarearekin ibili da, baina gutxi. Sarearekin gobia, barbarina, durdua, zentolloa hartu izan ditu. Sareak lan handia zuen; oldia (alga) pegatzen zitzaion itsaso biziarekin eta nahikoa lan zuten hori kentzen; aparejoarekin lan gutxiago. Sarearekin ibiltzen ziren asko zeuden. Paneka hartzeko eskuko aparejua erabiltzen zen, sardina edo antxoarekin. Hiru amuko aparejuak izaten ziren panekak arrantzatzeko. Paneka ondo saltzen omen zen, baina baita gainerako arrain guztiak ere. Arrain klase asko harrapatzen zen lehen.

606. Itsasoko errituak (ZUM-025/022)

Getariarren aldean, zumaiarrek ez zituzten errito asko. Erramu bedeinkatua aipatzen du.

607. Izkira kenduta, gainerako karnata hildakoa (ZUM-025/023)

Karnata bizirik ez zuten erabiltzen, izkira salbu. Gainerakoak hildakoak ziren. Izkirak poltsa batean izaten zituzten, toletean lotu eta uretara botatzen zuten poltsa. Askotan hurrengo egunean joan, eta poltsarik ez zegoen.

608. Kolaio eta toilaren inguruan (ZUM-025/025)

Kolaiorik ez zuten harrapatzen, baina etxean ikusi izan ditu, aita zenari asko gustatzen zitzaiolako. Toilaren arrantzari buruz hitz egiten du. Gutxi batzuk aritzen ziren toiletan, baina sarraski handia egin zela dio. Kolaiua jateko moduak aipatzen ditu.

609. Itsasoko txoriak eta izurdea ekartzen zituzten Zumaia (ZUM-025/026)

Itsasoko txoriak hartu eta saltzen ziren. Mutrikokoak zaleak ziren, ondarroakoak hona etortzen ziren saltzera. Naru guztia kenduta ekartzen zituzten, eta kalean jartzen ziren saltzen. Izurdea ere egoten zen. Normalean Pasaian erosten zituzten eta herrira ekartzen zituzten arrandegian saltzeko. Osabak izurdea etxean narrutu eta emazteak postuan saltzen zuen. Izurdea nola jaten zuten azaltzen du.

610. Salbera, arrain arriskutsua (ZUM-025/029)

Salbera, arrain arriskutsua. Batzuek harrapatzen zuten, baina hartarako tresna egokiekin joan behar ziren. Salberak ikutuz gero, basahuntzaren hezurarekin igurtzi behar da jotako lekuan. Salberatan asko egiten zen Zumaian, jateko ederra baitzen. Salbera mota asko dago, esaterako, bada hondar azpiko salbela, tamaina txikikoa.

611. "Sinsangriak": antxoaren pareko arraina (ZUM-025/030)

"Sinsangriak", antxoaren modukoak dira. ibaiaren korrontean kontra ibiltzen dira. Orain ez dira ikusten. Apasta eta salabarduakin hartzen ziren.

612. Zumaian arrantzarako erritu gutxi (ZUM-025/031)

Erritu gutxi dago Zumaian, Getarian ohitura gehiago dago. Joseren anai zaharrak txapela kentzen zuen barra pasatzeko. Akelinok urteko lehen bidaia egiten duenean eskua uretan sartu eta hiru aitaren egiten ditu.

613. Arrantza, eguraldiaren mende (ZUM-025/032)

1945ean 30 bat txalupa zeuden Zumaian, arrantzan. Eguraldi txar-txarrekin ez ziren ateratzen. Beti zeruari begira ibiltzen ziren.

614. Erramu bedeinkatua txalupan (ZUM-025/033)

Erramu egunean erramua parrokiari bedeinkatu eta ondoren txalupan jartzen zen.

615. Ondoko herrikoekin harreman gutxi (ZUM-025/034)

Beste herri batzuekin hartuemanik ez. Haiek nahikoa lan zuten arraunean eta ez ziren hona etortzen. Entzuten zutenean txibi asko zegoela gerturatzen ziren Zumaiara (getariarrak batez ere). Gezurra esatea garrantzitsua zen, horren inguruko anekdota kontatzen du.

616. Arrainaren salmenta (ZUM-025/035)

Norberak berea saltzen zuen. Jatetxeetan, hoteletan ere saltzen zuten. Kofradian ez zuten saltzen, hori itsasontzi handiek egiten zuten.

617. Biografia; Akelino izenaren arrazoia (ZUM-054/001)

1913ko martxoaren 19an jaio zen. San Jose egunean jaioa izan arren zergatik jarri zioten Akelino izena. Berak ere bere besoetako ilobari Akelino jarri zion. Bere jaiotetxeari "Porteroko etxia" deitzen zioten, amaren Ibañaberrietako baserriagatik. Aita Narrondokoa zuen.

618. Porteroko etxea nolakoa zen (ZUM-054/002)

Porterokoa etxea nolakoa zen. Bi pisu zituen eta Aramanditarrak (errezildarrak) bizi ziren eraikin berean. 1948an bera Frantziatik itzuli zenean sartu zuten ura etxean, ordura arte kaletik ekartzen zuten iturritik. Arropak garbitzeko ama arropa buru gainean hartuta albergara joaten zen. Herriko albergak non zeuden. Patxi barranderoaren inguruko kontuak. Sua sukalde erdi-erdian zuten, aita egina. Aita trebea zen edozer gauza egiten. Noiz beritu zuten etxea.

619. Ganadua eskaileretan gora eta behera (ZUM-054/003)

Etxe azpian ganadua zuten. Ganaduari gustatu egiten omen zitzaion eta egunero eramaten zituen erreka buelta bat ematera hankak garbituaz. Ganadua eskaileretan gora eta behera ibiltzen zen kalera irteteko. Txerria ere bazuten eta amak egunero garbitzen omen zuen "estropajuarekin". Inguruko etxeetan ere denetan zegoen ganadua. Aita garraiolari gisa ibiltzen zen lanean.

620. Soroak non zituzten (ZUM-054/004)

Bi sail zituzten erribera inguruan eta Jarreko mendian ere erabiltzen zuten saila ganaduarentzat. Jaietako pozik handiena aitaarentzat 2-3 seme artajorran laguntzera joatea izaten zen. Aitak ez zuen lan finkorik eta denetarik egiten zuen bizimodua ateratzeko.

621. Aita ofizio askokoa: kaleak egin, paretak konpondu, otarrak egin... (ZUM-054/005)

Aitak ez zuen lan finkorik eta denetarik egiten zuen bizimodua ateratzeko. "Paolen" harria atera, labratu eta berak bakarrik egin omen zuen udaletxetik gorako kale osoa. Itsasoak harrizko paretak apurtzen zuenean ere bere aita eramaten zuten konpontzera. Neguan aulkiak eta otarrak egiten zituen etxean eta plazan saltzen zituen. Baserritarrak plazara etortzen ziren eta Arritokieta kalean egoten ziren asto guztiak lotuta.

622. Urbietatarrak: baserritarren astoak zaindu eta taxista lanak egin (ZUM-054/006)

Inguruko baserritarrak plazara etortzen ziren saltzera. Arritokieta kalean egoten ziren asto guztiak lotuta. Urbietatarrak egoten ziren astoak zaintzen. Zaldiak ere bazituzten karro eta guzti eta taxista lanetan ibiltzen ziren, jendea inguruko herrietara eramaten. Ikatzek betetako barkuak iristen zirenean garraiolari lanetan aritzen zirenek karroa kargatu eta geltokira eramaten zuten. Nortzuk aritzen ziren lan honetan.

623. Zestoako bainuetxeko urak fama handia (ZUM-054/007)

Zestoako balnearioko urak fama handia zuen eta barkuetan kanpora saltzen zela gogoan du. Bainuetxera bertara ere etortzen zen sarri jendea bainuak hartzera.

624. Garraioa: gurdiak eta dilijentzia (ZUM-054/008)

Gurdiarekin garraioan ibiltzen zirenak 3-4 izaten ziren. Geltokira iristen zen materiala idiekin eta gurdiarekin garraiatzen zuten. Jendea eramateko dilijentzia bat zegoen, baina bestela jendea oinez ibiltzen zen. Azpeitiraino ere joaten ziren oinez zerbait erosi edo saltzera.

625. Urbietatarrek astotokiaren ardura (ZUM-054/009)

Arritokieta kalean astotokia zegoen. Paretaren kontra astoak lotzeko burdin bat egoten zen. Gehiago ordaintzen zutenei ikuilu barruan gordetzen zieten astoa. Urbietatarrak ziren zaintzaileak. Plaza goizean goiz izaten zen.

626. Erriberako sailen inguruko azalpenak; antxoa ongarriztat (ZUM-054/010)

Etxe gainekaldean baratze txiki bat zuten eta Basusta inguruan zituzten sail gehiago. Baba, patata, erremolatxa, arbia... izaten zuten. Garia ere ereiten zen. Lur ona zegoen erriberan, umedade handia zegoelako. Luakiak urez goraino estalita ezagutu ditu. Ura igotzen zenean dena urpean geratzen zen eta gero denbora behar izaten zen errekuaratu. Saltzen ez zen antxoa ongarriztat soroan botatzeko erosten zuten. Jatekoarekin ez zuten arazorik izaten, baratzean etxerako lain hartzen zuten eta, arazoa olioarekin, azukrearekin eta arroparekin izaten zuten.

627. Eguneroko jatekoa; jakiak nola kontserbatu (ZUM-054/011)

Taloa egiten zuten etxean eta berak eskolara eramaten zuenean jateko, denak atzetik izaten zituen. Esnea pertzan esekita izaten zuten eta nahi beste edaten zuten. Bestela eguerdian babak eta gauean porru-patatak edo

bakailaoa patatekin jaten zuten. Lehen ez zegoen hozkailurik eta haragia gatzetan kontserbatzen zen. Udazkenean artoa heltzen zenean etxe osoan artaburuak izaten zituzten zintzilik. Jende asko egoten zen etxeetan eta batzuk neskame edo morroi joaten ziren.

628. 13 urtera arte mojekin eskolan (ZUM-054/012)

Behiei goizean eta iluntzean batzen zieten esnea. Amak zaintzen zuen normalean ganadua eurak lanean zebiltzalako. 13 urterekin hasi zen lanean eta ordura arte mojekin ibili zen eskolan. Mojetan probintzia osoko neskak egoten ziren interna eta haiei begira hasiak zirela eta, mojek nahikoa ikasi zutela esan eta eskola utzi zuen.

629. Balenciagarenean lanean (ZUM-054/013)

13 urterekin Balenciagarenean hasi zen lanean, tornuan, aprendiz gisa. Orduan lanbidea ondo ikasi beharra zegoen. Kalderak eta makinak egiten zituzten, Zumaian itsasontzi asko montatzen baitzen. Lantegia non zegoen. Gerra aurretik bera lanean hasi zenerako lantegi handia zen Balenciaga, fundizioa, kaldereria eta ajustajea dena bertan zegoen eta. 80 langile inguru izango zituen ordurako.

630. Balenciagarenetik Yeregirenera lanera (ZUM-054/014)

Balenciagarenean lehenbiziko "huelga" egin zueneko pasadizoa. Ez zegoen gustura eta utzi egin zuen Balenciagareneko lana. Kanean zegoela Yeregi etorri zitzaion lana eskaintzera. Tornu berria ekarria zuten eta han jarri zuten lanean. Balenciagareneko bikoitza ordaintzen zioten eta gustura aritu zen bertan lanean gerra etorri arte.

631. Egiguren lantegian aritu zeneko garaia (ZUM-054/015)

Gerraostean Frantziatik itzuli zenean, Yeregitarrek ondo hartu zuten eta lana eskaini zioten berriz, baina gutxi iruditu zitzaion eta ez zuen onartu. Bere emazteak garai hartan despeskan lan egiten zuen, mallako antxoak saretik libratzen. Orduan Goikoetxea etorri zitzaion Egigurenean lan eskainiz. Onartu egin zuen eta lanean hasi aurretik soldata etxera iritsi zitzaion. Egigurenek Zestoan zuen lantegia, anaiekin batera, baina kredituekin funtzionatzen zuen lantegia zen. Anaiekin banandu ostean, Julian Egigurenek Zumaian ireki zuen lantegia. Puskaka-puskaka joan zen lantegia sortzen.

632. Lau urteren ostean berriz Egigurenenera (ZUM-054/016)

Egiguren lantegiak kreditu bidez funtzionatzen zuen, baina beti kredituak itzuli ezinda ibiltzen zen. Beste lantegi batetik enkargatu gisa lanera joateko eskaintza jaso zuen eta joan egin zen. Handik lau urtera berriz deitu zion Egigurenek eta itzuli egin zen. Egunean tornu bate egitera iritsi ziren. Kanpora ere saltzen zituzten tornuak. Belgikara feria internacionalera joan ziren eta Grezian ere lehiaketa batera aurkeztu ziren. Irabazi egin zuten. Hona etorri eta saria jasoko zutelakoan pozik zeuden, baina kolpe militarra egon zen Grezian eta sari gabe geratu ziren. Egun batean semeak tailerra montatzea proposatu zion eta hala egin zuten, Indoiki mekanizatuko lantegia sortu zuten.

633. Indoiki lantegiaren sorrera; nolako lanak egiten zituzten (ZUM-054/017)

Egun batean semeak tailerra montatzea proposatu zion eta hala egin zuten, Indoiki (Industrias Oikina) mekanizatuko lantegia sortu zuten. Mekanizatuko lanak egiten zituzten (itsasontzientzat); nolako lanak egiten zituzten. Oikian lehenengotako lantegia izan zen Indoiki, ordura arte soroak besterik ez zegoen. 1969an sortu zuten lantegia eta 1992 inguruan itxi zen.

634. Zumaiko sagardotegiak (ZUM-054/018)

Zumaian sagardotegi asko zegoen; non zeuden azaltzen du. Orduko sagardotegiak sinpleak izaten ziren. Norberak eramaten zuen jatekoa. Askotan sardinak edo antxoak eraman eta bertan erreta jaten zituzten.

635. Gazteen zaletasunak pilota eta dantza; dantza lotua galarazita (ZUM-054/019)

Gazteek pilotarako zaletasun handia zuten eta jai eguerdietan frontoian ilaran egoten ziren pilotan jokatzeko zain. Pilotan aritzen zirenen izenak. Euren zaletasuna dantzarakoa izan zen. Arroako kantinara joaten ziren dantzan ikastera. Errepublika aurretik elizak galarazi egiten zuen orduan dantza lotua eta eurak elizari aurre egitearren dantzara joaten ziren 17 urte ingururekin. Errepublikarekin gero aldaketa etorri zen.

636. Narrondoren administrazio-egoera (ZUM-056/002)

Miren jaio zeneko etxeari buruz, Narrondori buruz, hitz egiten dute: Arroan dago, baina Zestoari dagokio. Hala ere, Zumaierako joera gehiago du bertako jendeak. Narrondo bi udalen artean dagoenez, ez dago argi zer ardura duen bakoitzak. Eliza Arroan dute eta medikua Zumaian; baina badira Zestoara jotzen dutenak ere.

637. Garai bateko Narrondo (ZUM-056/003)

Narrondo duela 50-60 urte nolakoa zen azaltzen dute: zer denda eta baserri zeuden.

638. Narrondoko errota (ZUM-056/004)

Narrondon zegoen errotari buruz hitz egiten dute. Anak eta Joxek hor ezagutu zuten elkar. Toki askotatik etortzen zen jendea, nahiz eta beste errota batzuk ere baziren. Errota inportantea zen, eta artoa eta garia ekartzen zen hara. Errotaria oso jatorra zen.

639. Lehenengo taberna (ZUM-056/007)

Beren gazte garaian, Arroan ez zegoen tabernarik. Lehenengo taberna jarri zenekoa kontatzen dute.

640. Eskolara nora (ZUM-056/008)

Eskolarik ere ez zegoen Narrondon: Arroara edo Zumaiera joaten ziren. Anak Itziarren ikasi zuen, Elorrin. Eskola hura gogorra zela esaten du. Gaur egungo hezkuntzari buruzko iritzia ematen dute. Bi emakumeek batera hitz egiten dute.

641. Eskolako kontuak (ZUM-056/009)

Joxek maristetan ikasi zuen, eta hango maisuak gogorrek ziren. Arroako eskolan, ordea, bi neskazahar zeuden, eta erlijioa erakusten zuten gehienbat. Arroa Behean zegoen eskola. Anaren maistra Basarri bertsolariaren garai bateko andregaia izan zen; eskola hartan turbina zeukaten, eta Xabiartxo liburua erabiltzen zuten (euskaraz zegoen hura idatzita).

642. San Kristobal jaiak (ZUM-056/012)

San Kristobal festak ospatzen dira Narrondon, uztailaren 10ean. Zergatik aukeratu zuten Kristobal santua, eta nola lortu zuten haren eskultura eskuratzea azaltzen du Anak.

643. Mendiko harria autobusera (ZUM-056/014)

Errepide ondoko mendian, harria mugitu eta "La Guipuzcoanako" autobus baten barrura sartu zenekoa kontatzen du Joxek.

644. Errepide-istripuak (ZUM-056/016)

San Kristobal da garraiolarien santua, eta Narrondon egondako istripuak kontatzen ditu Anak. Sinesmen handia du jendeak santu horrek zaindu egiten dituen.

645. Garai bateko erromeriak (ZUM-056/022)

Joxe dantzari ona zen. Erromeriak non izaten ziren aipatzen du Joxek, baina gehienetan Arroara joaten ziren; San Lorentera San Lorente egunean bakarrik. Lehen hobe izaten zen erromeria hura. Neska-laguntzeak egiteko izaten ziren onak erromeriak.

646. Baserritik eskolara eta errotara nola eta noiz joan (ZUM-056/024)

Ana etxeko senide gazteena zen, eta eskolara joateko hiru ordu laurden edo ordu bete ematen zuen bidean. Errotara astoarekin joaten ziren, eta garia gastatzen zenean joaten ziren hara.

647. Etxean urik ez zegoenean (ZUM-056/027)

Lehen, etxean urik ez zegoenean, errepidearen ondoko presan garbitzen zuten arropa. Ura ere presa hartatik hartzen zuten.

648. Familia Gernikara eta anaia soldadu (ZUM-056/031)

Joxeren familia Gernikara bidali zuten gerran. Anaia zaharra karlistek hartu zuten soldadu, eta beste guztiek alde egin behar izan zuten Gernikara, Foruara. Han beldur handia pasa zuten.

649. Soldaduak baserrian jaten (ZUM-056/033)

Soldaduak bere baserrira joan zirenekoa kontatzen du Anak. Tropa handia joan zitzaient, eta denentzako janaria prestatu behar izan zuten. Nolanahi ere, soldaduek jandako guztia ordaindu zuten, eta hurrengo egunean joan egin ziren.

650. Kontxako estropadak (ZUM-056/036)

Kontxara bi urtetan joan ziren: haietako batean oso itsaso txarra zegoen, eta itotzeko zorian egon ziren. Urte hartan Sestaok irabazi zuen; beraiek 3. edo 4. gelditu ziren. Donostiara kamioian joaten ziren denak: arraunlariak eta trainerua. Estropadak orain bezala izaten ziren.

651. Txerritokia eta ganadua Mari kalean (ZUM-057/006)

Mari kalean txerritokia zegoen eta baita ganadua ere. Eurak kalean jolasean eta txerria kalean solte ibiltzen zen.

652. Komunio txikia eta handia; dotrina euskaraz (ZUM-057/009)

Eskolan neskak eta mutilak banatuta ibiltzen ziren. Jaunartze txikian ere mutilak alde batetik eta neskak bestetik jartzen ziren, baina jaunartze handia denek batera egin zuten. Komunio txikia egun arrunta izaten zen, baina handirako zuriz janzten ziren. Eskolatik joaten ziren ilaran parrokiara dotrina ikastera. Euskaraz ikasten zuten dotrina apaizarekin. Eskolan mojekin ibili zen.

653. Mojetan ikasia; kanpotik etorritako internak (ZUM-057/010)

Mojekin ibili zen eskolan. Mojetan bazeuden internak ere, ordaintzen zutenak. Haiek goiko solairuan egoten ziren eta janzkeran ere bereizi egiten ziren. Izen handiko eskola zen eta kanpotik ere etortzen zen jendea.

654. Eskolara joan beharrean Getariara despeskara (ZUM-057/011)

Ikasteko gogorik ez zuten izaten eta 11 urterekin satora joaten ziren lanera, antxoei burua kentzera. Getariara ere joaten ziren despeskara. Osabak ibiltzen ziren motor txikiekin. Kalerik kale iragartzen zuten jendea behar zela despeskarako eta goizeko 4ak aldean kamioian etortzen zitzaizkien bila despeskara eramateko; bueltan oinez etortzen ziren arrosarioa errezatuz. Despeska nola egiten zuten.

655. Despeska nola egiten zuten; antxoaren kontserba (ZUM-057/012)

Bi osaba ibiltzen ziren arrantzan motor txikiekin. Familiakoengana joaten ziren despeskara, baina baita besteengana ere. Egunean ordaintzen zieten egindako lanarengatik. Lana erreza izaten zen, baina martxo inguruan hasten zen eta goizean hotz egiten zuen. Despeska nola egiten zuten; arrainak nola libratzen zituzten saretik. Arraina tinetan jartzen zuten gatzarekin. Handik atera eta burua kentzen zieten. Gero bere garaian "fileteak" egiten zituzten. Kontserba-lana asko etxean egiten zuten. Urte guztirako antxoa izaten zuten.

656. Atunaren kontserba (ZUM-057/013)

Atunaren kontserba-lanak egitera fabrikara joaten ziren. Atunaren kontserba nola egiten zen: dena garbitu ostean latetan sartzen zen.

657. Apaizari berorika (ZUM-057/019)

Abadeari berorika hitz egiten zioten eta haren ondotik pasatzean "Ave María purísima" esan behar izaten zuten. Apaizarekin gertatutako pasadizoa. Amari zuka egiten zion.

658. Herriko abesti batek bere amona izendatzen zuen (ZUM-057/021)

Herriko abesti batek bere amona izendatzen du esanez "la popular Silvestra…". Amonak ez zuen ulertzen esanahia eta abadeari joan zitzaion galdetzeraz. Abestiaren zatiak abesten ditu.

659. Euren familiaren eta beste batzuen izen edo gaitzizenak (ZUM-057/022)

Familiaren izena edo gaitzizena. Bere ama "María de los desamparados" izendatzen zuten, Alacant-eko Ama Birjina hala zelako. Jendeak "Maria Silvestra" deitzen zion, ama Silvestra zelako, baina ez zeukan izen hori. Aitaren aldetik "Porrajenekuak" ziren, San Telmo kalekoak. Beste familia batzuen izen edo gaitzizenak.

660. Marearekin ibiltzen zen errota (ZUM-057/023)

"Errotakoixkiña" izena nondik datorren. Berak errota zuen etxe txiki bat ezagutu zuen. Ardantzatik zetorren urarekin (marearen urarekin) ibiltzen zen errota. Honen inguruko kontuak. Azken Portukoak bizi omen ziren etxe horretan.

661. Escolástica egunkari saltzailea (ZUM-057/024)

"Maria errota" nori esaten zitzaion. Escolástica izeneko batek saltzen zituen egunkariak. Honen inguruko kontuak. Inguruetan ze familia gehiago bizi ziren.

662. Arrain-saltzaileak kalerik kale (ZUM-057/025)

Herriko arrain-saltzaileak izendatzen ditu. Arrain otarrakada buru gainean hartu eta kalean ibiltzen ziren diarka arraina saltzen. Bakoitzak bere ingurua izaten zuen arraina saltzeko. Bera amarekin ibiltzen zen Mari kalean. Bakoitzak bere arraina saltzen zuen. Arrain asko harrapatzen zenean Donostiara joaten ziren trenez Bretxara saltzera.

663. Txipiroia saltsan bakarrik jaten zen (ZUM-057/026)

Lehen txipiroia asko izaten zen. Beti saltsan prestatzen zen txipiroia jateko eta sobratutako saltsarekin amak arroza egiten zuen.

664. Plazan arraindunak eta baserritarren postu ugari (ZUM-057/027)

Herrian sereno bakarra zegoen: "Jangoiko txikixanekua". Kanean arraina bakarrik saltzen zen. Baserritarrek plazara etortzen ziren jeneroa saltzera. Azokan 4-5 postu egoten ziren arraindunenak eta baserritarren postu ugari. Gaur egun urrituta dago; nortzuk egoten diren.

665. Herriko albergak (ZUM-057/028)

Eurak "Beheko albergara" joaten ziren arropak garbitzera. Non zegoen azaltzen du. 11 aska zituen. Patxi barranderoak egunero pasatzen zituen askak erratz latzarekin. Marinelak ere Beheko albergara joaten ziren euren arropak garbitzera. Herriko beste alberga batzuk non zeuden. Albergako ura San Juan iturritik zetorren.

666. San Juan iturriko ura (ZUM-057/029)

Albergako ura San Juan iturritik omen zetorren. San Juan iturriko ura galdu egin zen gerora, baina oso ona zela esaten zuten. Ura ekartzeko ordaindu zutenei ez zieten urik kobratzen gerora. Euren etxera ere handik zegoen ura jarrita, baina beheko kaletik zetorren eta ez zitzaenez iristen, goitik jarri zuten gerora.

667. Gabon-eskeko ohiturak (ZUM-057/030)

Txiki-txikitatik izan du kanturako zaletasuna. Jaiotzarekin irteten ziren gabon bezperan kantari kalera. Goizean zakuarekin ibiltzen ziren etxerik etxe; "Niño Jesusen eskia" esaten zuten soilik, ez zuten kantatzen. Amabitxiek erroskillak ematen zizkieten euren besoetakoei oparizat.

668. Ama Maria Elorregi eta aita "Txaletekua" (ZUM-058/002)

Gurasoak zumaiaarak zituen. Ama ogia banatzen ibiltzen zen ahizparekin batera. Gizon batek "San Martin txikiaren alaba" dietu zion behin, baina normalean Maria Elorregi deitzen zioten. Aita "Txaletekoa" zen. Etxeak berak Talaimendi zeukan izena. Lantokian, Yeregirenean, Migel "tornerua" deitzen zioten denek.

669. Jaiotetxea eta umetako jolaslekuak (ZUM-058/003)

Bera Ardantza bideko etxe batean jaio zen. Bera txikia zela, gora joan ziren hotel Zumaia ingurura eta han jaio ziren ahizpa eta beste anai-arrebak, San Pedro kalean. Asko aldatzen zen etxetz orduan. Umetan zer ingurutan jolasten zuten. Umetako kontuak. San Juan iturri inguruan asko ibiltzen ziren.

670. Beheko albergara arropa garbitzera (ZUM-058/004)

Astelehen goizean beheko albergara joaten ziren arropak garbitzera. Arropaz betetako ontziak (zinkak) buru gainean eramaten zituzten. Nola garbitzen zituzten arropak. Arropa zuriari anila ematen zitzaion bukaeran, kolore ona izan zezan. Aurrekoek nola garbitzen zituzten arropak. Emakume batzuk ia egun osoa pasatzen zuten albergan, neskame gisa euren lana arropa garbitzea izaten zen eta. Lantegietako grasa zuten arropak zepilatu egin behar izaten ziren. Gero arraska garbitu ezean, hantxe geratzen zen zikina.

671. Marinelak albergara garbitzera (ZUM-058/005)

Laredo inguruko marinelak antxoatara etortzen ziren inguruetara. Emakumeek garbiketa amaitzen zutenean albergara joan eta bertan garbitzen ziren, bizarra kendu eta guzti. San Juan iturriko ura joaten zen albergara; iturria norberak zabaltzen zuen nahi adina izateko. Lau alberga zeuden.

672. Eskola; umetako lehenengo lanak (ZUM-058/006)

Txikia zela mojetan ibili zen eskolan, baina gerra hasi zenean Bilbora alde egin zuten. Gero Mari kalean ibili zen eskolan 14 urtera arte. 11 urte ingururekin Getariara joan zen pare bat aldiz antxoa-lanera, baina bestela 19 urterekin hasi zen lanean.

673. Mutikoen lana fabrian (ZUM-058/014)

Ortizenean mutikoak ere ibiltzen ziren lanean, batez ere gatza karriatzen, kajak egiten edo bestelako lanetan laguntzen.

674. Latak nolakoak izaten ziren (ZUM-058/015)

Latak lehenago nolakoak izaten ziren. Euren garaian latek bi palillo eta giltza bat izaten zuten. Azken urteetan makina bidez ixten zituzten latak.

675. "Ekitza": "salmuera" egiteko erabiltzen zen gatz lodia (ZUM-058/016)

"Salmuera" egiteko gatz lodi-lodia erabiltzen zuten, "ekitza" deitzen ziotena. Batzuetan Pasaiaetik ekartzen zuten eta beste batzuetan Getariara etortzen zen barkua eta handik ekartzen zuten.

676. "Sakatza": arrainaren lepoko hezurra (ZUM-058/017)

"Sakatza": arrainaren lepoko hezurra.

677. Umetako jolasak: sakaponetan, poto-potoka, erten-ertenka... (ZUM-058/018)

Umetako jolasak: sakaponetan, poto-potoka, sokasaltoan... Udazkenean "trenadios"-ka ("tres navíos") jolasten zuten. Erten-ertenka nola jolasten zuten. Mando-mandoka ere jolasten zuten. Mutilen jolasa omen zen, baina neskak ere ibiltzen ziren. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren jolasean normalean. "Trenadios"ka nola jolasten zuten (ezkutatu eta harrapatzera).

678. Udaberrian eta udazkenean komediantek herrira (ZUM-058/019)

Udazkenean eta udaberrian komediantek etortzen ziren. Amaiako plazan eta Beheko plazan egoten ziren. Antxoa diruaren bila etortzen omen ziren komediantek. Antxoen dirua diru freskoa zen eta sarritan ume-umetatik hasten ziren fabrikara lanera. Inspektorea etortzen zenean umeak etxera bidaltzen zituzten, ez zitzaiz ikusi. Komediantek zirkoaren antzeko funtzioak egiten zituzten. Etxeko aulkiak hartuta joaten ziren komediantek ikustera. Amaia hotela.

679. Udan erromerietara eta neguan plazara (ZUM-058/020)

San Telmoak eta San Pedroak nola ospatzen ziren. Inguruko erromerietara ere joaten ziren udan: San Prudentziora, Ibañetara, Oikiara. Negu partean jai arratsaldeetan seieta zina joan eta handik irtendakoan azken hiru piezak dantza egitera joaten ziren plazara. Udaran bandak Beheko plazan jotzen zuen eta neguan Goiko plazan. Garai batean Elgoibartik "jazzbana" etortzen zen. Zenbat pieza jotzen zituzten. Bandaren tarteetan txistulariek ere jotzen zuten. Nortzuk ziren txistulariak. Orkestak kobratu egiten zuen dantzaldia.

680. Maitena eta Amaia zineak (ZUM-058/021)

Bi zine zeuden Zumaian: Maitena eta Amaia. Zineko pelikulen iragarkiak non jartzen zituzten. Jaiero joaten ziren zinera. Behin, arrain asko sartu zela eta, arratsaldean lanera joateko eskatu zieten. Zinera joateko korrika pasa omen ziren kalean. Horren inguruko pasadizoa. Zinea ostegunetan, larunbatetan eta igandetan egoten zen. Zer ordutan egoten ziren pelikulak. Inguru guztietatik etortzen zen jendea eta ilara egoten zen sartzeko. Nolako zen Amaia zinea. Garai batean, haserrea izan zuten udalarekin eta sarrerak merkatu zituzten: pezeta batean jarri zuten sarrera.

681. Amaia zinea gerra ondoren hasi zen pelikula botatzen (ZUM-058/022)

Maitena zinea betidanik ezagutu du. Amaia zinea, berriz, hoteleko antzokia zen. Gerra garaian, ospitalea egon omen zen bertan. Gerora, Kosme alkatea egin zen jabe, eta gerra ondorenean hasi omen ziren pelikula botatzen bertan.

682. Pelikula italiarrak ikusten zituzten; aktoreen izenak (ZUM-058/023)

Pelikula onak etortzen ziren Zumaiara. Beraiei pelikula italiarrak gustatzen zitzaizkien. Lehengo pelikulen inguruko kontuak. Aktore asko ezagutu zituzten orduan. Aktoreen izenak idatzi bezala ahoskatzen zituzten. Zineko mutilak pelikularen tarteetan futbola nola zihoan iragartzen zuen eta aktoreen izenak esaten zituen. Orduko pelikula.

683. "Maulixotara" haitzetara (ZUM-058/024)

Hondartzan Itzurunen eta Algorrin ibiltzen ziren. Haitzetara asko joaten ziren "maulixotara" (itsas karakola) edo baita egunpasa bazkaria hartuta ere. Lexikoa. Lurreko karakolari "marrakeliñoa" deitzen zioten. Beraiek "hondarra" esan izan dute beti eta baita "ooldixa" ere, gaur egun umeei "alga" esaten duten arren. "Maulixotara" nora joaten ziren. Olagarrik ez zuten harrapatzen kasualitatez ez bazen.

684. Maristen eskolatik fraide mertzedarioetara (ZUM-061/003)

4 urterekin Zumaiako San Pedro eskolara joan zen ikastera Maristetara. Gerra garaian euskara debekatua egon zen eta dena gaztelaniaz ikasten zuten maristak bidali zituzten arte. Maristen ondoren irakasle mutrikuar batek eskola partikularrak eman ohi zituen eta geroago fraide mertzedarioak etorri ziren.

685. Eskola ematearen truke baserriko jakiak maristei (ZUM-061/005)

Mutrikuko maisuek eskola pribatua zuten. Maristek ez zuten dirurik irabazten eta eskolaren truke jatekoa eskatzen zieten ikasle baserritarrei. Mutrikuko irakasleekin erdaraz ikasten zuten. Neskek eta mutilek eskola ezberdinetan ikasten zuten.

686. Etxe inguruan erribera ugari (ZUM-061/008)

Eskola amaitu ostean etxera, baserrira bueltatu zen. Kale-baserria zen eurena eta etxe inguruan erriberak zeuden. 47-48 urtean 3.000 tomate inguru landatzen zituzten. Amonarekin Azpeitira joaten zen astoa hartuta etxeko jakiak saltzera.

687. Tren geltokia etxe ondoan (ZUM-061/009)

Etxe ondoan umetatik ezagutu du tren geltokia. Urolako merkantzia guztia handik pasatzen zen. Joxe Marik geltokiko nagusi eta langileak ondo ezagutzen zituen. Merkantzia eta jendea eramaten zuten trenak izaten ziren. Bi geltoki zeuden: Vascongada eta Urolakoa.

688. Ikatza eta lingotea iristen zen geltokira (ZUM-061/011)

Geltokira iristen zen merkantzia biltegietan hustutzen zen. Ikatza hustutzen zen gehienbat, eta baita lingotea ere. Bere aitona ikatz garraioan ibiltzen zen gurdi bolantearekin. Herriko beste "karretero" batzuk ere aipatzen ditu. Itsasontzietan iristen zen merkantzia eta gero kanpora banatzen zen, Zumarraga aldera, esaterako.

689. 21 urterekin Ortiz lantegira lanera (ZUM-061/013)

Ortiz kontserba lantegian hasi zen lehendabizikoz etxetik kanpora lanean, 21 urte ingururekin. Osaba bat zuen bertan lanean eta uda baterako lana eskaini zion. Orduko 10 pezeta irabazten zituen. Gero beste lantegi batean hasi zen. Atuna galdaretan egosten zuen.

690. Antxoa eta atuna Getaria eta Ondarroatik (ZUM-061/015)

Antxoa Getariatik eta Ondarroatik sartzen zen fabrikara. Sasoi batean, antxoa eta atun ugari izaten zen. Lantegian, 6.000 pezeta lapurtu zituzten, eta bera hartu zuten lapurtzat. Orduan bizitakoen inguruko azalpenak.

691. Errotara bidean, Guardia Zibilak atxilotu (ZUM-061/016)

Gerraostean, gauez errotara astoa hartuta zihoala, guardia zibilek harrapatu eta kuartelera eraman zutenekoa kontatzen du.

692. Anaiarekin garraio lanetan (ZUM-061/018)

Anaia eta biak kamioiarekin "Transportes Pesa"-n hasi ziren lanean eta 20 urtez ibili zen bertan. Denetik eramaten zuten, masila eta kafea, esaterako. Eskuz egiten zuten kamioiko jeneroaren hustuketa. Irunen, Donostian eta Bilbon ibiltzen ziren.

693. Zumaiaiko industria nagusiak (ZUM-061/021)

Zumaiaiko industria nagusia mekanika zen; Yeregi lantegia aipatzen du. Egurrezko itsasontziak egiten ziren lantegi ugari zegoen Zumaian; Balentziaga aipatzen du. Haritza eta eukalipto erabiltzen ziren itsasontziak egiteko.

694. Porturako sarrera arriskutsua (ZUM-061/022)

Moilan emakumeek despeskan (antxoei burua saretik libratzen) lan egiten zuten. Txalupa txikietako jende asko hiltzen zen sarrera txarra zegoelako Zumaian. Pasadizo bat kontatzen du.

695. Despeska nola egiten zuten emakumeek (ZUM-061/023)

Despeska zer izaten zen azaltzen du. Joxe Mari umetan hura ikustera joaten zen. Emakumeak sareak josten aritzen ziren moilan. Atuna, antxoa eta berdela ziren arrantza nagusia.

696. Antxoak sororako ongarri (ZUM-061/025)

Arrain gehiegi harrapatzen zen eta Getarian harrapatzen zen antxoa sororako erabiltzen zen, ongarri gisa. Antxoa kontserba latetan eta arrain gazitua barriketan saltzen ziren.

697. Soldadutzara Ferrolera (ZUM-061/028)

Soldadutzara Ferrolera joan zen eta handik itsasontzira pasa zuten. "Triton" gerrako minadore itsasontzian ibili zen eta itsasontziko mantenimendua eta guardia egitea zen bere eginkizuna, besteak beste. 1950ean Bilboko Arenalean atera zen desfile batean.

698. Donostiako kuarteleko pasadizoak (ZUM-061/029)

Donostiako kuartelean soldadutzan zegoela, komandanteari baratzeko lanak egiten zizkion Mirakruz gainean. Etxekoandreak prestatzen zion jana. Etxera marinel jantziarekin bueltatuz gero, hiru txakur haundi ematen zizkioten. Pasadizo bat kontatzen du. Soldadutza Zumaian amaitu zuen errekadista lanak eginez.

699. Zumaiko lubaki eta uholdeak (ZUM-061/030)

Soldadutza bukatu zuen egunean, lurrei eusteko zegoen horma bota zuen itsasoak, orain Airadurex lantegia dagoen inguruan; eta, hurrengo egunean, hura konpontzeari ekin behar izan zioten. Baserritarrek konpondu behar izan zituzten kalteak. Herriak merienda ematen zien, baina ez zuten dirurik kobratzen. Bedua inguruan "hidraulika" fabrika zegoen. Inguru haiek behin baino gehiago hartu zituen urak.

700. Kofradia marinelen bilgune (ZUM-061/032)

Zumaian marinel asko zen garai batean, baina atzeraka joan da kontua, baserri munduaren antzera.

701. Zumaian jaioa 1958an (ZUM-063/001)

1958an jaio zen Zumaian. Etxean jaio zen, ospitalera joateko astirik gabe, Felisa emaginarekin. Gurasoak ere zumaiairak zituen.

702. Frankismo garaian euskara debekatua (ZUM-063/003)

Franco-ren garaia ezagutu zuen eta eskolan ez zuten euskaraz egiterik izaten. Fraide merzedarioekin ikasi zuen . Kaleko harreman ugari erdaraz egiten zituzten ohitura zela eta.

703. Euskaraz dotrinan bakarrik (ZUM-063/004)

Aurreko generazioetakoei eraztuna jartzen zieten euskaraz hitz eginez gero eta zigorra izaten zuten . Dotrinara joandakoan bakarrik egiten zuten euskaraz, nahiz eta hura ere erdaraz ematen zuten.

704. Zarauzko Antonianoetara ikastera (ZUM-063/005)

Zarauzko Antonianoetara ikastera joan zenean, erdaraz ikasi arren, maisu gehienak euskaldunak ziren eta giro hobea izaten zuten. Karrera amaitu arte ibili zen Antonianoetan.

705. Aita Iturriarekin frantzesak ikasten (ZUM-063/006)

Zumaiatik Zarautzera joan zeneko eskolako aldaketak aipatzen ditu. Giza-soina izeneko liburutik ikasten zuten Aita Iturriarekin. Frantzesak ere ikasten zuten.

706. Autobusean Zarauzko Antonianoetara (ZUM-063/007)

Zarauzko Antonianoetara eskolak berak jarritako autobusean joaten zen. Bi autobus izaten ziren; nolakoak ziren deskribatzen du.

707. Eskolako santuen jaiak (ZUM-063/008)

Merzedarioetan eta Antonianoetan bertako santuen jaiak ospatzen zituzten. Hauen inguruko kontuak. Ereserkia abesten du.

708. Umetako jolasak (ZUM-063/009)

Umetako jolasak izendatzen ditu: "kukuzka" eta "mando-mandozka", esaterako. Goiko plazan aritzen ziren futbolean. Urteko sasoi bakoitzean jostailu bat erabiltzeko joera izaten zen.

709. Merzedarioetan ibili zeneko kontuak (ZUM-063/010)

Hondartzara joaten ziren futbolean jokatzera. Merzedarioetan liburu batetik ikasten zituzten ikasgai guztiak. Larunbatetan astean ikasitako ikasgaien errepasoa egin eta ondoren arrosarioa errezatzera kapilara joaten ziren. Ekaina amaitzean Donostiara joaten ziren bi egunetan azterketak egitera kurtsoa gainditzeko.

710. 1966an "Muebles el Modelo"-n lanean (ZUM-063/012)

Eskola amaitu ondoren krisi handia izan zen eta geroago (1966an) hasi zen Guillermo lanean, "Muebles el Modelo"-n, Oikian. Kontabilitatea eramaten zuen berak. Espainia osorako altzariak egiten zituzten lantegi horretan.

711. Altzariak egiteko urratsak (ZUM-063/013)

Altzariak egiteko taula aglomeratua erabiltzen zuten, egurra ez zuten txapeatzen, masa berezi batekin lantzen zuten.

712. 1982ko krisiak lantegia itxiarazi (ZUM-063/014)

Goiz eta arratsalde lan egiten zuen, eta bazkaltzera etxera joaten zen. Lantegira autobusez joaten zen. Soldata handia izaten zuten eta beste lantegietako jendea ere bertara joaten zen lanera. 1982an, krisiaren ondorioz, lantegia itxi egin zen eta jende ugari geratu zen kalean.

713. Zumaiako lantegiak (ZUM-063/015)

Zumaiako industria nagusia aipatzen du: El Modelo, Carmelo Unanue, Xey, Airadurex, etab. Airadurex lantegiak karabinak egiten zituela azaltzen du.

714. Zumaiako itsasontziak (ZUM-063/016)

Itsasoko motorrak egiten zituzten lantegi ugari zeuden Zumaian. Zumaian asko ziren arrantzatik bizi zirenak. Itsasontzi ezberdinak izendatzen ditu. Arrantza handiena antxoa eta atuna izaten zen.

715. Moila ingurua (ZUM-063/017)

Moilan sareak jasotzera joaten zen gizon bat izendatzen du. Gillermo umea zela, arranplan arraina nola husten zen ikusten egoten zen.

716. Arrantzarako tresnak (ZUM-063/019)

Gaztetan errioan eta arroketako arrantzan ibiltzen zen. Arrantzarako erabiltzen zituen tresna ezberdinak izendatzen ditu. Arrantza txapelketa baten inguruko kontuak.

717. Plazako salmenta: arrain-saltzaileak eta baserriko gaiak (ZUM-063/021)

Gillermoren ama arraina saltzen aritzen zen; beste zenbait arrain-saltzaile ere aipatzen ditu. Plaza aurrean taula bat jarri eta han saltzen zituzten arrainak. Baserrietatik astoa hartuta joaten ziren baserritarrak baserriko gaiak saltzera; Oikia, Arrua eta inguruetatik etortzen ziren baserritarrak.

718. Zumaiaiko erriberak eta gari-sailak (ZUM-063/023)

Zumaiatik Elorriaga auzoraino gari-sailak zeuden; baserritarrek labore asko egiten zuten. Zumaian erribera sailak zeuden, mojenak zirenak. Erriberetan aritzen ziren izkiratan. Udan atuna eta beste zenbait arrain ongarri modura erabiltzen ziren soroetan eta erriberetan usain txarra egoten zen.

719. Zumaiaiko San Jose kalean jaioa (ZUM-065/001)

Zumaiaiko San Jose kalean jaio zen. Aita zumaiarra eta ama Zarauzkoa zituen. Eskolara Maristetara joan zen. Irakasle kanpotarrak zituen. Maristetatik Arrangoletako eskolara pasa zen.

720. Eskolan heziketa gogorra (ZUM-065/003)

Euskaraz ikasten zuten. Heziketa gogorra izan zuen. Eskolan zigortu zuten batekoa aipatzen du.

721. 13 urterekin Otto Holke lantegian peoi (ZUM-065/007)

13 urterekin eskola utzi eta lanean hasi zen Zumaiaiko Otto Holke lantegian. Gerrako armamentua egiten zuten bertan, eta Faustino peoi lanetan aritzen zen. Nagusien aipamena egiten du. Goiz eta arratsalde lan egiten zuen.

722. Yeregi lantegian lanean (ZUM-065/008)

Oto Holke lantegitik Yeregi lantegira joan zen. Bertan zepilu limadoran, madrinadoran... lan egin zuen. Zortzi orduan bi erreal irabazten zituen.

723. Lantegiko pasadizoak (ZUM-065/010)

Lantegian zebiltzala egiten zituzten bihurrikeriak aipatzen ditu.

724. Gerra garaiko gosetea (ZUM-065/014)

12 urte zituen gerra hasi zenean, eta gose handia pasa zuten. Itsasontzietatik bakailaoa deskargatzen zuten eta etxerako hartzen zituzten. Anekdotak bat kontatzen du. Tropak sartu zirenekoa.

725. "Gorri" eta nazionalisten ingurukoak (ZUM-065/016)

Gerra garaiko kontuak; "gorriak" etxera sartu eta behia kendu zietenekoa. "Gorri" eta nazionalisten kontuak. Gerra garaiko materiala eta kanoiak eramateko, astoen laguntza izan zuten. Etxeko astoaren aipamena.

726. Errazionamenduko jakiak (ZUM-065/017)

Ez zuten goserik pasa etxean. Errazionamenduan ogia, boniattoa, etab. izaten ziren.

727. Boniattoa patataren ordezt (ZUM-065/019)

Boniattoa ezagutu zuteneko anekdota kontatzen du. Olloa, ogia etab. izaten ziren errazionamenduan eta kartila bat izaten zuten .

728. Falangistak artoa errekiatzera (ZUM-065/020)

Etxean esne-behiak izaten zituzten. Artoa egiten zuten, zuritu eta ganbarara eramaten zuten lehertzera. Gero, zakuetan sartu eta ezkutatu egiten zituzten, falangistek eraman ez zituzten errekiatzera etorritakoan.

729. Argia eta ura betidanik etxean (ZUM-065/022)

Argia eta ura beti ezagutu izan ditu etxean. Argazki batean adierazten du argia etxera nondik pasatzen zuten.

730. Maristetako eskola ordaindua (ZUM-065/024)

Maristetan eskola ordaindu behar izaten zen; Arrangoletan, aldiz, ez.

731. Odolkiak saltzera Arroara (ZUM-065/025)

Etxepean harategia zuten eta txerria hiltzean odolki eta txorizoak Arroara eramaten zituzten saltzera otarretan astoan hartuta. Azoka Goiko plazan egiten zen eta bertako saltzaileak inguruko herrietakoak izaten ziren.

732. Zumaiko udatiarrak (ZUM-065/026)

Zumaia urdan jende ugari hurbiltzen zen. Hotel bat izandaten du: Amaia. Zestoan zeuden bainuetxeek jende ugari gerturaten zuten Zumaia.

733. Zumaiko tren geltokiak (ZUM-065/028)

Zumaian tren-zubia erori eta jende ugari ito zen. Bi tren geltoki zeuden: Urola eta Vascongada. Barkuak bagoietara hustu eta Zumarragara eramaten zuten burnia eta beste hainbat material. Ikatz ugari hustutzen zen. Nola egiten zen azaltzen du.

734. Gauez lingotea hustutzen (ZUM-065/029)

Lantegitik irten eta jende ugari aritzen zen gauez lingotea eta beste gai batzuk hustutzen itsasontzietatik. Orduko txalupa eta itsasontziak zenbatzen ditu.

735. Getarian lanean antxoei burua kentzen (ZUM-065/031)

Antxoa arrantza izaten zen Zumaian nagusiki. Faustino Getarian aritzen zen antxoei burua kentzen Orlando lantegian. Orduko txanpon-diruak nolakoak izaten ziren azaltzen du.

736. Antxoa gordinik probatu zuenekoa (ZUM-065/033)

Lantegian burua kentzen zien antxoei eta ondoren latetan sartzen zen saltzeko. Antxoa gordinik lehenengo aldiz jan zuenekoa aipatzen du.

737. Arrantza motak eta tresnak (ZUM-065/034)

Faustino Itsaspen ibiltzen zen olagarrotan eta beste zenbait toki eta arrantza mota ere aipatzen ditu. Arrantzarako tresna ezberdinak, "arrankazia", etab. Gaueko arrantzan kandilaren argitan aritzen ziren.

738. Sare motak (ZUM-065/036)

Arrantzarako sare mota ezberdinak izendatzen ditu eta bakoitzaren azalpena ematen du.

739. Emakumeak sareak josten (ZUM-065/037)

Arrantzarako sare batzuen aipamena. Emakumeak sareak josten eta gizonak itsasoan aritzen ziren.

740. Getariako arrain-saltzaileak Zumaian (ZUM-065/039)

Getariako arrain-saltzaileak ibili ohi ziren Zumaiko kalean arraina saltzen. Buru gainean bigungarri baten gainean otarrak jarrita joaten ziren.

741. Otorduetako jakiak (ZUM-065/040)

Eguneroko otorduetan babak eta olagarroa patatekin jateko ohitura zuten.

742. Arrantzako anekdota (ZUM-065/042)

Anaiarekin gertatutako arrantzako anekdota bat kontatzen du.

743. "Gomex" arraina (ZUM-065/044)

"Gomex" arrain ugari harrapatzen zuten eta askotan botatzen zuten ukuiluko simaur pilara soberan zutelako.

744. Eskolan Merzedarioetan Zumaian eta Antonianoetan Zarautzen (ZUM-067/002)

Eskolan merzedarioetan ibili zen fraideekin; kanpotarrak ziren. Merzedarioetatik Zarauzko Antonianoetara joan zen. Zumaian dena erdaraz ikasten zuen eta Zarautzen, aldiz, euskaraz. Euskara bultzatzen zuen fraide baten aipamena egiten du.

745. Margotzeko zaletasuna (ZUM-067/003)

Matematika, geometria eta beste zenbait ikasgai ematen zituzten. Xabierrek margotzen ikastea nahi zue arren lan mundurako prestatu zen.

746. Futbola eta pilota (ZUM-067/004)

Bi jolas nagusi izaten zituzten: futbola eta pilota. Igande goizean meza entzun ondoren frontoira joaten ziren pilotan egitera.

747. Beal lantegian lanean (ZUM-067/006)

Eskola amaitu zuenean Beal lantegian hasi zen lanean. Motor dieselak egiten ziren bertan eta Xabier mekaniko lanetan aritu zen. Iluntzetan eskola

profesionalera joaten zen, "maestria" ikastera. 19 urterekin soldadutzara joan zen.

748. Itsasontzien motorrak (ZUM-067/007)

Beal lantegian motor dieselak egiten zituzten itsasontzientzat. Motorrak nolakoak ziren azaltzen du.

749. 19 urterekin soldadutzara Ferrolera (ZUM-067/008)

19 urterekin Ferrolera joan zen soldadutzara eta mekaniko lana suertatu zitzaion. 3 hilabete kuartelean egin ondoren gerrako itsasontzi batera bidali zuten eta bertan errekadista lanetan hasi zen, leku aldaketa eskatu eta Bilbora joan zen arte. Ama alarguna izateak soldadutzara joan gabe geratzeko aukera ematen zuen arren, Xabierri ez zitzaion aukera hori suertatu.

750. Bilboko marinako komandandantzian (ZUM-067/009)

Soldadutzatik Bilboko marinako komandantzia militarra joan zenean Ejea deituriko komandante bat izan zuen eta harekin gertatuak azaltzen ditu. Soldadutzan zeuden lagunek alde zaharrera jaitsi eta kantuan egiteko ohitura zuten. Hilean 15 pezeta irabazten zituen eta "torpedista distinguido"-aren galoia eramaten zuen soinean. Ostiraletik astelehenera bueltatzen zen etxera.

751. Ama neskame eta bera osaba-izeben etxean bizitzen (ZUM-067/010)

Ama mediku bilbotar baten etxean neskame aritu zen lanean Zumaian, Askuntzenen. Xabier eta anaia osaba-izebekin geratu ziren lehengusu batekin batera.

752. Soldadutzako itsasontziko bizitza (ZUM-067/011)

Soldadutzan ez zuten goserik pasa. Ferrolen ibili zenean, itsasontzian egiten zuen bizimodua, kalera ateratzen baziren ere. Itsasontzia deskribatzen du, eta bertan gertatutako anekdota bat kontatzen du. Itsasoko maniobrak egin eta torpedoak botatzen zituzten. Torpedoen inguruko kontuak. Itsasontzian erabiltzen zuten arropa.

753. Bilboko alde zaharrean kantuan; "Boga-boga" (ZUM-067/012)

Bilboko alde zaharrean abesten zituzten kantuen inguruko aipamena. "Boga-boga" abestia abesten du.

754. Alemaniako lantegi batera lanera (ZUM-067/014)

Soldadutzatik bueltatu eta Bealen jarraitu zuen lanean. 28 urte egin zituenean, Alemanian bizi zuen anaiarengana joan zen eta berarekin hasi zen lanean. Dormunt-en lan egiten zuen, zubiak egiten zituzten lantegi batean. Alemaniako kontuak kontatzen ditu.

755. Alemanez ikasi eta lana egin (ZUM-067/015)

Anaia bere kabuz joan zen Alemaniara, aurrez bazekien alemanez hitz egiten. Xabierrek, aldiz, lana eta alemaneko eskolak tartekatuz ikasi zuen; gaez joaten zen eskolara eta urte eta erdiz ibili zen hango eskolan.

756. Alemaniako etxeko giroa (ZUM-067/016)

Hango laneko lagun batekin gaizki konpondu zelako nagusiak makina batean, tornuan, jarri zuen bera bakarrik. Alemaniara lanera joaten ziren erbesteko lagunak lotarako tokia izaten zuten eta Xabier ere han egon zen. Etxe hartan izan zituen lagunak aipamena egiten du.

757. Euskaldunek erraz ikasten zuten Alemaniera (ZUM-067/020)

Euskaldunek errazago ikasten zuten alemanieraz andaluziarrek baino, esaterako. Anaia etorkinen interprete lanetan aritu zen. Baita irratiko esatari ere.

758. Alemaniatik bueltan Mendaron lanean (ZUM-067/022)

Irabazitako dirua baino aberastasun handiagoa izan zen Xabierrentzat hango kultura. Handik bueltatu zenean lagun batek Mendaroko tornu lantegi batean lana aurkitu zion eta han aritu zen lanean enkargatu moduan 10 urtez.

759. Hondartzan futbolean (ZUM-067/024)

Gaztetan esku-pilotan eta futbolean ibili zen. Lehenengo baloia eskuratu zueneko kontatzen du eta orduko baloiak nolakoak izaten ziren azaltzen du. Hondartzan aritzen ziren futbolean. Lehenengo futbol taldea "Txibiribi" izan zuen.

760. Zumaia eta inguruko pilotariak (ZUM-067/026)

Zumaia eta inguruko pilotari ezagunak izendatzen ditu, Etxabetarrak eta Txikito Iraeta, esaterako. 50 urtez ibili zen Zarauzko futbol taldean, jarraian izan ez arren. Zumaiko futbol taldeko zuzendaritzan ere egon zen 7 urtez Joxe Antonio Alberdirekin batera.

761. Zumaiko arraun taldea (ZUM-067/028)

Zumaiko arraun taldearen aipamena egiten du. Entrenatzaile oriotarrak izan ziren; izendatu egiten ditu.

762. Antzerkia eta zinea (ZUM-067/029)

Umea zela antzerkiak egiten ziren batzokian; batzuk aipatzen ditu. Bi zinema zeuden Zumaian: Maitena eta Amaia. Udan turista ugari ibiltzen zen. Orduko hotelak izendatzen ditu.

763. Zumaiko industria nagusia (ZUM-067/030)

Zumaiko industria nagusia zein zen azaltzen du eta lantegi ezberdinen aipamena egiten du: Karmelo Unanue, Beal, etab.

764. Zumaiko itsasontziak (ZUM-067/032)

Orduko itsasontziak izendatzen ditu, "Glorioso San Telmo", esaterako. Zumaiko astilleroak.

765. Eskolan, Zumaiako mojetan ibili zen (ZUM-069/002)

Eskolara Zumaiako mojetara joan zen, maistra Gernika eta bermeotarrak izan zituen. Uniformea jantzita joaten ziren eskolara eta medaila edo gurutzeren bat eramaten zuten. Matematikako lau arauak eta historia ikasten zituzten, besteak beste.

766. Egunero erreztatu behar izaten zuen eskolan (ZUM-069/003)

Ordutik ordura erreztatu behar izaten zuten, eskolan bertan kapila bat zuten. Garizuman ospakizun bereziak izaten ziren eta kantu eta errezo ugari egin behar izaten zuten.

767. Mojekin laborea lantzen (ZUM-069/004)

Arratsaldeetan laborea egiten zuten eskolan bertan.

768. 12 urterekin, gerra hasi eta Bilbora (ZUM-069/005)

12 urterekin, gerra hasi zen eta eskola utzi eta Bilbora joan behar izan zuten. Herritik bidali zituzten, eta lagun batzuen etxean egon ziren. Tropak sartu zirenekoa eta aita preso hartu zutenekoa azaltzen ditu.

769. Gerra garaian, gose handia (ZUM-069/007)

Gerraostean, gosea pasa zuten; errazionamendua zegoen orduan. Otorduetako jakiak zein izaten ziren azaltzen du; ez zuten afaltzen.

770. 14 urterekin Zumaiako arrain lantegira lanera (ZUM-069/008)

Bilbotik Zumaiara bueltatu eta 14 urterekin Zumaiako arrain lantegi batean hasi zen lanean. Antxoei burua kentzen zien eta kontserbatan jartzen zituzten. Lantegian denak emakumeak ziren. Italiara saltzen zuten asko, nagusiak frantziarrak ziren.

771. Aita arrantzalea zuen (ZUM-069/009)

Aitak txalupa bat zuen eta antxoatan eta txibietan ibiltzen zen. Zumaiako Glorioso San Telmo itsasontzia izendatzen du. Aita ume zirela gehienean etxetik kanpo ibiltzen zen arrantzan.

772. Arrantza sareak (ZUM-069/011)

Arrantzako sare mota ezberdinak aipatzen ditu. Eginda erosten zituzten eta puskatzen zirenean konponketan aritzen ziren. Kaleko arrain saltzaileak izaten ziren, Getariatik antxoa saltzera joaten ziren emakumeak Zumaiara.

773. Otorduetako jakiak (ZUM-069/012)

Eguneroko otorduetan baba jaten zuten gehienetan eta paneka arraina jaten zuten.

774. Ahizpak josten erakutsi eta jostundegi batean josten (ZUM-069/014)

18 urtera arte aritu zen kontserba lantegian lanean eta gero josten hasi zen jostundegi batean. Ahizpak erakutsi zion josten. Garai hartan emakumeek ez zuten galtzarik janzen, bekatu zen.

775. Mariatarren kongregazioan (ZUM-069/015)

Klara Mariatarren kongregazioan egon zen eta zertan zetzan azaltzen du. Zinta urdin batetik zintzilik kontzesioko Ama Birjinaren medaila bat eramaten zuten.

776. Lotuan dantzatzea bekatu (ZUM-069/016)

Igandero musika egoten zen Goiko plazan eta udan behekoan. Zumaiako lagun taldea zuen. Lotuan dantzatzea bekatu zen eta eginez gero kongregaziotik botatzen zituzten.

777. Umetako jolasak (ZUM-069/017)

Sokasaltoan, kukuka... jolasten zuten. "Anderea" deitzen zioten kartoizko panpinak izaten zituzten.

778. Traje batek mila pezeta inguru balio zezakeen (ZUM-069/018)

Josten aritzen zen garaian traje batek mila pezeta inguru balio zuen eta oihal oso onak izaten zituzten.

779. Arropak garbitzera labaderora (ZUM-069/019)

Argia eta ura beti izan zituzten etxean. Etxean arraska txikia zuten eta labaderora joaten ziren arropa garbitzera. Labaderoa nun zegoen azaltzen du. Balde handietan eramaten zituzten arropak. Gerra garaian xaboi txarra izaten zen.

780. Lehenengo irratia etxean (ZUM-069/021)

Lehenengo irratia etxean ezagutu zuenekoa. Albisteak eta musika entzuten zituzten gehienbat eta dena erdaraz.

781. "Hika" eta "berorri" (ZUM-069/022)

Anai-arreben artean eta gurasoek haurrei hika hitz egiten zieten. Mediku eta apaizei berorika egiten zieten. Gaurko Zumaiako euskararen aipamena.

782. Zumaiako denda eta tabernak (ZUM-069/024)

Zumaian denda ugari zegoen, mertzeria eta janari dendak gehienak. Emakumeen orrazkeraren ingurukoak. Emakumeak ez ziren tabernara sartzen, ez zuten ohiturarik. Kanturako joera handia zegoen kalean eta tabernetan.

783. Ezkontzak (ZUM-069/026)

55ean ezkondu zen Zumaiako gizonarekin. Orduko ezkontzak nolakoak izaten ziren azaltzen du, emakumeak beltzez janzten ziren.

784. Lutoak eta jauna hartzeko baraua (ZUM-069/027)

Guraso edo senidea bazen hiltzen zena bi urtez lutoa eraman behar izaten zuten beltzez jantzita eta denbora pasa ahala aldatzen joaten zen, traje gris edo txuri-beltzera. Igandero joaten ziren mezara bederatziatarako. Jauna hartu behar bazen baraurik joan behar izaten zen.

785. Zumaian erribera ugari zeuden (ZUM-069/032)

Garai bateko Zumaia deskribatzen du, Erribera asko zeuden eta antxoia soberan bazegoen, sorora bota ohi zituzten ongarri gisa.

786. 'Canarias' ontziarekin topo egin zutenekoa (ZUM-071/005)

Martxoaren 4an, Galdames Baionatik irten zen. Bat-batean, Canarias gerrako itsasontzia jarri zitzaien parean. Beste itsasontzi aleman bat zuen atzean, armaz kargatuta, Pasaian utzi eta Bilbon ofentsiba emateko. Baina Bilbao Bou ontziko komandanteak Bermeora eramatea lortu zuen. Beraiek Bilbora joan ziren.

787. Zer itsasontzitan ibili zen lanean (ZUM-071/006)

Bera Gipuzkoa Bouen zebilen lanean Canarias ontziak eraso egin zienean. Anaiaren itsasontzira ez zuen joan nahi izan, hiltzekotan, ez denak batera hiltzeko. Gipuzkoako sei lagun hil zizkioten gudan. Gerora, "Destructor Zizkarren" ibili zen, eta hura hondoratu zutenean, Bartzelonara joan, eta aske utzi zuten.

788. 'Canarias' ontziak eraso egin zien momentua (ZUM-071/007)

Canarias ontzia tiroka hasi zenean, momentu txarra izan zen. Erasoak nola izan ziren azaltzen du, eta zer lagun hil ziren kontatzen du. Nabarra itsasontzia ez zuen ikusi inguruan zegoenik. Salbatu zirela ikusi zutenean, Bilbora joan ziren.

789. "Gipuzkoa" salbatu eta "Nabarra" hondoratu zenekoa (ZUM-071/009)

"Galdames" ez zuen ikusi gudan. Arratsaldean izan zen guda. "Nabarran" hondora bota zutenean, 20 salbatu ziren.

790. Nola hondoratu zuten "Balears" (ZUM-071/011)

"Nabarra" hondoratu eta handik urtebete juxtura, "Balears" hondoratu zuten Mediterraneoan, bera "Liberta" itsasontzian lanean zebilela. "Balearsen" zebilen marinel bat oraindik bizi da Zumaian. Erramunek mendeku moduan hartu zuen hondoratze hura.

791. Gudako istorioak gutxi kontatutakoa (ZUM-071/012)

Gudako istorioak ez ditu askotan kontatu. Gudan salbatu ziren marinelak hiltzen joan dira. "Nabarratik" bizirik dagoen bakarra bera da. "Balears" hondoratu zutenean, "Nabarrakoak" fusilatu nahi arren, libre utzi zituzten.

792. Gerra itsasoan mendian baino nahiago (ZUM-071/013)

Gerra balitz, berriro itsasora joango litzateke mendira baino lehenago. Gogorra izan arren, denak doaz hondora, denak dira berdinak.

793. Erakusketak jendearengan izan dezakeen eragina (ZUM-071/014)

Erakusketak zertarako balio duen hitz egiten dute. Gazteek ez dute sinesten gerra eta gosea egon zenik. Baina gaurko gazteek prestakuntza hobea dute.

794. Gerra nola gogoratzen den (ZUM-071/015)

Heroitzat hartzen du bere burua, hala esaten baitio jendeak. Pozik dago guda harekin. Ez dio inori gorrotorik, denei barkatu die. Gutxi hitz egin da gerraz, beti tapatu egin izan da, eta gezur asko esan dira gertatutakoari buruz. Inguruko jendeak ez du sinetsi izan "Balears" beraiek hondoratu zutenik. Ez du sentitzen gerra galdu zuenik, baina behintzat pozik dago bizirik dagoelako.

795. Irratia eta lora etxean (ZUM-095/002)

Harategi kalean jaio zen, "Bixineko" etxean. Etxe handia zen. Hiru osaba bizi ziren eurekin. Irratia zuten etxean. Zazpi aldiz etorri zitzaizkien etxea miaztera eta ganbaran edukitzen zuten irratia, zulo batean. "Radio Pirenaica" entzuten zuten. Loro bat ere bazuten eta jendearen arreta bereganatzen zuten.

796. Amonarekin zaldi-karroan arraina saltzera (ZUM-095/003)

Bera neskatala zela, amak hiru hilabete ospitalean egin zituen eta amonari laguntzen lanean hasi zen, arraina saltzen. Zaldi-karroarekin joaten ziren Zestoara. Eskolara ez zen joaten; ikasi zuen apurra partikularrean ikasi zuen Blanca irakaslearekin. Kanpokoa zen eta gaztelaniz ziren eskolak.

797. Garbitokira arropak garbitzera (ZUM-095/006)

10-11 urterekin garbitokira joaten zen arropak garbitzera, ontzia buru gainean hartuta. Arropa zuria lizaban; koloretakoa eskuz. San Joanetan paga ematen zieten osabek, baina ez zieten uzten irteten ere. Osaba guztiak musikariak ziren, eta iluntzean entsegua izaten zuten.

798. Zestoara eta Aizarnazabalera oinez, arraina saltzera (ZUM-095/007)

Umetan gutxi jolastu zuen, lan egin beharra izan zuelako. Zestoara eta Aizarnara joaten zen arraina saltzera, oinez. Jendea zain egoten zen platerekin. Arraina banatu eta korrika trenera. Behin korrika zihoala erori eta alanbrearekin zauria egin zuen. Gerora Urolako trenean egiten zuen bidaia.

799. Bizi osoa arraina saltzen (ZUM-095/008)

Egunero zazpietan jaikitzen zen arraina saltzera joateko. Urolako trena; Eugenio "karretero". Gerora, trena kendu zutenean, Sorasuk eramaten zion arraina kotxez. Hamar urterekin hasi eta erretiroa hartu arte arraina saltzen.

800. Maria Jesus "arrainduna", ezaguna inguruetan (ZUM-095/009)

Arrain asko saltzen zuten inguruko jatetxe eta hoteletara: Arocena, Asunción, Urola, Irure, Lizaso... Arrandegian beti izan ditu langileak. Zestoan denek ezagutu eta estimatzen zuten. Sobratutako arraina Miserikordiarra eramaten zuen eta asko eskertzen zioten.

801. Zazpi urte "nobotan" (ZUM-095/012)

Umetan ez zuen izan astirik jolaserako, lan egin beharra tokatu zitzaizkion. 17 urterekin hasi zen senargaiarekin eta zazpi urte egin zituzten "nobotan" Zinera joaten ziren. Erromeriara ere joaten ziren.

802. Estraperloko ogia eta olioa eta ganbaran egindako fideoak (ZUM-095/013)

Bere gizona baserri batean egon zen morroi. Gerraostean, goizean lan egin eta arratsaldean hara, jatekoaren truk lanera. Gosea zegoen. Ogia errazionamenduan zegoenean, beraiek ogi zuria ekartzen zuten Zestoatik eta saldu. Fideoak ere egiten zituzten ganbaran arto-irinarekin eta hura ere saldu. Estraperloko olioak ere ekartzen ziren Mutrikuko emakume batek, saltzeko.

803. Babak eta arraina egunero (ZUM-095/014)

Bazkaltzeko babak egoten ziren. Arraina ere beti izaten zuten. Gerraostean gosea egon zen, baina beraiek ez zuten goserik pasa. Oilaskorik ez zuten jaten orduan; ezkontza batean jan omen zuen behin.

804. Etxea alokatu eta ganbarara lotara (ZUM-095/015)

Udaran, diru pixka bat lortzearen, etxea alokatzen zieten oportetara zetozeinei eta eurak ganbarara joaten ziren lotara. Baina gutxi ordaintzen zieten. Orduan ez zuten dutxarik etxean eta harraskan bainatzen ziren. Ezkondu ostean, ez zuen etxea alokatu beharrik izan, gizonak lan egiten zuelako.

805. Urari beldur handia; baineruak (ZUM-095/016)

Ez daki igeri egiten. Behin, "bentan" hartutako atuna garbitzera joan zenean, uretara erori zen eta ia itoan atera omen zuten. Ordutik beldur handia izan dio urari. Hondartzara ere ez zen joaten ezkondu artean. Joakin Amas "baiñerua". Urdinez jantzita egoten ziren hondartzan, uretan zebiltzanak zaintzen.

806. Amari ilea orraztu behar (ZUM-095/017)

Zestoatik etortzen zenean, ama zain izaten zuen ilea orrazteko. Ile luzea zuen, eta mototsean bilduta erabiltzen zuen.

807. Senargaiarekin dantza egiteagatik, ezkontza sakristian (ZUM-095/018)

"Hijas de Maria" kongregaziokoa zen. Ezkondu baino pixka bat lehenago senargaiarekin dantza egin zuelako, sakristian ezkondu zituen apaizak, elizan beharrean. Beste neska batzuk egoten ziren dantza zeinek egiten zuen zaintzen. Senarraren aita ez zen batere elizkoia eta keinuak egiten ibili zen ezkontzan.

808. Loroa ere arrosarioa erreztatzen (ZUM-095/022)

Etxean oso elizkoiak ziren. Amonarekin arrosarioa erreztatzen zuten egunero etxean. Loroa tapatu egin behar izaten zuten, hark ere arrosarioa erreztatzen zuen bestela eta. Jende asko erakartzen zuen loroak, batez ere umeak. Lehengusu batek ekarri zion Ameriketarik loroa amamari.

809. Ezkontzako bazkaria etxean (ZUM-095/024)

Garai batean ezkontza apalagoak egiten ziren. Euren ezkontzan etxean egin zuten bazkaria: paella eta oilaskoa eta tarta. Ezkonbidaian hamabost egun egin zituzten: lehenbizi Bilbon eta gero Zaragozan.

810. Frantziatik gaitza ekarri zutelakoan ospitalera (ZUM-095/026)

Gerra garaian, Santandertik Frantziara bidali zituzten. Zumaiara itzuli zirenean, Frantziatik gaitza ekarri zutela-eta ospitalera eraman zituzten. Aita kartzelan zuten. Don Carmelo joan zitzaien bisitan, Zumaiako medikua, eta hark etxera bidali zituen.

811. Abertzale izateagatik, Zumaiatik kanpora (ZUM-095/027)

Gerra garaian, hainbat herritar Zumaiatik bota zituzten, abertzaleak zirelako. Kamioietan sartu eta Santanderrera eraman zituzten. Santanderren emakume baten etxean pasa zituen pare bat egun. Gero handik Frantziara bidali zituzten. Oso gustura egon ziren Frantzian.

812. Arraindunen belaunaldi ugari familian (ZUM-095/028)

Bere amona hirugarren belaunaldia zen arraina saltzen. Gerratik itzulitakoan arazoak izan zituzten hasieran arraina saltzeko, baina lokal bat utzi zieten eta berehala bezero mordoa bildu zuten, arraina saltzen tradizio handiko familia zelako eurena.

813. Senarrak soldadutzatik telefonoz deitu (ZUM-095/035)

Bere senarra Zugarramurdi inguruan egon zen soldadutzan. Behin senarrak telefonoz deitu zion, denbora askoan elkar ikusi gabe zeudelako. Emakume batek errietan egin zion, mutila dirua gastatzen ari zelako berari telefonoz deituta.

814. Astean behin ikusten zuen mutil-laguna (ZUM-095/038)

Bera gaztea zela, goiz erretiratzen ziren. Etxeko sarreran egoten ziren gustura, baina ez zieten uzten denbora luzez egoten han ere. Mutil-laguna astean behin ikusten zuen. Gauzak oso ezberdinak ziren lehen.

815. Irratia entzuten zutelako, etxea miaztera (ZUM-095/040)

Bere osabak munduari bira eman zion eta kanpotik gauza asko ekarri zituen, tartean baita irratia ere. `Radio Pirenaica´n entzuten zuten. Norbaitek salatu egiten zituen, antza denez, eta sarritan etortzen zitzaizkien etxea miaztera. Ganbaran gordeta edukitzen zuten irratia.

816. Osaba Jaxinto, zorrotza (ZUM-095/046)

Amonak ez zien ipuinik kontatzen. Arrosarioa errezatu bai. Osaba Jaxintoren inguruko kontuak. Lanean jarri bai, baina ez zien uzten su-festak ikustera joaten. Zorrotza zen osaba. Lehengo bizimodua ezberdina zen.

817. Ortiz kontserba lantegian lanean (ZUM-095/047)

Amak esan zien irabazten zuten dirua eurentzat izango zela eta ahizpa eta biak Ortizeneko lantegira joaten ziren lanera. Ordu estrak sartzeko zain egoten ziren, diru gehiago irabazteko. Lantegian antxoei burua kentzen edo atuna latetan jartzen lan egin zuen. Lehengo lan egiteko modua. Isidora `Panpota´, arduraduna.

818. Umetxoan arropak josten (ZUM-095/049)

Asko gustatu izan zaio puntua egitea. Umetxoentzat arropak egiten zituen. Zestoako emakume batek saltzen zituen arropa horiek eta hiru ogerleko ordaintzen zizkion txaketatxoak. Etxean lan egiten zuen, ama ere etxean egoten zelako, kalera irten gabe.

819. Sabinaren ezkon-bidaia (ZUM-097/002)

Sabinak bere ezkon-bidaia nontik-norakoak kontatzen ditu. Donostian egon ziren hotelean. Errenteriara bazkaltzera. Gero izebarenera, Tolosara. Handik Bilbora. Eta buelta Zumaiara.

820. Ezkontzako diruarekin jangelako altzariak erosi (ZUM-097/003)

Orduan ezkontzearren dirua ematen zutela Donostian jakin zuen Sabinaren senarrak eta hura jasotzera joan ziren. Diru harekin jangelako altzariak erosi omen zituzten Azpeitian. Eta hotelean lan eginda irabazitako azken soldatarekin, berriz, logelakoak.

821. Lehengo arropak, sasoian sasoikoak (ZUM-097/007)

Lehengo arropak. Sasoian sasoikoa janzten zen. San Telmoetan tergaletzko bata. Egunk handiena jaunartze txikia egiten zen eguna.

822. Sabinak jaunartze bakarra, bost urte eta erdirekin (ZUM-097/008)

Bi jaunartze egiten ziren lehen, handia eta txikia. Sabinak bakarra egin zuen eta bost urte eta erdirekin, gainera. Nolako soinekoa eraman zuen. Jaunartze handia ez zuen egin.

823. Ezkontzako jantzia (ZUM-097/011)

Arroparik ez zuten josten etxean normalean, josita erosten zuten. Sabinak ezkontzako soinekoa nork josi zion eta nolakoa zen azaltzen du. Beste batzuk zuriz ezkontzen ziren.

824. Eskolarako abarketak; jantziago joateko, zapatak (ZUM-097/012)

Orduko oinetakoak. Eskolarako abarketak erabiltzen zituzten. Jantziago joateko, zapatak. Sabinak "topolinoak" erabiltzen omen zituen asko. Asteazkari eta ostegunetan jantzi desberdina izaten zen; ostegun edo jailetan dotoreago.

825. "Komeriak" ikustera joaterik ez (ZUM-097/018)

Herrian "komediak" (komediak) egoten ziren kalean, eta jendea aulkia hartuta joaten zen ikustera. Beraiei ez zieten uzten. Luisitari amak esaten zion ohean egingo zituela "komediak".

826. Arruatik Zumaiara zinea ikustera (ZUM-097/019)

Luisitari ez zitzaion gustatzen zinera joatea. Sabina, berriz, gustura joaten zen. Bi zine zeuden Zumaiara. Hurrengo igandeko pelikula iragartzerakoan "será éxito apoteósico" esaten omen zuten, eta beraiek tutik ulertu ez. Arroatik oinez etortzen zen jendea zinea ikustearren.

827. Hasieran pelikula mutuak zinean (ZUM-097/020)

Pelikula mutuak ikusten zituzten hasieran. Gerora izaten ziren pelikula pikanteagoak ere. Sabinak gogoan du behin apaizak pulpitutik jardun zuela iqandeko pelikulari buruz. Zinean beheko aldea eta "gallineroa" egoten ziren.

828. Herriko gune "arriskutsua" (ZUM-097/021)

Erribera kalean ibiltzen ziren paseatzen. Ez ziren gorantz igotzen, gune "arriskutsua" zelako. Inguru ilun samarra zen eta eskua sartzeko aukera gehiago egoten omen zen. Garai hartan emakumerik ez zen bakarrik sartzen &tabernan.

829. Karmeleroa eta barkilleroa (ZUM-097/022)

Dirurik ez zuten izaten. Kalez kale ibiltzen ziren saltzaileak. Karameleroak "pirulí de la Habana" esan eta gozokiak saltzen zituen. Barkilleroak, berri, barkilloak. Garai txarrekoak direla diote; orduko bizimodua guztiz ezberdina zen.

830. Hilean hogei pezeta neskame lanetan (ZUM-097/023)

Lehen ez zegoen ez gizarte segurantzarik eta ez alarguntasunik. Sabina Bilbon egon zen neskame ezkondu aurretik. Hilean hogeai pezeta irabazten omen zituen.

831. Sabina Bilbon egon zen neskame (ZUM-097/024)

Sabina Bilbon egon zen neskame Andueza sendagilearen etxean. Ospitalea zuten etxean eta ume-zaintzaileaz eta sukaldariak gain erizainak ere egoten ziren bertan. Aste Santuetako "ejerzizioak" etxeko gizonak berak ematen zizkien langile guztiei batera.

832. Gurasoen etorrera Azpeititik Zumaiara (ZUM-098/002)

Gurasoak Azpeitian ezkondu ziren arren, senide denak Zumaian jaioak dira. Aita hargina zen lanbidez, lanera oinez joaten zen Urrestillatik Getariara. Kaltzadore gisa Urolako ferrokarrilaren tunelak egiten ibilia izan bide zen, gerra garaia iritsi ziren arte.

833. Zumaiako eskolak (ZUM-098/004)

Txikitan "Tintuxeneko" eskolara joaten ziren. Maria eta Jose, eskola nazionalak deiturikoak eta maristak ere baziren. Azken hauek gaur egun Ubillos dagoen lekuan zeuden, eta ez ziren gerraosteko erregimenaren gustukoak. Maristak bidali eta urtebete ondoren, mertzedarioak ekarri zituzten. Gurasoen aginduz mertzedarioetatik alde egin eta eskola nazionaletara joan zen, eta graduatua lortzearekin batera, lanean hasi zen. 14 urterekin.

834. Zumaiko lanbide eta lantegiak (ZUM-098/005)

Zumaian ontzigintza, motorrak, makinaria desberdinak, eta abar lantzen ziren. Berak Otto Holke enpresan eman zuen izena eta 14 urte bete baino hiru egun lehenago hasi zen lanean, otsailaren 2an.

835. Santa eskean Azpeitira (ZUM-098/006)

Santa Ageda egunez etxez etxe ibiltzen ziren kantuan. Lanean hasi zen urte hartan, 1951n, Eskola Nazionaletan elkarrekin ibiltzen ziren lau lagunak

Urolako trenean Azpeitira abiatu ziren txukun-txukun jantzita, taberna eta elkarreetan abestera. Arratsaldean Zumaia itzuli, dirua banatu eta etxera joan ziren, ekaitza zela-eta ez baitzegoen eskean jarraitzerik.

836. Lanetik irten eta santa eskean baserriz baserri (ZUM-098/008)

Garai hartan bere adineko mutilak Zarautza joaten omen ziren santa eskean. Beraiek ere lantegitik irten eta joan izan ziren baserrietara abestera, dirua bildu eta ohitura mantentze aldera. Batez ere dirua, baina diruaz gain baserrietan arrautzak ere ematen ei zituzten.

837. Santa eskeko koplak eta martirien abestiak (ZUM-098/009)

Koplak baino martirien abestiak gehiago abesten zituzten santa eskean. Amak erakutsi zizkion eta gerora Arantzazuko aldizkari batean aurkitu zituen abestiok. Aldizkari hartatik ateratako abesti pare bat eta koplak batzuk abestu ditu. Hiru edo lau joan ohi ziren kantuan, musikaririk gabe.

838. Ikastolaren alde santa eskean (ZUM-098/010)

Lanean hasi eta gerora Santa Ageda bezperak eten bat izan zuen beretzat eta inguruko askorentzat. Gerora ezkondu eta umeak ere etorri ziren. Zumaian ikastolaren sorrera pil-pilean zegoen, gurasoen bilerak eta abar. Ikastola sortu zenetik laguntzen aritzen zen talde bat santa eskean atera zen, lortutako dirua ikastolara bideratzeko. Ikastola sortu zenetik, gurasoak kantura irteten ziren Santa Ageda bezperan, seiak inguruan hasi eta berandura arte.

839. Santa eskeko ibilbidea (ZUM-098/012)

Lana zela-eta, Santa Ageda bezperan irteterik ez bazuten, bi egun lehenago edo beranduago irteten ziren kantuan. Urte askoan mantendu dute ohitura. Egun Askizutik hasi eta Getaria inguruko baserrietan goiza pasa ondoren, bazkalostean Zumaia baserrietara joaten dira, Zumaia kaleetan amaitzen delarik ibilbidea, taberna eta elkarreetan kantuan.

840. Soldadutzara joan aurretik santa eskean (ZUM-098/014)

Garai hartan talde txikietan irteten ziren santa eskean. Ohituraz, urte horretan soldadutzara zihoazen "kintoak" ere santa eskean aritzen ziren. Argazki batzuk ere erakusten ditu Manuk.

841. Santa Ageda eta inauteriak (ZUM-098/015)

Galtzak, blusa, abarkak eta txapela. Lepoan zapi koloretsua. Horrela janzen ziren santa eskean kantuan irteteko. Nafarroako eta bertako inauteriak berdinak ez izan arren, biek omen dute antzekotasunik Santa Agedako ohiturekin; kolorea, festa...

842. Santa eskean aritzeko hurritz-makilak (ZUM-098/016)

Santa eskeko makilak hurritz-makilak izan ohi ziren, baita baserrietan-eta erabiltzen ziren akuiluak ere. Urriko ilbeheran moztu behar izaten zen hurritza. Nuarben bizi zenean, baserritarrak Murumendira joan ei ziren hurritza mozttera.

843. Ikastola sortu ostean guraso gehienak santa eskean, gizon zein emakume (ZUM-098/017)

Hasieran gizonezkoak bakarrik irteten ziren abestera. Ikastola sortu ostean emakumeak ere bai, guraso guztiak.

844. Zumaiaiko bertso-eskolaren sorrera (ZUM-098/018)

Txikitatik egon da bertsolaritzarekin kontaktuan. Joanito Dorronsoro ikastolan bertsolaritza irakasten hasi zenean eta haurrak etxera bertso-doinuak abesten etorri zitzaizkionean, Joanitori proposatu zion Zumaian bertso-eskola sortzea. Ordurako Eskoriatza inguruan bazegoen mugimendua; Sarasuatarrak... Joanito berehala jarri zen haiekin harremanetan.

845. Eskolarteko lehenengo bertsolari txapelketa (ZUM-098/019)

1981ean jokatu zen eskolarteko lehenengo bertsolari txapelketa. Bi maila bereizten ziren, 14 urte artekoak eta 14tik 18 urtera bitartekoak. Joanitok animatu zituen herriko gaztetxoak parte hartzera.

846. Zumaiaiko bertsolari txapelketa (ZUM-098/020)

Zumaian 1985ean jokatu zen herri mailako lehenengo bertsolari txapelketa, Anaden. Bertsolari eta bertsozale ugari elkartzen zen orduan, eta gaur egun arte iraun duen ohitura da.

847. Bertsolaritza Zumaian (ZUM-098/021)

Ezkondu eta gero igande arratsaldetan kafea hartu eta bertsoak entzutera joaten ziren. Zumaian jende asko elkartzen zen. Bertso-eskola sortu ostean ere jaialdiak-eta antolatzen ziren, gaur egun ere bai. Orain gazteak dira bertso-eskolan inplikatzeko direnak, beraien babespean.

848. Bertsopaperak (ZUM-098/022)

Garai batean bertsopaperak ere ateratzen ziren, baita saldu ere. Berak ere jardun zuen bertso idatziak sortzen, Joanitorekin ikasita. Bertsopaper txapelketetan ere parte hartutakoa da, noizbait baita irabazi ere.

849. Bertsopaperak abesten (ZUM-098/026)

Laugarren saria irabazi zuen bertsopaper lehiaketan. Laxaro Azkunek bertso bat abestu behar zuela esan eta Loiola irratia buruzko sortatik azken bertsoa kantatu zuen, "Aizak hi mutil mainontzi" doinuan, 1986an.

850. Pirinioetatik Bardeetara transhumantzian (ZUM-098/028)

Egunkarian agerturiko iragarki batek arreta piztu, deitu eta Pirinioetatik Bardeetarainoko ibilbidea egin zuen seme zaharrenekin, bost eguneko transhumantzia. Hogeita hamar laguneko kuadrilla elkartu ziren. Ondoren, bizitako esperientziari buruz idatzitako bertsoak bidali zituen Irungo bertsopaper lehiaketa batera.

851. Bardeetan bertsotan (ZUM-098/029)

Hogeita hamar laguneko kuadrillak Pirinioetatik Bardeetarainoko ibilbidea egin zuten behin. Azken etapa Zarrakaztelutik Bardeetarainokoa izan zen. Olibako

monasterioan bazkaldu zuten, Manuk bezperan kanpin-dendan idatzitako bertsoak abestu zituen. Gerora Otsagin elkartu ziren batean jakin zuen bilbotar batek bertsook gaztelerara itzuli zituela, taldeko askok ez baitzekiten euskaraz. Orain etxekoei egiten dizkie bertsoak, gehienetan kopla motzak.

852. Zumaiaiko lantegietako lan-baldintzak (ZUM-098/030)

Zortzi urte eman zituen Otto Holke enpresan lanean, baina soldadutzatik itzuli eta sei hilabete eskasera utzi zuen, ordurako neska-lagunarekin hasita zegoen. Zumaian lau lantegi zeuden garai hartan: Unanue, Yeregi, Otto Holke eta Balenciaga. Zarautzen ere aritu zen lanean, baita Egigurenen eta etxepeko baten enpresan ere.

853. Egurko kooperatibaren sorrera eta bilakaera (ZUM-098/031)

Taldetxo bat hasia zen bilerak egiten kooperatiba bat sortzeko asmotan. Arrasaten esan zieten Zumaian bazela beste talde bat, Urgain, egurra lantzen hasia zena eta hobe zela kooperatiba bat, bi txiki baino. 1970ean Urgain eta Xumai elkartuta, Egurko kooperatiba sortu zuten. Bere gorabeherekin, oraintsu arte iraun du Egurkok.

854. Igandetan musika izaten zen goiko plazan (ZUM-098/033)

Hogeita bat urte zituen berak eta hemeretzi bere emazteak, goiko plazan musika egoten zen igandetan eta dantzan ari zirela ezagutu zuten elkar. Neskak ez zuten ezer ordaindu beharrik izaten bertan egoteko, mutilek bai ordea.

855. Ibañarrietako erromeriak (ZUM-098/034)

Santa Kutzetan erromeria izaten zen Ibañarrietan. San Lorente gainetik joan ohi ziren hara, eta aukera ona izaten zen beste herrietako neskak ezagutzeko. Iluntzerako etxera erretiratzen ziren, paga gastatuta. Zumaian auzoetan ere izaten ziren erromeriak, San Migelen, esaterako.

856. Neskekin dantzan erromerian (ZUM-098/035)

Baltsak eta pasodobleak dantzatzan zituzten erromerian. Azpeitian eta Azkoitian debekatuta zegoen neskekin dantzan aritzea, Zumaian ez ordea. Neska asko Hijas de Mar^{´}a kongregazioko parte ziren, eta mutilekin dantzatzuz gero, kongregaziotik kanpo uzten omen zituzten.

857. Elizako konfesio eta sermoiak (ZUM-098/036)

Oso elizkoiak ziren. Konfesatzera joan behar izaten zuten askotan elizara, nahiz eta jakin berriz egingo zutela konfesatu berri zutena. Pulpitotik ere sermoi gogorak botatzen zituzten, nahiago du ez gogoratzea.

858. Aspalditik hasia egurrean tailuak egiten, eta geroxeago harrian ere bai (ZUM-098/037)

Ofizioz mekanikoa zen eta afizioz aspaldidanik hasi zen egurra lantzen, tailuak egiten. Donostian egin zuen ikastaro bat eta erakusketa jarri ere bai ikastaroa amaitzean. Jada sei urte igaro dira harria lantzen ere hasi zela.

859. Josetxo izatetik Joseba izatera (ZUM-099/001)

25 urterekin Pasai Donibanera joan zen apaiz. Han beste apaiz gazte bat zegoen, Joxe izenekoa. Berari ordura arte Josetxo deitzen zioten, baina jendea ez nahastearren, berari Joseba deitzea proposatu zuen eta ordutik hala ezagutzen da.

860. Aita, Julio Beobide, zumaia petoa (ZUM-099/005)

Zumaian jaio zen eliza ondoan dagoen San Pedro kalean. Aita bertakoa zen, zumaia petoa, gainera. Ama Zumaian jaio arren Donostian hazia zen. Beobidetarrak. Aita eskultorea zen eta seme-alabak ze ordenatan jaio ziren azaltzen du umorez.

861. Aitaren, Julio Beobideren, obrak (ZUM-099/006)

Bere aita, Julio Beobide, eskultorea zen. San Bizente elizan aita 29 urterekin egindako kristo bat dago. `Bellas Artes´ museoko sarrera ondoan ere aita egindako Zuloagaren busto handi bat dago. Zumaian dituen obra gehiago aipatzen ditu.

862. Julio Beobide pasealekua, aitaren omenez (ZUM-099/008)

Aita hil ostean, itsasargirantz doan pasealekuari Julio Beobide izena jartzea erabaki zuen Udalak, aita asko ibiltzen zelako bertan paseatzen.

863. Aitaren, Julio Beobideren, ibilbidea (ZUM-099/011)

Aita Deustuko salesiarretan ikasi zuen marrazketa. Bertako salesiar galiziar batek esku ona zuela ikusi zuen eta orduan eskultore izateko ikasten hasi zen. Aita gutxi irten zen Zumaia, oso herrizalea zelako. Abertzale sutsua ere bazen. Parisen eta Erroman izana zen, hala ere. Eta Madrilan `Bellas Artes´ ikasi zuen. Gero bertako kide ere egin zuten denborarekin.

864. Aita, Julio Beobide, tailerra zuen Zumaian (ZUM-099/013)

San Pedro kalean bizi izan ziren beti. Aita tailerra zuen Kresalan eta egunero joaten zen goiz-goizetik. Txakurra ere beti izaten zuten.

865. Amak atera zuen familia aurrera (ZUM-099/015)

Amak etxean egiten zuen lan eta bera izan zen familia aurrera atera zuena. Aita diru-konturik ez zuen jakiten. Zuloagak askotan esaten zion gehiago kobratu behar zuela bere lanagatik.

866. `Kresala´ izena, Txomin Agirreren liburuagatik (ZUM-099/017)

Zuloagak Santioko hondartza ertzean zuen bere txaleta. Julio Beobide, berriz, justu beste aldean zuen lantokia. `Kresala´ izena itsaso ondoan dagoelako izan dezakeela dio; baina berak uste du Txomin Agirreren izen bereko liburuagatik jarri ziola aita izen hori etxeari. Txomin Agirre Zumaian bizi izan zen urte askoan eta harreman handia zuen euren familiarekin.

867. Francorentzat kristo bat egin zuen aitak (ZUM-099/018)

Bere aitari izena eman zion obra aipatzen du. Zuloagaren kaperan aitak egindako kristo eder bat zegoen, gero Zuloagak berak polikromatua. Franco etorri zen batean kristo hori ikusi zuen eta berarentzat beste halako bat eskatu zuen. Aitak kristo hura egin eta Madrilera eraman zuen, baina Francori eskua ez ematearren, alde egin zuen azkar.

868. Aitaren kristoa "Valle de los caídos"-en (ZUM-099/020)

Aitak Francoren enkarguz egindako kristoa "Valle de los caídos"-era eraman zuten gero. Oso ondo jarria omen dago, baina aitak ez zuen nahi izan han sartzerik, eta ez zuen sekula ikusi.

869. Hamar urterekin Lekarozko kolegiara (ZUM-099/022)

Zumaia 3.500 biztanle inguru zituen bera jaio zenean. Gurasoek, esfortzu handia eginda, bera eta anaia izen handiko kolegio batera bidali zituzten, Lekarozera. 10 urte zituen berak. Amak eramaten zuen etxeko ekonomia. Gauzak saldu behar izan zituzten semeak kolegiara bidaltzeko. Han batxilerra egin ostean seminariara joan zen.

870. Apaiztu ondoren lehenbizi Pasaiara eta gero Ternuara (ZUM-099/024)

Lekarozko kolegiotik Donostiara joan zen, seminariara. Zortzi urte egin zituen han, Filosofia eta Teologia ikasten. Apaiztu ondoren Pasai Donibanera joan zen. Hiru urteren ondoren, Ternuara joateko eskaintza jaso zuen eta hara joan zen. Hogei urtetik gora egin zituen Ternuara joan-etorrian.

871. Ternuan, hango marinel euskaldunen apaiz (ZUM-099/025)

Bera Ternuara joan zenean 3.000 arrantzaletik gora zeuden han. Barku asko Pasaiatik joandakoak ziren, baina marinel gehienak galiziarrek izaten ziren. Gehienetan lehorrean egoten zen bera, baina itsasoan ere ibili izan zen behin baino gehiagotan.

872. Saint Pierre et Miquelon-en euskal kutsua (ZUM-099/027)

Saint Pierre et Miquelon irlan egon zen. Euskal kutsua zuen bera joan zenean 1963 inguruan. Frontoia ere bazegoen eta goian "Zazpiak bat" jartzen zuen. Euskaldun batek egina omen zen frontoia. Euskaldunak, bretoiak eta normandoak omen ziren bertako bizilagunak. Handik Saint John`s-era joan zen. Guztira 20 urtetik gora egin zituen.

873. Ondarroako bakailao-ontzian Ternuara (ZUM-099/031)

1962an Pasai Donibanen egon zen apaiz. Han hiru urte inguru egin ostean, 1966an Ondarroako `Gure ama Antiguakoa` bakailao-ontzian joan zen lehenbizikoz Ternuara.

874. Bakailao arrantza Saint Pierre-n eta Saint John`s-en (ZUM-099/033)

Sarearekin egiten zuten bakailaotan Saint Pierre-n. Itsasontzi ugari egoten ziren. Saint John`s-en tradizio zaharragoa zuten arrantzurako. Han bouak

egoten ziren, barku handiagoak. Gerra zibilean ere erabili ziren Ternuan arrantzuan ibilitako bou batzuk.

875. Ternuako bakailao-arrantza bukatzeko arrazoia (ZUM-099/035)

Hemengo arrantzaleek bakailao gehiegi harrapatu zutela esaten hasi ziren eta pixkanaka flota kanpora bidali zuten Ternuatik. Gero debekatu egin zuten bertaraino sartzea. Orduan Pasaiara itzuli zen.

876. Ternuan arrantzaleen emazterik ez (ZUM-099/040)

Pasaiatik Ternuara zuzenean joanez gero, bederatzi egun inguru behar izaten ziren bidaian. 3000 marineletik gora egoten ziren han. Arrazoiaren batengatik denbora luzearako han geratu behar zirenean, emazte batzuk joaten ziren bertara, baina normalean ez, diru asko behar zen eta. Gainera, itsasontziak txikiak ziren eta ez zeuden prestatuta.

877. Euskal festa ospatzen zen urtero Saint Pierre-n (ZUM-099/043)

Saint Pierre-n ba omen zen iparraldeko gizon euskaldun bat, baina bera joan zenerako jada hila zen. Hala ere euskal kutsua nabari zen; esaterako, euskal festa ospatzen zuten urtero. Euskal festa horietako batean pilotan txapeldun geratu zen bera. Bazegoen euskal sentimendu bat.

878. Garai batean bale-arrantza; gero bakailaoa (ZUM-099/046)

Bera hara joan zenean, arrantzaleak bakailaotara joaten ziren Ternuara. Baina hara joandako lehen euskaldunak baleak arrantzatzen joan ziren, XIV-XV. mendeetan. Baleen koipea oso preziatua zen. "Balaena biscaiensis". Bakailaotan zebiltzanek ere ikusten omen zituzten baleak tarteka, urrutiratzen zirenean.

879. Bakailao-ontziak Pasaiatik; marinel asko galiziarrek (ZUM-099/048)

Mutrikuko batek urte asko egin zituen sukaldari lanetan Ternuan. Ofizial gehienak euskaldunak ziren, Donostiakoak, Ondarroakoak eta Lekeitiokoak. Bakailao-ontziak Pasaiako portutik bakarrik ateratzen ziren garai hartan. Barkuak nolakoak izaten ziren. Marinel gehienak galiziarrek izaten ziren.

880. "Hombres de Terranova" liburua argitaratu zuen (ZUM-099/052)

Pasaiako Ternuako flota galdu zela ikusi zuenean, liburu bat idaztea erabaki zuen. "Hombres de Terranova" liburua argitaratu zuen Rosa García Orellán antropologoarekin batera. Lan hori aurrera ateratzeko Pasaiako portuko lehendakariak laguntza handia eman zien. Harrera ona izan zuen liburuak Ternuan egondako jendearen artean.

881. Pasaiatik Santurtzira, "Stella Maris"en ardura hartzeko (ZUM-099/055)

Ternuako flota gutxitu zenean Pasaiara itzuli zen. Han zegoela, Santurtziko kapilaua, Patxi Otamendi bilbotarra, hil egin zen eta Karmelo Etxenagusia gotzainak bertara joateko eskatu zion, "Stella Maris"en ardura hartzeko. "Stella Maris" eliza katolikoak mundu guztiko itsasgizonentzat egiten dituen

zentruak biltzen dituen gunea da. "Stella Maris"en gunea ezberdinak aipatzen ditu; ez omen daude asko Espainian.

882. "Tuntuxeneko" eskola (ZUM-101/002)

"Tuntuxeneko" eskola Goiko Plazan zegoen. Behean denda txiki bat eta goian eskola. Ume txikientzako zegoen eskola bakarra zen eta herriko ume guztiak biltzen ziren bertan. Handik gero maristetara edo mojetara.

883. Hamar urterekin eskola utzi behar (ZUM-101/003)

Xantik hamar urte zituela, anaia zaharrena soldadu joan zen eta Angel lanean hasi zen tailerrean. Xantik eskola utzi behar izan zuen astoarekin kalera enkargutara joateko. Gerra garaian eskola guztiak itxita egon ziren.

884. Xanti gau-eskoletan ibilia (ZUM-101/004)

Xanti gau-eskolan hasi zen Burgosko irakasle batekin. Hogei egun inguru egin zituen bakarrik, Gabonetan maisua Burgosera joan eta ez zelako gehiago itzuli. Hurrengo urtean Jose Uribe zumaiaarrekin hasi zen, baina hogeita bost egun besterik ez zituen egin, maisua soldadu eraman zuten eta. Zer ikasten zuen.

885. Maristek letra txukunari ematen zioten garrantzia (ZUM-101/005)

Maristek letra txukunari ematen omen zioten garrantzia. Baziren letra oso egokia zutenak. Oso irakasle onak omen ziren. Baina bidali egin zituzten Zumaiaetik. Gero "merzedarioak" etorri ziren.

886. Kolore ezberdina uniformean, klaseak bereizteko (ZUM-101/008)

Maristetan ez zuten erabiltzen uniformerik; mojetan bai. Eskola doan zutenek eta ordaintzen zutenek kolore ezberdina izaten zuten uniformean. Eskola ordaintzen zutenek emakumeren bat izaten zuten etxera laguntzeko eskolatik irtetean.

887. Denden erakusleihoko jostailuen inbidiaz (ZUM-101/009)

Jostailuak ikusten zituzten erakusleihonetan eta inbidiaz egoten ziren, ez baitzuten haiek erosteko dirurik. Errege egunean jasotzen zituzten opariak gogoratzen dituzte. Jostailurik izan ez arren, asmatzen zuten jolasten.

888. Xantiri erregenetan oparitutako kotxeak (ZUM-101/010)

Xantik gogoan du jostailu dendan ikusitako kotxe batzuen inbidiaz egoten zela. Kastorreneko Ximonari aipatu zion zer gustatzen zitzaion eta erregenetan opari gisa jarri zion. Kotxeak "txispa" ateratzen omen zuen bultza egindakoan.

889. Garai bateko Zumaiaiko dendak eta tabernak (ZUM-101/011)

Zumaia nolakoa zen. Jostailu denda. Bi okindegi zeuden, ogia bertan egiten zutenak. Hiru-lau sagardotegi ere baziren eta baita tabernak ere. Angelek esnea eramaten zuen iluntzeetan etxe batera eta bueltan ardoa eramaten

zuen etxera. Ardo bila joaten zenean "Gabon Jangoikuak!" esan behar izaten zuen.

890. Lanetik irtendakoan sagardotegira bazkaltzera (ZUM-101/012)

Lanetik irtendakoan ohitura izaten zen sagardotegira joatea bazkaltzera, sardina zaharrak hartuta. Angelek kontatzen du beraiek ere ohitura horixe zutela gerra ondorenean. Lau lagun joaten ziren eta txandaka ordaintzen zuten. Astelehenetik larunbatera egunean bederatzi ordu lan egin eta 12,50 pezeta kobratzen zituen.

891. Xanti sei hilabetez arotzeria lanetan (ZUM-101/013)

Xanti arotzeria lanean hasi zen eta hamabi pezeta kobratzen zituen astean, ordu gehiago edo gutxiago eginda ere. Ze lan egiten zituzten. Etxezarreta kale inguruan zuen tailer txiki bat nagusiak eta San Telmo kalean makinak. Sei hilabete egin zituen. Gero Yeregirenean hasi zen mekaniko lanetan.

892. Etxez etxe telak saltzen, izebari laguntzeko (ZUM-101/014)

Euren izeba neskei josten erakusten ibiltzen zen. Urtean birritan Bilboko bat etortzen zen telak saltzera. Behin Angel ibili zen etxez etxe telak erakusten eta gero eskariak banatzen. Astea pasatakoan hiru ogerleko eman zizkieten eta bere biziko egunik zoriontsuena izan omen zen. Soldata etxean entregatzen zen.

893. Azkoitiar bati gertatutako pasadizo laburra (ZUM-101/015)

Azkoitiar bati diruarekin gertatutako anekdota.

894. Aitak gabarrarekin hondarra garraiatzen eta bestelako lanetan (ZUM-101/016)

Angel joaten zen plazara saltzera, baina ez zuten diru asko ateratzen handik. Aitak soroko lanaz gain beste hainbat lan egiten zituen. Parolaldeko betelanetarako hondarra garraiatzeko gabarra ekarri zuten aitak eta osabak Oriotik. Gero aitak moldatu egin zuen gabarra urtez urte, pisu gehiago garraiatu ahal izateko. Zumarragarako treneko bagoia kargatzera ere joaten ziren. Gerora "txanala" ekarri zuten, txikiagoa. Aita moilan ere ibiltzen zen karga-deskargan eta baita barkuetarako langileak bilatzen ere. Bizitza gogorra izan zen euren gurasoena.

895. Amak etxeko eta soroko lanak (ZUM-101/017)

Amak etxeko eta soroko lanak egin behar izaten zituen. Beraiek laguntzen zioten. Udaran batzuetan igerian egitera joaten ziren zubi txikira. Gero sorora lanera. Merienda jateko zain egoten ziren. Askok aldatu da bizimodua.

896. Baratxuri zopa eta esnea gosaltzeko (ZUM-101/018)

Baratxuri zopa eta esnea gosaltzen zuten. Aitak arrautza ere jaten zuen zoparekin. Bazkaltzeko baba gorriak urdai pusketarekin. Asteburuetan baba zuriak.

897. Etxean hazitako txerriaren txerrikia (ZUM-101/019)

Urtean txerri bat hazten zuten eta etxean hiltzen zuten. Gero txerrikiak prestatu. Urte batean kutxa prestatu zuten txerrikia gazitzeko. Urdaiazpikoa saldu ere egiten zuten.

898. Bezperetara berandu iritsiz gero, zigorra (ZUM-101/020)

Igandetan mezara joan behar izaten ziren. Jauna hartzeko baraurik egon behar izaten zenez, goizeko lehenengo mezara joaten ziren jauna hartzera eta gero meza nagusira berri. Eskolatik ere joaten ziren meza nagusira, binaka, eskutik helduta. Arratsaldean bezperak; berandu iritsiz gero zigorra izaten zuten.

899. Belarretara joan behar; ezin zinera joan (ZUM-101/021)

Igandetan ere belarretara joan behar izaten ziren, behientzat jana prestatzera. Euren lagunak Erribera kalean paseatzen eta eurak etxera joan behar. Ostegunetan apaizak pelikulak botatzen zituen "luistarretan", baina eurak ezin izaten ziren joan, astoarekin belarretara joan behar izaten zutelako.

900. "Urte batean abarkak eta bestean mantarrak" garai bateko esaera (ZUM-101/022)

Gaztetan erabiltzen zuten txapela, baina gero neska-lagunarekin hasitakoan, kendu. Sororako abarkak erabiltzen zituzten eta bestela abarketak. Euria zenean, zapatak edo azpian goma zuten zapatilak. "Uzkudun" abarkak, kotxeen gurpilekin eginak. Maristek esaten zieten arropa zaharrak eramanda ere garbi joatea zela inportanteena. Oinetakoen inguruko esaera: "urte batean abarkak eta bestean mantarrak". "Mantarrak" nolakoak izaten ziren.

901. Aitak mozten zien ilea; inguruko feriak (ZUM-101/023)

Gaztetan aitak ebakitzen zien ilea ferian erositako makinarekin. Zumaian bertan ere egiten zen feria eta baita inguruetan ere. Aita noizean behin joaten zen, Azpeitira edo Zestoara, trenez. Zumaia ondo komunikatuta egon da beti. Ganadua izaten zen batez ere ferietan.

902. Okindegiko zorrak etxeko gariarekin ordaindu (ZUM-101/024)

Okindegian edo harategian zerbait erosten zutenean apuntatu egiten zen koadernoan, zutenean ordaindu beharrean. Gero, etxeko garia jotzen zenean, zorrak ordaintzera joaten ziren.

903. Gari-jotzea: lehenengo "txanketian"; gero "matxakarekin" (ZUM-101/025)

Garia azaroan ereiten zen. "Txikidxa banintzan, haundidxa banintzan, maiatzean burutan nintzan" esaera. Makinarik ez zen garaian, "txanketian" jotzen zen garia. Geroago lokal bat jarri zuten herrian garia jotzeko "matxakarekin", garia jotzeko makinarekin. Hainbesteko bat ordaindu behar izaten zen. Gero ugaritzen joan ziren makinak eta etxeetan egiten zen gari-jotzea, elkarri lagunduta. Gari-jotzea amaitutakoan, motorrarentzat erabiltzen zen urarekin garbitzen ziren eta gero denak afaltzera.

904. Etxean egindako sagardo kopurua "txaperuari" aitortu behar (ZUM-101/026)

Etxean zenbat gari edo baba hartzen zen apuntatu egin behar izaten zen eta udaletxeari adierazi. Etxean zenbat sagardo egiten zen ere aitortu egin behar izaten zen, eta "txaperua" ibiltzen zen etxez etxe zaintzen, gainera. Euren inguruko batek sagardo kupela ezkutatu zuen, baina bilobak egia aitortu zion "txaperuari". "Hau dek hau! Aingeruak beti egidxa!".

905. Zumaiaiko eta inguruetako errota (ZUM-101/027)

Zumaiaiko eta inguruko errota. Larrondon zuten hurbileneko errota. Azpeitira ere joaten ziren batzuk trenez.

906. Gerra garaian Askizura gauez, artoa ehotzera (ZUM-101/028)

Gerra garaian garia eta artoa entregatu egin behar izaten ziren eta errota itxita egon ziren. Ganadu-errota bakarrik zeuden irekita, baina haiek larria uzten zuten irina. Angel behin Askizuko Iturri baserrira joan zen osaba-izebengana, haiek bazutelako eskuzko errota bat, Zarauzko Aranzabalek egina. Bost kilo babarekin ordaindu omen zuten errota hura. Beldur handia pasa zuen bidean Angelek, gauez eta bakarrik. Arto-irin hura egosi eta morokila egiten zuten, errota hark ez zuelako irina ondo egiten. Taloak asko jaten zituzten, neguan batez ere.

907. Urik ez etxean; gurasoak sekula dutxatu gabeak (ZUM-101/029)

Eurak umeak zirela, argindarra bazuten etxean, baina urik ez. Baldeetan ekartzen zuten ura etxera, eskolara joan aurretik. Euren gurasoak ez ziren inoiz dutxatu. Aita barkuak deskargatzen ibilita zikin-zikin etortzen zenean nola garbitzen zen, "zinkean" ura jarrita.

908. "Albergara" arropak garbitzera; herriko garbitokiak (ZUM-101/030)

Arropak garbitzera "albergara" joaten ziren, arropak "zingan" buru gainean hartuta. "Alberga" non zegoen azaltzen dute. Herriko beste garbitoki edo iturri batzuk. Neguan baldekada ur beroa ere eramaten zuten eskuak berotzeko.

909. Gaztetako entretenimenduak festetan (ZUM-101/032)

San Pedro jaietan "tiobiboak" etortzen ziren. Xanti bere emaztea izango zena tentatzen ibiltzen zen. Angelek, berriz, gogoan du soldadutzatik etorrira lagunak elkartu eta plana egiten nola ibiltzen ziren festatan. Beduara edo Oikiara joan, merienda jan eta buelta.

910. Oikiako erromeriatik bueltan gertatua (ZUM-101/033)

Inguruetako erromeriak: San Prudentzion, Ibañeta, San Migelen... Behin Oikiara joan ziren erromeriara bost-sei lagun. Etxera bidean Arroako neska kuadrilla batekin elkartu ziren eta haiei laguntzen hasi ziren. Trenbideko pasagunera iristean, neskek trenbidetik jarraituko zutela bidea esan zuten. Tunelak ere pasa behar ziren tartean eta mutil bakarra joan omen zen neskekin. Orduan ez ziren konturatu ze arrisku zuen horrek. Euren emazteekin bakarrik egin izan dutela neska-laguntzea diote.

911. Neskak eta mutilek ezin elkarrekin dantza egin (ZUM-101/034)

Soinujolea egoten zen erromerietan. Dantza soltean bakarrik egin zitekeen; dantza lotuan eginez gero neskak "Hijas de María" kongregaziotik bota egiten zituzten. Luistarren kongregazioan zenbait mutili intsignia eman zieten eta harekin ez zegoen neskekin dantza egiterik. Xantik Lekeitioko mutil bati eman zion berea azkenean.

912. Musu emateko beldurrez (ZUM-101/036)

Euren gazte-denboran, euren lagun bat utzi egin omen zuen neska-lagunak, musurik ez ziolako ematen. Xanti beldur zen bera ere utzi egingo ote zuen neska-lagunak, eta musu eman nahian pasa zituen komeriak azaltzen ditu. Azkenean musu antzeko bat eman zion eta hurrengo egunean konfesatzera joan omen zen neska presaka.

913. Lagun baten "inozentzia" neska-laguntzera joanda (ZUM-101/038)

Euren lagun bat baserri batera joan zen neska-laguntzera. Iritsitakoan neskak zerbait nahiko zuela hainbeste bidean lagunduta aipatu zion mutilari; mutilaren erantzun "inozoa".

914. Soldadutza Ferrolen, `Vulcano´barkuan (ZUM-101/040)

Ferrolen egin zuten biek soldadutza. Zumaiar bat zegoen han teniente koronel gisa eta gomendatze-eskutitz bat egin zioten Xantiri senideek, kostazain gisa ibiltzen zen barku baterako. Baina bergarar batek gomendatze hobea zuen, antza, eta bera `Vulcano´ itsasontzira bidali zuten. Azkenean, hoberako izan zen, mundu osoan zehar ibiltzeko aukera izan baitzuen horri esker. Angeli, berriz, ez zioten gomendatzerik egin.

915. Xantik kaboari emandako erantzuna, euskara dela eta (ZUM-101/041)

Xanti soldadu zegoela, bi euskaldun zeuden barkuan. Elkarrekin euskaraz hitz egiten zuten eta kaboak errieta egin zien. Berak gogor erantzun zion kaboari. Soldadutzan egiten zuen lana.

916. Xanti soldadu zegoela, Vigon gertatutako pasadizoa (ZUM-101/042)

Xanti soldadutzan zegoela, Vigon gertatutako pasadizoa. Behe-laino itsua ("taosa") sartu zuen eta barkutik moilara zihoazelakoan berriz ere barkuan azaldu ziren. Komandantearen inguruko kontuak.

917. Bakailaoa eta artoa hustu zituzten biltegietatik, tropak zetoze eta (ZUM-101/043)

Gerra garaiko oroitzapenak. Tropak herrira sartu aurretik biltegietatik bakailaoa eta artoa hustu zuten herritarrek, soldaduei ezer ez uztearren. Beraiek bakailaorik ez, baina arto-zakuak nola kargatu zituzten gurdira gogoan du Angelek. Etxean zituzten hainbat gauza lur azpian ezkutatu zituzten eta Angelek etxean zegoen pistola bat sasi artera bota omen zuen.

918. Familien egoera gerra garaian; abertzaleak herritik bota (ZUM-101/044)

Gerrak ez zituen harrapatu borrokarako adinean, baina hamasei urtekoak jada gerrara joaten ziren. Familiak gazte gabe geratu ziren. Frontean hil ziren auzokoak. Senarrak Bilbo aldera ihes eginda zituzten emakumeak eta umeak herritik bidali egin zituzten, gose handiagoa pasa zezaten. Zumaiarren bizipenak Gernikako bonbardaketan.

919. Gerra garaian, batzuk herritik bidali nahi;besteak ezkutatuta (ZUM-101/045)

Euren bi izeba herritik bota nahi izan zituzten, anaia ihes eginda zutelako. Izeba bat elbarria zen; makuluak jasota protesta egin omen zuen udaletxean. Xantiren emaztearen familia ere bidali nahi izan zuten. Euren aita, anaia nagusia eta beste lagun batzuk, berriz, ezkutatuta egon ziren egunetan, beldurrez. Euren anaiari soldadutzarekin gertatu zitzaiona.

920. Estraperloan arrautzak saltzera Donostiara (ZUM-101/046)

Gerra garaian gosea egon zen. Eurak kale-baserrikoak ziren eta nahiko ondo. Hala ere, entregatu egin behar izaten zen etxeko generoa. Gero, dena estraperloan. Izeben arropa dendan baserrietako arrautzak gordetzen zituzten karetan eta gero Donostiara eramane saltzera. Orduko kontuak.

921. Errazionamendua; azalik gabeko laranjak salgai (ZUM-101/047)

Errazionamenduko kontuak. Ogi beltza. Ogi zuria lortu zutenean, beltza uretara. "Boniattoa". Algarroba. Garai batean laranjak azala kenduta saltzen zituzten, azalarekin bolbora egiten omen zutelako.

922. Errazionamendu garaian, babak marmitean ezkutatuta (ZUM-101/048)

Errazionamendu garaian baserritarrek esnea sal zezaketen plazan, baina babarik ez. Marmitarekin erdia babaz eta beste erdia esnez beteta eramaten zuten, bi aldetatik tapak jarrita. Nafarroatik garia nola ekartzen zuten kamioietan ezkutatuta.

923. Gose garaian arrantza gutxi (ZUM-101/049)

Gose garaian familia gutxi salbatuko zen Zumaian arrantzatik. Orduan txalupa txikietako arrantza besterik ez zen egiten. Lapatan eta olagarrotan ere gutxi. Lehen olagarroa jateko gauza txar bat zela iruditzen zitzaien.

924. Itsasotik egiten zen kontrabandoa (ZUM-101/050)

Itsasotik egiten zen kontrabandoa. Gerraostean, lantegietarako pieza asko ekartzen ziren Frantziatik. Errodamenduak, esaterako, itsasotik Pikote baserrira eta handik herrira. Salaketak ere egon izan ziren.

925. Olagarroak nola harrapatzen diren (ZUM-101/051)

Olagarroak joateko itsasbehera behar da. Kakoarekin harrapatzen dira. Olagarroa zuloan egoten da eta normalean zulo kanpoaldean arrastoak uzten ditu. Hari begiratu behar olagarroa non dagoen jakiteko. Angelek kakoak egin ere egiten omen ditu. Haitz handiak dauden lekuan trazu zuri bat jarrita egiten da olagarro arrantza. Zumaia ingurua oso leku ona da olagarroarako.

926. Angelek itsasorako grina; berak montatutako ontziak (ZUM-101/052)

Aitak Oriotik ekarri zuen batela eurak gazteak zirela. Angelek itsasorako gogoa zuen eta kaskoak egiten zituen bati enkargatu zion kaskoa (9000 pezetan). Gero motorra beraiek egin zuten Yeregiren lantegian. Urte askoan ibili zen harekin. Hura zahartu zenean, beste batek utzitako motorra aprobeztatu, kasko berria enkargatu zuen Hondarribian. Bilobarekin ere ibili izan omen da azken urteetan, baina orain geldirik du motorra.

927. Tolosako Aldaba auzoan jaioa (ZUM-103/004)

Bere burua aurkezten du. Angeles Arozena Larrañaga, Aldaban jaioa. Gurasoak lñaxio eta Kontxa, biak Aldabakoak bertakoak. Tolosako auzoa da Aldaba. Sei senide ziren, bera zaharrena.

928. Tolosan neskame egon zeneko kontuak (ZUM-103/005)

Hamaika urte ingururekin neskame egon zen Tolosan. Gosea pasa omen zuen bertan. Txikia zen eta lanak egiteko nola moldatzen zen kontatzen du. Etxeko gizona eta bi seme abokatuak ziren eta alaba, berriz, medikua. Orkatiletarainoko uniformeak jantzita etxeko andreaki laguntzera joan behar izaten zuen plazara. Behin infekzioa sortu zitzaion eskuan, baina lanean jarraitu zuen, etxeko gizona konturatu arte, fama txarra ematen zuelako neskame-lekua uzteak. Orduko bizipenak.

929. Zumaia kolegiara; soldaduarekin gertatutakoa (ZUM-103/006)

12 urte ingururekin Zumaia kolegiara joateko aukera sortu zitzaion. Soldaduak zeuden orduan Zumaian. Soldadu batek ukituren bat egin zion eta berak belarrondokoa eman. Orduko pasadizoa.

930. Zumaian kolegioan neskame, ikastearen truk (ZUM-103/007)

Errazionamendu garaian ogi gogorra jaten zuen, goseak egoten zen eta. Kolegioan egon zen Zumaian; ikastearen truk neskame lanak egin behar. Kolegioa non zegoen. Emandako arrokekin janzten zen. Moja joango zirela esaten zuten neskak ondo tratatzen omen zituzten; bera ez. Kolegioan zer lan egiten zituen. Bi urte inguru egin zituen han.

931. Aldabatik ikaztegietara eskolara (ZUM-103/008)

Umetan Ikaztegietan ibili zen eskolan. Gaztelaniaz ikasten zuten eta `Cara al Sol´abestu behar izaten zuten. Aldabatik Ikaztegietara, ordu eta erdiko bidean, oinez joaten ziren. Goizean etxean lanak egin eta bederatzietarako hara. Ez omen zuten ezer ikasten.

932. Amak ikasketak egin zitzan nahi zuen (ZUM-103/009)

Aldaban, elizaren azpialdean bizi ziren, Lasarte baserrian. Ama etxe onekoa zen, neskameak izandakoa. Gauza gutxiagorekin bizi arren, seme-alabek ikastea nahi zuen, eta, zaharrena izan arren, kolegiara bidali zuen Angeles. Baina enkarguak egiten eta lotsagabeagoa izaten besterik ez omen zuen ikasi.

933. Kolegioan mojen enkarguak egiten; neskame joateko eskaintzak (ZUM-103/010)

Kolegioan ez zuen ezer ikasten, mojek enkargutarako hartu zutelako. Don Remigio apaizak ematen zion aholkua. Gero, Trinidad Rubio mojak bere anaiaaren etxera Donostiara neskame joateko eskaintza egin zion, baina anaia militarra zen eta aitzakia bat jarrita ezezkoa eman zion. Beasainera bere arrebaren etxera neskame joateko eskaintza egin zion gero komentuko on Basilio apaizak, baina hura ere ukatu egin zuen.

934. Zumaian neskame egon zeneko kontuak (ZUM-103/011)

Neskame joandakoan, besterik ez bada, josten ikas zezala nahi zuen Angelesen amak. Zumaian neskame zegoela, hasi zen Miren Gomezengana joaten josten ikastera, baina behin bakarrik joan ahal izan zen, neskame zegoen etxeko senar-emazteak zaindu beharra zuelako. Amak esaten zion edadeko jendea zaintzen egon beharrik ez zuela, baina berak maitasuna hartu zien eta pena ematen zion uztea. Etxeko alabak ez zuen nahi berak etxeko gizonarekin konfiantza larregi hartzea, eta azkenean etxera alde egin zuen.

935. Mutil batekin dantza egin zuelako, prozesiotik kanpo (ZUM-103/014)

Kongregazioko kide zen Angeles. Behin, Zumaian neskame zegoela, mutil batekin dantza lotua egin zuen. Neskame zegoen etxeko alabak ikusi egin zuen eta bekatu "mortala" egin zuela esan zion. Handik egun batzuetara kongregazioko prozesiora joan zen, baina ezin zela han joan esan zioten, berriz ez zuela dantzarik egingo esan ezean. Berak berriz ere dantza egingo zuela eta nahiago zuela prozesioan ez joan erantzun zien.

936. Mutil batekin dantza egin zuelako, prozesiotik kanpo (ZUM-103/015)

Goiko plazan egiten zen dantza eta hantxe egon zen Angeles neskame. Behin mutil batekin dantza lotua egin zuen eta neskame zegoen etxeko alabak ikusi. Bekatu egin zuela esan zion. Handik egun batzuetara ez zioten utzi "Hijas de Maria" kongregazioko prozesioan joaten.

937. Elizara galtzekin sartu zen lehen emakumea (ZUM-103/016)

Besteek emandako arropak erabiltzen zituen eta normalean handi izaten zituen. Emakumeek ez zuten galtzarik erabiltzen. Elizara galtzekin joan zen lehenengo emakumeari esan zizkiotenak.

938. Permanentea moztu behar, zorritz beteta zegoelako (ZUM-103/018)

Zegaman egon zen bolada batez izebarenean. Han erre kara joaten ziren arropa garbitzera. Osabarekin Aizkorrira ere joan zen astoa hartuta; astoa

lokatzetara erorita pasatakoak. Angelesek ile kizkurra izan nahi zuen eta, ondo portatzen zelako, permanentea ordaindu zioten. Ez zuen nahi ilea ukitzerik, kizkurak ez kentzeko, baina etxera itzuli zenean amak ilea motzarazi zion zorritz beteta zegoelako.

939. Harategia eta senarraren gaixotasuna (ZUM-103/020)

Senarrak harategia zuen Zumaian eta bera ere han hasi zen lanean. Senarra gaixoa zen eta 42 urterekin Gorlizko ospitalean pasa zuen urtebete. Gero, 47 urterekin, Madrilera eraman zuten eta han hil egingo zela esan zioten. Orduan, harategian zituzten enkarguak "Txortena"-ren esku utzi zituen eta harategiko giltzak ere utzi zizkion. Senarra ez zen hil azkenean, baina gerora ere arazo larriak izan zituen.

940. Senargaia nola ezagutu zuen; ezkontza urtebetera (ZUM-103/021)

Senarraren harategi ondoan zegoen iturrira joaten zen ur bila Angeles, eta horrela ezagutu zuten elkar. Gero, neskame zegoen lekutik hara joaten zen uretara, nobioa ikustearren. Senarrak ezkondu egin nahi zuen berehala, baina Angelesek esaten zion ezin zirela ezkondu, berak dirurik ez zuelako. Gizonari ez zion ardura, eta hasi eta urtebetera ezkondu ziren. Iruñera joan ziren ezkon-bidaian. Gero 42 urtez harategian lan egin zuen.

941. Senar-emazteak arropak aldatzera gela banatara (ZUM-103/023)

Ezkondu zirenean, izebarenean jantzi behar ziren. Senarra berarekin batera hasi zen logelan sartzen eta izebak ez zion utzi, aparte aldatzeko esan zion.

942. Inork etxerik eman nahi ez errentan, dirurik ez zutelako (ZUM-103/025)

Ezkondu zirenean ez zuten etxerik eta errentan bizi nahi zuten nonbaiten, baina hain ziren behartsuak, inork ez ziela etxerik errentan eman nahi. Azkenean Goiko kalean eman zieten etxe bat eta han egon ziren errentan, baina nahikoa lan izaten zuten errenta ordaintzeko.

943. Beste harakinen laguntza handia (ZUM-103/026)

Senarra gaixorik zegoen eta berak eraman behar izaten zuen harategia. Beste harakinek laguntza handia eman zioten. "Txortengua"-ko Joxe Marik hiltzen zizkion txahalak, eta gero berak haragia saldu. Txahala hildakoan tripak eta bestelakoak etxean garbitzen ziren. Anaiak ere asko laguntzen zion harategian.

944. Arkumeak eta untxiak etxean hiltzen ziren (ZUM-103/028)

Gaur egun Donostian hiltzen dira abere guztiak eta handik garbituta ekartzen dira, baina orduan herrian bertan hiltzen ziren eta gero etxean garbitu. Arkumeak eta untxiak etxean hiltzen ziren; bera ere ibilia da lan hori egiten. Untxia hiltzen ari zela apaiz batek egindako iruzkina.

945. Kontrabandoko haragia saltzeagatik isuna (ZUM-103/029)

Harategirako arkumeak artzainari hartzen zizkioten. Behin Andika baserrian ezkutuan hil omen zuten txahal bat, gauez. Haragia zatitu eta astoan hartuta

etorri ziren Zumaiara, baina harategian sartzeraz zihoazela, "txaperua" (udaltzaina) zuten zain. Kontrabandoan ibiltzeagatik isuna jarri zieten eta, zigor modura, txahalaren pisua adina haragi ospitalera entregatu behar pixkanaka.

946. Zarautzen akabatutako idiaren haragia (ZUM-103/030)

Behin Zarautzen idi bat akabatu omen zen eta haren haragia merke eskaini zieten. Zumaiara ekarri zuen harakin batek haragi hori, saltzeko. Bezero batek Angelesi galdetu zion ea bera izan ote zen. Angelesek bazekin nork ekarri zuen, baina ez zion esan. Txekorrak 4000 pezeta inguruan erosten zituzten orduan.

947. Letxuga eta aza, tripa betetzeko (ZUM-103/032)

Gosea pasa zuen gazte-denboran, neskame zegoela. Beduatik ekarritako letxuga jaten zuen olio pixka batekin, tripa betetzeko. Libra erdi haragi bost lagunentzat. Eta aza jaten zuten sarri. Azaren inguruan aitzak esaten zuen esaera.

948. Oinetako pare bakarra; miserian hazitakoa (ZUM-103/033)

Abarketekin ibiltzen zen lehorra edo euria izan, ez zuen besterik eta. Batzuetan norbaitek emandako oinetakoren batzuk, baina nola-halakoak. Miserian hazitakoa dela dio eta beti begiratu izan die gauzei. Amak ea erlojua nahi zuen galdetu zion ezkondu zenean, baina berak ez zuela erloju beharrik erantzun zion. Umetan jarritako belarritakoak bai, baina eraztunik eta bitxirik ez zuen izan inoiz.

949. Miserian hazitakoa, baina inbidiarik ez (ZUM-103/034)

Miserian hazitakoa dela dio. Ez zuten ezer, baina horrela ohituta zeuden eta ez zuten inbidiarik izaten. Errege Egunekeo oparia: txokolate zati bat eta laranja bat. Eta pozik. Gurasoek ez zuten ezer. Bera neskame bidali zuten Zumaiako mojetara, ikastearen truk, baina ez zuen ezer ikasi, eta, gainera, amak etxeko koltxoia eraman behar izan zuen.

950. Ahizpa bat neskame eta bestea moja (ZUM-103/035)

Amaren ahizpa baten bitartez bidali zuten gurasoek Angeles Zumaiako kolegiara. Bere ahizpa bat Etxabe IV.aren etxean egon zen neskame. Beste ahizpa moja sartu zen. Ahizpari esandakoa gogoan du.

951. Mojetako neska bat ikaztegiaren sartu zuenekoa (ZUM-103/037)

Moja joan behar zuten neskak "interna" egoten ziren Zumaiako kolegioan. Sukaldean eltze izugarriak eta ontzi pila egoten ziren garbitzeko. Bazuen lagun bat on-ona beti laguntzen ziona. Beste bat, berriz, lanerako maukak jaso ere egiten ez zituen. Behin ikaztegiaren sartu omen zuen neska hura. Orduko pasadizoa.

952. Inguruetatik etorritako neskak Zumaiako mojen kolegioan (ZUM-103/038)

Karitateko mojak ziren Zumaiako kolegiokoak. Gehienekin euskaraz egiten zuen, baina "superiorak" ez zekien. Neskak inguru guztietatik etorritakoak izaten ziren: Aginaga, Azkoitia, Azpeitia...

953. Kolegioan bostetan jaikitzen zen, arropak garbitzeko (ZUM-103/042)

Goizeko bostetan jaikitzen ziren kolegioan, arropak garbitzeko. Orduan ez zegoen garbigailurik eta kolegioan zeuden neska guztien arropak eskuz garbitu behar. Gero hura bukatutakoan, zortzietako mezara.

954. Gerrako bizipenak Aldaban; soldaduak inguruan (ZUM-103/043)

Aldaban zeudela, abisatzera etorri zitzaizkien tiroketa egongo zela Orendaindik Aldabara. Euren etxea bitarte horretan zegoenez, amarekin Lopetegi baserrira joan ziren. Amona eta aita etxeko ukuiluan gelditu ziren, tiroetatik babesteko leihoan koltxoiak jarrita. Orduko bizipenak. Soldaduak etxe ondoan zituzten eta amonak egindako talo goxoak edo bestelako jatekoa jatera joaten ziren euren etxera. Hegazkinak ere ibili ziren inguruetan. Hildakoak gurdian eramaten zituzten hilerrira.

955. Amari zestoa tokatu Tolosako zozketa baten (ZUM-103/047)

Euren jolasa borroka izaten zen. Ez zuten jostailurik. Behin amari Tolosako zozketaren baten zesto bat tokatu zitzaion. Orduko bizipenak.

956. Senargaiarekin haserretu zeneko kontuak (ZUM-103/053)

Neskame zegoela, ez zuen entretenimendurik izaten, lan egin beharra zuen eta. Mutil-lagunarekin hasi zenean, behin senargaiak Azpeitira zezenketara joateko sarrerak hartu zituen. Berak ezin zela joan esan zion, lankideari agindu baitzion berak zainduko zituela etxeko umeak. Senargaia haserretu egin zitzaion. Zeloak ematearren zer egin zuen.

957. Neskame egon zeneko kontuak (ZUM-103/054)

Egigurentarren etxean neskame egon zeneko kontuak. Etxeko andreak zerbait ahazten zitzaion bakoitzean senargaiarekin pentsatzen egongo zela esaten zion. Bederatzi ume zituzten. Behin despentsako armairuari giltza jarri omen zion, umeek ekarri orduko jaten zutelako fruta.

958. Madrilen borondate oneko jendearekin topo (ZUM-103/059)

Senarrarekin Madrilen egon zenean oso jende jatorra tokatu zitzaiola kontatzen du. Larburu medikuaren etxean egon zen Madrilen. Behin, senarrarengana ospitalera joateko autobusean sartu zen eta dirua etxean utzi zuela konturatu zen. Gizon batek hogeituroko papera eman omen zion. Orduko pasadizoa.

959. Kongregazioko emakumeek sakristian egiten zituzten lanak (ZUM-104/002)

Amaren bi ahizpa "Alianza en Jesus por Maria" kongregaziokoak ziren. Bera, umea zela, izebekin joaten zen sakristiara. Emakume gehiago ere biltzen ziren han. Garbiketa lanak egiten zituzten. Kotsakrazioan erabilitako zapia ezin izaten zuten emakumeek ukitu. Apaizek uretan uzten zuten zapia. Ur hura elizako hormaren kontra bota behar izaten zen.

960. "Alianza en Jesus por Maria" kongregaziokoentzat enkarguak egiten (ZUM-104/003)

"Alianza en Jesus por Maria" kongregaziokoak ziren bi izebei laguntzen ibiltzen zen neskailatan. Enkarguak egitera bidaltzen zuten, esaterako, eliza apaintzeko lore bila, baratzetara edo intsentsu bila. Kongregazioak ateratzen zituen aldizkaritxoak banatzen ere ibiltzen zen. Eta tarteka Donostiara ere bidaltzen zuten, kongregazioak bertan zuen egoitzara.

961. Norbait hiltzen zenean, kanpaia jo eta `Aita gurea´ errezatu (ZUM-104/004)

Norbait hiltzen zenean, bizkarrean eraman behar izaten zen. Apaiza pasatzen zenean, kanpaia jo eta `Aita gurea´ errezatu behar izaten zen. Berak egiten zituen horrelako lantxoak.

962. Kongregaziorako enkarguen bukaera (ZUM-104/006)

"Alianza en Jesus por Maria" kongregaziokoek Andre Mariaren elizarako lore bila bidaltzen zuten Zarauzko Narros jauregira. Kongregazioko arduradunak dirua ematen zion loreak ordaintzeko, baina jauregikoak normalean ez zion hartzen dirurik. Behin jauregikoari dirua eman egin zion, eta kongregazioko buruak marmarrean jardun omen zuen. Orduantxe bukatu ziren bere enkargu txikiak. Hala ere, ezkondu ostean oraindik ere elizako arropak garbitzen jarraitu zuen.

963. Gerra garaian eskola batetik bestera aldatzeko arrazoia (ZUM-104/007)

Mojetan ibili zen eskolan. Gero gerra etorri zen. Mojei abituak kenarazi zizkieten. Osaba ihesi joan zen, "aurrera". Berak eskolan entzun zuen Bilbo aldean zebiltzanek arratoiak jaten zituztela eta horixe esan zion amari. Amari ez zitzaion gustatu, eta eskolaz aldatu zuen. Mojetako irakaslea izeben kongregazio bereko kidea zen; irakasle ona.

964. Gerra garaian izebak herritik bota nahi (ZUM-104/009)

Gerra garaian, osabak ihes egin zuenean, izebak herritik bidali nahi izan zituzten. Baina izeba bata elbarria zen. Hiru urte zituela erori eta hanka hautsi zuen, eta, ondorioz, hanka ez zitzaion behar bezala hazi. Beste izeba, berriz, erdi-gaixoa zen. Azkenean lortu zuten herritik ez bidaltzea. Aita frontera eraman zuten ordu txikitan bila etorrira. Negar asko egin zuten. Borrokarik gabe konpondu behar direla gauzak dio.

965. Gerraosteko errazionamendua; artoa etxean ehotzen zuten (ZUM-104/010)

Gerraostean ez zuten goserik pasa. Artoa eta garia hartzen zituzten etxean. Gero, bazuten ganbaran haiek txikitzeko makina txiki bat. Kaletik ere etortzen zitzaien jendea artaleak ehotzera. Ez zen irina bezain fina irteten, baina harekin konpontzen ziren. Egosita jaten zuten, edo bestela taloak edo morokila eginda. Errotara Larrondora joaten ziren normalean; bestela Getariara edo Lasara ere bai. Errazionamenduko "boniato" a, okindegira eramaten zuten erretzera.

966. Galtzerdiak konpontzen izeben dendan (ZUM-104/011)

Eskola bukatu zuenean ez zegoen lanik, eta izebei laguntzen zien dendan. Gero galtzerdiak konpontzen ikasi zuen Donostian, "Vitos" makinarekin. Izeben dendan egoten zen galtzerdiak konpontzen, haiei lagunduaz. Txanpon batzuk ateratzen zituen, baina asko ez; "emakumeen txanpona" eskasa izaten dela dio. Udaran hotelean ere ibiltzen zen lanean. "Despeskan" ere ibilia da.

967. "Despeskan", antxoak saretik askatzen (ZUM-104/012)

"Despeska" nola egiten zen. Antxoa zetorreanean itsasotik, deiadarra egiten zen emakumeak moilara joateko "despeskara". Antxoak sarean kateatuta etortzen ziren; moilan, otarra aurrean zutela, antxoak saretik askatzen ibiltzen ziren. Diru "aberatsa" izaten omen zen; unean bertan ordaintzen zieten. Zumaiakoa bukatutakoan Getariara joaten ziren, oinez, "despeskara". Eta gero egun osorako fabrikara lanera. Irabazten zuten dirua ondo zaindu behar izaten zuten; ez zegoen gastatzerik.

968. Lanerako gizonezkoak aurkitu ezinda (ZUM-104/014)

"Despeskan", antxoak saretik askatzen, emakumeak ibiltzen ziren. Gizonezkoek bestelako lan asko izaten zuten. Ez zen gizonik egoten lanik gabe. Aitak gabarrarekin hondarra ekarri, soroko lanak egin eta, horrez gain, langileak bilatzeko zeregina zuen. Eurak aitari laguntzen ibiltzen ziren eskolatik irtendakoan, baserri batera eta bestera joanda, lanerako gizonezko bila.

969. Aitak harrapatutako angulak Oriora marmitean (ZUM-104/015)

Aita angulatan ibiltzen zen neguan. Gero, amak egosita saltzen zituen. Gerora, Oriora eramaten zituzten, marmitan hartuta. Trenean joaten ziren. Bezperako marmita hutsa jaso eta angulaz betetakoa utzi.

970. Aita gabarrarekin hondarra garraiatzen (ZUM-104/016)

Aitak gabarra zeukan. Angulatan ibiltzen zen gabarrarekin; eta baita hondarra ekartzen ere, fundizioetarako (Arruabarrena) edo landareentzat, Oikiara edo Beduara, esaterako. Santioko hondartzan jasotzen zuen hondarra eta moilara eramaten zuen. Han gruarekin bagoia betetzen zuten eta handik behar zen lekura eraman. Eurak aitari "errazioa" eramatera eta konpainia egitera joaten ziren. Oikiara joan behar zenean, zirga-soka botatzen zuen lubakira eta handik tira eginez laguntzen zioten gabarra eramaten.

971. Pentsatze hutsa bekatu, eta haurdun geratuz gero... (ZUM-104/018)

"Mariaren alabak" kongregazioa. Hilero jauna hartzera joan behar izaten zuten, zintak jantzita. Andra Mari egunean prozesioa. Ezin izaten zuten mutilekin dantza lotuan egin, bestela kongregaziotik botatzen zituzten eta. Seigarren mandamentuaren inguruan apaizak esaten zituenak. Pentsatzen hutsa ere bekatu zen, baina haurdun geldituz gero, familia osoa hondatzen zen. Bizi bat munduratzearren, zigortu. Orain beste muturrera pasa garela iruditzen zaio, eta ez ditu ulertzen ez bata eta ez bestea.

972. Hondartzara pilotan jolastera, bezperetara joan beharrean (ZUM-104/019)

San Prudentzioetan Askizura joaten ziren erromeriara, baina gauzez ezin izaten ziren ibili. Garai batean lagun batzuk hondartzara joaten ziren pilotan jolastera. Asteazken zehar astirik ez, eta igandean joaten ziren. Behin ama joan zitzaion bila, bezperetara joan ez zelako. Bere biziko zigorrik handiena jaso omen zuen.

973. San Pedro jaietan gurasoekin (ZUM-104/020)

San Pedroetan gurasoekin ibiltzen ziren jaietan. Limonada botilak. Gurasoei mesedez eskatzen zieten kalean pixka bat gehiago geratzeko.

974. "Komeriak" ikusteko egindako komeriak (ZUM-104/021)

Komedianteak etortzen ziren herrira, baina etxean ez zieten uzten haiek ikustera joaten. Norbait hiltzen zenean, ahizpa eta biak etxez etxe ibiltzen ziren arrosarioa erreztatzen. Behin aitzakia horrekin "komerixak" ikusten egon ziren. Etxera joandakoan, aitaren ezkutuan, ohean sartu ziren azkar asko, arropa eta guzti.

975. Serorari egiten zizkioten gaiztakeriak (ZUM-104/023)

Umetan "txintxarrika" jolas egiten zuten, lurra harri batekin markatuta. Eurak jolas egiten zuten inguruan mojetako serora bizi zen eta ateratzen zuten zarategatik kexu izaten zen beti. Goian Zimmerman familia bizi zen. Egiten zituzten gaiztakeriak kontatzen ditu: sarraila-zulora ura bota, arropak kakaztu... Azkenerako errieta egiteari utzi eta onean baretu zituen umeak emakumeak.

976. Neskak eta mutilak elkarrekin jolasean kalean (ZUM-104/024)

Neskak eta mutilak elkarrekin ibiltzen ziren jolasean; "Tres navíos"-ka, kukuka. Kalean ibiltzen ziren denak elkarrekin. Gaur egun zeharo ezberdina da.

977. Izeben jostundegia (ZUM-104/026)

Izekok egiten zizkien arropak; batarenak bestearentzat moldatu, konpondu... Izebek jostundegia non zuten azaltzen du.

978. Senarra gudari eraman zuten hamabost urterekin (ZUM-104/027)

Senarra gurasoekin Bilbora joan behar izan zen ihesi, gerra garaian. Hamabost urterekin gudari moduan mendira eraman zuten borrokara. Kartzelan sartu zuten eta hamahiru hilabete pasa zituen han. Bere bizitzako zazpi urterik onenak galdu zituela esaten omen zuen: batean frontean, bestean kartzelan edo soldadutzan. Ofiziorik ikasteko betarik ez zuen izan eta gero lanik topatu ezin.

979. Lehenbiziko haurra izan zuenean senarra Ternuan (ZUM-104/029)

Urtarrilean ezkondu ziren. Ezkon-bidaia egin ostean, otsailean, Ternuara joan zen senarra. Pasaiatik irteten ziren. Bera haurdun zegoela etorri zen senarra, astebete pasatzera, eta gero berriz buelta. Umea jaio eta gero etorri zen

berriro. Saint Pierre et Miquelon-era bidaltzen zizkion eskutitzak. Umea jaio zenean, telefonoz abisatu zioten. Gabonak inguruan etortzen ziren, Pasaian barkua konpondu eta berriz Ternuara. Senarra kanpoan zenean izaten zituen burutazioak.

980. Itsasoa utzi eta "Stella Maris"era (ZUM-104/030)

Senarra Ternuan zenean, triste egoten zen bakarrik. Behin itsasoa uzteko eskatuz idatzi zion senarrari eta halaxe utzi zuen. Egiguren lantegian hasi zen lanean hasieran. Gero "Stella Maris"en, "Apostolado de mar". Zenbait apaizek sortu zuten "Stella Maris", eliza eta itsasgizonen arteko lotura egiteko. Ternuan zeuden arrantzaleekin telefonoz egoten ziren hizketan senideak eta bera hunkitu egiten zen, bere garaian ez zegoen halakorik eta. Bizimodua zenbat aldatu den.

981. Bakailaoa gazituta Ternuatik; bizimodu gogorra (ZUM-104/033)

Bakailaoa sarearekin harrapatzen zuten Ternuan. Gero gazituta ekartzen zuten barkuan. Itsasoko ura izoztean sortutako izotz-mendiekin kateatuta geratzen zen barkua batzuetan. Bizimodu gogorra ordukoa. Bizimodua zenbat aldatu den. Gaur egun, behar ez ditugun "kapritxo" asko ditugula dio.

982. Arrosarioa egunero erreztatu behar (ZUM-104/034)

Sei senide ziren. Amak Gabonetako kantak kantatzen zituen. Arrosarioa egunero erreztatu behar izaten zuten, txandaka. Aitonak ez zuen erreztatzen eztarria itxita zuelako eta berak ere horixe nahi.

983. Amak erakutsitako Gabon-kanta (ZUM-104/035)

Amak abesten zien Gabonetako kanta bat abesten du. Amaren lehengusu baten etxera joaten ziren Gabon-kantak entseatzera. Gabon-eskean irteten ziren.

984. "Franco! Franco!", deiadarrak kalean (ZUM-104/037)

Kalean `Cara al sol´ abestu behar izaten zuten eskua gora jasota. Gero "ahora veinte veces Franco" esaten zieten eta denek "Franco" deiadar egin behar.

985. Bakearen eta errespetuaren inguruko gogoetak (ZUM-104/038)

Bakearen inguruko gogoetak. Bakea beharrezkoa dela dio, norbere baketik hasita. Bere aholkua "inori ez gaitzik egitea". Telebistan eredu okerrak ematen dituztela dio. Errespetua behar da.

986. Kale-etxean hazia, baina abere eta soroekin (ZUM-104/043)

Gurasoena izan zen etxeko ganbaran prestatu zuten eurentzako etxebizitza eta bertan hazi zituzten hiru seme. Artoa eta babarruna izaten zituzten ganbaran, lehortzen. Bi behi, astoa eta txerria ere izaten zituzten. Aitak soroko lanak egiten zituen, baina etxetik kanpo ere lan egiten zuen etxera diru pixka bat ekartzeko. Amak ere lan egin izan zuen inoiz etxetik kanpo.

987. Amaren izaera eta aholkuak (ZUM-104/044)

Amaren izaera. Beti aholku hauxe ematen omen zuen: "ez oheratu behin ere inori gaitz eginaren damuarekin". Baserrietako emakumeak aholku eske etortzen omen zitzaizkion. Emakume berezia zen.

988. Erizain lanak ikasi behar ama eta aita zaintzeko (ZUM-104/046)

Bost urtez gaixorik egon zen ama; bi urtean ohetik jaiki gabe. Aita, berriz, bi urtez flebitisarekin egon zen gaixorik. Iñaxio Alvarez etortzen zitzaion injekzioak ematera. Lehengo "praktikanteak". Lehen etxeko sendagaiekin eta etxean sendatu behar izaten ziren gauza asko. Iñaxiok berari erakutsi zion injekzioak ematen eta handik aurrera denen erizain izan zen.

989. Iñaxio Alvarez eta Ixabel Antia (ZUM-104/048)

Jose Ajuria medikua etorri zitzairen etxera amari hemorragia eman zion batean. San Inazio ospitalera eraman zuten transfusioa egitera. Gero Iñaxio Alvarez eta Ixabel Antia joaten ziren euren etxera, bata egunez eta bestea gauez. Ixabel Antia baserrietara ere asko joaten zen. Lan asko egin zuen herrian.

990. 3R pelikulak zinean (ZUM-104/050)

Ez zegoen dirurik zinera joateko. Bi zine zeuden garai batean. 3R pelikulak. Zarautzen eta Donostian edo Zumaian sailkapen ezberdina izaten omen zuten pelikulek.

991. Osabak txitxarrota eta olagarrota (ZUM-104/052)

Osabak txitxarrota joaten ziren eta Adorak plazan saltzen zituen gero. Olagarrota ere joaten ziren. Bere semea ere joaten zen, eta zaletu egin zen. Amak lehortzen zituen hasieran olagarroak; gero berak. Eguraldi ona eta haizea dabilen lekua behar du olagarroa lehortzeko.

992. Olagarroak garbitu eta lehortzeko prozesua (ZUM-104/053)

Olagarroak ekartzen direnean, balde batean jartzen dira. Biharamunean ura aldatu eta, eskuekin igurtziz, ondo garbitu, lika kentzeko. Hurrengo egunean berdin. Eguraldiaren arabera, lehortzen jartzen da kanpoan. Puntua harrapatu behar zaio, larregi gorritzen bada, mamia erortzen zaio eta. Euliak ere zaindu behar izaten dira, azala egiten zaion bitartean.

993. Jendea lapatara, "ezina" zegoenean (ZUM-104/056)

Lehen, "ezina" zegoenean, jendea ez zen eskera joaten. Ahal zutena egiten zuten. Asko lapatara joaten ziren. Lapekin arroza nola prestatzen zen. Lapa azalak balkoitik behera botatzen zituzten. Lapa arrokan kateatuta zegoenean, zaila izaten zen askatzea; hobe uretan. Lapak, "maurlixuak", "txuaskiñak" eta nekorak. Gaur egun denok aberats bizi garela dio.

994. Ataungo San Gregorio auzoa; umetatik elizari lotua (ZUM-105/002)

1936an jaio zen Ataunen, San Gregorio auzoan. Auzoa oso inportantea zen eurentzat, bertan zutelako bizitzeko behar zuten guztia: eskola, lagunak... Denetarik zegoen auzoan bertan. Bederatzi senide ziren, bera erdikoa. Euren etxea elizari itsatsita zegoen eta euren ganbara elizaren sakristia zen. Beraz, umetatik elizari oso lotua egon da.

995. Umetako bizimodua San Gregorio auzoan (ZUM-105/003)

Gurasoak baserrikoak izan arren, eurak kalekoak ziren. Orduan oso garrantzitsua izaten zen menditik sutarako egurra ekartzea. Ahuntzen bat ere izaten zuten. Eskolara joan aurretik hura larrera eraman behar. Neskak eta mutilak aparte ibiltzen ziren eskolan. Maisua bertakoa zuten. Umetako jolasak; udaran errekan.

996. Umetako jolasak: pilotan, harrika, txori habia bila (ZUM-105/004)

Umetan neskek eta mutilek jolas desberdinak egiten zituzten. Mutilak gehienbat frontoian pilotan. "Txintxinean", egur zorrotzak lurrera botaz egiten zuten jolasa. Borrokan. Harrika. Txori habiak bilatzen ere ibiltzen ziren.

997. Elikagaiak trukean (ZUM-105/005)

Fruta-lapurreta ohikoa izaten zen. Denda ere bazuten auzoan, baina orduan erosi gutxi egiten zen, trukean izaten zen dena. Kalekoak izan arren, txerria eta oiloak izaten zituzten.

998. Osabaren eraginez, seminaria (ZUM-105/006)

Familian hainbat apaiz zituen. Osabaren eraginez, hamaika urterekin Saturrarango seminaria joan zen. Sei lagun joan ziren urte hartan Ataundik. Parrokoaren maleta hartuta nola joan zen kontatzen du. Koltxoia ere beraiek eraman behar izaten zuten. Goierritik autobus bat joan omen zen beteta.

999. Saturrarango seminarioan ohitzea kosta hasieran (ZUM-105/007)

Saturrarango seminaria joan zenean, kosta egin zitzaion ohitzea hasieran, han diziplina zorrotza jarraitu beharra zegoelako. Ikasteaz gain, pilotan, futboleko edo hondartzan ibiltzeko aukera izaten zuten. Futbol txapelketak ere egiten zituzten. Oroitzapen onak ditu. Sei urte egin zituen han.

1.000. Saturrarango seminarioan sei urte (ZUM-105/008)

Saturrarango seminarioko egunerokoa nolakoa zen. Bera seminarioan hasi zen urtean Gipuzkoako (eta inguruko) 92 mutiko hasi omen ziren batera. Hasieran Gasteizen zegoen gotzain bakarra eta hiru urte egindakoan hango seminaria joaten ziren denak. Baina euren sasoian erabaki zuten Gipuzkoan eta Bizkaian ere gotzainak jartzea, euren seminarioekin. Donostian seminaria bukatu gabe zegoen eta horregatik egin zituzten eurak sei urte Saturraranen.

1.001. Saturrarango seminarioko bizimodua (ZUM-105/009)

Saturrarango seminarioko eguneroko bizimodua. Isiltasuna izaten zen nagusi. Bazkalondoan kirolerako tartea izaten zuten. Gero berriz klaseak. Iluntzean

meza eta arrosarioa. Asko kantatzen zuten. Igandetan denbora gehiago izaten zuten libre. Kultur-ekitaldiak ere izaten zituzten: pelikula edo antzerkiren bat, korua, kontzerturen bat...

1.002. Andoni Basterretxea apaiza, euskal kanten bultzatzaile (ZUM-105/010)

Saturrarango seminariotik mendi aldera irteerak ere egiten zituzten. Andoni Basterretxea irakaslearen oroitzapen oso onak ditu: pedagogo oso ona, naturazalea, euskal kanten bultzatzailea... Gipuzkoan euskal kantuen zaletasuna hari esker sortu zela uste du, eurak han ikasi eta gero lagunaren artean zabaltzen zituztelako. `Boga, boga´ izeneko kantu-liburua ere kaleratu zuten gero.

1.003. Saturrarango seminariotik Donostiakora kontraste handia (ZUM-105/011)

Seminarioko lagunak urtero elkartzen omen dira eta denek Saturrarango oroitzapen ona dute: pedagogia ona, irekia, naturarekin harremanetan... Donostiako seminariora joan zirenean, kontrastea handia izan zen. Pedagogia aldetik ere, atzerakoiagoa zen hangoa. Politikak ere eragina izan zuen eta Francoren aldeko irakasleak jarri zituzten. Beste sei urte egin zituen han eta bertan apaiztu zen.

1.004. Apaizen ezkutuan merienda jan zuten baserri batean (ZUM-105/012)

Saturrarango seminariotik Galdonamendi aldera joan ziren batean, baserri batera joan eta merienda jan zuten ezkutuan. Baina apaizek jakin egin zuten kontua eta sekulako sermoia bota zieten.

1.005. Seminarioan jatekoa urri (ZUM-105/013)

Seminarioan ez zuten ondo jaten, gose urteak ziren eta. Andra Mariaren egunean bakoitza bere herrira joaten zen sotana jantzita eta "eskea" egiten zen. Babarruna biltzen zuten batez ere eta hari esker jaten zuten. Egunero babarruna.

1.006. Donostiako seminarioan greba egin zutenekoa (ZUM-105/014)

Donostiako seminarioan gosea pasatzen zuten. Gurasoek, bisitan zetozenean, jatekoa ekartzen zieten. Behin greba egitea erabaki zuten eta afaldu gabe kalera irten ziren. Apaizgaiek greba egin zutela-eta albistea zabaldu zen. Eurak apaiz egiteko zeuden orduantxe.

1.007. Franco Donostiako seminarioaren inaugurazioan (ZUM-105/016)

1953an ireki zen Donostiako seminarioa eta Franco etorri zen inauguraziora. Seminarioa frankismoak "kutsatua" zegoela dio. Gero ondorioak ere halakoak izan omen zituen. Aita santuaren ordezkioak apaiztu zituen eurak eta hura ere zeharo frankista ei zen.

1.008. Hogeta hiru urterekin Gaintzara apaiz (ZUM-105/017)

Filosofia eta teologia ikasi zituzten seminarioan. Apaiztu zenean, 23 urterekin, Gaintzara bidali zuen obispoak. Apaiz-etxe dotorea zuten. Hamabost urteko

ahizpa eta biak joan ziren. Bost urte egin zituzten han. Bera esperientziarik gabea zen, baina herritarrentzat bera, berriz, pertsona inportantea, apaiz izateagatik bakarrik.

1.009. Dantza lotua bai/ez arazo gogorra Gaintzan (ZUM-105/018)

Ondo konpontzen zen Gaintzako gazteekin, baina dantza lotua bai/ez arazo gogorra izaten zen. Bere aurretik Gaintzan zegoen apaizak Joanito herriko jaiak baino lehen joatea nahi izan zuen, berak gazteei dantza lotua debekatu egiten zuelako eta aurreko urteetan arazoak izan zituelako.

1.010. Zumaian bertako parrokiako ohiturei segi behar (ZUM-105/022)

29 urterekin joan zen Zumaiara apaiz. Hiru-lau apaiz zituen bere aurretik eta parrokiako ohiturak ere oso zehaztuak zeuden. Berak ohitura haiek jarraitu besterik ez zuen; ez zeukan erabakirik hartzerik. Gazteen ardura eman zioten berari; luistarrak.

1.011. 60ko hamarkadako "leherketa" politikoa eta kulturala (ZUM-105/023)

60ko hamarkada politikoki gogorra izan zen; tartean, ETaren sorrera. Donostiako seminarioa frankismoarekin "kutsatuta" egon zen bere sorreran, baina handik hamar urtera dena hustu eta beste muturrera jo omen zuen, ia ETaren "habia" bihurtuz. Orduko idealak: marxismoa, klase-borroka, langileen eskubideen defentsa, Euskal Herria askatzea, sozialismoa eta iraultza. Aldaketa garaia zen: bertsolaritza indartu, euskara batua sortu, ikastolak... Elizan Vaticano kontzilioak ere beste askatasun bat ekarri zuen.

1.012. `Eusko Gaztedi´ren sorrera; apaiz gazteen mugimendua (ZUM-105/024)

Espainia mailako "Juventud Acción católica rural" taldean ibiltzen ziren, baina Espainiarekin haustea erabaki zuten eta orduan `Eusko Gaztedi´sortu zuten. Apaiz gazte askoren mugimendua izan zen. Hortik, parrokia utzi eta fabrikari lanean hastea etorri zen. Bera Torreaga fundizioan hasi zen lanean. Aldaketa handia izan zen. Giroak bultzatutako mugimenduak izan ziren. Bera `Eusko Gaztedi´ko lidertzat hartzen omen zuen askok, baina bat gehiago besterik ez zela dio.

1.013. Apaiz ugari atxilotuta; bera ozta-ozta libratu (ZUM-105/025)

`Eusko Gaztedi´taldean apaiz talde bat elkartzen ziren eta eztabaidak ere izaten zituzten. Poliziak atzetik izan zituen Joanitok, baina ez zuen atxilotu. Gero jakin zuen obispoak ez zuela eman baimenik bera atxilotzeko. Jacinto Argaya obispoa. Elizaren indarra. Bilboko obispoak atxilotutako apaizen alde egin zuen eta Francok estatutik bidali egin nahi izan zuen.

1.014. Ikastolaren bitartez bertsoen mundura (ZUM-105/026)

Fabrikari lanean zebilela, bihotzekoa eman zion. Ikastolen sorreran ibilia zen ordurako eta, lantegirako ez zenez gai, ikastolako zuzendariak hango administrazioan lana eskaini zion. Ordurako kantak erakusten ibiltzen zen ikastolan eta baita Bizkaiko ikastoletarako `Saioka´ izeneko testu-liburua

idazten ere. Liburu horretan bertsoak eta poesiak sartzeari ekin zion. Bertso munduko bilera batzuetan parte hartu zuen eta, bere lana ikusirik, ikasletoetan bertsoak erakutsi ahal izateko antologia bat egiteko eskatu zioten. Zabalak bertso asko zuen bilduta ordurako, baina berak jarraipena eman zion lan horri.

1.015. Gaintzan piztu zitzaion bertsotarako zaletasuna (ZUM-105/027)

Gaintzan eta inguruetan bertsotarako zaletasun handia zegoen eta bertan apaiz zegoela sortu zitzaion berari ere zaletasuna. San Migeletan bertso-saioa antolatzen zuten; 'Basarri', 'Uztapide' eta Lasarte izaten ziren bertsolari ohikoenak. Gazteak puntuka ere ibiltzen ziren tabernan eta euren arteko txapelketa ere antolatu zuten. Zumaian ere egiten zuten puntutan lagunartean eta txapelketak ere antolatu zituzten luistarretan.

1.016. 'Bertsotan', bi liburuki (ZUM-105/029)

Lau bat urte pasako zituela 'Bertsotan' liburua osatzen uste du. Eskuz idazten zuen dena, atal desberdinak kolore desberdinetako boligrafoekin bereiziz. Gero doinuak. Bi liburukitan argitaratu zen azkenean lana, Ikastolen Elkartean.

1.017. Bertso-doinuen sailkapena egiten buru-belarri (ZUM-105/030)

Lehenengo 'Bertsotan' liburua prestatzen ari zela ohartu zen bertso-doinuak sailkatzea ere interesgarria litzatekeela. Lehen liburukian dagoeneko 110 doinu sartu zituen, sailkatuta. Lan horretan jardun du ordutik.

1.018. Bertsolaritzaren inguruko mugimenduak 1981 inguruan (ZUM-105/032)

1981 inguruan 'Bertsotan' liburua kaleratu ostean beste mugimendu batzuk etorri ziren: eskola arteko txapelketak, irakasleentzat 'Bertsotan' liburuaren gida bat prestatzea, irakasleentzat ikastaroak... Gipuzkoako Foru Aldundian bertsolari bat liberatzeko ere eskatu zuten. Zumaiaiko bertso-eskola giro horretan sortu zen.

1.019. Eskola arteko txapelketen hasiera (ZUM-105/034)

Eskola-arteko txapelketen hasiera. Arrasatekoek piztu omen zuten "txispa"; Patxi Goikolea zebilen han. Santutxun, berriz, Jose Ramon Etxeberria zebilen, baina han eskoletan sartu gabe oraindik. Gipuzkoan Mikel Mendizabal bertsolaria liberatu zuten. Nortzuk ibili ziren hasierako mugimendu horretan. Hasierako txapelketetako epaimahaia nortzuk osatzen zuten. Ikastolen barruan sortu zen hasierako mugimendu hori; bertso-eskolak gerora sortu ziren.

1.020. Umeei bertsoak irakasteko ideia nondik sortu zen (ZUM-105/036)

Berak ikastolako lan-orduen barnean ematen zizkien bertso-eskolak umeei, baina hori ez zen ohikoena. Normalean eskolaz kanpoko orduetan izaten ziren. Eskoletan larunbat goizak jai egiten hasi zirenean sortu omen zitzaien umeei bertso-eskolak emateko ideia Arrasateko Almen ikastetxeko zenbait kideri.

1.021. Baserrian, dena eskulana (ZUM-107/004)

Endañeta baserri handia zen; senide asko ziren, baina denen beharra izan omen zen. Eskolatik etxeratutakoan, baserriko lanetan lagundu behar izaten

zuen. Soroko lana: lehen, aitzurrarekin eta ganaduarekin prestatzen zuten lurra... Artoa, garia, patata... landu ohi zituzten. Ganaduarentzako azpigarriak menditik ekarri behar izaten ziren...

1.022. Jatorduak (ZUM-107/005)

Joxe Manuelen haurtzaroko urteak, gose urteak izanagatik, baserrian ez zuten goserik ezagutu. Amak prestatzen zuena jan behar izaten zen. Babarruna, patata, oiloa, untxia, arroz-esnea, flana... egin ohi zituen amak.

1.023. Eskola eta dotrina Zumaian (ZUM-107/007)

Eskola garaiko kontuak. Eskolan eta dotrinan Zumaian ibili zen. Komunioa Zumaiaiko parrokian egin zuen. Bere gurasoen garaian, elizako kontuak Itziarren egiten omen ziren. Eskola non zegoen azaltzen du; mutilek ez zuten uniformerik erabiltzen, neskek bai. Itziartik oinez jaisten ziren Zumaiaara; gero, izebaren etxean bazkaltzen zuten.

1.024. Igeltsero lanetan hasi (ZUM-107/008)

14 urterekin hasi zen igeltsero lanetan. Zumaiaiko lantegietan ba omen zen gazteentzako lana, baina Joxe Manuelek obrako lanetan aritzeko gogoia zuen. Lanetik baserrira bueltatutakoan ere lanean jarraitu behar izaten zuen; ganajatekoak prestatzen, ukuilua garbitzen...

1.025. Jaiotzetik harri-jasotzeko afizioa (ZUM-107/009)

Harri-jasotzen nola hasi zen. Harri-jasotzeko afizioa jaiotzetik ekarri zuela dio Joxe Manuelek; irratian entzuten zituen harri-jasotzaileei buruzko kontuak, baserrian pentsu-zakuak jasotzen aritzen zen... Anaia zaharragoak asko laguntzen zion, baina gurasoek ez zuten nahi harri-jasotzen ibil zedin.

1.026. 'Urtain' vs 'Endañeta' (ZUM-107/010)

Harri-jasotzaile eta herrien arteko pikeak. Arroa aldeko jendeak Urtainen alde egiten zuen, eta Itziar-Zumaia aldeko jendeak bere alde. 125 kiloko harri kubikoa altxatzeko apustua egitekoak ziren, baina Urtainek eskuan min hartu zuen 15 egun lehenago, eta bertan behera geratu zen kontua. Gero, Joxe Manuel soldadu joan zen, eta denbora horretan Urtainek harri-jasotzeko apustua egin zuen Eibarko Gallastegirekin. Apustu hura irabazita, sona handia hartu zuen Urtainek. Biak soldadutzatik bueltatu zirenean, saiatu ziren elkarren kontra apusturen bat egiten, baina ez ziren adostasun batera iritsi.

1.027. 21 apustu harri-jasotzen (ZUM-107/012)

21 apustu egin zituen harri-jasotzen. Soarteren kontra jokaturako apustu bati buruz hitz egiten du. Harri txikiarekin bai, baina harri handiarekin ez zuen parekorik; arerioei abantaila eman behar izaten zien.

1.028. Lau apustu Mendizabalen kontra (ZUM-107/013)

Gero, Mendizabal Villabonako harri-jasotzaile gaztea agertu zen. Haren kontra lau apustu jokatu zituen; Endañetak irabazi zituen laurak. Lau apustuei buruzko azalpenak ematen ditu.

1.029. Hiru apustu 'Aritza'ren kontra (ZUM-107/014)

Sondikako Aritza harri-jasotzailearekin ere hiru apustu jokatu zituen Endañetak. Bat, Endañeta 200 kiloko harriarekin eta Aritza 185

kilokoarekin. Esku batekin ere jokatu omen zion beste bat. Bizkaia aldean apustuak egindakoa da Endañeta, baina apustu gehienak Azpeitian jokatu izan ditu.

1.030. 150 kiloko kubikoa esku bakarrarekin (ZUM-107/015)

Endañetak egindako marka bat hautsi gabe dago oraindik. Apustua: Endañeta 150 kiloko kubikoa esku bakarrarekin, eta Aritzak, berriz, 150 kiloko zilindroarekin. Endañetak 25 jasoaldi egin zituen; Aritzak, ostera, 21.

1.031. Entrenamenduak eta elikadura (ZUM-107/016)

Entrenamenduei buruzko azalpenak: astean bitan entrenatzen zen; gainerakoan, sokasaltoan, mendian ibili... ohi zen. Elikadurari buruzko azalpenak: zer jaten zuen, zerk egiten zion kalte... Asko jateak indarra ematen zuenaren ustea zegoela dio. Lehen, apustuatarako entrenamenduak ezkutuan egiten ziren. Hasieratan, Orioko Atxagarenaga joaten zen entrenatzera. Gero, baserrian, anaiei laguntzarekin entrenatzen hasi zen.

1.032. Plazako giroa (ZUM-107/017)

Harri-jasotze apustuak. Plazan sortzen zen giroari eta apustuei buruz hitz egiten du. Azpeitia, Azkoitia, Asteasu, Aia, Elgoibar eta Eibarren harri-jasotzeko "kristoren giroa" egoten omen zen. Bizkaia aldean gutxiago.

1.033. Apustuen berri ematea (ZUM-107/018)

Harri-jasotze apustuak La Voz de España eta El Diario Vasco egunkarietan eta irratan iragartzen zituen Basarrik. Plazak leporaino betetzen omen ziren. Plazara sartu aurretik apustu ugari egiten omen zen; plazan ere artekariak ibiltzen ziren. Apustuak: hiru zazpiko edo hiru hamarrekotako tandak izaten ziren. Lehengo apustuak eta oraingoak alderatzen ditu.

1.034. Apustu gogokoenak (ZUM-107/021)

Berak jokatutako harri-jasotze apustu gogokoenak zein dituen kontatzen du. Lehen, harrien pisua arroatan neurtzen zen; arroak 12,5 kilo pisatzen ditu.

1.035. Jendearen afizioa (ZUM-107/024)

Garai batean, harri-jasotzeko afizio handia zegoen. Jendea Endañeta baserrira joaten omen zen harriak probatzera.

1.036. Harri-jasotzearen jatorria (ZUM-107/026)

Harri-jasotzearen historiari buruzko azalpenak. Lastur, Itziar eta Mutriku inguruetan kokatzen ditu lehenbizi agertu ziren harri-jasotzaileak. 1925. urteko datuak aipatzen ditu: Arteondo eta Aritzaren apustuei buruzko datuak. Garai bateko hainbat harri-jasotzaile aipatzen ditu: Soarte, Baldomin, Atxaga, Manterola, Urtain... Baserriko giroan kokatzen du hasierako harri-jasotzea.

1.037. Harriak, harrobiak eta harginak (ZUM-107/027)

Harria eta harrobiak. Harri motak eta ezaugarriak. Harri karaitza: harri zuria, harri handietarako bolumen handia hartzen du... Lasturgo harrobiko harri karaitza erabili izan du. Harri beltza: astunagoa, 200 kilotik gorako harrietarako. Harri beltza Zumarragako harrobitik ateratzen omen zen. Garai batean hargin ugari zegoen. Endañetaren garaiko hargina: Langa. Lehen, eskuz ateratzen zuten harria.

1.038. Harri-jasotzeko arropak (ZUM-107/028)

Harri-jasotzeko zer arropa erabiltzen zuen azaltzen du: txalekoa, galtzak, sorbalda eta izterreko babesgarriak... Hanka-hutsik ibiltzen zen harri-jasotzen. Harria lagatzeko, berriz, bere aurrekoek hondar zakuak edo ohola erabiltzen zuten. Gero, bera hasi zen automobileko "kubierta" erabiltzen. Eskuetan eta txalekoan erretxina ematen zuten.

1.039. Hastapenak eta lehenengo harria (ZUM-107/029)

Hastapenak. Harri-jasotzen hasi zenean etxeokoei zer esaten zioten. "Lehendabizikotikan gure amak kristoren disgustoa" hartu zuela dio. 15 urte zituela, lehenengo harria nola lortu zuen kontatzen du. Baserriko lanak egin eta gero, anaia zaharrena eta bera harria jasotzen ibiltzen omen ziren. Harriaren arropak puskatzen zituzten, eta amak errieta egiten zien.

1.040. Azken urteak (ZUM-107/031)

33 urte zituela ezkondu zen. Emazteak ez zuen nahi bera harri-jasotzen ibil zedin, eta horrela, utzi zion harri-jasotzeari. 20 urterekin jokatu zuen lehenengo apustua, eta 34 urterekin utzi zuen harri-jasotzea. 40 urtera arte, ordea, erakustaldiak ematen aritu zen.

1.041. 1969an, 'Espainiako gizonik indartsuena' (ZUM-107/036)

1969an Espainiako gizonik indartsuena indar proba irabazi zuen. Espainiako telebistak antolatutako lehiaketa bat zen. Langa harginarekin joan zen Madrilera. 15 egun, 10 parte-hartzaile, sei proba... Zer proba egin behar ziren azaltzen du. Lehiaketa hura irabaztea lagungarria egin zitzaioen erakustaldi gehiago egiteko.

1.042. Apustuak eta kontratuak (ZUM-107/038)

Apustuak asteburuetan jokatzen ziren. Prentsaren bidez iragartzen ziren harri-jasotzeko apustuak. Harri-jasotzaileek kontratu bat sinatzen zuten, baldintzak zehazteko: zer harri, nolako tandak... Sariak oso gutxitan izaten ziren. Lehen ez zen txapelketarik antolatzen.

1.043. Harrobiak eta harria (ZUM-107/039)

Harrobiak. Lastur, Mutriku eta Zumarragako harrobiak ditu hizpide. Harria nola ateratzen zen kontatzen du. Harria nola aukeratzen zuen, eta nola mugitzen zuten. Harginak astebete behar izaten zuen harriari forma emateko, eskuz egiten zuten lana.

1.044. Plazako giroa eta bertsolariak I (ZUM-107/040)

Erakustaldiak. Furgoneta edo kamionetan eramaten zuten harria. Anaiak lagundu ohi zion. Bere garaiko bertsolariak epaitzen ditu. Plaza askotan egiten

zuen topo haiekin, eta enbidia handia zien mikrofono aurrean jarri eta kantatu besterik ez zutelako egin behar. Berak harriarekin atzera eta aurrera ibili behar izaten zuen. Bertsolariek erakustaldi ondorengo bazkarietan eta sortzen zuten giroari buruz hitz egiten du.

1.045. Plazako giroa eta bertsolariak II (ZUM-107/041)

Bertsolaritzari buruz hitz egiten du. Lehengo giroa eta oraingoa alderatzen ditu. Gustuko bertsolariak. Herri-kiroletan eta bertsotan ibiltzen zirenen arteko harremana.

1.046. San Pedro Akondia ezkondua (ZUM-108/001)

Zumaian jaioa. Senarra Txitxarro dantzalekuan ezagutu zuen eta Eibarko San Pedro Akondia baserrira ezkondu zen. San Pedro ermitako serora da.

1.047. Lehen San Adrian ermita, orain San Pedro (ZUM-108/002)

Akondia baserriaren ondoan dago San Pedro ermita. Lehen San Adrian deitzen zitzaion, baina, gerra garaian, ermita suntsitu eta berreraikitzerakoan, Arratetik San Pedoren irudia ekarri zen.

1.048. San Pedro eguna (ZUM-108/003)

Mandiola bailaran dago euren baserria. San Pedro egunaren ospakizunean, baserritarrak eta kaletarrak biltzen dira. Mari Josek hamaiketakoa ateratzen du mezaren ostean. San Pedro eguna astean zehar tokatzen bada, hurrengo igandean ospatzen da.

1.049. San Pedro ermitaren jabea: eliza (ZUM-108/004)

San Pedro ermitaren jabea eliza da. Senarra hil aurretik beraiek mantentzen zuten ermita. Ostera, elizari eskatu diote teilatua konpontzea, baina oraindik ez dute egin. Barruan fresko dago urte osoan eta uztak gordetzeko erabili izan dute.

1.050. San Pedro ermita, gerran fronteko trintxera (ZUM-108/005)

San Pedro ermita XVI. mendekoa da eta XIX. mendean konpondu zeneko idatzi bat dago horman. Gerra garaian, teilatua jausi egin zen eta paretak geratu ziren zutik. Ermita trintxera bezala erabili zen, frontea bertan zegoelako. Horman zuloak ikus daitezke. Noizean behin balak azaltzen dira baratzean eta baita bonbak ere. Ertzaintza joaten da bonbak leherraraztera.

1.051. San Pedro ermitako konponketa-lanak (ZUM-108/006)

XIX. mende bukaeran berritu zen San Pedro ermita, ustez haize bolada batek eragindako kalteengatik. 2017an izandako elurte gogor batek teilak mugitu zituen eta ermitara ura sartzen da.

1.052. Akondia baserria, San Pedro ermitaren serora etxea (ZUM-108/007)

Akondia baserria, serora-etxe bezala eraiki zen. Txikia zen, baina urteekin handitzen joan da eta jatorrizko etxearen planta, paretetan ikus daitezke.

1.053. Akondiako "konjurua" (ZUM-108/008)

San Pedro eguneko ospakizunean, meza, hamaiketako eta batzuetan soinu-jotzailea egoten dira. Apaizak, "Akondiako konjurua" egiten du, bailarako baserri eta zelaia bedekatzuz. Eguraldi txarra saihesteko erritua da.

1.054. San Pedro Akondia ermitako apaizak (ZUM-108/010)

San Pedro Akondiako ermitan, lehen Aginagako apaizak ematen zuen meza. "Konjurua" latinez egiten zuen. Gaur egun, Eibarko parrokiako Xabier abadeak ematen du meza eta erritua dena euskaraz. Eibarko abesbatzako emakume batzuk ere egon izan dira kantatzen.

1.055. San Pedro eguneko prestaketa-lanak (ZUM-108/011)

Goizean zehar egiten da San Pedro eguneko ospakizuna. Koinata eta bere familia joaten dira prestakizunetan laguntzera: dena garbitu, loreak moztu, mahai-zapiak garbitu eta lisatu, aulkiak jarri, hamaiketako prestatu... Hamaiketako Eibarko Udalak ordaintzen du.

1.056. San Pedro eguneko meza ermita kanpoan (ZUM-108/012)

Urte batean San Pedro eguneko meza ermita kanpoan eman zen. Dena nola prestatu zuten azaltzen du Mari Josek.

1.057. San Pedro Akondia ermitako serora (ZUM-108/013)

Amaginarrebarengandik eta koinatarengandik ikasi ditu Mari Josek serora-lanak zeintzuk diren. Garai batean, hamaiketako apaizari bakarrik ematen zitzaion eta bera hasi zen hurbiltzen zen jendearentzat ere ateratzen. Ordutik, Udalak ordaintzen ditu gastu horiek. Adin guztietako jendea hurbiltzen da urtero. Soinu-jotzailea ere egon da azkenengo urteetan.

1.058. San Pedro Akondia ermitako apaingarriak (ZUM-108/014)

Meza emango duen apaizak ekartzen ditu ermitara jaunartzea egiteko kopa, kandelak eta ganderailuak. Lehen, Aginagako serorak hango elizatik ekartzen zituen. Aspaldi eserleku luzeak zeuden, baina gaur egun Udalak eserlekuak igotzen ditu urtero.

1.059. Erramu bedekatuak eta San Juan sua (ZUM-108/017)

Erramu eguneko erramu bedekatuak, baratzean eta baserriko, kortako eta San Pedro Akondia ermitako atean jartzen ditu. San Joanetan, erramu guztiak eta urtean zehar ermitan egon diren loreak sutan erretzen dituzte eta lehen aititak orazio bat kantatzen zuen.

1.060. San Pedro Akondian erromeria (ZUM-108/019)

Usartzako erromeriak hasi aurretik, San Pedro Akondiako ermita inguruan egiten zirela kontatu izan diote Mari Joseri. Taberna ere ba omen zegoen.

1.061. San Pedro Akondia ermitako kanpaia (ZUM-108/021)

San Pedro Akondia kanpaia jotzen du Mari Josek. Gerra denboran, kanpaia Astelena frontoira eraman zuten. San Pedro egunean eta bezpera egunetan, kanpaia jotzen du.

1.062. Andirao Eibarko baserritarren elkarte (ZUM-108/022)

Baserritarrek Arraten elkarte daukate eta bertan egiten dituzte bilerak. Andirao elkarteak baserritarren kezkak eta eskaerak Udalari helarazten dizkio.

1.063. San Pedro Akondia mezak urteetan iraungo du (ZUM-108/024)

San Pedro Akondia jai egunean jende asko biltzen denez, askok meza ermita kanpotik entzuten dute. Boluntario asko egoten da hamaiketakoan eta prestaketetan laguntzeko. Mari Josek dio bera bertan dagoen bitartean, ez dela ospakizunaren ohitura galduko.

1.064. San Pedro Akondia ermitako apaizak II (ZUM-108/025)

San Pedro Akondian, apaiz ezberdinak ezagutu ditu Mari Josek. Lehenengoa, Arrateko abade izan zen On Pedro izan zen. Apaizei hamaiketako ematen zaie. Mezako eskean lortzen den dirua, apaizak Mari Joseri ematen dio.

1.065. Uda partean iturburuak lehortzen dira (ZUM-108/027)

Akondia baserri inguruko iturburuak abuztu partean lehortu egiten dira. Lehen arazo larria zen. Pertsona bat joan zen urtean zehar ura non zegoen begiratzeko eta motoponpa bat jarri zuten bertan.

1.066. San Pedro Akondian maiatzeko loreak; kantak (ZUM-108/029)

Maiatzeko loreen orazioa kantatzen du Mari Josek. Loreak bizilagunari eskatzen dizkio. San Pedro egunean, Arrateko amaren kanta abesten da eta auzoko batek latinez ere abesteko ohitura dauka.

1.067. San Pedro Akondia ermita, meza emateko baimendua (ZUM-108/031)

Ez dago ohiturarik San Pedro Akondia ermitan eskaintzarik egiteko, baina bizilagun batek urtero kandela bat eramaten du, aldarean jartzeko. Argimutilla, mahai-zapia, txilina eta atrila baserrian gordetzen dira. Aldarean zulo bat dago eta barruan dokumentu(ren) bat, ermitan meza ematen direla baimentzen duena

1.068. San Pedro Akondia ermitan, lehen meza bizkarrez (ZUM-108/036)

San Pedro ermita garai batean meza bizkarrez emateko zegoen prestatuta. Mari Josek aldarea jarri eta ohitura hori aldatu zuen

1.069. Oikian jaioa (ZUM-110/002)

Aurkezpena. Oikian jaio zen, Lizarraga baserrian ('Txominene' bezala ezagunagoa). Guraso biak ziren oikiarrak. Umetan baserriko lanak egin behar izaten zituen. Asko aldatu da Oikia. Txikitan bertako eskolan ibili zen baina gutxi, Zumaia bizitzera joan baitziren. Udako oporrak Oikian pasatzen zituzten. Oikiarrek nortasun propioa dute. Garai batean egon ziren Oikia herri bihurtzeko saiakerak.

1.070. Oikiatik Zumaiarako bidea oinez (ZUM-110/004)

Ez du gogoan oikiarren eta zumaiaarren arteko pikerik. Oinez egiten zuten batetik besterako bidea. Gutxi batzuetan trenean ere ibiltzen ziren. Gauetz ere trenbidetik oinez eta argirik gabe moldatzen ziren.

1.071. Garai bateko Oikia (ZUM-110/005)

Oikian taberna bakarra zegoen, plazan, gaur egun bezalaxe. Dendarik ez zegoen; Zumaia edo Zarautzera joan behar izaten zuten erosketak egitera. Umetan plazan jolasten zuten. Beraien baserria bertan zegoen gainera. Lehen frontoia ere bazen, asko jolasten zuten pilotan. Eskola ere plazan zegoen eta adin desberdinetakoak batera egoten ziren. Angelita Zinkunegi zumaiaarra zen maistra.

1.072. Lehen dena erdaraz (ZUM-110/006)

Oikiako eskolan gazteleraz ikasten zuten. Gerora ere ikasketa guztiak hizkuntza horretan egin zituen Agustinek. Denborarekin euskaraz egiteko ohitura galdu ere egin zuen. Egunkarian argitaratzen ziren euskarazko kronikak irakurtzera behartzen zuen bere burua. Lagunen artean euskaraz egiten bazuten ere, gaztelerara jotzeko erraztasuna zeukaten. Gaur egun kosta egiten zaio erdaraz egitea.

1.073. Eskola eta seminarioa (ZUM-110/007)

Ubillos jauregian kokatzen zen mesedeetako fraideen eskolan ikasi zuen, 12 urterekin seminaria joan arte. Tratua beti ona ez zen arren, berak asko ikasi zuen. Garai haiek gaur egungo begiradarekin epaitzeak zentzurik ez duela uste du. Kale Nagusian zeukaten etxea (orduan Ignacio Zuloaga kalea). Kale berean amak janari denda ireki zuen. Agustinek seminarioa amaitua zuen ordurako eta hasieran dendan laguntzen egon zen. 12 urterekin sartu zen seminarioan eta 17rekin atera. Izatez Donostian zegoen seminarioa, baina ikasle guztiak sartzen ez zirenez, lehen urtea Saturraranen egin zuen. 90 lagun joan ziren; haietatik 30 inguru egin ziren apaiz.

1.074. Zumaiaiko parrokiaren eliz mutil (ZUM-110/008)

Eliz mutil ibili zen Zumaiaiko San Pedro parrokian. 7 urterekin hasi eta 12 urtera arte ibili zen (seminaria joan zen arte). Orduan oso ohikoa zen; elizara igandero joaten ziren. Orduko haurrek elizan ikasten zuten kantatzen. Seminaria ere pixka bat bultzatuta joaten ziren orduan. Akolito bakoitzak apaiz bat izaten zuen arduradun. Paga txiki bat izaten zuten. Agustinek parrokiarekin lotura handia izan du.

1.075. Kanturako zaletasuna txikitatik (ZUM-110/010)

Umetan, akolito zebilela, elizako koruan kantatzea nahi izan zuen baina apaizak ez zuela ondo abesten erantzun zion. Seminaria joan zenean, berriz,

lehenengo egunetik solista ipini zuten. Gerora Zumaiaiko koru guztietan ibili da, kantari nahiz zuzendari. Korurako "kaptazioa" tabernetan egiten zen orduan.

1.076. San Pedro abesbatza (ZUM-110/011)

Parrokiko San Pedro abesbatza. Kantari moduan sartu zen eta zuzendari izaten bukatu zuen. Bankuko bere lanagatik ohituta zegoen agintzen eta erabaki azkarrak hartzen. Hasieran gizonak bakarrik ziren koruan eta 45 partaide inguru ziren. Zumaiaiko koruak fama zeukan. Karlos Gorostola Urbietazkoitiarra zen zuzendari. Geroago Jeronimo Egaña Goikoetxea egon zen eta azkenik Agustin. Elizan bertan entseatzen zuten. 1984an kanpora ateratzen hasi ziren, erreperitorioa aldatzen... Gipuzkoako koru ia guztiak elizatik sortu dira.

1.077. Beheko Plaza jubilatuen abesbatza (ZUM-110/012)

Beheko Plaza abesbatzak irabazi izan ditu lehiaketak. Valentin Manterola zuzendari zela, bi aldiz irabazi zuten Madrileko txapelketa. Agustin zuzendari zela Gipuzkoako txapelketa irabazi zuten. Koru honetako zuzendari izatera nola iritsi zen. 33 urte eman ditu horretan. Gabon koruan ere zuzendari.

1.078. Zuzendari zorrotza (ZUM-110/013)

San Pedro abesbatza eta Beheko Plaza abesbatza zuzentzen. Bakoitzaren erreperitorioa egokitu behar da. Jubilatuen koruan sartu zenean hasieratik aldaketak egin zituen. Zuzendari gogorra zela esaten zuten baina horri esker lortu dute lan ona egitea eta kantuan disfrutatzea.

1.079. Gabon koruan kantatzetik zuzentzera (ZUM-110/014)

Gabon koruan 18 urterekin hasi zen kantuan eta zuzendari izaten bukatu zuen. 35 urtez zuzendu du. Zerbait berezi dauka gabon koruak, kutsu herrikoia. Koruak 50 urte bete zituenean ia 200 lagunek abestu zuten. 75 urte bete dituztenean (Agustinek ere beste horrenbeste beteta) utzi du zuzendaritza.

1.080. Gabon koruaren sorrera (ZUM-110/016)

Zumaiaiko gabon korua berezia da. Gazte batzuei bururatu zitzaaien ospitalean zeuden lagunentzako dirua biltzea eta horrelaxe sortu zen gabon korua. Hasieran gizonetakoak bakarrik ziren, gero emakumeak ere bai. Kanpoan bizi direnak ere etorri izan dira kantatzera.

1.081. Gabon koruko partaideak (ZUM-110/017)

Gabon korua irekia da, edozein herritarrek hartu dezake parte. Hainbat belaunalditako kantariak elkartzen dira. Gabon korua zer den jakiteko barruan egon behar da. Koruak 50 urte bete zituenean zuzendariari omenaldia egitea pentsatu zuen, haiei esker biziraun baitu gabon koruak. Kantari zaharrek gazteei erakusten diete.

1.082. Gabon koruko erreperitorioa (ZUM-110/018)

Urtero kanta berri bat sartu izan du erreperitorioan. Askotan berak euskaratu izan ditu baina letra egokitzea ez da erraza. Erreperitorio zabala dute, zaila izaten da aukeratzea. Bat latinez kantatzen da ('Adeste fideles') eta beste guztiak euskaraz. Zumaiaiko kanta zumaiaierrez kantatzen dituzte. Ez ditu ahotsetan ipini nahi izan, denek dakizkiten abesti herrikoiak direlako. "Etxetxo txiki honetan..."

1.083. Gabon koruaren erakarmena (ZUM-110/021)

Gabon batzuetan Oriotik Zumaiara etorri zen koruan abestera. Soldaduskatik bueltatu eta hurrengo egunean abestu zuen. Gabon korua zer den jakiteko barruan egon behar da.

1.084. Gabon kanta gustukoenak (ZUM-110/022)

Kanta gustukoenetakoa aipatzen du: "Irten ezazu" Peñafloridarena. Hunkitu egiten da kanta hori harmonizatu zuen Joxe Mari Altuna laguna gogoratzean. Taldekideei gehien gustatzen zaizkienak. Suediar batek hango kanta bat ekarri zuen eta euskaratu egin zuten.

1.085. Zuzendu dituen beste abesbatza batzuk (ZUM-110/023)

Zuzendu dituen beste abesbatza batzuk: Umeen San Pedro txiki abesbatza. Otxotea. Bazkalondo abesbatza.

1.086. Pilota munduan (ZUM-110/026)

Gaztetan pilotan ibili zen. Jokalaria izateaz gain, Zumaiako delegatua eta Gipuzkoako federazioan lehendakariorde izan zen. 37 urtera arte jokatu zuen pilotan; gero utzi egin zuen baina federazioan jarraitu zuen. Odieta frontoia lehen itxia zen eta han jokatzen zuten. Zumaiak maila handia zeukan. Dinastia Etxabe txapelketan jendetza izaten zen. Javier Carballo nabarmentzen du pilotaren bultzatzaile gisa. Hura Gipuzkoako federazioko lehendakaria izan zen.

1.087. Pilota entrenamenduak eta materiala (ZUM-110/027)

Pilotan jokatzeko astean pare bat aldiz entrenatzen zuten. Materiala klubak erosten zuen. Dinastia Etxabe txapelketako sarrerekin dezente diru lortzen zuten eta horrek urte osoan iraun behar zuen.

1.088. Zumaiako pilotariak eta kluba (ZUM-110/028)

Pilotan zeintzuk jokatzen zuten. Palaz: Inazio Letamendi, Ramon Ostolaza, Juan Mari Aierbe, Santos Salsamendi, Sebastian Aristi, Javier Carballo, Jesus Mari Unanue, Agustin Azpeitia, Jose Mari Zubimendi, Cosme Iraundegi... Eskuz: Luis Mari Alberdi, Jose Antonio Aizpurua, Salvador Zubia... Jokalari beraiek zuzendaritzan zeuden. Alde horretatik Zumaiako kluba berezia zen.

1.089. Erribera kalean musikariz inguratuta (ZUM-111/002)

Erribera kalean bizi ziren, baina orduan "Calle Puerto" zeukan izena. Tarte batean "Domingo Agirre" izena ere izan zuen kaleak. Auzokideen artean oso harreman ona zegoen. Aita bandako zuzendaria zen eta solfeo klaseak ematen zituen etxean. Inguruan musikari asko bizi ziren. Aurretik aitona ere bandako zuzendari izan zen eta aitak umetatik jotzen zuen saxofoia. 25 urte inguru eman zituen zuzendari gisa.

1.090. "Xaguenekuak" ezizena nondik datorren (ZUM-111/003)

Aitonaren etxea gaur egun ez da existitzen baina garai batean etxe dotorea izango zen. "Zaguanenea" zuen izena. Aitaren familiari betidanik "Xaguenekuak" deitu izan diote. Etxea botatzerakoan jakin zuten ezizen hori nondik zetorren. Etxea non zegoen azaltzen du: Zubi-txiki ondoan, gaur egun

Oiartzun etxea dagoenaren alboan. Hortik aurrera dena lubakiak ziren, Kantera baserriraino. Amak kontatzen zuen gaztetan Beduatik etortzen zirenean Kantera baserri inguruan oinetakoak aldatzen zituztela, herrira txukun sartzeko.

1.091. Gabon koruan 10 urterekin (ZUM-111/004)

Musika giroa txikitatik bizi izan du. 10-11 urterekin gabon koruan atera zen lehen aldiz. Karlos Gorostola zen zuzendaria orduan. Baserritarrez jantzita atera ziren. Eguraldi oso txarra egin zuen. Eskolan ere ekitaldiren bat egiten zenean han izango zen bera kantuan. Gerora parrokoiko abesbatzan sartu zen.

1.092. Hiru abesbatza Zumaian (ZUM-111/005)

Gabon koruan ibilitakoa zen eta gerora parrokoiko abesbatzan sartu zen. Orduan Zumaian zegoen koru bakarra zen. Gerora jubilatuen korua sortu zen. Uste du Eduardo Zubia zela zuzendari. Umeen korua ere sortu zuten Agustin Zubimendi, Geni Doval eta Pili Aizpuruak.

1.093. Parrokiko koruaren errepertorioa (ZUM-111/007)

Parrokiko koruan, kanta batzuk oso identifikatuta daude herriko jaiekin: San Pedro egunean, adibidez, "Tu es Petrus"; Mendekoste egunean, "Veni, Sancte Spiritus". Behin pizkunde egunean betiko Haendelen "Aleluya" aldatu eta beste bat kantatu zuten. Jendea ez zen gustura geratu. Arritokietako bezpera eguneko salbea urte mordoa doaz kantatzen. Soloa zeinek kantatu izen duen.

1.094. Mojen ikastetxean 12 urtera arte (ZUM-111/011)

Mojen Maria eta Jose ikastetxera joan zen. Josten ere irakasten zieten han. Non zegoen azaltzen du. Kapera bat zegoen eta mezan kantatu behar izaten zuten. 12 urterekin atera zen eskolatik.

1.095. 40 urterekin graduatu (ZUM-111/012)

40 urterekin graduatua atera zuen. Umetan, beraien portalean helduentzako gau-eskolak ematen zituen maisu bat bizi zela gogoratzen zuen. Ea horrelako zerbait egongo ote zen galdetu zuen udaletxean eta egun batean eskutitz bat iritsi zitzaion, helduentzako klaseak hasiko zirela esanez. 1987an graduatua lortu zuen. Graduondokoa ateratzekotan ibili zen baina lanean hasi zen (Txapartegi gozotegia hartu zuen, Aita Mari auzoan) eta ezinezkoa egin zitzaion.

1.096. Euskara eta gaztelera (ZUM-111/013)

Mojetan dena gaztelera egiten zuten. Ondorioz etxean ere bi ahizpek erdaraz egiten zuten eta aitak errieta egiten zien. Etxeko hizkuntza euskara zen, amak ez baitzekien asko gaztelera. Irratia, zinea... dena erdaraz zen.

1.097. Dena bekatu (ZUM-111/014)

Garai hartan elizak sekulako indarra zeukan. Txistua jotzeagatik "Ama Birjinak negar egiten zuela" esaten zioten. Dena bekatua zen. Behin neskatoak baloiaren gainetik saltoka jolasean zebiltzala emakume batek errieta egin zien.

1.098. "Mayores con reparo" sailkatutako filmak (ZUM-111/015)

'Xirula' denda zena Arroiabeneko ikatz-almazena zen lehen. Haren ondoan zeuden luistarrak. Amaia zineman botako ziren filmen kartelak ipintzen zituzten. Adinaren arabera sailkatzen zituzten. "Mayores con reparo" (lotsadun helduak) izendatzen zituzten pixka bat "beroak" ziren filmak.

1.099. Euskararen kontrako mehatxua (ZUM-111/017)

'Goiko' tabernan lanean zegoela gertatutakoa: talde bat kantari ari zen eta tabernan zen frantses batek euskarazko abesti bat entzutea gustatuko litzaiokeela esan zion Maria Antoniari. Gizon batek hori entzun eta denuntziatu egingo zituela mehatxu egin zien.

1.100. Auzoen arteko harremana (ZUM-111/018)

Auzokoen artean oso harreman ona zegoen. Kale berekoak elkarrekin ibiltzen ziren: Mari kalekoak, San Telmokoak, Erriberakoak...

1.101. Auzoen eta herrien arteko hizkeraren desberdintasunak (ZUM-111/019)

Kale edo auzoen artean ezberdintasunak zeuden hizkera aldetik. San Telmokoek hizkera itxiagoa egiten zuten. Ama Bedua auzokoa izanik, ez zuen egiten hain hizkera markatua. Galtzen ari diren formak. Bilobak euskaraz "normal" egiteko esan zion behin. Zumaiaetik Getariara ere badago ezberdintasuna.

1.102. Alondegia ala Oxford? (ZUM-111/021)

Alondegiari "Oxford" deitzeak sumindu egiten du Maria Antonia. Belen Golmaio euskara teknikari zenarekin gaiari buruz hitz egin zuen. Baleike herri aldizkarian idatzi bat ere atera zuen. Bere garaian alondegia zertarako erabiltzen zen kontatzen du: baserritarrek produktuak pisatu eta zerga bat ordaindu behar izaten zuten. Maria Antoniaren aitak ardoa gordetzeko almazen gisa erabiltzen zuen zati bat. Beraientzat betidanik "alondegia" izan da. Lanbide Heziketako eskola jarri zutenean, broma gisa hasi ziren "Oxford" deitzen eta halaxe geratu da.

1.103. Fielatoa eta "txaperua" (ZUM-111/022)

Fielatoa gaur egun udaltzaingoa dagoen lekuan zegoen. Garai batean alondegian produktuak pisatu eta zergak kobratzen ziren, baina hura itxi zutenean, fielatora pasa zen eginkizun hura. Kanpoaldean kamioiak pisatzeko pisua zegoen. "Txaperua" Zumaian udaltzainari deitzeko erabiltzen den hitz berezi bat da. Txapa bat eramaten omen zuten paparrean eta hortik omen dator.

1.104. Moilako karga-deskarga lanak (ZUM-111/023)

Moilako karga-deskarga. Enpresa desberdinak aritzen ziren lan horretan: Gascue y Cruz, Artaza, Orbegozo... Azken honek burdinak itsasontziz ekarri, Zumaian deskargatu eta kamioiz Zumarragara eramaten zituen. Barra arriskutsua dauka Zumaia (itotako 6 mutikoen istripua aipatzen du) eta itsaso txarra zenean Pasaian deskargatzen zuten. Moilako lan hori pixkanaka galduz joan zen. Arrantzako barku bakarra ezagutu du Zumaian, "Miguel Angel".

1.105. Goikon marinelen giro handia (ZUM-111/024)

Zumaiako jende asko joaten zen arrantzara Getariako barkuetan, baita Oriokoetan ere. Arrantzatik bueltan marinelei arraina banatzen zieten eta Goikora eramaten zuten prestatzeko. Antxoia izaten zen askotan, atuna noizean behin. Arrantzaleekin harreman handia izan zuten Goikon.

1.106. Goiko bodegoiaren hasiera (ZUM-111/025)

Goiko "zaharra" (anaiak berritu egin zuen geroago) aitak hartu zuen. Goiko pisuan "Gorriyenekoak" bizi ziren eta behean tailer txiki bat zuten. Hura alokairuan ipini zuten eta Maria Antoniaren aitak alokatu zuen. Horren aurretik, Santiago hondartzako lehenengo kantina izebak eduki zuen. Urtero muntatu eta desmuntatu egiten zuten. Azken urtean ez zuten desmuntatu eta itsasoak txikitu egin zien. Han geratu ziren altzari batzuk Goikon ipini ziren. Hasiera batean ogitarteko batzuk eta ardoa ematen zituzten, batez ere. Ardoa nola zerbitzatzen zuten: bi barrika txiki zeuden, iturriarekin, pitxer bat bete eta handik basoetara. Barriketan ardo beltza egoten zen, gorria garrafoietan. Porroia ere asko erabiltzen zen. 1958an ireki zen Goiko. Edarien prezioak gogoan ditu.

1.107. Goikon gertatutako anekdota (ZUM-111/026)

Goiko tabernan gertatutako anekdota. Bazen diruz nahiko larri ibiltzen zen bezero bat. Porroi txikiaren salneurria igo zuten baina gizon honi berdin kobratzen jarraitu zuten. Beste bezero batek jakin zuenean, haserretu eta ez zen gehiago itzuli.

1.108. Lehengo eta oraingo tabernako ohiturak (ZUM-111/027)

Aitak alondegian ardoarentzat almazena zeukan eta dendetara saltzen zuen. Errioxatik ekartzen zuen ardoa. Lehen ardogintza naturalagoa zen, ez zegoen hainbeste aurrerapen. Orain dena kontrolatua dago. Lehengo eta oraingo tabernako ohiturak: lehen ardo gehiago edaten zen, orain garagardoa ohikoagoa da; txikiteoa desberdina da; kafe "konpletoa"... Etxeko jatorduetan ere ardo botila ez zen falta izaten.

1.109. Zinemako irteeran, taberna topera (ZUM-111/028)

Txikiteoa, orain bezala, tabernatik tabernara egiten zen. Kuadrilla handiak ibiltzen ziren. Zinemako irteera orduetan topera betetzen zen taberna. Oraindik ere batzuetan amesten du mostradorea jendez beteta daukala eta basorik ez. Edalontziei orain baino balore gehiago ematen zitzaien, ez baitzegoen gaur egun bezainbeste.

1.110. Goiko, taberna herrikoia (ZUM-111/030)

1968an ezkondu zen Maria Antonia, orduan utzi zuen Goikoko lana. Gerora kafetera ere ipini zuten. Oso taberna herrikoia izan da Goiko. Telefono publikoa zeukaten. "Bodegón Goiko" egurrezko kartela Clamades Blancok egin zuen. Anaiak erosi zuenean, berriztu eta orduan ipini zen estatua, 2001ean.

1.111. 12 urtetatik Goikon lanean (ZUM-111/032)

12 urterekin ikasketak utzi eta Goiko tabernan lanean hasi zen, familiari laguntzeko. Hasieran eguerdietan itxi egiten zuten. Egur-ikatzeko sukaldea zeukaten, gerora gasezkoa ipini zuten. Kanpoan parrilla ere eduki zuten. Baina

gehienbat ogitarteko hotzak edukitzen zituzten. Sardinak Galiziatik ekartzen zituzten. Kafea asko saltzen zuten, fama ona zeukan.

1.112. Erribera kaleko tabernak (ZUM-111/034)

Erribera kaleko tabernak: Justa, Txikito Artadi, Metro, Cantábrico, Goiko, Aginagalde, Etxabe IV, Hotel Zumaia. Beheko plazan: Ulazia, Astonekoa. Errotakua. Xaharrenekua.

1.113. Erribera kaleko dendak (ZUM-111/035)

Erribera kaleko dendak: Foto Gar, Galdona burdindegia, Berastegi frutategia, Korta okindegia, "linternerokua" arropa denda, Alberdi gozotegia. Bankuak. Balenziaga zapata-denda. "Kojuenekua" burdindegia (Mujika).

1.114. "Joanita Kiriki" eta beste gozoki-saltzaileak (ZUM-111/036)

"Joanita Kiriki" gozoki-denda Erribera kalean zegoen. Ke usain handia egoten zen dendan. Umeek bihurrikeriak egiten zizkioten. Ze gozoki erosten zituzten. Justako izkinan Frantzixkak fruitu lehorrak saltzen zituen. "Txurre"-ren aitak barkilloak saltzen zituen. Joanitak denetik edukitzen zuen, baita arrautzak ere.

1.115. Umetako jolasak (ZUM-111/037)

Txintxarrika: txingoan harria eraman behar izaten zen. Harriaren ordeztun-kaxa lortzea gauza handia izaten zen. Kukuka. "Korta ikutu eta libre". Sokasaltoan "a bikos". Mutilak kaniketan, zibarekin eta txapetan. Pilotarekin. Kanta denak gazteleraz ziren. Mando-mandoka. Neskek gonarekin ezin zuten jolastu.

1.116. Dotrinako ibilaldira joateko baldintzak (ZUM-111/039)

Dotrinatik ibilaldia egiten zuten kurtso bukaeran. Horretarako, igandean parroko meza nagusira eta bezperetara joan beharra izaten zuten. Gainera mojetan zebiltzanak bertako mezetara ere joan beharra izaten zuten. Beraz, igandetan 4 meza juntatzen zitzaizkien. Gero dotrinan galdetu egiten zieten eta batzuetan gezurra esaten zuten. Igeldora joan ohi ziren. Behin Donostiako portuan itsasontzigintzako erakusketa bat zegoen eta Zumaiaiko Carmelo Unanue bertan zegoenez, ume guztiei antxoan ogitartekoak banatu zizkien. Aquariumera ere joan ziren.

1.117. Santiago hondartzara jende dotorea (ZUM-111/040)

Izebak Santiago hondartzan kantina zeukan. Orduan jendea ez zen egun osorako joaten, eguerdian etxera joan ohi zen bazkaltzera. Zestoako bainuetxetik jende dotorea joaten zen hondartzara. Forondako markesa ere joaten zen Santiagora. Izebak aldagelak ere bazituen eta markesak bere aulkiak han gordetzen zituen. Umeei aulkiak eramateagatik propina ematen zien. Ez da oso hondartza zalea izan baina bai igerian egitekoa. Arranplan edo Abascalenek eskaileretan igeri asko egin izan du. Txaluparekin erria gurutzatzen bi anaia ibiltzen ziren, Jacob eta Miguel Manterola. Kantinan zerbait falta zenean, umeak bidaltzen zituzten erostera.

1.118. Tabernetan izozkailurik ez (ZUM-111/041)

Cantábrico tabernan izotza egiten zuten. Orduan ez zegoen izozkailurik eta tabernako baldintzak zailak ziren. Ogi kopuruarekin asmatzeko ere komeriak izaten zituzten batzuetan.

1.119. Ordukua "benetako" ogia zen (ZUM-111/042)

Orduko ogia hobe zen. Aitona eta osaba okinak ziren. Goiko plazan hainbat okindegi zeuden eta antza eman zitekeen ogi bakoitza nongoa zen. Goizeko ordu bietarako lanean hasten ziren okinak.

1.120. Amaginarrebaren gerrako oroitzapenak (ZUM-111/044)

Senarraren ama, hiru umerekin eta haurdun, Zumaiaetik bidali egin zuten, beste emakume batzuekin batera. Durangon zeudela bonbardaketa tokatu zitzairen. Jauregi batean babestu ziren. Zumaiaira bueltatu zirenean ez zeukaten ezer.

1.121. Nazionalak etxean (ZUM-111/046)

Aitaren arrebak josteko makina zeukan eta nazionalak sartu zirenean txapelak brodatzeko agindu zioten. Aitaren saxofoiarekin tabernaz-taberna ibili omen ziren; osaba, mutikoa, atzetik jarraitzen ibili zen eta mozkortu zirenean saxofoia korrika etxera bueltan eraman zuen.

1.122. Patxita Etxezarreta kalea (ZUM-112/002)

Patxita Etxezarreta kalean bizi ziren. Herrigunetik aparte geratzen zen garai hartan. Industriagune garrantzitsua zen: bertan zeuden Yereguitarren tailerrak, Otto Holke lantegia... Hotel Uranga ere han zegoen. Guardia Zibilen kuartela ere bazen. Errepide nagusia pasatzen zen bertatik orduan ere eta trafiko asko egoten zen. Ibaia gertu zeukaten eta udan bertan bainatzen ziren. Trena ere pasatzen zen; "beheko estazioa" esaten zioten portuan kokatzen zen geltokiari (gaur egun eraikina oraindik bertan dago).

1.123. Ikasketak eta lana (ZUM-112/003)

Bi eskola zeuden Zumaian: herriko eskola, Arrangoletan, eta mesedeetako fraideena Ubillos jauregian. Bigarren honetan ibili zen Pello. Gerra ondoren etorritako fraideak ziren, frankismoak ezarriak. Ikasketa guztiak gazteleraz egin zituen. 13 urterekin Alondegian kokatzen zen Lanbide Eskolan hasi zituen ikasketak. Ondoren ikasketekin jarraitzeko aukera sortu zitzaion Arrasaten eta han lortu zituen industria-maisu eta peritutzako industrialeko tituluak. Zumaian lehenengo eta Arrasaten ondoren ibili zen lanean erretiratu arte.

1.124. Aisialdiko aukerak gaztetan (ZUM-112/004)

Gaztetan ez zeukaten aisialdirako aukera askorik. Zumaian bi zinema zeuden: guraso elkarteak apaizetxearen azpian ipini zuen lokala batetik eta Amaia zinema bestetik. Elizako atean filmen sailkapena egoten zen. Luistarren zentro bat zegoen eta han ekintza kulturalak egiten ziren. Oargi elkarteak ere kultura eta mendizaletasuna bultzatzen zituen batez ere, baina baita kirola ere. Atletismo kluba sortu zen Zumaian eta nahiko garrantzia izan zuen garai hartan. Luistarren zentroa non zegoen. Antzerkiak egiten ziren; aurretik Alondegian ere egiten ziren.

1.125. San Lorente ermita eta Indamendiko gurutzea (ZUM-112/006)

Garizuma garaian ez zen ezer egoten herrian. Urte batean Oargi elkarteak antolatuta San Lorente ermitaren berritzean ibili ziren. Indamendiko gurutzearen eraikuntzan lagundu zuen umea zela. Mendirako zaletasuna izan du.

1.126. Korrikarako zaletasuna (ZUM-112/007)

Zumaian 1980 aurretik korrikarako zaletasuna piztu zen. Urte pare bat geroago Pello ere korrika egiten hasi zen lagun batekin eta urte askoan aritu zen. Zumaian "saltaka" esaten zaio korrika egiteari.

1.127. Frankismoa eta elizaren indarra (ZUM-112/009)

Frankismo garaia. Urte batean Euskal Jaia bertan behera geratu zen. Elizaren indarra.

1.128. Oikiara trenbidetik oinez (ZUM-112/010)

Oikiara joaten ziren asteburu askotan, familia baitzeukaten han. Tren geltokia zegoen orduan Oikian eta trenbidetik oinez joaten ziren. Aitaren baserria Sodurutz zen eta amarena Muniosoro. Oikia nola aldatu den. Festetan senideen etxera joateko ohitura handia zegoen. Umetan ez zitzaion gustatzen etxetik kanpo lo egitea. Gari-jotzea Oikian.

1.129. Zumaiako industrializazioa ikertzen (ZUM-112/011)

2009an Zumaiako industrializazioaren historia ikertzeko talde bat sortu zen (ZIIZ proiektua: Zumaiako Industria-ondarearen Informazio Zentroa). Desagertutako enpresen informazioa biltzen aritu ziren. Hortik abiatuta Oikiako historian sakontzen hasi zen.

1.130. Oikiako historia: bi familia boteretsu (ZUM-112/012)

Zumaian zementu naturala edo kare hidraulikoa egiten zen ("hirautila" deitzen zitzaiona). Oikian zegoen fabrika horietako bat eta horri tiraka, aurretik han beste eraikin batzuk zeudela jakin zuen: burdinola, errotak, jauregia... Zarauz Gamboa familia zen haien jabea. Oikian bi familia boteretsu zeuden: Igartzatarrak eta Mantzisdortarrak. Bigarren hauen jauregia zen Oikiako etxerik handiena.

1.131. Oikiako historia: Mantzisdortarren familia (ZUM-112/013)

Oikiako Mantzisdortarren historia. Maiorazkoaren bidez beraien ondarea babestu eta handitu zuten belaunaldiz belaunaldi. Emakume hauetako bat Debako Lasaldetar batekin ezkondu zen eta Mantzisdor etxea bi zatitan banatu zen gero. Beste emakume bat Azpeitiko Zuazolatar batekin ezkondu zen eta 8 seme-alaba izan zituzten. Guztiak hil ziren, baita gizona ere, eta emakumea bakarrik gelditu zen. Testamentuan bere ondare guztia Loiolako jesuitei utzi zien. Handik 75 urte ingurura, Espainiako Carlos III erregeak jesuitak Espainiatik kanporatu zituenean, Estatua egin zen ondasun haien jabe. Gero saldu egin zituzten eta Zestoako Balzolatar batek erosi zituen gehienak.

1.132. Oikia, gune garrantzitsua (ZUM-112/015)

Zumaiako hiribildua harresiz inguratuta zegoen garai batean. Hortik kanpo 3 auzo zituen: Zubiaurre (San Telmo kalea), Eizagirre (Arritokieta inguruak) eta Narrondo. Hortik aparte gune garrantzitsuenak Oikia, Artadi eta Aizarnazabal ziren (orduan Zumaiako parte zen). Denborarekin nekazaritza eremuko jauntxoek indarra galduz joan zen eta herriguneak garrantzia gehiago hartu zuen.

1.133. Oikiako historia: Ameriketara ibili ziren jauntxoak (ZUM-112/016)

Oikiako jauntxo asko itsas-merkataritzan ibili ziren. Ontzigintzan eta burdingintzan aritzen ziren hemen eta Ameriketara bidaltzen zuten generoa. Garai hartako aberatsak ziren. Francisco Bouquer de Barton, adibidez, ingelesa zen. Alkate izan zen Zumaian eta Ameriketara diru asko egin zuen.

1.134. Ontzigintza eta merkataritza Zumaian (ZUM-112/017)

Arrantzak ez zuen garrantzia askorik izan Zumaian; bai ordea ontzigintza eta merkataritzak. Juan de Olazabalen aita udaletxean idazkari egon zen eta hark esaten omen zuen Zumaian gizon gutxi ikusten zela, denak itsasoan zeudela eta.

1.135. Zumaiako industriaren bilakaera (ZUM-112/019)

Zumaian XV-XVII mendeetan une gorena izan zuten industriaurreko bi jarduerak dira azpimarragarriak: ontzigintza eta burdingintza. Baina XVIII. mendean hasieran ontzigintzak izugarritzko gainbehera izan zuen. Kisi egoera horri buelta ematen hasteko, 1780 urte aldera padurak lehortu eta betetzeko proiektua martxan jarri zen (Basadi zaharra eta Basadi berria), herritarrek lurra lantzeko aukera izan zezaten. XIV. mendean aro berri bat hasi zen zementugintzari esker. Zementu naturala edo kare hidraulikoa ("hiraulika") famatua bilakatu zen. Bi gauza behar ziren: kareharri berezi bat eta hori erretzeko ikatza. Inguruetan bi materialak zeuden. Industria honen inguruan lantegiak sortzen hasi ziren. Zementua garraiatzeko beharrak berriro ere ontzigintzari bultzada eman zion. Zumaiako portuan hobekuntzak egin ziren.

1.136. Ontzigintza eta motorgintza (ZUM-112/020)

Ontzigintza Zumaian XX. mendean. Egurrezko itsasontziak egiten ziren, Balenciaga ontziola burdinazkoak egiten hasi zen arte. Portuan Urolako trenaren geltokia ezarri zen. Belaontzietatik lurrin-makinak egitera pasa ziren ('Eraso y Compañía', adibidez). Geroago gasolinazko motorgintzan garrantzitsuenak 'Yeregui Hermanos' eta 'Carmelo Unanue' izan ziren. Bilakaera guzti honek mekanika arloko ofizioen sorrera ekarri zuen. Gerra aurretik makina-erreminta Otto Holke alemaniarrek ekarri zuen Zumaiara.

1.137. Lanbide Eskolaren sorrera (ZUM-112/021)

Ordura arte normalena oinarritzko ikasketak egin eta ofizioa lantegietan ikastea zen. Baina garapen industrialak langileen trebakuntza eskatzen zuen eta horrela enpresa batzuen laguntzarekin sortu zuten, 50. hamarkadaren hasieran, Lanbide Eskola edo eskola profesionala Zumaian. Alondegiaren eraikinaren lehenengo solairuan zegoen. Sindikatu Bertikalari lagapena egiteko aukera sortu zen, eta hark bere gain hartu zituen gastuak. Eskola doakoa zen. Aurrerantzean, 'Escuela Sindical de Formación Profesional Virgen

de Arritokieta' izango zen eskolaren deitura. Hala ere, Ofizialtza Industrialeko titulurik ez zuten ematen, eta Pellok arazoak izan zituen gero Arrasaten industria-maisu ikasketak egiten jarraitzeko. Eskolako zuzendaritza, mesedeetako fraideen eskolako arduradunari eman zitzaion.

1.138. Zubiaurre auzoa eta marea-errota (ZUM-112/023)

Zubiaurre auzoa zeri deitzen zitzaion. Parrokitik San Telmo kalera joateko zubi bat zegoela uste da. Hor marea-errota bat zegoen eta 1800 aldera arte egon zen martxan. Eraikinak 1940 aldera arte iraun zuen bertan. Ganboatarrak izan zela uste da, Zumaiaiko familia garrantzitsuenetako bat. Marea-errotaren abantailak eta desabantailak. Bi ehoketa mota egoten ziren: gariarentzat eta artoarentzat. Garai haietan erroten kontrola botereari lotua zegoen. Funtzionamendua azaltzen du: Ardantzabide aldeko lurrak itsasgorarekin urez betetzen ziren eta itsasbeherarekin errota mugitzen zen.

1.139. Zaku edo jute fabrika (ZUM-112/024)

Garai batean itsasoa Ondartxoraino iristen zen. Zaku edo jute fabrika bat zegoen bertan, Jose Agustin Arbillagak sortua (izatez medikua zen). Zementua edo "hiraulika" garraiatzeko kupelak erabiltzen ziren eta horregatik Zumaian baziren 10-12 upelgile. Zakuek upelak ordezkatu zituzten. Arbillaga hil zenean zakugintza bertan behera gelditu zen baina beste lantegi batzuei alokatu zitzaion eraikina. Eraikinaren aurrealderaino iristen zen itsasoa. Betelanak 1915 inguruan hasi ziren.

1.140. ZIIZ proiektuaren helburua (ZUM-112/026)

2009an hasi zen talde bat Zumaiaiko industrializazioa ikertzen. ZIIZ proiektua deitu zioten (Zumaiaiko Industria-ondarearen Informazio Zentroa). Helburua gelditzen den industria ondarea babestea da. Gelditzen diren arrastoak Narrondoko zementu fabrikarenak dira. Desagertutako lantegiak.

1.141. "Zumaia zementua"-ren garrantzia (ZUM-112/027)

Zumaiaiko zementu naturala edo "hiraulika" oso ona zen kostako obretarako, azkar gogortzen zelako. Madrileko Isabel II kanala egiteko Zumaiaiko zementua erabili zen. "Cemento Zumaya" izena hartu zuen eta famatua egin zen. 1860 aldera Arroan egin zen ordura arte egondako fabrika modernoena. Eusebio Gurrutxagak ipini zuen.

1.142. Zementu fabriken bilakaera (ZUM-112/028)

Hasierako zementu fabrikak labeak besterik ez ziren eta inguruko burdinola zaharren azpiegiturak aprobetxatzen zituzten zementua ehotzeko. Olak non zeuden. Behin ehotuta, zementua labeetara gurdiz garraiatu behar izaten zen. Fabriketako nagusiek baserritarrekin kontratuak egiten zituzten horretarako. 'Corta y cía' izan zen prozesu guztiak bateratu zituen lehen fabrika, Agoten. Geroago Eusebio Gurrutxagaren lantegia etorri zen.

1.143. Geologia erabakigarria zementugintzaren sorreran (ZUM-112/029)

Iraetan ola garrantzitsu bat zegoen, Granadako kondearena. Han egiten ziren, adibidez, merkurioa Ameriketara garraiatzeko burdinazko edukiontzia. Ingeles batzuk etorri ziren 1835 inguruan hor lan egitera eta haiek ikusi zuten inguru hau zementua egiteko geologikoki oso egokia zela. Batetik, "tuparria" esaten zitzaion kareharri berezia zegoen; bestetik, hori erretzeko lignittoa (ikatz) ere topatu zuten.

1.144. Zementugintzako lantegi garrantzitsuenak (ZUM-112/031)

Arroan ziren fabrika garrantzitsuenak: 'Corta y cía', adibidez, Agoten. Beduako fabrika berezia zen. Uriartetarrena zen eta gerora 'Uriarte, Corta y Zubimendi' bihurtu zen. Fabrika hauetako nagusi guztiak Zumaiaiko alkate izan ziren.

1.145. Dike lehorreko ontziola (ZUM-112/038)

Garai batean, itsasoa beheko tren geltokia dagoen lekuraino iristen zen. Horren atzean dike lehorreko ontziola bat egon zen. Urte gutxi iraun zuen, seguru asko Urolako trena beheko estaziora ekartzeko proiektua sortu zenean desagertu zen. Gero Yereguitarra eta beste hainbat egon ziren leku horretan. Etxeak egiten hasi ziren garaian azaldu omen ziren dike horren arrastoak, baina ez zen hari buruzko informaziorik jaso. Patxita Etxezarreta kalea eta haren inguruak agertzen diren 1922ko plano batean ageri da dike lehorra. Tolosako artxiboan izan zuen honen berri.

1.146. San Telmo kalea (ZUM-113/002)

San Telmo kalean bizi ziren. Bertako jaiak nolakoak izaten ziren. Etxeetan hamaiketakoak prestatzen zen, salda eta haragi egosia, eta ezagunei eskaintzen zitzairen. Paperezko banderekin apaintzen zen kalea. 'Riojano'-aren bodega zegoen, dendarik ez.

1.147. Eskolan 14 urtera arte (ZUM-113/004)

Arrangoletako herri eskolara joan zen umetan. 14 urterekin Ostolaza aroztegiari hasi zen lanean. Soldaduska egin ondoren Xey lantegian hasi zen. Eskolan gustuko ez zituzten gauzak egitera behartuta zeuden, Espainiako bandera jasotzea adibidez. Material gutxi erabiltzen zuten. Dena erdaraz hitz egin behar izaten zuten. Zigorrak.

1.148. Umetako jolasak (ZUM-113/005)

Futbolean jokatzen zuten gehienbat, pilotan ere bai. San Telmo kalean auzoko umeekin jolasten. Kanikak, txapak... Pote-potezka. Neskak eta mutilak batera ibiltzen ziren. Igeri egitea gustatzen zitzairen.

1.149. Txikitatik musikari lotua (ZUM-113/006)

Gaztetan bandan jotzen zuen. Txaranga ere sortu zuten eta leku askotara joaten ziren. Hainbat musikari egon dira familian: aita, anaia, lehengusuak... Aitaren osaba, Juanito Goikoetxea, bandako zuzendaria izan zen. Musika ikasketa gutxi egin zituen, baina belarri ona zeukan. 20 partaidetik gora ziren bandan. Garai batean bi banda egon ziren, Jose Mari Romatet zen banda txikiko zuzendaria. Berak tronboia jotzen zuen. Kontzertu zail batzuk ditu gogoan.

1.150. Txarangekin festaz festa (ZUM-113/007)

Zumaiako txarangan ibiltzen zen baina beste herriren batean beharra baldin bazen haiekin jotzera joaten zen. Inauterietan Tolosako txarangarekin. Zumaiako txarangak 'Izustarri' izena zuen lehenengo eta gero 'Xumai'. 20 partaidetik gora izaten ziren. Entseguak parrokiaren lokalean egiten zituzten.

1.151. Arraunerako ontzi motak (ZUM-113/009)

Arraunerako ontzi motak: batela, trainerilla eta trainerua. 18 urtera arte batelean ikasten dute. Arraunen neurriak ezberdinak izaten dira ontzi bakoitzerako.

1.152. Traineruaren atalak (ZUM-113/010)

Traineruaren atalak: tosta (eserlekua), hanka-lekua eta toleta (arrauna ipintzen den lekua).

1.153. Patroiaren lana (ZUM-113/012)

Patroiaren lana garrantzitsua da. Gauza asko eduki behar ditu kontuan.

1.154. Aita Mari arraun elkartearen sorrera (ZUM-113/013)

Aita Mari arraun elkarteak 1975ean sortu zen, baina aurretik ere ibiltzen ziren arraunean: 'Miralles', 'Proes' (Manuel Galarraga), Jose Inazio Apestegi.... Soldaduskara joan aurretik Luis Mari bera ibili izan zen. Kuadrillakoen artean batela ere eraiki zuten. Kluba sortu ondoren, 1978an atera zuten lehen aldiz trainerua. Santurtzik saldu zien ontzi hura. Ordutik beti atera izan da, geldialdirik gabe.

1.155. Arraun elkarteko lehendakari (ZUM-113/014)

1982an arraun elkarteko lehendakaritza hartu zuen Luis Mari eta 2013ra arte egon zen. Zuzendaritzan gazteak sartzea gustatuko litzaioke, baina ez dira animatzen. Elkartean mota guztietako lanak egin izan ditu.

1.156. Hasierako patroiak (ZUM-113/015)

Hasierako urteetan Joxeba Sasia 'Artia' izan zen patroia, Joseba Aristi ondoren. Gero haren ilobak ibili izan dira. Entrenatzailea patroia bera izan ohi zen garai haietan.

1.157. 1984an Zumaiak bandera guztiak irabazi (ZUM-113/017)

1984an Zumaiak bandera guztiak irabazi zituen. Inork ez du marka hori hautsi. Lehenengo bandera 1981an lortu zuen Zumaiak. 80ko hamarkada izan zen zumaiarrentzat onena.

1.158. 1983ko Kontxako Banderaren polemika (ZUM-113/018)

1983ko Kontxako Banderan gertatutako istiluak: sailkapenerako estropada jokatu zenean, Orio kanpoan geratu zen, baina epaileek sailkapenean sartu zuten eta Pedreña utzi zuten kanpoan. Banderaren egunean, zumaiarrek irabazteko aukera asko zituzten arren, ez ateratzea erabaki zuten, protesta gisa. Urte hartan uholdeak izan zirenez, Kontxara joateari uko egin zioten tripulazioekin Castron estropada bat antolatu zuten ('Uholdeen

Bandera'). Zumaiak irabazi zuen. Egun berean Donostian Kontxako Bandera bertan behera geratu zen eguraldi txarragatik. Hurrengo urtean irabazi zuen Zumaiak Kontxako Bandera.

1.159. B trainerua (ZUM-113/019)

Urte askotan bi traineru atera izan ditu Zumaiak. Baina lan eta diru asko eskatzen du bi ontzi mantentzeak.

1.160. Neskak arraunean (ZUM-113/020)

Neskak hasi zirenean (2005ean), Getariarekin batera ateratzen ziren. Zumaia izan zen aitzindaria neskak ateratzen. 2013an Kontxako Bandera irabazi zuten neskek.

1.161. Arraunerako baliabideen bilakaera (ZUM-113/023)

Arraun mundua asko aldatu da. Gaur egun ontziak material hobeagokoak dira eta gutxiago pisatzen dute. Itsas kiroldegia 1990ean egin zen. Hori egiteko orduko alkatearen (Castor Agirrezabalaga) atzetik ibili zen Goiko. Orain ontzi gehiago dituzte eta txiki geratu da. Horren aurretik erabili zituzten lokalak. Orain prestatzaile fisikoa eta dietista dauzkate. Lehen kamioietan garraiatzen zituzten traineruak eta "lápiz plomo" ematen zitzairen (lan oso zikina).

1.162. Oikiarrek trainerua atera eta irabazi (ZUM-113/024)

Oikiarrek trainerua atera zuten 1930ean eta Zarauzko bandera irabazi.

1.163. Zumaiak 24 orduan 3 estropada irabazi (ZUM-113/026)

1984an Portugaleten eta Zarautzen jokaturako 3 estropada irabazi zituen Zumaiak. Lehen astakeriak egiten zituzten.

1.164. Arrauna, kirol gogorra (ZUM-113/027)

Arrauna kirol gogorra da, batez ere neguan. Itsasoari beldurra ez baina errespetua izan behar zaio. Orion behin trainerua hondoratu eta mutil bat ito zen. Irunen ere patroia bat ito zen. Asegurua edukitzea garrantzitsua da.

1.165. Askuntzeneko etxetik Erkibera (ZUM-114/001)

Askuntze (edo Ondargain) etxean jaio ziren 8 senideak. Bi pisuko eraikina zen eta beraiek behean bizi ziren. Hezetasun handia zegoen eta amaren osasunagatik Beheko Plazako Erkibe etxera aldatu ziren beranduago. Begoñak 11 urte inguru izango zituen orduan.

1.166. Aitak Guridiren diskoak ipintzen zizkien (ZUM-114/002)

Askuntze (edo Ondargain) etxean bizi zen Begoñaren familia. Goiko pisuan etxeko nagusiak bizi ziren. Sarritan bidaiatzen zuten baina Begoñak orain dela gutxi jakin du zergatik. Begoñaren aita arotza zen eta nagusien etxean zerbait konpontzera goiko pisura igo behar zuenean, anai-arreba zaharrenak berarekin eramaten zituen. Liburutegi eder bat zegoen eta bertan gramofono bat. Aitak Guridiren diskoak jartzen zizkien.

1.167. Erkibe etxean bizitzen (ZUM-114/003)

Askuntze (edo Ondargain) etxean hezetasun handia zegoen eta amaren osasunagatik Beheko Plazako Erkibe etxera aldatu ziren. Bi familia bizi ziren han: beheko pisuan Luis Unanue eta Mari Kruz Ispizua eta goikoan Ostolazatarrak. Begoñaren ahizpa zaharrena, Mari Tere, ezkondu zenean teilatupean jarri zen bizitzen.

1.168. Erkibe etxea, herriaren erdigunean (ZUM-114/004)

Askuntze (edo Ondargain) etxean bizi zirela ez ziren kale aldera asko joaten. Lorategian dantzak entseatzen ibiltzen ziren. Baina Beheko Plazako etxera aldatu zirenean, herriaren erdigunean egonik, festak gehiago gozatzen zituzten. Oso dantzariak izan dira. Erkibe etxean botoi fabrika bat ere bazen. Etxearen kanpoaldea nolakoa zen azaltzen du.

1.169. Gaztetako jaiak eta dantzak (ZUM-114/005)

Beheko plazako kioskoan dantzan ibiltzen ziren. Igandero jotzen zuen bandak; neguan Goiko plazan eta hotzak pasatzen zirenean Beheko plazan. Txistulariak ere izaten ziren, banda amaitutakoan. Taberna batzuetan gramofonoak ipintzen zituzten. Elgoibarko orkestina ere etortzen zen. Ordaindu egin behar izaten zen. 5 lagun ibiltzen ziren elkarrekin.

1.170. Mojen eskolan (ZUM-114/007)

Mojen eskolan ibili zen Begoña. Goiko plazatik sartzen ziren neskak eta mutilak berriz Erriberatik. Uniformeak ordainpeko eta ez-ordainpeko ikasleak desberdintzen zituen. Barnetegia ere bazegoen. Goiko plazan 'Tintuxenekuak' deitzen zieten senar-emazte batzuk denda zeukaten eta bertan haur txikiei eskolak ematen zizkieten. Mojek famili oneko ikasleak bereziago tratatzen zituzten. Batzuetan Begoña zigortu izan zuten.

1.171. Aita, elizkoia eta ikasketaduna (ZUM-114/008)

Aita oso zorrotza eta elizkoia zen. Mezetara joan eta arrosarioa errezatu behar izaten zuten. Aita goiz jaikitzen zen eta gauean jota egoten zen. Goizeko 6:30etako mezara joaten zen egunero, eta aurretik tailerreko kontuak egiten omen zituen. Deustuko unibertsitatean ikasi zuen. 'Garate anaia' zegoen atezain gisa eta tratu ona zeukan aitarekin.

1.172. Osaba organista eta osaba pilotaria (ZUM-114/009)

Begoñaren aitona oso goiz hil zen. Seme zaharrena, Juan (Begoñaren osaba) musikaria zen eta ez zuen aitaren lanekin jarraitu nahi izan. Ameriketara alde egin zuen eta ez zuten berri gehiagorik izan. Familiarentzat lotsagarria izango zela uste du Begoñak. Anaia gazteena, Julian, pilotaria izan zen, erremontean ibiltzen zen. Behin buruan pilotakada bat jaso eta ondoezik egon zen denbora luzez. Emakume kataluniar batekin ezkondu zen.

1.173. Ama, emakume maitagarria (ZUM-114/011)

Ama Beduan jaioa zen, oso emakume ona. Gauetan, aita ohera joandakoan, amari kontuak esaten geratzen ziren.

1.174. Senide asko izatearen abantailak (ZUM-114/013)

Senide asko izatearen abantailak: norbere burua defendatzen ikastea, eskuzabaltasuna... Jatorduetako anekdotak.

1.175. Bi anaia apaiz (ZUM-114/014)

Bi anaia apaiz joan ziren. Karlosek 11 urte bakarrik zituen Saturraranera joan zenean. Joxe oso abila zen marrazketarako eta delineatzaile ikasketak egingo zituela uste zuten, baina bat-batean seminaria joan nahi zuela esan zuen. Etxera bisitan etortzen zirenean egun handia izaten zen. Ama eta pare bat arreba ere joaten zitzaizkien anaiei bisitan.

1.176. Osabarekin dantza egiteagatik kongregaziotik bota (ZUM-114/015)

'Hijas de María' kongregaziotik bota zuten osabarekin dantza egiteagatik. Debekatuta zegoen mutilekin dantza egitea. Dotrinatik irteerak egiten zituzten. Mutilak luistarretan ibiltzen ziren.

1.177. Erromeriak eta irteerak (ZUM-114/016)

Zumaiako mutilak askotan Zarautzera joaten ziren erromeriara; beraiek San Lorente edo Ibañarrietara gehienez. Sakonetako irteera bateko anekdota. Getariako festetara ere joaten ziren.

1.178. Joakin senarra, itsas gizona (ZUM-114/017)

Senarra, Joakin, itsas gizona zen. Yerequirenean egon zen itsasontzien mekanika ikasten eta 13-14 urterekin "pintxe" gisa ibili zen lanean Joxe Aristi maisuarekin. Igeri egiten oso abila zen. Uretara eroritako urrezko erloju baten anekdota. Bere lagunik handiena 'Emeterio' zen (Valentin Manterolak pintatutako erretratua erakusten du).

1.179. Joakin 22 urtez Terranovan (ZUM-114/018)

Joakin senarrak mekaniko titulua atera zuen eta ondoren Terranovara joan zen ezkondu aurretik. 22 urtez ibili zen han bakailaotan. Gran Solera ere joan ohi zen, Ondarroako barkuetan. Hiru hilabetetik behin, astebetetz, etortzen ziren Euskal Herrira. Abenduan denbora gehiago geratzen ziren, konponketak egiteko. Etxea eta umeak zaintzea Begoñaren lana izaten zen. Familiaren laguntza handia izan zuen. Joakin Zumaiara etortzen zenean lagunekin eta familiarekin zer egiten zuen.

1.180. Errioarekin harreman estua (ZUM-114/019)

Ohitura handia izan dute errioan batelarekin ibiltzeko, baita igerian egiteko ere. Kirol portua ireki zutenean ontzi bateko gidariarekin edukitako eztabaida. Gaur egun trafiko asko dago errioan, kontuz ibili behar da. Marea jaitsitakoan hondartzatxoa sortzen zen eta hor egoten ziren.

1.181. "Amona Paka", Begoñaren amaginarreba (ZUM-114/020)

Frantziska Gomez, "Pakita Porraja" ezaguna, Begoñaren amaginarreba zen. Haurtzaro zaila izan zuen Pakak eta gainera 33 urterekin alargun geratu zen. Gaztetxotatik arrantzari lotutako lanak egiten lagundu behar izan zuen etxean. Izaera handiko emakumea zen. 99 urterekin hil zen. Hainbat anekdota barregarri kontatzen ditu. "Fenomenoa zen".

1.182. Ikastolaren hasiera (ZUM-114/021)

Seme eta alaba zaharrenak ez ziren ikastolara joan, oraindik ez baitzegoen martxan. Hasiera batean pozik zeuden ikastola ipini zenean, baina gero

zurrumurruak zabaltzen hasi ziren herrian eta azkenean zatiketa egon zen. Urte batzuk zailak izan ziren ikastolarentzat eta gurasoek lagundu beharra izan zuten. Larraulen udalekuak ipini zituzten eta han ere gurasoek lan egin behar izaten zuten.

1.183. Begoñaren kultur zaletasunak (ZUM-114/022)

'Ez dok amairu' ikustera joaten ziren. Betidanik izan da bertsozalea. Lujanbio da bere gogokoena. Dantza ere asko atsegin du; Lucia Lacarra ikustera joatekoa da Bilbora. Zine zalea ere bada. Txikitan Amaia antzokira eta Maitena zinemara joan ohi ziren.

1.184. Bidaiatzea gustuko (ZUM-114/023)

Bidaiatzea oso gogoko du. Familia eta lagunekin joan izan da. Nondik nora ibili izan den aipatzen du. Suitzako baserriek arreta deitu zioten. Norvegiako fiordoak txikian Zumaian ere badaude. Tunezeko janari pikantea.

1.185. Jubilatuen elkartearekin bidaiatzen (ZUM-114/024)

Bidaiatzea oso gogoko du. Jubilatuen elkartearekin bidaiatu izan du, urtean bitan. Espainia guztian egon da. Ibizatik Formenterara, itsaso txarrarekin larri.

1.186. 50 urterekin denda ipini zuen (ZUM-114/025)

Seme-alaba zaharrenei lagatzeko asmotan, 50 urte zituela denda zabaldu zuen. Mari Bego alabak hartu zuen azkenean. Jendearekin hartu-emana gustatzen zaio.

1.187. Txikitan Itzurun hondartzara (ZUM-114/028)

Txikitan Itzurun hondartzara joaten ziren amarekin. Marmokek pikatu ziotenekoa.

1.188. Garai bateko Erribera kalea (ZUM-115/002)

Erribera kalean bizi ziren. Orduan "Calle Puerto" deitzen zen eta gerora "Txomin Agirre". Kalea nola aldatu den. Moila aldera ikatza eta porlanaren biltegiak zeuden eta kalearen beste aldean etxebizitzak.

1.189. Alondegiaren bilakaera (ZUM-115/003)

Gaur egun Alondegia edo kultur etxea dena, garai batean etxebizitza zen. Beheko solairuan almazena zegoen eta patata saltzen zen. Gerora eskola profesionala egin zen hor. Mutilentzako bakarrik zen. Ikasketa guztiak gazteleraz egin zituen Mari Pilarrek.

1.190. Ikasketak mojen eskolan (ZUM-115/004)

Mojen eskolan egin zituen ikasketak. Eskola nazionalak mutilentzat bakarrik ziren, neskak mojekin joaten ziren. Eskola non zegoen azaltzen du (udaletxetik Erribera kalerainoko gunea hartzen zuen). Emakumeren batena izan omen zen eta eskola egiteko herriari utzi zion. Vedruna kongregazioa etorri zen eta hor ezarri zuten mojek 'Maria eta Jose' ikastetxea. Gerora hori saldu eta gaur egun Zumaiena ikastetxea dagoen lekuan egin zuten eskola. Mari Pilarren aita ere hor ibili zen eskolan. Barnetegi moduan ere funtzionatzen zuen. 4 urterekin hasi zen eskolan eta adin ezberdinekoak elkarrekin joaten ziren.

1.191. Etxekoei esker euskara gorde (ZUM-115/005)

4 urterekin hasi zen eskolan eta dena gazteleraz egiten zuten han. Berak ez zekienez, isil-isilik egoten zen. Ikasi zuenean, aitak esan zion etxeko atetik barrura ez zuela erdaraz hitz egin behar. Gerora osaba batzuk emakume asturiarrekin ezkondu ziren eta Mari Pilar ez zen gai haiekin gazteleraz hitz egiteko. Aldiz, lehengusu batzuek euskara guztiz galdu zuten. Etxekoei esker gorde ahal izan zuen euskara, eskolan eta lagunekin gazteleraz egiten baitzuen. Bere lagun baten kasua.

1.192. Euskara debekatuta eskolan (ZUM-115/007)

Bere kasa euskaraz alfabetatu zen, dena gazteleraz ikasi baitzuten umetan, baita dotrina ere. Eskolan euskara debekatuta zegoen, zigortu egiten zituzten, beraz Mari Pilarrek ez zuen hitz egiten. Mojek zigortu zuten egun bat du gogoan.

1.193. "Gorrien" aldekoak izateagatik, markatuta (ZUM-115/008)

Kalean bazekien zeinekin ahal zuen euskaraz egin eta zeinekin ez. "Gorrien" aldekoak izateagatik markatuta zeuden herrian. Errazionamenduan ez zieten ematen ezer. 'Sección femenina' arduratzen zen errazionamenduaz. Jatun txarra izan zen txikitan.

1.194. Umetako jolasak (ZUM-115/010)

Umetan kalean jolasten zuten gehienbat. Neskak eta mutilak aparte ibili ohi ziren. Neskek pilotaren gainetik salto egitea gaizki ikusia zegoen. "Txintxarrika". "Asakaponak". Orduan edozeinek ez zuen arkumea jaten eta zaila zen tortolosak lortzea, beraz plastikozkoak erosten zituzten. 'Joanita Kiriki' denda saltzen ziren.

1.195. Arranplan ikasi zuen igeri egiten (ZUM-115/011)

Umetan arranplan ikasi zuen igeri egiten. Orduan etxe gutxi zeuden hortik aurrera. Moilan ez ziren asko ibiltzen, barku eta langileekin mugimendu handia egoten zelako. Ez ziren oso urrutira joaten.

1.196. Denbora librean, mendira (ZUM-115/013)

Gaztetan mendi irteerak egiten hasi ziren; hori zen aisialdirako zeukaten aukera bakarretakoa. Orduan hasi ziren mendizale taldeak sortzen. Mutilak luistarretara joaten ziren eta neskak 'Hijas de María' kongregaziora. Luistarretatik sortu zen gero Oargi mendi taldea. Orduan ez zegoen kotxe askorik eta inguruko mendietara joaten ziren.

1.197. 'Beti Gazte' dantza taldearen sorrera (ZUM-115/014)

60. hamarkadako euskal kulturaren aldeko mugimenduarekin dantza taldeak sortzen hasi ziren. Mendi taldearen bidez ezagututako zarauztarrei eskatu zieten Zumaian dantza taldea sortzeko laguntza, Zarautzen dagoeneko 'Ondartza' taldea sortua baitzegoen. Zarauztarrek Mari Pilar eta bere lagun bati (Mertxe Irureta) dantzak erakusten zizkieten eta gero hauek Zumaiaiko umeei. 1966an hasi zen dantza taldea Zumaian, elizak lagatako lokal batean. Herriko bi gizonek dirua ipini zuten eta emakume batzuk elkartu eta gauez dantzarako arropak josten zituzten, Mari Pilarrek lan egiten zuen jostundegian. San Telmoetan dantza egiteko prestatu ziren baina arazoak izan zituzten

ikurrinarekin. Elizak asko lagundu zion euskarari eta kulturari garai hartan. 1971an ezkondu zen eta ordurako bazeuden aisialdirako aukera gehiago, kirolak adibidez. Txistularien eskola ere sortu zen. Dantza taldeak sortzen joan ziren ahala, herriz herri alardeak ospatzen ziren. 'Beti Gazte' lehen aldiz Bergarara joan zen. Orduan haurrek ez zuten aukera asko izaten herritik ateratzeko eta haientzat egundoko festa izaten zen. Gero aisialdirako aukerak areagotzen joan ziren eta dantza pixka bat bigarren planoan geratzen joan zen.

1.198. 'Beti Gazte' dantza taldearen gainbehera (ZUM-115/015)

Aisialdirako aukerak areagotzen joan ahala, umeei gehiago kostatzen zitzairen dantzak ikastea. Normalean kiroletan ona zena dantzan ere ona izaten zen. Telebistak ugaritu ziren, futbol zelaia egin zen, musika banda hasi zen... 1998ra arte iraun zuen 'Beti Gazte'-k. Jubilatuen elkarteak 25 urte bete zituenean, kosta egin zitzairen ekitaldian dantza egiteko taldea osatzea. Orduan irakasten ibiltzen ziren gazteek ikasketak herritik kanpo egiten zituzten eta horrek ere zaildu egiten zuen taldearen jarraipena. Gainbeheraren arrazoiak.

1.199. Aisialdirako aukerak areagotuta, lokalekin arazoak (ZUM-115/016)

Lokal askotatik pasa zen dantza taldea. Eskolaz kanpoko ekintza gero eta gehiago zeuden eta lokalekin arazoak zituzten. Dantza taldearen ardurak nekatu egiten zuen eta askotan senar-emazteen artean haserreak ere sortzen ziren. Gaur egun gizartea aldatu egin da eta ezinezkoa da lehengo moduan funtzionatzea.

1.200. 'Beti Gazte' dantza taldearen sortzaileak eta alardeen antolakuntza (ZUM-115/018)

'Beti Gazte' dantza taldearen sorreran egon zirenak: Mari Pilar eta bere senarra, Inaxio Alberdi eta Mertxe Irureta izan ziren, batez ere. Gero hasierako haurretakoren bat ere ibili zen dantzak irakasten. Laguntza beti izaten zuten, alardeak antolatzeke, adibidez. Alardeak San Pedroetan egiten ziren eta 200 ume inguru etortzen ziren Zumaiara. Duela 46 urte hasi ziren kanpora irteten, beste herrietako alardeetara.

1.201. 'Beti Gazte' dantza taldearen emanaldi nagusiak (ZUM-115/020)

Dantza taldearen emanaldi nagusiak San Telmoetakoa, San Pedroetako alardea eta abuztuan Odieta frontoian izaten ziren. Alardeak 20 urtez egin ziren.

1.202. Lana eta kirolak, dantzaren "etsai" (ZUM-115/021)

13-14 urterekin lanera hasten ziren garai hartan, beraz dantza taldean hasten ziren umeek urte pare bat egin eta utzi egiten zuten. 6 urtetik aurrerako umeak hartzen zituzten taldean. Kirol eskaintza ugaritzen hasi zenean, batez ere mutilek utzi egiten zuten. Mutilak dantzara joatea ez zegoen oso ondo ikusia, gaur egun oraindik ere guztiz ez.

1.203. Ikurrinaren legeztatzea (ZUM-115/023)

Omenaldietan ere dantza egiten zuten baina gehienbat ikurrina legeztatu ondoren ugaritu ziren. Bigarren alabaz haurdun zegoen Mari Pilar eta aitarekin Azpeitira joan zen, San Sebastianetan udaletxean ikurrina nola altxatzen zuten ikustera. Aitak negar asko egin zuen. 1977ko urtarrilean izan zen.

1.204. Dantzarako materiala eta arropak (ZUM-115/024)

Dantzarako arropak egiteko oihalak Donostian erosi zituzten eta beraiek josi zituzten, Mari Pilarrek lan egiten zuen jostundegian. Ezpatak eta bestelakoak herriko jendeak egiten zituen. Udalaren diru-laguntzak jasotzen hasi zirenean materiala erosteko edo txistulariei afaria ordaintzeko dirua izaten zuten. Jantzi motak deskribatzen ditu. Jostundegiak 'Zubeldia' izena zeukan eta Amaia plazan zegoen.

1.205. Bi belaunaldi dantzak erakusten (ZUM-115/026)

Bi belaunaldi izan zituen ikasle, hasierako umeak eta haien seme-alabak gero. Hainbat anekdota: Forondako txakurra; irteerak autobusez.

1.206. Korrikarako zaletasuna (ZUM-115/028)

Korrikarako zaletasuna izan du. 40 urterekin jantzi zuen lehen dortsala herrian. Kiroldedia egin zutenean, emakume pila bat hasi zen bertan entrenatzen, baina gero kalera ateratzera ez ziren animatzen. Herri krosak antolatzen hasi zirenean, 3-4 emakume animatu ziren eta Mari Pilar 11 urtez jarraian atera zen. 51 urterekin utzi zion herrian ateratzeari, nahiz eta kanpoan ateratzen jarraitu. Bera korrika hasi zen urtean, 40 urterekin, egin zen lehen Lilatoia ere.

1.207. Ikastolaren sorreran laguntzaile (ZUM-115/030)

Ikastolari laguntzen ibili zen. Abade-etxean egon zen lehenengo ikastola. Bazkide kuota bat ordaintzen zen. Lehen andereñoa Eguzki Senosiain izan zen. Hasieran haur-eskola bakarrik zen.

1.208. "Herri zapaldu batean hazi ginen" (ZUM-115/031)

Frankismo garaia gogorra izan zen, baina hortik etorri zen gero euskal kulturaren berpizkundea. "Herri zapaldu batean" hazi zirela dio. Gaur egun euskarari dagokionez ez dagoela hainbeste kontzientzia uste du. Orain ez da ikusten borroka egiteko beharra, garai hartan bezala.

1.209. Gau-eskoletan euskaraz alfabetatzen (ZUM-115/033)

Euskaraz alfabetatzeko gau-eskoletara joaten zen Zarautzera. EGA titulua atera zuen. Nortzuk joaten ziren aipatzen du. Ahozko azterketa egiterakoan, aztertzaileak berehala antza eman zion ez zuela euskaren erabileran etenik izan, bere lagunek bezala.

1.210. Oikiako eskolan irakasle (ZUM-115/034)

Oikiako eskola txikian 5 urtez egon zen irakasle, eskolaurrean. Gustuko zuen baserri giroko umeekin egotea.

1.211. Romanenekuak (ZUM-116/002)

San Telmo kalean jaio zen Jexux, "Calle Pattarras" deitzen zitzaion orduan. Aitona Roman deitzen zen eta beraiek "Romanenekoak" ziren. Umetan hildako

osaba baten omenez jarri zioten Jexux Mari izena. 9 anai-arreba ziren eta berari "Roman zaharra" deitzen zioten.

1.212. "Txisteen etxea" (ZUM-116/003)

"Txisteen etxea" zen beraiena. Komiki asko zeuzkaten umetan: Jabato, Carpanta... Igandetako paga horretan gastatzen zuten. 9 anai-arreba zirenez komiki asko zeuzkaten. Lagunekin trukean ere ibiltzen ziren. Literaturarako zaletasuna hortik datorkie familiako kide batzuei.

1.213. San Telmo, arrantzaleen kalea (ZUM-116/004)

San Telmo kalean bazen emakume bat Eulali izenekoa. Behin Eulalik honela esan omen zion Jexuxen amari: "Padre decir: Eulali, mañana casar con este hombre". Eta hurrengo egunean ezkondu zen Eulali 16 urterekin, aitik bezperan aurkeztutako gizonarekin. Gizona barku bateko nagusia izaki, Eulalik barkua kargatzen jardun zuen ezkonduetako egunean bertan, marinelekin batean. San Telmo kalea arrantzaleen kalea zen.

1.214. Erreklamoan txoriak harrapatzen (ZUM-116/005)

Umetan "trenadioskak" jolasten zuten. Olagarrotara eta txoritara ere joaten ziren. Erreklamoak (txoriak harrapatzeko modua) nola izaten zen azaltzen du: zuhaixka bat moztu (arteak izan ohi zen), adar puntan brankiloa ipini, likaz igurtzi, kaiolak arbola azpian jarri... Eta han egoten ziren itxoiten, kaiolak txoriak beste txoriren bat erakarri eta likan itsatsita geratu arte. Brankiloa nolakoa zen azaltzen du.

1.215. Fraideen irakaskuntza "metodoa" (ZUM-116/006)

Eskola txikian ibili ondoren, mesedeetako fraideekin ikasi zuen, Ubillos jauregian. Haien metodoa esaldi batean laburbiltzen zen: "la letra con sangre entra". Zigortzeko belaunikatu, burua lurraren kontra jarri eta makilarekin ipurdian astintzen zituzten. Batxilerra arte ibili ziren hor.

1.216. 'Endañeta' harri-jasotzailearen lehen saiakerak (ZUM-116/007)

Mesedeetako fraideetan zebiltzala, jolas-ordua Beheko plazan egiten zuten. Eskola nazionalerako mutilak hortik pasatzen ziren. Haietako bat 'Endañeta' harri-jasotzaile ezaguna zen. Harri biribil bat egoten zen han eta 'Endañeta'k ezin hura altxatu gabe egon!

1.217. Guraso elkarteak sortutako akademia (ZUM-116/008)

Mesedeetako fraideekin zebiltzala, mutikoei ematen zieten tratua ikusita, orduko guraso elkarteak akademia bat sortu zuen. Irakasleak herrikoak ziren: Iñaki Sorazu "Zueltzu", Olaizola ("Xuxarrito"), Mari Pilar Beobide eta beste. Ikaskideen izenak ere esaten ditu. Tomas Mendizabal eta Manolito Urbietak aipatzen ditu; haiekin joaten zen erreklamoan. Eskolako pare bat anekdota barregarri kontatzen ditu.

1.218. Pío Barojaren eta Zumaiaren arteko harremana (ZUM-116/009)

Orduko guraso elkarteak akademia bat sortu zuen eta irakasleak herrikoak ziren. Baina irakasgai bat frankismoak ezarritakoa zen, "Formación del espíritu nacional" eta falangista batek ematen zuen. Erabiltzen zuten testua "Ángelus"

zen, Pío Barojarena. Hasiera oraindik gogoan du. Jexuxen iritziz, zumaierrei gertatutako naufragio batean oinarritu zen Baroja. Honi buruz daukan teoria azaltzen du.

1.219. 1960an itsasoak 6 mutil irentsi zituen (ZUM-116/010)

Jexuxen bi lagun, Tomas Mendizabal eta Manolito Urbietta, eskola profesionalera joan ziren. 1960ko azaroaren 15ean ezbehar handia gertatu zen Zumaian. Olatuek 7 mutil eraman zituzten paol aldean, bakarra atera ahal izan zuten bizirik, Rudi Holke arraunlariak erreskatatuta. Gogoan du nola eskolan batu zituzten gero, zein falta zen jakiteko. Tomas eta Manolito "itsasoak tragatu zituen". Egun horretako xehetasunak ematen ditu Jexuxek.

1.220. "El tren obrero" hartuta lanera (ZUM-116/011)

Batzilergoa bukatuta, 15 urterekin Zestoako 'Guztiok Bat' lantegian hasi zen lanean, Victoriano Zubizarretarekin batera. Gainontzeko langileekin batera "El tren obrero" hartzen zuten mutiko bakarrak ziren orduan.

1.221. Julio Beobideri omenaldia (ZUM-116/012)

16 urte ingururekin luistarretan sartu zen, batzordean. Xegundo Manterola presidentea zela uste du eta Joanito Dorronsoro, apaiza zela, elizak jarritako aholkulari. Batzordean zegoela, hiru gertakizun aipagarri ditu gogoan. Julio Beobide eskultorearen omenaldiaz dihardu pasarte honetan.

1.222. Luistarren 'Alkar-izketa' buletina (ZUM-116/013)

Luistarren batzordean zegoela, hiru gertakizun aipagarri ditu gogoan. Buletinaren argitaratzeaz dihardu pasarte honetan. Joanito Dorronsorok proposatuta erabaki zuten "Alkar-izketa" izeneko buletin bat ateratzea. Gehienek gaztelaz idazten zuten: Jesus Mari Larrazabal 'Tarzan', Josu Iñaki Alvarez Yeregi, Rufo Bidasoro... Gutxi batzuk euskaraz: Joanito Dorronsoro, Aristegi, Pello Etxabe eta Abelin Linazisoro. Luis Daniel Ispizuaren idatziak komunismoa goraipatzen zuen esaldi bat zeukan eta herrian sekulako zalaparta sortu zen. Orduan oso gutxi ziren euskaraz idazteko gai zirenak.

1.223. Orbegozo lantegiaren polemika (ZUM-116/014)

Zumarragako Orbegozo lantegiak Zumaian lantegia jarri nahi izan zuen, elizaren sail batean. Teodoro Bikuña zegoen orduan parroko eta gazteen esku utzi zuen erabakia. Luistarretan zegoen Jexux (18 urte inguru izango zituen) eta harremana zuen langile mugimenduekin. Klandestinoki mugitzen zen asanblada eta Zumarragako ordezkari batzuen bitartez, Orbegozo leku onean uzten ez zuen informazioa jaso zuen. Orbegozori lanpostuen berri jakiteko idatzi zieten orduan, eta hark bertan behera utzi zuen proposamena. Herritar asko haserretu ziren, lanpostu asko galdu zirelakoan. Gaur egun Ayra-Durex lantegia dago leku horretan.

1.224. Herri Gaztedi (ZUM-116/015)

Joanito Dorronsorok sortu zuen Herri Gaztedi gazte mugimendua Zumaian. Astero bilerak egiten zituzten. Gipuzkoa mailan Urretxun biltzen ziren. Langile borrokaren aldeko ekintzaileak ziren. Marxismoa eta kristautasuna uztartzen saiatzen ziren. Zumaiaiko gazteria gehiena Herri Gaztedik mugitzen zuen. Burgosko Prozesuaren kontrako borrokan Herri Gaztedik protagonismo handia izan zuen. Orduan Jexux ez zegoen Zumaian, Ferrolen soldaduska egiten

baizik. Gainbeheraren arrazoiak azaltzen ditu: elizak ez zuen onartzen Herri Gaztedik hartu zuen norabidea.

1.225. Panfleto bat idazteagatik atxilotuta (ZUM-116/016)

Herri Gaztedi mugimendua utzi eta urte gutxira Legazpiko Patricio Echeverria lantegian hasi zen lanean, forjan. Behin panfleto bat idatzi zuen, greba baterako dei eginez. 3 egunez atxilotuta eduki zuten; gero bi hilabete egin zituen espetxean, zigor handiagoa jarri zioten arren. Lantegitik lehen kaleratutakoa izan zen. Panfletoak nola idatzi behar diren, epitetuak lehenetsita.

1.226. Politikako urteak (ZUM-116/017)

ORT alderdian aritu zen liberatu, Bilbon. Arriaga Antzokian mitina emandakoa da, jende asko joaten zen. Baina hauteskundeetan ez zuten ordezkariarik atera. ORT desegin eta gero, euskaldun batzuek "Comité Central"-aren (PCE) azken batzarrera joan ziren Madrilera. Asanblada horretan autodeterminazio eskubidea planteatu zuten eta iskanbila handia sortu zen.

1.227. Dobera euskara elkarte eta idatzitako ipuinak (ZUM-116/018)

Hernanira ezkontuta zegoen eta bertako AEK-n eta Dobera euskara elkartearen hasi zen lanean. 'Kronika' egunkaria argitaratzen hasi ziren. Lehen kazetariak denak bertsolariak ziren. Estiloa aztertzeko eskatu zioten Jexuxi. IVAPen beka bat lortuta zeukan eta testuak aztertzen bazeukan esperientzia. Idatzien erritmoaz liburu bat atera zuen. Dobera elkartearen bitartez, munduko istorioak biltzen dituzten ipuin batzuk argitaratu zituen. Pandemia garaian (2020), "Bizitzeko irrika" liburua argitaratu zuen bere kasa.

1.228. Amets Arzallusen bertso batzuk (ZUM-116/020)

Gaur egungo egoera islatzen duten Amets Arzallusen bertso batzuk.

1.229. Munduko ipuinak (ZUM-116/022)

Dobera elkartearen bitartez, munduko istorioak biltzen dituzten ipuin batzuk argitaratu zituen. Hauetako istorio batzuk nondik jaso zituen kontatzen du: Saharakoa ("Chertat eta lehoia"), Armeniakoa ("Mozoloaren bidea") eta Senegalgoa ("Txori txikia eta krokodiloa"). Ikastetxeetara joaten ziren bi hizkuntzatan kontatzera.

1.230. Luistarretan sortutako euskarazko antzerkia (ZUM-116/024)

Luistarretan zebiltzala, euskarazko antzerki bat egitea pentsatu zuten. "Ertzaina etxean" izena ipini zioten. Aktoreak Jexux bera, Nati Lopetegui "Santiyo" eta Itziar Senosiain ziren; zuzendaria, berriz, Abelin Linazisoro, Estreinatu gabe geratu zen.

1.231. "Juanita pelukera" eta "Angel barberua" (ZUM-117/002)

Ama emakumezkoen ile-apaintzailea zen eta aita bizargina. Lokalak elkarren ondoan zeuzkaten, etxebizitzaren azpian, gaur egun Inpernupe dagoen inguruan. "Juanita pelukera" eta "Angel barberua" bezala ezagutzen zituzten. 2 ahizpa eta anaia ziren familian.

1.232. Garai bateko Erribera kalea (ZUM-117/003)

Txikitan beti kalean jolasean ibiltzen ziren. Aitaren lokal zaharrean Telefonicareen zentrala ipini zuten eta hor argia egoten zenez, hortxe jolasten zuten. Erribera kaleko eraikinak eta komertzioak aipatzen ditu banan-banan: Alondiga edo Oxford (gero eskola profesionala bihurtu zen), Foto Gar, Txikito Artadi (gaur egun Inpernupe), aitaren bizartegia, telefono zentralita. Beste aldean, "Patxineko etxea" (gaur egun Pulpo elkarte), Estalapea, Justa taberna (orduan El Ciervo), Galdona burdindegia, ikatz almazenak, luistarren eraikina, Cantábrico, Etxabe IV, okindegia.

1.233. Cantábrico tabernan izotza egiten zen (ZUM-117/004)

Cantábrico tabernak moila aldera patioa zeukan eta bertan askariak ematen omen zituzten. Izotza egiteko lokala ere bazeukan eta herritarrek izotz bila hara joaten ziren, orduan etxeetan izozkailurik ez baitzegoen.

1.234. Maitena zinema eta Hotel Zumaia (ZUM-117/005)

Gaur egun Aita Mari zinema dagoen lekuan Maitena zinema zegoen. Ez zeukan palkorik, behealdeko butakak eta galeria ("gallinero") bakarrik. "Acción Católica de Padres de Familia" elkarteak zabaldu zuen zinema. Kale amaieran Zubeltzuneko etxeak zeuden eta izkinan Hotel Zumaia eta aurrezki kutxa.

1.235. Maria eta Jose mojen eskola (ZUM-117/006)

Maria eta Jose mojen eskolara joan zen Mertxe. Gaur egun Kutxa dagoen lekuan zegoen. Patioa Erribera kale aldera zeukan. 14 urterekin laga zuen eskola, josten hasteko. Eskolako oroitzapen onak dauzka. Hala ere, euskaraz egiten bazuten zaplatekoa jasotzen zuten. Liburu guztiak gazteleraz zeuden. Ostegunetan gimnasia egiten zuten, praka urdinak eta blusa zuriarekin. Irakaslea falangista zen. Etxean eta kalean euskaraz egiten zuten.

1.236. Eskola erlijioari erabat lotuta (ZUM-117/007)

Eskolako errutina nolakoa zen: arrosarioa, meza, jostera... Larunbat goizetan ere joaten ziren eskolara eta ostegun arratsaldea jai izaten zuten. Gerora hori aldatu zuten. Etxepean jolasten zuten. Eskolatik prozesioak egiten zituzten eta Aste Santuan mezetara ere joaten ziren. Mantelina zuria eramaten zuten. Corpus Christi eguna.

1.237. Gaztetan mendira (ZUM-117/009)

Gaztetan mendiko irteerak egiten zituzten. Zarauzko Pagoeta Mendizale Elkartekoekin elkartzen ziren askotan. Horrela ezagutu zuen senarra. Ahizpa Arritxu eta beste bi lagunekin joaten zen gehienetan.

1.238. 'Beti Gazte' dantza taldearen sorrera (ZUM-117/010)

18 urte ingururekin, 'Beti Gazte' dantza taldea sortu zuten. Mertxe eta Maria Pilar Beobidek ikasi zuten aurrena, eta ondoren parrokiaren lokal batean besteei erakusten zieten. Geroago Zarauzko 'Ondartza' dantza taldetik etortzen ziren erakustera. Materiala ere Zarauztik ekartzen zuten: ezpatak, otarrak, uztaiak...

1.239. San Telmo egunean 'Beti Gazte' dantza taldearen debuta (ZUM-117/011)

San Telmo egun batez dantzatu zuten lehen aldiz, Estalapean, eskuz egindako ikurrina batekin. 1966. urtea zen. Dirua lortzeko, gabon egunean jaiotzarekin kantuan atera ziren. Han lortutako diruarekin jostundegian arropak egin zituzten. San Telmo egunean estreinatu zituzten.

1.240. Dantza taldearen entseguetarako lokala (ZUM-117/012)

'Beti Gazte' dantza taldearen hasieran, Zarauzko Ondartza dantza taldekoak etortzen ziren irakastera. Parrokiaren lokal batean entseatzen zuten, hilerriaren goialdean. Eskola txikia egon zen gero hor, dotrina ere ematen zen. Arropak lokal horretan gordetzen zituzten.

1.241. Dantza taldearen emanaldi nagusiak (ZUM-117/014)

'Beti Gazte' dantza taldearen emanaldi nagusiak: San Telmoetan, Oikian, Arroan, Beheko Plazan, Julio Beobideren omenaldia...

1.242. Igandero mendira (ZUM-117/016)

Gaztetan mendira joaten gozatzen zuten gehien. Ahizpa Arritxurekin eta beste lagun batzuekin joaten zen. Zarauzko Pagoeta elkartarekin batera joaten ziren.

1.243. Indamendi Mendi Bazkunaren sorrera 1973an (ZUM-118/001)

Zarauzko Pagoeta Mendi Elkarteko zuzendaritzan urteak eman zituen. Zumaiaiko Oargi Mendi Elkartarekin batera ibilaldiak antolatzen zituzten, zarauztarrek bakarrik ezin baitzuten autobusa bete. 1970ean Mertxe Iruretarekin ezkondu eta Zumaiaara joan zen bizitzera. Oargi ez zegoen federatua, elizaren babesean sortutako taldea zen. Joxeba eta bere lagunak federatzea beharrezkoa ikusten zuten, baina ez zuten nahi elizarekin loturarik. Federazioak eskatutako baldintzak betez, talde berri bat sortu zuten 1973an: Indamendi Mendi Bazkuna. Hasiera batean hiru mendi taldeak batera ibiltzen ziren.

1.244. 100 ume baino gehiago ibilaldietara (ZUM-118/002)

Indamendi Mendi Bazkunaren sorrerak harrera ona izan zuen herrian. Espeleologia eta eskalada ere egiten zituzten, bai helduekin bai hurrekin. 100 ume baino gehiago eramaten zituzten ibilaldietara. Ardura handia izaten zen, baina mendizaletasuna sortu zuten herrian. Orduko umeak orain seme-alabekin joaten dira mendira.

1.245. Umeekin bizitako komeriak (ZUM-118/004)

Ibilaldi neurtuetan ume mordoak biltzen zen. Eguraldi oso txarra egin zuen batean autobusa bidali zuten umeen bila. Bazkide egiteko txartelak egin behar ziren eta ume guztiei banan-banan argazkiak ateratzen ibili ziren Askizun (Getaria).

1.246. Urtean zehar ikastaroak egiten zituzten (ZUM-118/007)

Mapa eta iparrorratzarekin ibiltzen ziren orduan. Eskaladako materiala erabiltzeko urtean zehar ikastaroak egin behar izaten zituzten. Eskaladako arduraduna Juan Paredes 'Txiki' zen. Orientazioko ikastaroak ere egiten zituzten.

1.247. 'Foto Mertxe' argazki denda, Indamendi elkartearen "bulego" (ZUM-118/008)

'Foto Mertxe' argazki denda Indamendi elkartearen "bulego" bihurtu zen: bazkide-txartelak egiteko, ibilaldietan izena emateko...

1.248. Gorbean galduta (ZUM-118/009)

Gorbean galduta ibili ziren behin. 5 autobus joan ziren eta denek sakabanatuta bukatu zuten, zegoen laino itxiarengatik.

1.249. Dirua lortzeko txirlak zozketatu (ZUM-118/011)

Indamendi elkarte sortu aurretik, koinatuarekin eskalatzen ibiltzen zen Joxeba. Soka berria erosteko, erriotik txirlak atera eta zozketatu egin zituzten. Diru horrekin lehen nylonezko soka erosi zuten.

1.250. Materiala Bartzelonatik ekartzen zuten (ZUM-118/013)

Hasieran materiala eta arropa Bartzelonatik ekartzen zuten. Geroago Donostian hasi ziren erosten. Eskaladarako material asko beraiek egiten zuten.

1.251. Dirua lortzeko gabonetako saskiaren zozketa (ZUM-118/015)

Dirua lortzeko gabonetan saskia zozketatzen hasi ziren eta gaur egun jarraitzen dute. Mendiko argazki lehiaketa ere egiten zuten eta udalak ematen zien hori antolatzekeo dirua.

1.252. Indamendi eguna maiatzean (ZUM-118/016)

Maiatzeko 3. igandean Indamendi eguna ospatzen da. Umeentzat material mordoa zozketatzen zuten. Garai batean bezperan joaten ziren salda prestatzera. Beharrezko gauzak bizkarrean igotzen zituzten. Dantzariak, trikitilariak eta txistulariak egoten ziren.

1.253. Beste mendi elkarteekin harreman ona (ZUM-118/017)

Inguruko mendi elkarteekin harreman ona zuten. Egun berezietan autobus asko elkartzen ziren eta denek elkar ezagutzen zuten.

1.254. Kobazuloak esploratzen (ZUM-118/019)

Espeleologia egiten zuten. Itziarko kobazulo batean gertatutakoa.

1.255. Lagunen arteko bromak mendian (ZUM-118/020)

Mertxeren lehengusuari egindako bromak. Ondo pasatzen zuten mendian.

1.256. Ikurrina debekatuta (ZUM-118/021)

Mendiak eman diena: askatasuna, bakea, abertzaletasuna... Urbiako egunean ikurrina ikusi zutenean sentitutako emozioa, debekatuta zegoen garaian. Zumaian ere parrokian agertu zen ikurrina eta argazki hori salgai egon zen 'Foto Mertxe'-n.

1.257. Elizarekiko errefusa gaztetatik (ZUM-118/023)

Zarautzen eskolatik gertu bizi zen eta bertan ordu asko pasatzen zituen. Fraideek baratzea zeukaten han. Mateo Mugica gotzaina Zarautzen bizi zen desterratuta egon ondoren eta askotan Joxeba bidaltzen zuten hari barazkiak eramatera. Oso gazterik hasi zen elizarekiko zalantzak izaten. 13 urterekin Corpus Christi egun batean sagarapenaren momentuan alde egin zuen. Elizarekin "betekada" izan zutela dio, hainbeste meza eta betebeharrekin.

1.258. Joxeba eta Mertxe Urbian ezkondu ziren (ZUM-118/024)

Ezkontza berezia izan zuten. Urbian ezkondu ziren. Apaiza kartzelatik atera berria zen eta gerora ezkondu egin zen. Erlijioaren indarra. Zinera joan ahal izateko mezetan izan zirela esan behar zuten.

1.259. 'Plásticos Zarauz' lantegian lanean (ZUM-118/027)

Joxeba 14 urtera arte ibili zen eskolan eta ondoren gehienbat 'Plásticos Zarauz' lantegian egin zuen lan. Aurretik, udatan hoteletan mandatu-mutil moduan lan egiten zuen. Zarauzko lantegia utzi behar izan zuen, istiluak egon baitziren: 55 egun greban egon ziren, itxialdian.

1.260. 'Foto Mertxe' nolatan zabaldu zuten (ZUM-118/029)

'Plásticos Zarauz' lantegian zebilen bitartean, ikastaro ezberdinak egin zituen Joxebak. Argazkilaritza asko gustatzen zitzaion eta beste lagun batekin bere kasa laborategian argazkiak errebelatzen aritzen zen. Azkenean, ofizioan serio aritzea erabaki zuen. Mertxeren aitaren bizartegia izan zen lokalean ireki zuten 'Foto Mertxe'. Hura txiki geratu zitzaientean Erribera kalera aldatu zuten denda. Argazkilaritza eta markogintzan aritzen ziren. Neurritan egindako 25.000 marko dauzka zerrendatuta.

1.261. 'Foto Mertxe', denda bat baino gehiago (ZUM-118/031)

'Foto Mertxe' dendatik zumaia gehienak pasatuko zirela dio Joxebak. Denda bat baino gehiago zen: herri-mugimenduan sartuta zeuden.

1.262. Argazkilaritzaren bilakaera (ZUM-118/032)

Markoak hasieran eskuz egiten zituzten eta pixkanaka makinak erosten hasi ziren. Urtero joaten ziren azoketara. Lokalaren behealdean tailerra zuten eta goialdean estudioa, laborategia eta denda. Argazkilaritzaren bilakaera; analogikotik digitalera. 2007an itxi zuten denda, ireki berriz 1974an.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-05

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com